

Nikolai Gogol

Arima hilak

euskaratzailea: Jose Morales Belda

HITZAURREA

Nikolai Vasilievitx Gogol 1809an jaio zen, Ukrainako Sorotxinski herrian, eta 1852an hil, Moskun. Errusiako idazlerik gogoangarrienetako bat da eta, Lermontovekin eta Pushkinekin batera, hasiera eman zion Errusiako literaturaren loraldiari. Hain zuzen ere, *troika* paregabe horrek ezarri zituen errusierazko prosa modernoaren oinarri eta zutabeak. Hala Lermontovek nola Gogolek maisutzat eta gidaritzat zeukaten Pushkin handia. Gogol eta Pushkin, gainera, adiskide minak izan ziren, Gogolek lan ugari argitaratu zituen Pushkinetik zuzentzen zuen *Garaikidea* literatur aldizkarian, eta Pushkinetik, berriz, *Ikuskatzailea* komediaren eta *Arima hilak* eleberriaren gaiak iradoki zizkion Gogoli. Gogol eleberrigile eta antzerkigile paregabea izan zen, eta berebiziko eragina izan zuen Errusiako literaturan. «Longainetik sortu gara denok», esan zuen Turgenievrek, eta Dostoievskik bat egin zuen iritzi horrekin. Hasieran, eskola errealistaren aitalehentzat hartu zuten denek. Hainbat belaunaldi

geroago ohartzen hasi ziren oker zeudela: Gogolek ez du errealtatea bere horretan jasotzen; aitzitik, bere kezka existentzialen talaiatik begiratzen dio, eta zeharo antzaldutzen du bere ikuspegi arragoan. Hain zuzen ere, errealtatearen eta ametsen arteko gatazka dugu Gogolen obraren gai nagusietako bat. Kritikari askok erromantikotzat jotzen dute, eta biziki miresten dute amets eta ikuskari fantastikoen sortzaile gisa, fantasiar eta misterioz oparo hornituriko istorioen narratzaile mistiko gisa.

Euskal irakurleak, Xabier Mendiguren Bereziartu itzultzailearen lanari esker, aukera du Gogolen obrarik onenetako bi euskaraz irakurtzeko: *Longaina* eta *Sudurra*, hain zuzen ere. Idazlearen bizitzari eta obrari buruzko datu ugari eta zehatzak aurkituko ditu bi argitalpen horietan, baita, besteak beste, Juan Kruz Igerabidek «Longainapetik jaioak» izenburuarekin *Longaina* obrari eginiko hitzaurre ederra ere. Labur beharrez, beraz, eta kontuan izanik Lermontovek esan zuela irakurleek ez dituztela hitzaurreak irakurtzen, horra igortzen dut irakurle jakingura, bi maisulan zoragarri horietaz gozatzeaz gain

bere egarria iturri horretan ase dezan, horri esker *Arima hilak* obrari buruz luzeago jarduteko aukera izango baitugu orriotan.

Gogolek hamazazpi urte eman zituen *Arima hilak* idazten. Erditze mingarria izan zen, eta, gainera, elbarri jaio zen haurra. 1835ean ekin zion lanari, eta 1841ean amaitu zuen lehen tomoa, Erroman bizi zelarik. 1842an argitaratu zuten, Errusian. Zentsurak pasarte batzuk eta izenburua bera aldarazi zizkion, eta, horrenbestez, *Txitxikoven abenturak*, edo *Arima hilak* izenburuarekin kaleratu zen. Lehen tomo hori lurrikara baten antzekoa izan zen, bortizki inarrosi zuen errusiarren gogoia, ordu arte sekula ez baitzen idatzi Errusiako gizartearen hain kritika zorrotz, gordin eta mingarririk. Garai hartako intelektual aurrerazale guztiek sutsuki goraipatu zuten Gogol, eta beren «buruzagi»tzat hartu zuten. Hala ere, 1839tik aurrera bi krisi gero eta larriagok astindu zuten behin eta berriro Gogolen barrena: sormenaren krisiak eta arimaren krisiak. Lehen aipatu dugun hitzaurre horretan Juan Kruz Igerabidek dioen bezala, «sormena Gogolentzat obsesioa izan zen bere bizitza litera-

rioan; eta obsesio horrek gogoan jan zion pittin-ka». Erabateko mistizismoan eta erlijiozkotasun sakon batean murgildu zen, bizitzaren zentzua aurkitu ezinik, eta oso jarrera kontserbadoreak hartu zituen. Bere ondasun eta etxalde guztiak eman zizkien amari eta arrebei, bere diru guztia banatu zuen Erromako eskaleen artean, ez zuen bizitzeko gogo-izpirik ere, bere burua zaintzeari utzi zion eta baraualdi luzeak egiten zituen. Agonia luze baten modukoa izan zen. Eta barru-barruko aldaketa horrek, jakina, eragina izan zuen haren obran. 1845ean, lana aurrera eramanezinik, behar zituen pertsonaia «positibok» sortu ezinik, kapituluak behin eta berriro berridatzi eta aldatu ondoren, etsia harturik, gogo-erorita eta gaixorik, bigarren tomoaren eskuizkribua erre zuen. Dena dela, urte horren amaieran hobera egin zuen haren osasunak — hala gorputzarenak nola arimarenak— eta berriekin zion lanari. 1847an *Adiskideei idatziriko gutunetako pasarte hautatuak* liburua argitaratu zuen eta, saiakera politiko eta filosofikoen bilduma horretan, *Ikuskatzailea*-n eta *Arima hilak*-en salatu zuen guztia aldeztu zuen: autokrazia,

joputasuna, heriotza-zigorra, Eliza ortodoxoa, otzantasuna, esanekotasuna, morroitasuna... Hori ikusirik, Errusiako intelektual aurrerazaleek zorrotz kritikatu zuten, eta, besteak beste, «zar-tailuaren predikaria eta buru-iluntasunaren apostolua» deitu zion Belinski literatur kritikari ospetsuak. 1848an erromes joan zen Jerusalem. Moskura itzultitakoan, *Arima hilak*-en bigarren tomoa idazten jarraitu zuen, baina sormen-krisi latz batean hondoratu zen berriro, idatzita-koak ez zuen gogobeterik uzten eta hainbat aldiz berridatzi zituen atzera bigarren tomoko kapituluak. Gero eta goibelago zegoen, haren mistizismoa gero eta sakonagoa zen, eta depresioak, berriz, etengabeak. Gogoaren beheraldi hondogabe horietako batean, 1852ko otsailaren 11tik 12ra bitarteko gauean, *Arima hilak*-en bigarren tomoaren eskuizkribua erre zuen, eta hamar egun geroago hil zen (1852ko otsailaren 21ean), baraualdi luzeak ahiturik, erlijio-estasi atergabe batean murgildurik, mundu honetan irauteko gogorik gabe.

Gogolek bere bizitzako lan nagusitzat zeukan *Arima hilak*. «Errusia osoa egongo da ordezkatu-

rik liburu horretan», esan zuen. Hiru tomo idazteko asmoa zuen: lehen tomoan, Errusiako errealitatearen infernua erakutsi nahi zuen; bigarrenean, berriz, purgatorioa; eta hirugarrenean, azkenik, paradisia (Danteren *Jainkotiar Komedia* errusiar erara, nolabait esatearren). Baina ez zuen bere helburua erdietsi. Irten zen infernutik, saiatu zen purgatorioa igarotzen, baina bere barruko infernuko sugar ikaragarrietan erre zen, paradisura iritsi gabe. Lehen tomoa bakarrik amaitu zuen. Eta, hain zuzen ere, Gogolen asmoen arabera, lehen tomo hori sarreramoduko bat baino ez zen. Beste bi tomoak izango ziren obraren atal nagusia. Gogolek esan zenez, lehen tomoa «jauregiko zurubia» baizik ez zen, eta «jauregi erraldoia» eraiki nahi zuen.

Liburua argitaratu zenean, orduko Errusiaren «entziklopedia»tzat hartu zuten askok, batez ere atzerrian. 1846an, esaterako, obraren alemanierazko itzulpena argitaratu zen, eta itzultzaileak *Herri-liburu errusiarra* jarri zion izenburu. Baina, irakurle arretatsua aise ohartuko denez, liburu honek errealitatearen isla zehatzarena bainoago amesgaizto batena du antza. Gogolek errealita-

tea itxuragabetzen du etengabe, hiperboleen bidez, gorabehera xeheei eta denetariko bitxikeriei berebiziko pisua emanaz, zeharo zentzugabeak diruditen deskribapenak eginez, errealitatea esperpentoraino eramanez. Pavel Ivanovitx Txitxikov, obrako protagonista, herriz herri dabil bere «negozio» bitxia egiten, eta, bidaia horretaz baliaturik, askotariko pertsonaiak erakusten dizkigu Gogolek. Gizakiaren estereotipoak dira, oso ironia zorrotzez eta gupidarik gabe begiratuak; hor aurkituko dugu lurjabe zabar arduragabea, etxekoandre goganbehartsua, gazte festazale txoriburua, lurjabe zekena, administratzaile alferra, funtzionario ustela, agintari zorrotz errukigabea, aberats okitua, burokrata grisa... Gogolek ez digu bere horretan erakutsi nahi garai hartan zertan zen Errusia, errusiarrak, landako bizi-modua, hiriko bizitza, burokrazia... Pertsonaien izaerari begiratzen dio, eta izaera hori unibertsa-la da, beste edozein herritan eta beste edozein garaitan aurki genezake horrelakorik.

Vladimir Nabokovek esan zuenez, *Arima hilak* poema epiko izugarria da, eta, hain zuzen ere, horrelaxe deitu zion Gogolek liburuari, «poema»

alegia. (Navokovek hirurogei orrialdeko saiakera luze bezain interesgarria idatzi zuen obra honi buruz, eta sutsuki gomendatzen diot irakurle jakingurari. *Curso de literatura rusa*. Ediciones Grupo Z. Madril. 1997.)

Lehentxeago esan dugunez, Gogolek hainbat bider berridatzi zituen bigarren tomoko kapituluak. Diotenez, gogoko ez zituen aldaerak soilik erre nahi zituen, baina, ohartu gabe, orijinala ere bota omen zuen sutara. Kontua da bost kapitulu bakarrik geratu zirela, bost kapitulu horien aldaera edo zirriborro desberdinak. Hori gutxi balitz, zirriborroak zirenez, zuzendu gabe zeuden, hainbat hitz irakurtezinak edo irakurgaitzak ziren, orriak falta ziren, hainbat esaldi amaitu gabe zeuden... Horrek, nola ez, buruhauste handiak eman zizkien argitaratzaileei. Errusian, bost kapitulu horien lehen aldaera («goiztarrena», alegia) hobetsi dute, hango adituen ustez aldaera hori baita osoena eta egokiena, eta hori hartu dute eskuizkributzat. Bigarren tomoa 1855ean argitaratu zen lehen aldiz, eta, harrezkerotik, «lehen aldaera» hori argitaratu dute beti, hala idazlan guztien bilduman, nola idazlan hauta-

tuen bilduman zein *Arima hilak*-en banako argitalpenetan. Guk, bada, «lehen aldaera» hori euskaratu dugu, Khudojestvenaia Literatura argitaletxeak 1993an Moskun plazaraturiko argitalpenetik. «Eskuizkribuan» hitz asko irakurgaitzak edo irakurtezinak zirenez, adituek Gogolek zer idatzi zuen «asmatu», eta argitaletxeek taket artean ipini dituzte hitz horiek. Halaxe egin dugu guk ere, ulergarritasunaren mesedetan.

Jose Morales Belda

LEHEN TOMOA

Lehen kapitulua

NN probintzi hiriburuko ostatuko gurdi-atetik zaldi-kotxe txiki eta nahikoa polit bat sartu zen, baleztaduna eta arina, mutilzaharrek, hala nola teniente koronel erretiratuek, kapitainordeek edo nekazari-lanetan ehun arima inguru dituzten lurjabeek, hitz gutxitan, erdi-mailako jaunak deritzetenek erabili ohi dituzten britxka horietako bat. Britxkaren barruan jaun bat zegoen, ez ederra, baina eite itsusikoa ere ez, ez lodiegia, ez argalegia; ezin esan zaharra zenik, ezta gazteegia zenik ere. Haren iristeak ez zuen inolako oihartzunik izan hirian; ez zen ezer berezirik gertatu; soilik bi mujik errusiarrek, ostatuaren aurrez aurreko tabernako atean baitzeuden, zertxobait esan zuten kotxeaz, hitz-erdirik ez, ordea, barruan zihoanaz.

— Begira nolako gurpilak! —esan zion batak besteari—. Zer uste duk?, behar izanez gero, Moskuraino iritsiko lirateke?

— Bai —erantzun zuen besteak.

— Eta Kazan-eraino? Ezetz uste diat nik.

— Ez, Kazaneraino ez lituzkek iritsiko —erantzun zuen besteak.

Horrelaxe amaitu zen elkarrizketa. Eta geroxeago, ostatura hurbildu zenean, britxkak mutil gazte batekin egin zuen topo. Kotoizko galtza zuriak zeramatzan, oso estuak eta laburrak, eta frak moda-usteko bat, zeinaren azpian alkandoraren paparrekoa ikus baitzitekeen, brontzezko pistola baten irudia zeukan orratz Tulako batez loturik. Atzerantz jiratu zen mutil gaztea; kotxeari begiratu, eskuaz kapeluari heldu, haize-bolada baten eraginez galtzeko zorian egon baitzen, eta bere bideari jarraitu zion.

Kotxea patioan sartu eta batera, ostatuko morroia —edo *polovoia*, Errusian horrela deitzen baitiete ostatuetako zerbitzari— jaunari harre-
ra egitera irten zen. Hain zen bizia eta ipurtarina mutila, ezen ez baitzegoen aurpegia nolakoa zuen atzematerik ere. Lasterka hurbildu zen, ezpainzapia eskuan. Luzea zen oso, eta lihozko jaka luze bat zeukan jantzirik, bizkarraldea ia garondoraino bertaraino iristen zitzaiola. Ilea inarrosi, eta bizkor eraman zuen jauna zurezko mailadian gora, berarentzat bereizia zuten gela

erakustera. Gela hura tankera jakin batekoa zen, zeren ostatua bera ere tankera jakin batekoa zen, probintzi hiriburuetako ostatu guztien molde berekoa alegia. Horrelako ostatuetan, eguneko bi errublo ordaindurik, gela eroso ematen diote bidaiariari; hori bai, aranpasa adinako labezomorroak azaltzen dira zoko-bazter guztietan, eta, komodak bidea ixten badu ere, beti egoten da aldameneko gelara ematen duen ate bat, eta gela horretan ostatu hartu duen gizona isila eta lasaia izan ohi da, baina izugarri ikusnahia, eta berebiziko interesa erakusten du bidaiariaren gaineko xehetasun guztiak jakiteko. Ostatuaren kanpoko aldea barrukoaren tankera berekoa zen. Oso fatxada luzea eta bi solairu zituen; behekoa ez zegoen kareztaturik, eta, halatan, agerian zituen adreilu gorri ilunak, berez zikin samarrak eta eguraldi-aldaketa latzek areago ilunduak; goiko solairua, berriz, ohiko kolore horiaz margoturik zegoen. Ostatuaren beheko aldean denda txiki batzuk zeuden, non sokak, uztai-formako ogitxoak eta zamarienezako lepokoak saltzen baitzituzten. Kantoiko dendatxoan, edo, zehatzago esanik, dendatxoko

leihoan, sbiten-saltzailea jarri ohi zen, kobre gorrizko samovarra aldamenean zeukala. Saltzailearen aurpegia samovarra bezain gorria zen, hainbesteraio, ezen, bi samovar haietako batek bizar bikea bezain beltza izan ez balu, urrunetik ikusirik edonork pentsa baitzezakeen leihoan bi samovar zeudela.

Jaun iritsi berriak gela aztertzen zuen bitartean, bere puskek igo zizkioten: aurrena, larruzko maleta zuri bat, higatuxea, erabiltzen zuen lehenbiziko aldia ez zelako seinale. Selifan kotxezainak eta Petrushka lekaioak igo zioten maleta. Selifan moztaka zen eta ahari-larruzko beroki luze batez jantzirik zegoen. Petrushkak, berriz, hogeita hamar urte inguru zituen eta soinean jaka lasai bat zeraman, maiztua, behinola nagusi jaunak erabilia noski; sudur handia eta ezpain lodiak zituen, eta zakar samarra ematen zuen lehen begiratuan. Maletaren ondotik, gainerako puskek igo zizkioten: kaobazko kutxa bat Kareliako urki-zurezko apaingarriz edertua, zapata-orkoiak eta paper urdinean bilduriko oilo erre bat hurrenez hurren. Hori guztia nagusi jaunaren gelan utzitakoan, Selifan kotxezaina ukui-

lura joan zen zaldiez arduratzera, eta Petrushka lekaioak bere gauzak antolatzeari ekin zion ate ondoko gela txiki, oso ilunean. Ordurako, hara eramana zuen bere longaina eta, harekin batera, bere usain berezia, lekaio-jantziak gordetzeko erabiltzen zuen fardelari ere itsatsirik. Gela ziztrin horretan, hiru hankako ohe estu bat hormara hurbildu, eta lastaira-antzeko bigungarri txiki bat ipini zuen gainean, taloa bezain zapal eta mehea, eta, nonbait, eske eta eske ibilita ostatuaren jabearengandik lortu zuen opila bezain koipetsua.

Bi zerbitzariak dena antolatu eta beren zereginak egiten zituzten bitartean, areto nagusira jaitsi zen jauna. Bidaiariak ondo asko dakite nolakoak izaten diren ostatuetako areto horiek: guztietan horma berdinak, olio margotuak, goialdean pipen keak belztuak eta behealdean, berriz, distiratsuak hala bidaiarien nola, batez ere, bertako merkatarien bizkarrek egiten dizkieten igurtzien ondorioz, zeren eta, azoka-egunetan, hara biltzen dira merkatariak, zazpinaka edo zortzinaka, ohiturari jarraiki bina katilu te edatera; guztietan keak belzturiko sabai berdina; guz-

tietan argi-armiarma kedartu berdina, eta, handik goitik zintzilik, beiraki ugari, zeinak dardaraz eta tintinka hasten baitira ostatuko morroia lino-
lioeko zoru higatutik lasterka igarotzen den bakoitzean, itsasertzean txori den adina te-kikaraz beteriko erretiluari trebetasun handiz eusten diola; hormetan margolan berdinak beti, olio pintatuak. Hitz batean, aretoa beste edozein ostatutakoa bezalakoxea zen; desberdintasun bakarra zegoen: margolanetako batean ninfa bat ageri zen, eta hain bular handiak zituen, ezen irakurleak, inondik ere, sekula ez baitu horrelakorik ikusi. Dena dela, historiako irudiak agertzen dituzten hainbat margolanetan ikus daiteke naturaren bitxikeria hori. Ez dago jakiterik margolan horiek noiz, nondik eta nork ekarririk iritsi ziren Errusiara; haietako batzuk gure handikiek ekarriak dira: artezaleak izaki, Italian erosten zituzten hango gidarien aholkuei jarraiki. Jaunak, kapelua erantzi, eta lepo inguruan bildurik zerman artilezko zapi ñabarra askatu zuen. Gizon ezkonduari emazteak josten dio horrelako zapia, eta, gainera, zehatz-mehatz erakusten dio nola jantzi behar duen; ezkongabeari, ordea, ezin

asma dezaket nork egiten dion, batek daki, nik ez dut-eta horrelakorik erabili inoiz. Lepozapia askatutakoan, bazkaria ekartzeko agindu zuen jaunak. Ostatuetan zerbitzatu ohi dituzten jakiak ekartzen hasi ziren: aza-zopa eta hostorezko pasteltxoak —zenbait astez bidarientzat bereziki gorderik izaten baitituzte—, garunak ilarrekin, saltxitxak azalorearekin, labean erretako oilanda galkatua, luzoker gaziak eta, beti bezala, hostorezko gozopila —zerbitzatzeko prest edukitzen baitute gau eta egun. Berriz beroturik edo besterik gabe hotz jaki horiek guztiak zerbitzatzeko zizkioten bitartean, jaunak ostatuaren gaineko gorabehera guztien berri jakinaraztera behartu zuen zerbitzaria: nork gobernatzen zuen lehen eta nork orain, ea etekin handiak ematen zituen, ea jabea oso zitala zen. Morroiak, ohi denez, honela erantzun zion: «Bai, jauna, alproja galanta da». Nola Europa zibilizatuan hala Errusia zibilizatuan ere, gaur egun bada jende itzaltsu franko zerbitzariekin hizketan aritu ezean ostatueta jateko gai ez dena; batzuetan, jostatze aldera, barre ere egiten dute haien lepotik. Hala ere, iritsi berriaren galdera guztiak ez ziren hain funs-

gabeak izan; berebiziko zehaztasunez galdetu zuen nor zen hiriko gobernadorea, nor Ganberako burua, nor prokuradorea; labur esanik, ez zuen aipatu gabe utzi funtzionario nagusietako bat bera ere; baina are zehaztasun handiagoz eta interes bizia erakutsiz egin zuen lurjabe garrantzitsu guztien galdea: bakoitza zenbat arimaren jabe zen, hiritik urrun ala hurbil bizi zen, nolako aiurria zuen eta ea sarritan inguratzen zen hirira; jakinminez galdetu zuen nolakoa zen lurraldeko egoera: ea probintzia hartan bazegoen gaitzen bat zabaldurik, hala nola sukar-epidemiaren bat, edonolako sukar hilgarririk, nafarria edo bestelako eritasunik. Hain zorrotz eta zehatz egin zuen horren guztiaren galdea, ezen jakinmin hutsa baino zerbait gehiago erakusten baitzuen. Jaun hura zorrotza zen bere maneretan, eta izugarri ozenki zintz egiten zuen. Ez dago jakiterik nola moldatzen zen, baina sudurraz ateratzen zuen zaratak turutaren hotsa ekartzen zuen gogora. Antza, guztiz berezkoa eta xaloa zuen berezitasun hori, baina, hala ere, begirune handia pizten zion ostatuko morroiari, zeren, hots hori entzuten zuen bakoitzean, ilea

inarrosi, are gizabidetsuago tente jarri, eta, bere luzean burua makurturik, ea zerbait behar zuen galdetzen zion. Bazkaldu eta gero, katilu bete kafe edan, eta dibanean eseri zen jauna. Bizkarraren atzean bigungarri bat ipini zuen, barruan artile harroa eduki beharrean Errusiako ostatu-tan adreiluaren edo harri-koskorraren antz ikaragarria duen gai batez beterik egon ohi diren kuxin horietako bat, hain zuzen. Aharrausika hasi zen berehala, eta agindu zuen bere gelara lagun ziezaiotela; ohean etzan, eta bi orduko loaldia egin zuen. Atsedean hartutakoan, eta ostatuko morroiak hala eskaturik, gizarte-maila eta izen-deiturak idatzi zituen paper-puska batean, poliziari horren berri jakinarazi beharra zegoen eta. Morroiak, zurubian behera zihoala, honakoa irakurri zuen, silabak ondo ebakiz: «Pavel Ivanovitx Txitxikov, kolejio-kontseilaria, lurjabea, neure zereginetarako etorria». Artean ere morroia paperean idatzitakoa silabaz silaba irakurtzen ari zela, Pavel Ivanovitx Txitxikov bera hiria ikustera joan zen. Itxuraz, gogobeterik utzi zuen ordu arte ikusitakoak, probintzietako beste edozein hiribururen pareko iritzi zion eta:

harrizko etxeetako pintura horiak biziki minbera-
tzen zituen begiak, eta zurezkoen kolore grisak
apaltasunez agertzen zituen bere tonu ilunak.
Etxeak solairu batekoak, bikoak zein bat eta
erdikoak ziren, eta guztiek, ohi bezala, ganbara
zuten, polit-polita probintziako arkitektoen iri-
tziz. Leku batzuetan, bazirudien etxeak galdurik
zeudela zelaia adinako kale zabalaren eta zurez-
ko hesi azkengabearen artean; beste toki
batzuetan, ordea, estu-estu pilaturik zeuden, eta
bizitasun handiagoa eta jende-mugimendu
gehiago atzematen ziren han. Euriak ia ezabatu-
riko horma-irudiak ikus zitezkeen nonahi:
hemen, botak eta zortzi-itxurako opilak zeuzka-
ten pintaturik; hor, berriz, galtza urdinak Arsho-
viako jostun baten sinaduraren alboan; han,
kapeluak eta txanoak saltzen zituen denda bat
ageri zen, idazpuru honekin: «Vasili Fiodorov,
atzeritarra»; harago, billar bat zegoen pintatu-
rik, eta bi jokalaria, gure herrialdeko antzokietan
azken ekitaldian eszenatokira igo ohi diren gon-
bidatuek soinean eramaten dituzten frak horie-
takoak jantzirik. Irudiko jokalariek bola jotzeko
prest zeuzkaten billar-makilak, apur bat atzera-

turik besoak eta okerka hankak, airean entrenchat bat markatu berri balute bezala. Irudiaren azpian honakoa zegoen idatzirik: «Hau toki ederra!». Han-hemenka, mahaiak zeuden kalean bertan zabaldurik, intxaurrekin, xaboiarekin eta xaboiaren antzeko gozopiltxoekin; bazter batean jatetxe merke bat zegoen, sarreran arrain handi bat eta, arrainean iltzaturik, sardexka bat pintaturik zeuzkana. Beste edozer baino sarriago, bazter guztietan ageri ziren, belzturik, buru biko arranoak, Estatuaren ikurra. Gaur egun, idazkun labur hau dago haien tokian: «Edaritegia». Galtzada kaskarra zen leku guztietan. Txitxikovek, orobat, sartu-irten bat egin zuen hiriko lorategian. Hango zuhaitzak meheak ziren, txarto erro-turik zeuden eta beheko aldean triangelu-formako euskarriak zituzten, oso ederki margotuak olio berdez. Dena dela, nahiz eta zuhaitz gazte haiek kanabera baino garaiagoak ez izan, hone-la mintzatu ziren haietaz egunkarietan, kaleko argiztapena deskribatzen ari zirela: «Alkatearen ardurari esker, bero sargoriko egunetan itzal hozkirria egingo duten zuhaitz mardul eta hostotsuz jantziriko lorategia ezarri digute hiriaren

edergarri», eta erantsi: «Oso hunkigarria izan da ikustea nola hiritarren bihotzek dar-dar egiten zuten esker onez gainezka, eta nola jendea mal-kotan urtzen zen hiriko gobernadore jaunaren alderako ezagutza erakusteko». Txitxikov, kale-zain bati zehatz-mehatz galdeturik hara behar izanez gero zein zen biderik laburrena katedrale-ra, Estatuaren bulegoetara eta gobernadorearen egoitzara joateko, ibaiari begiratu bat ematera joan zen, erdi-erditik zeharkatzen baitzuen hiria; bidean zihoala, zutabe batean iltzaturik zegoen afixa bat hartu zuen, ostatura iritsitakoan patxadaz irakurtzeko; soinean librea militarra eta eskuan fardel txiki bat zeraman mutiko bat atzetik jarraika zuela zurezko espaloitik zihoan dama itxura polit samarreko bati adi-adi so egin, eta, leku hartako xehetasun guztiak gogoan ondo gorde nahi balitu bezala, inguru osoa arakatu zuen berriro begiekin; gero, ostatura itzuli, eta zuzenean igo zen bere gelara, zurubian gora ostatuko morroiak besotik leunki eusten ziola. Ase arte tea edan ondoren, mahaiaren aurrean eseri zen; kandela bat emateko agindu, afixa sakelatik atera, kandelara hurbildu, eta irakur-

tzen hasi zen, eskuineko begia apur bat txilotu-rik. Afixan, ordea, ez zegoen gauza ohargarri askorik: Kotzebue jaunaren drama bat antzezten zuten, Popliovin jaunak Roll-en papera jokatzeko zuten eta Ziablova andereñoak, berriz, Kora-rena; gainerako aktoreak are ospe apalagokoak ziren; hala ere, guztien izenak irakurri zituen, plateako aulkien prezioraino iritsi zen, eta iragarkia probintziako administrazioaren tipografian inprimatu zutela jakin zuen; gero, atzekoz aurrera jarri zuen orria, ifrentzuan ezer idatzirik ba ote zegoen ikustearren, baina, ez zuenez ezer aurkitu, begiak igurtzi, papera txukun-txukun biribilkatu, eta kutxan sartu zuen, kausitzen zituen bitxikeria guztiak hor gordetzeko ohitura zuen eta. Eguna amaitzeko, txahalki-puska hotz bat eta litro erdi aza-zopa mikatz zerbitzatu zizkioten; eta gero, lo astun batek hartu zuen, edo, Errusia zabaleko alderdi batzuetan esan ohi dutenez, harriak bezala lo egin zuen.

Biharamunean, bisitaz bisita eman zuen egun osoa; iritsi berriak hirian ziren goi-mailako funtzionario guztiei egin zien bisita. Aurrena, gobernadorearen etxera joan zen gizalegezko diosalak

egitera. Txitxikov bezala, gobernadorea ez zen ez lodia eta ez argala, Santa Anaren ordenako gurutzea zeraman lepoan eta, ziotenez, izarra ere ematekotan zeuden; bestetik, on hutsa zen, eta, batzuetan, brodatuak egiten zituen tulean. Hurrena, gobernadoreordea agurtzera joan zen, eta gero, prokuradorea, ganberaburua, polizia-burua, zerga-biltzailea, Estatuaren fabriken zuzendaria..., tamalez, zail samarra da mundu honetako handi-mandi guztiak gogoan gordeztea; baina aski izango da esatea iritsi berriak egundainoko ganora erakutsi zuela bisitak egiteko orduan: osasun-batzordeko ikuskatzailearenera eta udal-arkitektoarenera era joan zen giza-legezko diosalak egitera. Eta gero, denbora luzea eman zuen britxkan eseririk, hausnarrean, ea beste inor ikustera joan behar ote zuen, baina hirian ez zen beste funtzionarioirik. Handiki haiekin guztiekin izaniko elkarrizketetan, trebetasun handiz asmatu zuen haietako bakoitza balakartzeko modua. Gobernadoreari, iragaitzaz bezala adierazi zion beraren probintziara iristea paradisuaren sartzearen pareko zela, bideek belusezkoak ematen zutela, eta hain agintari zentzudunak

hautatzen zituzten gobernuek laudoriorik handienak merezi zituztela. Poliziaburuari, berriz, oso gauza lausengarriak esan zizkion hiriko kalezainen gainean; eta gobernadoreordearekin eta ganberaburuarekin mintzatzean, okertu eta, artean estatu-kontseilariak besterik ez baziren ere, «Jaun Goren hori» esan zien bi aldiz, eta haiek oso ondo hartu zuten hanka-sartzea. Horren ondorioz, egun hartan bertan haren etxean izango zen gau-jaira gonbidatu zuen gobernadoreak; eta gainerako funtzionarioek ere, nor bere aldetik, antzeko gonbitak egin zituzten: bazkaltzekoa batek, bostonean jokatzekoa beste batek, tea hartzekoa hirugarren batek.

Iritsi berriak saihestu egiten zuen bere buruaz luze mintzatzea, eta, hitz eginez gero, zuhurtasun nabarmenez jokatzeko zuen, betiko leloak soilik esanez. Halakoetan, liburuetatik hartuak ziruditen esaldiez hornitzen zuen bere jarduna: mundu honetako har herrestatu bat baik ez zela eta ez zuela merezi jendeak beraren alderako ardura handirik erakustea, denetarik gertatu zitzaiola bizitzan, gorriak ikusi zituela justiziaren zerbitzuan aritzeagatik, etsai asko

zituela eta bizia kentzen saiatu zirela behin baino gehiagotan, eta orain, azkenean, lasaitasuna nahi zuela eta leku egoki baten bila zebilela bertan bizitzen jartzeko, eta, hiri horretara iritsirik, ezin baztertuzko betebehartzat jo zuela bertako handiki guztiei gizalegezko diosalak egitera joatea. Horra hor heldu eta berehala gobernadorearen jaira agertzeko aukera alferrik galduko ez zuen jaun berri horretaz hirian jakin ahal izan zuten guztia. Iritsi berriak bi ordu pasatxo eman zituen gau-jairako prestatzen, eta gutxitan ikusi bezalako ardura erakutsi zuen bere burua apaintze horretan ere. Bazkalosteko lo-kuluxka egin ondoren, ura eskatu zuen, eta oso denbora luzean aritu zen bi masailak xaboiz igurtzitzen, barruko aldetik mihiaz gogorturik eusten ziela; hurrena, ostatuko morroiaren besaburutik eskuoihala hartu, eta alderik alde xukatu zuen bere aurpegi guria, belarrien atzetik hasirik eta morroiaren aurpegira bertara bi hats-bafada bota ondoren. Gero, ispiluaren aurrean alkandoraren paparreakoa jantzi, sudurzuloetatik ateratzen zitzaizkion bi iletxo kendu, eta, aitaren egin orduko, txilar koloreko frak izpildun baten

barruan sarturik zegoen. Horrela jantzirik, bere kotxera igo, eta han joan zen, eta hor-hemenka ageri ziren leiho bakanetako distira motelak argituriko kale izugarri zabaletan barrena. Gobernadorearen etxea, ordea, oso ondo argiztaturik zegoen, dantzaldi handi baterako bezala. Argiontziekiko zaldi-kotxeak, bi jendarme sarreran, zaldizainen oihuak urrun; hitz batean, behar bezala zegoen dena. Aretoan sartutakoan, Txitxikovek begiak txilotu behar izan zituen lipar batez, hain zen itsugarria hango argizarien, lanpen eta damen soinekoen distira. Argitasunak dena biltzen zuen. Frak beltzak nonahi ageri ziren, bakarka zein taldeka batetik bestera joan-etorrian, hala nola euliak azukre zuri distiratsuairen gainean uztaileko egun sargorietan, etxeko giltzain zaharrak azukrea mokor dizdizarietan zati-tzen duenean leiho irekiaren aurrean; haurrek so egiten diote inguruan bildurik, ikusminez jarraitzen diete emakumearen esku latzen mugimenduei mailua jasotzen duen bakoitzean, eta haize mehe batek altxaturiko euli-eskuadroiak airean hegaz sartzen dira etxera, ausart, hango nagusiak balira bezala, eta, giltzain zaharra erdi itsua

dela eta eguzkiak begiak nekarazten dizkiola baliatuz, azukre-koskor gozoetan pausatzen dira, banaka zein mordoka. Udako oparotasunak asebetterik —urtaro horrek jaki gozo ugari eskaintzen baitizkie berez—, ez dira jatera inguratzeko, ezpada beren burua erakustera: aurrera eta atzera ibiltzen dira azukre-mokorren gainean, ukitutxoak egiten dizkiote elkarri aurreko zein atzeko hankatxoekin, edo hazka aritzen dira hegaltxoan azpian, edo —aurreko bi zangoak luzaturik— buru gaina igurtzitzen dute, jiratu eta hegaz alde egiten dute, eta atzera itzultzen dira gero eskuadroi gogaikarri gehiagok lagundurik. Ingurukoa aztertzen ari zela, gobernadoreak Txixikovi besotik heldu, eta, luzamendutan ibili gabe, emaztea aurkeztu zion. Gonbidatu iritsi berriak zuzen jokatzeko jakin zuen abagune horretan ere: halako konplimendu bat esan zuen, aukera-aukerakoa gizarte-mailari dagokionez ez goikoegia ez behekoegia den gizabanako tarteko adineko batentzat. Dantza-saioari ekiteko prest zeuden bikoteek gainerako gonbidatuak hormaraino bultzatu zituztenean, Txixikov, eskuak bizkarraren atzean uztarturik, adi-adi so

geratu zitzaion pare bat minutuz. Dametako asko dotore eta modaren arabera jantzirik zeuden; gainerakoek, ordea, probintzi hiriburu batean lortu ahal ziren jantziak zeramatzen soinean. Gizonezkoak, beste edonon bezala, bi motatakoak ziren: argalak eta lodiak. Argalak damen inguruan ibiltzen ziren denbora guztian; zaila zen haietako batzuk Petersburg-eko argalengandik bereiztea, hain ziren haien antzekoak; Petersburgekoek bezala, oso txukun eta gustu onez orrazturik zeuzkaten belarrondoko bizarrak, edo, besterik gabe, azal-huts aurpegiaren obaltoa; haien bezain zabarkari esertzen ziren damen aldamenean; haien antzera, frantsesez hitz egiten zuten, eta Petersburgen bezalaxe barre eragiten zieten damen. Gizonezkoen beste saila lodiek osatzen zuten, lodiek edo Txitxikoven tankerakoek, hau da, lodiegiak izan gabe ere argaltzak ezin jo zitezkeenek. Lodiek, argalek ez bezala, muzin egiten zieten damen, haiengandik aldentzen ziren, eta alboetara soilik begiratzen zuten, gobernadorearen zerbitzariak whistean jokatzeko mahai berdea non jarriko. Haien aurpegiak mamitsuak eta biribilak ziren,

hainbatek garatxoak zituzten, eta naparbantzu-
ren bat edo beste ere bazen haien artean;
buruan ez zuten ez kalparrik ez ile-kizkurrik, eta
ez ziren —frantsesek esan ohi duten bezala—
deabruak naramala erara orrazten: ilea, edo oso
labur mozturik edo leun-leun orrazturik zeuka-
ten, eta haien hazpegiak biribilagoak eta mardu-
lagoak ziren. Haiexek ziren hiriko funtzionario
gorenak. Ai!, mundu honetan, lodiak argalak
baino askoz hobeto moldatzen dira beren eginki-
zuetan. Argalek, batez ere, norberaren zeregi-
netan jarduten dute, edo, besterik gabe, hor
daude eta batetik bestera ibiltzen dira ganoraz-
ko lanik egin gabe; haien bizitza, nolabait, azale-
koegia da, mami gutxikoa eta sustrai sendorik
gabea. Lodiak, ordea, toki nagusiak hartzen
dituzte beti, sekula ez maila apalekorik, eta,
nonbait jartzen direnean, irmo eta tinko esertzen
dira, hainbestearino, ezen jarlekua behera egin
eta kirrinka hasten baita berehala haien azpian,
eta harrezkeroztik sekula ez dute harturiko lekua
utziko. Ez dute gogoko azaleko distira; haien fra-
kak ez dira argalenak bezain dotoreak, baina
oparo horniturik edukitzen dituzte diru-kutxak.

Argalari, hiru urteren buruan ez zaio arima bat bera ere eskumendean geratzen, bahitura-etxera eraman baititu guzti-guztiak; lodiak, ordea, patxadaz jokatzeko, eta, konturatzerako, etxe bat erosi du hiriaren mutur batean, emaztearen izenean, eta gero beste etxe bat hiriaren beste muturrean, eta gero herrixka bat hiritik hurbil, eta hurrena herri bat bere lur-sail guztiekin. Azkenik, lodiak, Jainkoa eta Erregea zerbitzatu ondoren, guztien begiramena irabazirik, erretiroa hartu, egoitzaz aldatu, eta lurjabe bihurtzen dira, Errusiako handiki itzaltsu eta abegi oneko jaun, eta bizi egiten dira, ondo bizi ere. Eta gero, Errusiako ohiturei jarraiki, oinordeko argalek berehala xahutzen dituzte berriro aitaren ondasun guztiak. Ezin isilean gorde Txitxikovek tankera horretako gogoetak zerabiltzala buruan gau-jaira bildurikoak aztertzen zituen bitartean eta, oldozpen horien ondorioz, lodiekin bat egitea erabaki zuela azkenean, haien artean aurkitu baitzituen ezagunak zituen ia aurpegi guztiak: han zen prokuradorea bere bekain iletsu ikaragarri beltzekin, ezkerreko begia noizean behin berez kliskatzen zitzaiola, honela jardungo balu

bezala: «Goazen aldameneko gelara, adiskidea, zerbait esan behar dizut han», gizona, ordea, serioa eta hitz gutxikoa zen; han zen postaburua ere, zeharo arrunta bera, baina zirtolaria eta filosofoa; han zen, orobat, ganberaburua, oso gizon zentzuzkoa eta atsegina. Aspaldiko laguna balute bezala agurtu zuten denek Txitxikov, eta berak, bere aldetik, burua makurtzeko imintzioa egin zien, ez oso nabarmenki baina bai gogo onez. Hantxe ezagutu zituen Manilov —lurjabe guztiz jator eta gizabidetsua bera— eta Sobakevitx —gizaseme moldakaitz samarra itxuraz—. Izan ere, azken horrek, Txitxikov berarengana hurbildu bezain laster, oina zapaldu zion, eta esan: «Barkatu, mesedez!». Luze gabe, whistean jokatzeko kartak eman zizkioten Txitxikovi, eta gizalegezko buru-makurtua eginez hartu zituen. Mahai berdearen inguruan eseri ziren denak, eta ez ziren handik altxatuko afaltzeko ordua jo arte. Jendeak zeregin gogoko bati buru-belarri ekiten dionean gertatu ohi denez, bertantxe eten ziren elkarrizketa guztiak. Postaburuak berak, oso berritsua izanik ere, begitarte gogoetatsua jarri zuen kartak eskuan hartu bezain laster; goiko

ezpaina behekoaz bildu, eta horrelaxe egon zen jokoak iraun zuen bitarte guztian. Beltz bat botatzen zuen bakoitzean, eskuaz mahai gainean zartako gogorra jo, eta honela esaten zuen dama baten: «Horra popearen emazte zaharra!», eta honela, berriz, erregea baten: «Horra Tamboveko nekazaria!». Eta ganberaburuak honela erantzuten zion: «Bibotetik helduko diot nik nekazari horri, bibotetik!». Batzuetan, kartaz mahaia jotzean, honelakoak esaten zituzten: «Hara! Datorrena datorrela, besterik ez daukat eta, hona diamanteak!». Edo, besterik gabe, oihuka esaten zuten: «Bihotzak! Pipi-jana! Piko-txak!», edo: «Pikortak, pikatxoak!», eta, batzuetan, soil-soilik: «Pikak!». Horrela esaten zieten lagunartean karta-sortako koloreei. Jokoa amaitutakoan, ohikoaenez, eztabaida sutsu samarra piztu zen. Txitxikovek ere esku hartu zuen eztabaidan, baina hain trebetasun handiz jardun zuen, ezen denak konturatu baitziren oso gizon adeitsua zela eztabaidatzeko orduan ere. Inoiz ez zuen esango «Zuk zera bota duzu», ezpada «Zuk egoki iritzi diozu zera botatzeari» edo «Zure bikoari irabazteko ohorea izan dut» eta

tankera horretako esaldiak. Aurkariak lasterrago adiskidetze aldera, Txitxikovek behin eta berriro eskaini zien guztiei bere toxa esmaltatu zilarrezkoa, zeinaren hondoan bi bioleta ageri baitziren, berriaz jarriak hor tabakoari usain gozoa emateko. Bereziki, Manilov eta Sobakevitx lurjabeek erakarri zuten kanpotarraren arreta. Ganberako eta postako buruei deitu, taldetik apur bat bereizi, eta lurjabe haien gaineko argibideak eskatzen hasi zitzairen. Egin zizkien galderetako batzuek, jakinmin hutsaz gain, ezkutuko asmo zehatzen bat ere bazerabilela salatzen zuten. Izan ere, zenbana arimaren jabe ziren eta haien lur-sailak nolako egoeran zeuden galdetu zuen aurrena, eta azkenean soilik egin zien bakoitzaren izenaren eta patronimikoaren galdea. Denbora laburrean, bi lurjabeak guztiz liluraturik uztea lortu zuen. Manilov gizaseme sasoikoa zen artean, haren begiak azukrea bezain gozoak ziren eta erdi ixten zituen barre egiten zuen bakoitzean. Txitxikovekin erabat txoraturik, oso luzaz estutu zion eskua, eta sutsuki eskatu herrira bisita egingo joateko ohorea egin ziezaiola, zeren, esan zionez, hamabost versta besterik ez zegoen hiri-

tik herrira. Txitxikovek, gizalege handiz buru-
makurtua egin, eskua zintzoki tinkatu, eta eran-
tzun zion oso gogo onez beteko zuela beraren
nahia eta, gainera, eginbehar sakratutzat jotzen
zuela. Sobakevitxek, berriz, begirunea adieraz-
teko orpoez takateko arina jorik, antzeko gonbi-
ta egin zion, baina hitz gutxiago erabiliz: «Arren,
etorri nire etxera ere». Haren botak ikaragarri
handiak ziren, hainbestearino, ezen, gaur egun,
Rus-en bogatirak desagertzen hasi diren garai
honetan batik bat, nekez aurki bailiteke haien
neurriko oinik.

Biharamunean, poliziaburuaren etxera joan
zen Txitxikov, bazkaltzera eta arratsaldea igaro-
tzera. Bazkalostean whistean hasi, eta jokoan
aritu ziren arratsaldeko hiruretatik gaueko ordu
biak arte. Han, bidenabar, Nozdriov lurjabearen
ezaupidea egin zuen. Hogeita hamar urte ingu-
ruko gazte bizkorra zen, eta, hiruzpalau hitz
esan orduko, hika hasi zitzaion. Nozdriovek hika
egiten zien poliziaburuari eta prokuradoreari
ere, eta adiskidetsuki mintzatzen zitzaien, baina,
jokoan diru-alde handiak jartzen hasi orduko,
hala poliziaburuak nola prokuradoreak adi-adi

begiratzan zieten haren jokaldiei, eta erne zela-
tatzan zuten, zein karta botako. Biharamunean,
ganberaburuaren etxean eman zuen Txitxikovek
arratsa. Soinean mantal zikin samar bat zeukala
hartu zituen gonbidatu guztiak, haien artean bi
dama ere bazirela. Ondorengo egunetan, hurre-
nez hurren, gobernadoreordearen etxera joan
zen arratsaldea igarotzera; zerga-biltzaileare-
nean izan zen oturuntza handi batean; prokura-
doreak berera gonbidatu zuen bazkari-legea egi-
tera, eta bazkari-legea oturuntza handi baten
parekoa izan zen; eta, azkenik, hiriko alkateak
mezaren ostean eman zituen zizka-mizketara
joan zen, eta zizka-mizkak ere bazkari baten hei-
nekoa gertatu ziren. Hitz batean, Txitxikov lo
egitera soilik joaten zen ostatura, eta egunez ez
zuen ordu bat bera ere ematen bere bizitegian.
Bazekien leku guztietan ganoraz jokatzan, eta
asko ikusirik gizon saiatua zela erakusten zuen
edonon. Mintzagaia edozein zela ere, ondo asko
heltzen zion beti elkarrizketaren hariari: solaski-
deek zaldi-haztegiei buruz hitz egiten bazuten,
zaldi-haztegiez aritzen zen bera ere; arraza
onko zakurren gainean mintzatzan baziren, oso

ohar taxuzkoak egiten zituen arraza oneko zakurrez; zerga-bilketarako bulegoak bideraturiko auziren bat aztertzen bazuten, epaileen trikimailuak ere oso ondo menderatzen zituela erakusten zuen; solasgaia billar-joka bazen, sekula ez zuen jokaldi ustelik egiten; bertuteez jarduten bazuten, oso ondo arrazoitzen zuen bertuteez, begietatik malkoak zerizkiola; pontxeak prestatzeko moduz eztabaidatzen baziren, pontxe kontuetan ere aditua zela agertzen zuen; aduanako ikuskatzaile eta funtzionarioez aritzen baziren, bera noizbait ikuskatzaile eta funtzionarioa izan balitz bezala jarduten zuen haien gainean. Dena dela, nabarmendu beharra dago bazekiela hori guztia benetasunez janzten eta egokiro gobernatzen zela une orotan. Ez zen ez ozenki ez apalki mintzatzen, gisakoa zen tonuan baizik. Hitz batean, edonondik begiraturik ere, kanpotarra akatsik gabeko gizon prestua zen, eta gogobeterik utzi zituen hiriko funtzionario guztiak. Gobernadoreak adierazi zuen asmo oneko gizona zela; prokuradoreak, berriz, zentzuzkoa zela; jendarme-koronelak esan zuen gizon jakintsua zela; ganberaburuak, ikasia eta itzaltsua zela;

poliziaburuak, itzaltsua eta atsegina; poliziaburuaren emazteak, berriz, oso atsegina eta oso adeitsua zela. Sobakevitxek berak ere, nahiz eta sekula ez zuen inoren alde onik aipatzen, hiritik berandu samar itzulirik etxera, eta ordurako jantziak erantzirik eta emazte zimelaren aldameanean ohean etzanda zegoela, honela esan zuen: «Laztana, gobernadorearen etxeko gau-jaian izan naiz, eta poliziaburuarenean bazkaldu dut, eta Pavel Ivanovitx Txitxikov kolejio-kontseilariaren ezaupidea egin dut. Bai gizon jatorra!». Emazteak, «Jum!» batez erantzun, eta hankaz bultzatu zuen.

Iritsi berriari buruzko uste hori —oso balakargarria berarentzat— bazter guztietara zabaldu zen hirian, eta bere horretan iraun zuen harik eta kanpotarraren berezitasun bitxi batek eta irakurleak laster jakingo duen ezusteko gertakari gogaikarri batek ia hiri osoa zur eta lur eginik utzi zuten arte.

Bigarren kapitulua

Aste bete baino gehiago zen kanpotarra hirian bizi zela, jairik jai eta bazkariz bazkari, eta, esan ohi denez, oso modu atseginean eramanez denbora. Azkenean, bisitak hiriaren aldirietara aldatzea eta Manilov eta Sobakevitx lurjabeak ikustera joatea erabaki zuen, hala egingo zuela hitzeman baitzien biei. Baina, nonbait, beste zio batek bultzatu zuen hori egitera, arrazoi larriago batek, eginkizun ganorazkoago eta garrantzi handiagoko batek... Baina irakurleak ezari-ezarian eta bere denboran jakingo du horren guztia-
ren berri, baldin eta amaierara hurbildu ahala gero eta hedadura handiagoa eta zabalagoa hartuko duen liburu luze hau irakurtzeko adinako eroapena badu. Selifan kotxezainak goizean goiz zaldiak kotxeari lotzeko agindua zeukan; Petrushka, berriz, ostatuan geratuko zen, gela eta puskak zaintzen. Komeniko litzaioke irakurleari gure protagonistaren bi zerbitzariak hobeto ezagutzea. Pertsonaia horiek, jakina, ez dira beste batzuk bezain gogoangarriak, bigarren

edo, areago, hirugarren mailakotzat jotzen diren horietakoak dira, poemako gertaera eta gorabehera nagusiak ez dira haien inguruan harilkatzen eta noizean behin soilik ukitzen dituzte, azaletik eta iragaitzaz beti; nolana ere, autoreari ikaragarri atsegin zaio gauza guztietan zehatza izatea, eta, halatan, errusiarra bada ere, alemaniarak bezain zorrotza izan nahi du. Dena dela, horrek ez digu ez denbora luzerik ez toki handirik kenduko, ez dago-eta gauza askorik gehitzetik irakurleak dagoeneko dakienari, alegia, Petrushkak nagusi jaunak behinola erabilitako jaka gaztaintara lasai samar bat eramanez ohi zuela soinean eta —beraren gizarte-maila bereko jendeak ohi duenez— sudur handia eta oso ezpain lodiak zituela. Areago zen hitz gutxikoa ezen ez berritsua; bestetik, ikasteko joera laudagarria erakusten zuen, hau da, liburuak irakurtzen zituen, nahiz eta haien edukiak bost axolazion: esku artean zeukana abezea, otoitz-liburua zein heroi maitemindu baten abenturak izan, berari berdin, arreta berberaz irakurtzen baitzuen dena; kimika-liburu bat emango baliote ere, ez lioke ukorik egingo. Irakurgaiak barik, ira-

kurtzea bera atsegin zitzaion, edo, hobeto esan, irakurtzearen prozesua: nola, letrak elkaturik, hitz bat sortzen den beti, nahiz eta batzuetan deabruak soilik jakin haren esanahia. Ate ondo-ko gelan irakurri ohi zuen, ohean etzanda, eta, jarduera horren eraginez, opila bezain zapal eta mehe zeukan lastaira. Irakurtzeko grinaz gain, beste ohitura bi ere bazituen, bere izaeraren ezaugarri berezi bi: oinetatik bururaino jantzirik lo egiten zuen, longaina bera ere erantzi gabe, eta halako usain berezi bat eramaten zuen beti gorputzari itsatsirik, logela batzuetan aditzen den kiratsaren antzekoa, eta hainbestearainokoa, ezen, edonora iritsirik, aski baitzuen longaina eta puska guztiak gela batera eramatea eta bere ohea zabaltzea usain berezi hura lekuaz jabe zedin, eta, ordu arte sekula inork erabili gabeko gela bazen ere, hamar urtean hor jendea bizi izana zela ematen zuen. Txitxikovek, gizon minbera eta, kasu batzuetan, oso estua izaki, goizean arnasa hartu, eta, Petrushkaren hatsa bere sudur marduletik biriketaratzen zitzaiola, begiak behin eta berriro kliskatu, buruari eragin, eta honela esaten zion: «Izerbera haiz ala zer

demontre gertatzen zaik, motel? Arraioa, hoa gutxienez bainatzera!». Petrushkak ez zuen ezer erantzuten, eta edozein zeregini ekiten zion berehala; eskuila eskuan harturik nagusiaren frak esekira hurbiltzen zen, edo zernahi txukuntzen hasten zen besterik gabe. Zer pentsatzen zuen halakoetan, isilik zegoelarik? Agian, honela zioen bere artean: «Eta hi ez al hago gogaiturik lelo berbera hainbeste aldiz errepikatzeaz?». Batek daki, zail da asmatzen zerbitzariak zer darabilen buruan nagusiak kargu hartzen diotenean. Eta hori da, oraingoz, Petrushkaren gainean esan dezakegun guztia. Selifan kotxezaina oso bestelakoa zen... Baina autoreari guztiz lotsagarri zaio irakurlea hain luzaz nekaraztea beheko klaseko jendeari buruzko kontuekin, arituaren arituaz ondo asko baitaki irakurleari ez zaiola batere atsegin jende arruntaren ezaupidea egitea. Horrelakoxea da errusiarra: berebiziko grina erakusten du gizartean bera baino gorago dagoen edonorekin harremanetan jartzeko, aldea txiki-txikia izanik ere; aukeran nahiago izaten du edozein konde edo printze azaletik ezagutu beste edonorekin adiskidetasun-harreman

sakonak izan baino. Autoreari halako beldur bat sortzen dio bere protagonistaren patuak berak ere, kolejio-kontseilari hutsa baita. Zazpigarren mailako funtzionarioek, agian, gogo onez egingo dute haren ezaupidea, baina batek daki nola hartuko duten jeneral-mailara iritsi direnek: azpian duen orori gizakiak harrokeriaz zuzendu ohi dizkion destainazko begiratu horietako bat egotziko diote beharbada, edo, bestela, autorearen zoritxarrerako, ez diote inolako arretarik jarriko, eta hori askoz ere okerragoa litzateke. Dena dela, bi aukera horietako edozein mingarria izanik ere, gure protagonistarengana itzuli behar dugu ezinbestean. Esan bezala, gauean premiazko agindu guztiak emanik, oso goiz esnatu zen biharamunean; bere burua txukundu, igandeetan soilik egiten zuen legez oinetatik bururaino belaki heze batez gorputz osoa igurtzi (izan ere, igandea zen egun hura), leunaren leunaz eta distiraren distiraz masailak satenaren pareko utzi arte bizarra egin, txilar koloreko frak izpilduna eta otso-larruzko longaina jantzi, ostatuko morroiak tarteka alde batetik eta tarteka bestetik besotik heltzen ziola zurubian behera jaitsi, eta britxka-

ra igo zen. Kotxea zalapartaka irten zen kalera ostatuko gurdi-atetik. Pope batek kapelua erantzi zuen haren aldamenetik igarotzean, eta alkandora zikinez jantziriko mutiko batzuek eskua luzatu zioten, esaka: «Jauna, limosnatxo bat umezurtz honentzat!». Gidariak, haur haietako batek kotxearen atzealdeko koxkara igotzeko gogo bizia erakusten zuela ikusirik, zigorraz jo zuen, eta britxkak aurrera jarraitu zuen kaleko harrien gainean jauzika. Pozarren begiztatu zuten han urrun langa marraduna, beste edozein oinaze bezala harrizko bidea ere laster amaituko zela esan nahi baitzuen horrek; eta, beste hainbat bider buruaz kotxearen sabaia gogor samar jo ondoren, lur bigunera iritsi zen Txitxikov. Gure herrialdean gertatu ohi denez, hiritik urrundu bezain laster gauzarik xelebreenak eta aldrebesenak agertzen hasi ziren, nahas-mahas, bidearen alde banatan: goroldioz estaliriko muino txikiak, izeidi bat, pinu gazte txikiz osaturiko sas-traka ziztrinak, suak kiskalitako pinu-enbor zahar-rak, basatxilarrak eta horrelako huskeriak. Il-laran eraikitako herrixkak agertzen ziren han-hemenka bidearen ertzean; etxeek antzinako

egur-biltegien itxura zuten, teilatuak grisak ziren eta eskuoihaletan egin ohi diren brodatuen antzeko irudiak zeuzkaten hegala azpiko enborretan zizelaturik, etxearen apaingarri. Ohiturari jarraiki, hainbat mujik zeuden ate aurreko jarlekuetan eseririk, ikusmiran, ahari-laruzko beroki luzeetan bildurik. Goiko leihoetan emakume aurpegi-zabalak ikusten ziren, kalera begira, soinekoak bularrak estutzen zizkiela; beheko solairuetan, berriz, kanpora so egiten zuten zekorrek, edo beren mutur itsua ateratzen zuten zerriek. Hitz batean, betiko ikuspegia. Hamabosgarren versta egindakoan, Txitxikov gogoratu zen Manilovek esandakoaren arabera han egon behar zuela haren herrixkak, baina laster egingo zuten hamaseigarren versta, eta herrixkaren arrastorik ez; eta halako batean bi mujikekin topo egin ez balute, nekez lortuko zuten helmugara iristeko bidea aurkitzea. Zamanilovka herrixka urrun al zegoen galdeturik, txanoa erantzi zuten bi mujikek, eta bietako batek —bestea baino bizkorragoa eta bizar zorrotz mutur bakarrekoa— honela erantzun zuen:

— Seguraski, Manilovka esan nahi duzu, ez Zamanilovka!

— Bai, horixe, Manilovka.

— Manilovka, jakina! Beste versta bat ibili behar duzu oraindik, daramazun bidetik, hau da, aurrera zuzen eta gero eskuinetara.

— Eskuinetara? —galdetu zuen kotxezainak.

— Eskuinetara, bai —esan zuen mujikak—. Hortxe aurkituko duzu Manilovkako bidea; Zamanilovkarik ez dago, ordea. Horrela deitzen da, Manilovka, horixe du izena; Zamanilovkarik ez dago inguru hauetan. Etxe bat ikusiko duzu muino baten tontorrean, harrizkoa eta bi solairukoa. Nagusi jaunaren etxea duzu, hau da, nagusi jauna hor bizi da. Manilovka du izena, baina inguru hauetan ez dakigu inolako Zamanilovkaren berririk.

Aurrera jarraitu zuten, Manilovkaren bila. Bi versta egin zituzten, aurkitu zuten auzo-bidearen hasiera bihurgune batean, egin zituzten bi versta gehiago, eta hiru, eta lau, eta bi solairuko etxe harrizkoa ez zen inon ageri. Orduan, Txitxikov gogoratu zen adiskide batek bere herrira joateko gonbita egin eta hamabost verstara

dagoela esaten badizu, gauza segurua dela hogeita hamar versta izango direla. Manilovka herrixkaren kokalekua inor gutxi erakartzeko modukoa zen. Jauretxea bakar-bakarrik zegoen muino baten tontorrean. Haizeak, edonondik jotzen zuela ere, ageri-agerian aurkitzen zituen etxearen alderdi guztiak. Muinoaren malda ondo berdinduriko belarrez jantzirik zegoen, eta Ingalaterrakoen erako bizpahiru lore-sail zituen, lilekin eta arkazia horiekin; bospasei urki txikik hosto txikiko adaburu bakanak agertzen zituzten hor-hemen. Haietako biren azpian kupula berde zapaleko pergola bat ikus zitekeen, zurezko zutabe urdinekin eta honako idazkun honekin: «Bakartasunean hausnartzeko tenplua». Beherago urmael bat zegoen, aingira-belarrez estalia, zeren hori, bestetik, ez da batere bitxia Errusiako lurjabeen lorategi ingelesetan. Muinoaren oinean —eta aldapan bertan ere bai— enborrezko izba grisak zeuden inguru guztian barreiatu-rik. Zergatik ez dakigula, gure protagonistak bertantxe ekin zion izbak kontatzeari, eta berrehun baino gehiago zenbatu zituen. Etxeen artean ez zegoen ez zuhaitzik ez bestelako landarerik,

enborrak baino ez ziren ikusten, enborrak edo non. Bi emakumek bizitasuna ematen zioten paisajeari: oso modu pintoreskoan soinekoa gora jasorik eta gona-barrenak gerriaren jiran bildurik, ura belaunetaraino, astiro zebiltzan urmaelean, bi hagari loturiko sare urratu bat arrastaka zeramatela; bi karramarro eta zarbo distiratsu bat ikusten ziren sarean katramilaturik. Emakumeek, itxuraz, liskarren bat izan berria zuten, eta elkarri irainka ari ziren. Alde batean, ez oso urrun, pinudi urdinxka baten isla iluna atzematen zen. Eguraldia bera ere guztiz bat zetorren paisajearekin: eguna ez zen ez eguzkitsua ez goibela, ezpada gris argia, gure armadako soldaduen uniformeez soilik duten kolore gris horretakoa alegia; gure soldaduak, bidenabar esan dezadan, baketsuak dira, baina igandeetan mozortzeko ohitura dute gehienek. Koadroa osatzeko, ez zen falta oilarra, eguraldi-aldaketen iragarle; oiloak gorteatzean beti gertatzen diren borroketan gainerako oilarren mokoek burua garunetaraino zulaturik bazeukan ere, oso ozenki jotzen zuen bere kukurrukua eta bizkor eragiten zien bere hego marrega zaharren antzera lis-

tuei. Hurbiltzean, Txixikovet etxeko jauna ikusi zuen ate aurrean. Longain berde batez jantzirik zegoen, eta bekokian zeukan eskua, begien babesgarri, hurbiltzen ari zen zalgurdia hobeto ikusteko. Britxka ataurrera hurbiltzen zen neurrian, gero eta gehiago alaitzen zitzaizkion begiak, eta irribarrea, berriz, gero eta gehiago zabaltzen.

— Pavel Ivanovitx! —egin zuen oihu azkenean, Txixikov britxkatik jaitsi zenean—. Pentsatzen hasita nengoen gutaz ahazturik ote zuden!

Bi adiskideek elkar musukatu zuten bizitasun handiz. Gero, Manilovek egongelara eraman zuen bere gonbidatua. Denbora gutxi beharko dute atalondoa, salaurrea eta jangela zeharkatzeko, baina saia gaitezen tarte labur horretaz baliatzen zertxobait esateko etxeko nagusiaz. Eta, hona iritsirik, autoreak aitortu beharra dauka oso eginkizun zaila duela hori. Askoz errazagoa izaten da berdinek gabeko gizaki bakanak pintatzea: margoak hartu, eta oihalean hedatzea besterik ez duzu potreta egiteko; pintatu begi beltz kartsuak, bekain ile-sarriak, bekoki zimur-

tsua eta, sorbaldan, soingaineko beltza edo sukolore gorrimekoa, eta prest daukazu potreta. Ikaragarri zaila da, ordea, mundu honetan hain ugariak diren gizaki arrunt horien potreta pinta-tzea: itxuraz oso antzekoak dira denak, eta adi-adi begiraturik soilik atzemango dizkiezu berez sumatzerik ez dagoen berezitasun ugari. Arreta handia jarri behar duzu bereizgarri xehe eta ia ikusezin horiek guztiak begien aurrera agerrarazteko, eta, oro har, sakon-sakonera zuzendu behar duzu begirada, lehenagotik ere arakatzearen antzean trebaturik daukazun arren.

Jainkoak bakarrik esan lezake nolakoa zen Manilov. Munduan bada sailkatzen oso zaila den jendea: ez dira ez hori ez bestea, ez ur ez ardo. Beharbada, haien artean kokatu beharko genuke Manilov. Lehen begiratuan, itxura oneko gizona zen; haren hazpegiak atseginak ziren, atseginegiak aukeran, gozoegiak; halako adeitasun eta adiskidetasun gizabidetsuegia erakusten zuen bere maneretan. Xarmagarria zen haren irribarrea; horia zuen ilea, eta urdin argiak begiak. Harekin hizketan hasi, eta aurreneko minutuan solaskideak honela esaten zuen, ezinbestean,

bere kolkorako: «Hau bai gizon atsegina eta jatorra!». Hurrengo minutuan, ordea, inork ez zuen ezer esaten; eta hirugarrenean denek pentsatzen zuten: «Deabruak zekik nondik atera den hau!», eta harengandik aldentzen ziren, eta aldentzen ez zena izugarri aspertzen zen. Ezin espero zitekeen harengandik inolako hitz sutsurik edo arrandiatsurik, gogoko dugun gai batean aurka egiten digutenean ia denok esaten ditugun hitz horietakorik alegia. Nor bere zoroak bizi du: bati izugarri gustatzen zaizkio erbi-zakurrak; beste bat musikazale amorratua da, eta uste du ahalmen harrigarria duela musikaren alderdirik ezkutuenak barru-barruan sentitzeko; hirugarren bat aditurik jakintsuena da janari-kontuetan; laugarrenak, berriz, aldea txiki-txikia izanik ere dagokiona baino maila goragoko batekoa delako itxurak egiten ditu; bosgarrenak —bere gurarietan apalago— lo egin eta, ametsetan, tsarraren jarraigoko ofizial batekin paseatzen ikusten du bere burua, harro-harro adiskideen, ezagunen eta, baita ere, ezezagunen aurrean; seigarrenaren eskuak naturaz haragoko gogoia nabaritzen du bateko edo biko diamanteari ertz batean kos-

katxo bat egiteko; zazpigarrenaren eskuak, aldiz, nonahi ordena ezartzeko eta kotxezainaren zein posta-geltokiko arduradunaren aurpegi-
ra hurbiltzeko joera bizia erakusten du; hitz gutxitan, nor bere zoroak bizi du, Manilov izan ezik. Etxean, oso gutxi hitz egiten zuen, eta hausnarrean edo bere gogoetetan murgildurik ematen zuen denbora gehiena, baina Jainkoak bakarrik daki zertan pentsatzen zuen. Ezin esan daiteke etxaldez arduratzen zenik, sekula ez zen joaten bere lurra ikustera, eta etxaldea berez gobernatzen zen. Administratzaileak esaten zionean «Jauna, ondo legoke hau eta bestea egitea», «Bai, ez legoke txarto» erantzun ohi zion berak, pipa erretzeari utzi gabe. Armadan zerbitzatu zuenean hartu zuen erretzeko ohitura; han, bestetik, oso ofizial sentibera, apal eta ikasitzat zeukaten denek. «Bai, ez legoke batere txarto», errepikatzen zuen. Mujiken batek haren-gana jo eta, eskuaz garondoan hatz eginez, esaten bazion «Jauna, uztazu etxaldetik kanpora joaten lanera, ea diru pixka bat irabazten dudan urteko zerga ordaintzeko», «Zoaz, zoaz!» esaten zion berak, pipa erretzeari utzi gabe, eta burura-

tu ere ez zitzaion egiten mujik hura zertara eta mozkortzera joango zela. Batzuetan, ate aurrean etxeari eta urmaelari begira jarririk, bere artean esaten zuen ondo legokeela biak lurpeko igarobide baten bitartez lotzea, edo urmaelaren gainean harrizko zubi bat eraikitzea, eta zubiko alde banatan jarlekuak ipintzea, saltzaileak hor eser zitezten nekazariak behar izaten dituzten gauzaxoak saltzen. Halakoetan, gozotasun neurrigabea agertzen zuten haren begiek, eta aurpegiak gogobetetasunik handiena adierazten zuen; dena dela, egitasmoko haiek guztiak ez ziren urrunago joaten, hitz hutsetan geratzen ziren. Liburu bat zeukan beti bere gelan, bi urte lehenago irakurtzen hasia eta xingola orri-bereizlea hamaugarren orrialdean zeukana. Haren etxean zer edo zer falta zen beti: egongelan, esaterako, altzari ederrak zeuden, sedazko oihal dotore inondik ere garesti samar erositako batez tapizatuak, baina, nonbait, ez zen oihal nahikorik izan besaulki guztiak janzteko, eta haietako bi marrega hutsean geratu ziren; eta, urtetik urtera, etxeko nagusiak jakinaren gainean jartzen zituen beti gonbidatuak, honela gaztigatuz: «Ez

eseri besaulki horietan, oraindik ez daude prest». Beste gela batean, berriz, ez zegoen inolako altzaririk, nahiz ezkondu eta biharamunean emazteari esan zion: «Laztana, bihar bertan egin beharrekoak egin behar ditugu gela hau altzariz hornitzeko, behin-behineko besterik ez bada ere». Iluntzean, brontzezko argimutil bat ipintzen zuten mahai gainean, oso dotorea, hiru grazia antigoalekoen irudiez apaindua eta nakarezko pantaila dotore askoa zeukana. Argimutilaren aldamenean kobrezko elbarri koloka bat jartzen zuten; albo batera okerturik zegoen, eta argizari guztia isurtzen zuen handik, ez etxeko jauna, ez etxekoandrea, ez zerbitzariak horretaz konturatzen ez zirela. Emaztea..., esan beharra dago senar-emazteen arteko harremanak ezin eztiagoak zirela. Zortzi urte baino gehiago ziren ezkonduak zeudela, eta, hala ere, oraindik gordetzen zuten noizean behin bata besteari sagar-zatitxo bat, gozoki bat edo intxaur txiki bat emateko ohitura, eta, halakoetan —erabateko maitasunaren adierazgarri—, edonor hunkitzeko moduko ahots samurrez esaten zuten: «Zabaldu ahotxo hori, laztana, puskatxo hau sar-

tuko dizut eta». Esan gabe doa ahotxo hori zabaltzen zela hain eskaintza samurraren aurrean, oso modu lirainean zabaldu ere. Urtebetetze-egunean, opariak egiten zizkioten elkarri: adibidez, zotzak gordetzeko zorrotxo bat, beira-alez egina. Eta, sarri askotan, biak dibanetan eseririk zeudela, bat-batean, horretarako arrazoi berezirik ez bazegoen ere, batak pipa utzi, besteak joste-lana baztertu —baldin eta une horretan eskuetan bazeukan—, eta musu motel bat ematen zioten elkarri, hain luzea, ezen bitarte horretan zigarrotxo bat patxadaz erretzeko adina denbora baitzegoen. Hitz batean, zoriontsuak ziren. Jakina, oharraraz geniezaieke etxe batean beste zeregin asko ere badirela, musu luzeez eta ustekabeko oparixoez gain, eta askotariko galderak egin geniezazkieke, hala nola sukaldariek zergatik jokutzen zuten hain modu ergel eta zentzugabea, janaritegia zergatik zegoen beti erdi hutsik, giltzain andrea zergatik aritzen zen lapurretan, zerbitzariak zergatik ziren hain zikinak eta mozkortiak, neskame-morroiek zergatik lo egiten zuten nahi adina denbora eta esna zeudenean zergatik zeuden

beti alferkerian. Baina arazo horiek guztiak huseriak ziren, eta Manilova andrea ondo hezitako emakumea zen. Eta, gauza jakina denez, barne-tegietan jasotzen da heziketa ona. Eta, gauza jakina denez, horrelako ikastetxeetan hiru ikasgai nagusi dira giza bertuteen oinarri: frantses hizkuntza —ezinbestekoa famili bizitza zoriontsurako—, pianoa —senarrari une atseginak gozaratzeko— eta etxeko lanak —zorrotxoak eta bestelako oparitxoak jostea, alegia. Bestetik, hainbat hobekuntza eta aldaketa gertatu dira irakasteko metodoetan, gaur egun batez ere; ikastetxe bakoitzeko zuzendari andrearen zentzu eta gaitasunaren araberakoa da hori. Ikastetxe batzuetan, esaterako, aurrena pianoa, hurrena frantsesa eta azkenik etxeko lanak irakasten dituzte. Beste batzuetan, ordea, nahiago izaten dute lehenik irakatsi etxeko lanak —oparitarako gauzatxoak josten, alegia—, bigarrenik frantsesa eta azkenik pianoa. Hainbat metodo dago. Ez legoke soberan oharraraztea ezen Manilova..., baina aitor dut beldur ikaragarria ematen didala damez mintzatzeak; gainera, gure protagonistengana itzultzeko tenorea da, zeren badira

minutu batzuk egongelako atearen aurrean dau-
dela, biak arrenka, batak besteari lehena sartze-
ko eskatzen.

— Mesedez, ez hartu horrenbesterainoko
ardurarik niregatik, ni sartuko naiz azkena —
zioen Txitxikovek.

— Ez, Pavel Ivanovitx, ez, zeu zara gonbida-
tua —zioen Manilovek, eskuaz atea seinalatuz.

— Ez kezkatu nitaz, arren, ez kezkatu nitaz.
Sar zaitetz zu aurrena, mesedez —zioen Txitxiko-
vek.

— Ezta pentsatu ere, ez dut inola ere onartu-
ko hain gonbidatu atsegin eta ikasia azkena sar-
tzea.

— Ikasia! Zergatik esan duzu hori?... Aurrera,
mesedez.

— Ez, sar zaitetz zu lehenago, arren!

— Zergatik?

— Hargatik! —esan zuen Manilovek, irribarre
gozoa eginez.

Azkenean, batera sartu ziren biak, saiheska
eta batak bestea apur bat estutuz.

— Eta orain, emaztea aurkeztuko dizut — esan zuen Manilovek—. Laztana! Hona hemen Pavel Ivanovitx!

Orduan, Txitxikovek, dama bat ikusi zuen, zeinari erreparatu ere ez baitzion egin Manilovekin ate aurrean tirabira adiskidetsuan egon zen bitartean. Nahikoa polita zen, itxura onekoa. Kolore argiko mantal bat zeukan soinean, sedazkoa, oso ondo ematen ziona; haren eskutxo meheak zerbait utzi zuen berehala mahai gainean, eta ertz brodatuekiko zapi batistazkoa estutu zuen gero. Jaiki zen dibanteik, hor eseririk baitzegoen; Txitxikov atsegin handiz hurbildu zitzaion eskuan muin egitera. Manilovak, apur bat totalka mintzatuz, adierazi zion poz handia ematen ziela beraren bisitak eta senarra egunero-egunero oroitzen zela beraz.

— Bai, halaxe da —erantsi zuen Manilovek—, eta berak txitean-pitean galdetzen zidan: «Eta? Zure adiskide hori ez da inoiz etorriko?», «Egon, laztana, etorriko da». Eta, azkenean, zure bisitarren ohorea egin diguzu. Oso pozgarria da guretzat, benetan... maiatzeko egun bat... bihotzaren jaia...

Txitxikov apur bat aztoratu zen gauzak bihoztzaren jairaino iritsiak zirela entzun zuenean, eta apaltasunez erantzun zuen berak ez zuela ez deitura ospetsurik ez goiko gizarte-mailarik.

— Zuk dena duzu —eten zion jarduna Manilovek, irribarre gozoa eginez—, dena eta gehiago.

— Zer iruditu zaizu gure hiria? —galdetu zion Manilovak—. Gustura zaude han?

— Oso hiri ederra da, hiri zoragarria —erantzun zuen Txitxikovek—; eta oso gustura nago: jendea ezin adeitsuagoa da.

— Eta zer iruditu zaizu gure gobernadorea? —esan zuen Manilovak.

— Ez al da egia oso gizon agurgarria eta txeratsua dela? —gaineratu zuen Manilovek.

— Egia biribila —esan zuen Txitxikovek—, oso gizon agurgarria da. Eta zein ondo betetzen duen bere eginkizuna!, zein ondo hartu dion neurria karguari! Horrelako jende gehiago beharko genuke.

— Zein ondo tratatzen duen mundu guztia!, nolako begirunez jokutzen duen beti! —erantsi zuen Manilovek, irribarretsu eta atseginarean atseginez begiak erabat itxiz, hala nola egin ohi

baitu katuak belarrien atzealdea hatz-puntekin leunki igurtzitzen diotenean.

— Oso adeitsua eta atsegina da —jarraitu zuen Txixikovek—; eta esku-trebea, alajaina! Zeharo harriturik utzi nau. Zein brodatu politikak egiten dituen tulean! Berak josiriko zorrotxo bat erakutsi dit: nekez aurkituko genuke hark bezain ondo josten duen emakumerik.

— Eta gobernadoreordea?, ez al da egia oso gizabidetsua dela? —esan zuen Manilovek, berriro ere begiak apur bat txilotuz.

— Oso gizon ohoragarria da, bai, oso ohoragarria —erantzun zuen Txixikovek.

— Hara!, eta zer deritzozu poliziaburuari?, ez al da egia oso gizon atsegina dela?

— Ikaragarri atsegina; eta zein buruargia, zein jakintsua den! Lehengo egunean, goizaldea arte egon nintzen haren etxean whistean jokatzeko prokuradorearekin eta ganberaburuarekin; oso gizon ohoragarria da, oso ohoragarria, benetan.

— Eta zer iruditu zaizu poliziaburuaren emaztea? —gaineratu zuen Manilovak—. Ez al da egia oso emakume maitagarria dela?

— Bai, ezagutzen dudan emakumerik ohoragarrienetako bat da —erantzun zuen Txitxikovek.

Ez zituzten goraipatu gabe utzi Ganberako eta postako buruak; banan-banan ekarri zituzten hizpidera hiriko funtzionario gehienak, eta guztiak iruditu zitzaizkien gizonik ohoragarrienak.

— Eta zuek beti zaudete hemen, herrian? — galdetu zuen azkenean Txitxikovek, abagunea egokitu zitzaionean.

— Ia beti —erantzun zuen Manilovek—. Noizean behin, hirira joaten gara, baina jende ikasiarekin elkartzeko bakarrik. Badakizu?, jendearekin harremanik izan ezean, aberetu egiten da gizakia.

— Hala da, bai, hala da —esan zuen Txitxikovek.

— Jakina —jarraitu zuen Manilovek—, beste kuku batek joko liguke auzolagunak gisakoak balira, neurri batean behintzat haiekin gizalegeaz eta gizarteko jokabide zuzenaz hitz egiterik balego, zientziaren batez edo bestez jardun ahal izango bagenu, barrua kilikatzeko, arimak bere

hegoak zabaldu eta hegan egin dezan, nolabait esateko...

Horra iritsirik, zerbait gehiago esan nahi izan zuen, baina, lar luzatzen ari zela konturaturik, airean eskuari eragin, eta honela jarraitu zuen:

— Auzolagunak horrelakoak balira, jakina, askoz ere eramangarriagoak lirateke herriko bizitza eta bakartasuna. Baina ez dago halakorik... Hemen, *Sin Otetxestva* besterik ez dugu irakurtzen, eta noizean behin soilik.

Txitxikovek jakinarazi zion erabat ados zegoela berarekin, eta gaineratu zuen horixe dela munduko plazerrik handiena: bakartasunean bizitzea, naturaren ikuskariaz gozatzea eta noizean behin libururen bat edo beste irakurtzea...

— Baina —erantsi zuen Manilovek— hori guztia norekin partekaturik ez baduzu...

— Oh!, arrazoi duzu, arrazoi osoa duzu! — eten zion Txitxikovek—. Zer balio dute orduan munduko ondasun guztiek? Halako gizon argi batek esan zuenez, «Ez bilatu dirurik, bila itzazu adiskide onak».

— Hortxe dago gakoa, Pavel Ivanovitx! — esan zuen Manilovek leunki, eta begitarte gozoa

jarri zuen, gozoegia aukeran, hala nola izaten baita gozoegia mediku antzetsuak, gaixoari alai-garri izango zaiolakoan, neurririk gabe ezitzen duen edabea—. Halako plazer espirituzko bat sentitzen duzu orduan...; orain, esaterako, patuak zurekin hitz egiteko eta zure solas atseginaz gozatzeko aukera paregabea eman didan honetan...

— Tira, tira!, nondik nora da atsegina nire solasa? Gizon hutsala nauzu, ezin arruntagoa — erantzun zuen Txixikovek.

— Oh!, Pavel Ivanovitx, argi eta garbi esango dizut: pozarren emango nituzke nire ondasunen erdiak zure dohain horietako batzuen jabe izateagatik!

— Alderantziz, ohore handitzat hartuko nuke nik zure...

Ez dakigu bi adiskideek noraino eramango zuketan beren sentimenduen isuria halako batean zerbitzariak agertu eta bazkaria prest zegoela esan ez balie.

— Plazer baduzu... —esan zuen Manilovek—. Barkatuko diguzu, baina hemengo janaria ez da hiriburuetakoa bezalakoa; Errusian ohitura

dugunez, aza-zopa dago jateko, baina, hori bai, bihotz-bihotzez eskaintzen dizugu. Plazer baduzu...

Tirabiran aritu ziren puska batean, aurrea nor sartuko, eta azkenean Txitxikov saiheska sartu zen jangelan.

Ordurako, bi mutil koxkor zeuden han. Maniloven semeak ziren, haurrek jadanik helduekin batera baina oraindik aulki garaietan eseririk jaten duten adin horretakoak biak. Mutilen aurrez aurre irakaslea zegoen, zeinak, irribarre zabala aurpegian eta gizalege handiz, burumakurtua egin baitzuen. Etxekoandrea bere zopa-katiluaren aurrean eseri zen; gonbidatuari etxeko jaun-andreen erdian jartzeko eskatu zioten, eta zerbitzariak ezpainzapiak lotu zizkien hurrei lepo inguruan.

— Bai ume politak! —esan zuen Txitxikovek, mutikoei begira—. Zenbana urte dituzte?

— Nagusiak zortzi, eta txikiak sei bete zituen atzo —esan zuen Manilovak.

— Temistoklius! —esan zion Manilovek seme nagusiari, kokotsa ezpainzapitik askatzeko ahaleginak egiten ari baitzen.

Txitxikovek pittin bat jaso zuen bekaina itxura grekoko izen hori entzutean, zeinari —batek daki zergatik— Manilovek «ius» amaiera jarria baitzion, baina ohiko moldera itzuli zuen berehala aurpegia.

— Temistoklius, esadazu zein den Frantziako hiri nagusia!

Irakasleak Temistokliusengan bildu zuen arreta guztia, eta bazirudien begiekin jango zuela mutikoa, baina, azkenean, zeharo lasaitu eta buruaz baiezkoa egin zuen Temistokliusek esan zuenean: «Paris».

— Eta zein da Errusiako hiri nagusia? —galdetu zuen ostera Manilovek.

— Petersburg —erantzun zuen Temistokliusek.

— Eta zein beste?

— Mosku —erantzun zuen Temistokliusek.

— Oso azkarra zara, maitea! —esan zion Txitxikovek—. Askok daki bere adinerako —jarraitu zuen, Manilovtarrei so eta harriturik zegoelako itxurak eginez—. Esan behar dizuet ume hau oso buru-jantzia izango dela etorkizunean.

— Oh!, oraindik ez duzu ondo ezagutzen —erantzun zuen Manilovek—, oso burutsua da. Alkid, gazteena, ez da hain bizkorra; honek, ordea, zomorro bat ikusi bezain laster, begiak zorroztu, atzetik lasterka joan, eta adi-adi erreparatzen dio. Diplomatiakoa izatea proposatu diot. Temistoklius —jarraitu zuen, berriro ere seme nagusiari begira—, enbaxadorea izan nahi duzu?

— Bai —erantzun zuen Temistokliusek, ogia mastekatzeari utzi gabe eta buruari ezker-eskuin eraginez.

Une horretan, atzean zeukan lekaioak sudurra xukatu zion enbaxadoreari, eta oso ondo egin zuen, zeren, bestela, platerean zegoenaren inolako antzik ez zuen tanta handi bat eroriko baitzatekeen zopara. Etxeko jauna eta gonbidatua bizimodu lasaiaren plazerrei buruz hitz egiten hasi ziren, eta etxekoandrea tartean sartzen zen noizean behin, antzerkiaren eta aktoreen gaineko iruzkinak eginez. Irakasleak adi-adi begiratzeko zuten berbetan ari zirenei, eta, irribarre egingo zutela igarri bezain laster, ahoa zabaldu eta gogotik egiten zuen barre. Inondik ere, esker

oneko gizona zen, eta etxeko nagusiek ematen zioten tratu ona saritu nahi zuen horrela. Halako batean, ordea, begitarteaz lastu, eskuaz mahaia jo, eta begiratu zorrotza egotzi zien bi haurrei, aurrez aurre eseririk baitzeuzkan. Eta garaiz egin zuen hori, zeren Temistokliusek kosk egin berri zion Alkidi belarrarian, eta Alkid, begiak itxirik eta ahoa zabal-zabalik, modurik errukigarrienan negar-garrasika hasteko zorian zegoen, baina, hala eginez gero jatekorik gabe gera zitekeela oharturik, ahoa lehengora itzuli eta, begiak malkotan, txahal-hezur bat marraskatzeari ekin zion, masailak koipez distiratsu. Etxekoandrea sarritan mintzatzen zitzaion Txitxikovi, honela esanez: «Ez duzu ezer jaten, oso gutxi hartu duzu». Eta Txitxikovek beti erantzuten zion: «Estimatzen dizut nitaz hainbeste arduratzea, baina ase naiz, elkarrizketa atsegina edozein jaki baino gozoagoa da».

Mahaitik altxatu ziren. Poz-pez zegoen Manilov, eta besoa sorbaldan jarririk gonbidatuari egongelaraino lagun egiteko gertu zegoela, gonbidatuak, bat-batean, garrantzi handiko gai

bati buruz hitz egin nahi ziola jakinarazi zion, oso begirada adierazkorra egotziz.

— Orduan, plazer baduzu, zatoz nire langelara —esan zion Manilovek, eta gela txiki batera eramán zuen. Gelako leihoek baso urdinkara batera ematen zuten—. Hona nire txokoa —esan zuen Manilovek.

— Leku atsegina da —esan zuen Txitxikovek, begiekin gela azterturik.

Izan ere, atsegina zen gela hura: hormak kolore urdin argi gris-antzeko batez pintaturik, lau aulki, besaulkia eta mahaia. Mahai ganean xingola orri-bereizlearekiko liburua zegoen —lehenago aipatu dugun hura bera—, paper idatzi batzuk eta, batez ere, tabakoa, tabakoa erruz eta era askotara: zorrotxoetan sarturik, toxa batean gorderik eta, azkenik, mahai ganean multzo txikietan bildurik besterik gabe. Bi leihoetan ere pipatik hustutako errauts-metatxoak ikus zitezkeen, ardura handiz antolatuak oso ilara txukunak osatuz. Nabari zenez, etxeko nagusiak horretan ematen zuen denbora batzuetan.

— Mesedez, eser zaitez besaulkian —esan zuen Manilovek—. Erosoago egongo zara.

— Eskerrik asko, baina aulki batean eseriko naiz.

— Ezta pentsatu ere —esan zuen Manilovek, irribarretsu—. Hain zuzen ere, gonbidatuentzat daukat besaulkia. Nahi edo nahi ez, hor eseriko zara.

Eseri zen Txitxikov.

— Onartuko zenidake pipa baten eskaintza egitea?

— Ez, ez dut erretzen —erantzun zuen Txitxikovek, xaloki eta nahigabetu-antzean.

— Zer dela eta? —esan zuen Manilovek, xaloki eta nahigabetu-antzean berak ere.

— Ez dut horrelako ohiturarik hartu, beldur naiz; diotenez, pipa erretzea osasunaren kaltegarri da.

— Uztazu oharrarazten uste okerra dela hori. Gehiago esango dizut: nire iritziz, pipa erretzea tabakoa sudurretik hartzea baino askoz ere osasungarriagoa da. Gure errejimentuan bazen teniente bat, oso jatorra eta eskola handikoa bera, pipa ahotik sekula kentzen ez zuena, ez

mahaian eta, barkatu esatea, beste leku batzuetan ere ez. Berrogei urte eta gehiago ditu orain, baina, Jainkoari eskerrak, ezin hobeto dabil osasunez.

Txitxikovek oharrarazi zion batzuetan horrelako gauzak gertatzen direla, eta naturan badirela bururik argienak ere ezin azal ditzakeen fenomeno ugari.

— Baina, beste ezer baino lehen, galdera bat egin nahi nizuke... —esan zuen gero, ahotsari halako doinu bitxia edo ia bitxia emanek; eta, hori esandakoan, atzera begiratu zuen, zergatik ez dakigula. Manilovek ere atzera begiratu zuen, zergatik ez zekiela—. Noiz aurkeztu duzu azken aldiz nekazarien errolda?

— Aspaldi; edo, hobeto esan, ez naiz gogoratzen noiz.

— Eta nekazari asko hil zaizkizu harrezkero?

— Ez dakit; administratzaileari galdetu beharko nioke. Aizak, morroia, deitu administratzaileari!, gaur hemen behar dik.

Agertu zen administratzailea. Berrogei urte inguruko gizona zen, bizar-moztua eta longainez jantzia. Aurpegi mardul beteak erakusten zue-

nez, oso bizimodu lasaia zeraman; begi txikiak eta azalmintzaren kolore horixkak, berriz, luma-txaren eta izaren lagun mina zela salatzen zuten. Behingoan antzematen zitzaion etxal-de-administratzaile guztiek bezalaxe egin zuela gora: aurrena, idazten eta irakurtzen ozta-ozta zekien morroi arrunt bat besterik ez zen izan; hurrena, emaztetzat hartu zuen Agashka izeneko giltzainen bat, zeina etxekoandrearen kuttuna baitzen; gero, bera izan zen giltzaina; eta azkenean, administratzaile izendatu zuten. Eta, administratzaile zela, noski, administratzaile guztiek bezala jokatu zuen: herrixkako nekazari-rik aberatsenen laguna egin zen, zergak igo zitkien pobrenei, goizeko bederatzietan esnatzen zen, samovarraren zain geratu, eta tea edaten zuen.

— Esadazu, adiskidea, zenbat nekazari hil zaizkigu azken errolda aurkeztu genuenetik?

— Zenbat? Askok hil dira ordutik hona —esan zuen administratzaileak, eta aho aurrean jarri zuen eskua, estalki gisa, zotinka ari zen eta.

— Bai, horretan nengoen ni —esan zuen Manilovek—. Askok hil dira, asko! —Txitxikoven-

ganantz jiratu, eta berriro esan zuen—: Horixe, asko.

— Bai, baina zenbat? —galdetu zuen Txitxikovek.

— Hori, zenbat? —errepikatu zuen Manilovek.

— Nola esan zenbat! Ez dago jakiterik zenbat hil diren, inork ez ditu zenbatu.

— Bai, hala da —esan zuen Manilovek, Txitxikovenganantz bihurturik—, horixe susmatzen nuen nik, mordera hil direla; baina ez dago jakiterik zenbat.

— Mesedez, hilak zenbatu eta zerrenda bat egin guztien izenekin —esan zion Txitxikovek administratzaileari.

— Hori, guztien izenekin... —errepikatu zuen Manilovek.

Administratzaileak «Bai, jauna» esan, eta han joan zen.

— Eta zertarako behar duzu zerrenda hori? —galdetu zion Manilovek Txitxikovi administratzailelea joan zenean.

Galdera horrek, nonbait, ataka gaiztoan jarri zuen gonbidatua: gorriturik, haren aurpegiak halako larritasuna erakutsi zuen, zerbait azaldu

nahi eta hitz egokiak aurkitzen ez dituenaren barrua estutzen duen larritasun hori alegia. Eta, izan ere, giza belarriek sekula aditu ez bezalako gauza bitxi eta harrigarriak entzun zituen Manilovek azkenean.

— Zerrenda hori zertarako behar dudan jakin nahi duzu? Bada, zera, kontua da nekazariak erosi nahi ditudala, hau da, nekazari... —hasi zen Txitxikov, baina ez zuen esaldia bukatzeko adorerik izan.

— Baina esadazu, mesedez, nola erosi nahi dituzu nekazariak?, lur eta guzti ala lurrik gabe? —galdetu zuen Manilovek.

— Egia esan, ez dut nekazaririk nahi —esan zuen Txitxikovek—, zera, hilak nahi ditut...

— Zer? Barkatu..., gor samarra naiz eta oso gauza bitxia entzun dudala iruditu zait...

— Erroldaren arabera oraindik bizirik dauden nekazari hilak erosi nahi ditut —esan zuen Txitxikovek.

Manilovek ahoa zabaldu eta pipa lurrera erortzen utzi zuen; eta aho zabalik geratu zen puska batean. Adiskidetasunean oinarrituriko bizitzaren plazerrez hizketan aritu ziren lehentxeago bi

lagunak, eta geldi-geldirik zeuden orain biak, zirkinik egin gabe, bekoz beko elkarri so, antzina ispiluaren alde banatan aurrez aurre ipini ohi zituzten potret haiek bezala. Azkenean, Manilovek, pipa lurretik jasotzeko makurtu, eta behetik arakatu zuen Txitxikoven aurpegia, ezpainetan irribarre maltzurrik atzemango ote zion, adarra jotzen ari zelako seinale, baina ez zuen horrelakorik kausitu; aitzitik, Txitxikovek ohi baino serioago zeukan aurpegia; gero, pentsatu zuen gonbidatua erotu ote zen bat-batean, eta, izuturik, adi-adi begiratu zion, baina gonbidatuaren begietan baretasun erabatekoa zen nagusi, ez zitzaien igartzen zoroaren begiez jabetu ohi den su basati eta urduri horren arrastorik; ondo eta behar bezala zegoen dena. Manilov eginahalean saiatu zen zer egin eta nola jokatu behar zuen asmatzen, baina ahoan zeukan ke apurra oso hodei mehean kanporatzea besterik ez zitzaion bururatu.

— Beraz, jakin nahi nuke ez prest zauden benetan hil diren baina legeari dagokionez oraindik bizirik dauden nekazari horiek niri saltzeko,

uzteko edo egokien deritzozun moduan emateko.

Baina Manilovek begiratu besterik ez zion egin, hain zegoen aztoraturik eta nahasirik.

— Dirudienez, baduzu eragozpenen bat... — oharrarazi zion Txitxikovek.

— Nik? Ez... bat ere ez —esan zuen Manilovek—, baina ez dizut ulertzen... barkatu... zu gizon ikasia zara, egiten dituzun gauza guztietan antzematen zaizu hori; nik, ordea, ez dut eskola handirik jaso, ez dut menderatzen txukun hitz egitearen antze zail hori... litekeena da horrek, esan berri duzun horrek alegia, zentzu ezkuturen bat izatea... Esaldia edertzeko mintzatu zara horrela, ezta?

— Ez —esan zuen Txitxikovek—, ez, argi eta garbi hitz egin dut: dagoeneko hil diren arimez ari natzaizu.

Zur eta lur zegoen Manilov. Sumatzen zuen zerbait egin behar zuela, galderaren bat egin behar zuela, baina deabruak zekien zer-nolako galdera. Azkenean, kea bota zuen berriro, baina ez ahotik, ezpada sudurzuloetatik.

— Beraz, ondo baderitzozu, oraintxe bertan has gaitezke eroste-agiria prestatzen —esan zuen Txitxikovek.

— Zer?, arima hilen eroste-agiria?

— Ez! —esan zuen Txitxikovek—. Bizirik dau dela idatziko dugu, nekazarien eroldaren arabera bizirik daude eta. Ni sekula ez naiz legearen bidetik baztertzen, nahiz eta horrek atsekabe franko ekarri dizkidan neure jardunean. Barkatuko didazu, baina betebeharra gauza sakratua da niretzat, men egiten diot beti legeari, aitzakiarik jarri gabe.

Gustatu zitzaizkion azken hitz haiek Manilovi, baina artean ez zen jabetzen negozio haren benetako zentzuaz, eta, erantzun ordez, eginahalean ekin zion pipa xurgatzeari, hain kementso, ezen pipa zurrungaka hasi baitzen azkenean, fagota bailitzan. Bazirudien egoera bitxi haren gaineko iritziren bat atera nahi ziola pipari, baina pipak zurrunga egiten zuen, besterik ez.

— Beharbada, susmo txarra hartu didazu...

— Oh, ez!, ez hurrik eman ere. Ez dizut inola ere pentsarazi nahi zure jokabidea gaitzesten dudanik. Baina, esadazu, egintza hori edo, beste

era batera esanik, nolabait deitzearren, negozio hori, ez al da Errusiako legeen eta etorkizunaren kontrakoa?

Hori esandakoan, batera eta bestera eragin zion Manilovek buruari; oso modu adierazko-
rrean begiratu zion Txitxikovi aurpegira, eta hain
aire sakona agertu zuen hazpegi guztietan eta
bere ezpain estutuetan, ezen sekula ez baita
halakorik ikusi ezein gizakiren aurpegian, oso
ministro buruargiren batenean ez bada, eta hori
buruhauste larri baten aurrean aurkitzen denean
soilik.

Baina Txitxikovek erantzun zion egintza edo
negozio hura ez zela inondik ere Errusiako
legeen eta etorkizunaren kontrakoa, eta jarraian
erantsi zuen herri-altxorrak berak etekina atera-
ko zuela handik, legeak aginduriko zergak jaso-
ko zituen eta.

— Hala uste duzu?

— Bai, uste dut zuzen jokatuko dugula.

— Tira, hori besterik da: jokabidea zuzena
izanik, ez dut ezer haren kontra —esan zuen
Manilovek, lasaitu ederra harturik.

— Orain, prezioaz hitz egin dezagun.

— Prezioaz? —esan zuen Manilovek, eta isilik geratu zen lipar batez—. Zer uste duzu?, dirurik onartuko dizudala nolabait ere mundu honetako aldia egina duten arima batzuen aldera? Zuk gurari berezi hori duzunez, nik, neure aldetik, doan emango dizkizut arimak, eta, gainera, eros-te-agiriaren gastuak ordainduko ditut.

Kargu-hartze larria mereziko luke gertakarion berri ematen ari den historialariak, esan gabe utziko balu nolako poza jabetu zen gonbidatuaz Maniloven hitz haiek entzutean. Gizon serio eta zentzuduna bazen ere, ozta-ozta ez zen hasi ahuntzaren gisara jauzika —jendeak, denok dakigunez, pozez zorutzen dagoenean bakarrik egiten du hori. Hain bortizki jiratu zen besaulkian, ezen zarrastatu egin baitzen bigungarria biltzen zuen ehun artilezkoa; harrituxe begiratu zion Manilovek berak. Txitxikovek, esker onez gainezka, estimuzko hitzez josi zuen solaskidea, eta Manilov, gogoaz zeharo nahasirik eta gorri-gorri jarririk, baiezko keinuak egiten hasi zen buruaz, eta azkenean esan zuen hori hutsaren hurrena zela, nahiago zukeela beste moduren batera erakutsi bihotzaren sakonean berarenga-

na sentitzen zuen estimua, barru-barruko atxiki-
mendua, eta arima hilen kontu hori, nolabait,
huskeria zela.

— Ez da inola ere huskeria —esan zuen Txi-
txikovek, eskua estutzen zion bitartean. Oso
hasperen sakona egin zuen gero. Nonbait, biho-
tzeko samurtasun guztia husteko gogoia zuen;
sentimendu handiz eta oso modu adierazkorrean
esan zituen hurrengo hitzak—. Jakingo bazenu
zuk huskeriatzat daukazu horrekin zer-nolako
mesedea egin diozun ez egonlekurik ez familia-
rik ez duen gizon honi! Bai, gorriak ikusi ditut nik
bizitzan! Itsasoko olatu zakarren artean dabilen
txalupatxoaren antzekoa nauzu... Nola esetsi
didaten, nola eraso didaten, zein estualdi latzak
igaro ditudan! Zergatik, eta justizia maitatzeaga-
tik, kontzientzia garbi edukitzeagatik, alargun
babesgabei eta umezurtz errukarrei eskua
luzatzeagatik! —Horra iritsirik, malko bat xukatu
zuen sudur-zapiatz.

Manilov arras hunkiturik zegoen. Bi adiski-
deek luzaz estutu zizkioten eskuak bata bestea-
ri, eta luzaz begiratu zioten elkarri, isilik, begie-
tatik malkoak zerizkiela. Manilovek ez zuen ino-

lako asmorik gure protagonistaren eskuak askatzeko, eta hain sutuki estutzen zizkion, ezen Txitxikovek ez baitzekien nola aterako zituen handik. Azkenean, poliki-poliki eskuak askaturik, esan zuen ez legokeela txarto eroste-agiria lehenbailehen sinatzea eta, horretarako, ondo legokeela Manilov bera hirira joatea. Gero, kape-lua hartu, eta agurtzeko imintzioa egin zuen.

— Nola?, bazoaz? —esan zuen Manilovek, bat-batean bere onera itzulirik eta ia izuturik.

Une horretan, Manilova sartu zen gelan.

— Lizanka —esan zion Manilovek, nahigabe-turik—. Pavel Ivanovitx badoa!

— Inondik ere, aspertu egin da gurekin Pavel Ivanovitx —erantzun zuen Manilovak.

— Andrea!, hemen —esan zuen Txitxikovek—, hemen, bai, hementxe —bihotzean ipini zuen eskua—, hemen iraungo du zuekin igaro dudan denboraren oroitzapen gozoak! Eta, sinetsidazu, niretzat ez legoke zorion handiagorik zuekin batera bizitzea baino, etxe berean ez bada, aha-lik eta hurbilen bai behintzat.

— Bai horixe, Pavel Ivanovitx! —esan zuen Manilovek, ideia hori biziki gustatu baitzitzaion—

. Oso ondo legoke elkarrekin bizitza etxepe berean, edo zumar baten gerizpean eseririk edozein gairi buruz filosofatzea eta sakon mintzatzzea!

— Oh, bai!, zoragarria litzateke bizitza hori! —esan zuen Txitxikovek, hasperen eginez—. Agur, andrea! —gaineratu zuen, Manilovaren eskura hurbildurik—. Agur, lagun txit agurgarria! Ez ahaztu nire eskaria!

— Oh!, ziur egon ez dudala ahaztuko! —erantzun zuen Manilovek—. Beranduenez, bi egun barru berriro izango naiz zurekin.

Jangelara irten ziren denak.

— Agur, ume maiteok! —esan zuen Txitxikovek, Alkid eta Temistoklius ikusirik. Zurezko husar besomotz eta sudurgabe batekin jolasean ari ziren biak—. Agur, ene laztanok! Barkatu oparirik ez ekarria, aitor dut ez nekiela zuen berririk. Baina hitzematen dizuet hurrengoan oparitxo bana ekarriko dizuedala, huts egin gabe. Zuri sable bat ekarriko dizut. Sablea nahi duzu?

— Bai —erantzun zuen Temistokliusek.

— Eta zuri, berriz, danbor bat. Danborra nahi duzu, bai? —jarraitu zuen, Alkiden aldera makurturik.

— Tanporra —erantzun zuen Alkidek, xuxurlaka eta burua makurturik.

— Ederto, danborra ekarriko dizut. Danbor polit bat, honela egingo duena: tarra-pata-tan... tarra-pata-tan, pata-tan-tan... Agur, poxpolinok, agur!

Hori esandakoan, umetxoari buruan musu eman, eta Manilov senar-emazteenganantz jiratu zen irribarre txikia eginez, seme-alaben apeta xaloen berri jakinaraztean gurasoei zuzendu ohi zaizkien irribarre txiki horietako bat alegia.

— Zinez diotsut, Pavel Ivanovitx, gera zaitez! —esan zuen Manilovek, ordurako ataurrean zeudela—. Begira nolako hodeiak.

— Hodei txikiak dira —erantzun zuen Txitxikovek.

— Badakizu Sobakevitxen etxeko bidea?

— Hain zuzen ere, horixe galdetzekotan nengo.

— Oraintxe azalduko diot zure kotxezainari.

Orduan, Manilovek, adeitasun handiz azaldu zion kotxezainari nondik jo behar zuen, eta «jauna» deitu zion behin.

Kotxezainak, bidegurutze bi atzean utzi eta hirugarrena hartu behar zutela entzunik, esan zuen:

— Oraingoan asmatuko dugu, jauna.

Han joan zen Txitxikov, eta etxeko nagusiek, oin-puntetan jarririk, luzaz lagundu zioten beren diosalekin eta zapi-astinduekin.

Manilov denbora luzea egon zen ataurrean zutik, begiekin britxkari jarraitzen ziola, urrunduz baitzihoan; eta begien bistatik erabat desagertu zelarik ere, hantxe geratu zen, pipa erretzen. Azkenean, etxean sartu zen; aulki batean eseri, eta gogoetetan murgildu zen, poz-pezik bere gonbidatuari atsegin txiki bat emateko aukera izan zuelako. Gero, konturatu gabe, haren pentsamenduek beste bide batzuk hartu zituzten, eta batek daki noraino iritsi ziren azkenean. Pentsatzen hasi zen zein zorionekoa zen adiskidetasunean oinarrituriko bizitza, zein ederra litzatekeen lagun batekin ibai ertzean bizitzea: zubi bat eraikiko zuen ibaiaren gainetik,

eta hurrena etxe handi-handi bat, behatoki garai batekin, zeinetik Mosku bera ere ikusiko baitzen, eta arratsean tea hartuko zuten han, aire zaba-lean, eta gai atseginez mintzatuko ziren. Gero, Txitxikov eta biak, zaldi-kotxe dotore batean joango ziren goi-gizarteko bilera batera, eta lilu-raturik utziko zituzten denak beren jokabide xar-magarriarekin, eta tsarrak —haien adiskidetasu-naren berri jakinik— jeneral izendatuz sarituko zituen; eta Jainkoak daki zer gertatuko zen gero, Manilovek behintzat erabat galdu baitzuen bere gogoeten haria. Txitxikoven eskari bitxiak ame-tsaldia eten zion bat-batean. Ez zen gauza haren asmoen benetako zentzuari antzemateko: buruan jira-biraka bazerabilen ere, ez zuen lor-tzen korapiloa askatzea; eta han geratu zen ese-ririk, pipa erretzen, afaltzeko ordua arte.

Hirugarren kapitulua

Bitartean, Txitxikov gogo-aldarte oneko zegoen bere britxkan, zeina aspalditxo baitzen bide nagusitik zihoala. Aurreko kapituluan argi ikusi da zer zeukan Txitxikovek bere nahi eta gurarien jomuga nagusi, eta, espero izatekoa zenez, buru eta bihotz lotu zitzaion berehala bere ameskizunari. Antza, buruan zebilzkion asmoak, kalkuluak eta oldozpenak oso atseginak ziren, zeren irribarre gozo baten aztarna uzten baitzioten behin eta berriro aurpegian. Bere gogoetetan murgildurik, ez zion batere arretarik jartzen kotxezainari, zeinak, Maniloven etxeko zerbitzari-jendeak eginiko abegi onak alaiturik, oso oharpen zuhurrak egiten baitzizkion troikako laguntza-zaldi izpildunari. Zaldi hura troikaren eskuineko aldean zebilen, eta ikaragarri maltzurra zen: tiraka ari zelakoa egiten zuen, baina itxura hutsa zen, eta, bitartean, erdiko zurihorixka eta ezkerreko gaztainkara argia —zeinari *Kontseilari* deitzen baitzioten, halako kontseilari bati erosi ziotelako— hanken eginahal guz-

tian aritzen ziren, halako moldez, ezen begietan igartzen baitzitzaien zenbaterainoko plazerra eragiten zien horrek.

— Amarruzale hori, oraintxe erakutsiko diat nor den hemen azkarrena! —ziotson Selifanek nagitzarrari, jarlekutik altxatuxe eta zigorrarekin joz—. Oraindik ez duk hire lana ikasi, alemaniar alfer horrek? Zuri-horixka zaldi jatorra duk, bere zeregina betetzen dik, eta gustura emango niokek bazka-neurri bikoitza; eta Kontseilari ere zaldi ona duk... Et, et, et!, zergatik eragiten diek horrela belarriei? Entzun ezak, ergel horrek, hirekin ari nauk eta! Ez diat gauza itsusirik irakatsiko, lotsagabea halakoa! Arraioa!, zertan habil, gero?

Berriro jo zuen zigorraz, eta esan:

— Kankailua galanta hi! Bonaparte madarika-tua!

Gero, oihuka guztiei:

— Axa, axa, laztanok!

Eta zigorra dantzatu zuen hiru zaldien bizkar gainean, pozik zegoela adierazi nahirik eta zigortzeko asmorik gabe. Halako atseginaldia emandakoan, ostera mintzatu zitzaion izpildunari:

— Zer uste duk, gero?, ez naizela hire amarrukeriaz konturatzen? Zintzo portatzen bahaiz, jendeak ondo tratatuko hau. Bisitatu berriak ditugun lurjabeen morroiak, esaterako, jende onak dituk. Nik gustura hitz egiten diat jende onarekin, ondo konpontzen nauk beti jende onarekin, gogoko diat jende onarekin tea hartzea edo mokadu bat jatea. Gizona ona bada, begirunez tratatzen dik mundu guztiak. Gure nagusia, esaterako, mundu guztiak errespetatzen dik, zeren, jakin ezak, Estatuaren zerbitzuan jardun dik lanean, kolejio-kontseilaria duk...

Arrazoibide horrek abstrakziorik urruneneta-raino eraman zuen azkenean Selifan. Txitxikovek, arretarik jarri izan balio, bere buruaren gaineko xehetasun ugari jakingo zituzkeen, baina hain zegoen bere baitara bildurik, ezen trumoi baten dunbots ozenak soilik ekarri baitzuen bere zentzura. Ingurura begiratu zuen: zerua hodeitzarrez estalirik zegoen, eta euri-tantak postako bide hautsez betea bustitzen hasiak ziren. Beste trumoi-danbada bat entzun zen, hurbilago eta ozenago, eta, bat-batean, goian behean eraso zion euriari. Hasieran, zeharka erortzen zen,

kibitkaren estalkia aurrena alde batetik eta hurrena bestetik joz; gero, eraso-modua aldatu-rik eta goitik behera zuzen-zuzen jausiz, zarta-zarta hasi zen estalkiaren gainaldean; azkenik, euri-tantak Txitxikoven aurpegia bustitzen hasi ziren. Horrek beharturik, Iaruzko errezelak hedatu zituen. Bi zulo txiki biribil zeuden errezel bakoitzean, bidaldietan paisajea ikusi ahal izateko eginak. Gero, lasterrago joateko agindu zion Selifani. Kotxezaina —hura ere bere erretolika- ren muinean etenik— berehala konturatu zen ez zegoela alferkerian ibiltzeko astirik; gida-aulkia- ren azpitik oihal grisezko soingaineko zirtzil bat atera, gainetik jantzi, hedeei eragin, eta garrasi- ka hasi zitzaion troikari, zaldiak ia geldirik bai- tzeuden, giharrak lasaiturik prediku mamitsua- ren urruma gozoaren eraginez. Baina Selifanek ezin zuen inola ere gogoratu bi ala hiru bidegu- rutze igaroak zituzten. Horretaz jabeturik, eta eginiko bidea nola edo hala gogora ekarriz, kon- turatu zen bidegurutze mordoa utzia zutela atzean. Zirt edo zarteko kinketan errusiarrak ohi duenez, ez zen luzamendutan ibili, eta, tupus- tean, eskuinetara jo zuen aurreneko bideguru-

tzean, zaldiei garrasika: «Axa, lagun agurgarriok! Aurrera, maiteok!»; eta ziztu bizian jarraitu zuen aurrera, harturiko bideak nora ote zera-man pentsatu ere egin gabe.

Itxuraz, euriak luzerako asmoa zekarren. Bideko hauts-zolda lokatz bihurtu zen berehala, eta zaldiei gero eta nekezagoa zitzaien kibitkatik tiratzea. Txitxikov oso urduri jartzen hasi zen hain denbora luzean Sobakevitxen herriaren arrastorik ikusi ez zutelako. Bere kontuen arabera, aspaldi iritsiak behar zuten. Ingurua arakatu zuen, baina begiek ez zuten deus ikusterik, hain zen beltza ilunpea.

— Selifan! —esan zuen azkenean, burua kotxeko estalkitik aterata.

— Bai, jauna? —erantzun zion Selifanek.

— Ez duk herririk ikusten?

— Ez, jauna, ez dut herririk ikusten inon!

Hori esandakoan, zigorra airean dantzatu, eta kanta-moduko bati ekin zion; eta kanta edo dena delako hura hain zen luzea, ezen ez baitzuen amaierarik. Denetarik zegoen han: Errusiako luze-zabal osoan gurdizainek zaldiei egin ohi dizkieten garrasi bihotz-emaileak eta oihu

kitzikatzaileak, eta mota guztietako adjektiboak, nolana ere josiak ezpainetara etorri bezala. Eta, halatan, hitza eta pitza zeriola, zaldiei zer eta «eskribau» deitzen hasi zitzairen azkenean.

Txitxikov, bitartean, ohartzen hasia zen kotxea batera eta bestera zambuluka zihoala eta oso astindu gogorak ematen zizkiola; eta horrek pentsarazi zion bidetik saihestu zirela eta, seguraski, sororik soro zebiltzala. Selifan ere, antza, horretan zegoen, baina ez zuen txintik ateratzen.

— Alproja hori, nondik arraio hoa? —esan zion Txitxikovek.

— Eta zer egingo dut eguraldi honekin, jauna? Zigorra ere ez dut ikusten iluntasun honetan!

Eta, hori esandakoan, hainbeste okerrarazi zuen britxka, ezen Txitxikovek bi eskuekin heldu behar izan baitzion. Orduan konturatu zen Selifan txolindurik zegoela.

— Eutsi, eutsi, irauli egingo duk eta! —egiten zion oihu.

— Irauli niri, jauna? Horrelakorik pentsatzea ere! —zioen Selifanek—. Gauza txarra litzateke

iraultzea, badakit hori; baina niri ez zait sekula irauliko.

Gero, britxka birarazten hasi zen, eta, birarazi eta birarazi, alde batera irauli zitzaion azkenean. Txitxikov luze-luze jausi zen lokatzetara. Selifanek zaldiak geldiarazi zituen, nahiz eta haiek bere kabuz geldituko ziren besterik gabe ere, leher eginik zeuden eta. Ustekabeko istripuak ahoa bete hortz utzi zuen kotxezaina. Gidaulkitik jaitsi, besoak hazta eginik britxkaren aurrean paratu, eta, lokatzetan bihurka jaunak hanka ganean jartzeko ahaleginak egiten zituen bitartean, honela esan zuen pixka batean hausnartu ondoren: «Arranopola!, irauli ez da, ba!».

— Mozkor-mozkor eginda hago! —esan zion Txitxikovek.

— Mozkortuta ni, jauna? Horrelakorik esatea ere! Badakit mozkorra harrapatzea gauza txarra dela. Hizketan aritu naiz lagun batekin, zeren ondo dago jende onarekin hitz egitea, ez dago ezer txarrik horretan; eta mokadu bat jan dugu elkarrekin. Mokadu bat jatea ez da gauza itsusia; gauza ona da jende onarekin mokadu bat jatea.

— Eta zer esan nian mozkortu hintzen azke-nekoan? Ahaztu al zaik? —esan zion Txitxikovek.

— Ahaztu niri, nagusi jauna? Horrelakorik pentsatzea ere! Badakit nire lana zein den. Badakit mozkorra harrapatzea gauza txarra dela. Hizketan aritu naiz lagun batekin, zeren ondo dago...

— Jipoi ederra emango diat, eta segituan ikasiko duk zein ondo dagoen jende onarekin hitz egitea!

— Nahi duzun bezala, nagusi jauna —erantzun zuen Selifanek, guztiarekin ados agertuz—, jipoitu behar banauzu, datorrela jipoia; ez dut ezer horren kontra. Morroiak jipoia merezi badu, nagusiak jotzeko eskubidea du. Mujikak okerra egiten badu, jipoia eman behar zaio, ordena zaindu beharra dago eta. Jipoia merezi badut, zergatik ez nauzu, bada, jipoituko?

Horrelako arrazoinamenduen aurrean, zer erantzun ez zekiela geratu zen nagusi jauna. Baina une horretantxe, antza, patuak Txitxikovez errukitzea erabaki zuen. Zakur-zaunkak entzun ziren urrun. Alaiturik, zaldiak akuilatzeke agindu zuen Txitxikovek. Errusiako gurdizainak

beren sen onaz baliatzen dira ikusmenak ezertarako balio ez dienean; horregatik, askotan, begiak txiloturik heriosuharrean aurrera jo, eta beti iristen dira nonbaitera. Selifanek, tutik ikusi gabe ere, hain zuzen bideratu zituen zaldiak herrixkarantz, ezen britxkaren arasak hesi baten kontra jo eta aurrera jarraitzerik ez zegoenean soilik gelditu baitziren. Txitxikovek ozta-ozta atzeman zuen teilatu baten antzeko zerbait euri-zaparrada loditik zehar. Sarreraren bila bidali zuen Selifan, eta, inondik ere, luze joko zion zeregin horrek, baldin eta Rusen gizakumeen ordezkur kartsuak ez baleude ateetan jagole. Izan ere, etxe hartako zakurrak hain ozenki iragarri zuen bere presentzia, ezen Selifanek belarriak estali behar izan baitzituen hatzekin. Argi batek dir-dir egin zuen leiho txiki batean, eta motelki argitu zuen hesirainoko tartea, gure bidaiariei sarbidea erakutsiz. Selifan deika hasi zen, eta, luze gabe, atexka bat ireki, eta oihal latzezko beroki lodi batean bilduriko irudi bat agertu zen. Nagusi-morroiek emakume baten ahots zakarra entzun zuten:

— Nor da? Zer dela eta hainbeste zarata?

— Bidaiariak gaituzu, emakumea, gau hone-tarako ostatu eske etorriak zurera —esan zuen Txitxikovek.

— Hara bestea! Zer uste duzu, gero? —esan zuen emakume zaharrak—. Hauek al dira ate-joka etortzeko orduak? Gainera, hau ez da osta-tua, andre lurjabe baten etxea baizik.

— Zer egingo diogu, emakumea! Galdu egin gara, eta eguraldi honekin ezin dugu gaua este-paren erdian igaro.

— Bai, eguraldi zakarra egiten du, eguraldi txarra —erantsi zuen Selifanek.

— Isilik egon hadi, astakirten hori! —esan zuen Txitxikovek.

— Eta nor zara zu? —galdetu zuen emakume zaharrak.

— Aitoren seme bat.

«Aitoren seme» hitzak zer pentsatua eman zion emakume zaharrari.

— Egon apur batean, zure berri emango diot etxekoandreak —esan zuen, eta bi minutu gero-go itzuli zen, eskuan argiontzia zekarrela.

Ireki zen hesiko atea. Argitxo batek dir-dir egin zuen beste leiho batean. Britxka, esparruan

sartu, eta ilunpe beltz hartan nekez bereiz zitekeen etxe txiki baten aurrean gelditu zen. Leihotik ateratzen zen argiak etxearen erdia bakarrik agerrarazten zuen begien bistan. Etxe aurrean zegoen istil bat ere ikus zitekeen, argiak bete-betean hartzen baitzuen. Euriak danba-danba jotzen zuen zurezko teilatua, eta ur-xirripak gurgurika isurtzen ziren behean jarritako upel batera. Bitartean, zaunka eta zaunka hasi ziren zakurrak, mota guztietako hotsak ateraz: batek, lepoa gorantz luzaturik, hain ulu zoli eta betibatekoak egiten zituen, ezen bai baitzirudien sariren bat jaso behar zuela horren ordainez; beste baten zaunkak, berriz, etenak eta laburrak ziren, elizako sakristauaren kantuaren antzekoak; haien artean —postako kotxeetako txilina bailitzan— soprano baten soinu etengabea entzuten zen, inondik ere zakurkume baten ezta-ritik aterea; eta, azkenik, baxu bat gailentzen zitzaien beste guztiei, zakur zahar mardul bat seguraski, zeren oso tonu sakona baitzerabilen, kontrabaxuak kontzertuaren unerik bizienean bezala: tenoreek, oin-puntetan jarririk, goiko nota kantatzen dute gogo biziz, burua atzera

eramanik eta elkarrekin lehian, tonurik zoliena nork emango, eta kontrabaxuak, aldiz, bere kokots bizartsua gorbatan sarturik daukala, kukubilko eta ia lurra ukitzeraino makurturik, bere nota jaulkitzen du handik, halako moldez, ezen kristalak dardaraz eta tintinka hasten baitira. Horrelako musikarien eztarrietatik ateratako zaunka-hots haiek argi erakusten zutenenez, handi samarra zen herrixka hura; baina gure protagonistak, blai-blai eginik eta hotzez dardaraka, ohea beste pentsamendurik ez zuen buruan. Britxka guztiz gelditu arte itxaron gabe, jauzi batez jaitsi eta lasterka joan zen etxeko atarirantz; bidean irrist egin, eta erortzeko zorian egon zen. Beste emakume bat irten zen atarira, aurrekoa baino gaztexeagoa baina oso antzekoa. Barrura eraman zuen bisitaria. Txitxikovek gaingiroki aztertu zuen gela begirada arin batez: marradun paper zahartuxea hormetan; hainbat margolan, txori desberdinen irudiekin; antzinako ispilu txiki batzuk leihoen artean, hosto kiribilduen formako ertzinguru ilunekin; ispilu bakoitzaren atzean gutun bat, edo karta-sorta zahar bat, edo galtzerdi bat; horma-erloju bat, esferan

pintaturik loreak zeuzkana... ezin izan zuen bes-
terik atzeman. Sumatzen zuen betazalak elkarri
itsasten ari zitzaizkiola, norbaitek eztiz igurtzi
balizkio bezala. Handik gutxira, etxekoandrea
sartu zen, presaka jantziriko lo-txano bat buruan
eta flanelazko sorbalda-oihal bat lepo inguruan
loturik. Adinean sarturiko emakumea zen, uzta
txarrak ekarritako galerez kexatu eta burua alde
batera pixka bat okertzen duten eta, aldi berean,
txanponez txanpon dirua bildu eta komodako
kaxoietan ezkutaturiko ehun latzezko zakutxoet-
an sartzen duten andre lurjabe txiki horietakoa.
Zakutxoetako batean errubloak bakarrik sartzen
dituzte, beste batean berrogeita hamar kopeke-
ko txanponak, eta hirugarren batean hogeita
bost kopekekoak, nahiz eta itxuraz badirudien
komodan arropa zuria baino ez dagoela, eta ohe-
atorrak, eta harilkoak, eta beroki sareturen
bat...; jaiegunetako gozopilak egostean soineko
zaharra erretzen bazaie edo, bestela, erabiliaren
erabiliaz berez higatzen bazaie, soineko bihurtu-
ko dute komodan gorderiko beroki saretu hori;
baina, etxekoandrea oso begiratua izaki, soineko
zaharra ez zaio sekula erreko ez berez higatuko,

eta beroki saretuak denbora luzea egingo du komoan gorderik, eta, azkenean, testamentuan utziko dio ahizparen bilobari beste traste zahar batzuekin batera.

Txitxikovek barkamena eskatu zion ustekabean iritsirik ematen zizkion nekeengatik.

— Lasai, ez dago zer barkaturik —esan zuen etxeakoandreak—. Nolako eguraldiarekin ekarri zaituen Jainkoak hona! Hau haizea, hau ekaitza... Gogo onez eskainiko nizuke jateko zerbait, baina gaueko ordu hauetan ez dago ezer prestatzerik.

Txistu bitxi batek eten zuen etxeakoandreaken hizketa. Txitxikov izutu egin zen halako txistua entzutean, zeren bai baitzirudien gela sugez bete zela bat-batean; baina gora begiratu, eta lasaitu ederra hartu zuen, horma-erlojuak une horretantxe ordua jotzea erabaki zuela konturatuturik. Txistuaren ondotik, halako karranka bat entzun zen, eta azkenean erlojuak ordu biak jo zituen bere indar guztiekin, eta hain zalaparta handia atera zuen, ezen bai baitzirudien norbaitek eltze mailatu bat jo zuela makila batez. Gero,

pendulua tiki-taka hasi zen berriro, ezker-eskuin astiro higituz.

Txitxikovek eskerrak eman zizkion etxeoandreaki, esanik ez zuela ezeren premiarik, ez zezala berarengatik inolako ardurarik har, ohea besterik ez zuela behar eta bakarrik gustatuko litzaiokeela jakitea nora iritsia zen eta ea Soba-kevitxen herrixkako bidea handik urrun zegoen; eta etxeoandreak erantzun zion sekula ez zuela izen hori entzun eta inguru hartan ez zegoela horrela deitzen zen lurjaberik.

— Baina, gutxienez, Manilov ezagutuko duzu, ezta? —esan zuen Txitxikovek.

— Eta nor da Manilov hori?

— Lurjabe bat.

— Ez, ez dut haren aditzerik, ez dakit lurjabe horren berririk.

— Nor dira inguru honetako lurjabeak, bada?

— Bobrov, Svinin, Kanapatiev, Jarpakin, Tre-pakin, Pleshakov.

— Aberatsak dira?

— Ez, jauna, ez dira oso aberatsak. Batek hogeia arima ditu, beste batek hogeita hamar; ehun baino gutxiago denek.

Bazter leku batean zegoela konturatu zen Txitxikov.

— Eta hiria hemendik urrun dago?

— Hirurogei bat verstara. Tamalez, ezin dizut jatekorik eskaini! Terik nahi duzu, jauna?

— Ez, eskerrik asko, andrea. Ohea besterik ez dut behar.

— Arrazoi duzu, atsedeen-premia handia izango duzu hain bidaia nekagarriaren ondotik. Hor-txe bertan lo egin dezakezu, jauna, diban horretan. Aizan, Fetinia, ekarri lumatxa, bururdia eta izarak. Nolako eguraldia ekarri digun Jainkoak!, hauek trumoiak! Kandela bat eduki dut gau osoan ikonoaren aurrean pizturik. Ene, bada!, lokatzez beterik dauzkazu bizkarra eta bi alboak, jauna; zerri-zerri eginda zaude. Non zikindu zara horrela?

— Jainkoari eskerrak, zikindu besterik ez naiz egin, eta gaitz erdi saihets-hezur guztiak hautsi ez ditudanean.

— Ene Jainko zeruetakoa! Ikaragarria! On egingo lizuke bizkarra zerbaitekin igurtzitzeak.

— Mila esker, mila esker. Ez kezkatu; agindu neskameari nire arropak lehortzeko eta garbitzeko, besterik ez.

— Aizan, Fetinia! —deitu zion etxekoandreak neskame zaharrari, une horretan atarirantz baitzihoan, kandela eskuan. Ordurako, ekarria zuen lumatxa, eta, eskuekin bi alboetan astindu on batzuk eman zizkiola, lumaz beterik utzia zuen gela osoa—. Hartu gizon honen berokia eta barruko arropak eta, lehenik, sutondoan lehortu, nagusi jaun zenduaren jantziekin egiten huen bezala, eta gero astindu eta ondo garbitu.

— Bai, andrea! —esan zuen Fetiniak, lumatxaren gainean izarak hedatu eta bururdia bere tokian ipintzen zuen bitartean.

— Horra, prest daukazu ohea —esan zuen etxekoandreak—. Gabon, jauna, ondo lo egin. Ez duzu besterik behar? Beharbada, lotaratu aurretik norbaitek orpoetan hatz egiteko ohitura duzu. Nire senarra zenak ezin izaten zuen hori gabe lorik hartu.

Baina gonbidatuak uko egin zion orpoetan hatz egiteko eskaintzari ere. Joan zen etxekoandrea. Txitxikov aitaren batean biluzi zen, eta

Fetiniari eman zizkion janzki guztiak, bai kanpo-koak eta bai barrukoak, eta Fetiniak —berak ere gabonak emanik— han eraman zituen estalgarri busti haiek guztiak. Txitxikovek, bakarrik geratu zelarik, irrikaz begiratu zion etzalekuari, ia sabairaino bertaraino iristen baitzen. Nabaria zen Fetinia ikaragarri trebea zela lumatxak harrotzen. Aulki bat alboan ipinita etzalekura igo zenean, lumatxak behera egin zuen lurra ia ukitzeraino, eta lumak, gorputzaren zamak beren gordetegitik aterarazirik, hegan barreiatu ziren gelako zoko-bazter guztietara. Kandela itzali, kotoizko burusiaz oinetatik bururaino estali, eta, bil-bil eginik, berehala lokartu zen. Goiz beranduan esnatu zen biharamunean. Eguzkia dirdiratsu sartzen zen leihotik eta bete-betean jotzen zuen begietan, eta euliak, aurreko egunean hormetan eta sabaian lo gozoan egonak baitziren, denak batera oldartzen zitzaizkion orain: bat ezpainean pausatu zitzaion, beste bat belarrian, eta hirugarren batek begian eroso-eroso esertzeko ahaleginak egiten zituen; euli hori bera, batere zuhurtziarik gabe, sudurzulotik hurbil jarri zitzaion lehentxeago, eta Txitxikovek, ordurako esnatzen

hasirik, sudur barrura ekarri zuen arnasa hartzean, eta usin bortitza egin zuen horren eraginez, eta, hain zuzen ere, horrek esnarazi zuen guztiz. Gela begiradaz arakaturik, ohartu zen margolan guztiak ez zirela txorienak: Kutuzov mariskalaren erretratu bat ere bazen haien artean, baita agure batena ere, olioiz margotua; agureak mahukaburu gorriekiko uniformeak zeukan soinean, Pavel Petrovitx-en garaian erabiltzen zituztenen tankerakoa. Erlojuak, berriro txistu egin, eta hamarrak jo zituen; emakume baten aurpegia azaldu zen atearen zirrituan, baina berehala desagertu zen, zeren Txitxikovek, erosoago lo egin nahirik, arropa guztiak erantziak baitzituen. Aurpegi hura nonbaitetik ezagutzen zuelako irudipena izan zuen. Nor ote zen gogoratzeko ahaleginak egiten hasirik, etxe-koandrea bera zela konturatu zen azkenean. Alkandora jantzi zuen; aldamenean zeuzkan beste janzki guztiak ere, lehor eta garbi. Jantzi, ispilura hurbildu, eta usin egin zuen berriro, hain ozenki, ezen une horretan leihora inguratu berria zen indioilar batek —leioa lurretik oso hurbil zegoen— zerbait murduskatu baitzion, hitzetik

hortzera eta oso azkar, bere hizkuntza bitxian — «Egun on», seguraski—, eta Txitxikovek «Ergela halakoa!» erantzun zion. Leihora hurbildurik, aurrean zeukan ikuskaria arretaz aztertzeari ekin zion: leihoak ia oilategira bertara ematen zuen; behinik behin, eskorta estu bat zeukan aurrean, hegatziz eta mota guztietako aberez mukuru betea. Ezin konta ahal indioilo eta oilar zegoen; indioilarra batera eta bestera zebilen haien artean, patxada ederrean eta urrats betiberdinak eginez, noizean behin gandorrari leunki eraginka eta burua alde batera jiraturaz, zerbaiti belarri emateko bezala; zerrama bat ere bazen han, bere zerrikumeekin; zerrama hark, hondakin-pila batean uxarka ari zela, txito bat irentsi zuen bidenabar, eta gero, horretaz konturatu gabe, angurri-azalak jaten jarraitu zuen ezer gertatu ez balitz bezala. Eskorta edo oilategi txiki hura oholesi batez inguraturik zegoen, eta oholesiaz bestaldean alor ikaragarri zabalak ikusten ziren, eta, han ereinda, azak, tipulak, patatak, erremolatxak eta bestelako barazkiak. Alorretan, sagarrondoak eta bestelako fruta-arbolak ikusten ziren hor-hemenka, sarek estalirik mika eta

txolarreen erasoetatik babesteko, zeren txolarrak saldoka ibiltzen baitziren batera eta bestera joan-etorrian. Hainbat txorimalo zegoen, haga luzeetan jarririk eta besoak zabal-zabalik, txoriak uxatzeko hain zuzen ere. Haietako batek etxekoandrearen burukoa zeukan jantzirik. Alorez harago nekazarien izbak ageri ziren. Nahas-mahas eraikita zeuden, behar bezalako kalerik eratu gabe; nolana ere, Txitxikoven irudiko, hango nekazariak esne-mamitan bizi zirela erakusten zuten, denak egoera onean zeuden eta: guzti-guztiek ohol berriak zeuzkaten teilatuko ohol zaharkituen orde; ate guztiak beren erroetan ondo sarturik zeuden; eta ordeko orgak ikusi zituen nekazarien lehorpeetan gorderik, ia berriak, gehienetan bat eta batzuetan bi. «Hara!, ez da txikia, gero, honen herrixka!», esan zuen bere artean, eta etxekoandrearekin hitz egitera joan zen, hobeto ezagutzeko asmoz. Ate aldera begiratu zuen, lehentxeago etxekoandreak burua agertu zuen zirritura hain zuzen ere, eta, te-mahaitxoaren alboan eserita ikusirik, berarenganantz joan zen, irribarretsu eta losintxari.

— Egun on, jauna. Ondo lo egin duzu? —esan zion etxekoandreak, zutitzeko keinua eginez. Bezperan baino hobeto jantzirik zegoen, soineko ilun batez eta lo-txanorik gabe, baina oraindik bazeukan zerbait loturik lepo inguruan.

— Ondo, ondo —esan zuen Txitxikovek, besaulki batean esertzeaz batera—. Eta zu zer moduz zaude, andrea?

— Txarto.

— Zer dela eta?

— Lo egin ezina. Minez ebakitzen daukat gerria, baita hanka ere, belauna baino apur bat gorago.

— Joango zaizu, andrea, joango zaizunez. Ez horregatik kezkatu.

— Jainkoari nahi dakiola mina joatea. Zerrikoipez gantzutu dut, baita trementinaz igurtzi ere. Zer hartu nahi duzu tearekin? Ontzi horretan frutazko gozagarria dago.

— Ondo da, andrea, frutazko gozagarria hartuko dut.

Nago irakurlea honezkero ohartuko zela ezen Txitxikovek, itxura losintxaria gorabehera, Manilovekin baino askatasun handiagoz eta batere

zeremoniarik gabe hitz egiten zuela etxekoan-
drearekin. Beste arlo batzuetan Rusen oraindik
ez gara iritsi atzerriko herrialdeen mailara, baina
esan beharra dago atzean utzi ditugula trata-
mentu-kontuetan. Kontaezinak dira gure tratae-
rak dituen ñabardurak eta berezitasunak. Fran-
tsek edo alemaniarrek sekula ez dituzte atze-
mango ez ulertuko xehetasun eta desberdinta-
sun horiek guztiak; haiek, gutxi gorabehera,
ahots-doinu berberaz eta hizkera berberaz min-
tzatzen dira milioidunarekin eta tabako-saltzaile
arruntarekin, nahiz eta, jakina, barru-barruan
doiki kikiltzen diren milioidunaren aurrean.
Gurean ez da horrelakorik gertatzen: gurean
badira gizaki argiak, zeinak ez baitira berdin
mintzatzen berrehun arima dituen lurjabearekin
eta hirurehun dituenarekin, zeinak ez baitira ber-
din mintzatzen hirurehun arima dituen lurjabea-
rekin eta bostehun dituenarenekin, zeinak ez
baitira berdin mintzatzen bostehun arima dituen
lurjabearekin eta zortziehun dituenarenekin; hitz
gutxitan, milioira hurbiltzen garen neurrian, ezin
konta ahal ñabardura agertzen dira. Demagun,
esaterako, badela bulego bat —ez hemen,

herrialde urrun batean baizik—, eta demagun bulego horretan badela zuzendari bat. Orain, mesedez, errepara iezaiozu bere mendekoen artean eserita dagoelarik: ikararen ikaraz ez duzu txintik ere aterako!, harrotasuna, bihotzeko handitasuna... zer ez duen adierazten haren aurpegiak!, pintzela hartu eta haren potreta egiteko gogoia ematen du: horra hor Prometeo, benetako Prometeo bat! Arranoaren antzo begiratzen du, astiro ibiltzen da, pauso beti-berdinez. Eta arrano hori bera, bere gelatik irten eta —paperak besapean dauzkala— nagusiaren bulegora hurbildu bezain laster, arineketan hasten da hanken eginahal guztian, galeperraren antzera. Gizarteko bileretan eta gau-jaietan, beste gonbidatuak bera baino maila apalagokoak badira, gure Prometeok Prometeo izateari eutsiko dio; bera baino maila goragokoak badira, ordea, Ovidiok berak nekez irudikatuko zukeen itxuraldatzea jasango du: euli bihurtuko da, edo euli baino gutxiago, hondar-ale! «Baina hau ez da Ivan Petrovitx —esango duzu, berari so jarririk—. Ivan Petrovitx garaia da, eta hau, ordea, txikia eta argala; hura orroka mintzatzen da, baxu-aho-

tsez, eta sekula ez du barrerik egiten; honi, ordea, ez zaio tutik ulertzen: ahots zoliz hitz egiten du, txoriek bezala, eta barrez dago denbora guztian.» Hurbil zaitez gehiago, begira iezaiozu arretaz: Ivan Petrovitx da eta! «Hara!», esango duzu zeure artean... Baina, kontuak kontu, itzul gaitzen gure protagonistarengana. Txitxikovek, dagoeneko ikusi dugunez, batere zeremoniarik gabe jokatzea erabakia zuen, eta, halatan, katilu tea eskuan hartu, frutazko gozagarria isuri, eta honela mintzatu zen:

— Herrixka ederra zurea, andrea. Zenbat arima dituzu?

— Laurogei inguru, jauna —esan zuen etxe-koandreak—. Baina, zoritxarrez, garai latzak bizi ditugu orain, iazko uzta oso txarra izan zen eta. Jainkoak gorde gaitzala!

— Hala ere, itxuraz behintzat, nekazariak indartsuak dira, eta izbak sendoak... Baina esadazu, mesedez, zure abizena. Galdetzea ahaztu zitzaidan atzo... gau beranduan heldu nintzen eta...

— Korobotxka, kolejio-idazkaria.

— Mila esker. Eta izena eta patronimikoa?

— Nastasia Petrovna.

— Nastasia Petrovna? Izen polita Nastasia Petrovna. Nire izeba bat ere, amaren ahizpa bera, Nastasia Petrovna deitzen da.

— Eta zuk nola duzu izena? —galdetu zion lurjabeak—. Inondik ere, aholkularia zara.

— Ez, andrea —erantzun zuen Txixikovek, irribarre txikia eginez—. Ez naiz inondik ere aholkularia, batetik bestera ibiltzen naiz negozio txikiak egiten.

— Beraz, saleroslea zara! Tamalez, merke-merke saldu diet ezta merkatari batzuei, eta zuk, seguraski, erosiko zenidakeen.

— Ez, nik ez nizukeen eztirik erosiko.

— Zer orduan? Kalamua, beharbada? Bada, kalamu gutxi daukat orain: pud erdi besterik ez.

— Ez, andrea, nik bestelako gauzak erosten ditut. Esadazu, nekazaririk hil zaizu?

— Bai, jauna, hemezortzi! —esan zuen andreak, hasperen eginez—. Eta hildako guztiak on-onak ziren, langile finak denak. Egia esan, beste batzuk jaio dira, baina zertarako balio didate?: umegorriak dira oraindik; ikuskatzailea etorri zen eta esan zidan zergak ordaindu behar

ditudala haiengatik. Hilik daude, eta bizirik baleude bezala ordaindu behar. Joan den astean, kiskalita hil zitzaidan arotza, eta oso gizon tre-bea zen, oso ondo menderatzen zuen bere lanbi-dea.

— Sutea izan zen, ala?

— Jainkoak gorde gaitzala horrelako ezbeharretik, sutea askoz okerragoa zatekeen: bere kabuz erre zen, jauna. Zerbait erretzen hasi zitzaion barruan, zeharo edanda zegoen, sugar urdinxka bat atera zitzaion barrutik, eta ahitu egin zen, ahitu eta belztu, ikatza bezala, eta arotz bikaina zen! Eta orain ezin dut gurdia erabili: ez daukat zaldiak nork ferratu.

— Horixe izan da Jainkoaren borondatea, andrea! —esan zuen Txitxikovek, hasperen eginez—. Jainkoaren jakinduriaren aurrean ez dago ezer esatekorik... Emango zenizkidake, Nastasia Petrovna?

— Eman zer, jauna?

— Bada, hil horiek guztiak.

— Baina nolatan emango dizkizut?

— Bada, halaxe, eman eta kito. Edo, nahiago baduzu, saldu. Dirua emango dizut haien aldera.

— Nolatan, gero? Egia esan, ez dizut ulertzen. Lurpetik atera nahi dituzu, ala?

Txitxikov ohartu zen andre zaharra urrunegira joana zela eta ezinbesteko zuela eskaria argitzea. Hitz gutxitan azaldu zion eskualdaketa edo salerosketa paperean bakarrik egingo zutela eta bizirik baleude bezala erregistratuko zituztela nekazari hilak.

— Baina zertarako nahi dituzu? —esan zuen andre zaharrak, begiak arranpalo.

— Hori nire kontua da.

— Baina hilik daude.

— Eta nork esan du bizirik daudela? Hain zuzen ere, horrexegatik galtzen duzu dirua, hilik daudelako: zergak ordaintzen dituzu haiengatik; eta orain nik buruhauste horretatik eta ordaintzeko beharretik libratuko zaitut. Ulertzen duzu? Libratu egingo zaitut, eta gainera hamabost errublo emango dizkizut. Argi dago orain?

— Egia esan, ez dakit —esan zuen etxeakoandreak, pausatuki—. Kontua da sekula ez dudala hilik saldu.

— Jakina! Benetan harritzekoa litzateke zuk inoiz baten bati hilik saldu izana. Edo uste duzu etekina aterako zeniekela?

— Ez, ez dut horrelako usterik. Ez nieke inolako etekinik aterako, noski. Baina hilik daude, hori da nire kezka bakarra.

«Bai burugogorra emakume hau!», pentsatu zuen Txitxikovek bere kolkorako.

— Entzun, andrea. Pentsa ezazu ondo: bizirik baleude bezala ordaintzen duzu haiengatik, eta hondamena ekarriko dizu horrek.

— Ai ene, jauna, ez ezazula horrelakorik aipatu ere egin! —moztu zion lurjabeak—. Orain dela hiru aste ehun eta berrogeita hamar errublo baino gehiago ordaindu nituen. Eta, gainera, eskupekoa eman behar izan nion ikuskatzaileari.

— Ikusten? Orain, kontu egizu ez diozula ikuskatzaileari eskupeko gehiagorik eman beharrik izango, zeren aurrerantzean nik ordainduko ditut zerga horiek; nik, ez zuk; neure gain hartuko dut erantzukizun guztia. Gainera, neure diruarekin ordainduko ditut eroste-agiriaren gastuak, ulertzen duzu hori?

Andre zaharra pentsakor geratu zen. Argi zekusan saleroste hark onura handia ekarriko ziola, baina ohiz kanpokoia zen, eta berriegia aukeran; eta izugarri beldurtzen hasi zen, erosle hark iruzur egingo ote zion, zeren auskalo nondik etorria zen, eta gau beranduan gainera.

— Zer, andrea, ados zaude?

— Egia esan, jauna, orain arte sekula ez didate hilak saltzeko proposamenik egin. Biziak bai, biziak saldu izan ditut; duela hiru urte, esaterako, bi neskagazte eman nizkion artzapezari, ehun errublaren truke bakoitza, eta artzapezak eskerrak eman zizkidan, oso langile finak atera zitzaizkion eta: ezpainzapiak eta guzti josten zituzten beren eskuekin.

— Ondo da, baina bizek bost axola niri; Jainkoak babes ditzala. Hilez ari natzaizu.

— Egia esan, beldurrak nago ez ote naizen nola edo hala galduan irtengo. Beharbada, jauna, ziria sartu nahi didazu, eta agian haiek, zera horiek... gehiago balio dute.

— Tira, tira, emakumea, horrelakorik bururatzeari ere! Nekazari hilek ez dute inolako baliorik! Hautsa baino ez dira. Ulertzen duzu?, hautsa,

besterik ez. Hartzazu edozein traste zahar, edozein zabor, piltzar bat esaterako, eta piltzar horrek ere badu bere balioa: gutxienez, paperfabrikan erosiko dizute. Hilek, ordea, ez dute ezertarako balio. Tira, esadazu, zertarako balio dute?

— Arrazoi duzu, bai, ez dute ezertarako balio; baina kontua da hilik daudela, horrek bakarrik geldiarazten nau.

«Egoskorra duk, gero! —esan zuen Txitxikovek bere artean, ernegatzen hasirik—. Honekin ez zegok ados jartzerik. Izerdia botaraziko zidak emakume madarikatu honek!» Orduan, sakelatik sudur-zapia atera, eta bekokia xukatu zuen, zeren, izan ere, izerditan baitzeukan. Bestetik, alferrikakoa zen Txitxikoven haserrea: batzuetan, gizon ohoragarrienek ere, estatu-gizonek berek ere, Korobotxka batek bezala jokutzen dute. Buruan zerbait sartzen bazaie, ez dago etsiarazteko modurik; eguna bezain argudio argiak eman arren, ez duzu ezer lortuko: nola hormak gomazko pilota itzularazten duen, hala xe itzularazten dituzte haiek argudio guztiak. Izerdia xukatutakoan, emakumea berera ekar-

tzeko beste bide bat saiatzea erabaki zuen Txixikovek.

— Zuk, andrea —esan zion—, edo ez dituzu nire hitzak ulertu nahi, edo zerbait esate aldera soilik hitz egiten duzu... Dirua emango dizut: hamabost errublo, diru-paperetan. Ulertzen duzu? Dirua da. Ez duzu horrelakorik kale erdian topatuko. Tira, aitor ezazu, zenbatean saldu duzu ezta?

— Hamabi errubloan pud bakoitza.

— Bekatu txiki bat egin berri duzu, andrea. Ez duzu hamabi errubloan saldu.

— Jainkoarren!, horixe saldu dudala prezio horretan!

— Ondo da, ondo da! Baina ezta zen. Ikusten? Beharbada, urtebete behar izan duzu ezti hori biltzeko; gogotik lan egin duzu, arduratsu; makina bat buruhauste eman dizu zeregin horrek; hara eta hona ibili zara, erleek ziztadaz josi zaituzte, sotoan janaritu dituzu negu osoan zehar. Arima hilak, ordea, ez dira mundu honetakoak; zuk ez duzu inolako ahaleginik egin, Jainkoaren borondatez utzi dute mundu hau, zure etxaldearen kalterako. Eztiaren kasuan, hamabi

errublo jaso dituzu zeure lanaren, zeure nekeen ordainez; eta nik ez dizut hamabi errublo emango, hamabost baizik, zuk ezertxo ere egin gabe, hutsaren truke; eta ez dizkizut zilarrezko txanponetan emango, diru-paperetan baizik.

Hain arrazoi pisuzkoak emanik, Txitxikov ia etsirik zegoen andre zaharrak amore emango zuela azkenean.

— Kontua da alargun eskarmenturik gabea nauzula gauza hauetan —erantzun zuen lurjabeak—. Hobe dut pixka batean itxaron, ea merkatariak datozen eta prezioak nondik nora dabil-tzan esaten didaten.

— Lotsagarria, andrea, lotsagarria! Hori bai lotsagarria! Baina nolatan esan dezakezu horrelakorik? Pentsa ezazu ondo! Nork erosiko dizu nekazari hilik? Zer egingo luke haiekin?

— Agian, zeozertarako erabil nitzake nik etxaldean... —hasi zen andre zaharra, baina ez zuen esaldia bukatu; ahoa zabaldu, eta begira geratu zitzaion Txitxikovi, ia izaturik, horri zer erantzungo ote zion jakiteko irrikaz.

— Nekazari hilak etxaldean! Horra noraino iritsi zaren! Eta zer egingo lukete?, gauean txolarrak soroetatik uxatu?

— Jainkoak gorde gaitzala! Zein gauza ikaragarriak esaten dituzun! —esan zuen andre zaharrrak, gurutzearen seinalea eginez.

— Zertarako erabiliko zenituzke, bada? Eta gainera, hezurak eta hilobiak bertan geratuko dira, eskualdaketa paperean soilik egingo dugu. Tira, zer deritzozu? Ados zaude? Erantzun, gutxienez.

Andre zaharra pentsakor geratu zen berriro.

— Zer pentsatzen ari zara, Nastasia Petrovna?

— Egia esan, erabaki ezinik nago; hobe kalamua saltzen badizut.

— Eta zertarako nahi dut nik kalamua? Horrelakorik! Nik beste gauza bat eskatu, eta zuk kalamua eskaini! Kalamua kalamu da, beste egun batean etorriko naiz eta kalamua erosiko dizut. Tira, zer diozu, Nastasia Petrovna?

— Jainkoarren!, hain da bitxia saleroskina, ohiz kanpokoa erabat...

Horra iritsirik, Txixikoven eroapenak hondoa jo zuen. Bere senetik aterata, haserre bizian aulki batez lurra jo, eta deabruetara bidali zuen Nastasia Petrovna.

Etxekoandrea ikaragarri izutu zen deabruaren aipamena entzutean.

— Jainkoaren izenean, etzazula deabrua aipatu ere egin! —egin zuen oihu, erabat zurbildurik—. Orain dela hiru egun, infernuko piztiarekin ametsetan eman nuen gau osoa. Otoitz egin ostean kartetan etorkizuna igartzea bururatu zitzaidan lotara joan aurretik, eta, antza, deabrua bidaliz zigortu ninduen Jainkoak. Nazkagarria zen, eta zezenak baino adar luzeagoak zituen.

— Harritzekoa iruditzen zait, hala ere, deabruak ehunka ez agertzea zuri. Kristauok berezko dugun bihozberatasunak eraginik jokatu dut; hor ikusi zaitut: alargun errukarri bat, neketan, miseriak estaturik... zoazte pikutara zu eta zure herrixka!

— Ene, zer-nolako biraoak botatzen dituzun! —esan zuen andre zaharrak, ikaraz begiratzen ziola.

— Ez dago eta asmatzerik nola hitz egin behar den zurekin! Barkatuko didazu horrela mintzatzea, baina baratzezainaren zakurrak bezala jokatzeko duzu: baratzekoa jan ez eta jaten utzi ere ez. Zure etxaldeko beste produktu batzuk ere erostekotan nengoen, zeren Estatuarentzako hainbat erosketa egiteko ardura ere badut...

Bestela bezala bota zuen hori, nolako eragina izango zuen aurretiaz pentsatu gabe, baina uste-kabeko arrakasta lortu zuen. Estatuarentzako erosketak egiten zituelako kontu horrek berebiziko eragina izan zuen Nastasia Petrovna-rengan; behinik behin, honela mintzatu zitzaion, erreguantzeko ahotsez:

— Zergatik sumindu zara hainbeste? Aldez aurretik jakin izan banu hain erraz haserretzen zarela, ez nizun kontra egingo.

— Badut zergatik haserreturik, gero! Kontu honek ez du piperrik balio, horra zergatik haserretu naizen hainbeste!

— Tira, ondo da, prest nago hamabosna errubloan saltzeko! Baina entzun, jauna: Estatuarentzako erosketa horiek direla eta, zekale-irina

behar baduzu, edo gari-irina, edo alea, edo okela, ez ahaztu nitaz, mesedez.

— Ez, andrea, ez naiz zutaz ahaztuko —esan zuen Txixikovek, eskuaz izerdia xukatzen zuen bitartean, zurrustaka lerratzen baitzitzaion aurpegian behera. Gero, galdetu zion ea bazuen eroste-agiria sinatzeaz eta gainerako eginbideez ardura zitekeen ahaldunik edo ezagunik hirian.

— Bai noski, artzapeza, aita Kiril alegia; semeak Ganberan lan egiten du —esan zuen Korobotxkak.

Gutun bat idazteko eskatu zion, artzapezari ordezkari gisa jarduteko ahalmena emanaz, eta, etxekoandrea alferrik ez nekaraztearren, bere gain hartu zuen lan hori.

«Ondo legoken gizon honek irina eta okela erostea niri —pentsatu zuen Korobotxkak bitartean—. Nireganatu egin behar dinat. Oraindik ez dun amaitu atzo arratseko oreaz; blikiak egiteko esango diot Fetiniari; ondo legoken arrautzazko pastel geza ere eskaintzea, nire sukaldariak ondo prestatzen din eta berehalako batean egiten dun.» Eta han joan zen etxekoandrea, pastelak prestatzeko burutapena gauzatzera eta, non-

bait, jaki horri beste gozoki eta eltzekari batzuk gehitzeko asmoa ere bazuela. Txitxikov, berriz, behar zituen paperak bere kutxatik ateratzera itzuli zen harrera-gelara, non gaua igaro baitzuen. Harrera-gelan gauza bakoitza bere tokian zegoen berriro, lumatxa bikaina handik eramana zuten eta zamautxo batez jantziriko mahai bat zegoen dibanaren aurrean. Kutxa mahai gainean ipini, eta atsedenaldiritxo hartu zuen, izerdi patsetan baitzegoen, goitik behera blai eginik, alkandoratik hasi eta galtzerdietaraino, errekararori balitz bezala. «Leher eginik utzi naik atso zahar madarikatu horrek», esan zuen atsedenaldiritxo hartutakoan; eta kutxa ireki zuen. Auto-rea ziur dago ezen irakurle batzuk —hain baitira jakingurak— irrikaz daudela jakiteko kutxa nolako zen barrutik eta nola zegoen antolaturik. Zergatik ez dut, bada, haien jakinmina aseko? Hona, beraz, kutxaren barruko antolamendua: erdi-erdian, xaboi-ontzia; xaboi-ontziaren atzean, sei edo zazpi oholtxo, batetik besterako hutsarte meharretan bizar-labanak sartzeko jarriak; harago, tokitxo karratu batzuk hondar-ontzia eta tintontzia gordetzeko, eta, haien

artean, txalupa-formako hutsune bat idazlumarako, lakrerako eta, oro har, gauza luzangetarako; atzerago, kutxatila ugari —estalkidunak zein estalkigabeak—, gauza laburretarako, bisitaxartelez, hil-mezuz, antzerki-sarrerez eta Txitxikovek oroigarri gisa gordetzen zituen bestelako paperez beterik. Kutxaren goiko atal hori oso-osorik ateratzen zen, eta haren azpian leku bat zegoen, paper-sortez gainezka; dirua gordetzeko kutxatila ezkutu bat ere bazegoen, kanpotik antzik ematerik ez bazegoen ere kutxaren albo batetik irekitzen zena. Jabeak hain bizkor ireki eta ixten zuen beti, ezen ez baitago esaterik zenbat diru zegoen barruan. Txitxikov berehala hasi zen lanean, eta, idazluma zorrozturik, idazteari ekin zion. Une horretan, etxekoandrea sartu zen.

— Zein kutxa polita daukazu, jauna —esan zion, aldamenean eseririk—. Seguraski, Moskun eresia.

— Bai, Moskun —erantzun zuen Txitxikovek, idazteari utzi gabe.

— Berehala igarri diot: oso onak izaten dira Moskun eginiko gauza guztiak. Orain dela hiru urte, ahizpak neguko botak ekarri zituen hau-

rrentzat, oso sendoak, oraindik erabiltzen dituzte. Hara, zenbat paper zigiludun daukazu! — jarraitu zuen, kutxari begiratu bat emanik. Eta, izan ere, Txitxikovek paper zigiludun mordoa zeukan—. Emango zenidake orritxo bat? Nik ez daukat horrelakorik; batzuetan, epaileari eskabide-orri bat bidali behar, eta ez daukat non idatzi.

Txitxikovek azaldu zion orri haiek ez zutela horretarako balio, hau da, eroste-agiriak egiteko orriak zirela, eta ez eskabideak idaztekoak. Hala ere, emakumea lasaitze aldera, errubloko orri bat eman zion. Gutuna idatzitakoan, etxeakoandreaki luzatu zion, sina zezan, eta mujik hilen zerrenda eskatu zion gero. Etxekoandreak, ordea, ez zeukan ez zerrendarik eta ez inolako errejistrorik, baina buruz zekizkien ia guztien izenak; halatan, gehiago luzatu gabe, diktarazi egin zizkion Txitxikovek. Nekazari batzuen izenek — eta batez ere ezizenek— harrituxe uzten zuten Txitxikov, eta, halako bat entzuten zuen bakoitzean, aurrena gelditu, eta gero hasten zen idazten. Batik bat, txunditurik utzi zuen Piotr Saveliiev *Zolda-jario zikina* zelako batek, eta ezin izan zion eutsi «Bai izen luzea» esateko gogoari.

Beste batek *Behi-adreilua* zeukan izenari erantsirik, eta beste bat, berriz, *Ivan Gulpila* soilik deitzen zen. Idazten amaitu zuenean, sudurretik airea biriketaratu, eta oliotan frijituriko zerbaiten usain erakargarria aditu zuen.

— Onartuko zenidake mokadu bat jateko gonbit apala? —esan zion etxeakoandreak.

Txitxikovek, atzera begiratu, eta han ikusi zituen, ordurako mahai gainean prest, onddoak, opiltxoak, bizkotxoak, kauserak, gozopilak, bli-niak eta denetariko gaiz beteriko pastelak: tipulaz, lo-belarrak, gaztanberak, esne gaingabe-tuaz... Zer ez zegoen han!

— Arrautzazko pastel geza! —eskaini zion etxeakoandreak.

Hurbildu egin zen Txitxikov arrautzazko pastel gezara, eta, erdia baino gehixeago jandakoa, goraipatu egin zuen. Eta, izan ere, gozoa zen pastela, eta are gozoagoa iruditu zitzaion etxe-koandre zaharrarekin izaniko iskanbila eta tirabiraren ondotik.

— Eta blinirik ez duzu nahi? —esan zion etxe-koandreak.

Txitxikovek, erantzun gisa, hiru blini bildu zituen batera, eta, gurin urtuan busti ondoren, ahora eraman zituen, eta gero ezpainzapiaz garbitu zituen eskuak eta ahoa. Ekintza hori hiru aldiz errepikatutakoan, britxka prestatzeko agin zezala eskatu zion etxeakoandreari. Nastasia Petrovnak bertantxe bidali zuen Fetinia hori egitera, bide batez blini bero gehiago ekartzeko agindurik.

— Oso gozoak dira zure bliniak, andrea — esan zuen Txitxikovek, blini ekarri berriei ekinez.

— Bai, nire sukaldariak oso ondo prestatzen ditu —esan zuen etxeakoandreak—. Zoritxarrez, uzta txarra izan dugu eta irina ez da oso ona... Baina zer dela eta horren presa handia, jauna? — esan zuen, Txitxikovek kapelua eskuan hartu zuela ikusirik—. Oraindik ez dizute britxka prestatu.

— Prestatuko didate, andrea, prestatuko didate. Nire kotxezainak aitaren batean uztartzen ditu zaldiak.

— Mesedez, ez ahaztu Estatuarentzako erosketen kontu hori.

— Ez dut ahaztuko, ez dut ahaztuko —esan zuen Txitxikovek, atarirantz zihoala.

— Zerri-gantza erosiko didazu? —galdetu zion etxeakoandreak, atzetik segika.

— Zergatik ez? Erosiko dizut, baina beste egun batean.

— Aste Santurako zerri-gantza izango dut.

— Erosiko dugu, erosiko dugu, denetarik erosiko dugu, zerri-gantza ere erosiko dugu.

— Agian, txori-lumak beharko dituzu. Abendu-
duko baraualdirako txori-lumak izango ditut.

— Ondo da, ondo da —esan zuen Txitxikovek.

— Hara!, begira, jauna, oraindik ez dizute britxka prestatu —esan zuen etxeakoandreak atarira iritsi zirenean.

— Prestatuko dute, prestatuko dute. Esadazu nola iritsi bide nagusira.

— Nolatan egin nezake hori? —esan zuen etxeakoandreak—. Zail da azaltzen, bidegurutze asko dago; neskatila bat utziko dizut, bidea erakusteko. Seguraski, egongo da lekutxoren bat berarentzat gidariaren jarlekuan.

— Nola ez!

— Neskatila bat utziko dizut orduan, berak badaki bidea; baina etzazula zeurekin eramant!, merkatori batzuek neskatila bat eramant zidaten behin.

Txitxikovek hitzeman zion ez zuela berekin eramango, eta Korobotxka, lasaiturik, arretaz aztertzen hasi zen etxe inguruan zegoen guztia; aurrena, giltzain andrearengan josi zituen begiak —eztiz beteriko azpil zurezko bat ateratzen ari baitzen une horretantxe janaritegitik—, hesiko atean azaldu berria zen mujik bati begiratu zion gero, eta, horrela, arian-arian, buru eta bihotz murgildu zen berriro etxeko bizitzan. Baina zergatik jardun hain luzaz Korobotxkaz? Dela Korobotxka edo Manilova, dela etxeko bizitza edo etxetik kanpokoak, jo dezagun aurrera horri jaramonik egin gabe, zeren hor ez baitugu ezer miragarririk aurkituko: halako moldez dago antolaturik mundua, ezen atsegingarri zaiguna, haren aurrean denbora gehiegi egonez gero, tristura-iturri bilakatzen baita bat-batean, eta Jainkoak daki zer-nolako burutapenak jabetzen diren orduan gure gogoaz! Hausnarrean hasirik, litekeena da pentsatzea ea Korobotxka benetan

dagoen hain behean giza hobekuntzaren mailadi azkengabea; eta ea benetan den hain sakona ahizparengandik bereizten duen amildegia, ahizpa bere etxe aristokratikoko hormen artean hesiturik bizi baita, iristezin, hango kobre distiratsua-rekin, kaobarekin, tapizekin eta burdinurtuzko zurubi usaintsuekin, irakurtzen amaitu gabeko liburu baten aurrean aharrausika, zain, goi-gizar-teko bisitari asmotsuren bat noiz etorriko ote zaion, horrek aukera paregabea emango baitio bere adimenaren atea zabaltzeko eta argitara ateratzeko buruz ikasiriko gogoetak, modaren legeei jarraiki hirian aste betez nagusitzen diren gogoetak alegia, ez etxearekin eta gainerako ondasunekin gertatzen denari buruzkoak — etxaldea gobernatzen ez jakitearen kariaz, nahastearen eta lardaskaren mendean baitaude hala bata nola besteak—, ezpada Frantzian egosten ari den aldaketa politikoari buruzkoak edo zorioneko katolizismoak hartu duen norabidearen gainekoak. Baina jo dezagun aurrera, jo dezagun aurrera! Zergatik hitz egin horretaz? Buruan inolako kezkarik ez dugun une alai eta nagi horietako baten erdian, zergatik hedatzen

da bat-batean gure baitan, guk nahi gabe ere, halako korrante bitxi bat?: irriak oraindik ez du aurpegitik erabat ezabatzeko astirik izan eta, tupustean, lehengo jende berberaren erdian dagoelarik ere, gizabanakoak bestelako itxura hartzen du, beste leinuru batek argitzen dio aurpegia...

— Badator, badator britxka! —egin zuen oihu Txitxikovek, azkenean bere kotxea etxera hurbiltzen ikusirik—. Bazuan garaia! Zertan egon haiz, alfer hori? Antza, oraindik ez duk gainetik kendu atzoko mozkorra.

Selifanek ez zion deus erantzun horri.

— Agur, andrea! Eta?, non da zure neskatila?

— Aizan, Pelageia! —deitu zion lurjabeak ataritik hurbil zegoen hamaika urte inguruko neskatxa bati. Etxean tindaturiko soineko bat zeukan jantzirik, eta oinutsik zegoen, nahiz eta urrunetik ikusirik bazirudien bota luzeak zituela hanketan, hain zeuzkan lokatz bigunez zikin—. Erakutsi bidea jaunari.

Selifanek gida-aulkira igotzen lagundu zion neskatilari, zeinak, hanka bat jaunarentzako oinoholean bermaturik, lokatzez zikindu baitzuen

aurrena, eta gero goraino igo eta gidariaren alboan eseri baitzen. Neskatilaren ondotik, Txixikovek berak ezarri zuen oina bermalekuan, eta, astun samarra zenez, eskuinalderantz makurrarazi zuen britxka. Azkenean, bere lekuan eseririk, esan zuen:

— Tira, prest gaude! Agur, andrea!

Abian jarri ziren zaldiak.

Selifan zakarturik zegoen eta, aldi berean, arreta handia jartzen zion bere egitekoari. Beti jokatzeko zuen horrela huts bat egin ondoren edo mozkortu ostean. Zaldiak txukun-txukun orrazturik zeuden. Haietako baten lepokoa —larruzko azalaren azpian iztupa agerian uzteraino urratua aspalditik— trebetasun handiz josirik zegoen. Isilik zihoan Selifan; zigorrari eragin besterik ez zuen egiten; ez zien inolako prediku mamitsurik zuzentzen zaldiei, nahiz eta izpildunak, noski, gogo onez entzungo zuen erretolika zentzagarri haietakoren bat, zeren, halakoetan, kotxezain berritsuaren eskuek zabarki eusten zieten hedeei, eta zigorra itxurak gordetzeko soilik dantzatzen zen bizkar gainean. Baina, egun hartan, garrasi beti-berdin gogaikarri bat besterik ez zen

ateratzen kotxezainaren ezpain estutuetaik: «Ondo zegok, belabeltza, ondo zegok!, aharrausi egin nahi baduk, aharrausi egin!», eta besterik ez. Zuri-horixka eta *Kontseilari* ere ez zeuden batere pozik, behin ere ez zituzten-eta entzuten «laztanok», «lagun agurgarriok» eta horrelako hitzak. Izpildunak oso zartako gozakaitzak nabaritzen zituen bere gorputzaren atalik gurien eta zabalenetan. «Horra nola banatzen dituen kolpeak! —zioen bere artean, belarriak apur bat apaldurik—. Bazekik, gero, non jo! Ez naik zuzenean bizkarrean jotzen, ez, alderdirik minberena aukeratzen ditik: belarriak edo sabelaldeak.»

— Eskuinetara? —hain galdera idorraz zuzendu zitzaion Selifan aldamenean eseririk zeraman neskatilari, euriaren eraginez kolore berde biziko zelai ernaberrituen erdian beltz ageri zen bide bat zigorraz erakusten ziola.

— Ez, ez, nik esango dizut norantz —erantzuzion neskatilak.

— Nondik? —galdetu zuen Selifanek, bidera apur bat gehiago hurbildu zirenean.

— Hortik —erantzun zuen neskatilak, besoa luzaturik.

— Hara bestea! —esan zuen Selifanek—. Hain zuzen ere, eskuina da hori: neska honek ez daki non dagoen eskuina eta non ezkerra!

Eguraldi ederra zegoen, baina hain zen lodia lokatza, ezen berehala itsatsi baitzitzaien gurpilei, feltrozko estalki bat balitz bezala, eta horrek ikaragarri astundu zuen kotxearen ibilera; hango lurra, gainera, ohi baino buztintsuagoa eta lohi-tsuagoa zen. Eragozpen haiek guztiak zirela eta, eguerdia arte ezin atera izan ziren auzo-bideetatik. Eta nekez lortuko zuten hori neskatilaren laguntzarik gabe, zeren bideak sigi-saga baitzihoazen norabide guztietan, saretik irten berri-tan karramarroek egiten duten bezalaxe, eta Selifan itzulinguruka ibiliko zen luzaz, eta orain-goan ez bere erruz. Handik gutxira, neskatilak eskuaz seinalatu zuen urrun atzematen zen eraikin ilun bat, esanik:

— Horra bide nagusia!

— Eta eraikin hori? —galdetu zion Selifanek.

— Ostatua —esan zuen neskatilak.

— Ondo dun, bakarrik jarraituko dinagu —
esan zuen Selifanek—, hoa etxera.

Gelditu, eta jaisten lagundu zion, hortz arte-
tik honela zioela: «Alde, hanka-beltz!».

Txitxikovek kobrezko txanpon txiki bat eman
zion, eta neskatila etxera itzuli zen, lokatzetan
nekez ibiliz baina pozarren gidariaren jarlekuan
joan zelako.

Laugarren kapitulua

Ostatura iritsirik, kotxea gelditzeko agindu zuen Txixikovek, bi arrazoirengatik: batetik, zaldiei atsedean emateko, eta bestetik, berak zer-bait jateko eta indarrak berritzeko. Autoreak aitortu beharra dauka izugarri gustatuko litzaiokeela horrelako jendearen jangura eta urdaila edukitzea. Moskuko eta Petersburgeko handiki askok bihar zer jango duten eta etzi zer bazkalduko duten pentsatzen ematen dute denbora guztia, eta ez diote jateari ekingo aurretiaz pilularen bat hartu gabe; irrikaz irensten dituzte ostrak, karramarroak eta bestelako jaki bitxiak, eta Karlsbad-era edo Kaukasora joaten dira gero. Bada, goi-mailako jaun horiek guztiek bost axola diote autoreari, ez du haiek bezalakoa izateko gogo-izpirik ere sumatzen. Erdi-mailako jaunek, ordea, posta-geltoki batean urdaiazpikoa eskatzen dute, beste batean zerrikumea, hirugarren batean gaizkata-zerra edo zeinahi hestebete —egosirik eta tipularekin—, eta gero, ezer gertatu ez balitz bezala eta orduari erreparatu gabe,

mahaira esertzen dira eta gaizkata-zopa hartzen dute, aholatzarekin eta hazi-guruinekin, eta gero pastel mordoa jaten dute, okelaz edo katuarrainez beteak, ikuste hutsarekin tripa-zorria esnatzten duten horietakoak. Erdi-mailako jaun horiek bai, horiek badute halako dohain irrikagarri bat, zeruaren opari! Goi-mailako jaun batek baino gehiagok bertantxe uko egingo lieke bere nekazarien erdiei eta bere ondasunen erdiei —bahituran jarritakoei nahiz jarri gabeei, atzerriko zein Errusiako joeren araberrako hobekuntza guztiekin—, erdi-mailako jaunek daukaten urdaila edukitzeagatik; baina —haien zoritxarra!— ez diruarekin eta ez ondasun guztiekin —hobekuntza eta guzti edo batere hobekuntzarik gabe— ezin jabe daitezke erdi-mailako jaunen urdailaz.

Zurezko ostatu denboraren joanak belztuak bere teilape abegitsu eta estuaren azpian hartu zuen Txitxikov, antzina elizetan egon ohi ziren argimutilen antzera landuriko bere zutabetxo zurezkoen artean. Ostatura izba baten antzekoa zen, baina handiagoa. Leihoen inguruko eta teilatu-hegalaren azpiko erlaitzek abarrak eta loreak zeuzkaten zizelaturik, eta, zura berria

enez, oso modu deigarrian nabarmentzen ziren horma ilunen aldean; leihotapetan lore-ontziak zeuden pintaturik.

Zurezko mailadi meharrean gora igo, eta, bebarru zabalera iritsirik, irekitzean kirrinka egiten zuen ate bat aurkitu zuen Txixikovek, eta, atiaz bestaldean, perkalezko soineko ñabar batez jantziriko emakume lodi adineko bat, zeinak «Mesedez, sartu barrura» esan baitzion. Bide-ertzeko zurezko ostatutxo ugarietan aurkitu ohi diren lagun zahar guztiak kausitu zituen Txixikovek gela hartan ere, hau da: samovar intzigarrez estalia; pinuzko horma ondo leunduak; hiru ertzeko alasa zoko batean, teontzi eta kati-luz beterik; portzelanazko arrautza urrezatuak ikonoen aurrean, ohiko xingola urdin eta gorrietatik zintzilik; katemea bere katakume jaio berriekin; bi begi barik lau eta aurpegia barik opilaren antzeko irudi biribil bat itzultzen dituen ispilua; eta, azkenik, azaoka bilduriko usain-belarrak eta krabelinak ikonoen alboan, hain zimelduak, non usaintzeko asmoz hurbiltzen zaienak usin besterik ez baitu egiten.

— Badaukazu zerrikumerik?

Galdera horrekin zuzendu zitzaion Txitxikov ostatuko emakume zaharrari.

— Bai, badaukat.

— Errefauekin eta esne-krema garratzarekin?

— Bai, errefauekin eta esne-krema garratzarekin.

— Ekartzazu, bada!

Lanari ekin zion emakume zaharrak, eta berehala ekarri zituen platera, ezpainzapia — zuhaitz baten azal lehorra bezain zurruna, hain baitzegoen almidoiztaturik—, ganibet bat —idazlumak zorrozteko erabiltzen diren labanak bezain mehea eta hezurrezko kirtena horizkatu-rik zeukana—, bi hortzeko sardexka bat eta, azkenik, gatzontzia, zeina ez baitzegoen mahai gainean tente jartzerik.

Gure protagonista, ohi zuenez, berehala hasi zen emakumearekin berbetan; galdetu zion ea ugazabarik zegoen edo berak gobernatzen zuen ostatua, ea etekin handiak ematen zizkion, ea seme-alabak ostatuan bertan bizi ziren gurasoe-kin batera eta ea seme nagusia ezkongabea ala ezkondua zen, ea norekin zegoen ezkondu-rik, ea ezkontsaria handia ala txikia izan zen, ea aitagi-

narreba pozik geratu zen ala haserretu egin zen ezkontzan opari gutxi jaso zituelako; hitz batean, ez zitzaion ahaztu ezertxo ere galdetzea. Beti bezala —esan beharrik ere ez dago— inguru hartako lurjabeen galdea ere egin zuen, eta jakin zuen bazela mordoxka bat: Blokhin, Potxitaiev, Milnoi, Txepnikov koronela, Sobakevitx. «Hara!, ezagutzen duzu Sobakevitx?», galdetu zuen, eta berehala entzun zuen ezen emakume zaharrak Sobakevitx ez ezik Manilov ere ezagutzen zuela, eta Manilov Sobakevitx baino eskuzabalagoa zela: heldu eta berehala, oilakia apailatzeko agintzen zuen beti, eta txahalkia ere eskatzen zuen, eta, ahari-gibela egonez gero, ahari-gibela ere galdegiten zuen, eta bakoitzetik apurtxo bat besterik ez zuen jaten, dastatzeko doia; Sobakevitxek, ordea, jaki bakarra eskatu ohi zuen, eta, platera husteaz gain, gehiago nahi izaten zuen beti, baina, hori bai, prezio berean.

Horretan ari zela —hizketan eta, aldi berean, zerrikumea jaten, zeinaren azken hondarrak soilik geratzen baitzitzaizkion platerean— zalgurdi baten gurpil-hotsa entzun zen. Leihotik begiratu, eta hiru zaldi ederri loturiko britxka arin bat ikusi

zuen ostatu aurrean geldirik. Bi gizon jaitsi ziren britxkatik. Bata ilehoria zen, eta garaia; bestea apur bat baxuagoa, eta ilebeltza. Ilehoriak kolore urdin iluneko husar-jaka dotore bat zeraman soinean; ilebeltzak, berriz, zamar arrunt bat, marraduna. Urruntxeago, kalesa txiki bat zetorren nekez eta astiro, hutsik, lau zaldi ile-luzek tiraturik; zaldien lepokoak zarrastaturik zeuden eta hedeak sokazkoak ziren. Ilehoria berehala igo zen zurubian gora; ilebeltza, aldiz, kanpoan geratu zen pixka batean oraindik, britxka barruan zegoen zerbait eskuaz ukitzen, horretan ari zela morroiarekin hizketan eta, aldi berean, atzetik zetorren kalesari keinuka. Haren ahotsa non edo non entzuna zuela iruditu zitzaion Txitxikovi. Ilebeltza aztertzen ari zen bitartean, ilehoriak gora iristeko eta atea irekitzeko denbora izan zuen. Garaia zen, bibotetxo ilegorria zuen, eta aurpegi iharra —edo zimeldua, hainbatek hala esaten diote eta. Aurpegi beltzaranak argi salatzen zuen ondo asko zekiela zer den kea, bolborarena ez bada, bai behintzat tabakoarena. Buru-markurtu adeitsua egin zion Txitxikovi, eta Txitxikovek modu berean erantzun zion. Segu-

raski, handik minutu gutxira hitz eta pitz arituko ziren biak, eta zehatz-mehatz jakingo zuten elkarren berri, zeren egina baitzuten aurreneko urratsa, eta, ia aho batez, zeinek bere poza agertuko zuen bezperako euriak bideko hautsa lurrari finko itsatsi ziolako eta, hozkirri egonik, atsegina zelako bidaiatzea; nolana ere, horretan hasteko zorian zeudela, ilehoriaren lagun ilebeltza sartu zen; kapelua erantzi, mahai gainera bota, eta adats beltz sarria harrotu zuen eskuaren mugimendu lirain batez. Oso gorpuzkera ederreko gaztea zen, goibehe ertainekoa; haren masailak mamitsuak eta zurigorriak ziren, hortzak elurra bezain zuriak eta belarrondoko bizarrak ikatza bezain beltzak. Aurpegiak —mardula eta gorrixka, sagar umoaren antzo— osasun gordina agertzen zuen.

— Hara, hara, hara! —esan zuen hitzetik hortzera, besoak zabaldurik, Txitxikov ikusi zue-nean—. Zer dela eta hi hemen?

Txitxikov orduan ohartu zen Nozdriov zeukalaa aurrean, prokuradorearenean bazkalkide izan zuen hura bera, zeina orduko hartan hain sutsuki zaletu zitzaion minutu gutxiren buruan, non

hika hasi baitzitzaion berehala, nahiz eta Txitxikovek, bere aldetik, ez zion horretarako biderik eman.

— Non ibili haiz? —galdetu zion Nozdriovek, eta, erantzunari itxaron gabe, kontu-kontari hasi zen—: Ni, adiskidea, azokatik natorrek. Eta zorionak eman behar dizkidak: den-dena galdu diat jokoan. Sinetsidak, bizitza osoan sekula ez naitetik horrela lumatu. Akurako kotxe batean etorri behar izan diat. Begira ezak leihotik!

Berak makurtu zion burua Txitxikovi, hain bortizki, ezen erroa jotzeko zorian egon baitzen.

— Ezin kaxkarragoa, ezta? Zaldi deabru horiek ozta-ozta heldu dituk honaino; honen britxkara pasatu nauk azkenean.

Hori esanik, hatzaz seinalatu zuen laguna.

— Oraindik ez duzue elkar ezagutzen? Nire koinatu Mijuiev! Goiz osoan aritu gaituk hitaz berbetan. «Ikusiko duk, esan zioat, han edo hemen topo egingo diagu Txitxikovekin.» Arranopola, motel, jakingo bahu nola lumatu nauten! Sinetsidak, lau zaldiak ez ezik, gainerako guztia ere galdu diat, ezer gabe geratu nauk. Dagoeneko ez zeukaat ez katetxorik ez erlojurik ez ezer...

Txitxikovek begiratu, eta ikusi zuen hala zela, ez zeukala ez katetxorik ez erlojurik. Gainera, iruditu zitzaion belarrondoko bizarretako bat bestea baino laburrago eta ile-bakanago zeukala.

— Poltsikoan hogeiterrublo eduki banitu — jarraitu zuen Nozdriovek—, gehiagorik ez, hogeit bakarrik eduki banitu, galdutako guztia berreskuratuko nikean, eta, galdutakoa berreskuratzear gain, hitzematen diat orain hogeita hamar mila errublo edukiko nituela zorroan.

— Baita zera ere!, gauza bera esan huen han —erantzun zion ilehoriak—, baina berrogeita hamar errublo utzi nizkian eta segituan galdu hituen.

— Ez nitian galduko, aizak! Hitzematen diat ez nituela galduko! Lelokeriarik egin izan ez banu, ez nitian galduko, ziur! Apustua zazpiko madarikatu haren alde bikoiztu ez banu, bankako diru guztia eskuratuko nian.

— Baina kontua duk ez huela eskuratu —esan zion ilehoriak.

— Ez nian asmatu apustua noiz bikoiztu, horregatik ez nian eskuratu. Zer uste duk, gero?, hire komandante hori jokalaria ona dela?

— Jokalaria ona zein txarra izan, irabazi egin dik.

— Hori duk balentria, hori! —esan zuen Nozdriovek—. Horrela nik ere irabaziko nioan. Ausar dadila apustua bikoizten, eta orduan, orduan ikusiko diat zein jokalaria ona den! Kontuak kontu, Txitxikov adiskidea, parranda itzela egin genian aurreneko egunetan. Azoka egundokoa izan duk. Merkatariek berek ziotenez, sekula ez duk hainbeste jende bildu. Oso prezio onean saldu diagu herritik eramandako guztia. Bai, adiskidea, parranda itzela egin diagu! Orain ere, gogoratzten naizenean... Mila deabru!, bai tamalgarria hi joan ez izana. Egin kontu hiritik hiru verstara dragoi-errejimentu bat zegoela; eta sinetsiko didak ofizial guzti-guztiak, berrogei inguru, hirian zebiltzala? Edaten hasi ginenean... Potseluev kapitainordea... Bai gizon atsegina!, eta nolako bibotea zeukaan, motel! Bordeletxoa deitzen zioan Bordeleko ardoari: «Aizak, atera ezak bordeletxoa», esaten zian. Kuvshinnikov tenien-

tea... Arraioa, adiskidea, hori gizon jatorra!,
parrandazale porrokatua, festazalea festazalerik
bada. Berarekin ibili gintuan denbora guztian.
Nolako ardoa atera zigan Ponomarievек!
Tunante hutsa duk, beraren saltokian ezin duk
ezer erosi, eta, gainera, denetariko zerrikeriak
botatzen zizkiok ardoari: sandaloa, artelazki
errea... intsusarekin ere nahasten dik alproja
horrek!; baina atzeko gelatxotik (gordelekua
esaten zioke berak) botilaren bat ateratzen badik,
paradisuan hago, aizak. Zer-nolako xanpaina!,
governadoraren etxekoa kvas hutsa duk horren
aldean. Egin kontu ez zela Clicquot arrunta,
ezpada *matradura* esaten dioten Clicquot bat,
zera, Clicquot bi aldiz ona. *Bon-bon* izeneko
edari frantses bat ere atera zigan, botilatxo bat.
Nolako usaina?: arrosatxoena eta hik nahi duan
guztiarena. Parranda itzela, alajaina!... Gure
ondotik halako printze bat iritsi zuan, eta denda-
ra bidali zian morroia xanpaina bila, zeren hiri
osoan ez zuan botila bat bera ere geratzen, ofi-
zialek den-denak hustuak zitiztean eta. Sinetsiko
didak bazkaritan hamazazpi botila xanpaina
edan nituela nik bakarrik?

— Bai zera!, hi ez haiz hamazazpi botila edateko gauza —oharrarazi zion ilehoriak.

— Hitzematen diat hamazazpi edan nituela —erantzun zuen Nozdriovek.

— Hik nahi duana esan dezakek, baina nik zioat ez haizela hamar ere edateko gauza.

— Apustu egin nahi duk baietz edan?

— Eta zer jokatuko genuke?

— Hirian erosi duan fusil hori.

— Ez diat nahi.

— Joka ezak, gero!, proba egin!

— Ez diat probarik egin nahi.

— Jakina, fusila ere galduko huke, txanoa galdu duan bezala. Ai, Txitxikov adiskidea!, bai tamalgarria hi azokan ez izana. Ziur nagok ez hintzela Kuvshinnikov tenientearengandik urrunduko. Primeran konponduko hintzen berarekin! Ez duk prokuradorea eta probintziako funtzionario esku-labur zeken horiek bezalako, haiek kopek bakoitza begiratzen ditek eta. Kuvshinnikov horri edozertan jokatzeko proposatu, eta bera beti prest. Zergatik ez hintzen gurekin etorri? Merezi zian, bai horixe! Zerria galanta hi, zerrikumea galanta ez etortzeagatik! Eman

musu pare bat, gizona, ikaragarri maite haut eta! Begira, Mijuev, patuak elkartu gaitik: ez diagu inolako loturarik elkarrekin, bera auskalo nondik etorri den, eta ni berton bizi nauk... Eta zenbat zaldi-kotxe zebilen kalean!, mordoa, en gros! Joko-txirringan aritu ninduan: bi ukendupote, gitarra bat eta portzelanazko katilu bat irabazi nitian hasieran; gero, dena jokatu eta ezer gabe geratu ninduan, eta gainera sei errublo ordainarazi zizkidatean hango gizatxar haiek. Eta jakingo bahu zein gonazalea den Kuvshinnikov! Ia dantzaldi guztietan izan gintuan berarekin. Bazuan emakume bat oso apaina, dotore-dotore jantzirik, farfail, brodatu eta guzti, deabruak zekik zer ez zeukan aldean... nik neure artean «Mila deabru!» esan besterik ez nian egin. Baina Kuvshinnikov, ausarta bera, aldamean eseri eta hitz gozoak esaten hasi zitzaioan frantsesez... Herrietatik inguratutako emakume arruntei ere ez ziean bakerik ematen, sinetsidak. Aukera alferrik ez galtzea esaten zioan horri. Arraina ere bazegoan salgai, gaizkata-bizkar gazitu ederrak. Bat ekarri diat; eskerrak diru

guztia galdu aurretik erosi nuen. Eta hi nora joango haiz orain?

— Lagun bat ikustera —esan zuen Txitxikovek.

— Pikutara lagun hori! Hator nirekin!

— Ezin diat, neure eginbeharrak ditiat.

— Eginbeharrak! Oraintxe asmatu duk hori!

— Ez, egia duk, ezin baztertuzko eginbeharrak ditiat.

— Lepoa egingo nitek gezurretan ari haizela! Esadak gutxienez nor ikusi behar duan.

— Sobakevitx.

Nozdriov barre-algaraka hasi zen orduan, gizabanako gordin eta osasuntsuek bakarrik egiten duten irri ozen horrekin. Horrela barre egiten dutenean, hortz-hagin guztiak erakusten dituzte, elurra bezain zuri, masailak dardaraka eta dantzatan hasten zaizkie, eta bi ate edo hiru gela harantzago bizi den auzoak esnatu, begiak biribil-biribil zabaldu, eta esaten du: «Hori duk barre egitea!».

— Zer dela eta horrelako barreak? —esan zuen Txitxikovek, apur bat gaitziturik.

Baina Nozdriovek barre-zantzoka jarraitu zuen, esanez:

— Ai ene, erruki hadi nitaz, barrez lehertu beharrean nagok eta!

— Kontua ez duk, ordea, barre egitekoa: hitzeman zioat joango naizela —esan zuen Txi-txikovek.

— Baina haren etxean ez duk batere atarra-mentu onik izango: zeken hutsa duk! Bazekiat nolakoa haizen hi, eta jai daukak harenean jokoa aritzeko edo edari onik dastatzeko aukerarik izango duala uste baduk. Entzun, adiskidea: doala pikutara Sobakevitx hori!, hator nirekin! Arrain gazitu ederra jango diagu! Ponomarievек, azeri horrek, zera esan ziguan agurtzean: «Zuretzat bakarrik, jauna; gogotik bilatu arren, azoka osoan ez duzu honen parekorik aurkituko». Baina maltzurkeria besterik ez zerabilek alproja horrek. Nik zera esan nioan aurpegira: «Hi eta gure zerga-biltzailea munduko lapurrik handienak zarete». Eta bera barrezka, bizarra laztantzen zuen bitartean. Kuvshinnikovek eta biok haren txosnan gosaltzen genian egunero. Hara, adiskidea, ahaztu egin zaidak esatea!: bazekiat

ikusitakoan ez didaala bakerik emango, baina aldez aurretik oharrarazten diat ez diadala hamar mila errubloren aldera ere salduko. Aizak, Porfiri! —egin zion oihu, leihora hurbildurik, morroiari. Morroiak labana zeukan esku batean, eta ogi-azal bat eta arrain gazitu puska bat bestean, britxkatik zerbait ateratzera joan zen batean handik hartu baitzuen, bidenabar eta egokieraz baliaturik—. Aizak, Porfiri! —egin zion oihu Nozdriovek—, ekartzak zakurkumea! Nola-ko zakurkumea! —erantsi zuen gero, Txitxikovenganantz jiraturik—. Lapurtu egin diat, jabeak ez zian-eta ezeren truke eman nahi. Nik agindu nioan zaldi gaztaintara argia emango niola, badakik, Khvostirievi aldatu nion hura...

Txitxikovek, ordea, sekula ez zuen ikusi ez zaldi gaztaintara argi hura ez Khvostiriev delako hori.

— Ez duzu ezer jan nahi, jauna? —galdetu zion une horretan ostatuko emakume zaharrak Nozdriovi, berarengana hurbildurik.

— Ez. Parranda itzela egin diagu, adiskidea, bai horixe! Tira, ekarri kopa bat likore. Zer daukazu?

— Anisa —erantzun zuen emakume zaharrak.

— Ekartzazu, bada, anisa —esan zuen Nozdriovek.

— Niri ere ekarri! —esan zuen ilehoriak.

— Antzerkian bazuan aktorea bat kanarioek bezala kantatzen zuena. Kuvshinnikov nire alboan zegoan eserita, eta zera esan zian: «Hara, adiskidea, ez diagu aukera hau alferrik galdu behar!». Berrogeita hamar txosna bazituan azokan. Fenardi-k lau ordu egin zitian jira-biraka, haize-errotaren antzera.

Hori esandakoan, kopa hartu zion emakume zaharrari eskutik, eta emakumeak buru-makurtu handia egin zion.

— Hara!, ekartzak hona! —egin zuen oihu Porfiri ikusirik, zakurkumearekin sartu berria baitzen. Nagusia bezala jantzirik zegoen Porfiri, kotoizko zamar arrunt batez; berarena, ordea, zikin samar zegoen.

— Ekarri hona, utzi lurrean!

Porfirik lurrean ipini zuen. Zakurkumea lau hankak luzatu eta zoruari usain egiten hasi zen.

— Zakurkume ederra! —esan zuen Nozdriovek, zakurkumea bizkarretik hartu eta apur bat

altxatuz. Zakurkumeak intziri errukarria egin zuen.

— Dena dela, ez duk egin agindu niana — esan zion Nozdriovek Porfiriri, zakurkumearen sabelpea arretaz aztertzen zuen bitartean—. Ez al duk orrazteko asmorik?

— Orraztu dut.

— Eta nondik atera dira arkakuso hauek?

— Ez dakit. Beharbada, kotxean harrapatu ditu.

— Gezurra, gezur hutsa, ez duk orraztu; eta gainera, ziur nagok heure arkakusoak pasatu dizkioala. Begira, Txitxikov, nolako belarriak. Ukitu, ukitu.

— Zertarako ukitu?, argi zegok arraza onekoa dela.

— Ez, har ezak, ukitu eskuaz belarriak.

Txitxikovek, lagunari gustu ematearren, zakurkumearen belarriak ukitu zituen eskuaz, eta gero esan:

— Bai, zakur ona izango duk.

— Eta sudurra?, konturatu haiz zein hotz daukan sudurra? Ukitu, ukitu eskuaz.

Txitxikovek, ez baitzuen bestea mindu nahi, ukitu zion sudurra ere, eta esan:

— Usaimen ona.

— Ehiza-zakur bikaina —jarraitu zuen Nozdriovek—. Aitortu beharra zeukaat aspalditik nengoela ehiza-zakur bat edukitzeko irrikan. Porfiri, eraman ezak!

Porfirik sabelpetik hartu eta kotxera eraman zuen berriro zakurkumea.

— Entzun, Txitxikov, orain nire etxera etorri behar duk, derrigorrean; bost verstako bidea besterik ez zegok, aitaren batean helduko gaituk, eta gero, nahi baduk, Sobakevitxenera joango haiz handik.

«Zergatik ez? —pentsatu zuen Txitxikovek—. Joango nauk Nozdriovenera. Ez duk beste inor baino okerragoa, eta, gainera, dena galdu dik jokoan. Bazirudik edozertarako gauza dela, eta, horrenbestez, zerbait atera ahal izango zioat musu-truk.»

— Ondo zegok, goazen! —esan zuen—. Baina ez nauk luzaz geratuko, nire denbora baliotsua duk eta.

— Ederki! Hori duk eta, adiskidea! Etorri hona, musu pare bat emango diat oraintxe bertan! —Nozdriovek eta Txixikovek musu eman zioten elkarri—. Oso ondo: elkarrekin joango gaituk hirurok!

— Ni ez; barkatuko didak, baina etxera itzuli behar diat —esan zuen ilehoriak.

— Lelokeriak, gizona, lelokeriak!; ez diat alde egiten utziko.

— Joan beharra zeukaat, gero!, emaztea haserretu egingo zaidak bestela. Gainera, orain honen britxkan joan haiteke.

— Ez, ez, ez! Ezta pentsatu ere!

Ilehoria, lehen begiratuan egoskor samarrak ematen duten pertsona horietakoa zen. Dena eztabaidatzeko prest agertzen dira solaskideak ahoa zabaltzeko denbora izan baino lehen; itxuraz, sekula ez dute ontzat emango haien pentsamoldearen kontra argi eta garbi jotzen duen ideiarik, inoiz ez diote ergelari buruargia deituko eta, batez ere, ez dute onartuko besteren doinuaren hotsean dantzatzea; baina, azkenean, gertatu ohi da egosberak direla: ontzat emango dute hasieran gaitzetsi dutena, buruargia deitu-

ko diote ergelari eta ezin hobeto dantzatuko dira besteren doinuaren hotsean; hitz gutxitan, azala gogor eta mamia bigun.

— Zozokeriak! —erantzun zien Nozdriovek ilehoriaren aitzakiei. Jantzi zion txanoa buruan, eta han joan zen ilehoria haien atzetik.

— Ez didazu ordaindu edaria, jauna... —esan zuen ostatuko emakume zaharrak.

— Arrazoi duzu, arrazoi duzu, emakumea! Koinatua, ordain ezak, mesedez. Kopek bat ere ez zeukaat poltsikoan.

— Zenbat da? —galdetu zuen koinatuak.

— Hogeit kopek bakarrik, jauna —esan zuen emakume zaharrak.

— Gezurra, gezurretan ari zara. Emaiok erdia, aski duk hori.

— Oso gutxi da, jauna —esan zuen emakume zaharrak, baina esker onez hartu zuen dirua eta, gainera, arrapaladan joan zen atea irekitzera. Ez zen galduan irten, edariak balio zuena baino lau aldiz gehiago eskatu zuen eta.

Kotxeetara igo ziren bidaiariak. Txitxikoven britxka Nozdrioven eta koinatuaren britxkaren alboan zihoan eta, halatan, bidaldian eragozpe-

nik gabe hitz egin ahal izan zuten hirurek elkarrekin. Haien atzetik, behin eta berriro geldituz, Nozdrioven kalesa txikia zihoan, akurako zaldi argalek tiraturik, Porfiri eta zakurkumea zeramatzala.

Bidaiarien arteko solasa irakurlearentzat oso interesgarria ez denez, hobe izango dugu zer edo zer esan Nozdrioven gainean, zeren eta, beharbada, garrantzi handiko papera jokatuko baitu gure poema honetan.

Nozdrioven izaera, inondik ere, ezagun samarra da irakurlearentzat. Horrelako gizakume asko aurkitzen ditu edonork bizitzan. Gazte erneak deitu ohi zaie; haur-denboran, lagun onak direlako ospea hartzen dute eskolan, eta, hala ere, jipoi izugarriak ematen dizkiete. Irekiak, tolesgabeak eta adoretzuak direlako zantzuak igartzen zaizkie beti aurpegian. Berehala egiten dira guztien lagun, eta, konturatzen zarenerako, hika hasi zaizkizu. Haien adiskidetasunak bizitza osorako izango dela ematen du, baina, ia beti, lagun berriek muzin egiten diete adiskidetasuna ospatzeko antolaturiko jaietan bertan. Berritsuak izan ohi dira, gautxoriak, ausartak, edonon nabar-

mentzen diren horietakoak. Hogeita hamabost urterekin, Nozdriov, hemezortzi edo hogei urterekin bezalakoxea zen: festazale amorratua. Ezkontzeak ez zuen ezertan ere aldatu, zeren, besteak beste, emaztea berehala joan zitzaion beste mundura, bi umetxo utzirik, berak ezertarako ere behar ez zituenak. Dena dela, neska-gazte pertxenta bat arduratzen zen haurrak zaintzeaz. Nozdriov ez zen gauza etxean egun bat baino gehiago geratzeko. Haren usaimen zorrotzak makina bat verstara aditzen zuen non zegoen azokaren bat bere partida eta dantzaldiekin; hantxe azaltzen zen begien itxi-ireki batean, eta, bere moduko guztiak bezalaxe kartazale porrokatua izaki, eztabaidan eta zalapartaka aritzen zen mahai berdeen inguruan. Lehen kapituluan ikusi dugunez, karta-jokoan ez zen guztiz zintzoa eta garbia izaten, denetariko amarruak eta azpikeriak zekizkien, eta, halatan, jokia beste jolas-mota batekin amaitzen zen sarritan: edo ostiko ederrak ematen zizkioten, edo triskilatu egiten zizkioten bere belarrondoko bizar ile-sarri eta ondo zainduak, halako moldez, ezen, batzuetan, belarrondoko bizar bakarrare-

kin itzultzen baitzen etxera, eta bakar hori nahikoa ile-bakandurik zeukala gainera. Baina haren masaila osasuntsu eta mardul haiek hain zeuden ondo eginik eta hain indar ernearazle handia gordetzen zuten barruan, ezen bizarrak berehala hazten baitziren berriro, lehen baino ederrago gainera. Eta —hori zen harrigarriena eta gauza benetan txundigarri Rusen bakarrik gerta daitekeena— denbora puska baten buruan berriro elkartzen zen muturrekoak eman zizkioten lagunekin, eta, kontu zaharrak ahazturik, ezer gertatu ez balitz bezala gobernatzen zen haiekin, eta haiek ere halaxe jokatzeko berarekin.

Neurri batean behintzat, gizon istoriozkoa zen Nozdriov. Bera tartean izanez gero, ez zegoen istorioren bat gertatu gabe amaitzen zen bilerarik. Beti gertatzen zen zerbait: batzuetan, besoetatik oraturik ateratzen zuten jendarmeeak aretotik; beste batzuetan, berriz, lagunek berek eraman behar izaten zuten kanpora. Eta horrelakorik gertatzen ez zenetan, beste edonork sekula egingo ez lituzkeen gauzak egiten zituen: edo sekulako mozkorra harrapatzen zuen buffetean eta, horren eraginez, barre besterik ez zuen egi-

ten, edo gezurretan aritzen zen inolako neurririk gabe, halako moldez, ezen, azkenean, bere buruaz lotsa-lotsa eginik bukatzen baitzuen. Eta, gainera, inongo premiarik gabe asmatzen zituen gezurrak: ile urdin edo arrosako zaldia zeukala eta antzeko zentzugabekeriak esaten hasten zen bat-batean, eta entzule guztiek alde egiten zuten azkenean, esanez: «Tira, tira, gizona, gezur-kontari hasi haiz berriro». Gizabanako batzuek oso gogoko dute lagun hurkoari gaitz egitea, batere arrazoirik gabe batzuetan. Edo non aurkitzen dira horrelakoak; har dezagun, esaterako, kondekorazio gisa bularrean izar bat daraman goi-mailako funtzionario itxura prestuko bat: eskua estutuko dizu, zer hausnartua ematen duten gai sakonez hitz egingo du zurekin, eta gero, tupustean, halako jukutria gaiztoa egingo dizu zeure begien aurrean bertan. Eta, gainera, kolejio-erregistratzaile arrunt batek egingo lukeen bezala egingo dizu gaiztakeria, eta ez bularrean izarra daraman eta zer hausnartua ematen duten gaiez hitz egiten duen gizon prestu bati legokiokeen bezala; eta zu harriturik geratuko zara horren aurrean, eta soinak goratu-

ko dituzu, besterik egin ezinik. Nozdriovek ere bazuen grina bitxi hori. Adiskiderik minena nor, horrixe egiten zion azpikeria beste inori baino lehenago: asma litekeenik eta gezurrik ergelena zabaltzen zuen berari buruz, ezkontza bera edo salerosketaren bat hondatzen zion, eta, guztia-ekin ere, ez zeukan bere burua lagun min horren etsaitzat; alderantziz, halako batean harekin berriro topo egitea suertatzen bazi-tzaion, adiskidetsuki tratatzen zuen, eta honela esaten zion gainera: «Gizatxar gaiztoa hi!, inoiz ez haiz nire etxera etortzen». Bestetik, alde askotarako gizona zen Nozdriov, guztirako iaioa alegia. Behingoan proposatzen zion bati edo besteri noranahi joatea —munduko azken zoko-ra, hala nahi izanez gero—, zeinahi langintzari ekitea edo nahi ahala gauza trukatzea. Fusila, zakurra, zaldia... guztia zen trukagai; dena dela, ezer irabazteko asmorik gabe jokatzeko zuten horrela, berez bultzatzen zuten horretara bere izaera egongaitzak eta bizitasun urduriak. Azokan inozoren batekin egokitu eta jokoan irabazten bazion, mordoka erosten zuten saltokietan begiz jotzen zuten guztia: zamariantzako lepoko-

ak, pipa pizteko kandelak, lepozapiak haurtzainarentzat, garañoak, mahaspasak, eskuak garbitzeko ontzi zilarrezkoak, Holandako haria, irina, tabakoa, pistolak, sardinzar ketuak, margolanak, zorrotzarriak, pertzak, botak, buztinzurizko baxerak..., diru guztia xahutu arte. Baina erositakoa gutxitan iristen zen etxera; gehienetan, zori hobeko jokalariren baten eskuetan amaitzen zuen egun berean, piparekin, toxarekin eta pipako tututxoarekin batera batzuetan; beste batzuetan, berriz, lau zaldiak eta kotxea bera ere galtzen zituen, gidari eta guzti, eta, horrenbestez, kotxearen jabea, jaka labur bat edo zamar arrunt bat soinean, hor hasten zen adiskideren baten bila, beraren kotxeaz baliatzeko asmoz. Horrelakoxea zen Nozdriov! Orain, beharbada, baten bat hasiko da esaten garai bateko izaera dela hori, gaur egun ez dela Nozdriov bezalako jenderik geratzen. Ai!, oker daude hala uste dutenak. Nozdrioven modukoek luzerako dute oraindik munduan. Edonon daude, geure artean ditugu, eta, nonbait, haien janzkera baizik ez da aldatu; baina jendea buruarina da

eta sorgor du adimena, eta uste izaten du jantzia aldaturik gizakia bera ere aldatzen dela.

Bitartean, hiru kotxeak Nozdrioven etxeko atarira heldu ziren. Han ez zegoen ezer prestatu-rik iritsi berriei harrera egiteko. Jangelaren erdian zurezko asto batzuk zeuden, eta bi mujik, haien gainean zutik, hormak zuritzen ari ziren kanta amaigabe bat abesten zuten bitartean; zoru osoa karez zikindurik zegoen. Berehalakoan handik ospa egiteko eta zurezko astoak aldean eramateko agindu zien Nozdriovek bi mujikei; gero, aldameneko gelara joan zen beste agindu batzuk ematera. Gonbidatuek aditu zuten nola bazkaria prestatzeko esan zion sukaldariari; hori entzunik, Txitxikovek —ordurako gosetzen hasi-rik— kontu egin zuen bostak baino lehenago ez zirela mahaira eseriko. Nozdriovek, aldameneko gelatik itzulitakoan, herria ikustera eraman zituen gonbidatuak, eta, bi ordu eta gehiagotan, ikusteko zegoen guzti-guztia erakusten jardun zuen, harik eta zer erakutsi gehiagorik geratu ez zen arte. Lehenengo eta behin, zalditegira joan ziren, non bi behor ikusi baitzituzten, bata zuri-grisa eta bestea gaztainkara argia; garaño uher

bat ere bazegoen, zatar samarra. Nozdriovek zin egin zuen hamar mila errublo ordaindu zituela harengatik.

— Ez duk hamar mila ordaindu —moztu zion koinatuak—. Mila ere ez dik balio.

— Zin egiten diat hamar mila ordaindu dudala —esan zuen Nozdriovek.

— Nahi duana zin egin dezakek —erantzun zion koinatuak.

— Apustu egin nahi duk? —esan zuen Nozdriovek.

Koinatuak ez zuen apusturik egin nahi izan.

Gero, ukuilu huts bat erakutsi zien, non zaldi onak eduki omen baitzituen garai batean. Akerra ere ikusi zuten zalditegian, zeren eta, antzinako herri-sineskera zahar baten arabera, abere hori eduki beharra baitago zaldien artean. Zirudie-nez, aker hura oso ondo konpontzen zen hangoazienda larriekin, eta lasai asko ibiltzen zen batera eta bestera haien sabelen azpian, bere etxean balego bezala. Hurrena, kabestruz loturik zeukan otsokume bat ikustera eraman zituen.

— Begira zein otsokume ederra! —esan zien—. Haragi gordina ematen zioat jateko. Han-

ditzen denean basapiztia ikaragarria izatea nahi diat!

Urmaela ikustera abiatu ziren gero; Nozdriovek azaldu zienez, hango arrainak hain ziren handiak, non bi gizonen artean nekez atera baitzitezkeen uretatik; koinatuak zalantzan jarri zuen hori ere.

— Eta orain, Txitxikov —esan zuen Nozdriovek—, zakur batzuk erakutsiko dizkiat, ezin hobeak dituk, indar harrigarria ditek giharretan, eta orratza bezain letagin zorrotzak.

Eta txabola polit-polit bateraino eraman zituen gonbidatuak. Alde guztietan hesiz itxiriko eremu zabal baten erdian zegoen. Barrura sartutakoan, askotariko zakurrak ikusi zituzten, iletsuak eta odolgarbiak denak, kolore eta ile-antz guztietakoak: arre-gorrixkak, beltzak izpil zurixkekin, zuriak orban gaztainkara argiekin, zuriak orban gorri-beltzekin, zuriak orban arre-gorrixkekin, belarri-beltzak, belarri-grisak... Denetariko izenak zituzten, haietako asko aginteran: *Tiro egizak, Irain egizak, Hegan egizak, Sua, Akabazak, Suntsizak, Hondazak, Errezak, Enara, Sari, Jagole*. Seme-alabez inguraturik aita nola, halaxe

sentitzen zen Nozdriov haien artean. Zakur guztiak, buztanari eraginez, ziztu bizian hurbildu ziren bisitariengana, agurtzeko asmoz. Hamar batek Nozdrioven sorbaldetan jarri zituzten hankak. *Irain egizak* izenekoak bere atxikimendua erakutsi nahi izan zion Txitxikovi eta, atzeko hanken gainean altxaturik, ezpainak miazkatu zizkion, eta Txitxikovek tu egin zuen berehala. Aztertu zituzten, bada, giharretan indar harrigarria zuten zakur haiek, eta bai, zakur onak ziren. Gero, Krimeako zakur eme bat ikustera joan ziren: itsu zegoen, eta —Nozdriovek esan zienez— laster hilko zen, baina bi urte lehenago oso zakur ona izan zen; ikusi zuten, bada, zakur eme hura ere, eta bai, itsu zegoen. Hurrena, ur-errotak ikustera joan ziren: beheko errotarria falta zitzaion, eta, hain zuzen ere, beheko errotarri horrek eutsi behar zion ardatzari, eta goiko errotarriak ardatz horren inguruan jiratu behar zuen, edo, mujik errusiarren esapide jatorra erabiliz, «hegan egin» behar zuen.

— Aroztegira helduko gaituk laster! —esan zuen Nozdriovek.

Eta bai, handik pixkabatera aroztegira heldu ziren, eta aztertu zuten hura ere.

— Hor, zelai horretan —esan zuen Nozdriovek, hatzaz zelai bat seinalatuz—, hainbeste erbi zegok, ezen lurra ez baita ikusi ere egiten. Behin batean, atzeko hanketatik harrapatu nian bat.

— Hik sekula ez duk atzeko hanketatik erbirik harrapatu! —bota zion koinatuak.

— Horixe harrapatu nuela, benetan! —erantzun zion Nozdriovek—. Eta orain —jarraitu zuen, Txitxikovenganantz jiraturik— nire lurren muga ikustera eramango haut.

Mokorrez josiriko zelai batetik eraman zituen Nozdriovek. Gonbidatuek, nekez bada nekez, hango lugorriak eta areaz urraturiko galsoroak zeharkatu behar izan zituzten. Txitxikov nekea sumatzen hasia zen. Leku askotan, lurra zapaltzean, ura agertzen zen oinen azpian, hain zen behea inguru hura. Hasieran, tentuz ibili ziren, lurra kontu handiz zapalduz, baina azkenean, alferrik ari zirela oharturik, zuzen ibiltzeari ekin zioten, kontuan hartu gabe non zegoen lokatz gehiago eta non gutxiago. Aldi luze batez ibilian

ibili ondoren, muga ikusi zuten: zurezko zutoin txiki bat eta lubaki mehar bat.

— Horra hor muga! —esan zuen Nozdriovek—. Alde honetan dakusazuen guztia nirea duk, eta beste aldean ikusten den baso hori eta basoaz harantzago dagoen guztia ere nirea duk.

— Noiztik da hirea baso hori? —galdetu zion koinatuak—. Orain dela gutxi erosi duk, ala? Lehen ez zuan hirea.

— Bai, orain dela gutxi erosi diat —erantzun zuen Nozdriovek.

— Eta noiz izan duk hain azkar erosteko denborarik?

— Duela hiru egun erosi diat, eta, mila deabru!, garesti ordaindu.

— Baina orain dela hiru egun azokan hengo-en.

— Ai, Sofron hori! Ezinezkoa al da aldi berean azokan egotea eta baso bat erostea? Administratzaileak erosi zian ni kanpoan nintzela.

— Administratzaileak, bai! —esan zuen koinatuak, baina ezbaian geratu zen eta buruari eragin zion.

Gonbidatuak lehengo bide kaxkar beretik itzuli ziren etxera. Nozdriovek bere langelara eramán zituen, non ez baitzen inondik ere ikusten ez paperik, ez libururik, ez langleletan egon ohi diren bestelako gauzen arrastorik; sable batzuk besterik ez zegoen hormetan esekirik, eta bi fusil, hirurehun errublokoa bata eta zor-ziehunekoa bestea. Koinatuak fusilak aztertu, eta ezker-eskuin eragin zion buruari besterik gabe. Gero, Turkiako sastakaiak ikusi zituzten, zeinetako batean «Saveli Sibiriakov eskulangi-lea» zizelatuá zuen —tronpaturik— norbaitek. Horren ondotik, organotxoari iritsi zitzaion erakutsia izateko txanda. Nozdriovek, biraderari eraginik, mazurka baten doinua joarazi zion gonbidatuen aurrean. Organotxoak nahikoa soinu polita ateratzen zuen, baina, halako batean, zerbait gertatu zitzaion barruan: mazurka «Mambru gerrara joan zen» kantarekin bukatu zen, eta, bat-batean, antzinako bals ezagun bati ekin zion «Mambru gerrara joan zen» kantaren erdian. Nozdriovek aspalditxo utzia zion biraderari eragiteari, baina organotxoko errejistro batek —oso kementsua bera— ez zuen inola ere isildu nahi,

eta luzaz aritu zen bera bakarrik joka. Gero, pipak erakutsi zizkien; denetarikoak zeuzkan: zurezkoak, buztinezkoak, magnesitazkoak, keak belztuak eta belztu gabeak, antez forratuak zein forratu gabeak, tututxoa anbarrezkoa zuen txibuki bat aspaldi ez zela jokoan irabazia... Tabako-zorrotxo bat ere bazegoen pipen artean, posta-geltoki batean txoratzeko punturaino maitemindu zitzaion kondesa batek brodatua; Nozdriovek azaldu zuenez, harako kondesa haren eskutxoak guztiz *superflui* ziren (nonbait, perfektioaren goren maila adierazi nahi zuen hitz horrekin). Bitarte hartan, gaizkata-xerra onduak jan zituzten, eta arratsaldeko bostak aldera eseri ziren mahaira. Nabari zenez, janaria ez zen Nozdrioven kezka nagusia; jateak ez zuen garrantziko lekurik betetzen haren bizitzan: jaki batzuk lar erreta atera zituzten, eta beste batzuk, aldiz, erdi egosirik, ia gordinik. Bistakoa zen sukaldariak unean uneko etorriaren arabera jokatzeko zuela; irispidean zer eduki, horrixeko helzetan zion: piperrautsa hurbil bazeukan, piperrautsa botatzen zuen; eskueran aza edukiz gero, aza lapikora, edo esnea, edo urdaiazpikoa, edo

ilarrak, hitz batean, edozer, aski zuen prestaturikoa bero egotea, beti izango zuen-eta gusturen bat edo beste. Nozdriovek, ordea, arreta handia egin zion edatekoari: zopa zerbitzatu aurretik, mukuru bete zituen Portoko ardoz gonbidatuen edalontziak, eta gero Haut Sauterne ardoa isurizien, probintzietako hiri eta herrietan ez baita Sauterne arruntik izaten. Gero, botila bat Madeirako ardo ekartzeko agindu zuen, kapitain jeneral batek inoiz edango lukeena baino hobea. Madeira hark ahosabaia erretzen zuen, zeren saltzaileek, Madeirako ardoa atsegin duten lurja-been gustuen jakitun, gupidarik gabe nahasten baitzuten ronez, eta batzuetan errege-ura ere botatzen zioten, errusiarraren urdaila dena eramateko gai delako uste sendoan. Hurrena, edari berezi bat ekartzeko agindu zuen Nozdriovek; azaldu zenez, Borgoniako ardoa eta xanpaina zituen nahasian. Noiz ezkerretara, noiz eskuinetara jiratzuz, behin eta berriro betetzen zizkien Nozdriovek edalontziak koinatuari eta Txitxikovi. Baina Txitxikov berehala ohartu zen etxeko nagusiak neurritz betetzen zuela bere ontzia. Hori ikusirik, tentuz ibiltzea erabaki zuen, eta, Noz-

driov koinatuari zerbait esateko edo edalontzia betetzeko jiratzen zen bakoitzean, egokieraz baliatzen zen hura konturatu gabe bere edalontzia platerera husteko. Handik luzarora gabe, gurbe-pattarra ekarri zuten mahaira; Nozdriovek esan zuenez, esnegainaren ahogozo berdin-berdina zuen, baina —harrigarria— destilatu gabeko vodka zakarraren usain ikaragarria zerion. Horren ondotik, halako edabe bitxi bat edan zuten; ezin gogoratuzko izena zuen, eta etxeke nagusiak berak behin izen batez eta hurrengoan beste batez deitzen zion. Aspaldi zen bazkaria bukatu zela eta edari guztiak dastatu zituztela, baina gonbidatuek mahai inguruan eseririk jarraitzen zuten. Koinatua aurrean zegoela, Txitxikovek ez zuen inola ere Nozdriovekin hitz egin nahi bere ardura nagusitzat zeukan gaiaz. Azken batean, koinatua arrotza zen berarentzat, eta, horrelako gai bati buruz, bakarrean eta adiskidegiroan hitz egin beharra zegoen. Nolanahi ere, ez zuen ematen koinatua gizon arriskutsua zenik, zeren, itxura guztien arabera, mozkor-mozkor eginik baitzegoen, eta, mahai alboan eseririk, buruak zabu egiten zion etengabe. Koi-

naturia bera ere bere egoera tamalgarriaz jabeturik, etxera joateko baimena eskatzen hasi zen azkenean, baina hain ahots ahul eta nagiz, non, Errusiako esakune zahar batek dioenez, bai baitzirudien kurrikez jarri nahi ziola lepokoa zaldia-ri.

— Ez, ez, ez! Ez diat alde egiten utziko! — esan zuen Nozdriovek.

— Mesedez, gizona, ez tematu nire kaltean, joan egin behar diat —zioen koinatuak—, kalte gogorrek ekarriko dizkidak bestela.

— Lelokeriak, lelokeriak! Partidatxo bat antolatuko diagu oraintxe bertan.

— Ez, joka ezak hik, hala nahi baduk, baina nik ezin diat, emaztea haserre bizian egongo duk honezkero. Azokan gertatutakoa kontatu behar zioat. Benetan, adiskidea, benetan, atsegin eman behar zioat. Ez gerarazi!

— Doala hire emaztea pik...! Bai garrantzi-tsua elkarrekin egin behar duzuen dena delako hori!

— Ez horrelakorik esan!, oso emazte zuzena eta leiala duk! Mesede handiak egiten zizkidak, sinetsidak, begiak malkotan jartzen zaizkidak

gogoratze hutsarekin. Utzi joaten, mesedez; ez nabilek txantxetan, gizon zintzoa nauk eta alde egin behar diat, benetan.

— Doala, bada; zertarako balio digu? —esan zion Txitxikovek Nozdriovi ahapeka.

— Arrazoi duk! —erantzun zion Nozdriovek—. Jasanezinak zaizkidak hain gizon txepelak! —eta ozenki gaineratu zuen—: Tira, deabruak eramango ahal hau!, hoa emaztearengana, gixonerdia halakoa!

— Mesedez, adiskidea, ez iraindu gixonerdia deituz —erantzun zion koinatuak—; dena zor zioat emazteari, benetan; hain duk ona, hain maitagarria, hain ardura handiz zaintzen naik... negarrez hasteko gogoia egiten zaidak oroitze hutsarekin; galdetuko zidak zer ikusi dudan azokan, eta nik dena kontatuko zioat, hain duk maitagarria...

— Tira, tira, hoa berarengana heure zozoke-riak kontatzera! Hemen daukak txanoa!

— Ez, adiskidea, ez horrelakorik esan nire emazteaz; niri egiten didak min horrela, hain duk bera maitagarria...

— Tira, alde egin ezak, hoa segituan berarengana!

— Bai, banoak; barkatu ez geratzeagatik. Pozarren geratuko nindukek, baina ezin diat, benetan.

Koinatuak luzaz jardun zuen barkamena eskatzen, konturatu gabe aspaldi zegoela kotxean eseririk, kotxea aspaldi irten zela bidera eta ordurako zelai inorgabeak besterik ez zeukala aurrean. Pentsatu beharra dago emazteak ez ziola senarrari entzungo azokaren gaineko xehe-tasun askorik.

— Ergela halakoa! —esan zuen Nozdriovek, leiho aurrean zutik eta koinatuaren kotxeari so—. Begira nola dabilen kotxea! Ez duk txarra laguntza-zaldi hori; begiz jota zeukaat aspaldion, baina gizon horrekin ez zegok inolako traturik egiterik. Gixonerdi hutsa duk, gixonerdia ez bestena!

Barruko gela batera joan ziren biak. Porfirik kandelak ekarri zituen, eta Txitxikovek karta-sorta bat ikusi zuen etxeko nagusiaren eskuetan, nondik atera ote zuen ez zekiela.

— Ea! —esan zuen Nozdriovek, hatz-puntekin karta-sorta ertzetatik estutu eta apur bat kaketzen zuela, halako eran, ezen paperezko azal mehea urratu eta kartak askatu egin baitziren—. Tira, denbora ematearren, hirurehun errublo jarriko dizkiat bankan.

Txitxikovek, ordea, haren hitzak entzun ez zituelakoa egin zuen, eta, bat-batean gogoratu balitz bezala, esan zuen:

— Ahaztu baino lehen: gauza bat eskatu behar diat.

— Zer, gero?

— Aurrena, hitzeman behar didak ontzat hartuko duala.

— Baina zein da eskaria?

— Aurrena, hitza eman behar didak.

— Ondo zegok.

— Ohorezko hitza?

— Ohorezko hitza.

— Hona, beraz, nire eskaria: seguraski badi-tuk nekazari hil asko oraindik erroldatik ezabatu ez dituanak, bai?

— Bai, eta?

— Emaizkidak, jarri nire izenean.

— Zertarako nahi dituk, gero?

— Behar ditiat!

— Zertarako?

— Behar ditiat... Hori nire ardura duk, behar ditiat eta kito.

— Inondik ere ezkutuko asmoren bat baduk buruan. Aitor ezak: zer egin nahi duk haiekin?

— Ezkutuko asmoren bat? Bai zera!, horrela-ko huskeria batekin ez zegok ezer egiterik.

— Zertarako nahi dituk orduan?

— Ene, bada!, hau gizon jakingura! Prest legokek gauzarik ziztrinena eskuaz ukitzeko eta sudurraz usaintzeko.

— Baina zergatik ez didak esan nahi?

— Eta zer-nolako onura ekarriko liake hori jakiteak? Apeta hutsa duk, besterik ez.

— Oso ondo, baina hire asmoen berri jakin arte ez diat ezertxo ere emango.

— Hara bestea!, hori ez duk zuzena hire alde-rik: lehen hitza eman, eta orain jan.

— Nahi duan bezala, baina zertarako nahi dituan azaltzen ez badidak, ez diat inongo neka-zari hilik emango.

«Zer esango diot?», pentsatu zuen Txitxikovek, eta pixka batean hausnartu ondoren esan zion gizartean pisu handiagoa lortzeko behar zituela arima hilak, oraindik ez zeukala lur askorik eta bitartean ondo etorriko litzaiokeela horrelako arima batzuez jabetzea.

— Gezurra! —esan zuen Nozdriovek, amaitzen utzi gabe—. Gezurretan ari haiz, adiskidea!

Txitxikov bera ere ohartu zen ez zela oso argi ibili eta asmatu berri zuen aitzakia ahul samarra zela.

— Tira, argi eta garbi aitortuko diat egia —esan zuen, bere okerra zuzendu nahirik—, baina, mesedez, ez esan inori. Ezkontzekotan nagok, baina emaztegaiaren gurasoak oso handinahiak dituk. Ataka gaiztoan sartu nauk, eta orain damu diat ezkon-hitza eman izana. Kontua duk neska-
ren gurasoek ezinbesteko baldintza bat jarri dutela ezkontza onartzeko: senargaiak hirurehun arima izan behar ditik gutxienez; eta niri ehun eta berrogeita hamar nekazari falta zaizkidak kopuru horretara iristeko...

— Gezurra!, gezur biribila! —egin zuen oihu Nozdriovek berriro.

— Bada, orain —esan zuen Txitxikovek— ez diat honainoko gezurrik ere esan —eta hatz txikiaren muturra seinalatu zuen hatz lodiaz.

— Lepoa egingo nitek gezurretan ari haizela!

— Hitz astunak dituk horiek, alajaina! Zer uste duk, gero?, gezurtia naizela?, gezurra besterik ez dudala esaten ezinbestean?

— Ondo asko zekiat zer haizen hi: maltzurra galanta! Eta adiskide gisa ari nauk! Hire nagusia banintz, hartu eta edozein zuhaitzetan urkatuko hinduket.

Nozdrioven hitzek biziki mindu zuten Txitxikov. Gogaikarri zitzaizkion edonolako zatarke-riak eta moduzkotasunaren kontrako esapideak oro. Ez zuen gogoko berarekiko harremanetan jendeak familiartasun-izpirik erakustea, eta, goren mailako pertsoneri izan ezik, ez zion inori horrelakorik onartzen. Eta horregatik mindu zen hainbeste.

— Horixe urkatuko hindukedala —errepikatu zuen Nozdriovek—, eta onean ari nauk, aizak!, adiskide gisa, iraintzeko batere asmorik gabe.

— Gauza guztiek beren mugak ditiztek —esan zuen Txitxikovek duintasun handiz—.

Horrelako arrunkeriak esaten jarraitzeko asmorik baduk, hobe duk edozein kasernatara joan — eta gero erantsi zuen—: Oparitu nahi ez badizkidak, zergatik ez dizkidak saltzen?

— Saldu? Ondo asko ezagutzen haut!, zital hutsa haiz, ez didak haiengatik askorik ordainduko!

— Hi ere ez haiz makala! Zer uste duk, gero?, harribitxiak direla?

— Banengoan ni. Ikusten?, ondo ezagutzen haut.

— Hi bai zekena! Ematea besterik ez duk, eman eta kito.

— Tira, entzun, batere dirugosea ez naizela frogatzeko, ez diat ezer kobratuko haiengatik. Garañoa erosten badidak, hiretzat nekazari hilak.

— Eta zertarako nahi dut nik garañoa? —esan zuen Txitxikovek, Nozdrioven eskaintzak harriturik.

— Nola zertarako? Hamar mila errubloan erosi nian, eta lau mila bakarrik eskatuko dizkiat.

— Baina zertarako behar dut garañoa? Behorrik ere ez zeukaat eta.

— Oraindik ez duk ulertu; entzun ondo: orain hiru mila errublo besterik ez duk ordaindu behar, gainerakoa geroago emango didak.

— Jainkoarren, ez diat garañorik behar!

— Orduan, eros iezadak behor gaztainkara argia.

— Behorrik ere ez diat behar.

— Bi mila bakarrik kobratuko dizkiat behor-rerengatik eta lehen ikusi duan zaldi grisarengatik.

— Baina nik ez diat zaldirik behar.

— Orduan, saldu; edozein azokatan hiru aldiz gehiago emango diate haiengatik.

— Hiru aldiz gehiago ateratzea badagoela uste baduk, hobe huke hik heuk saldu.

— Ziur nagok dirua irabaziko nukeela, baina hik ere etekina ateratzea nahi diat.

Txitxikovek eskertu egin zion hain asmo ona, eta ezezko biribila eman zien zaldi grisari eta behor gaztainkara argiari.

— Orduan, zakurren bat erosi. Edonori oilo-ipurdia jartzeko moduko pare bat salduko diat. Bular sendoa ditek, bibote itzela, eta ileak tente-tente, zurden antzera. Bular-kaiolak zabalera

izugarria dik, eta oinak gihartsuak eta bizkorrak dituk, lurra ukitu ere ez ditek egiten.

— Baina zertarako eduki nahi dut nik zakurrik? Ez nauk ehiztaria.

— Berdin zio, gustatuko litzaidakek hik zakurrak edukitzea. Entzun: zakurrik nahi ez baduk, erosi organotxoa, ezin hobea duk. Zin egiten diat mila eta bostehun errubloan erosi nuela, eta berrehun errubloan utziko diat.

— Eta zertarako nahi diat nik organotxoa? Ez nauk alemaniarra organotxoa arrastaka daramadala bidez bide ibiltzeko, diru eske.

— Baina nirea ez duk alemaniarrek aldean eraman ohi dituzten organotxo horiek bezalakoak. Benetako organoa duk. Aztertu ondo: kaobazkoa goitik beheraino. Etorri, berriro erakutsiko diat!

Hori esandakoan, besotik heldu zion Txitxikovi, eta arrastaka eraman zuen beste gelara. Eta Txitxikovek oinak lurrean irmo finkatu eta organotxoa nolakoa zen bazekiela ziurtatu arren, berriro entzun behar izan zuen nola joan zen Mambru gerrara.

— Erosi nahi ez baduk, entzun, beste proposamen bat egingo diat: nik organotxoa eta ditudan arima hil gutziak emango dizkiat, eta hik heure britxka eta hirurehun errublo eman niri.

— Eta zer izango dut orduan garraibide?

— Beste britxka bat emango diat. Goazen estalpera, oraintxe erakutsiko diat! Berriro pintatu, eta britxka zoragarria edukiko duk.

«Arraioa!, deabruak dantzan jarri zizkiok barruak gizon honi!», pentsatu zuen Txitxikovek bere artean, eta erabaki zuen uko egitea edonolako britxka, organotxo edo zakur guztiei, oso bular sendoak eta hanka bizkorrak eduki arren.

— Beraz, britxka, organotxoa eta arima hilak, dena batera!

— Ez diat nahi —esan zuen Txitxikovek berriro.

— Zergatik ez duk nahi?

— Hargatik. Ez diat nahi eta kito.

— Hi bai hi! Bistan zegok hirekin ez dagoela adiskide eta lagun onekin ohi den bezala konpontzerik. Argi geratu duk bi aurpegiko gizona haizela!

— Ergeltzat hartu nauk, ala?, herorrek erabaki: zertarako erosiko diat ezertarako behar ez dudan gauzarik?

— Isilik egon hadi, mesedez. Oso ondo ezagutzen haut orain. Alproja hutsa haiz! Zer, partida-txo bat? Karta batera jokatuko dizkiat hil guztiak, eta organotxoa ere bai.

— Karta bakarrera?, dena ziurtasunik ezaren mende uztea duk hori, ordea! —esan zuen Txitxikovek, eta, aldi berean, zeharka begiratu zien Nozdriovek eskuetan zeuzkan karta-sortei. Iruditu zitzaion nahierara antolatua zituela bi sorta haiek, eta oso susmagarri iritzi zion ifrentzuko marrazkiari berari ere.

— Ziurtasunik ezaren mende?, zergatik diok hori? —esan zuen Nozdriovek—. Ez zegok inolako ziurgabetasunik!, zoria hire alde ateratzen bada, irabazi ikaragarriak hiretzat. Hona hemen zoria! —esan zuen, Txitxikov zirikatze aldera kartak botatzen hasirik—. Hona zoria!, hona zoria! Arraioa!, ez diat, bada, galdu!, dena galdu diat bederatziko madarikatu hau atera delako! Saldu egingo ninduelako irudipena neukaan, baina, hala ere, begiak itxi, eta neure artean

esan diat: «Deabruak eramango ahal hau, mala-partatu hori, sal nazak hala nahi baduk!».

Nozdriovek hori zioen bitartean, Porfirik botila bat ekarri zuen. Txitxikovek, ordea, ezezko biribila eman zien jokatzeari eta edateari.

— Zergatik ez duk jokatu nahi? —galdetu zion Nozdriovek.

— Gogorik ez dudalako. Egia esan, jokia ez zaidak batere gustatzen.

— Zergatik ez zaik gustatzen?

Txitxikovek soinak goratu zituen, eta esan:

— Ez zaidalako gustatzen.

— Mozolo ederra hi!

— Zer egingo zioat!, honelakoxea sortu nindian Jainkoak.

— Gixonerdi hutsa haiz! Hasieran pentsatu nian gizon prestua hintzela, baina lagunartean behar bezala gobernatzen ere ez dakik. Hirekin ez zegok lagun minekin bezala hitz egiterik... zintzotasun-izpirik ere ez duk!, jatortasun-arrastorik ez!, Sobakevitx bezain doilorra haiz!

— Zergatik iraintzen nauk? Nirea al da errua jokia gustatzen ez bazait? Besterik gabe saldu

arimak, horrelako huskeria bat hain balio handi-
kutztat baduk.

— Ezta pentsatu ere! Musu-truk emateko prest nengoan, baina orain ez duk niregandik ezertxo ere jasoko! Hiru erresuma eskainita ere, ez diat inolako arimarik emango. Bilaua halakoa, zornezorro zikina! Hemendik aurrera ez diat inolako harremanik izan nahi hirekin. Porfiri, esaiok korta-mutilari olorik ez emateko honen zaldiei, aski ditek lasto hutsa.

Txitxikovek ez zuen inondik inora horrelako bukaerarik espero.

— Hobe huen nire begien aurrean sekula azaldu ez bahintz! —esan zion Nozdriovek.

Liskarturik ere, gonbidatuak eta etxeko nagusiak elkarrekin afaldu zuten, baina oraingoan ez zen izen bitxiko ardorik agertu mahaian. Botila bakarra zegoen, Txipreko ardo zeharo garratz batez betea. Afalostean, aldameneko gelara lagun egiteko eskatu zion Nozdriovek Txitxikovi, han antolatu baitzioten etzalekua:

— Hemen daukak ohea! Gabonak ere ez dizkiat eman nahi!

Alde egin zuen Nozdriovek, eta Txitxikov ezinago gaitzurik geratu zen gelan. Haserre zegoen bere buruarekin, eta errieta egiten zion Nozdrioven etxera etortzeagatik eta denbora alferrik galtzeagatik. Baina, oroz gainetik, kargu hartzen zion bere eginkizunaz hitz egin ziolako, batere zuhertasunik gabe jokatu zuelako, umegorrien antzera, ergelen gisara, zeren, izan ere, bere hura ez baitzen Nozdriovi fidatzeko moduko kontua... Gizatxar hutsa zen Nozdriov, eta litekeena zen gezurak esatea, entzundakoari berak asmatu-rikoko zertzeladak eranstea, deabruak daki zer-nolako zurrumurruak zabaltzea, eta, horren eraginez, denetariko esamesak sortuko ziren, eta horrek ez zion, inondik inora ere, atarramentu onik ekarriko. «Ergel hutsa nauk!», zioen Txitxikovek bere artean. Oso txarto lo egin zuen. Intsektu txiki eta oso bihurri batzuek hozka egiten zioten oso modu mingarrian, eta berak esku-ko azazkal guztiekin atzaparkatzen zuen zauritu-tako aldea, esanez: «Deabruak eramango ahal zaituzte Nozdriovekin batera!». Goizean goiz esnatu zen. Oroz lehen, mantala eta oinetakoak jantzi, patioa zeharkatu, eta ukuilura joan zen,

Selifani kotxea bertantxe presta zezala agintzera. Itzultzean, Nozdriovekin topo egin zuen patioan. Hura ere mantalez jantzirik zegoen, eta pipa zeukan ahoan.

Nozdriovek adiskidetsuki agurtu zuen, eta zer moduz lo egin zuen galdetu zion.

— Hainbestean —erantzun zion Txitxikovek, guztiz lehor.

— Bada, ni, adiskidea —esan zuen Nozdriovek—, hain amets higuingarriek gogaitu naitek gau osoan, non kontatzeak berak ere nazka ematen didan, eta atzo gertatutakoak hain gustu txarra utzi zidak, non badirudien eskoadroi oso batek igaro duela gaua nire ahoan. Pentsa: amets egin diat berealdiko jipoia ematen zidate-la, eta ezetz asmatu nork! Sekula ez huke igarriko: Potseluev kapitainordeak eta Kuvshinnikov tenienteak.

«Tamalez, ez haute benetan egurtu!», pentsatu zuen Txitxikovek bere artean.

— Astindu itzela, alafede! Esnatu nauk eta, mila deabru!, zer eta hozka ari zitzaidaan zerbait, arkakusoak seguraski! Ea, orain hoa jantzera, segituan izango nauk berriro hirekin: errieta

egin behar zioat administratzaileari, alproja galanta duk eta!

Bere gelara joan zen Txitxikov, janztera eta garbitzera. Geroxeago, jangelara itzuli zenean, tea hartzeko ontziak eta ron-botila bat ikusi zituen mahai gainean prest. Gelan, bezperako bazkariaren eta afariaren hondarrak ageri ziren nonahi; antza, morroiak ez zuen erratza pasatu ere egin. Zorua ogi-apurrez beterik zegoen, eta tabako-errautsa ageri zen zamauan barreiaturik. Etxeko nagusia berehala itzuli zen. Ez zeraman ezer mantalaren azpian eta, halatan, agerian zeukan bularra, non bizar-moduko bat hazten baitzitzaion. Txibukia eskuan eta katilutik hurru-paka, oso irudi egokia zatekeen pintore baten-tzat, esan nahi baita, bizartegietako iragarkietan ikusi ohi direnen tankerako gizon ondo orraztuak eta kizkurduak edo ilea larru-arras mozturik eramaten dutenak batere gogoko ez dituzten pintore horietako batentzat.

— Orduan, zer?, ez dituk arimak jokatu nahi?
— esan zuen Nozdriovek isilune labur baten ondotik.

— Esana diat ez naizela jokozalea; erosi egin behar baditut, erosi egingo ditiat.

— Baina nik ez dizkiat saldu nahi, hori ez duk gisakoa adiskide artean eta ez diat neure izen ona zikindu nahi horrelako huskeria batengatik. Jokatzea, ordea, besterik duk. Zer?, kartak botatzen hasiko naiz?

— Ezetz, bada!, lehenago ere esan diat.

— Eta ez duk iritziz aldatu nahi?

— Ez, ez diat nahi.

— Tira, dametan egingo diagu orduan; irabazten baduk, hiretzat nekazari hil guztiak. Erroldatik ezabatu beharreko arima mordoa zeukaat. Aizak, Porfiri, ekarri dametan egiteko taula.

— Alferrikako lana duk hori, ez diat jokatu.

— Baina joko horretan ez zegok bankarik; zoriak ez dik inolako eraginik izaten eta ez zegok engainurik egiteko modurik: ondo jokatzea, hori duk kontua; baina oharrarazi behar diat ez daki-dala ondo jokatzeko, nolabaiteko abantaila eman beharko didak, beraz.

«Ze demontre! —pentsatu zuen Txitxikovek bere artean—, jokatu egingo diat! Nahikoa ona

nauk dametan eta, gainera, joko horretan ez dik erraza izango iruzur egitea.»

— Ondo zegok, egingo diat dametan.

— Arimak ehun errubloren truke!

— Zergatik hainbeste?, berrogeita hamar bakarrik jarriko ditiat, aski duk hori.

— Ez, berrogeita hamar gutxi duk! Begira, nik, neure aldetik, zakurkume halamoduzkoren bat edo erlojurako zigilu urrezko bat gehituko zioat hire diru horri. Hobe horrela!

— Tira, tira, ondo zegok! —esan zuen Txitxi-kovek.

— Nolako abantaila emango didak? —esan zuen Nozdriovek.

— Abantaila?, ez diat inolako abantailarik emango, jakina.

— Gutxienez, uztak hasieran bi mugimendu jarraian egiten.

— Ez diat nahi, nik ere txarto jokutzen diat.

— Bai zera!, berehala igarri diat jokalaria ona haizela —esan zuen Nozdriovek, pieza bat mugitzeaz batera.

— Aspaldi duk piezak ukitu ere ez dudala egin! —esan zuen Txitxikovek, berak ere pieza bat mugituz.

— Berehala igarri diat, ordea, jokalari ona haizela! —esan zuen Nozdriovek, pieza bat mugituz.

— Aspaldi duk piezak ukitu ere ez dudala egin! —esan zuen Txitxikovek, pieza bat mugituz.

— Berehala igarri diat, ordea, jokalari ona haizela! —esan zuen Nozdriovek, pieza bat mugituz; baina oraingoan beste pieza bat ere aurreratu zuen, mahukaburuaz.

— Aspaldi duk piezak ukitu ere ez dudala egin!... Et, et, et!, zertan ari haiz?, eraman ezak atzera oraintxe bertan! —esan zuen Txitxikovek.

— Zer?

— Pieza hau —esan zuen Txitxikovek, eta une horretantxe beste pieza bat ikusi zuen bere sudurraren aurrean bertan; bere lehen lerrotik hurbil zeukan eta Jainkoak bakarrik zekien nola iritsi zen horraino—. Ez —esan zuen Txitxikovek, zutiturik—, hirekin ez zegok jokoan aritzerik! Ez duk zilegi aldi berean hiru pieza mugitzea.

— Hiru?, zergatik hiru?, pieza hau ez diat ukitu, bera bakarrik mugitu duk, bere lekuan jarriko diat berriro.

— Eta beste hau nola iritsi da honaino?

— Zein?

— Hauxe, nire lehen lerrotik hurbil-hurbil dagoen hau.

— Arraioa!, ez haiz gogoratzen, ala?

— Bai, gizona, mugimendu guztiak zenbatu ditiat eta dena gogoratzen diat; oraintxe ipini duk hemen. Hor zegoan!

— Non, gero? —esan zuen Nozdriovek, gorriturik—. Ikusten dudanez, gezurti hutsa haiz!

— Ez, gizona, heu haiz gezurtia, baina oraingoan ustel atera zaik.

— Zer uste duk naizela? —galdetu zion Nozdriovek—. Amarrurik egin al dut orain?

— Ez zekiat zer haizen, baina une honetatik aurrera sekula ez diat hirekin ezertan jokatuko berriro.

— Ez, ezin duk jokoa bertan behera utzi —esan zuen Nozdriovek, beroturik—, hasita zegok partida!

— Partida bertan behera uzteko eskubidea diat, hik ez duk-eta gizon zintzo batek beharko lukeen bezala jokatzeko.

— Gezurretan ari haiz, ezin duk horrelakorik esan!

— Ez, heu ari haiz gezurretan!

— Nik ez diat azpikeriarik egin eta hik ezin duk jokoa utzi, amaitu egin behar diagu partida!

— Ez, ez nauk horretara behartuko —esan zuen Txitxikovek odol hotzez, eta, taulara hurbildurik, piezak nahasi zituen.

Nozdriovek, sumindurik, Txitxikovenganantz jo zuen, eta hainbeste hurbildu zitzaion, ezen Txitxikovek bi urrats egin behar izan baitzuen atzera.

— Horixe behartuko haudala! Berdin zioz piezak nahasi badituk, mugimendu guztiak gogoratzen ditiat. Lehen zeuden bezala jarriko ditiagu berriro.

— Ez, akabo duk, ez diat hirekin jokatu.

— Zergatik ez duk jokatu nahi?

— Herorrek ikusi duk ezinezkoa dela hirekin jokatzeko!

— Esadak argi eta garbi ez duala jokatu nahi!
—esan zuen Nozdriovek, are gehiago hurbilduz.

— Ez diat nahi! —esan zuen Txitxikovek, eta, zer gerta ere, eskuak jaso eta aurpegira hurbildu zituen, giroa lar berotzen ari zen eta.

Oso une egokian erabaki zuen horrelako tentu-neurria hartzea, zeren Nozdriovek atzera eragin baitzion besoari... eta gerta zitekeen —erraz gertatu ere— gure protagonistaren masaila eder eta marduletako bat ezin garbituzko laidoak orbandurik geratzea; baina, ordu onean ukaldiari itzuririk, Nozdriovi beso oldarkorretatik heldu eta gogor eutsi zion.

— Porfiri, Pavlushka! —egin zuen oihu Nozdriovek amorru bizian, besoak jaregiteko ahaleginak eginez.

Hitz horiek entzunik, Txitxikovek, zerbitzari-jendea hain eszena itsusiaren lekuko izan ez zedin eta, aldi berean, Nozdriovi eusten saiatzea alferrikako lana zela sumaturik, besoak askatu zizkion. Une horretantxe sartu zen Porfiri, eta berarekin batera Pavlushka, gazte sendoa bera, zeinarekin indarrak neurtzea ez baitzen oso onuragarria izango.

— Beraz, ez duk partida bukatu nahi? —esan zuen Nozdriovek—. Argi eta garbi erantzun!

— Ezinezkoa duk partida bukatzea —esan zuen Txitxikovek, eta leihora begiratu zuen. Bere britxka ikusi zuen kalean, biderako prest, eta britxkaren alboan Selifan, nagusiaren keinu baten zain atarira hurbiltzeko, antza; baina ez zegoen inolako aukerarik gela hartatik irteteko: bi morroi ergel eta indartsu haiek zutik zeuden ate banaren aurrean.

— Beraz, ez duk partida bukatu nahi? —errepikatu zuen Nozdriovek, sua bezain gorri aurpegia.

— Bukatuko nikek, gizon zintzo bati dagokion moduan jokatu bahu. Baina orain ezin diat.

— Hara, ezin duk, doilorra halakoa! Orain ezin duk, galduko duala ikusi duanean! Jo ezazue! —egin zien oihu, bere onetik aterata, Porfiri eta Pavlushkari, berak, bere aldetik, gereziondo-zurezko pipa luze bat harturik. Txitxikov mihi-sea baino zurbilago jartzen hasi zen. Zerbait esan nahi izan zuen, baina konturatu zen ezpainak hotsik atera gabe mugitzen zitzaizkiola dardara batean.

— Jo ezazue! —egin zuen garrasi Nozdriovek, eta, gereziondo-zurezko pipa airean dantzatzuz, aurrera oldartu zen, su biziak harturik, izerdi patsetan, gotorleku menderakaitz bati eraso beharko balio bezala—. Jo ezazue! —zioen oihuka, erasoaldi nagusiaren ordua iritsirik teniente odolbero batek bere soldadu-sailari «Aurrera, mutilok!» oihukatzeko erabiltzen duen ahotsdoinu berberaz. Hain dago bazter guztietara hedaturik delako teniente horren adore burugabearen ospea, ezen, gudaldiko egiterik larrienen tenorean, besoetatik lehenbailehen eusteko agintzen baitute gudalburuek; baina, ordurako, gerrarako grina erabat jabetu da tenientearen gogoaz, eta buruan jira-biraka ari zaio dena; nor eta Suvorov bera dakusa aurrean, eta haren atzetik abiatzen da gerra-ekintza handientsuen loriaren bila. «Aurrera, mutilok!», egiten du oihu, kemenez gainezka, tenienteak, kontuan izan gabe azpikoz gora jartzen ari dela eraso nagusirako plan aldeztu aurretik ondo hausnartua, fusil-ahoak milioika ageri direla hodeietarainoko horma menderakaitz haietako kanoi-zuloetan, bere soldadu-sail indargabea lumatxoak airean

bezala haizatuko dela behingoan eta zorigaizto-ko bala bat txistuka abiatu dela jadanik berarengana, eztarri deiadarkari hori behin betiko isilaraztera. Baina Nozdriov gotorlekuari eraso egitera doan teniente odolbero eta burugalduaren irudia izanik, helburu zeukan gotorlekuak, ordea, ez zuen inondik ere menderakaitza ematen. Aitzitik, gotorlekua hain zegoen izuturik, ezen orpoetaraino erori baitzitzaion arima. Ordurako, morroiek eskuetatik kendua zioten babesgarritzat hartu zuen aulkia, eta bera, begiak itxirik, ez hilik ez bizirik, gertu zegoen etxeko jaunaren pipa zirkasiarra bere hezurretan probatzeko, eta Jainkoak daki zer ez zitzaion gertatuko; baina patuak gure protagonistaren saihetsak, sorbaldak eta gainerako gorputz-atal prestu guztiak salbatu nahi izan zituen. Bat-batean, denak ustekabean harrapaturik, hodeietan sortua bezala, kanpaitxo baten dilin-hots etena aditu zen kanpoan, eta argi entzun zen atari aurrera ziztu bizian iritsi berria zen telegaren gurpilek lurra zapaltzean ateratzen zuten zarata, eta gelaraino bertaraino heldu ziren troika gelditu berria osatzen zuten zaldi izerdituen putz astuna eta arna-

sestua ere. Nahi gabe, leiho aldera begiratu zuten denek: eite militarreko jaka batez jantziriko gizon bibotedun bat jaitsi zen telegatik. Sarre-ran argibideak eskaturik, gelan sartu zen, noiz eta Txitxikov, izu-laborria gainditu ezinik, ezein gizakirengan sekula ikusi den jarrerarik errukarrienean baitzegoen.

— Barkatu, zuetako nor da Nozdriov jauna? — esan zuen ezezagunak, harrituxe Nozdriov eta Txitxikov hala ikusirik, pipa eskuan bata eta bere jarrera eragabea zuzentzen hasia bestea.

— Aurrena, esadazu norekin hitz egiteko oho-rea dudan —esan zuen Nozdriovek, berarengana hurbilduz.

— Barruti honetako poliziaburua naiz.

— Eta zer nahi duzu?

— Jakinarazi behar dizut epailearen esku zaudela zure auzia erabaki bitartean. Horretarako bidali naute.

— Burugabekeria handiagorik!, zein auziz ari zara? —esan zuen Nozdriovek.

— Mozkorturik zeundela, Maksimov lurjabea iraindu eta jo egin zenuen, horregatik auzipetu zaituzte.

— Gezurretan ari zara!, sekula ez dut Maksimov izeneko lurjabe hori ikusi!

— Jaun ohoragarri hori!, gogoan izan ofiziala nauzula. Zure zerbitzariei hitz egin ahal diezu horrela, baina niri ez.

Txitxikov ez zen han geratu, Nozdriovek zer erantzungo; kapelua hartu, abaila handian poli-ziaburuaren atzetik igaro, atariraino joan, britx-kara igo, eta zaldiak lauoinka bizian jartzeko agindu zion Selifani.

Bosgarren kapitulua

Gure protagonista beldurak airean zegoen oraindik. Britxka egundoko arinen zihoan eta Nozdrioven herria aspaldi desagertua zen begien bistatik zelai, malda eta muinoen atzean, baina, guztiarekin ere, Txitxikovek izuaren izuz begiratzeko zuen behin eta berriro atzera, unean-unean jazarleak han agertuko zirelakoan, atzetik jarraika. Nekez hartzen zuen arnasa, eta, eskua bularreran ipinita, sumatu zuen bihotza jauzika ari zitzaiola galeperra kaiolan bezala. «Ene!, gorriak ikusarazi zizkidak gizon malapartatu horrek!» Eta denetariko nekeak eta ezbeharrak opatu zizkion Nozdriovi, baita hitz astun batzuk zuzendu ere. Zer egingo diogu!, errusiarra zen, eta, gainera, sumindurik zegoen. Izan ere, larrialdia ez baitzen nolana hikoia izan. «Inondik ere —esan zuen bere artean— poliziaburua garaiz agertu ez balitz, sekula ez nian berriro ikusiko mundu honetako argia. Hantxe desagertuko ninduan, burbuila uretan bezala, aztarnarik utzi gabe, ondorengorik gabe, egunen batean izango nituz-

keen haurrei ez ondasunik eta ez izen onik utzi gabe!» Gure protagonista biziki kezkatzen zen bere ondorengoez.

«Gizatxarra halakoa! —zioen Selifanek bere kolkorako—. Sekula ez diat hain gizon makurrik ikusi. Tu egitea besterik ez dik merezi. Onar daitetek gizajendea baraurik uztea, baina zaldiei jaten eman behar zaiek derrigorrez. Zaldiek gogoko ditek oloa, hori jaten ditek, oloa, haien bizigaia duk, gure elikagaien parekoa. Zaldiek oloa jaten ditek.»

Nonbait, zaldiek ere ez zioten oso tankera onik hartu Nozdriovi: zuri-horixka eta *Kontseilari* ez ezik, izpilduna bera ere umore txarreko zegoen. Oloa banatzeko orduan, berari egokitzen zitzaion beti parterik txarrena, eta Selifanek inoiz ez zion aska beteko alde zurretik esan gabe «Hartu, nazkagarri horrek!»; baina, gutxienez, oloa zen, ez lasto hutsa, eta berak gustura mamurtzen zuen, eta, sarritan —batez ere Selifan ukuiluan ez zegoenetan—, besteen askan sartzen zuen bere mutur luzea, haien janaria dastatze aldera; baina oraingoan lasto hutsa

eman zieten... eta hori ez zen bidezkoa; nahigabeturik zeuden denak.

Handik gutxira, ordea, bat-batean eta gutxien uste zuten moduan eten zen nahigabetu haien guztien oldozpenen haria. Denak —baita Selifan bera ere— beren sen eta kordera itzuli ziren sei zaldik tiraturiko kalesa batek haien kontra jo eta ia beren buruen gainean bertan entzun zituztenean kalesan zihoazen damen garrasiak eta gidariaren birao eta mehatxuak.

— Astakirten hori, birikak bota beharrean ari nauk eskuinetara egiteko oihuka. Mozkorturik hago, ala?

Konturatu zen bere arduragabekeriaz Selifan, baina, nola errusiarrak ez duen gogoko izaten besteren aurrean bere errua ezagutzea, bada, harro-harro zutitu, eta oihuka esan zuen:

— Eta hi nora hoa hain azkar?, bahian utzi dizkiok begiak tabernariari, ala?

Hori esandakoan, zaldiei atzera eragiten saiatu zen, beste kotxeko zaldi-tresnetatik aska zitezten, baina alferrikako lana izan zen, nahaste-borraste itzela zegoen eta. Izpilduna, jakinminak ziztaturik, usainka hasi zitzaien lagun berriei,

alde banatan baitzeuzkan. Bitartean, kalesako damak beldurrak airean zeuden horri guztiari so. Bata zahar-zaharra zen, eta bestea, aldiz, oso gaztea, hamasei urte ingurukoa, ilehoria. Burutxoan txukun eta apain bildurik zeraman bere adats urrekolorea. Haren aurpegiaren obaloa polit-polita zen, eta biribila, arrautza errun berria bezala, eta halako zurtasun garden bat erakusten zuen, giltzain andrearen esku beltzaranean argi kontra ipinita arrautza errun berriak eguzki distiratsuaren izpiei igarotzen uztean agertzen duen gardentasun zurbilaren antzekoa. Belarritxo meheak ere garden ageri ziren, errainu epelek gorrixkaturik. Ezpain izuikararen eraginez geldi-geldirik irekiak, begi malkoz lausotuak... hain zen dena xarmagarria, ezen gure protagonista begira geratu baitzitzaion puska batean, zaldien eta gidarien anabasari inongo arretarik jarri gabe.

— Egin atzera, zozoa halakoa! —zioen oihuka beste gidariak.

Selifanek uhalei eragin zien, beste gidariak gauza bera egin zuen, zaldiak pixka bat atzeratu ziren, eta berriro nahaspilatu hedeak zapaltzean.

Bitartean, hainbeste gustatu zitzaion lagun berria izpildunari, ezen ez baitzuen irten nahi patuak ustekabeen urratua zion bide hartatik, eta, muturra lagun berriaren lepoaren gainean zeukala, bazirudien zerbait murmurikatzen ari zitzaiola belarrira, burugabekeriak seguraski, besteak belarriei eragiten baitzien etengabe.

Zorionez, herrixka bat zegoen handik hurbil, eta hango mujikak berehala inguratu ziren, astrapalak erakarririk. Horrelako ikuskizunak zorion-iturri paregabea izaten dira edonongo mujikentzat —alemaniarrentzat egunkariak eta klubak diren bezainbeste—, eta erruz bildu ziren kotxeen inguruan, herrixkan emakume zaharrak eta haur txikiak bakarrik geratu zirelarik. Askatu zituzten hedeak; atzera eragin zioten zaldi izpildunari, muturrean zartako batzuk emanaz; hitz gutxitan, bereizi eta elkarrengandik aldendu zituzten zaldia. Baina, zela adiskideengandik banandu beharrak beste kotxeko zaldiei amorrut handia eragin zielako, zela setakeria hutsarengatik, kontua da ezen, gidariekin zigorraz jo arren, zaldia ez zirela lekutik mugitzen, lurrari josirik baleude bezala. Ikaragarri biziagotu zuen horrek

mujiken ikusmina. Hor hasi ziren denak batera oihuka, nork bere aholkuak emanaz:

— Andriushka, hik heldu eskuineko zaldiari, eta hi, Mitiai, igo hadi erdikoaren gainera! Igo, Mitiai!

Mitiai, bizar ilegorriko gizaseme ihar eta luzea bera, berehala igo zen erdiko zaldiaren gainera, eta, hor jarririk, haren piurak herriko ezkilategia edo, hobeto esan, putzutik ura ateratzeko erabiltzen den urkila zekarren gogora. Gidariak zigorraz eraso zien zaldiei, baina horrek ez zion lana erraztu Mitiairi.

— Egon, egon! —egin zuten oihu mujikek—. Mitiai, eser hadi eskuinekoaren gainean, eta hi, Miniai, igo erdikoaren gainera!

Miniai bizkar-zabala zen, ikatza bezain beltza zuen bizarra, eta sabela, berriz, neguko egun hotzetan azokara bilduriko lagun guztientzat sbitena prestatzeko erabiltzen diren samovar erraldoi horiek bezain handia. Miniai atsegin handiz igo zen erdikoaren gainera, eta zaldia gutxigatik ez zen lurreraino makurtu hain pisu astunaren zamapean.

— Orain bai! —egin zuten oihu mujikek—. Eman, eman! Jo ezak zigorraz beste hori ere, arre-argia, *koramora*-ren antzera tematzen duk eta!

Baina, ikusirik ez zela ezer gertatzen eta zigorraden laguntzaz ere ez zutela deus lortzen, Mitiai eta Miniai erdiko zaldiaren gainean eseri ziren biak batera, eta Andriushka, aldiz, eskuine-kora igo zen. Azkenean, gidariak, egonarria agorturik, zaldiaren gainetik jaitsarazi zituen Mitiai eta Miniai, eta ondo egin zuen, zeren zaldiari izerdi-lurrina baitzerion parrastaka, postageltotitik arnasarik hartu gabe eta hanken ahal guztian etorri balitz bezala. Atsedena ditzoa eman zien zaldiei, eta, horren ondotik, beren kabuz elkarrengandik bereizi eta bideari ekin zioten berriro. Hori guztia gertatzen zen bitartean, Txitxikovek tinko begiratzen zion neska-gazte ezezagunari. Hainbat saio egin zuen bere-ekin hitz egiteko, baina ez zuen arrakastarik izan. Eta, bitartean, alde egin zuten damek, eta —dena agerkizun hutsa izan balitz bezala— han aienatu ziren neska-gaztearen burutxo polita, hazpegi ederrekiko aurpegitxoa eta gorputz lirai-

na, eta berriro geratu ziren bakarrik bidea, britxka, irakurleak dagoeneko ondo asko ezagutzen duen troika, Selifan, Txitxikov eta inguruko zelai zabal inorgabeak. Bizitzan, dela beheko geruza gogor, latz, hits eta nazkagarriri lizunduetan, dela goiko geruza beti hotz eta gogaikarriro aratzetan, edonon dela, gizabanako orori, behin bakarrik bada ere, halako ikuskizun berezi bat agertzen zaio bidean, ordu arte ikusi duen ezeren antzik ez duena eta, behin bakarrik bada ere, halako sentipen berezi bat pizten diona, bizitza osoan izango dituen sentipen guztietatik desberdina. Nonahi dela, poz argitsu bat alaiki eta bizkor igaroko da gure bizitza bilbatzen duten atsekabe ugarien artetik, hala nola zaldi-kotxe distiratsu bat, alde guztietatik argia dariola, bat-batean eta ustekabean zalu igarotzen baita lekutako herrixka zirtzil baten aldamenetik bere urrezko tresneriarekin, zaldi ezinago ederrekin eta kristal dirdaitsuekin, eta, nola herrixka hartan garraio-gurdi lakatzak besterik ez duten ikusten ohi, bada, mujikak, txunditurik, luzaz geratzen dira zein bere tokian zutik, aho zabalik eta txanoa erantzi gabe, nahiz eta kotxe miraga-

rria ziztu bizian urrundu eta begien bistatik desagertu den aspaldi. Bada, neska ilehoria ere halaxe, bat-batean eta guztiz ustekabean agertu da gure narrazioan, eta halaxe aienatu da. Une horretan Txitxikoven tokian hogeituro urteko mutil-gazte bat egon balitz —nahiz husarra, nahiz ikaslea, nahiz, besterik gabe, bizitzaren lasterketan aurreneko urratsak ematen hasi berria—, Jainko-arren!, zer sentimen ez zen ernatuko haren baitan, zer ez zitzaion barnean dardaraka hasiko, zer ez zen mintzatuko haren barne-muinetan! Luzaz geratuko zen lekuari itsasirik, bere baitara bildurik, begiak urrunean josirik inguruari erreparatu gabe, ahazturik bidea eta zain dauzkan errieta guztiak, berandutzeak ekarriko dizkion kargu-hartzeak oro, ahazturik bere burua, bere eginbearra, mundua eta munduan den guztia.

Baina gure protagonista adinean aurrera samarturik zegoen eta jokabide zuhurreko gizon hotza zen. Hausnarrean eta pentsakor geratu zen bera ere, baina haren oldozpenak positiboagoak ziren, ez hain lausoak, eta, neurri batean behintzat, funts handikoak. «Bai neskatxa xarmagarria! —esan zuen bere artean, toxa zabaldu

eta sudurretik tabakoa hartuz—. Baina zer du onena? Itxuraz, utzi berria dik barnetegia edo institutua, eta oraindik ez ditik bereganatu emakumezkoen ezaugarriak, zera, oraindik ez dik emakumezkoen berezitasunik gogaikarrienetako bat bera ere. Haurtxo baten antzekoa duk oraindik, berarengan dena duk xaloa, bururatzen zaiona esaten dik, barrez hasten duk barre egiteko gogoia duenean. Hori dik ona. Baina moldaeraza duk eta edozer egin daitekek berarekin; agian, emakume miresgarria izatera iritsiko duk, edo beharbada zabor huts bihurtuko ditek, bai, seguraski zabor huts bihurtuko ditek! Aski izango dik amatxok eta izebatxoek beren ardurapean hartzea. Urtebetean, emakumezkoen ezaugarritz beteko ditek mukuru, hainbestearino, ezen aitak berak ez baitio antzik emango. Nondik edo handik jasoko ditik harrokeria eta handiustea, buruz ikasiriko arauen eredura mugitzeari ekingo zioke, burua hautsi beharrean hasiko duk kontu egiten norekin, nola eta zenbat hitz egin behar duen eta bakoitzari nola begiratu behar dion, uneoro beldurrak egongo duk ez ote duen behar baino gehiago esango; azkenean,

nahasi egingo duk bera bakarrik, eta, azken buruan, gezurra besterik ez dik esango bere bizitza osoan; deabruak zekik zertan amaituko duen!» Isilik geratu zen lipar batez, eta gero erantsi: «Gustatuko litzaidakek jakitea noren alaba den! Nolakoa ote du aita? Izaera errespetagarriko lurjabe aberats horietakoa da?, edo gogotik lan eginez diru mordoxka bat bildu duen gizon zentzuduna? Baldin eta, esaterako, neska horrek bi mila errubloko ezkontsaria izango balu, mauka ederra lukek berarekin ezkontzea. Nola-bait esateko, gizon zintzo baten zorion-iturria izan litekek». Bi mila errubloek hain itxura erakargarria hartu zuten Txitxikoven gogoan, ezen bere buruarekin haserretzen hasi baitzen, kotxeen inguruko tirabirak iraun zuen bitartean ez ziolako kotxezainari galdetu bidaiariak nor ziren. Luzarora gabe, ordea, Sobakevitxen herriaren agerpenak pentsamenduak ildo hartatik baztertu eta betiko hausnargaira itzularazi zizkion.

Nahikoa handia iruditu zitzaion herria. Urkidi bat eta pinudi bat zeuzkan ezker-eskuin, bi hego bailiran, ilunagoa bata eta argiagoa bestea.

Haien erdian zurezko etxe bat zegoen, ganbaraduna, teilatu gorrikoa eta horma gris ilun edo, zehatzago esanik, grisaxkak zituena; gure herrialdean militarrentzat edo kolono alemaniarrentzat eraiki ohi diren etxe horietakoa zen. Igartzen zitzaion ezen, eraikitzean, arkitektoak atergabe borrokatu behar izan zuela jabearen gustuen kontra. Arkitektoa formalista zen eta gogoko zuen simetria; jabeak, ordea, erosotasuna nahiago zuen, eta —seguraski horrek eragirik— alde bateko leiho guztiak itsutu eta leihatila txiki bat egin zuen haien ordez, inondik ere haren premia zuelako trasteleku ilunen bat argiztatzeko. Etxegilearen asmoak gorabehera, aurrealdea inola ere ez zegokion etxearen erdialdeari, zeren jabeak alboko zutarrietako bat eraisteko agindu baitzuen eta, halatan, hiru zutarri bakarrik zegoen, eta ez lau, beharko zukeen bezala. Eskortak zurezko hesi sendo eta lodiegia zeukan inguru guztian. Lurjabe hari, nonbait, biziki atsegin zitzaion irmotasuna. Ukui-luan, lastategian eta sukaldean habetzar lodiak zeuden, menderen mendetan hortxe finko irauteko ezarriak. Nekazarien enborrezko izbak ere

gutziz gotorrak ziren: ez zeukaten ez adreiluzko hormarik, ez zurean zizelaturiko irudirik, ez bestelako edergarririk batere, baina haietan dena zen trinkoa eta behar bezala egina. Putzuak berak ere haritz-enbor sendoak zeuzkan, erroetan eta itsasontzietan soilik erabiltzen diren horietakoak. Hitz batean, Txitxikovek zekusan guztia fermua eta tinkoa zen, sendoa eta zakarra. Atalondora hurbiltzean, emakumezko baten eta gizonzko baten buruak ikusi zituen, ia aldi berean leiho batera azalduak biak. Emakumeak kofia bat zeukan jantzirik, eta haren aurpegia estua eta luzanga zen, luzokerraren irudiko; gizonaren aurpegia, aldiz, biribila eta zabala zen, Rusen bi hariko balalaika arinak egiteko erabiltzen diren Moldaviako kuia horien antzekoa; horrelako balalaikak haien soinu lasaia entzute-ra biltzen diren neskatxa bular-zuri, lepo-zurbilei begi-keinuka eta txistuka aritzen zaizkien hogeit urteko mutilgazte ernai, irtirin eta modazale horien edergailu eta jostagarri izaten dira. Kanpora begiratu, eta berehala ezkutatu ziren bi aurpegiak. Lepo garai urdineko jaka gris batez jantziriko lekaio bat irten zen atalondora, eta

harrera-gelaraino lagundu zion Txitxikovi. Ordu-rako, hantxe zeukan etxeko jauna, zain. Bisitaria ikusirik, idor esan zion: «Mesedez!», eta barruko geletara eraman zuen.

Zeharka begiratu ziola, Txitxikovek tarteko tamainako hartz baten antz ikaragarri handia hartu zion oraingoan Sobakevitxi. Horrelako antza biribiltzeko, hartz-larruaren kolore berdin-berdinekoa zuen fraka, luzeak mahukak, luzeak galtzak, baldarra eta koloka ibilera, eta besteen oinak zapaltzen zituen behin eta berriro. Gorrimina zen haren aurpegia, sukolorea, kobrezko kopeken antzekoa. Gauza jakina da munduan badirela tankera horretako aurpegi ugari: naturak berehalako batean itxuratu ditu, azken ukituak emateko nekerik hartu gabe, karrakarik, ginbaletik edo bestelako lanabes finik erabili gabe; kolpe gogor batzuk emanaz taxutu ditu, zirti-zarta: aizkorakada bat eman, eta sudurra egin du; beste aizkorakada bat, eta horra ezpainak; daratulu handi batez egin ditu begiak; eta horrelaxe jaurti du mundura, batere leundu gabe, esanez: «Bizi hadi!». Bada, horrelakoxea zen Sobakevitxen aurpegia ere, mardula, zarpai-

la, landu gabea; gorantzjasorik eutsi beharrean, beherantz makurturik eduki ohi zuen burua, lepoa ez zuen guztiz jiratzen eta, baldarkeria horren eraginez, gutxitan begiratzen zion solaskideari, eta, horren orde, atean edo labetxoaren ertz batean jartzen zituen begiak beti. Jangelan zeharkatzen ari zirela, Txitxikovek betertzetik begiratu zion berriro: hartza zen!, benetako hartza! Eta, antz harrigarri hori gutxi balitz, haranon, gainera, Mikhail Semionovitx zuen izena! Besteei oinak zapaltzeko ohitura zuela jakinik, Txitxikovek tentu handiz mugitzen zituen bereak, eta aurretik pasatzen uzten zion beti. Etxeko nagusiak, inondik ere errudun sentiturik, bat-batean galdetu zion: «Enbarazurik egin dizut?». Baina Txitxikovek eskerrak eman zizkion, ordu arte inolako enbarazurik egin ez ziola esanez.

Egongelan sartu zirelarik, Sobakevitxek besaulki bat seinalatu zion Txitxikovi, eta berriro esan: «Mesedez!». Eseritakoan, hornei eta hantsekirik zeuden margolanei begiratu zien Txitxikovek. Margolan haietan gizaki indartsuak bakarrik ikus zitezkeen, Greziako armadaburuak

denak, bakoitza bere benetako neurrian pinta-tua: Mavrokordatos —jaka eta galtza gorriak soi-nean, betaurrekoak sudur gainean—, Miaulis, Kanaris. Heroi haiek guztiek izter ikaragarri mardulak eta bibote izugarri handiak zituzten, edonori ilea lazteko modukoak. Greziar indartsu haien artean —zergatik eta zertarako ez dakigula— Bagration ageri zen, zimel, ihar, marko estu-estu batean sarturik, azpian bandera eta kanoi txiki batzuk zeuzkala. Haren aldamenean Bobelina emakume heroia grekoa ikus zitekeen, zango bakoitza egungo ostatuetan elkartu ohi diren gizon irtirinen gorputz-enborra baino lodiagoa. Etxeko jaunak, gizon osasuntsu eta mardula izaki, gela edertzen ziotenak ere gizaki mardul eta osasuntsuak izatea nahi izan zuen, antza. Bobelinaren alboan, leihoaren pare-parean, kaio-la bat zegoen esekirik, eta haren barruan zozo bat, iluna, orban zuriekin, hura ere Sobakevitxen oso antzekoa. Bisitariak eta etxeko jaunak artean bi minutu isilik eman ez zutela, atea ireki eta etxekoandrea sartu zen egongelan. Oso emakume garaia zen; kofia bat zeraman buruan, etxeko tindagaiez margoturiko xingolaz apain-

dua. Patxadaz sartu zen, burua tente, palmondo-
en irudiko.

— Hona hemen nire Feodulia Ivanovna! —
esan zuen Sobakevitxek.

Txitxikov Feodulia Ivanovnaren eskutxora
hurbildu zen, eta emakumeak ahoan sartu zion
ia, eta, Txitxikovek, horri esker antzeman zion
luzokerrak kontserbatzeko erabilitako gatzunaz
garbitu zituela eskuak.

— Maitea, hona hemen Pavel Ivanovitx Txitxi-
kov! —jarraitu zuen Sobakevitxek—. Gobernado-
rearenean eta postaburuarenean izan dut gizon
prestu hau ezagutzeko ohorea.

Feodulia Ivanovnak esertzeko eskatu zion —
berak ere «Mesedez!» esanik—, eta, erreginare-
na egitean aktoresek nola, halaxe eragin zion
berak buruari. Gero, dibanean eroso eseri, meri-
no-ilezko sorbalda-oihalean bildu, eta handik
aurrera ez zuen gehiago begirik kliskatu ez
bekainik higitu.

Txitxikovek begiak jaso zituen osteria ere, eta
berriro ikusi zituen Kanaris —bere izter mardule-
kin eta bibote azkengabearekin—, Bobelina eta
kaiolako zozoa.

la bost minutuko tartean isilik egon ziren hirurak; zozoak zurezko kaiolako zura mokoaz jotzean ateratzen zuen zarata bakarrik entzuten zen, kaiolaren hondoan gari-aleak baitzeuzkan. Txitxikovek beste begiratu bat eman zion gelari, eta han zegoen guztia irmoa eta ezinago zakarra zen, eta etxeko jaunaren antz ikaragarri handia zuen; gelako bazter batean intxaurrondo-zurezko idazmahai sabel-handi bat zegoen, itxura bitxiko lau hankaren gainean bermatua, eta hark ere hartz-itxura izugarri handia zuen. Mahaia, besaulkiak, aulkiak..., ezinago astuna eta zakarra zen dena, edonor larritzeko modukoa; hitz batean, bazirudien gauza bakoitzak, aulki bakoitzak, honela zioela: «Ni ere Sobakevitx naiz!», edo: «Nik ere Sobakevitxen antz handia dut!».

— Joan den ostegunean zutaz gogoratu ginen ganberaburuaren etxean, Ivan Grigorievitxenean alegia —esan zuen azkenean Txitxikovek, ikusirik inork ez zuela hizketan hasteko asmorik—. Oso bilera atsegina izan zen.

— Bai, izan ere, egun horretan ez nintzen joan ganberaburuaren etxera —erantzun zuen Sobakevitxek.

— Hori gizon miresgarria!

— Nor baina? —esan zuen Sobakevitxek, begiak labetxoaren ertzean jarririk.

— Ganberaburua.

— Hara!, beharbada hala iruditu zaizu zuri; masoia da, ordea, eta mundu honetako ergeletan ergelena.

Txitxikov apur bat nahasirik geratu zen definizio gordin samar hori entzunik, baina, berehala, bere okerra zuzendu nahirik, gaineratu zuen:

— Jakina, gizaki bakoitzak bere argalguneak ditu; gobernadorea, aldiz, gizon ezin prestuagoa da.

— Gizon ezin prestuagoa gobernadorea?

— Bai. Ez da hala?

— Munduko bandidorik handiena da!

— Zer diozu! Gobernadorea bandidoa? —esan zuen Txitxikovek, ezin ulerturik nolatan litekeen gobernadorea bandidoa izatea—. Egia esan, sekula ez nukeen horrelakorik pentsatuko —jarraitu zuen—. Baina, dela dela, uztazu oharrazten haren manerak ez direla bandido bateak, alderantziz, guztiz samurra da gauza guztietan.

Hori esandakoan, gobernadoreak bere eskuekin josten zituen zorrotxoak jarri zituen frogatzat, eta haren begitarte gozoa gorai patu zuen.

— Begitarte ere bandido batena du, ordea! —esan zuen Sobakevitxek—. Emaiozu labana bat eta utz ezazu bide nagusian: edonor hilko du, edonor garbituko du kopek batengatik! Eta gobernadoreordea ere halakoxea da; zur bereko ezpalak dira biak!

«Argi zegok ez dela ondo konpontzen haiekin —pentsatu zuen Txitxikovek bere artean—. Poliziaburuaz hitz egingo zioat: lagun duela uste diat.»

— Kontuak kontu, niri dagokidanez behintzat —esan zuen—, aitortu beharra daukat poliziaburu gustatzen zaidala beste inor baino gehiago. Zer gizon zuzen eta tolesgabea den!; aurpegian antzematen zaio guztiz xaloa dela.

— Alproja hutsa da baina! —esan zuen Sobakevitxek oso odol hotzez—. Saldu egingo zaitu, ziria sartuko dizu, eta, gainera, zurekin bazkalduko du gero! Ondo asko ezagutzen ditut nik haiek guztiak: alproja hutsak dira; hirian denak

dira berdinak: alproja bat beste alproja baten ganean eta hirugarren alproja bat beste biekuiluka. Azpisugeak denak. Behar bezalako gizon bakarra dago: prokuradorea; eta, egia esan behar badizut, zerria galanta da hura ere.

Hain biografia laudoriozko baina labur samarrak entzunik, Txitxikov ohartu zen hobe zuela beste funtzionariorik ez aipatu, eta gogoratu zen Sobakevitxek ez zuela gogoko inori buruz iritzirik ematea.

— Ea, laztana, goazen bazkaltzera —esan zion emazteak Sobakevitxi.

— Mesedez! —esan zuen Sobakevitxek.

Zizka-mizkaz beteriko mahai batera hurbildu ziren hirurak; ohiturari jarraiki, bisitariak eta etxeko jaunak kopa bana vodka edan zuten aurrena, eta Errusia zabaleko hiri eta herri guztietan bazkaldu aurretik zerbitzatu ohi dituzten zizka-mizkak jan zituzten hurrena, hau da, jaki gazituak eta bestelako mokadu bizigarriak. Jangelara abiatu ziren gero, etxekoandrea, antzarak bezala ibiliz, haien aurretik zihoala. Lau plater zeuden mahai txiki batean. Luze gabe, emakume bat eseri zen laugarren tokian; ez zegoen

antzematerik zer ote zen: ezkondua edo ezkon-
gabea, senitartekoa, etxeko administratzailea
edo apopilo arrunta; ez zeukan kofiarik buruan,
hogeita hamar urte ingurukoa zen eta soineko
ñabar batez jantzirik zegoen. Badira gizabanako-
ak zeinak ez dauden mundu honetan objektu
gisa, ezpada objektuen izpil edo orban hutsal
gisa soilik. Leku berean esertzen dira beti, modu
berean eusten diote denek buruari, altzaria ema-
ten dute, eta pentsa daiteke haien ezpainetatik
ez dela sekula hitz-erdirik atera; baina neska-
meen gelan edo janaritegian daudenean, ikara-
garri aldatzen dira, bai horixe!

— Aza-zopa oso gozoa dago gaur, laztana! —
esan zuen Sobakevitxek, platerkada zopa zanga-
zanga edandakoan eta erretilutik niania-puska
ikaragarri handi bat hartuz. Niania delako hori
aza-zoparekin batera zerbitzatu ohi den jaki
ospetsu bat da: zerri-urdaila artobeltz-ahiz, garu-
nez eta hankaz betea. —Hirian ez duzu honelako
nianiarik jango —esan zion Txitxikovi—, dea-
bruak daki zer aterako lizuketen han!

— Gobernadorearenean, ordea, ondotxo
jaten da—esan zuen Txitxikovek.

— Ez al dakizu han zerez prestatzen duten jatekoa?, jakingo bazenu, ez zenuke ezer jango.

— Ez dakit nola prestatzen duten, ezin dut horri buruzko iritzirik eman, baina zerri-txuletak eta arrain egosia gozo-gozoak zeuden.

— Hala irudituko zitzaizun zuri. Baina nik badakit zer erosten duten azokan. Hango sukaldariak, bere lanbidea frantses batengandik ikasi duen gizatxar horrek, katua erosten du, larrutu, eta erbia balitz bezala eramaten du mahaira.

— Ene, bada!, zein gauza nazkagarriak esaten dituzun —atera zitzaion Sobakevitxen emazteari.

— Eta zer egingo diot, laztana!, horrelaxe jokatzten dute haien etxeetan, ez da nire errua, horixe egiten dute haiek guztiek. Jaterik ez dagoen guztia, gurean Akulkak baztertu eta, barkatu esatea, zakarrontzira botatzen duen guztia, zopara botatzen dute haiek!, nora eta zopara!, horraxe!

— Beti esaten dituzu horrelako gauzak mahaian! —esan zuen berriro Sobakevitxen emazteak.

— Eta zer gertatuko litzateke nik horrelakorik egingo banu, laztana? —esan zuen Sobakevixek—. Baina zuzen-zuzenean begietara begira diotsut ez dudala inongo asmorik zerrikeriak jaten hasteko. Azukrez ondo estalirik emango balidate ere, ez nuke igelik ahoan sartuko, ezta ostrarik ere: badakit zeren antza duten ostrek. Hartu aharikia —esan zion Txixikovik—, ahari-saiheskia da, artobeltz-ahiarekin! Ez da handi-mandien sukaldeetan zerez eta azokan lau egun daramatzen edozein ahariz prestatzen duten fricasé hori bezalakoa. Sendagile alemaniar eta frantsesen asmakeriak dira horiek; urkatu egingo nituzke denak horregatik! Dieta asmatu dute, gosearen bidez sendatzen dute jendea! Uste dute alemaniarren barrunbe mizkinari on egiten diona egokia dela errusiarron urdailerako ere. Bada, ez, ez da hala, horiek guztiak haiek asmatu-rik kontuak dira, hori guztia... —Horra iritsirik, ezker-eskuin eragin zion buruari, haserre—. Ilustrazioa gora eta ilustrazioa behera aritzen dira denbora guztian; ergelkeria galanta ilustrazioa! Beste hitz bat erabiliko nuke, baina ez da gisakoa mahaian horrelakoak esatea. Nirean ez da

horrelakorik gertatzen. Nire etxean, zerria bada-
go, zerri osoa ekartzen dugu mahaira, aharia
badago, osorik zerbitzatzeko dugu aharia, eta
antzara badago, oso-osorik antzara! Nahiago dut
gogoak ematen didanetik bi platerkada eder jan.

Eta frogatu egin zuen esanikoa: ahari-saihes-
ki baten erdia platerera bota, oso-osorik jan,
hezurra marraskatu, eta hezurrik txikienak ere
miazkatu zituen.

«Izan ere —pentsatu zuen Txixikovek—, tri-
pazaku ederra duk gizon hau.»

— Etxe honetan ez dugu horrelakorik egiten
—zioen Sobakevitxek, ezpainzapiak eskuak gar-
bitzeaz batera—, nirean ez dugu edozein Pliush-
kinen etxean bezala jokatzeko: zortziehun arima
ditu eta nire artzainak baino txartoago bizi eta
jaten du!

— Nor da Pliushkin hori? —galdetu zuen Txi-
xikovek.

— Alproja bat —erantzun zuen Sobakevi-
txek—. Zaila da bera baino gizon zekenagorik
irudikatzea. Espetxeko presoak bera baino hobeto
bizi dira: gosez hil du bere jende guztia.

— Egia da hori? —galdetu zuen Txitxikovek, jakinminak akuilaturik—. Jendea mordoka hiltzen zaiola diozu?

— Euliak bezala.

— Euliak bezala?, ez da izango! Eta hemendik urrun bizi da?

— Bost verstara.

— Bost verstara! —egin zuen oihu Txitxikovek, bihotzean astindu txiki bat nabariturik—. Zure etxetik irtenda, ezkerretara ala eskuinetara?

— Hobe duzu zakur horren etxeko bidea ere ez jakin, benetan! —esan zuen Sobakevitxek—. Barkagarriagoa da edozein leku lizunetara joatea horren etxera inguratzea baino.

— Ez, ez dut hara joateko asmorik, besterik gabe galdetu dizut; interesatzen zait mota guztietako lekuak ezagutzea —erantzun zion Txitxikovek.

Ahari-saiheskiaren ondotik, vatrushkak zerbitzatu zituzten, haietako bakoitza platera bera baino askoz handiagoa; gero, txahala adinako indioilar bat ekarri zuten, denetariko jaki gozoz beterik: arrautzaz, arrozaz, gibelaz eta beste

hainbat gauzaz, hegaztiaren urdailaren barruan estu-estu sarturik denak. Horrekin amaitu zen bazkaria; baina, mahaitik altxatu zirenean, Txixikovek sumatu zuen lehen baino pud bat gehiago pisatzen zuela. Egongelara joan ziren. Ordurako, konfitura zegoen han platertxo batean prest; ez zen okaranezkoa, ez madarizkoa, ez ezein baiazkoa konfitura hura, eta, bestetik, ez bisitariak ez etxeko jaunak ez zuten ukitu ere egin. Etxekoandrea gelatik irten zen, platertxo gehiago konfituraz betetzera. Emazteak alde egin zuela baliatuz, Sobakevitxengana hurbildu zen Txixikov; luze eta zabal eseririk zegoen besaulki batean, zinkurinka hain bazkari oparoaren ostean, ahotik hots ulergaitzak jaulkitzen zitzaizkiola, aitarenka, eta txitean-pitean eskuaz ahoa estaltzen. Honela mintzatu zitzaion Txixikov:

— Kontu txiki bati buruz hitz egin nahi nuke zurekin.

— Hona hemen konfitura gehiago —esan zuen etxekoandreak, platertxo batekin itzulirik—, eztiz gozaturiko errefaua da!

— Geroago jango dut! —esan zuen Sobakevitxek—. Orain, zoaz zure gelara, Pavel Ivanovitxek eta biok, frakak erantzi, eta lo-kuluxka egingo dugu!

Etxekoandrea lumatxak eta bururdiak ekar zitzatela agintzeko prest agertu zen berehala, baina etxeko jaunak esan zion: «Utzi, besaulkietan egingo dugu lo-kuluxka». Eta han joan zen emakumea.

Sobakevitxek apurtxo bat makurtu zuen burua, kontu txiki hura zertan zen entzuteko prest.

Txitxikovek oso urrunetik heldu zion solasaren hariari, Errusiako Estatuaz hitz egin zuen, handizka, eta sutsuki goraipatu zuen lurraldearen zabala, esanez behialako inperio erromatarra ez zela hain handientsua izan eta atzerritarrek arrazoiz miresten zutela Errusia... Sobakevitxek dena entzuten zuen, burua makurturik. Txitxikovek jakinarazi zion ezen, ospean parekorik ez duen Estatu horretako legeen arabera, nekazarien erroldan errejistraturiko arimak, mundu honetako lanak amaitutakoan, bizirik baleude bezala erroldaturik geratzen direla errolda berria

egin arte, Estatuaren bulegoak garrantzirik gabeko eta alferrikako agiri gehiegien zamaz ez itotzearren eta Estatuaren mekanismoa areago ez katramilatzeagatik, oso katramilatsua baita berez... Sobakevitxek dena entzuten zuen, burua makurturik; eta Txitxikovek esan zion ezen, zuzena izanik ere, lege hori, neurri batean behintzat, eragozpen larria zela lurjabe askorentzat, zeren eta zergak ordainarazten baitzizkien nekazari haiek bizirik baleude bezala, eta bera, etxe-ko nagusia estimu handitan zeukanez, prest zegoela betebegar benetan astun hori bere gain hartzeko. Tentu handiz jardun zuen aferaren mamiaz: hildako nekazariari ez zien arima hilak deitu, ezpada zenduriko arimak.

Sobakevitxek zirkinik egin gabe entzuten zuen dena, burua makurturik, eta haren aurpegian ez zen imintzio baten antzekorik ezer agertu. Bazirudien gorputz hartan ez zegoela arimarik, edo egon bazegoela, baina ez beharko lukeen tokian, baizik eta, Kostxei hilezkorrenaren antzera, mendiez bestaldean, eta hain oskol lodian bildurik, ezen beraren barruan higitzen

zen guztiak ez baitzuen azalean dardararik txiki-ena ere eragiten.

— Eta? —esan zuen Txitxikovek, urduri samar, erantzunaren zain.

— Zuk arima hilak behar dituzu, ezta? —gal-
detu zion Sobakevitxek sinpleki, harridura-izpirik
gabe, ogiaz mintzo balitz bezala.

— Bai —erantzun zuen Txitxikovek, eta
hitzak bigundu zituen berriro, esanez—: zenduri-
ko arimak, alegia.

— Izango dira baten batzuk, nola ez... —esan
zuen Sobake- vitxek.

— Eta, izanez gero, zuk, inondik ere... gustu-
ra kenduko zenituzke aldetik, ezta?

— Bai; saltzeko prest nago —esan zuen Soba-
kevitxek, burua apur bat jasorik, eta ulerturik
ezen erosleak, seguraski, etekinen bat aterako
zuela hortik.

«Deabruak naramala —pentsatu zuen Txitxi-
kovek bere artean—, saltzeko prest agertu duk
nik horrelakorik iradoki gabe ere!», eta ozenki
esan zuen gero:

— Eta zenbatean salduko zenizkidake? Tira, egia esan, nolako salgaia den kontuan izanik... bitxi samarra da prezioaz hitz egitea, baina...

— Ez dizut diru gehiegi eskatuko: ehun errublo bakoitzeko —esan zuen Sobakevitxek.

— Ehun bakoitzeko! —egin zuen espantu Txixikovek, aho zabalik eta Sobakevitxi begietara tinko so eginez, jakin gabe berak txarto ulertu zuen edo Sobakevitxen mihiak, berez baldar samarra izaki, nolabait okertu eta hitz bat jarri zuen beste baten lekuan.

— Garesti deritzozu, ala? —esan zuen Sobakevitxek, eta gero gaineratu—: Zein da, bada, zure prezioa?

— Nire prezioa! Inondik ere, edo okerren bat egin dugu edo ez dugu elkar aditu, ahaztu egin zaigu zertaz ari garen. Tira, eskua bihotzean jarririk, neure prezioa esango dizut: gehienez ere laurogei kopek arima bakoitzeko.

— Hara bestea!, laurogei kopek!

— Nire ustez, ezin da gehiago eskatu.

— Arraioa!, ez dira abarkak, gero!

— Bai, arrazoi duzu, baina jendea ere ez da.

— Zer uste duzu, gero?, badela erroldan inskribaturiko arima bakoitza hogei kopekeko prezioan salduko lizukeen ergelik?

— Barkatu, zergatik deitzen diezu erroldan inskribaturiko arimak? Aspaldi hil dira, oihartzun sumagaitz bat besterik ez dute utzi. Dena dela, gehiago ez eztabaidatzearren, errublo eta erdi emango dizut bakoitzarengatik; nahi baduzu, prezio horretan saldu, ezin dizut gehiago ordaindu.

— Lotsagarria da prezio hori aipatzea ere! Merke-zuhurrean ari zara, esadazu zeure azken prezioa!

— Ezin dut, Mikhail Semionovitx, benetan diotsut, ezin dut; eta ezin egin daitekeena ezin egin daiteke —esan zuen Txitxikovek, eta, hala ere, berrogeita hamar kopek gehiago eskaini zituen.

— Zergatik zara hain zekena? —esan zuen Sobakevitxek—. Oso diru gutxi da hori. Edozein iruzurtik ziria sartu eta zaborra salduko dizu arimen orde. Nireak, orde, intxaur batu berriak bezalakoak dira, aukera-aukerakoak denak, zein baino zein hobea: lanbideren bat ez duena ezin

indartsuagoa da. Horra hor, esaterako, Mikheiev gurdigilea!, kotxe baleztadunak bakarrik egiten zituen, sendoak eta luzerakoak, eta ez ordu bete soilik irauten duten Moskuko kotxe kaxkar horiek bezalakoak; eta berak bakarrik tapizatu eta bernizatzen zituen, inoren laguntzarik gabe.

Ahoa ireki zuen Txitxikovek, guztiarekin ere Mikheiev hura aspaldi hil zela esateko, baina Sobakevitx hitz-jario zegoen, mihiak ekarri aha-lean hitza eta pizza zeriola:

— Eta Probka Stepan zurgina? Lepoa egingo nuke ez duzula inon horrelako mujikik aurkituko. Hura gizon puska! Guardian zerbitzatu izan balu, Jainkoak daki noraino iritsiko zen. Hiru arshin eta gehiago zituen goibehean!

Txitxikovek, berriro ere, oharrarazi nahi izan zion Probka izeneko horrek ere aspaldi egin zituela mundu honetakoak; baina Sobakevitxek, inondik ere, luzerako etorria zuen: hain hitz-uholde handia zerion, ezen entzutea beste auke-rarik ez baitzegoen:

— Horra Milushkin adreilugilea! Labea eraikitzeko gauza zen horren premia zuen edozein etxetan. Eta Maxim Teliatnikov zapataginak,

mozkortuta egonik ere, eztena hartu, eta segituan egiten zuen zapata-pare eder askoa. Eta zer esan Jeremei Sorokoplekhini buruz! Berak bakarrik beste guztiek adina balio zuen. Salerosian aritzen zen Moskun, eta bostehun errubloko zergak ordaintzen zizkidan. Nolako jendea! Pliushkin batek ez lizuke horrelako arimarik salduko...

— Baina, gizona —esan zuen azkenean Tixikovek, itxuraz amaierarik ez zuen erretolika haren isuri oparoak harriturik—, zergatik aipatzen dizkidazu haien tasun guztiak?, dagoeneko ez dute deus balio, hilik daude denak. Esaera zaharrak dioenez, gorpuak hesiei eusteko besterik ezin erabili.

— Bai, hilik daude, jakina —esan zuen Sobakevitxek, bere senera etorri eta hain zuzen ere ordurako hilik zeudela gogoratu balu bezala, eta gero erantsi—: Baina zer esan bizirik daudenaz? Zer-nolako jendea da? Euliak dira, ez pertsonak.

— Baina bizirik daude; besteak, ordea, ameskeriak baizik ez dira.

— Bai zera!, ez dira ameskeriak! Jakin ezazu ez duzula inon Mikheiev bezalakorik aurkituko;

gela honetan ez litzateke sartuko, hain zen handia; ez, ez dira ameskeriak! Zaldiak baino indar handiagoa zuen sorbaldan; jakin nahi nuke hemen ez bada non aurkituko zenukeen horrelako ameskeriarik!

Bagration eta Kolokotronisen potretak esekirik zeuden hormarantz jiraturik esan zituen azken hitz horiek, hala nola gertatu ohi baita solaskideetako batek, bat-batean eta ageriko arrazoirik gabe, mintzalagunari zuzenean hitz egin ordez, ustekabean iritsi berria den hirugarren bati so egiten dionean; jakin badaki hirugarren horri ez diola ez erantzunik, ez iritzirik eta ez baieztapenik entzungo, baina, hala ere, berarengan finkatzen ditu begiak, elkarrizketan bitartekari jarduteko eskatu nahi balio bezala; eta ezezagunak, lehen uneko nahasmendua gainditurik, ez du jakiten zer egin: erantzun, auziaren nondik norakoei buruz ezertxo ere entzun ez badu ere, edo, bestela, gizalegeak agintzen duena betez, apur batean egon, eta gero joan.

— Ez, ezin dizut bi errublo baino gehiago eman —esan zuen Txitxikovek.

— Begira, inolako mesederik egin nahi ez dizudala pentsa ez dezazun, eta gehiegi eskatzen dizudala-eta nirekin haserre ez zaitezten, hirurogeita hamabost errubloan salduko dizut arima bakoitza, baina, hori bai, diru-paperetan ordaindu behar didazu; eta hori guztia adiskideak garelako bakarrik!

«Hara bestea! —pentsatu zuen Txitxikovek bere artean—. Ergeltzat hartu nauk, ala?», eta ozenki gaineratu zuen:

— Harriturik nago, benetan: badirudi komedia bat edo halako antzerkiren bat jokatzen ari garela; ezin bestela ulertu egoera hau... Zuk nahikoa gizon buruargia eta ikasia ematen duzu. Hutsaren hurrengo huskeria batez ari gara. Zertarako balio dute arima hilek?, nork behar du halakorik?

— Zuk, ordea, erosi egiten dituzu, eta horrek esan nahi du haien premia duzula.

Txitxikovek, hori entzunik, ezpainak hozkatu zituen, zer erantzun ez zekiela. Familiako eta etxeko gorabeherei buruz hitz egiten hasi zen, baina Sobakevitxek jarduna eten zion:

— Ez dut zertan jakinik zure harremanen berri; ez dut muturra sartu nahi besteren etxeko kontuetan, zeure arazoa duzu hori. Zuk arimak behar dituzu, eta nik salduko dizkizut, eta damutuko zaizu ez erostea.

— Bi errublo —esan zuen Txitxikovek.

— Arraioa!, esaera zaharreko Jakov izeneko haren papagaia ematen duzu: buruz zer ikasi, horrekin buka eta horrekin hasi. Bi errublo eskaini, eta ez duzu hortik mugitu nahi. Ea, esadazu zeure azken prezioa!

«Deabruak eramango ahal hau, zakur zikina alaena! —pentsatu zuen Txitxikovek bere kolko-rako—. Errublo erdi gehiago eskainiko diat heure intxaur horietako bakoitzarengatik!»

— Ondo da, errublo erdi gehiago emango dizut bakoitzeko.

— Bada, nik ere neure azken hitza esango dizut: berrogeita hamar errublo! Eta galduan irtengo naiz, benetan; inon ez duzu hain jende ona merkeago erosiko!

«Dirugosea halakoa!», esan zuen Txitxikovek bere artean, eta ozenki gaineratu zuen gero, haserre samar:

— Baina, gizona... badirudi garrantzi handiko kontu batez ari garela; beste leku batean merke-merke lortuko ditut. Beste edonork pozarren emango dizkit, aldetik lehenbailehen kentzearren. Bai ergela horrelako gauza bat beretzat gorde nahi duena, zertarako eta zerga gehiago ordaintzeko!

— Baina, gure artean eta adiskide gisa esango dizut, jakin beharko zenuke horrelako gauzak erostea ez dela beti zilegi; nik edo beste edonork horren berri zabalduz gero, horrelako erosketa egin duen gizonak bere sinesgarritasun guztia galduko luke, eta akabo berarentzat tratuak eta irabazpideak.

«Horra nora iritsi den doilor ustel hau!», pentsatu zuen Txixikovek, eta, odola hotz zeukalako itxurak eginez, esan zuen:

— Nahi duzun bezala. Zuk hala uste baduzu ere, ez ditut erosi nahi haien premia dudalako, horretarako gogoia dudalako baizik. Bi errublo eta erdi bakoitzeko; nahi ez baduzu, hor konpon!

«Burugogorra duk, gero! Ez dik amore ematen», pentsatu zuen Sobakevitxek.

— Hogeita hamar errublo bakoitzeko, eta zureak dira denak!

— Ez, argi dago ez dituzula saldu nahi. Agur!

— Itxaron, itxaron! —esan zuen Sobakevitxek, Txitxikoven eskua askatu gabe eta oina zapalduz, zeren gure protagonistari ahaztu egin baitzitzaion tentu-neurriak hartzea, eta, bere arduragabekeriaren zigor gisa, hor hasi behar izan zuen txistuka eta hanka baten gainean jauzika.

— Barkatu!, min eman dizut? Eseri hemen, mesedez! Barkatu!

Hori esandakoan, besaulki batean eseri zuen Txitxikov, zeregin horretan trebetasun handi samarra erakutsiz, hartz bezatua ere trebea izaten baita zenbait langintzatan, ederto aritzen da jira-biraka eta ondo asko ikasi du hainbat ekintza antzetzten jabeak honelako galderak egiten dizkiolarik: «Misha, herriko emakumeek nola astintzen dute eskuilatxoekin gorputza, lurrin-bainua hartzen dutenean? Erakutsi! Eta haur txikiek nola egiten dute ilarrak lapurtzean?».

— Egia esan, denbora alferrik galtzen ari naiz hemen; berandu nabil, gainera.

— Egon zaitez apur batean hor eserita, atsegin handiz entzungo duzun gauzatxo bat esango dizut.

Sobakevitxek, berarengandik pixka bat hurbi-lago eseri, eta ahapeka esan zion belarrira, sekretu bat balitz bezala:

— Hogeita bost?

— Hogeita bost errublo esan nahi duzu? Ez, ez, ez, ezta horren laurdena ere, kopek bat gehiago ere ez dizut eskainiko.

Isildu zen Sobakevitx. Isildu zen Txitxikov ere. Isilaldiak bi minutu inguru iraun zuen. Hor-matik, Bagration sudur-kakoak ikusmin handiz begiratzen zion eskatu-eskaini hari.

— Zein da zure azken prezioa? —esan zuen Sobakevitxek azkenean.

— Bi eta erdi.

— Giza arima hutsaren hurrena da zuretzat, argi dago. Emadazu hiru gutxienez!

— Ezin dut.

— Alajainkoa, zurekin ez dago ezer egiterik! Galduan irtengo naiz, baina tira, zer egingo diogu!, neure izaera madarikatu honek lagun hurkoari atsegin ematera bultzatzen nau beti

azkenean. Orain, noski, eroste-agiria egin behar-ko dugu eskribauarenean, tratua behar bezala burutze aldera.

— Bai horixe.

— Eta, horretarako, hirira joan behar-ko dugu.

Halaxe egin zuten tratua. Biak ados jarri, eta erabaki zuten biharamunean bertan joatea hirira, eroste-agiria egitera. Txitxikovek nekazarien zerrenda eskatu zuen. Sobakevitxek ondo iritzi zion halako eskaerari; idazmahaira hurbildu zen berehala, eta, zeregin hori inoren ardurapean utzi gabe, berak ekin zion nekazarien zerrenda osatzeari, izenaren alboan bakoitzaren berezitasun nabarmengarri guztiak idazten zituela.

Txitxikovek, beste zereginik ez-eta, Sobakevitxen atzean zegoenez, haren gorputzaren eremu zabala begiz arakatzeari ekin zion. Aztertu zuen bizkarra —Viatkaren zaldi potoloena adinakoa—, erreparatu zien hankei —kantoiak babesteko espaloietan ezarri ohi dituzten burdinurtuzko zutoinen antzekoak—, eta, halako ikuskariak kilikaturik, ezin izan zion bere barneko jarioari eutsi: «Ondo hornitu hau Jainkoak, alafede! Esan ohi denez: txarto ebakia baina ondo

josia! Hartz jaio hintzen ala bazter-herri honeta-ko bizimoduak, galsoroek eta nekazariekiko harremanek bihurtu haute hartz?, horren guztia-ren eraginez zikoiztu haiz? Baina ez: uste diat orain haizen bezalakoxea izango hintzela moda-
ren arabera hezi, mundura jaurti, eta bazter galdu batean barik Petersburgen bizi izan bahintz ere. Alde bakarra zegok: orain, txahal-saiheski erdia ahiarekin eta platera adinako vatrushkak jaten dituk; bestela, txuletak boilu-rrekin izango hituen janari. Orain, mujikak dituk eskumendean: ondo konpontzen haiz haiekin eta, jakina, ez diek gaitzik egiten, zeren, heureak dituanetz, hiretzat kaltea txarto tratatuko bahitu; bestela, funtzionarioak izango hituen heure agin-dupean, eta, halakoak hire zerbitzari ez izaki, estu erabiliko hituen; edo dirua lapurtuko huen Estatuaren altxorretik! Ez!, eskua itxita daukana ezin eskuzabala izan! Eta ukabileko hatz bat edo bi zabalduz gero, okerrago oraindik. Jakintzaren bat edo beste gaingiroki ikasten saiatuko balitz, gero, jakintza horretan benetan adituak direnak baino jakintsuagoa dela aldarrikatuko likek. Eta, beharbada, zera esango likek halakoren batean:

“Orain ikusiko duzue nor naizen!”. Eta oso xedapen zentzuzkoa asmatuko likek, hain zentzuzkoa, non makina bat lagunek gorriak ikusiko babiluzkete horren eraginez... Jai genikek jende guztia bera bezain zikoitza balitz!».

— Prest dago zerrenda —esan zuen Sobakevitxek, jiraturik.

— Prest daukazu? Ekarri, mesedez!

Txitxikovek gainbegiratu bat egin zion zerrendari, eta harriturik utzi zuten hango zehaztasunak eta txukuntasunak: nekazarien lanbidea, izen-deiturak, adina eta famili egoera zehatz-mehatz idazteaz gain, bakoitzaren portareari eta edan-urritasunari buruzko oharrak ere ipini zituen Sobakevitxek, orri-bazterrean; hitz batean, atsegin ematen zuen hura ikusteak.

— Orain, mesedez, zorraren parte bat aurreratu behar didazu, berme gisa! —esan zuen Sobakevitxek.

— Zertarako behar duzu bermerik? Dena batera jasoko duzu hirian.

— Baina horrela egin ohi da! —esan zuen Sovakevitxek.

— Bada, ez dakit zer emango dizudan!, ez daukat dirurik aldean. Tira, hona hemen hamar errublo.

— Hamar! Emadazu berrogeita hamar gutxienez!

Txitxikovek ezezkoari eutsi zion; baina Sobakevitxek hain seta handiz ekin zion dirua bazeukala esateari, non beste billete bat atera behar izan baitzuen, esanez:

— Hona beste hamabost, hogeita bost guztira. Baina ordainagiria egin behar didazu.

— Zertarako behar duzu ordainagiria?

— Hobe horrela, zer gerta ere.

— Ondo da, ekarri dirua!

— Dirua? Hementxe daukat, eskuan! Ordainagiria idatzi bezain laster emango dizut.

— Baina, gizona, nolatan egingo dizut ordainagiria? Aurrena dirua ikusi behar dut.

Eskuan zeuzkan billeteak eman zizkion Txitxikovek. Sobakevitx mahaira hurbildu zen; ezkerreko hatzekin billeteei eutsi, eta beste eskuaz paper-puska batean idatzi zuen hogeita bost errublo hartu zituela, Estatuaren diru-paperean, salduriko arimengatik jaso beharreko

kopuruaren aurrerakin gisa. Oharra idatzitakoan, berriro aztertu zituen billeteak.

— Billete hau zaharkiturik dago! —esan zuen, billeteetako bat argi kontra aztertuz—, urratu txiki batzuk dauzka; baina, tira, lagun artean ez diogu horri garrantzirik emango.

«Zikoitza, zikoitza ez bestena! —pentsatu zuen Txitxikovek bere artean—, eta alproja galanta gainera!»

— Eta emakumezkorik ez duzu nahi?

— Ez, eskerrik asko.

— Merke salduko nizkizuke. Zu izateagatik, errublo bat bakoitzeko.

— Ez, ez dut emakumezkorik behar.

— Tira, behar ez baduzu, ez dago ezer esatekorik. Gustu kontuetan legerik ez: esaera zaharrak dioenez, batek popea gustuko eta beste batek popearen emaztea gogoko.

— Tratu honen berri ez zabaltzeko eskatu nahi nizuke —esan zuen Txitxikovek, agurtzeko tenorean.

— Bai, halaxe uste dut nik ere. Hirugarren batek traba besterik ez luke egingo hemen; adiskide minek elkarrenganako uste onak bultzaturik

egindakoak gorderik geratu behar du haien arteko adiskidetasunaren babesean. Agur! Estimatzten dizut bisita; hemendik aurrera, ez ahaztu: astialditxo bat izan bezain laster, etorri hona bazkaltzera eta denbora pasatzera. Agian, elkarri mesederen bat egiteko aukera sortuko da berriro ere.

«Hago horretan! —pentsatu zuen Txitxikovek bere kolkorako, britxkara igotzeaz batera—. Bi errublo eta erdi kendu dizkidak arima bakoitze-ko, zeken ustel horrek!»

Ez zegoen pozik Sobakevitxen jokaerarekin. Izan ere, elkar ezaguten zuten, elkarrekin egonak ziren gobernadorearenean eta poliziaburuarenean, eta, hala ere, ezagutuko ez balu bezala tratatu zuen, eta dirua eskatu zion deus balio ez zuen zabor baten aldera! Britxka patiotik atera zelarik, atzera begiratu zuen Txitxikovek, eta ikusi zuen Sobakevitx ataurrean zegoela oraindik eta, itxuraz, tinko begira zeukala, nongo bidea hartuko ote zuen jakin nahirik.

— Hor dago oraindik doilor hori! —murmurikatu zuen hortz artean, eta, jauretxetik kotxea ikusterik izan ez zezaten, bidetik baztertze-ko eta

nekazarien izbetarantz joateko agindu zion Selifani. Pliushkinen herrixkara joateko asmoa zuen —zeren, Sobakevitxek esandakoaren arabera, jendea euliak bezala hiltzen baitzen han—, baina ez zuen nahi Sobakevitxek horren berri jakin zezan. Britxka herrixkaren amaierara iritsi zenean, beregana deitu zion ikusi zuen aurreneko mujikari, zeinak, inurri nekazezinen antzera, bidean aurkituriko enbor lodi-lodi bat baitzerman lepoan, bere izbarantz.

— Aizak, bizardun hori!, nola joan naiteke Pliushkinen herrixkara nagusiaren etxe albotik pasatu gabe?

Galdera horrek, nonbait, nahasi egin zuen mujika.

— Zer, ez dakik, ala?

— Ez, jauna, ez dakit.

— Zer diok, gero!, urdindurik daukak ilea dagoeneko, eta ez duk ezagutzen Pliushkin, bere jendeari janari urria ematen dion gizon zeken hori?

— Ah!, adabatua, adabatua! —egin zuen oihu mujikak.

«Adabatu» hitzari beste izen bat erantsi zion, oso egokia, baina ohiz kanpoko eguneroko hizkeran, eta, horrenbestez, aipatu gabe utziko dugu. Dena dela, kontu egin dezakegu aukera-aukerakoa zela hitz hura, zeren, Txitxikov, bidean aurrera tarte luzea ibili eta gero ere, barrez baitzihoan bere britxkan, nahiz eta mujika aspaldi desagertu zen begien bistatik. Gogoko ditu errusiarrak esapide gordinak!, eta norbaiti goitizena jarriz gero, ezizen hori eramango dute haren ondorengoek ere, halaxe deituko diote lan-sasoian eta erretiroa hartutakoan, halaxe esango diote Petersburgen zein munduaren araurrenean; eta delako horrek denetariko amarruak baliatuko ditu bere gaitzizena duintzeko, dirua emango die zenbait idazle kaxkarri izen hori antzinako printze-leinu batetik datorrela zabal dezaten, baina ustel aterako zaizkio saio horiek guztiak: ezizenak berak lau haizeetara aldarrikatuko du egia, eta argi salatuko zein zulotatik atera den azeri hori. Ezizena neurri-neurrikoa izanez gero, ahoz aho hedatzen bada ere, hitz idatzia bezain ezabaezina da: aizkorakadaka ere ezin ezpaldu. Eta ezin doiagoa izaten

da Errusiaren barren-barrenetik sorturiko guztia; hor, Errusiaren bihotzean, non ez baitago alemaniarrik, finlandiarrik edo bestelako herririk, errusiarraren adimen berez zorrotz eta bizia da nagusi, eta errusiarrak ez du legarrik ahoan, ez ditu hitzak egosten —oilalokak arrautzak txitatzten dituen bezala—, hitzetik hortzera asmatzen ditu, bizitza osorako nortasun-agiria bailiran, eta, hitz egokia aurkiturik, ez dio ezer gehiagorik erantsiko, ez du —esaterako— sudurrari edo ezpainei buruzko zertzeladez apainduko; marra bat pintatu, eta bukatua du potreta, burutik oinetarainoko potret biribila!

Ezin konta ahal eliza eta monasterio daude gure Rus santu eta jainkozale honetako luze-zabal osoan barreiatuak, beren kupula, gopoil eta gurutzeekin; bada, mundu honetako leinu, enda eta herriak ere halaxe, ezin konta ahal dira, lurraren azal osoa estaltzen dute, batetik bestera mugitzen dira, beren aniztasunean bilduma ñabarra osatuz. Eta herri bakoitzak aldean darma bere ahalmenen altxorra, bere arimaren indar sortzailea, bere nortasun berdingabea eta Jainkoak emaniko bestelako dohainak; herri

bakoitzak bere hitzak erabiltzen ditu gauzak izendatzeko, eta hitz horiek haren izaeraren alderdi bana agerrarazten dute, eta gainerako herrietatik bereizten. Britainiarren hitzek bizitzaren eta giza bihotzaren ezagutza sakona erakusten dute; frantziarren berbak bizialdi laburrekoak dira: lipar batez apain eta dotore distiratu, eta berehala itzaltzen dira; alemaniarren gogamen zorrotzak hitz korapilatsuak sortzen ditu, ulergaitzak askorentzat; baina, bete-betean asmatzen duenean, ez dago errusiarrarena bezain hitz esanguratsu eta adierazgarririk, bihotzean hain sakon erroturik, hain gar bizia darionik, bere baitan hain bizitasun handia gordetzen duenik.

Seigarren kapitulua

Garai batean, aspaldi, nire gaztaroan, haur-denbora ezinbestez bizkor joanean, pozgarri zitzaidan edozein leku ezezagunetara lehenbiziko aldiz iristea; herrixka zela, edozein barrutitako hiriburu ziztrina zela, herri zein aldiri zela, nire haur-begirada ikusnahiak gauza liluragarri ugari kausitzen zituen beti. Edozein eraikuntzak, berezitasun deigarriren bat zuen edozerk, den-denak, geldiarazi egiten ninduen, txunditurik. Estatuaren etxe harrizko bat, arkitektura-estilo jakin baten ereduakoa, leihoen erdiak itxurazkoak zeuzkana, bakar-bakarrik eraikia herriko burges txikien zurezko etxetxo solairu bakarrekoen erdian; kupula erregular bat, biribila, goitik beheraino zinkezko xaflaz estalia, elurra bezain kare zuriz zarpiaturiko eliza berri baten gainean altxatua; merkatuko plaza; probintzietako gizon dotore-usteko horietako bat hiri erdian... ezertxo ere ez zitzaion ezkututzen nire oharmen zoli artean sorgortu gabeari, eta, sudurra telegatik kanpora aterata, begiak josten nituen longain

bitxi batean —ordu arte halakorik sekula ikusi gabea bainintzen—; arreta biziz begiratzen nien barazki-denda bateko ateaz bestaldean atzematzen ziren zurezko kutxa iltzez, mahaspasaz, sufrez eta xaboiz beteei eta Moskuko gozoki lehorrez beteriko potoei; ikusminez begietartzen nituen nire albotik igarotako infanteriako ofiziala —Jainkoak daki zein probintziazatik etorria barrutiko hiriburu aspergarrira— eta beroki laburrez jantzirik drojki arin batean bizkor zihoan merkataria, eta haien bizimodu zorigaiztokoa irudikatzen nuen neure baitan. Nire aldamenetik barrutiko funtzionario bat igaro, eta bertantxe hasten nintzen pentsatzen: nora ote doa?, anaia-
ren etxera arratsalde-pasa egitera?, edo berera zuzenean?, eta zer egingo du han?, erabat ilundu bitartean ordu erdi ataurrean eseririk egon, eta gero goiz afaldu amarekin, emaztearekin, emaztearen ahizparekin eta familia osoarekin?, eta zertaz hitz egingo dute afalostean, idunekoz apainduriko neskameak edo jaka lodiko morroiak gantzezko argizaria ekartzen diete-
nean familiaren betiko argimutilean? Edozein lurjabereren herrixkara iritsirik, ikusgura begira-

tzen nion zurezko kanpandorre estu eta garaiari edo zurezko eliza zahar, zabal eta ilunari. Urrunetik, liluragarri ageri zitzaizkidan lurjabearen etxeko teilatu gorria eta tximinia zuriak inguruko zuhaitzen hostaila berdetik zehar, eta ezinegonez hurbiltzen nintzen, etxea bi aldeetatik babesten zuten lorategiak elkarrengandik noiz bananduko bizitegia oso-osorik erakusteko, eta halako batean, oh!, haren irudi zoragarria agertzen zitzaidan begien aurrean, eta, hori ikusirik, ahaleginak egiten nituen jabea nolakoa zen irudikatzeko: lodia ote?, semerik bai?, edo irri zoliko sei alaba jostalari?, begi beltzak zituzten?, ederra zen ahizpatxoetan gazteena?, eta aita, gizon alaia zen?, edo goibela, iraila azken egunetan bezala?, egutegiari begiratu eta gazteentzat guztiz aspergarri diren gauzez jarduten zuen, gariaz eta zekaleaz esaterako?

Orain, ordea, soraio iristen naiz edozein herri ezezagunetara, eta sorgor begiratzen diot haren irudi arruntari; hoztu zait begirada, galdu du behinolako arrotz-zaletasun guztia, dagoeneko ezerk ez dit barrerik eragiten, eta aspaldiko urteetan imintzio biziak, irriak eta hitz-jario opa-

roak eragiten zizkidan guztia azaletik lerratzen zait orain, aztarnarik utzi gabe, eta isiltasun antsikabe batek lotzen du nire aho hertsia. Oh, nire gaztaroa!, oh, nire gazte-denborako sasoia!

Bitartean, Txitxikov pentsakor zihoan, eta barre egiten zuen noizean behin bere kolkorako, mujikek Pliushkini ezarritako ezizena gogoan, eta, horrenbestez, ez zen konturatu izba eta kale ugariko herri handi batean sartu zirela. Luze gabe, ordea, horretaz oharrarazi zioten enborrezko zoladurak eraginiko astindu bortitzek. Izan ere, hiriko galtzadak leun-leuna ematen zuen enborrezko bide haren aldean. Enborrek gora eta behera egiten zuten pianoko teklak bailiran, eta bidazti ohartu gabeari koskorrez betetzen zitzaion garondoa, edo ubelduraz bekokia, edo oso modu mingarrian hozkatzen zuen mihi-punta bere hortzekin. Halako zahartasun berealdikoa atzeman zien Txitxikovek zurezko eraikuntza haiei guztiei: izbetako enborrak ilunak eta zaharrak ziren, teilatu askok galbaheak baino zulo gehiago zituzten, gailurreko habea eta —saihets hezurren irudiko— albo banatako gapi-rioak besterik ez zen geratzen haietako batzue-

tan. Bazirudien etxeen jabeek berek kendu zituztela teilatuetako haga eta oholtxoak, nonbait uste baitzuten —eta ez arrazoirik gabe gainera— izbek ez dutela euritik babesten, eta, ateri dagoenean eta eguraldi ona egiten duenean, ez dagoela etxean zertan geraturik, leku aski zabalaita baitago tabernan, edo bide nagusian, hitz batez, beste edonon. Izbetako leihoek ez zuten kristalik, haietako batzuk piltzarrez edo nekazarien oihal latzezko beroki lodiez estalirik zeuden; teilatu-hegalen azpiko balkoi barandadunak okerturik eta belzturik ageri ziren, oso itsusi (bidenabar esanik, ez dago jakiterik zein eginkizun betetzen duten horrelako balkoiek Errusiako hainbat izbatan). Izben atzean gari-meta eskergak ikusten ziren leku askotan, ilaran jarriak. Itxuraz, denbora luzea zeramaten han: haien koloreak adreilu zahar txarto egosiena gogorazten zuen, mota guztietako zaborrak zeuzkaten gainaldean pilaturik, eta zuhamuxkak alboetan sustraturik. Nabari zenez, nagusiaren garia zen hura. Gari-metez eta teilatu zaharrez harago, bi eliza ikusten ziren, tarteka, aire gardenean, elkarrengandik hurbil, noiz ezkerrean, noiz

eskuinean, kotxeak bidean eginiko itzulien arabera: bata zurezkoa eta bazter utzia; bestea harrizkoa, horixka, zikina, arrakalatua. Halako batean, jauretxea agertzen hasi zen begien bitartean, eta, azkenean, oso-osorik azaldu zen, izbalderoa amaitu eta aza-saila hasten zen tokian, hesi baxu eta alde batzuetan apurtu batez inguraturik. Ohiz besteko etxetzar luze, ikaragarri luze hark elbarri erkindua ematen zuen. Alderdi batean solairu bakarra zuen, eta bestean, berriz, bi; teilatu ilunean —zeinak ez baitzuen leku gutzietan bere zahartasuna sendo babesten— bi begiratoki zeuden, aurrez aurre, beheara erortzeko zorian biak, pinturaz gabetuak aspaldi. Hainbat tokitan, hormak biluzik ageri ziren igeltsuzko geruza ezkatatuaren azpian, eguraldi txarraren, euriaren, haizearen eta udazkeneko giro-aldaketen eragin galgarriaren seinale. Bi leiho bakarrik zeuden irekirik; gainerakoek itxirik zeuzkaten leihotapak edo, baten batzuek, oholak iltzaturik. Bi leiho haiek, gainera, txikiak ziren eta ez zuten argi askorik igarotzen uzten; haietako batean ilun atzematen zen triangelu bat, azukrea biltzeko erabili ohi den paper urdinaz egina.

Etxearen atzealdeko lorategi zaharra herriaren muturrean hasi eta inguruko zelaietaraino hedatzen zen, luze eta zabal. Sastrakaz eta basalandarez estalirik bazegoen ere, bera zen herri handi hartako bizi-eragile bakarra, bera zen, bere inorgabetasun xarmagarrian, gauza benetan eder bakarra. Zuhaitzak libre hazten ziren han, adaburuak zerumugan bat eginik, hodei berdeak bailiran, hosto dardarakorrekiko kupula itxuragabeak balira bezala. Urki baten enbortzar zuriak —adabururik gabe, ekaitzek edo erauntsiek erauzi baitzioten— gaina hartzen zion baso tapituari, airean zut, biribil, marmolezko zutarri erregular eta distiratsu baten antzera. Kapitela —gailurreko ebaki oker mutur-zorrotza alegia— ilun nabarmentzen zen enborrharen ziritasun elurkaran, txapela edo txori beltza zirudie-la. Otsaihenak intsusen, otsalizarren eta hurritzen behealdea itotzen zuen, oholesiaren gaintetik hedatzen zen gero, eta, azkenik, gorantz egin, eta erdiraino biltzen zuen urki puskatuaren enborra. Urkiaren erdira iritsirik, behearrantz jaitsi, eta beste zuhaitz batzuen adaburuetan kiribiltzen zen, edo zintzilik geratzen zen airean, hai-

zeak leunki kulunkaturik, bere muturtxo itsasko-
rrez kizkurrak osatuz. Eguzkiak argiturik, oihan
sasitsua zabaldu egiten zen leku batzuetan, eta
bere barrunbeak erakusten zituen, itzaltsu,
laiotz, piztia baten ahutz ilunak bailiran; dena
ilunpe, nekez hauteman zitekeen barrunbe beltz
hartan bidezidor mehar bat, baranda erori
batzuk, pergola okertu bat, zuloz josiriko sahas-
enbor zahar bat, gari-azao baten antzera sahas-
tsaren gilbeletik azaltzen zen zuhamuxka gris
bat —iharturik hostotza ikaragarri haren
erdian—, hostoak eta adarrak nonahi —nahasian
eta gurutzaturik—, eta, azkenik, astigar baten
adar gaztea; adarrak alde baterantz luzaturik
zeuzkan bere hosto berdeak, eta eguzki-izpi
batek —Jainkoak daki nondik iritsirik haraino—
azpian jotzen zuen haietako bat, eta garden
bihurtzen, gartsu eta miragarriro distiratsu ilun-
pe sakon hartan. Alde batean, lorategiaren
mugan bertan, lertxun garai batzuek, gainerako
zuhaitz guztiei gaina harturik, bele-habia ikara-
garri handiak gordetzen zituzten beren adaburu
dardaratietan. Haietako zenbaitetan, adar
batzuk ikusten ziren beherantz zintzilik, erdi

askaturik, beren hosto ihartuekin. Hitz batean, ederra zen dena, naturak edo arteak —zeinek bere aldetik— sekula asmatuko lukeen baino ederragoa. Hain emaitza bikaina lortzeko, nahitaezkoa da biak elkarlanean aritzea, ezinbestekoa da naturak azken ukitua ematea —bere zizel zorrotzarekin— gizakiaren lan astun eta sarritan alferrikakoari: naturak masa astunak arintzen ditu, zuzentasun zakarki nabarmena ezabatzen du, hutsarte ziztrinak estaltzen ditu —haisetatik zehar biluzik eta estalgarririk gabe ikusten baita gizakiaren plana—, eta berotasun berezi batez hornitzen du garbitasun eta araztasun neurritsuaren hoztasunean sorturiko guztia.

Bihurgune bat edo bi atzean utzi eta gero, gure protagonista etxe aurrean aurkitu zen azkenean. Are tristeagoa ematen zuen orain. Lizun berdeak goitik beheraino harturik zeukan ate nagusiko eta oholesiko zur zaharra. Patioan erai-kuntza asko zegoen: mirabeen bizitokiak, aletegiak, sotoak... nabarmenki zahartuak denak; haietetatik hurbil, ezkerrean eta eskuinean, beste patio batzuetara ematen zuten hainbat ate ikus zitezkeen. Denak salatzen zuen garai batean

joan-etorri handiko lekua izan zela hura; orain, aldiz, itxura ezin goibelagoa zuen. Ez zen ezer nabaritzen koadroari bizitasunik ematen zionik: ate irekirik ez, jenderik ez inon, etxe batean ohi-koak diren zeregin eta atzera-aurrera zalapartatsuen arrastorik ez! Sarrerako ate nagusia bakkarririk zegoen zabalik, eta hori mujik bat sartu berria zelako handik zerri batez estaliriko telega zamatu batean: bazirudien berariaz jarri zutela han leku hil hari bizitasun apur bat ematearren; bestela, ate hori ere ondo itxirik egongo zen, giltzarrapo ikaragarri handia baitzegoen burdinazko katetik esekirik. Luze gabe, Txitxikovek giza irudi bat ikusi zuen eraikuntza haietako baten alboan. Irudia agiraka hasi zitzaion telegan iritsi berria zen mujikari, eta puska luze batean Txitxikovek ezin izan zion igarri gizonezkoa ala emakumezkoa zen. Itxura zehatzik gabeko soinekoa zeukan jantzirik, emakumezkoen mantalen oso antzekoa, eta herrietako neskameek erabili ohi dituzten txano horietako bat zeraman buruan, baina ahots-doinua zakarregia iruditu zitzaion Txitxikovi, lodiegia emakume batentzat. «Emakumezkoa duk! —egin zuen Txitxikovek bere

artean, eta berehala zuzendu—: Ez, ez!» «Emakumezkoa duk, jakina!», esan zuen azkenean, arreta handiagoz begiraturik. Giza irudiak ere adi-adi begiratzen zion berari. Bazidurien harri-garri zitzaiola han bisitaririk ikustea, zeren, Txixikov ez ezik, Selifan ere aztertu baitzuen, baita zaldia ere, buztanetik hasi eta muturreraino. Gerrikeratik zintzilik zeramatzan giltzak ikusirik, eta mujikari hitz gordin samarrez kargu hartu ziola entzunik, Txixikovek kontu egin zuen dena delako hura etxeko giltzaina zela.

— Aizu, emakumea —esan zuen, britxkatik jaisteaz batera—, nagusi jauna...?

— Ez dago etxean —moztu zion giltzainak, galdera bukatzeko denborarik eman gabe, eta une baten buruan gaineratu zuen—: Zer nahi duzu?

— Gauza bati buruz hitz egin behar dut berekin.

— Sartu barrura! —esan zuen giltzainak, jira-turik eta bizkarra emanik. Soinekoaren atzea iri-nez zikindurik zegoen eta urratu handia zeukan beheko aldean...

Atarian sartu zen Txitxikov. Zabala eta iluna zen, eta haitzuloa ematen zuen, hain zen hotza hango giroa. Ataritik beste gela batera igaro zen, hura ere iluna, ate azpiko zirritu zabaletik sartzen zen argiak ozta-ozta argitua. Ate hura zabaldurik, argitan aurkitu zen azkenean, eta harri eta zur eginik utzi zuen begien aurrean agertu zitzaion nahaspilak. Bazirudien etxeko zorua garbitu behar zutela eta, bitartean, altzari guztiak pilatu zituztela gela hartan. Mahai baten gainean aulki apurtu bat zegoen, eta aulkiaren alboan erloju bat; erlojuak geldirik zeukan pendulua eta armiarma batek hari josia zion bere sarea. Armairu bat ere bazegoen, hormaren kontra saiheska jarririk, zilarrezko ontzi zaharrez, pegartxoaz eta Txinako portzelanez betea. Idazmahaiak nakarezko mosaikoa zeukan gainaldean; mosaikoa akasturik zegoen hainbat lekutan, eta lekedaz beteriko hutsune horixkak ageri ziren eroritako aleen tokian. Denetarik zegoen mahai gainean: letra txikiz estu-estu idatziriko orriak eta, haien gainean, arrautza-itxurako muturra zuen paper-pisu marmolezko bat, lizunak jadanik berdatua; liburu zahar bat, larruzko

azalarekin eta ertz gorriekin; limoi bat, lehor-lehorra, intxaurra baino handiagoa ez zena; besaulki baten besoa, hautsirik; isurkari zehazgabe batez beteriko kopa bat, hiru euli barruan eta eskutitz bat gainean; lakre-puskatxo bat; zapi-puska bat, batek daki nondik iritsia hara; bi idazluma, tintaz zikinduak, zimel-zimel, tisiak jotako gaixoaren antzera; zotz bat, guztiz horizkatua, inondik ere etxeko nagusiak hortz artean arakatzeko erabilia frantsesek Mosku hartu baino lehenago ere.

Hormetan hainbat margolan zeuden esekirik, estu-estu eta nahas-mahas: gudaldi baten irarlan luzea, horizkaturik eta kristalik gabe, zeinean ageri baitziren danbor ikaragarri handi batzuk, hiru adarreko kapeluz jantziriko soldaduak —garrasika— eta hainbat zaldi uretan hondoratzeke zorian; markoa kaobazkoa zen, brontzezko zerrendatxo meheak zituen apaingarri, eta biribilkitoak kantoietan, haiek ere brontzezkoak. Irarlanaren aldamenean, olio-pintura belztu batek hormaren erdia betetzen zuen; loreak, fruituak, angurri erdibitu bat, basurde baten muturra eta buruz behera zintzilaturiko ahate

bat ikus zitezkeen han. Sabaiaren erdian argi-armiarma bat zegoen, artile zarpailezko zorro batean bildurik, zeinari seda-harraren kuskua antza ematen baitzion hauts ugariak. Gainerakoa baino zakarragoa izaki mahai gainean egoitea merezi ez zuen guztia gelako zoko batean zegoen, lurrean metaturik. Zaila da zehatz-mehatz esatea zer zegoen pila hartan: hain zegoen hautsez beterik, ezen ukitze hutsarekin eskularru batean bildurik bezala geratuko baitzaitzaioken eskua edonori. Aitzur baten zurezko kirten puskatua eta bota baten zola nabarmentzen ziren beste guztiaren gainetik. Ezin pentsa zitezkeen gela hura ezein izaki bizidunen bizitoki zenik, baldin eta mahai gainean zegoen kapelu zahar higatu batek hala zela salatuko ez balu. Txitxikov gelako altzariteria bitxia aztertzen ari zela, alboko ate bat ireki zen halako batean, eta lehentxeago patioan aurkitu zuen giltzain bera sartu zen gelan. Oraingoan, ordea, emakumezko barik, gizonezko zela konturatu zen: behinik behin, emakumeek ez dute bizarra egiten, eta harako hark bai, bizarra egiten zuen, nahiz eta oso gutxitan, antza, zeren hala kokotsak nola

masailen beheko aldeak ukuiluetan zaldiak garbitzeko erabiltzen diren burdinazko hortzekiko orrazi horietako bat baitziruditen. Txitxikov, galdera-imintzioa marrazturik aurpegian, zain geratu zen, egonezinik, giltzainak zer esango. Giltzaina ere zain zegoen, Txitxikovek zer esango. Azkenean, Txitxikov, bestearen zalantza bitxiak harriturik, galdetzera erabaki zen:

— Nagusi jaunaren berririk bai? Etxean da?

— Hementxe duzu nagusi jauna —esan zion giltzainak.

— Non? —galdetu zuen Txitxikovek.

— Itsua zara, ala? —galdetu zion giltzainak—

. Neu naiz nagusi jauna!

Gure protagonistak, nahi gabe urrats bat atzera egin, eta tinko begiratu zion. Mota guztietako jendea zeukan ikusirik bere bizitzan, baita ez irakurleak eta ez nik beharbada inoiz aurkituko ez dugun bezalakorik ere, baina ordu arte tankera horretako gizonik sekula ikusi gabea zen. Haren aurpegia zeharo arrunta zen, agure zimel askorenaren antz-antzekoa; kokotsa zuen berezitasun bakarra: hain zen irtena eta luzea, non, listuaz bustiko ez bazuen, sudur-zapiaz

estali behar izaten baitzuen txitean-pitean; begi-
txo txikiak oraindik iraungi gabe zeuzkan, eta
bizkor higitzen zituen bekain ilesarrien azpian,
hala nola saguak —bere zulo ilunetik mutur
zorrotza aterata, belarriak erne, biboteari era-
ginka eta, goganbehartsu, airea bera usainduz—
azkar mugitzen baititu bereak, inguruan katurik
edo haur bihurriren bat ba ote dabilen atzema-
tearren. Janzkera, aldiz, askoz deigarriagoa zen;
gogotik ahalegindu arren, ez zegoen asmatzerik
zerezkoa zuen mantala: mahukek eta papar-
hegalek botak egiteko erabiltzen den larrua
gogorarazten zuten, hain zeuden zoldak janik
eta igurtzien eraginez distiratsu; atzealdean, bi
barik, lau hegal zeuzkan, eta barruko kotoia
zerrenda luzeetan ateratzen zen haien artetik.
Ezin sailkatuzko zerbait zeraman lepo inguruan
loturik: galtzerdia izan zitekeen, edo galtzaria,
edo gerrikoa, baina gorbataren antzik batere ez
zuen. Hitz batean, Txitxikovek, horrela jantzirik
elizako atean aurkitu izan balu, seguraski, txan-
pon xehe batzuk emango zizkion, zeren gure
protagonistaren ohoretan esan beharra dago
bihotz biguneko gizona zela, eta, txiroyen bate-

kin topo eginez gero, guztiz ezinezkoa zitzaiola txanpon xehe batzuk emateko bulkadari eustea. Baina aurrean zeukana ez zen behartsua, lurjabea baizik. Eta lurjabe hark mila arima baino gehiago zituen, eta zaila litzateke aurkitzea beste inor hark adina gari zuenik —nahiz alea, nahiz ehorik, nahiz besterik gabe azaoka bildurik— eta biltegieta, aletegieta eta idortegieta hark beste oihal, ehun, ardi-larru ondu zein ondugabe, arrain gazitu, barazki eta ehizaki zuenik. Zurgindegian denetariko egur-motak eta zurezko ontziak zeuden gorderik, ezertarako ere erabiltzen ez zirela, eta baten batek leku hura ikusiko balu, irudituko litzaioke Moskuko zürmerkatu batean zegoela; amaginarreba maratzak —sukaldariak atzean dituztela— egunero joaten dira merkatu horietara etxeko erosketak egitera, eta mota guztietako ontziak aurkitzen dituzte han pilaturik, zur leundu, torneatu, txirikordatu zein zizelatuzkoak: upelak, suilak, pitxerak, morkoak, tina euskarridunak eta euskarri-gabeak, otarretxoak, saskiak, emakume nekazariak liho-sortak eta bestelako huskeriak eramateko erabiltzen dituzten otzarak, lertxun-zur

finezko kutxak, urki-azal txirikordatuzko ontzi biribilak eta beste gauza asko, Rusen txiroek zein aberatsek baliatzen dituztenak. Zertarako behar zuen Pliushkinek hainbeste gauza? Zeukana adinako bi etxalderen jabe izan balitz ere, bere bizitza osoan ezingo zukeen hori guztia erabili, baina, asko izanik ere, ez zuen nahikotzat jotzen. Eta, gutxi iritzirik, egunero ibiltzen zen bere herrixkako kaleetan barrena, zoko-bazter guztiak miatzen eta lekurik ezkutuenak ere arakutzen, eta, zela zapata-zola zahar bat, zela emakume-soineko zarpatsu bat, zela burdinazko iltze bat edo buztinezko pitxer bat, aldean eramaten zuen aurkitzen zuen guztia, eta, etxera iritsirik, Txitxikovek gelako zoko batean ikusi zuen pilakoari gehitzen zion. «Horra arrantzalea arrantzan!», esaten zuten mujikek hara-hona ikusten zutenean, non zer eskuratuko. Eta, izan ere, bera igarotakoan, ez zegoen kalea isastu beharrik: ofizialen batek ezproia galtzen bazuen, begien itxi-ireki batean Pliushkinen etxeko pilara joaten zen ezproia; emakumeren bati, oharkabeturik, putzu alboan suila ahazten bazitzaion, Pliushkinek etxera eramaten zuen suila. Nola-

nahi ere, mujiken batek zeregin horretan bete-
betean harrapatzen bazuen, lapurturikoa itzul-
tzen zion berehala, inolako aitzakiarik jarri gabe;
baina harrapakina etxeko pilara iristen bazen,
akabo: zin egiten zuen berea zuela, halako egu-
nean eta halako tokian erosi ziola Urliari edo
Berendiari, edo oinordekotzan eman ziola aito-
nak. Etxean, berriz, lurretik jasotzen zuen ikus-
ten zuen guztia; zela lakre-puska bat, zela
papertxo bat, zela luma-mutur bat, zela zelakoa,
hartu, eta idazmahaian edo leihoan ipintzen
zuen.

Eta garai batean lurjabe begiratuia izan zen!
ezkondurik zegoen eta aita familiako ona zen,
eta auzokoak etxera joaten zitzaizkion bazkal-
tzera, entzutera eta etxaldeak zentzuzko zuhur-
tasunez gobernatzen ikastera. Agudo eta behar
bezala egiten ziren egiteko guztiak; errotak eta
bolak ez ziren geldirik egoten, oihal-fabrikak,
aroztegiak eta irundegiak etengabe aritzen ziren
lanean; nagusiak bazter guztietara luzatzen
zuen bere begirada zorrotza, eta, armiarma
nekaezinaren antzera, batera eta bestera aritzen
zen etengabe, etxaldea bere amarauna bailuen,

arazoturik baina erne beti. Hazpegieta ez zitzaion sentimendu biziagiririk atzematen, baina begiek buruargitasuna erakusten zuten; hitz egitean, berehala igartzen zitzaion eskarmentu handiko gizon asko ikusia zela, eta gonbidatuek atsegin handiz entzuten zioten beti; emazteak — xaloa eta berritsua bera— abegi oneko emakumea zelako ospea zuen; bi neskato pinpirin agertu ohi ziren bisitariei harrera egitera, ilehoriak eta lirainak biak, bi arrosaren pareko; mutiko odol-bizi bat hurbiltzen zen lasterka, eta musu ematen zien guztiei, kontuan hartu gabe gonbidatuari pozgarri edo gogaikarri zitzaion hori. Zabalik egoten ziren beti etxeko leiho guztiak. Beheko solairuan irakasle frantziarraren gela zegoen; ondo mozten zuen bizarra, eta tiratzaile bikaina zen: basoilar edo ahateren bat ekartzen zuen beti bazkaltzeko, edo, batzuetan, txolarre-arrautzak soilik, eta haiekin opila egiteko eskatzen zuen, berarentzat bakarrik, etxeko beste inork ez baitzuen halakorik jaten. Beheko solairuan, bi nesken heziketaz arduratzen zen emakumea ere bizi zen, hura ere frantziarra. Etxeko jauna jaka jantzirik agertu ohi zuen mahaira;

higatu samarra zen jaka hura, baina garbia, eta behar bezala zeuzkan ukondoak: batere adabakirik ez. Baina hil egin zen etxekoandre on hura; Pliushkinen esku geratu zen orduan etxeko giltzen parte bat eta, haiekin batera, hainbat ardur txiki ere bai. Urduriago bilakatu zen, irudikorrago eta zekenago, alargun guztiei gertatzen zaien legez. Ez zuen uste onik alaba zaharrarengan —zeinari Aleksandra Stepanovna baitzeritzon—, eta arrazoi zuen horretan: handik gutxira, Aleksandra Stepanovnak etxetik ihes egin zuen zaldieri-errejimentu bateko kapitainorde batekin, eta berehala ezkondu zen berarekin herrixka bateko elizan, ondo asko baitzekien aitak ez zituela gogoko ofizialak, zeren, aurreiritzi bitxi baten eraginez, militar guztiak kartazale amorratuak eta etxekalteak zirela uste baitzuen. Aitak bere madarikazioa helarazi zion, baina ez zuen haren bila joateko nekea hartu. Etxea are hutsago geratu zen orduan. Gero eta nabarmenagoa zen etxeko jaunaren zekentasuna; adats latzean distiratsu agertzen hasi zitzaizkion ile urdinak, zeinek, zekentasunaren lagun leialak izaki, zikoizteari laguntzen baitzioten; semeari

Estatuaren zerbitzuan jartzeko garaia iritsi zitzaiola eta, etxetik bidali zuen maisu frantziarra; egotzi egin zuen alaben irakaslea ere, ez baitzen guztiz makulagabe gertatu Aleksandra Stepanovnaren bahiketaren aferan; probintziako hiriburura bidali zuen semea, Ganberan jardunez benetako zerbitzua zertan zen ikasiko zuelokoa, baina mutilak, aitaren nahia bete beharrean, errejimentu batean sartzea erabaki zuen, eta aitari idatzi zion eginikoaren berri jakinaraziz eta uniformeak erosteko dirua eskatuz; esan gabe doa hizkera arruntean zakurraren putza deitzen zaion hori baino ez zuela jaso. Noizbait, hil egin zen azken alaba, aitaren etxean bizitzen geratu zen bakarra, eta agurea bakar-bakarrik gelditzen, bere aberastasun guztien jagole, zaindari eta jabe. Bakartasunak bazka oparoa eman zion zekentasunari, eta, gauza jakina denez, zekentasunaren gosea zazpi egunekoa, eta zenbat eta gehiago jan, orduan eta aseezinagoa. Lehenago ere oso sakonak ez zituen arren, giza sentimenduak gero eta balio hutsalagokoak ziren berarentzat, eta egunetik egunera bat edo beste desagertzen zen giza hondar erkindu hartatik.

Halako batean, gainera, militarrei buruzko iritzia berariaz egiaztatu nahi izan baliote bezala, semeak dena galdu zuen jokoan; bihotz-bihotze-ko madarikazioa helarazi zion, eta aurrerantzean ez zuen inoiz gehiago haren patruaren alderako kezkarik erakutsi, bost axola zion jakiteak oraindik bizirik zegoen edo mundu honetakoak eginak zituen. Urtetik urtera, itxiz zihoazen etxeko leihoak, eta azkenean bi bakarrik geratu ziren zabalik; irakurleak dagoeneko ikusi duenez, paper batez estalirik zeukan haietako bat. Urtetik urtera, begien irispidetik aienatzen zitzaizkion etxaldearen gero eta alderdi garrantzitsu gehiago, eta bere gelan biltzen zituen papertxo eta luma-muturretara zuzentzen zuen bere begirada zikoitza; gero eta tematsuago jokatzeko zuen etxaldeko produktuen bila hurbiltzen ziren erosleekin; merkatariak gogotik aritzen ziren errekaridaritzan eta, azkenean, erabat baztertu zuten, gizona barik deabrua zela esanik; belar iharra eta laboreak usteldu egiten ziren; gari-azaoak eta belar-metak simaur bihurtzen ziren —oso egokia, gutxienez, aza-soroak ongarritze-ko—; irinak, berriz, harriaren gogortasuna har-

tzen zuen sotoetan, eta aizkorakadaka birrindu behar izaten zuten; ikara ematen zuen etxeko oihal, zapi eta ehunetara hurbiltzeak: hauts bihurtzen ziren ukitze hutsarekin. Ahaztu egin zitzaion zer eta zenbat zeukan, eta bakarrik gogoratzen zuen non zeuden luma-muturrak eta lakre-puskatxoak, eta zein armairutan zegoen gorderik barruan halako likore baten azken hondarrak besterik ez zeukan botila bat, zeinari marka bat egin baitzion, inork ez zezan itzalgaizka hortik tantarik ere edan. Eta, bitartean, lehen-go etekin berberak ematen zizkion etxaldeak: lehen adina zerga ordaindu behar izaten zizkionten mujikek, lehen beste intxaur eman emakumeek, lehen bezainbat oihalez hornitu ehu-leek...; biltegietan gordetzen zuen hori guztia, eta han lizun eta zarpa bihurtzen zen dena, eta, azkenean, Pliushkin bera giza piltzar huts bilakatu zen. Aleksandra Stepanovna bi aldiz joan zen semetxoarekin aita ikustera, berarengandik zerbait lortuko ote zuen; inondik ere, kapitainordearekiko bizimodu hara-honakoa ez zen gertatu ezkondu aurretik iruditu zitzaion bezain liluragarria. Pliushkinek, guztiarekin ere, barkatu egin

zion, eta mahai gainean zegoen botoitxo bat eman zion iloba txikiari, jolas zedin; alabari dirurik ez, ordea. Hurrengoan, Aleksandra Stepanovna bi haurtxorekin azaldu zen; gozopil bat ekarri zion, tearekin batera jateko, baita mantal berri bat ere, zeren penagarria ez ezik, lotsagarria ere bazen aitaren mantala ikustea. Pliushkinek laz-tantxoak egin zizkien bi ilobei, eta, bata eskuineko belaunean eta bestea ezkerrekoan harturik, gora eta behera eragin zien, zaldi gainean joango balira bezala; hartu zituen gozopila eta mantala, baina ez zion ezertxo ere eman alabari; Aleksandra Stepanovnak esku hutsik alde egin zuen aitaren etxetik.

Horra, bada, nolakoa zen Txixikovek aurrean zeukan lurjabea! Hala eta guztiz, esan beharra dago horrelako fenomenoak oso bakanak direla Rusen, non den-denak nahiago izaten baitu kanpora zabaldu bere baitara bildu baino; eta Pliushkinen bilakaera are harrigarriagoa da, zeren auzolagunak festazale porrokatuak baitzituen, Ruseko lurjabe ozar horietakoak, bizimodu barreiatua daramaten aitoren seme horietakoak. Bidaiaria txunditurik geratzen da haien etxeak

aurreneko aldiz ikusten dituenean, eta ezin du ulertu zein printze ahaltsuk erabaki duen lurjabe ziztrin eta eskolagabe haien artean bizitzen jarzea: harrizko etxe zuriek jauregiak dirudite, ezin konta ahal tximinia dituzte, begiratokiak, haize-orratzak, bizitegiak eraikin nagusiaren inguru guztian, eta mota guztietako egoitzak gonbidatuentzat. Zer ez duten hor antolatzen! Antzerki-emanaldiak, dantza-saioak; lorategia argi-jario egoten da gau osoan, argiontzi eta kriseiluz apaindurik, eta musikak bazter guztietara hedatzen du bere soinua. Probintziaren erdia dotore jantzirik eta alaitsu paseatzen da zuhaitzen azpian, eta, artifiziozko argitasun hartan, inori ez zaio zentzugabea edo izugarria iruditzen hostotza sarriaren erdian, naturaren legeak bortxaturik, adar argitsu bat ikustea, berez kontrako distira dariola, bere kolore berde biziez gabeturik; han goian, gau beltza ikusten da hostoen artetik, ilunago, eta latzago, eta hogeai aldiz izugarriago, eta zuhaitzen adaburu latzak, hostoak airean dardaraka, ilunpean gero eta sakonago eta barrurago, haserre ageri dira behealdean sus-

traiak biltzen dizkien urre-antzeko argitasun horren kariaz.

Hainbat minutu ziren Pliushkin bere lekuan geldirik zegoela, tutik esan gabe. Txitxikov ere, lurjabearen itxurak eta gelan zegoen guztiak arreta barreiatu, isilik zegoen, solasari ekiteko gauza ez zela. Pentsakor egon zen puska luze batean, bere bisitaren zergatia azaltzeko hitzak aurkitu ezinik. Aurrena, bururatu zitzaion esatea ezen, nola entzun baitzuen arima hornitzen zioten bertute eta dohain berezien berri, bada, betebehartzat hartu zuela bere begirunea agertzera etortzea; baina berehala konturatu zen gehiegitxo zatekeela hori. Gelan zegoen guztiari zeharkako begiratu bat egotzirik, kontu egin zuen oso egokia litzatekeela «bertuteak» eta «dohain bereziak» hitzen ordeztu «zuhurtasuna» eta «ordena» erabiltzea; eta, halatan, esaldiari ukitu batzuk emanik, esan zion ezen, nola entzun baitzuen etxaldea ezohiko zuhurtasun eta neurritasunez gobernatzen zuela, bada, betebehartzat hartu zuela beraren ezaupidea egitea eta bere estimua erakustera etortzea.

Jakina, beste aitzakiaren bat asma zezakeen, baina une horretan ez zitzaion hoberik bururatu.

Erantzun gisa, Pliushkinek zerbait murduskatu zuen, hortzik ez-eta ezpain artean. Ez dugu zehatz-mehatz jakiterik zer esan zuen, baina, inondik ere, honelako zerbait: «Hoa deabruetara heure estimuarekin!». Baina harrera ona egiteko ohitura hain dago sakon erroturik gure herrialdean, ezen zikoitzetan zikoitzena ere ez baita ausartzen bizilege hori urratzen. Beraz, argixea-go erantsi zuen: «Eseri, mesedez!».

— Aspaldian ez dut bisitaririk izan —jakinara-zi zion—, eta, egia esan, ez diet onura handirik aurkitzen. Elkarri bisitak egiteko ohitura ezin lotsagarriagoa hartu dute denek: nagusiak hara eta hona, eta etxaldeak hor konpon... eta, gainera, jaten eman behar haien zaldiei! Aspaldi bazkaldu dut, eta nire sutegia oso txarra da, ezin kaxkarragoa, eta tximinia behera erori da: piztuz gero, etxea erreko litzateke.

«Hau bai hau! —pentsatu zuen Txitxikovek bere artean—. Eskerrak Sobakevitxenean vatrushka bat eta ahari-saiheskia jan ditudan.»

— Eta, zoritxarra zoritxarraren gainean, lasto-izpirik ez etxalde osoan! —ekin zion berriro Pliushkinek—. Eta, edukirik ere, non gordeko nuke?, lur gutxi daukat, mujikak alfer hutsak dira, lanerako gogorik ez, taberna beste pentsamendurik ez buruan...; horrela segituz gero, zahartzaroan bidez bide ibiliko naiz limosna eske!

— Bada, esan didatenez —oharrarazi zion Txitxikovek apal—, mila arima baino gehiago dituzu.

— Nork esan du hori? Tu egin beharko zenioke aurpegira hori esan dizunari. Inondik ere, zure lepotik barre egin nahi izan du adar-jotzaileren batek. Diotenez, mila arima ditut, baina hasi kontatzen eta ez duzu inondik ere hainbeste aurkituko! Sukar madarikatu horiek mujik sendo asko hil dizkidate azken hiru urteotan.

— Bai? Asko hil dizkizute? —egin zuen esantzu Txitxikovek, jakinmin handiz.

— Bai, asko.

— Jakin nezake zenbat?

— Laurogei, gutxi gorabehera.

— Benetan?

— Ez nabil gezurretan, jauna!

— Barkatu galdetzea: oker ez banago, nekazarien azken errolda aurkeztu zenuen egunetik hil direnen kopurua duzu hori, bai?

— Gaitz erdi hala balitz —esan zuen Pliushkinek—, baina, tamalez, guztira ehun eta hogeit inguru hil zaizkit harrezkeroztik.

— Ez da izango! Ehun eta hogeit? —egin zuen espantu Txitxikovek, eta apur bat zabaldu zuen ahoa, harriturik.

— Zaharregia nauzu gezurrak esateko, jauna: hirurogeita hamar urte ditut! —esan zuen Pliushkinek. Antza, mindu egin zuen solaskidearen oihu ia alaitasunezkoak. Txitxikov ohartu zen ez zela gisakoa hain axolagabetasun handiz hartzea besteren zorigaitza, eta, horrenbestez, hasperen egin, eta erruki zuela esan zion.

— Gorde ezazu errukia sakelan —esan zuen Pliushkinek—. Hemendik hurbil kapitain bat bizi da; deabruak daki nondik atera den, baina nire familiakoa dela dio. «Osabatxo, osabatxo» deitu eta muin egiten dit eskuan, eta errukitzen hasten zaidanean, belarriak estali behar izaten ditut, hain intziri ozenak egiten ditu. Gorri-gorria

dauka aurpegia: ezagun du edari biziengatik lagun mina dela. Nonbait, bere diru guztiak barreiatu zituen ofizial gisa zerbitzatu zuenean, edo emakumezko antzezlariren batek lumatu zuen, eta orain nitaz errukitzen da!

Txitxikov saiatu zen azaltzen bere errukia ez zela kapitain horrena bezalakoa, eta prest zegoela hori frogatzeko, ez hitz hutsez, egitez baizik, eta, geroko luzamendutan ibili gabe, argi eta garbi adierazi zion gerturik zegoela bere gain hartzeko hain ezbehar larriaren eraginez hildako nekazari guztiei zegozkien zergak ordaindu beharra. Proposamen horrek, antza, harri eta zur utzi zuen Pliushkin. Begiak arranpalo, luzaz egon zen Txitxikovi begira, eta azkenean galdetu zion:

— Eta zuk, jauna, ez duzu armadan zerbitzatu?

— Ez —erantzun zuen Txitxikovek, zuhur samar—, nik zibil gisa zerbitzatu dut.

— Zibil gisa? —errepikatu zuen Pliushkinek, eta elkarren kontra eragin zien ezpainei, zerbait jaten balego bezala—. Zer dela eta horrelako eskaintza? Galduan irtengo zara, gero!

— Zuri atsegin ematearren, prest nago galduan irteteko ere.

— Ai, jauna!, ai, nire ongilea! —egin zuen oihu Pliushkinek, hain pozik, non ez baitzen konturatu sudur azpian kafe-hondarren antzeko tabako-hondakinak ageri zitzaizkiola oso itsusi, eta mantalaren barrenek, zabaldurik, begien bistan uzten zutela jantzia, ez oso txukuna ikusmenerako—. Agure honen bihotza arintzera etorri zara! Ai, ene Jainkoa!, ai, zeruko santu guztiak!...

Pliushkinek ezin izan zuen gehiagorik esan. Baina, lipar baten buruan, agertu bezain agudo ezabatu zitzaion aurpegi hitsa hain bat-batean piztu zion alaitasun hori, sekula izan ez balitz bezala, eta aurpegiak lehengo aire kezkatia hartu zuen berriro. Sudur-zapia aterata, aurpegia lehortu zuen; gero, estu-estu bildu, eta goiko ezpaina igurtzitzeari ekin zion.

— Baina, barkatu galdetzea, ez zaitut-eta haserretu nahi: urtero-urtero ordainduko dituzu zergak?, eta nori emango diozu dirua, niri ala Estatuari?

— Begira, hauxe dut asmaoa: eroste-agiria egingo dugu, arimak bizirik baleude bezala eta zuk niri saldu bazenizkit bezala.

— Erose-agiria, bai... —esan zuen Pliushkinek, pentsakor, eta berriro eragin zien ezpainei—. Baina eroste-agiria egiteko ere dirua ordaindu behar. Hain dira ustelak bulegari guztiak! Lehen, aski zuten berrogeita hamar kopek eta zaku bete irina ahoa josirik edukitzeko; orain, aldiz, gurdikada garia eta hamar errubloko billete bat eskatzen dizute. Diruzaleak halakoak! Ez dakit apaizek zergatik ez dioten arretarik jartzen horri; sermoiren bat egin beharko lukete: handiak esanik ere, inork ez lioke entzungor egingo Jainkoaren hitzari.

«Hik bai, nik uste!», pentsatu zuen Txitxikovek, eta esan zion ezen, berarenganako begirunearengatik, prest zegoela bere gain hartzeko eroste-agiriaren gastuak ere.

Erose-agiriaren gastuak ere berak ordainduko zituelakoa entzunik, Pliushkinek kontu egin zuen bisitariak ergel okitua behar zuela eta, zibil gisa zerbitzatu zuelako itxurak egin arren, armadan zerbitzatu zuela eta emakumezko antzezla-

riak gorteatu zituela. Kontuak kontu, ezin izan zuen bere poza ezkutatu, eta mota guztietako zorionak opatu zizkion, berari ez ezik, beraren haurrei ere, nahiz eta ez zion galdetu seme-alabarik bazuen. Leihora hurbildu, hatz-koskoekin kristala jo, eta deiadar egin zuen: «Aizak, Proshka!».

Handik gutxira entzun zen nola baten bat arrapaladan sartu zen atarian; luzaz jardun zuen han zalapartaka eta botekin lurra joz. Azkenean, atea zabaldu, eta Proshka sartu zen. Hamahiru urte inguruko mutiko bat zen, eta hain bota handiak zituen, non, ibiltzean, ia irten egiten baitzitzazkion oinetatik. Oraintxe jakingo dugu zergatik ziren hain handiak Proshkaren botak. Kontua da Pliushkinek bota-pare bakarra zeukala etxean mendeko guztientzat. Bota haiek atarian egon behar zuten beti. Nagusi jaunaren gelara deituriko orok oinutsik zeharkatzen zuen patioa, baina, atarira iritsirik, bota haiek janzten zituen eta halaxe azaltzen zen nagusiaren aurrera. Gelatik irtendakoan, botak atarian utzi, eta nor bere oinzola biluzien gainean ibiltzen zen berriro. Udazkenean eta, batez ere, goizean intzigarra egiten hasten den sasoiari norbaitek leihotik begiratuko

balu, han ikusiko lituzke neskame-morroï guztiak saltoka, antzokian dantzaririk hanka-zaluenak nekez hobetuko lituzkeen jauziak eginez.

— Begira nolako muturra, jauna! —esan zion Pliushkinek Txitxikovi, hatzarekin Proshkaren aurpegia seinalatuz—. Asto zahar batek baino argi gehiagorik ez du honek buruan, baina utzi zerbait ondo gorde gabe eta segituan erantsiko dio atzaparra! Zer nahi duk, astakirten horrek? Zertara etorri haiz?

Hori esanik, isilune laburra egin zuen, eta, erantzun gisa, Proshkak ere isilunea egin zuen.

— Presta ezak samovarra! Entzun duk? Hartu giltza eta eman Mavrari, janaritegira joan dadila; han, apal batean, Aleksandra Stepanovnak tearekin batera jateko ekarri zuen gozopilaren zati bat zegok!... Egon apur batean, babo arraioa! Nora hoa hain azkar, haizen bezalako kaikua? Arkakusoak dauzkak oinetan, ala? Entzun ondo joan baino lehen: gozopilak, seguraski, apur bat andeaturik izango dik gainaldea; bada, esaiok Mavrari aiztoarekin karrakatzeko, eta hondarrak ez botatzeko, oilategira eraman ditzala. Eta hi argi ibili, gero!, ez sartu janaritegian; bestela,

badakik zer daukadan hirezat: makila-salda ederra! Orain gose bahaiz, goseago izango haiz gero! Ez sartu janaritegian, leihotik begira egongo nauk eta. Ez dago hauetaz fidatzerik —jarraitu zuen, Txitxikovengantz jiraturik, Proshka bere botatzarrekin urrundu zenean. Gero, errezeloz begiratu zion Txitxikovi. Susmo txarra hartzen hasia zion hain eskuzabaltasun ohiz kanpokoari, eta bere artean pentsatu zuen: «Deabruak zekik, beharbada ahobero hutsa duk, etxekalte horiek guztiak bezalakoa; gezurretan ari duk, hitz egite aldera eta tea hartzearen, eta gero alde egingo dik!». Eta horregatik, badaezpada ere eta Txitxikov probatze aldera, esan zion ondo legokeela eroste-agiria lehenbailehen egitea, gizakiak ez du-eta ezer segururik: gaur bizirik dago eta bihar Jainkoak daki.

Txitxikov prest agertu zen eroste-agiria une horretan bertan egiteko, eta nekazari guztien zerrenda eskatu zion.

Lasaitu egin zuen horrek Pliushkin. Nabari zitzaion zerbait egin nahi zuela, eta, izan ere, giltzak hartu, armairura hurbildu, eta, atetxoa zabaldurik, puska luze batean bila aritu zen eda-

lontzi eta katiluen artean, eta azkenean esan zuen:

— Berebiziko likorea neukan hemen gorderik, baina orain ez dut aurkitzen, lepoa egingo nuke edan egin didatela; lapur galantak dira denak! Hara!, hau al da?

Txitxikovek botila bat ikusi zion eskuetan, goitik behera hautsez estalia, artilezko zorro batean bildurik balego bezala.

— Emazteak egin zuen —jarraitu zuen Pliushkinek—, baina giltzain alproja horrek ez du bate-re zaindu, itxi gabe utzi zuen botila; gizatxarra ez bestena! Zomorroak eta mota guztietako zaborrak sartu ziren barruan, baina nik den-dena atera nuen, eta orain garbi-garbi dago; kopa bat beteko dizut.

Baina Txitxikovek uko egin zion halako likoreari, ordurako jan-edanak eginak zituela esanez.

— Eginak dituzu, beraz, jan-edanak! —esan zuen Pliushkinek—. Jakina, gizarte oneko gizonari edozein lekutan antzematen zaio: baraurik badago ere, ase dela esaten du; litxarreror horiek, ordea, beti janari eske... Kapitainak etorri

eta zera esaten dit: «Osabatxo, emadazu zerbait jateko!». Eta bera nire aitona den bezainbeste naiz ni beraren osaba. Etxean, seguraski, ez dauka ezer jateko, horregatik ibiltzen da zanbuluka. Beraz, alferrontzi horien guztien zerrenda behar duzu? Bada, eskatuko zenidala igarri banu bezala, papertxo batean idatzirik dauzkat guztien izenak, hurrengo errolda egiteko garaian erregistrotik ezabatzeko.

Betaurrekoak ipini, eta paper artean arakatzeko hasi zen. Txitxikovek usin egin zuen zenbait aldiz, hain hauts handiaren oparia egin baitzion etxeko nagusiak orri-sortak askatzean. Azkenean, hor ateratu zuen papertxo bat goitik behera zirriborrotan bete. Nekazarien izenak estu-estu estaltzen zuten orri osoa, eltxoak balira bezala. Denetariko izenak zeuden han: Paramonov, Pimenov, Panteleimonov; Grigori *Abiatu-bai-baina-heldu-ez* izeneko bat ere bazen haien artean. Ehun eta hogeita bost gehiago ziren guztira. Txitxikovek irribarre egin zuen hain ugaritasun handia ikusirik. Papertxoa sakelari gorde, eta Pliushkini esan zion hirira joan beharko zuela eroste-agira sinatzera.

— Hirira? Zer dela eta?... Nolatan utziko dut bakarrik etxea? Hemengo guztiak lapur edo litxarrero hutsak dira. Egun bakar batean dena kenduko lidakete, berokia esekitzeko iltzerik ere ez lukete utziko.

— Eta ez duzu ezagunik han?

— Ezagunik? Nire ezagun guztiak, edo hil egin dira, edo eten egin dituzte nirekiko harremanak. Hara!, nolatan ez dut izango, jauna!, horixe badudala! —egin zuen oihu—. Ganbera-burua bera ezagutzen dut, antzina etxera etortzen zen sarritan, nolatan ez dut ezagutuko! Ikaskideak izan ginen, elkarrekin igotzen ginen hesietara! Nolatan ez dut, bada, ezagutuko!, horixe ezagutzen dudala! Berari idatziko diot?

— Bai horixe, berari.

— Aspaldiko lagunak gara, alajaina!, eskoladenborako adiskideak.

Eta, bat-batean, izpi epel batek argitu zion aurpegi zurruna. Ez zuen bete-beteko sentipenik adierazten, ezpada sentimendu baten isla ahula. Halaxe gertatzen da itotzear dagoen gizonaren burua ustekabeen ur azalera agerturik lehorrean pilaturiko jendetzari alaitasunezko oihu bat jaul-

kitzen zaionean ere. Baina lagun alaitu berriek alferrik botako diote soka bat ur-bazterretik, eta alferrik geratu dira han zain, sorbalda edo borroka akituriko besoak une batez berriro azalduko ote diren: azken agerpena izan da. Geldirik dago dena, eta, horren ostean, are izugarriago eta mortuago bilakatzen da elementu axolagabearen gainalde baretua. Bada, Pliushkinen aurpegia ere halaxe, lipar batez adierazi zuen sentimendua iraungirik, are soraioago eta arruntago bilakatu zen.

— Orri laurden bat zegoen mahai gainean — esan zuen—, baina desagertu egin da, ez dakit non dagoen; hain da ustela nire jendea!

Mahai gainean eta azpian begiratu, bazter guztiak miatu, eta, azkenean, deiadar egin zuen:

— Mavra! Mavra!

Deiari erantzunez, emakume bat azaldu zen. Plater bat zekarren eskuan, eta platerean gozopila —irakurleak dagoeneko ezagutzen duen hori bera. Honela mintzatu ziren elkarrekin:

— Non sartu duzu papera, lapur horrek?

— Jainkoarren, jauna, kopa estaltzeko erabili zenuen gutuna izan ezik, nik ez dut inolako paperik ikusi.

— Begietan igartzen dizut ostu egin duzula.

— Eta zertarako ostu behar nuen? Ez nion inolako etekinik aterako: ez dakit idazten.

— Gezurretan ari zara: sakristauari eman diozu, hark badaki idazten, berari eman diozu.

— Papera behar izanez gero, sakristauak badauka non lortu. Hark ez du zure paper-zatia ikusi!

— Egon apur batean, Azken Judizioaren egunean deabruek kiskali egingo zaituzte burdinazko sardeekin. Ikusiko duzu nola kiskaltzen zaituzten!

— Zer dela eta kiskaliko naute? Ukitu ere ez dut egin zure papertxo hori! Beharbada, emakumezkoon beste edozein oker leporatu ahal didate, baina inork ezin dit aurpegiratu lapurra naizela.

— Bada, deabruek kiskali egingo zaituzte. Zera esango dizute: «Hartzazu hau, gaizto horrek, nagusia engainatzeagatik». Ondo erreko zaituzte, alafede!

— Eta nik zera esango diet: «Ez dut horrelakorik merezi, Jainkoaren izenean, ez dut horrelakorik merezi, nik ez dut ezer lapurtu...». Begira, hortxe daukazu, mahai gainean. Arrazoirik gabe kargu hartzen didazu beti.

Ikusi zuen Pliushkinek bere orri laurdena. Une batez isilik geratu, ezpainei eragin, eta esan zuen:

— Zergatik egiten didazu kontra horrela? Hau emakume liskarzalea! Hitz bat esan, eta berak hamar erantzun behar! Ekarri sua gutuna lakratzeko. Egon, egon; seguraski, gantzezko argizaria hartuko duzu, eta gantza, gai biguna izaki, berehala urtzen da. Alferrikako gasturik ez hemen; hobe ezpaltxo bat ekartzen baduzu.

Joan zen Mavra, eta Pliushkinek, besaulkian eseririk eta idazluma eskuan, denbora luzea eman zuen orri laurdena alde guztietara jiratzen, beste lau laurden egiterik ba ote zeukan ikustearren, baina azkenean, ezinezkoa zela konturaturik, amore eman zuen. Idazluma hartu, isurkari lizuntsuaz gain barruan euli mordoia ere bazeukan tintontzi batean sartu, eta idazten hasi zen, musika-noten antzeko letrak eginez. Eskuaren

oldarra moteltzen zuen behin eta berriro, laster bizian baitzihoakion orri osoan barrena. Ahalik eta tarterik txikiena uzten zuen lerrotik lerrora, eta gaitziturik pentsatzen zuen hala eta guztiz ere leku gehiegi geratzen zela zuri, idatzi gabe.

Norainoko hutsalkerian, zikoizkerian, doilorkerian eror daitekeen gizakia! Nola alda daitekeen! Badu horrek errealitatearen antzik? Bai, denak du errealitatearen antza, edozer gerta daiteke gizabanakoarekin. Orain gazte adoretzua denari ilea laztuko litzaioke, ikaraz, zahartzaroko bere potreta erakutsiko baliote. Gaztaro-ko urte samurretan bizitzaren bideari ekitean, har itzazue aldean giza bulkadak oro, hartu eta eramán itzazue zeuekin helduaroko urte gogor eta latzetara, ez utzi bide-bazterrean, gero ez duzue-eta jatsotzerik izango! Zain daukazuen zahartzaro larderiatsu eta ikaragarriak ez dizue ezertxo ere itzuliko! Zahartasuna baino errukiorragoa duzue hilobia bera; hilobian, behinik behin, hau idatziko dute: «Hemen gizaki bat datza»; zahartasun errukigabearen hazpegi hotz eta ankerretan, ordea, ez duzue deus irakurriko.

— Eta zure adiskideen artean ez dago inor ihes egindako arimarik behar duenik? —galdetu zuen Pliushkinek, gutuna tolestean batera.

— Ihes egindakoak ere badituzu, ala? —galdetu zion bizkor Txitxikovek, bere baitara bihurturik.

— Bai, halakoak ere baditut. Suhiak esan dit arrastorik utzi gabe desagertu direla, baina ez du aurkitzeko ahalegin handirik egin. Militarra da, eta militarrek badakizu: oso trebeak ezproiei eragiteko orduan, baina auzitegira jo beharra dagoenean...

— Zenbat dira?

— Dagoeneko hirurogeita hamar bat guztira.

— Ez da izango?

— Horixe badela, alajainkoa! Mordoxka batek ihes egiten du urtero. Ikaragarri jatunak dira, alfertasunetik datorkie neurririk gabe jateko ohitura, eta nik nerontzat ere ez daukat aski... Edozein prezioetan salduko nituzke. Esaiezu zure lagunei haietako hamar bakarrik aurkiturik dirutza polita irabaziko luketela. Bostehun errublo balio du erroldan errejistraturiko arima bakoitzak.

«Bai zera, ez zioat inori mauka honi usainik hartzen ere utziko!», esan zuen Txitxikovek bere artean, eta gero jakinarazi zion ez zuela inon aurkituko horretarako prest legokeen adiskiderik, horrelako kontu batean gastuak irabaziak baino handiagoak izango zirelako eta, auzitegiak tartean egonik, jendeak nahiago izaten duelako berokiaren barrenak gora bildu eta ospa egin, baina benetan hain estu bazebilen, berak, estimu handitan baitzeukan, prest zegoela hainbeste ordaintzeko... baina, hain huskeria handia izanik, ez zuela merezi horretaz hitz egitea ere.

— Zenbat emango zenidake? —galdetu zuen Pliushkinek, eta erantzunaren zain geratu zen, egonezinik, zilarbiziaren antzera dardaraka eskuak.

— Hogeita bost kopek arima bakoitzeko.

— Eta nola ordainduko zenuke, eskudirutan?

— Bai, oraintxe bertan emango nizuke dirua.

— Eta, miseria gorrian nagoela kontuan izanik, jauna, ez zenizkidake emango berrogei kopek bakoitzeko?

— Jaun ohoragarri hori —esan zuen Txitxikovek—, ez bakarrik berrogei kopek, bostehun

errublo ere emango nizkizuke gustura, zeren ikusi baitut gizon prestua zarela, bere ontasuna dela eta gorriak ikusten ari den agure onbera bat.

— Jainkoarren, halaxe da! Arrazoi duzu, bai! —esan zuen Pliushkinek, burua beheratu eta, nahigabeturik, batera eta bestera eraginez—. Ontasunak galdu nau.

— Ikusten?, berehala antzeman dizut nolakoa zaren. Gauzak horrela, zergatik ez eman bostehun errublo arima bakoitzeko? Baina kontua da ez naizela aberatsa. Onar iezadazu, hortaz, arima bakoitzeko bost kopek gehiago eskaintzea. Horrela, hogeita hamar kopekean salduko didazu arima bakoitza.

— Nahi duzun bezala, jauna, baina ez legoke txarto bi kopek gehiago eskaintzea.

— Ondo da, bi kopek gehiago bakoitzeko. Zenbat dituzu? Hirurogeita hamar direla esan duzu?

— Ez, hirurogeita hemezortzi dira guztira.

— Hirurogeita hemezortzi; hirurogeita hemezortzi arima bider hogeita hamar kopek... —gure protagonistak segundo bat baino gehiago ez

zuen behar izan kontuak egiteko, eta berehala esan zuen—: Hogeita lau errublo eta laurogeita hamasei kopek! —laioa zen aritmetikan.

Pliushkini ordainagiria bertantxe eginarazi, eta dirua eman zion. Hark, bi eskuetan bizkor hartu, eta idazmahaira eraman zuen, hain tentu handiz, non bai baitzirudien isurkariren bat zera-mala eskuetan eta beldur zela unean-unean isuriko ote zitzaion. Idazmahaira iritsirik, diruari berriro begiratu eta oso kontu handiz sartu zuen kaxoietako batean, non, zalantzarik gabe, ehortzirik geratuko baitzen harik eta aita Karp-ek eta aita Polikarp-ek —herriko bi apaizak— bera lurpera zezaten arte, suhia, alaba eta, beharbada, beraren ahaidea zela zioen kapitaina izugarri poztuz horrekin. Dirua gordetakoan, besaulkian eseri zen, eta bazirudien harrezkero ez zela gauza beste mintzagairik aurkitzeko.

— Bazoaz, ala? —galdetu zuen, Txitxikovek sudur-zapia sakelatik ateratzea beste asmorik gabe egin zuen mugimendu txikia sumaturik.

Galdera horrek gogorarazi zion ez zeukala hango egonaldia zertan gehiago luzaturik.

— Bai, iritsi da joateko ordua! —erantzun zion, kapelua hartzeaz batera.

— Eta tea?

— Beste egunen batean hartuko dut.

— Nahi duzunean! Eta nik ez dut, bada, samovarra prestatzeko agindu! Egia esan, ez naiz tezalea: edari garestia da, eta azukrearen prezioa izugarri goratu da. Proshka, ez diagu behar samovarra! Eraman gozopila Mavrari, entzun duk?, lehengo leku berean utz dezala; edo ez, ekartzak hona, neronek eramango diat. Agur, jauna, Jainkoak bedeinka zaitzala, eta ez ahaztu gutuna ganberaburuari ematea. Bai, irakur dezala, aspaldiko laguna dut eta. Ikaskideak izan ginen, bai horixe!

Hori esandakoan, fenomeno bitxi hark, agurtxo konkortu hark, patioraino lagundu zion Txi-txikovi; sarrerako atetzarra bertantxe ixteko agindu, eta biltegietara inguratu zen, zaintzaileak nor bere tokian ote zeuden ikustera. Nonahi zeuzkan jarririk zaintzaileak, zeinek, ohiko xafla burdinurtuzkoak jo beharrean, upeltxo hutsak astintzen baitzituzten zurezko palatxoak erabiliz; gero, sartu-irten bat egin zuen sukaldean, non,

bere jendeak ondo jaten zuen egiaztatzeko aitzakiarekin, ase eta betetzerainoko aza-zopa eta ahia irentsi baitzituen berak, eta, lapurreten-gatik eta jokabide makurrarengatik guztiei eta bakoitzari errieta egin ondoren, bere gelara itzuli zen. Bakarrik geratu zelarik, pentsatzen jardun zuen nola eskertu bisitariari hain eskuzabaltasun mugarik gabea. «Sakelako erlojua oparituko zioat —pentsatu zuen bere kabutan—, erloju ona duk, zilarrezkoa, ez alpakazkoa edo brontzezkoa, beste batzuk bezala; ez zebilek lar ondo, baina konpondu egingo dik; gizon gaztea duk oraindik, eta sakelako erlojua behar dik andregaiari gustatzeko! Edo ez —gaineratu zuen apur batean hausnartu ondoren—, hobe hil ondoren testamentuan uzten badiot, nitaz gogora dadin.»

Baina gure protagonista, erlojurik gabe ere, gogo-aldarte ezin hobeko zegoen. Opari paregabatzat zeukan hain erosketa ustekabekoa. Izan ere, arima hilak ez ezik, ihes eginak ere eskuratu baitzituen, berrehun baino gehiago guztira! Jakina, Pliushkinen herrira iritsi bezain laster sumatu zuen traturen bat egingo zuela han, baina ez zuen inola ere uste hain irabazi handiak

ekarriko zizkionik. Pozarren egin zuen bide osoa: txistu egiten zuen, eskua aho aurrean bildurik soinua ateratzen zuen, turuta jotzen balego bezala, eta azkenean kanta bat abesteari ekin zion, hain bitxia, ezen Selifan bera entzuten geratu baitzitzaion eta, entzundakoan, buruari eskuin-ezker leunki eragin, eta esan zuen: «Horra nola kantatzen duen gure nagusiak!». Ilunabarrean iritsi ziren hirira. Erabat nahasirik zeuden ordurako ilunpea eta argia, eta gauzak ere elkarrekin nahasirik zeudela ematen zuen. Hiriko sarrerako langa ñabarrak kolore zehazgabea zuen; bazirudien ate-jagole zegoen soldadua sudurgabea zela eta bekokian zeukala bibotea, begiak baino askoz ere gorago. Danbatekoek eta astinduek aditzera eman zioten Txitxikovi britxka harrizko bidean sartua zela. Piztu gabe zeuden oraindik kaleko argiak, etxe banaka batzuetako leihoak argitzen hasiak ziren hor-hemen. Etxarte eta kalezuloetan istiluak eta kalapitak atzematen ziren nonahi, iluntzeko ordu horietan halaxe gertatzen baita beti soldadu, kotxezain eta langile asko dagoen hiri guztietan, batez ere dama-itxurako izaki horietako asko badago,

bidegurutzetan zain saguzarren antzera, gal-
tzerdirik gabe, sorbalda-oihal gorria eta bortze-
giak soinean. Txitxikovek ez zien arretarik jarri,
ez haiei eta ez aldirietan osteratxoia eginik maki-
la mehea eskuan berriz etxera zihoazen funtzio-
nario argaltxo ugariei ere. Noizean behin, deia-
darrak iristen zitzaizkion belarrietara, emaku-
mezkoek eginak inondik ere: «Gezurra, mozko-
rra alaena!, inoiz ez zioat horrelako zatarkeriarik
onartu!»; edo: «Utzi bakean, lotsagabe horrek!,
hator nirekin polizi etxera, salatu egingo haut
eta!». Labur esanik, antzokitik etxerantz amesla-
ri doan hogeituro urteko edozein mutilgazte bat-
batean gorriarazten duten hitz horietakoak. Zer
ez duen amets egiten une horretan! Espainiako
kale bat, Espainiako gaua, ile kizkurreko emaku-
me gitarradun baten irudi xarmagarria. Zeruan
dago, Schillerri bisita egitera joan da, eta bat-
batean, trumoia balira bezala, zorigaitzoko
hitzek durundi egiten diote buru gainean, eta
orduantxe konturatzen da Lurrean dagoela berri-
ro, Sennaia plazan, taberna batetik hurbil, eta
eguneroko bizitza gogaikarria berriro lerratzen
zaiola aurrean.

Azkenean, britxka, jauzi handi samarra egin, eta ostatuko ate aurrean gelditu zen, lubaki-moduko batean sarturik. Petrushka ostatutik atera zen Txitxikovi harrera egitera. Esku batez jakaren beheko ertzei eusten zien, ez baitzuen gogoko barrenak elkarrengandik banantzea, eta beste eskuaz britxkatik jaisten lagundu zion Txitxikovi. Hantxe atera zen ostatuko morroia ere, lasterka, kandela bat eskuan eta ezpainzapia sorbaldan. Ezin jakin nagusiaren itzulera pozgarriri ote zitzaion Petrushkari; behinik behin, Selifanek eta berak elkarri begiratu zioten, eta apur bat bigundu zitzaion aurpegi beti latza.

— Denbora luzea eman duzu kanpoan —esan zuen ostatuko morroiak, zurubia argitzen zuen bitartean.

— Bai —esan zuen Txitxikovek, zurubiaren goialdera iritsi zirenean—. Eta hi zer?, ondo?

— Jainkoari eskerrak —erantzun zuen morroiak, buru-makurtua eginez—. Militar bat heldu zen atzo. Tenientea da, hamaseigarren gelan dago.

— Tenientea?

— Ez dakigu nor den. Riazan-etik etorri da, zaldi zuri-horixkak dauzka.

— Oso ondo, oso ondo, ea aurrerantzean ere portatzen haizen! —esan zuen Txitxikovek, eta bere gelan sartu zen. Atalondoa zeharkatzean, sudurraz usain egin, eta Petrushkari esan zion— : Gutxienez, ireki leihoak!

— Ireki ditut —esan zuen Petrushkak. Gezurra zen, eta nagusiak bazekien gezurra zela, baina ez zuen liskartzeko gogorik batere. Leher eginik zegoen, bideko nekeak abaildurik. Afari arina eskatu —txerrikumea baino ez—, arropa berehala erantzi, eta, burusi azpian sarturik, lo pisu batek hartu zuen, harriak bezala lo egin zuen, zabal eta zabar, hala nola lo egiten baitute ez odoluzkirik, ez arkakusorik eta ez buru-ahalmen handirik ez duten gizaki zoriontsuek bakarrik.

Zazpigarren kapitulua

Zorionekoa bidaia luze eta nekagarria eginik etxera itzultzen den gizon ezkondua! Atzean utzi ditu hotza, euria, lokatza, posta-geltokietako arduradun logaletuak, troikako kanpaitxoaren hotsa, konponketak, liskarrak, kotxezainak, ferratzaileak eta bideetan aurkitzen diren mota guztietako gizatxarrak, eta, azkenean, hor daku-sa bere bizitegiko teilatua, hortxe dauzka, bertatik bertara, beraren zain, etxeko argitxoak, gela ezagunak, ongi etorria egitera lasterka hurbilduriko jendearen oihu alaiak, haurren iskanbila eta joan-etorriak, tristura guztiak oroimenetik eza-batzeko ahalmena duten hitz lasaigarriak, aha-peka esanak, musu kartsuek etenak. Zorionekoa etxea zain daukan aita familiako ona! Eta zoritxarrekoa ezkongabea!

Zorionekoa izaera aspergarri, gozakaitz eta beren egiazkotasun tristearengatik txundigarriak oro bazter utzi eta gizabanakoaren bertute-rik gorenaren erakusgarri diren aiurrietara hurbiltzen den idazlea! Pertsonaia berezi bakanak

soilik hautatzen ditu zurrunbilo handi batean etengabe jira-biraka aritzen diren irudi guztien artean; behin ere ez dio saldukeriarik egin poesiarako bere etorri goi-goikoari; sekula ez da jais-ten gailurretik bere kide antzu eta ezdeusen mailara, eta, lurraren azala ukitu ere egin gabe, buru eta bihotz murgiltzen da bere irudi urrun, goitsuetan. Eta askoz ere desiragarriagoa da haren zori ederra: senitartean bezala dago bere irudien erdian, eta, bitartean, lau haizeetara hedatzen da haren ospea. Ke liluragarri batez lausotu ditu gizakien begiak, hitz ederrez balakatu ditu, bizitzaren alderdi goibela ezkutatu eta izaki ezin miresgarriagoa erakutsi die. Bizkor joaten dira denak haren atzetik txaloka, lasterrean jarraitzen diote haren garaipen-gurdiari. Munduko poetarik onena deritzote, gaina hartzen die munduan diren beste jeinu guztiei, hala nola arranoak hegan egiten baitu beste hegazti guztiek baino gorago. Haren izena entzute hutsarekin dar-dar hasten dira gazteen bihotz kartsuak, eta ororen begietan distiratzten dute esker oneko malkoek... Ez dago bera baino ahaltsuagorik, jainkoa da! Besterik gertatzen zaio une oro begi

aurrean edukirik ere begirada axolagabeek atzematen ez duten guztia argitara ateratzeko ausardia duen idazleari; bestelakoa du horrek patua, eta alderantzizkoa zoria. Horrelako idazleak agerian jartzen du gure bizitza biltzen duten huskerien lupetz izugarri, ikaragarria; azalera ekartzen du mundu honetako gure izanaldi hainbatetan mingots eta gogaikarrian nonahi aurkitzen diren izaera hotz, arrunt eta xehen hondoa; zizel gupidagabea bere indar guztiarekin erabiliz, batere estalgarri edo leungarririk gabe erakusten ditu mundu guztiaren begien aurrean. Horrelako idazleak ez du txalorik bilduko, ez esker oneko malkorik ikusiko, ez du inolako zirrararik eragingo eta, beraz, ez du arima hunkituen beroa sentituko; hamasei urteko neskarik ez da joango itsumustuan harengana, burtzoraturik eta grina sutsu batek eraginik; ez du gogo bahituta geratzerik berak sorturiko soinuen xarma gozoaren altzoan, ez baitu horrelakorik sortzen; eta, azkenik, ezingo dio ihes bere garaiko irizpideari, bere garaikideen irizpen itxurazale eta sentiberatasunik gabeari: berak maitasun handiz sorturiko obrak hutsalak eta kaskarrak direla

esango dute, zoko ziztrin batera baztertuko dute gizajendea iraindu duten idazleen multzoan, berak pintaturiko pertsonaien ezaugarri berberak egotziko dizkiote, ozen aldarrikatuko dute ez duela bihotzik, ez arimarik, ez jainkozko karririk bere antzean. Bere garaikideen irizpideak ez baitu onartzen eguzkiari begiratzeko erabiltzen den kristala bezain eder dela intsektu hautemanezinen mugimenduak ikusteko baliatzen dena; bere garaikideen irizpideak ez baitu onartzen barru sakoneko arima behar dela bizitza arbuia-garritik harturiko koadro bat argitzeko eta sor-kuntzaren goren mailara eramateko; bere garaikideen irizpideak ez baitu onartzen gogotik eginiko barre ozenak lirikaren eragilerik gailenen parean egotea merezi duela eta amildegi sakon batek bereizten duela azoketako bufoien imintzioetatik. Garaikideek ez diote horrelakorik onartzen, iraina eta erdeinua besterik ez dute idazle aintzat hartu gabearentzat; eta idazle hori bakarrik geratuko da bidearen erdian, irizkiderik gabe, aldekorik gabe, lagunik gabe, familiarik ez duen bidaiariaren antzera. Latza da haren jar-

dunbidea, eta mingotsa gertatuko zaio bere bakartasuna!

Eta nik, indar miragarri batek bultzaturik, bide luzea egin behar dut oraindik nire pertsonaia bitxiekin batera; bizitza arruntari begiratu beharko diot bere zabaltasun osoan, so egin beharko diot hala jendearentzat ikusgai diren irri haietatik nola ikusezin eta ezkutuko zaizkion malko horietatik! Eta urrun dago oraindik inpirazioaren erauntsi errukigabeak beste alde batetik joko dueneko eguna; orduan, halako izu sakratu batez jantziriko buru argi-jario batetik jalgiko da, eta, taupada urduriz, ozen entzungo da bestelako hitzen burrunba handientsua.

Baina jo dezagun aurrera!, ezaba ezazu bekokiko zimur hori, argi ezazu aurpegi ilun hori! Gehiago luzatu gabe, murgil gaitezen behingoz bizitzan, bere karraska sor eta kaskabilo guztiekin, eta ikus dezagun zertan ari den Txitxikov.

Esnatu, nagiak atera, eta ondo lo egin zuela nabaritu zuen. Ohean ahoz gora etzanda pare bat minutu zeramala, hatzak klaskatu eta, irribarre zabala aurpegian, ia laurehun arimaren jabe zela gogoratu zen. Jauzi batez jaiki zen ohetik,

bere aurpegiari erreparatu ere egin gabe. Zinez maite zuen bere aurpegia eta, atal guztien artean, bereziki erakargarri zeritzon kokotsari, eta harro-harro goraiatzun zuen sarri askotan lagunaren aurrean, batez ere bizarra egiten zuen bitartean. «Begira nolako kokotsa dudan —esan ohi zuen, eskuaz laztantzearekin batera—, biribil-biribila!» Baina goiz hartan ez zion ez kokotsari ez aurpegiari erreparatu, eta halaxe, txukundu gabe, bizkor jantzi zen: tafiletezko botak —erliebezko irudi koloretsuz hornituak, errusiarren izaera zabarrari esker Torjok hiriak ugari salerosten dituen horietakoak— eta alkandora laburra —eskoziarrek erabili ohi dituztenen antzekoa. Jantzitakoan, bere seriotasuna eta tarteko adineko jendearen moduzkotasuna ahazturik, jauzi bi egin zituen gelan, zalutasun handiz orpoekin hankak leunki joz. Gero, lanari ekin zion: kutxaren aurrean eseririk, atsegin handiz igurtzi zituen eskuak, hala nola igurtzitzen baititu zemstvoko bake-epaile erosezinak auzitegi-rantz abiatu aurretik ahamen bat jateko asmoz mahaira hurbiltzen denean. Lehenbailehen burutu nahi zuen lana eta, gehiago luzatu gabe, ber-

tantxe atera zituen paperak kutxatik. Erabakita zeukan eroste-agiriak berak prestatzea, idaztea eta kopiatzea, Estatuaren bulegoetako funtzionarioei ezer ordaindu beharrik ez izateko. Buruz zekien agiri ofizialen eredua eta, duda-mudan egon gabe, letra handitan idatzi zuen: «Mila zor-ziehun eta hainbatgarren urtea»; gero, letra txikitik horren azpian: «Halako lurjabea», eta gainerako xehetasun guztiak. Bi ordu geroago prest zeukan dena. Begira geratu zitzaien orduan orritxo haiei, noizbait haragi-hezurrezkoak izaniko mujik haiei, garai batean lan egin, lurra goldatu, mozkortu, zalgurdiak gidatu eta nagusiak atzipe-tu zituzten edo, besterik gabe, jende onak izan ziren nekazari haiei, eta sentimendu bitxi eta ezohiko batek hartu zion barrua. Bazirudien lerro bakoitzak bere nortasun berezia zuela, eta mujik bakoitzak izana berreskuratzen zuela izenaren bitartez. Korobotxkaren nekazari gehienek ezizenak edo izengoitiak zituzten. Pliushkinen ohar-rak, aldiz, oso laburrak ziren: izenaren eta patronimikoaren lehen letrak eta bi puntu besterik ez gehienetan. Harritzekoa zen, ordea, Sobakevitxen zerrendaren zehaztasun handia eta

jakingarrien ugaria: bere nekazarien berezitasun guzti-guztiak idatzi zituen, bat bera ere ahaztu gabe; honakoa idatzi zuen haietako bati buruz: «Zurgin ona da»; ohar hau irakur zitekeen beste baten izenaren alboan: «Ondo daki bere lana eta ez da mozkortzen». Zehatz-mehatz adierazirik zegoen bakoitzak nor zuen ama eta nor aita, eta nolakoa zen norberaren jokamoldea. Fedotovo izeneko baten alboan soilik idatzi zuen «aita ezezaguna», argibide hau erantsirik: «baina jatorra da eta ez du lapurtzen. Kapitolina neskamea du ama». Xehetasun horiek halako bizitasun berezi bat ematen zioten agiriari: bazirudien nekazari haiek guztiak oraindik bizirik zeudela aurreko egunean bertan. Denbora luzea egon zen izen haiei begira, eta, bihotza beraturik, hasperen egin zuen, eta esan: «Maiteok, zenbat bildu zareten hona! Ene bihotzekook, zer-nolako bizimodua eraman zenuten mundu honetan? Nola moldatu zineten aurrera ateratzeko?». Eta, nahi gabe ere, abizen bati lotu zitzaizkion begiak: Piotr Saveliev *Zolda-jario zikina* zen, Korobotxkaren nekazari bat, dakizuenez. Berriz ere, ezin izan zion eutsi «Bai izen luzea!» esateko gogo-

ri, eta oraingoan gaineratu zuen: «Lerro osoa betetzen duk! Eskulangilea hintzen?, edo mujik arrunta agian? Nolako heriotza egokitu zitzaian? Tabernan hil hintzen?, edo orga zahar batek zapaldurik, bide erdian lo hengoela?». «Probka Stepan, zurgina, edan-urri ereduzkoa. Hara!, hona hemen Probka Stepan, hona hemen bogatir hori, guardian zerbitzatzeko berebizikoa omen zen hori! Seguraski, probintzia guztiak korritu hituen, aizkora gerrikoan eta botak sorbaldatik zintzilik, kopek baten ogia eta bi kopeken arrain gazitua janari, eta, inondik ere, etxera itzultzen hintzen bakoitzean ehun errublo eramaten hituen zorroan gorderik, eta, beharbada, urteko zergaren dirua eramaten huen zaku-oihalezko galtzetan josirik edo boten barruan sarturik. Non eman huen azken arnasa? Beharbada, gehiago irabazi nahirik, eliza bateko kupulara igo hintzen, eta gero gurutzean gora egin huen, eta halako batean labaindu, behera erori, eta lurra- ren kontra jo huen, eta hiregandik hurbil zegoen Mikheiren batek soilik, eskuaz garondoan hatz eginez, esan zian: “Ai, Vania, zorigaiztokoa hi!”, eta gero, soka bati heldurik, hi egondako lekura

igo zuan bera. Maksim Teliatnikov, zapatagina. Zapatagina! «Zapatagina bezain mozkorra», dio esaera zaharrak. Bazekiat hire berri, maitea, ondo asko ezagutzen haut; nahi baduk, heure istorio osoa kontatuko diat: alemaniar batenean ikasi huen lanbidea, jaten ematen zizuen ikastun guztioi batera, lanean okerrik eginez gero uhalaz berotzen zizuen bizkarra, ez zizuen uzten kalera irteten parrandan ibiltzera, zapatagin bikaina hintzen, eta alemaniarrek sutuki gorai patzen hinduen emaztearen edo lagunaren aurrean. Eta ikastaldia amaiturik, esan huen: «Orain neure kontura jardungo diat, baina ez alemaniarrek bezala, dirua kopekez kopek bilduz, ez, ni kolpetik aberastuko nauk». Eta, halatan, heure jabea-ri zerga-gisa dirutza mardula emanik, dendatxo bat jarri, bezero ugari bildu, eta lanari ekin hion. Larru hondatua eskuratu huen non edo non, ohiko prezioa baino hiru aldiz merkeago, eta, alemaniarren aldean, bi halako irabazten huen zapata-pare bakoitzeko, baina hire zapatak apurtu egiten zituan bi asteren buruan, eta sekulakoak entzun behar izan hituen bezeroen aldetik. Hutsik geratu zuan hire dendatxoa, eta hik

edanari eman hion, kalez kale ibiltzen hintzen nora gabe, esanez: «Hau mundu petrala!, errusiarrok ezin bizi, alemaniarrok beti traban!». Ea nor dugun mujik hau: Elizaveta Vorobei. Arraioa, emakumezko bat! Utikan! Nola demontre iritsi da hona? Ziri ederra sartu zidak Sobakevitxek, doilor ziztrin horrek!» Zuzen zegoen Txitxikov: emakumezkoa zen, bai. Ezin asmatu nola sartu zen zerrendan, baina hain trebetasun handiz idatzirik zegoen haren izena, ezen urrunetik ikusirik gizona zekotzat har baitzitekeen: amaierako a letra ia atzemanezina zenez, bazirudien Elizavet zuela izena, ez Elizaveta. Dena dela, Txitxikovek ez zuen ontzat eman trikimailu hori, eta bertan-txe marratu zuen izena. «Grigori *Abiatu-bai-baina-heldu-ez!* Nolakoa ote hintzen hi? Beharbada, garraiatzailea hintzen, eta, hiru zaldi eta kibitka kaskartxo bat erosirik, behin eta betiko alde egin huen etxetik, heure habiatik, eta hor hasi hintzen merkatariak azokaz azoka eramaten. Beharbada, bidean bertan eman hion heure arima Jainkoari, edo lagunek hil hinduten soldadu baten emazte gizen eta zurigorria zela eta, edo basoko arloteren batek begiz jo zitian hire

eskularruak eta hire zaldi lodi baina sendoak, edo, beharbada, izba bateko oharkan etzanda pentsa eta pentsa egon ondoren, ez bat eta ez bi, tabernako bidea hartu huen halako batean, eta gero zuzenean joan hintzen izotzeko zulo batera eta hantxe desagertu hintzen arrastorik utzi gabe. Horrelakoxea duk Errusiako herria! Ez dik gogoko berezko heriotza! Eta zuek zer, maitteok? —jarraitu zuen, begiak Pliushkinenetik ihes eginiko arimen zerrendan jarririk—, oraindik bizi-rik bazaudete ere, ez didazue onura handirik ekarriko! Eta hil bazarete, gauza bera! Nora zaramatzate orain zuen oin zaluek? Txarto bizi zineten Pliushkinenean?, edo, besterik gabe, atsegin duzue basoan ibiltzea bidaiariak lumatzen? Espetxean zaudete?, edo beste jabe bat aurkitu duzue eta haren lurra lantzen duzue orain? Jeremei Kariakin, Nikita Volokita, haren seme Anton Volokita... ezizenak ikusirik, korrikalari bikainak hiru hauek. Popov, zerbitzaria; honek, seguraski, bazekik idazten eta irakurtzen: ziur nagok sekula ez duela labana eskuan erabili, gizabidez jokatzeko dik lapurtzeko orduan ere. Baina, halako batean, nortasun-agiririk gabe

harrapatu hau polizi kapitainak. Kementsu egin diok aurre itaunketari. “Norena haiz?”, galdetu dik polizi kapitainak, bidenabar hitz gordin bat esateko aukera galdu gabe. «Halako eta halako lurjabearena!», erantzun duk hik, adoretzu. «Zertan habil inguruotan?», galdetu dik polizi kapitainak. «Baimena eman didate kanpoan lan egiteko, urteko zerga ordaintzeko dirua irabazte aldera», erantzun diok hik hitzetik hortzera. «Eta non daukak nortasun-agiria?» «Ugazabarenean. Pimenov du izena.» «Deitu Pimenov horri! Hi haiz Pimenov?» «Bai, ni naiz Pimenov.» «Bere nortasun-agiria eman dik honek?» «Ez, gizon honek ez dit inolako nortasun-agiririk eman.» «Zergatik esan duk gezurra?», galdetu dik polizi kapitainak, galderari hitz gordin bat erantsirik. «Ez nion berari eman —erantzun duk hik bizkor—; berandu etxeratu zenez, Antip Prokhorovi eman nion, kanpai-joleari alegia, berak gordezteko.» «Datorrela kanpai-jolea! Bere nortasun-agiria eman dik honek?» «Bai zera, honek ez dit inolako agiririk eman.» «Berriro gezurretan! —esan dik polizi kapitainak, esaldia hitz gordin batekin indarturik—. Non daukak nortasun-agi-

ria?» «Aldean neraman —erantzun duk hik, kikildu gabe—, baina, inondik ere, bidean galdu zait.» «Eta zergatik lapurtu duk soldadu-longain hori? —galdetu dik polizi kapitainak, galdetzearekin batera hitz gordin bat esanez berriro ere—. Zergatik ostu diok apaizari kutxa bat kobrezko txanponnez betea?» «Nik ez dut horrelakorik egin —erantzun duk hik, heurean tinko—, sekula ez naiz lapurretan aritu.» «Orduan, zergatik zegoen longaina heure gelan?» «Ez dakit, seguraski baten batek utzi du hor.» «Alproja galanta hi! Alproja ez bestea! —esan dik polizi kapitainak, buruari ezker-eskuin eraginez eta besoak hazta eginik—. Oinak girgiluz lotu eta eraman espetxera!» «Nahi duzun bezala, jauna, pozarren joango naiz», erantzun duk hik. Orduan, toxa sakelatik atera, eta, adiskidetsuki, tabakoa eskaini diek hire oinetan girgiluak ezartzen ari diren bi elbarriei, eta bide batez galdetu ea aspaldi hartu duten erretiroa eta zein gerratan izan diren. Eta giltzapean sartu haute epaileak hire auzia erabaki bitartean. Eta noizbait erabaki ditek Tsarevokokshaisk-etik beste espetxe batera aldatzea, eta, han hagoela, Vesiegonsk-eko espetxera

aldatzea erabaki ditek, eta hor habil espetxez espetxe, eta honela diok egoitza berria aztertzeaz batera: «Hobea zuan Vesiegonsk-eko espetxea; han, gutxienez, bazegoan tortoloxetan jokatzea, handiagoa zuan eta jende gehiago zegoan!». Abakum Firov!, hik zer berri, adiskidea?, non hago, nongo bazterretan habil? Volgairaino iritsi eta bertan jarri haiz bizitzen, zirgatzaille, askatasuneko bizitzari atxikirik?...» Horra iritsirik, barne-solasa eten eta pentsakor geratu zen Txitxikov. Zer zerabilen buruan? Agian, Abakum Firoven zoria zuen gogoeta-gai; edo, beharbada, pentsatzen zegoen besterik gabe, hala nola egiten baitute errusiar guztiek —adina, gizarte-maila eta ondasunak gorabehera— estutasunik gabeko bizitzaren lasaikeria hausnartzen dutenean. Izan ere, non da orain Firov? Pozik eta zalapartatsu zebilek gariaren kaian barrena, merkatariekin tratua eginik. Txanoak lorez eta xingolaz apaindurik, jai-giroan zoak batera eta bestera zirgatzaille-taldea, iduneko eta xingolaz ederturiko maitale eta emazte lerdenei agurka. Borborrean zegok plaza, jende guztia dantzan eta kantuan; eta, bitartean, karga-mutilek,

garrasi, birao eta aupada artean, bederatziz
pudeko zamak jasotzen ditiztek bizkar gainera
kakoan laguntzaz, zarataka botatzen ditiztek ila-
rrak eta artatxikia sabel sakoneko gabarretara,
kaitik behera jaurtitzen ditiztek oloz eta gariz
beteriko zakutzarrak; urrunago, plazaren luze-
zabal osoa harturik, zaku ugari ikusten dituk
pilaturik, piramideak osatuz kanoi-balak bailiran;
gari-meta ikaragarri handiak ere bazeudek, eta
hor egongo dituk sabel sakoneko gabarretaraino
garraiatu arte, eta orduan, udaberrian izotza
urtzearekin batera, ibaian behera eramango
dituk gabarra-flota amaierarik gabeak. Lehertu
arte lan egin beharko duzue orain, zirgatzailleok!,
lanari ekin beharko diozue denok batera, lehen
paseatu eta jostatu zareten bezalaxe, eta izerdia
isuri sokatik tiraka, Rus bera bezain amaigabeko
kanta baten erritmoan.

«Ene!, hamabiak! —esan zuen Txitxikovek,
erlojuari begira—. Nolatan berandutu zait hain-
beste? Ganorazko zerbait egin izan banu, gaitz
erdi; baina hor egon nauk buru-buztanik gabeko
zozokeriak esaten eta pentsatzen. Ergela baino
ergelagoa nauk!» Hori esandakoan, janzki esko-

ziarraren ordez arropa europarra jantzi, gerriko-
az sabel lodia estutu, gorputza kolonia-urez
zipriztindu, eta, neguko txanoa eskuan eta pape-
rak besapean, Ganberarantz abiatu zen eroste-
agiriak legeztatzerara. Bizkor zebilen; ez, ordea,
berandu iritsiko ote zen beldur zelako, berandu
iristek ez baitzuen kezkatzen: ezagutzen zuen
ganberaburua, eta bazekien nahierara aurreratu
edo atzeratu ahal zuela bulegoa ixteko ordua,
hala nola Homeroren Zeus antzinakoak eguna
luzatu edo laburtzen baitzuen bere heroi kuttu-
nen arteko gatazkak eten beharra zuenean edo
azkeneraino borrokatzeko aukera eman nahi zie-
nean. Ez, berandu iristek ez zuen kezkatzen,
bizkor zebilen lehenbailehen bukatu nahi zuela-
ko bere egiteko hura, bitartean estu eta larri ibi-
liko zen eta; hala ere, gogora etorri zitzaion
arima haiek ez zirela bene-benetakoak eta
horrelako egoeretan ahalik lasterren kendu
behar dela zama sorbalda gainetik. Oldozpen
horiek buruan eta oihal gaztainkaraz forraturiko
beroki hartz-larruzkoa soinean kalera irten berria
zela, jaun batekin egin zuen topo aurreneko
kale-kantoian, hark ere oihal gaztainkaraz forra-

turiko beroki hartz-larruzkoa soinean eta neguko txano belarriduna buruan. Oihu egin zuen jaunak: Manilov zen. Elkar besarkatu zuten berehala, eta bost minutu inguru egon ziren kale erdian horrela, bata bestearen besoan artean estuturik. Hain musu irmoak eman zizkioten elkarri, ezen ia egun osoan eduki baitzituzten mindurik hortzak. Maniloven aurpegian sudurra eta ezpainak bakarrik geratu ziren agerian, begiak erabat ezkutatu baitzitzaizkion, hain zegoen pozik. Ordu laurden batez tinko estutu zuen Txitxikoven eskua bereen artean, eta ikaragarri berotu zion. Esapiderik gozoenak eta atseginenak erabiliz azaldu zion nola, ikusi bezain laster, ziztu bizian jo zuen Pavel Ivanovitx besarkatzera, eta dantzaldietan neskagazteei soilik esaten zaizkien konplimendu horietako batekin biribildu zuen lore-jarioa. Txitxikov aho zabalik zegoen, esker-rak nola eman ez zekiela, eta, bat-batean, Manilovek paper bat atera zuen berokiaren barrualdetik, tututxo baten inguruan bildurik eta arrosa koloreko xingola batez loturik, eta, trebetasun handiz bi hatzekin heldurik zeukala, Txitxikovi eman zion.

— Zer da hau?

— Nekazariak.

— Hara!

Papera hedatu, gainetik irakurri, eta txunditurik utzi zuen idazkeraren garbiak eta ederrak

— Txukun-txukun idatzirik dago —esan zuen—, ez dago kopiatu beharrik. Orla eta guzti dauka!, nork egin du orla polit hau?

— Ez galdetu —esan zuen Manilovek.

— Zuk?

— Ez, emazteak.

— Jainkoarren! Benetan, lotsaturik nago niregatik hain neke handiak hartu dituzuelako.

— Pavel Ivanovitxek ez du inor nekarazten.

Txitxikovek esker oneko buru-makurtua egin zion. Manilovek, jakin zuenean Ganberara zihola eroste-agiriak legeztatzeraz, laguntzeko prest zegoela jakinarazi zion. Biak batera abiatu ziren, besotik heldurik. Bidean goragune txikiren bat, oztopotxoren bat edo mailaren bat aurkitzen zuten bakoitzean, Manilovek Txitxikovi eusten zion, eta, besapetik airean ia altxaturik zeukala, irribarre gozoa eginez adierazten zion ez zuela onartuko Pavel Ivanovitxen oinek minik txikiena

ere hartzea. Txitxikov, astun samarra zela baitzekien, lotsa-lotsa eginik zihoan, hain begiramen handia eskertzeko modua asmatu ezinik. Behin eta berriro elkarri lagunduz, Estatuaren bulegoak zeuden plazara iritsi ziren azkenean. Hiru solairuko etxe handia zen, harrizkoa, klera bezain zuria, zurtasun horren bidez han barruan lan egiten zutenen arima makulagabea irudikatu nahi izan balute bezala; plazako beste eraikuntzak ez zetozen bat harrizko etxetzarraren handitasunarekin. Hauek ziren: zaintzaileen etxola —non soldadu bat baitzegoen, fusila aldean—, bizpahiru kotxe-geltoki eta, azkenik, hesi luze bat, ikatzez eta klarionez eginiko idazkun eta marrazkiak zituena, hesi guztiek bezala. Besterik ez zegoen bazter-leku hartan, edo, Errusian esan ohi dugunez, plaza polit hartan. Noizean behin, Temis-en apaizen buru ustelezinak agertzen ziren bigarren eta hirugarren solairuko leihoe-tan, eta behingoan desagertzen ziren atzera, inondik ere bulegoburua sartu berria zelako gelan. Astiro barik, lasterka igo ziren bi adiski-deak sarrerako zurubian gora: Txitxikovek, Maniloven beso oratzailetik ihes egin nahirik, urratsa

azkartzen zuen, eta Manilovek, bere aldetik, bizkor jotzen zuen aurrera, Txitxikovi nekatzen ez uzteko ahaleginak eginez, eta, horrenbestez, etxe barruko korridore ilunean sartu zirenean, arnasestuka zeuden biak. Ez zen garbitasuna hango korridore eta gelen berezitasunik nabarregarriena. Garai hartan, oraindik ez ziren horretaz arduratzen, eta zikintzen zena zikin geratzen zen, lehengo itxura erakargarria berreskuratu gabe. Temisek halaxe hartzen zituen bisitariak, zegoen bezala, batere txukundu gabe, etxeko janzki arruntak soinean. Orain, azaldu beharra legoke nolakoak ziren gure protagonistek zeharkatzen zituzten bulegoak, baina autorea zeharo kikildurik sentitu da beti Estatua-ren edozein bulegotan. Horrelakoren batera joatea egokitu zaionean, itxura dotore eta apaineko lekua izanik ere, zorua eta mahaiak distiratsu bernizaturik egonik ere, albait lasterren alde egingen saiatu da beti, burua apal-apal makurturik eta begiak lurrean josirik, eta horregatik ez daki nola loratzen eta garatzen diren horrelako tokiak, tutik ere ez daki haietaz. Gure protagonistek paper asko ikusi zituzten —hala zirriborro-

ak, nola orri zuriak—, eta buru makurtuak, garondo zabalak, frakak, probintzietako longainak, eta jaka gris argi bat ere, oso zakar nabarmentzen zena. Jakaren barruan zegoena, burua albo batera okerturik eta ia paperaren gainean bertan ipinirik, epailearen aginduz lurjabe bakesuren bati kenduriko lurrei edo bahituriko baxetxeari buruzko txostenakopiatzen ari zen, bizkor eta arretatsu, eta, bitartean, auzipeturik egon arren, lurjabeak lasai bizi zituen bere azken egunak baxetxe horretan, zeinaren teilatupean bizi izan baitziren haren seme-alabak eta ilobak ere. Noizean behin, ahots erlatsez esaniko esaldi laburrak entzuten ziren: «Fedosei Fedoseievitx, ekarri 368 espedientea!», «Edozein tokitan uzten duzu beti tintontziaren tapoia!». Batzuetan, larderiatsu aditzen zen ahots jasoago bat, bulegobururen batena inondik ere: «Kopia ezak hau!, bestela botak kendu eta sei egun edukiko haut baraurik!». Idazlumek zarata handia ateratzen zuten, lurrean aztalerainoko orbela duen basoa zeharkatzean abar lehorrez zamaturiko telega-multzo batek ateratzen duenaren antzekoa.

Txitxikov eta Manilovaurreneko mahaira hurbildu ziren. Bi funtzionario gazte zeuden han eseririk, eta haiei galdetu zieten:

— Barkatu, non egiten dira eroste-agiriak?

— Zer nahi duzue? —esan zieten bi funtzionarioek batera, haienganantz jiraturik.

— Eskabide bat egin nahi dut.

— Zer erosi duzu?

— Aurrenik jakin nahi dut non egiten diren eroste-agiriak. Hemen edo beste mahai batean?

— Aurrenik esan behar diguzu zer erosi duzun eta zein preziotan, orduan esango dizugu nora joan behar duzun, bestela ez dugu jakiterik.

Txitxikov behingoan konturatu zen funtzionario haiek jakingura hutsak zirela, funtzionario gazte guztiak bezalaxe, eta zutena baino garrantzi eta aginpide handiagoa zutelako itxurak egin nahi zituztela.

— Aizue, gazteok —esan zien—, ondo asko dakit leku batean egiten direla eroste-agiri guztiak, prezioa edozein dela ere, eta, beraz, mesez eskatzen dizuet zein mahaitara joan behar dudan azaltzeko, eta ez badakizue zeuen bule-

goaren antolamenduaren berri, beste norbaiti galdetuko diogu.

Funtzionarioek ez zuten ezer erantzun; haie-tako batek soilik atzamarraz seinalatu zuen gela-ko bazter bat, non agure zahar bat baitzegoen mahai baten aurrean eseririk, paper batzuk zigil-uaz markatzen. Txitxikov eta Manilov zuzenean joan ziren harantz mahai ugarien artean. Agurea buru-belarri ari zen lanean.

— Barkatu —esan zuen Txitxikovek, buru-makurtua eginez—, hemen egiten dira eroste-agiriak?

Agureak begiak jaso, eta astiro esan zuen:

— Ez, eroste-agiriak ez dira hemen egiten.

— Non, bada?

— Eroste-agirien sailean.

— Eta non dago eroste-agirien saila?

— Ivan Antonovitxen mahaian.

— Eta non dago Ivan Antonovitxen mahaia?

Agureak gelako beste bazter bat seinalatu zien atzamarraz. Ivan Antonovitxenganantz abiatu ziren Txitxikov eta Manilov. Ordurako, Ivan Antonovitxek begiratu bat emana zien sor-balda gainetik, baita begizeharka aztertu ere,

baina une horretantxe berriro ekin zion lanari, lehen baino ardura biziagoz gainera.

— Mesedez —esan zuen Txitxikovek, burumakurtua eginez—, eroste-agiriak hemen egiten dira?

Ivan Antonovitx, ez entzunarena eginez, sakonago murgildu zen bere paperetan, eta ez zien deus erantzun. Lehen begiratuan antzematzen zitzaion adineko gizon zentzuduna zela, eta ez gaztetxo berritsu eta txoriburu horietakoa. Itxuraz, berrogei urte antzinatxo egina zen; ile beltz sarria zuen, eta aurpegiaren erdialde guztia aurrerantz nabarmentzen zitzaion, sudurrarekin bat eginik. Hitz batean, lagunarteko hizkeran pegar-muturra esaten zaien aurpegi horietakoa zuen.

— Barkatu, hau da eroste-agirien saila? —galdetu zion Txitxikovek.

— Bai —esan zuen Ivan Antonovitxek, bere pegar-aurpegia itzulirik. Eta idazteari ekin zion berriro.

— Entzun, mesedez, kontua da hainbat nekazari erosi dizkiedala barruti honetako lurjabe batzuei eta beste probintzia batera eraman nahi

ditudala. Eginda daukat eroste-agiria, legezta-tzea bakarrik falta zait.

— Eta saltzaileak hemen dira?

— Batzuk bai, eta gainerakoek eskuordetze-gutunak eman dizkirate.

— Ekarri duzu eskabide-orria?

— Bai, ekarri dut. Zera nahi nuke... lehenbai-lehen bukatu beharra daukat... ezinezkoa da, esaterako, gaur bertan egitea egin beharreko guztia?

— Gaur bertan! Bai, ezinezkoa da —esan zuen Ivan Antonovitxek—. Argitasunak eskatu behar ditugu oraindik, nekazari horiek saltzeko debekurik ez dagoela egiaztatze aldera.

— Kontuak kontu, gauzak azkartzeari dago-kionez, Ivan Grigorievitx, ganberaburua, nire lagun mina da...

— Baina Ivan Grigorievitx ez da bakarra, beste batzuk ere badira tartean —zakartu zitzaion Ivan Antonovitx.

Igarri zuen Txitxikovek zer zegoen Ivan Antonovitxek tupustean asmaturiko aitzakia maltzur horren azpian, eta esan zion:

— Beste horiek ere pozik geratuko dira; nik ere administrazioan lan egin dut, badakit zertan diren hemengo kontuak...

— Zoaz, bada, Ivan Grigorievitxengana — esan zuen Ivan Antonovitxek, doinu samurragoz—, agindu beharrekoa agin diezaiola dago-kionari, guregatik ez dira gauzak alferrik luzatuko.

Txitxikovek sakelatik billete bat atera, eta aurrean ipini zion mahai gainean. Ivan Antonovitxek, ez ohartuarena eginez, liburu batez estali zuen berehala. Txitxikovek billetea erakutsi nahi izan zion, baina Ivan Antonovitxek buru-mugimendu batez adierazi zion ez zuela ikusi beharrik.

— Horrek gidatuko zaituzte ganberaburuaren bulegora! —esan zuen Ivan Antonovitxek, burua-rekin Temisen apaizetako bat seinalatuz. Hantxe zegoen bere zereginetan murgildurik, eta hain arta handiz gauzatzen zituen Temisen omenezko sakrifizioak, ezen bi mahukak tarraturik baitzeuzkan ukondoetan, forradura aspalditik aterazten zitzaiola handik, eta, horrexegatik hain zuzen ere, mailaz goratu eta kolegio-erregistra-

tzaile izendatu zuten bere garaian. Gurelagunen zerbitzuan jarri zen —aspaldi batean Virgilio Danteren zerbitzuan jarri zen bezalaxe—, eta ganberaburuaren bulegoraino lagundu zien. Ganberaburua besaulki zabal batean eseririk zegoen idazmahaiatz bestaldean, bera bakarrik, eguzkia bailitzan, aurrean zertsaloa eta bi liburu-kote zeuzkala. Virgilio berria ez zen ausartu bere oinekin hango zorua zapaltzen, hain benerazio handia sentitu baitzuen leku hartan, eta, atzera bihurturik, ikusgai utzi zuen jakaren bizkarraldea, marrega zahar baten tankera hartzeraino higatua, zeinean oilo-luma bat baitzeraman itsatsirik. Aretoan sartu zirelarik, ikusi zuten ganberaburua ez zegoela bakarrik: Sobakevitx haren aldamenean eseririk zegoen, zertsaloaren atzean zeharo ezkutaturik. Bisitarien iristek bozkariozko hotsak eragin zituen. Ganberaburuaren besaulkia zarataka mugitu zen atzerantz. Sobakevitx ere bere eserlektik altxatu zen, eta begien bistan geratu zen haren luze-zabal osoa, mahukak beti bezain luze. Ganberaburuak irmoki besarkatu zuen Txitxikov, eta musuek durundi egin zuten gela osoan; osasunez nola zebiltzan

galdetu zioten elkarri; gerriko mina izan ohi zuten biek, eta egoneko bizimoduari egotzi zioten gaitzaren errua. Nonbait, ordurako ganberaburuak bazekien —Sobakevitxek esanik— erosketaren berri, zeren eta zorionak ematen hasi zitzaion berehala Txitxikovi. Gure protagonista apur bat nahasirik geratu zen hasieran, batez ere Sobakevitx eta Manilov aurrez aurre ikusi zituenean, biak gela berean elkaturik, zeren tratu gordean egin baitzuen hala batarekin nola bestearekin. Hala ere, eskerrak eman zizkion ganberaburuari. Gero, Sobakevitxenganantz jiratu, eta galdetu zion:

— Eta zu zer moduz zabilta osasunez?

— Jainkoari eskerrak, ezin naiz kexatu —esan zuen Sobakevitxek.

Eta hala zen, ezin zen kexatu: lehenagoARRANTATU eta eztulka hasiko zen burdina, hain modu miragarrian eraturiko lurjabe hura baino.

— Zu beti zaude osasun betean —esan zion ganberaburuak—, eta zure aita ere gizon gogorra zen.

— Bai, bakarrik joan ohi zen hartzak ehizatze-ra —erantzun zuen Sobakevitxek.

— Bada, nik uste dut—esan zion ganberaburuak— zuk ere hartza eraitsiko zenukeela haren kontra borrokatuko bazina.

— Ez, nik ez nuke eraitsiko —esan zuen Sobakevitxek—, aita ni baino indartsuagoa zen —eta, hasperen eginik, gaineratu zuen—: Ez, gaur egun ez dago horrelako gizonik. Hona hemen, esaterako, nire bizitza. Nola bizi naiz ni? Hainbestean...

— Ederra da, gero, zure bizitza! —esan zion ganberaburuak.

— Ez, ez da hain ederra —esan zuen Sobakevitxek, buruari eraginez—. Zerorrek erabaki, Ivan Grigorievitx: berrogeita hamar urte ditut eta inoiz ez naiz gaixorik egon; gutxienez behin edo behin eztarriko mina izan banu, edo zaldarren bat, edo pikortaren bat... Ez, susmo txarra hartzen diot!; egunen batean, ordaindu egin behar ko dut hori.

Eta malenkoniak eraso zion.

«Hara bestea! —pentsatu zuten aldi berean Txitxikovek eta ganberaburuak—, aurkitu du azkenean zertaz kexaturik!»

— Gutuntxo bat daukat zuretzat —esan zuen Txitxikovek, Pliushkinen gutuna sakelatik ateratzeaz batera.

— Norena? —galdetu zuen ganberaburuak, eta, gutunari lakrea kendutakoan, esan—: Hara!, Pliushkinena. Oraindik da, beraz, mundu honetan. Horra nolakoa den patua, gizon argia eta aberatsa izan zen garai batean, eta orain...

— Sasikumea galanta! —esan zuen Sobakevitxek—. Gizatxar hutsa!, gosez hil du bere jende guztia.

— Ondo da, ondo da —esan zuen ganberaburuak, gutuna irakurritakoan—. Prest nago haren ordeztzeko. Eroste-agiriak, orain edo geroago legezkatzea nahi duzu?

— Orain —esan zuen Txitxikovek—, gaur bertan, ahal izanez gero. Hiritik joan nahi dut bihar; ekarri ditut eroste-agiriak eta eskabide-orria.

— Ederto, nahi duzun bezala; baina ez dizugu utziko hain goiz joaten. Eroste-agiriak gaur bertan legezkatuko ditugu, baina zu gurekin geratuko zara puska batean oraindik. Oraintxe emango dut agindua —esan zuen ganberaburuak, eta funtzionarioz gainezka zegoen aldameneko gela

batera ematen zuen atea ireki zuen. Abaraske-
tan sakabanaturiko erle maratzen antza zuten
funtzionario haiek, baldin eta abaraskak bulego-
etako zereginekin alderatzerik badago—. Ivan
Antonovitx hor al da?

— Bai, hemen da —erantzun zuen ahots
batek atez bestaldetik.

— Esaiozu hona etortzeko!

Ivan Antonovitxek —irakurleok dagoeneko
ezagutzen duzuen funtzionario pegar aurpegiko
hori— ganberaburuaren gelan sartu eta burua
makurtu zuen begirune handiz.

— Ivan Antonovitx, hartu eroste-agiri hauek
guztiak...

— Ivan Grigorievitx —moztu zion esaldia
Sobakevitxek—, ez ahaztu lekukoak behar dire-
la, bi gutxienez alde bakoitzetik. Bidali norbait
oraintxe bertan prokuradorearen bila, gizon asti-
tsua da eta ziur etxean dagoela, lan guztia egi-
ten dio Zolotukha abokatuak, mundu honetako
alprojarik handienak. Osasun-batzordeko ikuska-
tzailea ere gizon astitsua da, eta ziur etxean
dagoela bera ere, baldin eta nonbaitera joan ez
bada kartetan jokatzera. Lurrean egonean ego-

tea beste lanik ez duen jende asko aurkituko duzu urrunera gabe: Trukhatxevski, Begushkin...

— Arrazoi duzu, arrazoi duzu —esan zuen ganberaburuak, eta bulegoko bat bidali zuen berehala haien guztien bila.

— Nik ere gauza bat eskatu nahi dizut —esan zuen Txitxikovek—: nekazariak saldu dizkidaten lurjabeetako batek Kiril artzapezaren semea izendatu du ordezkari. Hemen lan egiten du, Ganberan; esaiozu, mesedez, hona etortzeko.

— Nola ez! Hori ere ekarriko dugu hona! —esan zuen ganberaburuak—. Dena egingo dugu. Hori bai, mesedez eskatzen dizut ezertxo ere ez emateko funtzionarioei. Nire adiskideek ez dute ordaindu beharrik.

Hori esandakoan, itxuraz batere gustatu ez zitzaion agindu bat eman zion Ivan Antonovitxi. Eroste-agiriek eragin ona izan bide zuten ganberaburuarengan, batez ere ikusi zuenean erositako nekazarien guztizko prezioa ehun mila errublo ingurukoa zela. Minutu batzuk eman zituen Txitxikovi begietara so, aurpegian atsegin handia erakutsiz, eta azkenean esan zion:

— Oso erosketa ona egin duzu, Pavel Ivanovitx! Bai horixe!

— Oso ona, bai —erantzun zuen Txitxikovek.

— Tratu ona, bai, tratu ona benetan!

— Bai, hala da, ni ere konturatu naiz nekez egingo nukeela tratu hoberik. Diotena diotela, gizonaren etorkizuna ez dago erabakirik hankak oinarri sendo baten gainean tinko finkatzen ez dituen bitartean, gaztaroan librepensamenduak eragindako amets ustelak bazter utzirik.

Eta hor hasi zen hitz garratzez gaitzesten liberalismoa, eta, bide batez, baita gazte-jendea ere. Baina nabaria zen batere irmotasunik gabe mintzo zela, bere artean esan balu bezala: «Horiek gezurrak, adiskidea!, gezur-sorta galanta!». Begiratu ere ez zien egin Sobakevitxi eta Manilovi, haien aurpegietan zerbait nabaritzeko beldurrez. Guztiz funsgabea zen, baina, beldur hori: Sobakevitxen aurpegia ez zen behin ere mugitu, eta Manilovek, hitz-etorriak liluraturik, buruari noizean behin arinki eragin besterik ez zuen egiten, atseginarean atseginez eta ados zegoela erakutsi nahirik, halako jarreran nola egoten baita musikazalea kantariari entzuten

biolina bera gainditurik txorien eztarriak ere ezin jaulki lezakeen nota zoli horretara iristen denean.

— Zergatik ez diozu azaltzen Ivan Grigorievixi zer saldu dizudan? —sartu zen tartean Sobakevitx—. Eta zuk, Ivan Grigorievitx, zergatik ez diozu galdetzen zer-nolako nekazariak erosi dituen? Ezin hobeak!, urre garbia denak! Nor eta Mikheiev gurdigilea bera saldu diot.

— Ez da izango!, Mikheiev saldu diozu? —esan zuen ganberaburuak—. Ezagutzen dut Mikheiev gurdigilea: ezin trebeagoa bere lanbidean; drojkia konpondu zidan behin batean. Baina..., nolatan liteke!..., ez al zenidan esan hil zela?

— Nor?, Mikheiev? —esan zuen Sobakevitxek, batere aztoratu gabe—. Bai zera!, haren anaia hil zen; bera bizi-bizirik dago, lehen baino sasoi hobean gainera. Zaldi-kotxe paregabea amaitu du egunotan, Moskun ere ez lukete egundo horrelakorik egingo. Egia esan, tsarrarentzat bakarrik lan egin beharko luke.

— Bai, Mikheiev oso gurdigile ona da —esan zuen ganberaburuak—, eta harrigarria iruditzen zait zuk aldetik kendu izana.

— Ez bakarrik Mikheiev! Baita Probka Stepan zurgina ere; eta Milushkin, adreilugilea; eta Maxim Teliatnikov, zapatagina; guzti-guztiak saldu dizkiot!

Orduan, ganberaburuak galdetu zion zergatik saldu zituen hain gizon onak, etxerako zein lane-rako ezinbestekoa da-eta horrelako jendea edukitzea. Sobakevitxek, eskuari eragin, eta honela erantzun zion:

— Gogoak eman didalako. Sal itzazu, esan nion neure buruari, eta saldu egin nituen birritan pentsatu gabe!

Hala mintzatutakoan, burua apaldu zuen, hori egin izana damutuko balitzaio bezala, eta gaineratu:

— Zaharra naiz eta, hala ere, oraindik ez naiz zentzatu.

— Baina esadazu, mesedez, Pavel Ivanovitx —esan zuen ganberaburuak—, zergatik erosi dituzu nekazariak lurrik gabe? Beste nonbaitera eramango dituzu, ala?

— Bai, beste nonbaitera eramán nahi ditut.

— Tira, hori besterik da. Nora?

— Zerara... Kherson probintziara.

— Ederra hango lurra! —esan zuen ganberaburuak, eta sutsuki goraipatu zituen bazter hartako belardiak—. Eta lur nahikorik baduzu han?

— Bai, behar adina erosi ditudan nekazari-entzat.

— Eta zer duzu, ibaia edo urmaela?

— Ibaia. Baina urmaela ere badago.

Hori esandakoan, bestela bezala begiratu zion Sobakevitxi, eta, Sobakevitx lehen bezain geldirik bazegoen ere, iruditu zitzaion hau zeukala idatzirik aurpegian: «Gezurretan ari haiz! Ez ibairik, ez urmaelik, ez lurrik, ezertxo ere ez daukakarrik hik!».

Haiek hizketan zeudela, bata bestearen atzetik iristen hasi ziren lekukoak: prokuradorea —zeinari, irakurleok ondo dakizuenez, ezkerreko begia noizean behin berez kliskatzen baitzitzitzaion—, osasun-batzordeko ikuskatzailea, Trukhatxevski, Begushkin, eta beste hainbat, Sobakevitxek zioenez Lurrean egonean egotea beste lanik ez duten horietakoak. Txitxikovek ez zituen inondik ezagutzen haietako asko: behar zituztenak eta gehiago aukeratu zituzten hantxe bertan, Ganberako funtzionarioen artean. Kiril artza-

pezaren semea ez ezik, artzapeza bera ere ekarri zuten. Lekuko bakoitzak bere maila eta merezimenduak idatzi zituen, letra zuzenez batek, letra etzanez beste batek, eta errusierazko alfabetoan sekula ikusi ez diren hankaz gorako hizkiak eginez hirugarren batek. Ivan Antonovitxek ezin hobeto egin zuen bere egitekoa: erostegiri bakoitzean data eta errejistro-zenbakia idatzi, errejistro-liburuan haien berri jaso, eta *Moskovskie Vedomosti* egunkarian argitaratzeagatik ordaindu beharreko ehunekoa kobratu zuen. Hutsaren hurrena ordaindu behar izan zuen Txitxikovek horregatik guztiarengatik. Gainera, ganberaburuaren aginduz, legeztatze-tasaren erdia bakarrik kobratu zioten, eta beste erdia, batek daki nola, beste erosle baten zorrari gehitu zioten.

— Amaitu dut —esan zuen ganberaburuak dena bukatu zenean—. Orain, erosketa bustitzea besterik ez zaigu falta.

— Ondo deritzot —esan zuen Txitxikovek—. Zuek esango duzue noiz. Nire aldetik, bekatu larria litzateke hain lagun-talde atseginari botila xanpaina batzuk ez eskaintzea.

— Ez, ez didazu ondo ulertu: geuk jarriko dugu xanpaina —esan zuen ganberaburuak—; gure betebeharra da, gure eginbidea. Gure gonbidatua zara eta abegi ona egin behar dizugu. Entzun zer egingo dugun, jaunok!: hemendik atera eta poliziaburuaren etxera joango gara denok batera mokadu bat jatera; mirariak egiten ditu gizon horrek, mirariak: arrandegira edo edaritegira inguratu, begi-keinua egin, eta janaurreko ederra antolatuko digu segituan!, eta guk, bitartean, whistean egingo dugu.

Inork ezin izan zion uko egin halako proposamenari. Arrandegia aipatze hutsarekin janguraren harra bihurka hasi zen lekukoen sabelean; kapeluak eta txanoak hartu, eta amaitutzat jo zuten egun hartako lana. Bulegoak zeharkatzen ari zirelarik, Ivan Antonovitx pegar-aurpegiak, gizalegezko diosala eginik, ahapeka esan zion Txitxikovi:

— Ehun mila errublo ordaindu dituzu nekazari horiengatik, eta niri hogeita bost bakarrik eman dizkidazu harturiko nekeen ordainetan.

— Baina nekazari horiek ez dute horren erdia ere balio —erantzun zion Txitxikovek, berak ere xuxurlaka—, zabor hutsa dira, ezin txarragoak.

Ivan Antonovitxek antzeman zion gizon setatsua zela, eta ez ziola gehiago emango.

— Zenbatean erosi dizkiozu arimak Pliushkini? —xuxurlatu zion Sobakevitxek beste belarri-
ra.

— Zergatik sartu zenuen Vorovia zerrendan? —erantzun zion Txitxikovek.

— Vorovia? Zein Vorovia? —galdetu zion Sobakevitxek.

— Emakumezkoa, Elizaveta Vorovia, izenaren amaierako a antzik ez emateko moduan idatzirik.

— Nik ez dut inolako Voroviarik sartu zerrendan —esan zuen Sobakevitxek, eta besteengantz urrundu zen.

Tropelean heldu ziren azkenean poliziaburuaren etxera. Eta bai, poliziaburuak mirariak egiten zituen. Haien asmoen berri jakin bezain laster, kalezain bati deitu zion —mutil gazte eta bizia bera, txarolezko bota luzez jantzia—; belarrira pare bat hitz esan eta «Ulertzen?» gaineratu

besterik ez zuen egin, eta handik gutxira, bisitariak whistean ari ziren bitartean, hantxe azaldu ziren aldameneko gelako mahaian izokinak, tamaina guztietako gaizkatak, kabiak-orea, kabiak gazitua, sardinak ketuak, gazta, mihi ketuak eta gaizkata-bizkar onduak, dendetatik ekarria hori guztia. Gero, bestelako jakiak agertu ziren mahai gainean, etxeko jaunaren beraren opari: izokin-buruz eginiko pastel bat —bederatzi pudeko gaizkata baten kartilagoak eta masailak barruan zituena—, esnegorritz beteriko pastel bat, gurinezko gozopilak, konpota eta mota askotako opilak. Poliziaburua, nola edo hala, hiriko ongile eta aita babeslea zen. Bere familian bezala sentitzen zen hiritarren artean, eta bere janaritegian bezala sartzen zen dendetan eta kaleko saltokietan. Ondo asko hartua zion neurria karguari, eta ezin hobeto betetzen zuen bere egitekoa. Zail da erabakitzen bera kargurako sortu zuten ala kargua berarentzat. Hain buru argiz gobernatzen zen kontu orotan, ezen bere aurreko guztiek baino bi aldiz gehiago irabazten baitzuen; eta gainera, hiritar guztien estimua bereganatu zuen. Merkatari handiek biziki maite

zuten, harroputza ez zelako hain zuzen ere; gogo onez onartzen zuten haien seme-alaben aitabitxi izatea, lagun-giroan ibiltzen zen haiekin, eta noizean behin gogor hartzen bazituen ere, trebetasun handiz tratatzen zituen beti: bizkarrean zapladatxo batzuk eman eta barrez hasten zen, tea hartzera gonbidatzen zituen, hitzematen zien etxera joango zitzaiela dametan jokatzera, gauzak zer moduz zihoazkien galdetzen zien eta eguneroko gorabeheraz mintzatzen zen haiekin. Baten baten haurtxoa gaixorik zegoela jakiten bazuen, zer sendagai eman behar zioten esaten zien gurasoei. Hitz batean, gizon jatorra bene-tan! Bere drojkian kaleak zaintzen ibiltzen zenean, adiskidetsuki mintzatzen zen guztiekin: «Aizak, Mikheitz, bukatu beharko diagu partida-txo hori egunen batean!». «Bai, Aleksei Ivanovitx —erantzuten zion besteak, txanoa erantztez batera—, bukatuko dugu.» «Aizak, Ilia Paramonitx, ea noiz hatarren nire trostaria ikustera: lasterketa egingo diagu, ea zeinek irabazten duen, hireak ala nireak!» Merkatariak, txoratzeko punturaino gustatzen baitzitzaizkion zaldia, atseginenez irribarre egin eta, bizarra laztanduz, erantzu-

ten zion: «Bai, lasterketa egingo dugu, Aleksei Ivanovitx!». Eta, bitartean, dendariek berek ere, txanoa eskuan, pozik begiratzten zioten elkarri, hau esan nahi balute bezala: «Bai gizon jatorra gure Aleksei Ivanovitx!». Labur esanik, oso begiko zuten herritarrek, eta merkatari guztiak iritzi berekoak ziren: «Aleksei Ivanovitxek beti kenduko dik zerbait, baina sekula ez hau salduko».

Otordutxoa prest zegoela ikusirik, partida jan ondoren bukatzea proposatu zien poliziaburuak gonbidatuei, eta aldameneko gelara joan ziren denak. Handik zetorren usaina aspalditxo hasia zen gonbidatuen sudurzuloak oso modu atseginean kilikatzen. Eta aspalditxo zen Sobakevitx hango aterantz begira zegoela, mahaiaren bazter batean zegoen gaizkata handi bati urrunetik erreparaturik. Rusen zigiluak egiteko erabiltzen diren Siberiako harri garden horietan bakarrik aurkitzen den oliba kolore ilun horretako likore bat edan zuten gonbidatuek aurrena, kopa bana. Gero, sardexka eskuan, alde guztietatik inguratu zuten mahaia, eta zein bere izaera eta gustuen arabera jaten hasi ziren denak, nor kabiarra, nor sardinzar ketuak, nor gazta. Sobakevitx, halako

huskeriei jaramonik egin gabe, gaizkataren aurrean eseri zen, eta besteek edan, hitz egin eta jaten zuten bitartean, berak ordu laurden eta gutxi behar izan zuen arrain handi hura irenste-ko. Halako batean, poliziaburua arrainaz gogoratu zen eta honela esan zien mahaikideei: «Hara, jaunok, ikusi duzue Naturaren mirari hau?»; baina, sardexka eskuan harturik besteekin batera gaizkatara hurbildu zenean, Naturaren mirari horretatik isatsa bakarrik geratzen zela ikusi zuen. Sobakevitx, ez ohartuarena eginez, gainerakoak baino urrunago zegoen plater batera hurbildu zen eta arrain ketu txiki bat hartu zuen sardexkarekin. Gaizkata handi hura sabelean zeukala, besaulki batean eseri zen eta ez zuen ez jan eta ez edan gehiago; begiak txilotu, eta noi-zean behin kliskatu besterik ez zuen egin handik aurrera. Poliziaburuak, antza, ez zuen gogoko ardoa giltzapean gorderik edukitzea. Ezin konta ahal bider egin zuten topa. Irakurleak aise igarriko zuenez, lehenbiziko topan Khersongo lurjabe berriaren osasunerako edan zuten; hurrena, haren nekazarien ongizateari eta migrazio zorientsuari egin zioten topa, eta gero Txitxiko-

ven etorkizuneko emazte ederrari, gure protagonistaren ezpainetan irribarre gozoa loraraziz horrekin. Alde guztietatik inguratu, eta gogotik ekin zioten eskatzeari hirian beste pare bat astez gera zedila:

— Ez, Pavel Ivanovitx! Zuk egin nahi duzuna izba hoztea bezala da: atea zabaldu, eta sartu gabe ospa! Ez, gera zaitetz hemen puska batean oraindik! Ezkondu egingo zaitugu; ez al da egia, Ivan Grigorievitx, ezkondu egingo dugula?

— Bai, ezkonduko dugu, ezkonduko dugu — lagundu zion ganberaburuak—. Hanketatik eta besoetatik eutsi behar badizugu ere, ezkondu egingo zaitugu! Ez, adiskidea, hona agertu zara, eta orain ez hasi aitzakiak jartzen. Gu ez gara txantxetan ibiltzen diren horietakoak.

— Lasai, ez didazue hanka-besoetatik eutsi beharrik izango —esan zuen Txitxikovek, erdi irribarre eginez—. Ezkontzea ez da hain larria. Kontua da emaztegaia behar izaten dela horretarako.

— Emaztegaia izango duzu, nola ez! Nahi adina izango dituzu, nahi adina...

— Tira, horrela bada...

— Primeran! Geratuko da! —egin zuten oihu denek—. Gora Pavel Ivanovitx! Biba zu!

Eta denak hurbildu zitzaizkion berriro, kopak eskuan eta topa eginez.

Txitxikovek topa egin zuen guztiekin. «Beste bat!, beste bat! Berriro!», errepikatzen zuten sutsuenek, eta topa egin zuten berriro; gero, hirugarren aldiz inguratu zuten eta hirugarren aldiz egin zuten topa. Handik gutxira, pozez zorutzen zeuden denak. Ganberaburuak, alai zegoenean gizon ezinago atsegina baitzen, hainbat aldiz besarkatu zuen Txitxikov, eta, bihotz-bihotzeko begikotasunaren jarioari ezin eutsirik, honela esan zion halako batean: «Nire laztana! Nire amatxo bihotzekoa!»; eta gero, hatzak klas-katuz, jauzika hasi zen haren inguruan, kanta ezagun baten errepika ahopean abesten zuen bitartean: «Hi bai hi, Karamin-eko nekazari». Xanpainaren ondotik Hungariako ardoa edan zuten, eta horrek indarberritu eta are gehiago alaitu zituen guztiak. Erabat ahaztu zitzairen whist-partida; gai oroz eztabaidatu eta mintzatzaren ziren oihuka; zela politikaz, zela gerra-kontuez, oso iritzi ausartak agertzen zituzten, nahiz

eta beste garai batean gogor jipoituko zituzten seme-alabak, horrelakorik esan balute. Auzirik korapilatsuenak garbitu zituzten, asko eta dene-tarikoak. Ordu arte, Txitxikov ez zen inoiz hain pozik sentitu; Khersongo benetako lurjabe bat bezala irudikaturik bere burua, mota guztietako hobekuntzak aipatzen zituen —soroetako landa-reak hiru urtetik hiru urtera aldizkatzea, esatera-ko—; bi arimaren poza eta zorionaz mintzatu zen, eta Wertherrek Karlotari idatziriko hitz neur-tuzko gutuna irakurtzen hasi zitzaion Sobakevit-xi, zeinak, besaulkian eseririk, begiak kliskatu baino ez zuen egin, loak erreta zegoen-eta jan-dako gaizkata handiaren eraginez. Txitxikovek, neurri guztiak gainditzen ari zela konturaturik, kotxe bat eskatu zuen, eta prokuradoreak eskai-nitako drojkia onartu zuen. Prokuradorearen kotxe-gidaria, bidean antzeman zionez, eskar-mentu handiko mutila zen: esku batekin bakarrik gidatzen zuen, eta bestearekin nagusiari heltzen zion, besoa atzerantz luzaturik. Prokuradorearen drojkian heldu zen, beraz, Txitxikov bere ostatu-ra, eta han ere mota guztietako burugabekeriak erabili zituen mihian dantzan puska luze batean:

aurpegi zurigorriko emaztegai ilehori bat — eskuineko masailan elutxa zuena—, Khersongo herrixkak, dirutzak. Selifanek agindu bitxia jaso zuen nagusiaren aldetik: mujik guztiak bildu behar zituen, abian jarri baino lehen zenbaketa orokorra egiteko. Selifan oso luzaz egon zen isil-isilik entzuten; gero, gelatik irten, eta Petrushkari esan zion: «Hoa nagusiari arropak eranztera!». Botak kentzeari ekin zion Petrushkak, eta gutxi-gatik ez zuen botekin batera nagusia bera ere lurrera bota. Baina, azkenean, lortu zuen botak kentzea; nagusiak behar den bezala erantzi zituen gainerako janzkiak; apur batean ohean alde batera eta bestera jiraka aritu —oheari kirrinka gupidagabeak eraginez—, eta lo gelditu zen Khersongo lurjabe benetako bat balitz bezala. Bitartean, Petrushkak korridorera atera zituen galtzak eta txilar koloreko frak izpilduna; zurezko esekitoki batean baldarki zabaldu, eta hortxe hasi zen zigorraz astintzen eta eskuilaz eragiten, hautsa korridore osoan barreiatuz. Janzkiak biltzeko prest zegoela, galeriatik behera begiratu, eta Selifan ikusi zuen ukuilutik itzuleran. Topo egin zuten bien begiradek, eta bertantxe ulertu

zuten elkar: nagusia lo zegoen, sartu-irten bat egin ahal zuten, beraz, biek zekiten leku batean. Petrushka, arrapaladan galtzak eta fraka gelan utzi, eta behera jaitsi zen, eta elkarrekin joan ziren biak, bidaiatxoaren helburuaz hitz egin gabe eta bestelako kontuen gaineko txantxak eginez. Ibilaldi laburra egin zuten: kalearen beste aldera joan ziren, ostatuaren aurrez aurre zegoen etxe batera, eta kristal ketuzko ate baxu batetik sartu ziren soto batean; ordurako, dene-tariko gizonak zeuden zurezko mahai batzuen inguruan eseririk: bizartsuak eta bizargabeak, ahari-larruzko beroki luzez jantzirik batzuk, alkandora hutsean beste batzuk, eta artilezko longain zakarra soinean baten bat. Haien jainko-ak daki zer egin zuten Petrushkak eta Selifanek han barruan, kontua da ordu bete geroago irten zirela handik, besotik helduta, isil-isilik, elkarren alderako ardura handia erakutsiz eta kale-kantoi guztietan elkar babestuz. Soinez soin, elkarren-gandik askatu gabe, ordu laurden bat egon ziren zurubia igo ezinik; azkenean, mailak menderatu, eta goraino iristea lortu zuten. Petrushka geldirik geratu zen une batez bere ohe estuaren

aurrean, lo egiteko jarrerarik erosoena zein izango ote zen pentsatuz, eta zeharka etzan zen azkenean, oinak lurrean bermaturik. Selifan ere ohe hartan bertan etzan zen, burua Petrushkaren sabelaren gainean jarrita, eta ahazturik berak ez zuela hor lo egin behar, ezpada morroien gelan, edo ukuiluan, zaldien aldamean. Behingoan lokartu ziren biak, sekulako zurrungak eginez, zeinei sudur-txistuka erantzuten baitzien nagusi jaunak aldameneko gelatik. Handik gutxira, baretasuna nagusitu zen, eta lo sakon batek hartu zuen ostatu osoa. Leiho batean bakarrik ikusten zen argia. Riazanetik iritsitako tenientearen gela zen. Tenientea, itxuraz, botazale amorratua zen: lau pare eskatuak zituen ordurako, eta denbora luzea zeraman bosgarrena saiatzen. Behin baino gehiagotan hurbildu zen ohera, botak erantzi eta lotaratzeko asmoz, baina erabat ezinezkoa zitzaion: botak oso ondo eginik zeuden, eta luzaz eduki zuen hanka airean jasorik, gogo biziz eta liluraturik takoiari so.

Zortzigarren kapitulua

Guztien ahotan zebilen Txitxikoven erosketa. Onuragarria al zen nekazariak erostea beste leku batera aldatzeko?, horra hiriko elkarrizketa, eztabaida eta gogoeta guztien mamia. Eztabaidetan parte hartzen zutenetako askok gai horretan guztiz adituak zirela erakusten zuten. «Jakina —zioten hainbatek—, hegoaldeko probintzietako lurra ona eta emankorra da, hori ez dago ukatzerik. Baina zer egingo dute Txitxikoven nekazariak urik gabe? Han ez dago ibairik!» «Urik ez egotea ez da oztopo nagusia, Stepan Dmitrievitx, hori ez da kezkatzeko modukoa, lekuz aldatzea bera da arazoa. Denok dakigu nolakoak diren mujikak: inguru berri batean, lursail oraindik goldatu gabeak lantzerantz behartuta, izbarik gabe, kortarik gabe..., bi eta bi lau direla baino argiago dago ospa egingo dutela segituan, ihesi joango dira deabruak hartu balitu bezala.» «Ez, Aleksei Ivanovitx, barkatu, baina ez nator bat zurekin Txitxikoven nekazariak ihes egingo dutelako horretan. Errusiarra edozertarako

gauza da eta aise jartzen da edozein klimatara. Hartu mujik errusiar bat, eraman ezazu Kamtxat-kara, eta emaiozu eskularru-pare beroa: hatzak klaskatu, aizkorari heldu, zuhaitz batzuk moztu, eta izba berria eraikiko du berehala.» «Barkatu, Ivan Grigorievitx, baina garrantzi handiko gora-behera bat ahaztu zaizu: oraindik ez duzu galde-tu nolakoak diren Txitxikoven mujikak. Ahaztu egin zaizu ez dagoela nekazari onak saltzen dituen lurjaberik. Lepoa egingo nuke Txitxikovek erosi dituen mujik horiek, lapur hutsak eta mozkor porrokatuak ez badira, alfer gorotzak eta lis-karzale amorratuak direla.» «Bai, bai, horretan ados nago zurekin, arrazoi duzu, inork ez du nekazari onik saltzen, seguraski Txitxikoven mujikak mozkorrak dira, bai; baina kontuan hartu beharra dago morala ere tartean dela, eta morala, hain zuzen ere, honetan datza: orain alproja galantak dira, baina lur berrira iristen direnean litekeena da mendekorik zintzoenak bihurtzea. Horren adibide ugari dago muduan, historiak berak horren erakusgarri asko eskaintzen dizkigu.» «Inoiz ez, inoiz ez —zioen Estatua-ren fabriken zuzendariak—, hori ez da inoiz ger-

tatuko, ziur nago. Txitxikoven nekazariak bi etsai handi dituzte orain. Lehen etsaia da oso hurbil daukatela Errusia Txikia, eta han, jakina denez, ez dago inolako trabarik ardoa saltzeko. Sinetsidazue, bi aste joaterako ardoz bete-bete eginda egongo dira, sekulako mozkorrak harrapatuko dituzte. Bigarren etsaia, berriz, alderrai ibiltzeko ohitura bera da, zeren hain bidaia luzeak horretara ohituko ditu nekazariak ezinbestean. Txitxikovek begien bistan eduki beharko lituzke denbora guztian, inolako begiramenik gabe tratatu, lanpeturik eduki beti edozertan; ezin izango litzateke inortaz fidatu, eta, behar izanez gero, berak eman beharko lituzke muturrekoak eta kankarrekoak.» «Zergatik eman beharko lituzke Txitxikovek berak muturrekoak? Administratzailea arduratuko litzateke horretaz.» «Bai, ea non aurkitzen duen administratzaile on bat: bilau hutsak dira denak.» «Bilauak dira nagusiek ez dituztelako beren eginbeharrak betetzen.» «Arrazoi duzu —esan zuten askok—. Nagusia etxaldea nola edo hala gobernatzeko gai bada eta jendea aukeratzen badaki, beti aurkituko du administratzaile on bat.» Baina fabriken zuzen-

dariak esan zuen gutxienez bost mila errublo behar zirela administratzaile on bat akuratzeko. Eta ganberaburuak esan zuen aski zirela hiru mila. Eta fabriken zuzendariak esan zuen: «Eta non aurkituko duzu horrelakorik?, zeure sudurraren azpian beharbada?» Eta ganberaburuak esan zuen: «Ez, neure sudurraren azpian ez, baina bai barruti honetan bertan. Piotr Petrovitx Samoïlov, horra Txitxikoven mujikek behar duten administratzailea!» Jende asko jabetzen zen —ondo jabetu ere— Txitxikoven egoeraren larriaz, eta edonor izutzeraino zail zeritzoten hain nekazari-saldo handia mugitzeari; beldur ziren —oso beldur— Txitxikoven nekazariak, hain jende bihurria izaki, ez ote ziren bidean matxinatuko. Baina poliziaburuak esan zien lasai egon zitezkeela, ez zela inolako mantxinadarik gertatuko, horrelakoak eragozteko zegoela polizi kapitainaren aginpidea, eta, bestetik, ez litzatekeela polizi kapitaina bera joango nekazariekin: kapelua bakarrik bidaliko luke bere ordean, eta kapeluek bizileku berriraino joanaraziko lituzke nekazariak. Askok azaldu zuten nola kenduko lieketen matxinatzeko gogoia Txitxikoven

nekazariei. Denetariko iritziak zeuden: batzuek ezinbestekotzat jotzen zuten armadaren neurritz gaindiko ankertasuna eta gogortasuna, eta sutuki agertzen ziren horren alde; beste batzuek, ordea, samurtasuna nahiago zuten. Postaburuak oharrarazi zuen Txitxikovek bete-behar sakratua zeukala aurrean, aita baten antzera jokatu behar zuela bere nekazariekin, eta onegintzako hezkuntza ezarri beharko lukeela, eta egokieraz baliatu zen Lancasterren elkar hezkuntzako eskola goresteko.

Horrela arrazoitu eta hitz egiten zuten hirian, eta askok, Txitxikovenganako atxikimenduak bultzaturik, zuzenean ematen zizkioten aholku horietako batzuk, eta zenbaitek soldaduak eskaini zizkioten, nekazariak inongo arriskurik gabe eramateko kokagune berriraino. Txitxikovek eskerrak ematen zizkien aholkuengatik, behar izanez gero kontuan izango zituela esanez; baina ezezko biribila eman zion soldadu-eskaintzari, esanez ez zuela haien premiarik, berak erositako nekazariak guztiz baketsuak zirela, lurrez aldatzeko gogoia zutela eta ez zirela inola ere matxinatuko.

Aholkuak aholku, oso ondo ere onak segitu ziren eztabaida eta hausnartze haietatik, Txitxikovek sekula uste izango zukeen baino askoz ere hobekiak. Zer eta milioi bat zelako zurrumurrua zabaldu zen hirian. Lehen kapituluan ikusi dugunez, hori gabe ere hiriko biztanleek estimu handitan zeukaten Txitxikov, eta orain, horrelako zurrumurrua ahoz aho zebilela, are estimu handiagoa egiten zioten. Egia esan, jende onak ziren haiek guztiak, ondo etortzen ziren elkarrekin, jendetasunez tratatzen zuten elkar, eta haien solasek halako xalotasun eta adiskidetasun berezi baten ukitua agertzen zuten beti: «Ilia Ilitx, nire lagun bihotzeko hori», «Aizak, Antipator Zakhariovitx, nire adiskidea!», «Ivan Grigoriovitx, gezurretan ari haiz, motel!». Postaburuari —zeinari Ivan Andreievitx baitzeritzon— honela esaten zioten beti: «Sprechen Sie Deutsch, Ivan Andreitx?». Hitz batean, lagunarteko giroa zen nagusi. Haietako asko kultura handiko gizonak ziren. Ganberaburuak, esaterako, buruz zekien Jukovskiren *Liudmila*, garai hartan argitaratu berri-berria bazen ere, eta bikain errezitatzen zituen pasarte asko, batez ere honako hau:

«Esnatu da oihana, lo dago harana»; eta halako moldez ebakitzen zituen hitzak, non bai baitzirudien harana benetan lo zegoela entzuleen begien aurrean; poema are hobeto girotzeko, txilotu egiten zituen begiak. Postaburuak, aldiz, gogokoagoa zuen filosofia, eta arreta biziz irakurtzen zituen —egunez eta baita gauzez ere— Young-en *Gauak* eta Eckartshausen-en *Naturako misterioen giltza*, bi liburu haien oso laburpen luzeak egiten zituela, nahiz eta inork ez jakin zer-nolakoak ziren laburpen haiek; bestetik, ateraldi ugariko gizona zen, hitz-etorri oparokoa, eta, berak aitortzen zuenez, izugarri atsegin zitzaion hizketa dotoretzea. Denetariko betegarritz hornitzen zituen esaldiak, hala nola: «Jaun agurgarri hori; pentsa ezazu; hortik atera kontuak; badakizu?; ulertzen?; kontua zera da; horri dagokionez; nolabait esateko», eta ahotik barra-barra jaulkitzen zitzaizkion beste asko; gainera, hitz egiten zuen bitartean, oso keinu egokiak egiten zituen begi bat kliskatuz, eta imintzio horiek oso ukitu garratza ematen zieten haren eztenkada satiriko ugariei. Gainerakoak ere —nor gehiago, nor gutxiago— nahikoa jantziak

ziren: batek Karamzin irakurtzen zuen, besteak *Moskovskie Vedomosti*, eta beste batzuek ez zuten ezer irakurtzen. Haietako batzuk, esan ohi denez, gibel-handiak ziren, hau da, ezer egingo badute ostikoka altxarazi behar izaten diren horietakoak; beste batzuk, berriz, alfer zuriak ziren, zabal eta zabar etzanda egoten ziren beti, eta alferrik zen haiek altxarazten saiatzea: ez ziren sekula jaikiko. Lehenago ikusi dugunez, mardulak ziren denak, tisikorik ez zegoen haien artean. Bakarkako elkarrizketa samurretan emazteak honela esaten dien gizon horietakoak ziren: potoloa, lodikotea, tripontzia, eta antzekoak. Baina, oro har, jende onak ziren, abegitsuak, eta berehala hartzten zuten lagun mintzat haiekin ogia eta gatza jan edo arratsalde bat whistean ematen zuen edonor, eta beste ororen gaineratik Txitxikov, dohain eta manera xarmagarriak erakusten baitzituen beti, eta ondo asko baitzekien zertan zetzan lagun hurkoaren gogoko izatearen sekretua. Hain zeukaten estimu handitan gure protagonista, ezen ez baitzuen hiritik alde egiteko abagunerik aurkitzen. Behin eta berriro entzuten zituen honelakoak: «Beste astetxo bat,

Pavel Ivanovitx, gera zaitez gurekin beste astexo bat». Hitz batean, ezin hobeto tratatzen zuten. Baina askoz ere handiagoa eta benetan harrigarria zen Txixikovek damen aldetik irabazi zuen mirespena. Hori nolabait argitzeko, luze hitz egin beharko genuke hiriko damei buruz, eta, esan ohi denez, kolore biziz pintatu haien ezaugarri moralen koadroa. Baina autoreari oso zail zaio eginkizun hori. Batetik, begirune mugarik gabea die goi-mailako funtzionarioen emazteei, eta bestetik, berriz..., bestetik, zail zaio berez, besterik gabe. N hiriko damak ziren..., ez, ezin dut, inola ere ez: lotsatu egiten naiz. N hiriko damen berezitasun nagusia zen... Harriagarria bada ere, jaso ere ezin dut egin idazluma, badirudi berunezko zerbait duela gainean. Bistan denez, paletan kolore gehiago eta biziagoak dituen beste norbaiten esku utzi beharko dugu hiriko damen izaera pintatzeko lana, eta gu haien kanpoko itxuraz eta ezaugarriarik azalekoenez soilik pare bat hitz esatera mugatu. N hiriko damak itxura oneko emakumeak ziren, eta, horri dagokionez, eredutzat hartu beharko lituzkete gainerako emakume guztiek. Ondo gobernatzan ziren,

bazekiten egoera orotan modu egokian jokatzeko, hutsik egin gabe betetzen zituzten gizalegearen arau guztiak —den mendreena ere ahaztu gabe—, eta zintzo-zintzo gordetzen zituzten modaren aginduak, azken orduko txikikeriei ere kasu eginik; gauza horietan guztietan, Petersburgeko zein Moskuko damen gaisetako zeuden. Oso gustu onez jantzen ziren, eta, garaiko modak agintzen zuenez, kalesan ibiltzen ziren hirian barrena, atzealdean lekaioa zeramatela, zambuluka, urrezko galoiekiko libreaz jantzirik. Nahiz eta biko hirusta batean edo bateko diamante batean idatzirik egon, sakratutzat zeukaten bisita-txartela. Hori dela eta, bi dama —lagun handiak biak, eta gainera ahaideak— betiko etsaitu ziren zergatik eta bietako batek bisita itzuli ez ziolako besteari. Senarrak eta ahaideak gogotik ahalegindu ziren bi dama haiek adiskidetzeko, baina, nonbait, mundu honetan edozer lor daiteke, gauza bat izan ezik: bisita ez itzultzeagatik etsaitu diren bi dama adiskidetzea. Eta halaxe geratu ziren bi emakume haiek, begitan harturik elkar, hirikoek ziotenez. Gizarteko toki nagusien banaketak ere oso liskar bortitzak piz-

ten zituen, eta senarrek, emazteak aldeztu nahirik, zaldunen denborako asmo handientsuak egosten zituzten batzuetan. Jakina, funtzionario zibilak zirenez, haien artean ez zen duelorik izaten, baina aurkakoari azpikeriak egiten saiatzen ziren ahal zuten guztietan, eta horrek, jakina denez, dueloek baino ondorio latzagoak ekartzeko dituzten batzuetan. Ohiturei dagokienez, N hiriko damak oso zorrotzak ziren, barru-barruko sumindura erakusten zuten galdukeria eta bekatu ororen aurrean, eta batere gupidarik gabe gaitzesten zituzten ahulkeria guztiak. Haien arteko baten bat maite-jolastxoren batean nahasirik ibiliz gero, guztiz ezkutuan gordetzen zuen kontua, halako moldez, ezen inork ez baitzion susmorik txikiena ere hartzen. Horrelako afereetan, duintasunari eusten zioten denek, eta senarra bera ere hain zegoen horrela jokatzeko prestaturik, ezen, maite-jolastxoaren zantzurik sumatu edo haren gaineko esamesarik entzunez gero, labur eta zuhertasun handiz erantzuten zuen esaera zahar batekin: «Kontakatiluen kontuek, axola gutxi». Azkenik, N hiriko damen beste berezitasun nabarmengarri bat aipatu

beharra dago: Petersburgeko dama askoren antzera, ohi ez bezalako sotiltasun eta moduzkotasunez mintzatzen ziren. Inoiz ez zuten esaten «Mukiak kendu ditut», «Izerditan nago» edo «Tu egin dut», ezpada «Sudurra arindu dut» edo «Sudur-zapia erabili behar izan dut». Ezin zen inola ere esan «Edalontzi honi edo plater horri kiratsa dario». Ezin zen esan hori iradoki lezakeen ezer ere, eta, horren orde, honelako esamoldeak baliatzen zituzten: «Edalontzi hau ez da ondo portatzen», edo horren tankerakoak. Errusierari kutsu prestuagoa eman nahirik, hiztegiaren erdia solasetik baztertu zuten erabat, eta, horrenbestez, sarritan jo behar izaten zuten frantsesera hitz bila; frantsesez mintzatzen zirenean, ordea, bestela jokatzeko zuten: errusierazko haiek baino askoz ere hitz gordinagoak erabiltzen zituzten orduan. Eta hori da, gaingiroki bada ere, N hiriko damei buruz esan dezakegun guztia. Sakonago aztertuko bagenitu, jakina, beste ezaugarri asko aurkituko genituzke; baina oso arriskutsua da emakumezkoen bihotzaren sakonean arakatzea. Eta orain, azaleko potret hori amaitu dugularik, egin dezagun aurrera.

Ordu arte, damek gutxi hitz egiten zuten Txitxi-kovi buruz, nahiz eta, hori bai, merezi bezalako erantzuna ematen zieten haren manera atsegi-nei; baina milioiduna zelako zurrumurrua zabaldu zenean, beste era batera jokatzeko hasi ziren. Nolanahi ere, damak ez ziren ondasun-egarri; «milioidun» hitzak kilikatzen zituen, ez milioidunak berak, hitzak baizik; zeren hitz horren doinuak, dirutza gogorarazteaz batera, beste zer-baiten oihartzuna ere badakar berekin, eta beste zer-bait horrek eragina du gizaki ororengan, hala zekenengan, nola ez ur ez ardo direnengan, nola bihotz handikoengan. Milioidunak badu abantaila handi bat: begietsi ahal du batere gutziarik gabeko doilortasun hutsa, inongo kalkulutan oinarritzen ez den doilortasun hori. Askok oso ondo dakite ez dutela ezertxo ere jasoko milioidunarengandik eta ez dutela inolako eskubiderik ezer jasotzeko, baina, hori jakinik ere, milioidunarengana jotzen dute, irribarre egiten diote, kapelua erantzten dute haren aurrean eta, hala-ko bazkarira joango dela jakinez gero, gogotik eskatzen dute bazkari horretara gonbida ditzate-la. Ezin esan daiteke hiriko damak ere doilorta-

sunerako malda leun horretan behera irristatzen zirenik, baina, hala eta guztiz, areto askotan esaten hasi ziren Txitxikov ez zela inondik ere munduko gizonik ederrena, baina bai behar bezalako gizasemea, eta kalterako lukeela pixka bat lodiagoa edo sendoagoa izatea. Bidenabar, gauza iraingarri samarrak esan zituzten gizon argalei buruz: besteak beste, ez zirela gizakiak, zotza-
ren antzeko zerbait baizik. Jantziak denetariko osagarriz dotoretzeari ekin zioten damek. Tropic-
lean eta bultzaka sartzen ziren saltokietan, mukuru betetzen zituzten dendak, eta kotxeek
ilara amaigabeak osatzen zituzten, hain ziren ugariak. Saltzaileak harri eta zur zeuden, ikusirik
nola begien itxi-ireki batean agortzen zitzaizkien azokatik ekarritako oihal-zati batzuk, ordu arte
dendatik mugitu ez zirenak bezeroek garestiegi zeritzetelako. Behin batean, dama batek hain
merinake zabala eraman zuen mezarara soinekoaren azpian, ezen soinekoak eliza erdia bete-
tzen baitzuen, eta barrutiko poliziaburuak, hantxe baitzegoen, herritarrei agindu zien atzerantz
joateko, elizatarirantz alegia, hain emakume prestuaren jantzia zimur ez zezaten. Txitxikovek

berak, ezinbestean, beraren alderako hain arreta handia nabaritu zuen noizbait. Egun batean, ostatuko gelara itzuli zelarik, eskutitz bat aurkitu zuen mahai gainean; ezin izan zuen jakin nork eta nondik bidali zion; ostatuko morroiak azaldu zionez, eskutitza ekarri zuenak egilea nor zen ez esateko agindua zeukan. Erabakitasun handiz hasten zen eskutitza, honela hain zuzen ere: «Idatzi egin behar dizut ezinbestean!». Aurrerago zioen elkarrenganako atxikimendu ezkutuko batek lotzen zituela bien arimak; puntu batzuek eusten zioten egia horri, ia lerro erdia betez; gero, hainbat gogoeta zeuden, hain gogoangarriak beren zuzentasunarengatik, ezen ia ezinbestekotzat jotzen baitugu hona aldatzea: «Zer da gure bizitza? Haran bat gure nahigabeen babesleku bihurtua. Zer da mundua? Jendetza handi bat ezer sentitzen ez duena». Horren ondotik, gutunaren idazleak aipatzen zuen hogeita bost urte joanak zirela bere ama laztanak mundu honetako aldia egin zuenetik, eta malkoz bustitzen ari zela hark idatziriko lerroak; hiria betiko utzi eta basamortura erretiratzeko gonbita egiten zion gero Txitxikovi, zeren, hirian,

aireari igarobiderik uzten ez dioten hesi itogarriz inguraturik bizi baita jendea; gutunak etsipen erabateko baten aitorpena zekarren amaieran, eta bertso hauekin bukatzen zen:

*Erakutsiko dizute bi usapalek
nire hilobi ospela,
adieraziko dizute haien urrumek
negar-malkotan urturik hil nintzela.*

Bertsoaren azken lerroa txarto neurturik zegoen, baina horrek ez zuen inolako garrantzirik: eskutitza garaiko izaeraren arragoan taxuturik zegoen. Ez zegoen inolako sinadurarik, ez ize-nik eta ez deiturarik. Datarik ere ez zegoen, ez egunik eta ez hilabeterik. Postscriptum labur batek soil-soilik zioen Txitxikoven bihotzak igarri beharko zuela nor zen egilea, zeina biharamunean gobernadorearen etxean egitekoa zen dantzaldira joango baitzen.

Eskutitzak jakinmin handia piztu zion Txitxikovi. Hain iritzi zion xarmagarri eta kitzikatzaille anonimoari, ezen gogo biziz irakurri baitzuen bigarren aldiz, baita hirugarrenez ere, eta azke-

nean esan zuen: «Gustatuko litzaidakek jakitea nork idatzi duen!». Hitz batean, bazirudien kontu hura ez zela txantxetakoa. Txitxikov ordu bete baino gehiago egon zen horretan pentsatzen, eta azkenean, besoak zabalik eta burua makurturik, esan zuen: «Idazkera oso bilatua duk, oso bilatua». Esan gabe doa gutuna kiribildu eta kutxan gorde zuela, afixa baten aldamenean eta leku eta posizio berean zazpi urte zeramatzan ezkon-gonbidapen batetik hurbil. Geroxeago, gobernadorearen etxeko dantzaldirako gonbidapena ekarri zioten. Guztiz ohikoa izaten da hori probintzi hiribiruetan: gobernadoreek dantza-saioak antolatzen dituzte beti, bestela ez lukete eta aitoren semeen begikotasun eta begirunea irabaziko.

Txitxikovek, beste zeregin guztiak bertan behera utzirik, buru-belarri ekin zien dantzaldirako prestamenei, zeren, izan ere, pisu handiko arrazoiak baitzituen horretarako. Inondik ere, mundua sortu zenetik inork ez du hain denbora luzea eman txukuntze-lanetan. Ordu bete egon zen ispiluaren aurrean bere aurpegia aztertzen. Espresio desberdinak saiatu zituen: serioa eta

zorrotza, adeitasunezkoa irribarre xume batekin, adeitasunezkoa irribarrerik gabe. Askotariko diosalak egin zizkion ispiluari, frantsesaren nolabaiteko antza zuten hotsak ateraz aldi berean, nahiz eta tutik ere ez zekien frantsesez. Harridurazko imintzio atseginak ere egin zizkion bere buruari, bekainak apur bat jasoz, ezpainak bereiziz, eta mihiarekin ere halako keinu bereziak egin ez. Zer ez duen egiten gizabanako batek bakkarik dagoenean, polita dela nabariturik eta ziur egonik ez daukala inor ateko zirritutik begira! Azkenik, leunki laztandu zuen kokotsa, esanez: «Polit hori!»; eta janzten hasi zen. Aldarte ezin hobea izan zuen lagun janzten egon zen bitarte guztian: tiranteak ondo ipintzen edo gorbataren korapiloa lotzen ari zela, belauna tolestu, soina makurtu, eta kilimusi egin zuen zalutasun handiz, eta, dantzan inoiz egiten ez bazuen ere, *entrechat* bat markatu zuen. Istripu txiki bat gertatu zen dantza-jauzi horren ondorioz: komoda dardaraka hasi zen eta mahai gainean zegoen eskuila lurrera erori zen.

Dantzaldian agertu zenean, zoratzerainoko baraila sortu zen. Bertantxe inguratu zuten hara

bilduriko guztiek; batek kartak zeuzkan eskuan, beste batek bere jarduna eten zuen unerik interresgarrienean, honela zioenean hain zuzen ere: «eta zemstvoko epaileak zera erantzun zuen...», eta inork ez zuen jakin zer erantzun zuen zemstvoko epaileak, zeren hori azaltzen ari zena lasterka joan baitzen gure protagonista agurtzera. «Pavel Ivanovitx! Jainkoarren, Pavel Ivanovitx! Pavel Ivanovitx maitea! Ongi etorri, Pavel Ivanovitx jaun txit agurgarria! Pavel Ivanovitx, nire lagun bihotzekoa! Hemen zaitugu azkenik, Pavel Ivanovitx! Hona hemen gure Pavel Ivanovitx! Ekarri bosteko hori, Pavel Ivanovitx! Ekar ezazue hona, besarkada handia eman nahi diot Pavel Ivanovitx jaun prestuari!» Hainbat lagunek aldi berean besarkaturik sentitu zen Txitxikov. Gamberaburuaren besoetatik askatu bezain azkar, poliziaburuaren besoetan erori zen, poliziaburuak osasun-batzordeko ikuskatzailearen besoetan utzi zuen, osasun-batzordeko ikuskatzaileak zerga-biltzailearenetan, zerga-biltzaileak udal-arkitektoarenetan... Gobernadorea, une horretan, dama batzuekin zegoen, esku batean gozoki-paper bat eta bestean ur-zakur bat zeukala,

eta, Txitxikov ikusi bezain laster, lurrera bota zituen hala gozoki-papera nola ur-zakurra, eta hortxe hasi zen zakurtxoa negar-intzirika; hitz batean, ohiz kanpoko poza eta alaitasuna barreiatu zuen. Ez zen aurpegiarik bozkarioa adierazten ez zuenik, edo, behinik behin, guztiez jabetu zen bozkarioa islatzen ez zuenik. Funtzionarioen aurpegiak ere horrelako bozkarioa erakutsi ohi dute zuzendari izendatu berria bulegoak lehen aldiz ikuskatzera joaten denean: hasierako ikaraldia gairak, konturatzen dira gauza asko atsegin izan zaizkiola, eta azkenean zuzendaria bera txantxetan hasten da, hau da, ironiazko irribarre gozoa eginez esaten dizkie hitz batzuk. Horri erantzuteko, barre-algaraka hasten zaizkio hurbilen dauzkan funtzionarioak; gogotik barre egiten dute urruntxeago daudenean, nahiz eta ez dituzten oso ondo entzun haren hitzak; eta, azkenik, erreflexuaren lege aldaezinen eraginez, irribarre txikia osatzen du sarrerako atean dagoen poliziak berak ere, nahiz eta bere bizitza osoan sekula irribarrerik egin gabea izan eta herritarrei ukabila erakutsi besterik ez duen egin; poliziaren irribarretxoak, hala ere,

sudurretik tabako bizia hartutakoan usin egiteko zorian dagoenaren keinuaren antza du irribarrearena baino gehiago. Gure protagonistak guztiei eta bakoitzari erantzuten zien, gorputzean zalutasun ezohikoa sumatzen zuela. Burumakurtuak egiten zituen ezkerretara eta eskuintetara, apur bat okerturik —beti bezala—, baina hain trebeki, ezen liluraturik utzi baitzituen denak. Damek berehala setiatu zuten, girlanda distiratsua bailiran, eta mota guztietako perfumez osaturiko urrin-hodeiak helarazi zizkioten: batek arrosa-usaina zuen, beste bati udaberriaren eta bioleten urrina zerion, hirugarren bat hereze-usainez perfumaturik zegoen goitik beheraino; Txitxikovek, sudurra jasorik, usain egiten zuen behin eta berriro. Damen janzkerak gusturik onena agertzen zuen: muselinak, sateak eta gazak garai hartan moda-modan zeuden kolore margul horietakoak ziren; zaila zen benetan halako koloreei izena ematea (horraino erama zuten gustuaren fintasuna!). Xingolak, begiztak eta lore-sortak ageri ziren hor-hemenka soinekoetan hegabanaturik, anabasa zinez ikusgarrian; hain anabasa handia, ordea, dama

haien buruek eginiko lan arretatsuaren emaitza zen. Bazen buruko arin bat belarrietan leunki pausatua, eta bazirudien honela zioela: «Kasu! Hegaz joango naun; tamalez, ezin haut nirekin eramán, eder hori!». Gerriak ondo estaturik zeuden eta formarik trinkoenak eta begi-gozagarrienak zituzten (oharrarazi beharra dago N hiriko dama guztiak lodi samarrak zirela, baina hain trebetasun handiz estutzen zuten gerria eta hain zuten liraina ibilera, ezen ez baitzegoen haien gizentasuna nabaritzetik). Ezohiko doitasunez pentsaturik eta aurreikusirik zeukaten dena; lepoa eta besaburuak behar adina soilik zeuden agerian, ez gehiago; norberak bazekien non zegoen gizonezkoaren galbidearen ataria, eta horraino iristen zen soin-atalen biluztasuna; gainerako guztia gustu ezin hobez gorderik zegoen: batek gorbatatxo arina zeraman; beste bati txairoki biltzen zion lepoa zapi mehe batek, «musuak» deritzen gozopil horiek bezain arina; hirugarren batek, berriz, batista finezko farfail koxkatxodunak zeramatzan sorbaldetan, soinekoaren goiko ertzaren azpitik irtenda. Farfail horiek —zeinei «diskrezioak» baiteritze— aurre-

tik eta atzetik ezkututzen zuten horrela gorderik gizonaren galbidea ezin ekar zezakeena, nahiz eta hain zuzen ere galbidea hortxe zegoela susmarazten zuten. Eskularru luzeak ez ziren mahuketaraino bertaraino iristen: berariaz uzten zuten agerian besoaren atalik kitzikagarriena — ukondotik gorakoa alegia—, eta beso-atal horrek mardultasun desiragarria erakusten zuen dama askorengan. Zenbaitek, tenkatuaren tenkatuaz, urraturik zeuzkaten antxume-larruzko eskuzorroak. Hitz batean, bazirudien hau zeramala denak idatzirik: «Ez, ez gaude probintzietan, hau hiriburua da, Paris bera!». Noizean behin soilik, hor edo han agertzen zen, bat-batean, Lurrean sekula ikusi ez bezalako buruko bat, edo paumaluma bat, moda guztien kontrakoa baina eramailaren gustukoa. Halabeharrezkoa zen hori, halaxe gertatzen baita probintzi hiriburu guztietan: nondik edo handik, soka eten egiten da beti. Txitxikovek, damen erdian zutik, honela zioen bere kolkorako: «Hauetako zeinek idatzi ote dit eskutitza?», eta sudurra ateratzen zuen haien artetik. Baina sudurrak topo egiten zuen ukondoan, mahukaburuz, mahukaz, xingola-muturrez,

atorraz eta soineko urrintsuz osaturiko hesi batekin. *Galop* baten lehen notak entzun ziren, eta bertantxe aienatu zen dena: poliziaburuaren emaztea, polizi kapitaina, luma urdineko dama, luma zuriko dama, Txipkhaikhilidzev printze georgiarra, Petersburgeko funtzionarioa, Mosku-ko funtzionarioa, Coucou frantziarra, Perkhunovski jauna, Berebendovski jauna... arrapaladan joan ziren denak.

«Horra nola jostatzen diren probintzietan!», esan zuen Txitxikovek bere artean, atzera eginenez, eta, damak sakabanatu zirenean, berriro arakatu zituen begiradaz, aurpegiaren edo begien espresioan eskutitza nork idatzi zion igarriko ote zien; baina ezin izan zuen inola ere igarri nor zen egilea, ez aurpegiaren espresioan eta ez begien espresioan. Begitarte orotan kausitu zuen zer edo zer, baina hain zen atzemangaitza, hain iheskorra, hain gordea eta xehea!... «Ez — esan zuen bere kolkorako—, emakumeak izaki bereziak dituk...» Eskuari eragin zion. «Alferrik duk haietaz hitz egitea! Saia hadi ulertzen haien aurpegietan azaltzen diren keinu, aieru eta ximur horien guztien esanhaia: ez duk tutik uler-

tuko. Haien begiak soilik erresuma amaigabea dituk, eta hor barneratzen den gizona arrastorik utzi gabe desagertzen duk! Kako baten laguntzaz ere ez duk hortik barrutik aterako! Saia zaitzte gutxienez haien begien distira deskribatzen: hezea duk, beluskara, eztitsua; haien jainkoak zekik nolakoa den!, latza duk, eta samurra, eta guztiz ilauna, edo, beste batzuek diotenez, zoragarria, edo ez duk zoragarria, zoragarria baino askoz gehiago baizik; begi-distira horrek bihotzetik heltzen badik, arimaren barreneraino sartuko zaik gezi baten antzera. Ez, ez duk emakumezkoentzako hitz egokirik aurkituko: gizadiaren erdi xarmanta dituk, eta kito!»

Barkatu! Dirudienez, kaleko hitz bat jalgi da gure protagonistaren ahotik. Zer egingo diogu! Horixe da Ruseko idazle on egoera! Kaleko hitz bat sartu zaigu liburuan, baina idazleak ez du horren errurik, irakurleak dira errudunak, goigizarteko irakurleak bereziki: inoiz ez diezu entzungo errusierazko hitz bat bera ere taxuz ahoskaturik; ugari erabiltzen dituzte, ordea, frantsesezkoak, alemanierazkoak eta ingelesezkoak, eta, gainera, zorrotz betetzen dituzte fone-

tikaren arau guzti-guztiak: frantsesez, totalka eta sudur-mintzoz hitz egiten dute; ingelesez, berriz, txorien doinua antzeratzen dute, eta fisio-nomiaz ere txori bihurtzen dira, eta, gainera, barre egiten dute txori-fisionomia hartzeko gai ez direnen lepotik; baina ez dute errusiar jokatzen, nahiz eta abertzaletasunak eraginik Errusiako estiloaren araberako izba bat eraikitzen duten, nork bere datxan. Horrelakoak dira goi-mailako irakurleak, eta haien atzetik datoz beren burua goi-mailakotzat jotzen dutenak! Eta, hala ere, nolako zorroztasuna haiena! Idazki guztietan hizkerarik zehatzena, garbiena eta jasoena erabil dadila eskatzen dute hisituki; hitz batean, nahi dute errusiera hodeietatik haien mihietara zuzenean jaits dadin berez eta behar bezala landurik, haiek ahoa zabaldu eta mihia dantzatu beste lanik ez izateko. Lehenago esan dugunez, ulergaitza da emakumezkoek osatzen duten gizadiaren erdia, baina aitortu beharra dago askoz ulergaitzagoak direla irakurle itzaltsuak.

Eta Txitxikov, bitartean, asmatu ezinik zegoen dama haietako zeinek idatzi zion eskutitza. Begirada zorrozten ahalegindurik, ikusi zuen

nola damen aurpegiek, esperantza pizteaz batera, hilkor errukarriaren bihotzarentzako oinaze gozoak agintzen zituen beste zerbait ere adierazten zuten, eta azkenean esan zuen: «Ez, ezinezkoa duk nor den igartzea!». Horrek, hala ere, ez zion moteldu barnean sentitzen zuen poza. Jariakortasun eta antze handiz, hitz samurrak trukatu zituen dama batzuekin; batengana zein besterengana hurbiltzen zen urrats labur eta lasterrez, edo, esan ohi denez, tipi-tapa, hala nola ibiltzen baitira beren takoi garaien gainean agurtxo modazaleak —hainbatek agure lizunak esaten dieten horiek alegia— damen atzetik agudo dabilzanean. Tipi-tapa hurreratzen zen, bada, batengana zein besterengana; nahikoa malguki ezkerretara eta eskuinetara jiratu, eta, orpoa orpoaren kontra, takateko arina jotzen zuen ointxo batekin, zeinak kakotxa ematen baitzuen, edo letra baten buztantxo laburra. Damak pozarren zeuden berarekin, eta, oso erakargarri eta adeitsu irizteaz gain, halako handientza bat ere atzematen hasi ziren haren aurpegieran, halako gerlari-aire edo militar-itxura bat, zeina, gauza jakina denez, biziki atsegin baitzaie ema-

kumezkoei. Liskar ugari piztu ziren gure protagonistaren kariatz: atletik hurbil egon ohi zela ohar-turik, norlehenka oldartu ziren hainbat dama atletik hurbilen zeuden aukietara, eta haietako batek besteei aurrea hartu eta hori lortzeko zor-tea izan zuenean, gutxiatik ez zen istilu itsusi bat gertatu, eta dama horrek egin zuen gauza bera egiteko irrikaz zeudenetako askok haren jokaera gaitzetsi zuten, neurririk gabeko lotsaga-bekeria iritzirik.

Txitxikov guztiz lanpeturik zegoen damekin hizketan, edo, hobeto esan, damek guztiz lanpe-turik eta zorabiatuak zeukaten beren solasare-kin; alegoriarik bihurrienak eta sotilenak esaten zizkieten, eta Txitxikovek bekokitik izerdia parrastaka isurtzeraino hausnartu behar izaten zuen haien esanahi ezkutukoa. Horren eraginez, ahaztu egin zitzaion aurrena etxekoandrea agur-tzera joatea, gizalegearen arauak agintzen zuten bezala. Ez zen arau horretaz gogoratu goberna-dorearen emaztearen ahotsa entzun zuen arte, eta ordurako baziren hainbat minutu aurrean zeukala. Gobernadorearen emazteak, ahots leun eta maltzur samarrez eta buru-mugimendu lirai-

na eginez, honela esan zion: «Ah! Pavel Ivanovitx, hemen zaitugu...!». Ez naiz zehatz-mehatz oroitzen gobernadorearen emaztearen hitzez, baina xalotasun handiko zerbait esan zuen, gure idazle munduzaleen eleberrietako damek eta jaunek esan ohi dituztenen tankerakoak; idazle horiek oso gogoko dute areto dotoreak deskribatzea, eta harro-harro aldarrikatzen dute badakitelatona tonurik jasoena erabiltzen, honelako esaldiak josiz, adibidez: «Litekeena al da norbait zure bihotzaz hainbestearino jabetu izana, ezen dagoeneko ez baitago lekurik, ezta denik eta zokorik meharrena ere, errukirik gabe ahaztu duzun honentzat?». Gure protagonista gobernadorearen emaztearenganantz jiratu zen berehala, eta, sasoi hartan modan zeuden eleberrietan Zvonski, Linski, Lidin, Gremin eta gainerako militar iaioek esaten zituztenen pareko esaldi biribil batez erantzuteko gertu zegoela, bat-batean begiak jaso, eta geldi-geldirik geratu zen, tximistak jota bezala.

Gobernadorearen emaztea ez zegoen baka-rik: hamasei urte inguruko neska gazte bat zeukan eskutik heldurik. Ilehoria eta liraina zen, haz-

pegi fin eta neurri-neurrikoak zituen, kokots zorrotza, zoragarri biribil aurpegiaren obaltoa, edozein margolarik madonna baten eredutzat hartzeko modukoa, Rusen hain bakanak diren horietakoa, gure herrialde honetan handitasun mugarik gabea nahiago baitute gauza guztiek, hala mendiek, oihanek eta estepek, nola aurpegiak, ezpainen eta oinek. Neskagazte hori bera zen Nozdrioven etxetik itzultzean bidean aurkitu zuena, gidarien edo zaldien zabarkeriarengatik kotxeek hain ustekabean elkarren kontra jo, hedeak erabat nahasi, eta Mitiai eta Miniai zaldiak elkarrengandik bereizten saiatu ziren hartan. Hain zegoen nahasirik Txitxikov, ezen ez baitzen gai hitz egiteko ere. Zerbait murduskatu zuen azkenean; deabruak daki zer atera zen haren ahotik, baina horrelako egoera batean Greminek, Zvonskik edo Lidinek esango zituzten hitzen antzik batere ez zuen.

— Oraindik ez duzu nire alaba ezagutzen? — galdetu zion gobernadorearen emazteak—. Amaitu berriak ditu institutuko ikasketak.

Txitxikovek erantzun zuen ordurako izana zuela, ezustean, haren ezaupidea egiteko zorio-

na; zerbait gehiago esaten ahalegindu zen, baina ez zitzaion ezer atera. Gobernadorearen emaztea, bizpahiru hitz esan, eta alabarekin joan zen aretoaren beste muturrera, beste gonbidatu batzuegana, eta Txitxikov hortxe geratu zen, oinak lurrari josirik, hala nola geratzen baita oinezko bat kale erdian geldi-geldirik bat-batean susmatzen duenean zer edo zer ahaztu zaiola etxean. Delako oinezko hori alaitu irten da kalera, osteratxo bat egiteko asmoz eta lasai asko gauzei begiratzea beste ardurarik ez duela, eta brastakoan gelditzen da halako batean, zerbait ahaztu zaiolakoan; gizaki horrek une horretan duen itxura baino irudi ergelagorik ez dago: ziplo ezabatu zaio aurpegitik kezka gabetasun guztia; senperrenak egiten ditu zer ahaztu zaion gogoratzeko: sudur-zapia, beharbada?, baina salekan dauka sudur-zapia; dirua?, baina dirua ere sake-lan dago; antza, dena darama aldean, baina mintzo misteriotsu batek belarrira xuxurlatzen dio zerbait ahaztu zaiola; eta nahasirik eta durduzaturik so egiten dio kalean dabilen jendeari, ziztu bizian igarotzen diren kotxeei, errejimentu bateko soldaduen buru-babes eta fusilei, dendetako

iragarkiei..., begiratu bai, baina ez dakusa ezer. Bada, halaxe geratu zen Txitxikov ere tupustean, inguruan gertatzen zen guztiarekiko arrotz. Bitartean, damen aho urrintsuetatik mota guztietako iradokizunak eta galderak iristen zitzaizkion, sotiltasunez eta adeitasunez mukuru beteak. «Zilegi genuke guk, Lurreko biztanle errukarriok, lotsagabeki galdetzea zer duzun amets?» «Zein leku zorionekotan dabilta hegaz zure gogoetak?» «Jakin genezake pentsamenduharan gozo horretan murgidu zaituenaren izena?» Baina Txitxikovek batere jaramonik egin gabe erantzuten zien guztiei, eta oihartzunik utzi gabe desagertzen ziren haien esaldi atseginak. Are jokabide zakarragoa erakutsiz, berehala alde egin zuen haiengandik aretoaren beste muturrea, gobernadorearen emaztea eta alaba nora joan ote ziren jakiteko irrikaz. Baina damek, antza, ez zuten hain goiz bakean uzteko asmorik; nork bere baitan, denek erabakia zuten norberaren alderdirik onenak jardunean jartzea eta mota guztietako armak erabiltzea —gizonezkoon bihotzarentzat hain arriskutsuak diren arma horiek alegia. Oharrarazi beharra dago ezen zen-

bait damak —zenbait esan dut, ez guztiak— argalgune txiki bat zutela: norberaren soin-atalen bati bereziki erakargarri irizten bazioten, zela bekokia, zela ahoa edo besoak, uste izaten zuten denek erreparatuko ziotela fisionomiaren atal eder horri, eta aho batez esango zutela: «Begira, begira nolako sudur greko polita duen!»; edo: «Zein bekoki miresgarri eta ondo egina!». Sorbalda politikak zituena aldeaz aurretik ziur zegoen gizon gazte guztiak zeharo txoraturik geratuko zirela, eta aldamentetik igarotzean honela mintzatuko zirela denak batera: «Ai, zein zoragarriak diren sorbalda horiek!»; eta aurpegiari, ileari, sudurrari edo bekokiari begiratu ere ez zietela egingo, eta, begiraturik ere, osagarritzat hartuko lituzketela. Horrela pentsatzen zuten zenbait damak. Dama bakoitzak bere baitan zin egina zuen ahalik eta modurik xarmagarrienean jokatuko zuela dantzaldian, eta bere distira guztian erakutsiko zuela bere alderdirik bikainenaren gailentasuna. Postaburuaren emazteak, balsean ari zela, hain ahulezia handiz apaldu zuen albo baterantz burua, ezen naturaz gaindiko zerbait sumatzen baitzen airean. Bazen dama bat —oso

maitagarria bera— dantza egiteko asmorik gabe azaldu zena gobernadorearen etxera, zeren eta, berak azaldu zuenez, orezta-moduko *incomodité* txiki batzuk agertu baitzitzaizkion eskuineko oinean, eta, horrek beharturik, kotoi belusatuzko botak janzte besterik irtenbiderik ez zuen izan, baina, guztiarekin ere, ezin eutsi dantza egiteko gogoari, eta, kotoi belusatuzko bota eta guzti, itzuli batzuk egin zituen, zertarako eta postaburuaren emazteak pentsa ez zezan bera zela dantzaldiko erregina.

Baina horrek guztiak ez zuen uste bezalako eraginik izan Txixikovengan. Begiratu ere ez zien egiten damen joan-etorriei, baina behin eta berriro aupatzen zuen gorputza oin-puntetan buruen gainetik ikusteko non ote zen bere ilehori xarmagarria; kukubilko ere jarri zen, sorbalda eta bizkar artetik arakatzeko; eta, bila eta bila ariturik, aurkitu egin zuen azkenean, bazter batean eseririk. Ama zeukan aldamenean, Ekialdeko turbante lumadun bat arrandiro kulunkatzen zitzaiola buru gainean. Zela udaberriko giroak odola berotu ziolako, zela atzetik bultzatu zutelako, kontua da erabakitasunez jo zuela

aurrerantz, jende artean igarobidea urratuz eta ezeri erreparatu gabe, gotorleku bat indarrez hartzera doan gerlariaren antzera; zerga-biltzai-leak hain astindu handia hartu zuen berarengandik, ezen erortzear egon baitzen, baina, zorionez, gorputzari hanka baten gainean ozta-ozta eustea lortu zuen, zeren bestela ilara oso bat eramango baitzuen berekin lurrera; postaburuak ere atzera egin behar izan zuen, eta bekoz beko begiratu zion, harriturik eta ironia mehe batez aldi berean; Txitxikovek, ordea, begiratu ere ez zien egin haiei; ilehoria besterik ez zekusan han urrun, eskularru luzeak janzten eta, inondik ere, zurezko zoruaren gainean hegaz hasteko irrikaz. Lau bikote mazurka dantzatzen ari ziren haren-gandik oso hurbil; dantzarien takoiek gogor zapaltzen zuten zorua, eta armadako kapitainorde batek soin eta muin eragiten zien besoei eta hankei, ametsetan ere inork lortuko ez lukeen pauso bat markatzeko ahalegin biziak eginez. Txitxikov mazurka dantzatzen ari zirenen artean igaro zen bizkor, haien takoiak ia ukituz eta gobernadorearen emaztea eta alaba eseririk zeuden tokirantz zuzen-zuzen. Nolanahi ere,

herabetasun handiz hurbildu zitzaien, urratsen bizitasun eta dotoretasun guztia galdurik eta apur bat aztoraturik, mugimendu guztietan halako baldartasuna erakusten zuela.

Ezin ziurtasunez esan maitasunezko sentimendurik ernatua ote zen gure protagonistaren baitan; zalantzazkoa da maitasunerako gai ote diren mota horretako jaunak —ez lodien sailean eta ez argalenean sartzen ez diren horiek alegia. Zalantzak zalantza, kontua da Txitxikovek zerbait berezia sentitzen zuela barnean, zerbait bitxia eta ezohikoa, gure protagonistak berak ere ezin azalduzkoa: gerora aitortu zuenez, iruditu zitzaion ezen tartetxo labur batez dantzaldi osoa berarengandik urrundu zela bere barbaro eta ardailarekin; bazirudien biolin eta tronpetek mendi baten beste aldetik jotzen zutela, eta laino mehe batek biltzen zuela dena, margolan batean zirriborraturiko zelaia bailitzan. Eta, zelai lanbrotsu horren zirriborroan, ilehori erakargarriaren marra finak soilik ageri ziren argi eta osorik pintaturik: aurpegitxoaren obalo biribila, gerri mehea —institutuko ikasketak amaitu ondorengo lehen hilabeteetan neskagazte guztiek izan

ohi dutenaren berdina— eta soineko zuri eta ia arrunta, zeinak txairoki eta leunki biltzen baitzuen alde guztietatik neskaren gorputz gazte eta liraina, haren atalak garbi nabarmenduz. Neskaren irudiak marfilean maisutasunez landuriko jostailu baten antza zuen; bera bakarrik ageri zen zuri, garden eta distiratsu jendetza uher eta goibel haren erdian.

Agidanez, halaxe gertatu ohi da munduan; agidanez, Txitxikovak ere poeta bihur daitezke lipar batez. Baina, aukeran, gehiegizkoa dateke «poeta» hitza; behinik behin, gazte-gazte sentitu zen une batez, husarra ia. Ama-alaben aldamenean aulki bat hutsik ikusi, eta hantxe eseri zen berehala. Txarto hasi zen elkarrizketa, baina onera egin zuen apurka-apurka, eta Txitxikov kemena berreskuratzen hasi zen..., baina, hona iritsirik, atsekabe handiz oharrarazi beharra daukagu ezen garrantzi handiko karguak dituen jendea —hain baita serioa— astun samarra izan ohi dela damekiko solasetan; jaun tenienteak eta, oro har, kapitainetik gora igo ez direnak ditugu solasean maisu. Haien jainkoak daki nola moldatzen diren: ematen du ez dutela ohiz kanpoko

ezer esaten, baina neska gazteak barrez leher-
tzen dira haiekin; Jainkoak ondo asko daki,
ordea, zertaz aritzen diren estatu-kontseilariak:
edo Errusia zein erresuma zabala den kontatzen
dute, edo konplimenduren bat esaten dute, ez
gatzik gabea baina liburu-usain nabarmenegi-
koa; eta zer edo zer barregarria esaten badute,
entzuleak baino askoz ere barre handiagoak egi-
ten dituzte eurek. Azalpentxo hori tartekatu
dugu irakurleak uler dezan zergatik hasi zen
aharrausika ilehoria Txitxikov hizketan ari
zitzaien bitartean. Gure protagonista, dena dela,
ez zen horretaz ohartu, eta denetariko gauza
atseginak kontzatzten zizkion. Lehenago ere,
horren antzeko egoeretan, makina bat bider
kontatuak zituen gauza horiek berberak hainbat
lekutan, hala nola Simbirsk-eko probintzian
Sofron Ivanovitx Biespetxni-renean, lurjabeak
etxean zituela alaba Adelaida Sofronovna eta
haren hiru ezkon-ahizpak: Maria Gavrilovna,
Aleksandra Gavrilovna eta Adelgeida Gavrilovna;
Fiodor Fiodorovitx Perekroiev-en etxean, Riazan-
go probintzian; Frola Vasilievitx Pobiedonosni-
ren etxean, Penza-ko probintzian, eta haren

anaia Piotr Vasilievitx-enean, zeinak berekin baitzituen ezkon-arreba Katerina Mikhailovna eta ezkon-arrebaren bestengusinak (Rosa Fiodorovna eta Emilia Fiodorovna); Viatka-ko probintzian Piotr Varsonofievitx-en etxean, haren ezkon-arrebaren ahizpa Pelageia Jegorovna bertan zela bere loba Sofia Rostislavna-rekin eta bere ugazahizpa Sofia Aleksandrovna eta Maklatura Aleksandrovna-rekin.

Damei ez zitzaien batere gustatu Txitxikoven jokabidea. Haietako bat berariaz igaro zen harengandik hurbil, horretaz jabearazteko, eta, bestela bezala, azaletik ukitu zuen ilehoria bere soinekoaren azpiko merinake zabalaz, eta hain biziki erabili zuen sorbalden inguruan bildurik zeraman zapi arina, ezen neskaren aurpegia jo baitzuen mutur batez; aldi berean, Txitxikoven atzean, oharpen garratz eta mingarri samarra jalgi zen, bioleta-urrinarekin batera, beste dama baten ahotik. Txitxikovek, edo benetan ez zuen entzun, edo ez entzunarena egin zuen; edonola ere, oker jokatu zuen: kontuan hartu behar dira beti damen iritziak. Damutuko zitzaion hori, baina geroago, jadanik berandu zela.

Haserrea agertu zen aurpegi askotan. Edonondik begiratuta ere, arrazoizkoa zen damen sumindura. Nahiz eta Txitxikovek itzal handia izan gizartean, nahiz eta milioiduna izan eta aurpegieran handientza eta halako gerlari-aire edo militar-itxura bat erakutsi, badira gauza batzuk damek inortxori barkatzen ez dizkiotenak, eta ataka horretan sartu dena, edonor dela ere, ziur egon daiteke bereak egin duela. Emakumea, gizonarekin alderaturik beratza eta nortasun ahulekoa izanik ere, egoera jakin batzuetan gizona baino indartsuago bilakatzen da bat-batean, munduan den edozer baino sendoago. Txitxikovek ia nahi gabe eginiko destainak berriro adiskidetu zituen damak, ia etsaiturik baitzeuden ate ondoko aulkiaz jabetzeko lehia gertatu zenetik. Ziri mingarritzat hartu zituzten Txitxikovek pentsatu gabe esaniko hitz zakar eta lehor batzuk. Hori asko ez zela, zorigaitza zorigaitzaren gainera, mutilgazteren batek bertso satiriko batzuk egin zituen, dantzariak trufa-gaitzat harturik. Mundu guztiak dakienez, ohitura izaten da hori probintzietako dantzaldi guztietan, baina damek Txitxikovi egotzi zizkioten bertso haiek ere.

Haserrea gero eta biziagoa zen, eta damak haren kontra hitz egiten hasi ziren bazterretan, oso modu itsusian gainera. Jai zeukan institutuko ikasle ohi dohakabeak ere, emana zen haren epaia.

Eta, bitartean, oso ustekabe gogaikarria zetorkion gainera gure protagonistari: ilehoria aharrausika eta bera garai desberdinetan gertaturiko pasadizoak kontatzen ari zela —nor eta Diogenes filosofo grekoa ere aipatu zion—, Nozdriov sartu zen aldameneko gela batetik. Ez dakigu buffetetik irten berria zen edo whistean ohi baino diru-alde handiagoak jokatzeko ziren gelatxo berde batetik, ez dakigu nahita alde egin zuen edo indarrez kanporatu zuten, baina, hori bai, pozik eta alaitsu zetorren, prokuradorea besotik heldurik zekarrela. Itxuraz, denbora luzea zen berekin zeramala batetik bestera arrastaka, zeren prokuradore gizagaixoak alde guztietara jiratzen baitzituen bere bekain ile-sarriak, hain bidelagun amultsutik libratzeko modua aurkitu nahirik. Izan ere, jasanezina zen benetan. Nozdriovek bi katilu te edan zituen —ez ronik gabeak, jakina—, eta, txolindurik, denetari-

ko ergelkeriak botatzen zituen bata bestearen atzetik. Urrunetik ikusi zuenetik, Txitxikovek erabakita zeukan sakrifizio benetan handia egitea, hau da, bere leku irrikagarri hura utzi eta ahalik lasterren urrundu handik, bestearekin elkartzeak ez zion-eta ezer onik ekarriko. Baina, zoritxarrez, une horretantxe gobernadorea inguratu zitzaion, pozaren pozez Pavel Ivanovitx aurkitu zuelako, eta, geldiarazirik, emakumezkoen amodioaren iraunkortasunari buruz bi damekin zuen eztabaidan epaile jarduteko eskatu zion. Nozdriovek ikusia zuen ordurako, eta zuzen zihoan berarenganantz.

— Horratx! Khersongo lurjabea, Khersongo lurjabea! —egin zuen oihu, barrezka hurbiltzeaz batera, bere masaila guri udaberriko arrosa bezain gorriak dardaraka ari zitzaizkiola barre-zantzoen eraginez—. Zer?, hil asko erosi duk? Berorren Gorentasunak oraindik ez daki zer erosten duen honek? —esan zion garrasi batean gobernadoreari—. Arima hilak, alajaina! Aizak, Txitxikov, entzun, adiskide gisa ari nauk-eta, zeren hemen denok gaituk adiskide, hemen duk

Bere Gorentasuna bera ere; entzun, badakik zer egingo niakeen nik hiri? Urkatu! Horixe, urkatu!

Txitxikovek ez zekien non sartu.

— Bai, Berorren Gorentasuna, halaxe da — ekin zion berriro Nozdriovek—. Zera esan zidan: «Salduko zenizkidake arima hilak?». Eta ni barrez lehertu nintzen hori entzun nuenean. Hona iristean esan didate hiru milioi errubloren nekazariak erosi dituela beste probintzia batera eramateko. Zer eramango du, gero? Niri, hilak erosi nahi zizkidan. Entzun, Txitxikov, astakilo hutsa haiz, bai horixe, astakilo hutsa; ez da hala, prokuradore jauna?

Baina prokuradoreak eta Txitxikovek eta gobernadoreak berak ere ez zekiten zer erantzun, hain zeuden nahasirik. Eta bitartean, Nozdriovek, solaskideei batere jaramonik egin gabe, aurrera jarraitzen zuen bere mozkor-jardunarekin:

— Adiskidea, hi, hi... zera, ez nauk hire partik kenduko arima hilak zertarako erosi dituan jakin arte. Aizak, Txitxikov, hirea lotsagarria duk benetan, ondo asko dakik ez duala ni baino adiskide hoberik. Ez da hala, prokuradore jauna?

Berorren Gorentasunak ez luke sinetsiko zein lagun handiak garen. Oraintxe esango balu..., zera, ni bertan nagok eta oraintxe bertan Bere Gorentasunak esango balit: «Nozdriov! Esadak egia, nor maite duk gehiago, aita ala Txitxikov?»; nik zera erantzugo nioke birritan pentsatu gabe: «Txitxikov!», bai alajaina!... Hator hona, adiskidea, musu bat emango diat eta. Baimena eskatzen diot Berorren Gorentasunari lagun honi musu bat emateko. Bai, Txitxikov, ez kontrarik egin, uztak musu bat ematen hire masaila horretan, elurra bezain zuria duk eta!

Musua ematera zihoala, Nozdriovek hain bulzakada bortitza hartu zuen Txitxikovengandik, non gutxigatik ez baitzen lurrera erori. Berarengandik urrundu ziren denak, eta ez zioten gehiago entzun. Baina nola arima hilak erosi zituelakoa eztarria hautsi beharrean eta barre-algara ezinago ozenez lagundurik esan zuen, bada, guztien arreta erakarri zuen, baita aretoko bazterrik urrunenetan zeudenena ere. Hain albiste harrigarriak zur eta lur utzi zituen denak, aho zabalik eta galdera-imintzio ergela aurpegian. Txitxikov ohartu zen dama askok irrikaitz mal-

tzurrez begiratu ziotela elkarri eta halako espresio zimarditsu bat agertu zela aurpegi batzuetan, eta horrek barneko nahasmendua areagotuzion. Mundu guztiak zekien Nozdriov gezurti porrokatua zela, eta, halatan, ez zen harritzekoa haren ahotan zentzugabekeriarik handienak entzutea; baina benetan zail da ulertzen nola dauden eginik hilkorrak: batek albiste bat entzun, eta, bakarrik albiste delako, beste hilkor batengana joko du berehala kontu horrekin, hau esateko besterik ez bada ere: «Entzun nolako gezurra zabaldu duten!»; eta beste hilkorrak atsegin handiz zorroztuko ditu belarriak, nahiz eta gero bere artean esan: «Bai, gezur biribila duk, ez dik inolako arretarik merezi!»; eta, hori esan bezain laster, hirugarren hilkor baten bila joango da, eta, albistea jakinarazitakoan, haserrikerik zintzoenaz esango dio: «Gezurra galanta!». Eta hiri osoan zabalduko da berehala albistea, eta hilkor guzti-guztiek aspertu arte izango dute hizpide, eta gero aitortuko dute albistek ez duela inolako arretarik merezi eta denbora alferrik galtzea dela horretaz hitz egitea.

Gertakari itxuraz zentzugabe hark zeharo lur jota utzi zuen gure protagonista. Adimen urriko-aren esanak berez ergelak izanagatik, batzuetan aski izaten dira gizon buruargiaren gogoia nahas-teko. Gaitziturik eta ondoezik sentitzen hasi zen Txitxikov, ezustean bere bota garbi-garbiak istil kiratsu, lohitsu batean sartu balitu bezala hain zuzen ere; txarto, alegia, oso txarto! Ahaleginak egin zituen horretan ez pentsatzeko; saiatu zen jostatzen, gogoia barreiatzen; whistean aritu zen, baina kukuak makur jo zion horretan ere: kolorez okertu zen bi aldiz, eta, jokoaren arauak ahaztu-rik, hainbat jokaldi ustel egin zituen. Ganberabu-ruak ezin zuen inola ere ulertu nolatan Txitxiko-vek, joko horretan hain ona eta zuhurra izanik, horrelako hutsak egiten zituen, eta nolatan eskaini zion borrareroaren aizkorari bere errege-pika, zeinarengan, Txitxikovek berak aitortu zue-nez, Jainkoarengan baino uste hobea baitzuen. Jakina, postaburuak, ganberaburuak eta polizia-buruak, ohiturari jarraiki, adarra jotzen zioten, esanez maitemindurik zegoela, begien bistakoa zela bihotza zauriturik zeukala, eta bazekitela nork jaurti zion amodioaren azkon zorrotza. Txi-

txikov, bere aldetik, barre egiten eta txantxetan aritzen ahalegintzen zen, baina, ahaleginak ahalegin, lagunak ziriek ez zuten batere alaitu. Afarian ere ez zen bere onera itzuli, nahiz eta mahaikideak oso atseginak ziren eta Nozdriov aspaldi egotzia zuten aretotik, zeren damak berak azkenean konturatu baitziren haren jokabidea gero eta eskandaluzkoagoa zela. Halako batean, dantza-saioaren erdian, lurrean eseritua zen eta soineko barrenetatik tiraka hasi zitzaien dantzari; damek esan zuten, lehenago sekula ez zen horrelakorik ikusi probintziako dantzaldietan. Afaria oso alaia izan zen; bozkariarik laxoenak argiturik ageri ziren aurpegi guztiak hiru besoko argimutilen, lore-sorten, gozokien eta botilen aurrean. Adeitasun handiz jokatu zuten denek, hala ofizialek, nola damek, nola frakez jantziriko gizonak; gogaikarri ere gertatu ziren melengaren melengaz. Gizonetakoek, jauzi batez aulkitik jaikita, arrapaladan jotzen zuten zerbitzariengana, eta platerak kentzen zizkieten eskuetatik, damei ezohiko trebetasunez eskaintzeko. Koronel batek ezpata biluziaren puntan luzatu zion saltsontzi bat dama bati. Adineko

gizonak —zeinen artean baitzegoen eseririk Txixikov— ozenki eztabaidatzen ziren, oso arrazoi zentzuzkoak emanaz eta hitz bat esatearekin batera arrain-puskatxo bat edo ziapetan oparo bustiriko behiki-zatitxo bat ahoratuz. Gai interesgarriak zituzten hizpide, eta Txixikovek gogo onez parte hartzen zuen beti horrelako eztabaidetan; baina, une horretan, bidaia luze baten ondotik nekeak jota eta leher eginik dagoen eta, halatan, pentsatzeko gai ez den eta ezertarako indarrik ez duen gizonaren antza zuen. Ohi baino askoz goizago erretiratu zen ostatura, afaria amaitu arte ere itxaron gabe.

Han, irakurleak dagoeneko ezagutzen duen gelatxo horretan, komoda aldameneko gelara ematen zuen atearen aurrean oztopo zegoela eta labezomorroak noiz behinka zoko-bazterretan agertzen zirela, gure protagonistaren oldozpenak eta gogo-aldarteak eserlekutzat hartu zuen besaulkia bezain kolokak ziren. Alditxarturik zegoen, egonezinik, hutsune larria sumatzen zuen bihotzean. «Deabruak eramango ahal ditik dantzaldiak asmatu dituztenak! —esan zuen, haserre bizian, bere kolkorako—. Zer dela eta

alaitzen ditu hainbeste tamaina horretako txaxukeria batek? Probintzian uzta txarra, prezioak ikaragarri garesti, eta haiek lasai asko dantzaldiak antolatzen! Zertarako eta emakumeek beren jantziak erakusteko! Bai negargarria! Dama batzuek mila errublo zeramatzatean gainean, arropatan bakarrik! Eta hori guztia nekazariak ordaintzen dizkieten zergen kontura, edo, are okerrago, norberaren kontzientzia salduaren kontura. Gauza jakina duk zergatik jokatzuten kontzientziak agintzen dienaren kontra eta zergatik onartzen dituzten eskupeko diruzikinak: emazteari lepozapia erosteko, edo soinekoak, edo auskalo zer. Eta hori zergatik? Bada, Sidorovna delako maiseatzaileraren batek esan ez dezan postaburuaren emaztearen soinekoa hobea dela; eta, hori gerta ez dadin, mila errublo gastatzen ditiztek kolpe batean. Hor ibiltzen dituk denak oihu batean: "Dantza, dantza, alaitasuna!"; pikutara dantzaldiak, nazkagarriak dituk, ez zetozak bat errusiarron senarekin, errusiarron izaeraren kontrakoak dituk; deabruak zekik zertarako balio duten; gizon heldu bat, adinez nagusia, beltzez jantzia, bat-batean bere

eserlektik altxatu eta hor hasten duk jauzika eta saltoka, deabruak hartu balu bezala, eta, bitartean, aldamenen daukanak gauza garrantzitsuei buruz hitz egiten dik beste batekin, zambuluka eta hankei ezker-eskuin eraginez, ahuntz baten antzera. Eta hori guztia zergatik eta atzerrian egiten dutena itsu-itsuan imitatzeagatik! Bai horixe, imitatzeagatik! Frantzian berrogei urteko gizonak hamabost urteko gaztetxoentzera jokatzeko dutenez, bada guk gauza bera egin behar! Ez, benetan..., bekaturen bat egin bahu bezala sentitzen haiz dantzaldi baten ostean; horretaz oroitzeko gogorik ere ez duk izaten. Hutsik geratzen zaik burua, gizon munduzale batekin hitz egin ondoren bezalaxe: denetarikoz gauzez hitz egin dik, gaingiroki ukitu ditik gai guztiak, liburuetan irakurritako guztia esan dik, hitz ederrez gainera, baina hire buruak ez dik ezer garbirik atera haren berrikeratik, eta gero, beste egun batean, merkataria arrunt batekin hitz egiten duk, bere ogibidea besterik ez dik menderatzen gizon horrek, baina eskarmentu handia dik eta ondo zekik zertaz ari den, eta konturatzen haiz haren solasa beste erretolika hura

baino interesgarriagoa dela. Baina zer probetxu atera daiteke dantzaldi batetik? Demagun idazleren bati bururatzen zaiola horrelako eszena bat bere horretan deskribatzea. Errealitatean bezain zentzugabea emango likek liburuan. Zer duk, moralaren araberakoa ala moralaren kontrakoa? Deabruak zekik! Eta orduan, liburua ixten dik, gogaiturik.» Horrela gaitzesten zituen Txitxikovek dantzaldiak orokorrean; baina, inondik ere, beste zerbaitek sumintzen zuen. Haren haserrearen arrazoi nagusia ez zen dantzaldia bera, ezpada han gertatu zitzaiona, porrot egin zuela, ustekabean Jainkoak daki zer-nolako irudia eman zuela guztien aurrean, oso paper bitxi eta badaezpadakoa jokatu zuela. Jakina, gizon zentzudunaren begiekin begiraturik, argi zekusan han gertaturikoak ez zuela ez hankarik ez bururik, ergel baten hitzek ez zutela inolako eraginik izango, batez ere orain, bere zeregin nagusia behar bezala burututa zeukalarik. Baina harrigarria da gizabanakoa: biziki mintzen da berak errespetatzen ez dituenek begitan hartzen dutelako, haien azaluskeria eta jantziak direla-eta inongo gupidarik gabe eta oso hitz gordinez

maiseatu dituenek gorroto diotelako. Are gehiago haserretu zen Txitxikov gertaturikoa buru argiz aztertu zuenean, orduan konturatu baitzen bera izan zela, neurri batean, erruduna. Nolanahi ere, ez zen bere buruarekin haserretu, eta, jakina, arrazoi zuen horretan. Denok dugu argalgune txikitxo bat: barkabera samarrak izaten gara geure buruarekin, eta inguruan bilatzen dugu gure haserrearen zama noren bizkarrera bota; izan daiteke, esaterako, gure agindupeko morroi edo funtzionario bat, halabeharrez gure aurrera azaldua une egokian; izan daiteke emaztea bera, edo, aukeran, aulki bat; hartu aulkia eta indarrez botako dugu edonora, atearen kontra adibidez, eta beso bat edo bizkarraldea apurtuko zaio: zer arraio, jakin dezala zein haserre gauden! Bada, Txitxikovek ere berehala aurkitu zuen barrua erretzen zion suminaren ondorio guztiak bere bizkarrean nork jasango. Nozdriov zen nor hura, eta esan gabe doa bereak eta asto beltzarenak hartu zituela, hala nola hartzen baititu soilik sindiku alproja batek edo kotxezain batek kapitan zaildu eta asko bidaiatu batengandik edo, batzuetan, jeneral batengandik, zeinak, dagoe-

neko klasiko bilakatu diren ohiko hitz astunak esateaz gain, berak asmatu hainbat birao berri ere botatzen baitizkio. Irain-jipoi ederra jaso zuen Nozdrioven familia osoak, eta, bereziki, egundokoak hartu zituzten zuhaitz genealogikoan bera baino gorago zeudenetako batzuek.

Txitxikov, beraz, bere besaulki gogorren eseririk zegoen, pentsamenduek eta lo egin ezinak oinazeturik, Nozdriov eta beraren familia guztia gogoan; haren aurrean, argi motela egiten zuen gantzezko argizari batek, mukia ikatz bihurturik aspaldi eta unean-unean itzaltzeko zorian; leihoaz bestaldean gau beltz iluna gertu zegoen egunsenti hurbileko argiarekin urdintzen hasteko; oilarraren lehen kurrukukuak aditzen ziren urrun; seguraski, hiri oraindik lokartuko kaleren batean nekez zebilen longain artile zakarrezko bat, gizagaixo bat auskalo zein klase edo mailatakoa, zeinak (ai!) bizimodu barreiatuko errusiarrek maizegi zapalduko bidea besterik ez baitu ezagutzen; eta, bitartean, Txitxikoven atsekabea areagotuko zuen zerbait gertatzen ari zen hiriaren beste muturrean. Hiriko kale eta kaleska urrun haietan barrena zalapartaka ziho-

an zalgurdi bat, hain bitxia, ezen ez baikenuke asmatuko nola deitu. Telega ez zen, ezta kalesa edo drojka ere; ezeren antzik izanez gero, gurpil gainean jarritako angurri lodi bat ematen zuen. Angurriaren alboek (zalgurdiaren atetilak alegia) behialako pintura horiaren arrastoak zituzten oraindik, eta oso txarto ixten ziren, zeren esku-tokiak eta sarrailak oso egoera kaxkarrean baitzeuden, hala-hala sokaz loturik. Angurriaren barruan perkalezko bururdi ugari zegoen, tabako-zorro, bigungarri edo, besterik gabe, bururdi formakoak; gainera, zakutxo mordoa zeraman, ogiz eta denetariko gozopilez beteak. Bi pastel handi nabarmentzen ziren gainerako guztiaren gainera, oilakiz egina bata eta luzoker gaziz bestea. Gurdiaren atzealdeko koxkan lekaio-itxurako gizaseme bat zegoen, etxean eginiko jaka batez jantzirik eta bizar luzean ile zuri bakan batzuk ageri zitzaizkiola. Burdinazko kakoen eta torloju herdoiltsuen kirrinkak ate-jagolea esnatu zuen hiriaren beste muturrean; alabarda airean jaso, eta, erdi lo, ahal bezain ozenki oihukatu zuen: «Nor doa?»; baina inor ez zihoala ikusirik eta urruneko zarata hura besterik entzun ez zue-

nez, lepoan zebilkion zomorro bat harrapatu, argiontzira hurbildu, eta azazkalen artean leher-tu zuen. Hori egindakoan, alabarda bazter batean utzi, eta, bere zaldun-ordenaren arau zorrotzak zintzo betez, lo geratu zen berriro. Zal-diak behin eta berriro erortzen ziren aurreko belaunen gainean, ferratu gabe zeudelako bate-tik eta hiriko galtzada erosora ohiturik ez zeude-lako bestetik. Gurditzarra, kalez kale hainbat itzulinguru egin ondoren, kalezulo ilun batean sartu zen azkenean, San Nikolairen eliza txikia-ren albotik igaro, eta artzapezaren etxe-atearen aurrean gelditu zen. Neskagazte bat jaitsi zen kotxetik, burua zapi batean bildurik eta lan-ator kotoizkoa soinean, eta ate joka hasi zen bi ukabilekin, gizon baten adinako indarrez (etxean eginiko jaka zeraman mirabea hanketatik tiraka jaitsiko zuten gero gurditik, harria bezala lo zegoen eta). Zakurrak zaunkaka hasi ziren, eta atea, azkenean zabaldurik, gurdigintzaren emaitza kaskar hura irentsi zuen, ez lanik gabe baina. Egurrez, oilategiz eta mota guztietako kaiolatxo-oz beteriko patio batera sartu zen kotxea; eta andre bat jaitsi zen orduan: Koro-

botxka lurjabea zen, kolejio-idazkaria. Gure protagonistak haren etxetik alde egin eta gutxira, emakume zaharra izugarri kezkatzen hasi zen, iruzurra egin ziotelako susmoa hartu baitzuen, eta, hiru gau begirik bildu gabe eman ondoren, hirira joatea erabaki zuen, nahiz eta zaldiak ferratu gabe egon, arima hilen prezioa zenbaitan zegoen jakitera eta hanka sartu ez zuela egiaztatzerara, zeren eta, beharbada —Jainkoari nahi ez zekiola!— balio zutena baino hiru aldiz merkeago saldu zituen. Irakurleak laster jakingo du —bi emakumeren arteko elkarrizketa irakurritan— nolako ondorioak ekarri zituen Korobotxkaren iristeak. Elkarrizketa..., baina hobe elkarrizketa hori hurrengo kapitulurako uzten badugu.

Bederatzigarren kapitulu

Goizean, N hirian bisitak egiten hasteko ezarritako ordua baino lehenago, beroki koadrodun apainez jantziriko dama bat lasterka irten zen zurezko etxe ganbaradun bateko atetik. Etxea laranja pintaturik zegoen eta zutarri urdin argiak zituen. Lekaio bat zihoan damarekin, lepo ugariko longain dotorea soinean eta urrezko galoi batez apainduriko kapelu biribil distiratsua buruan. Ezohiko presaz, dama bizkor igo zen etxe aurrean geldituriko kalesako oin-oholetan gora. Lekaioak, denborarik galdu gabe, atetila danbateko batez itxi, oin-oholak gora bildu, eta, kalesaren atzealdeko uhalari helduta, gidariari oihukatu zion: «Aurrera!». Damak albiste bat entzun berria zuen, eta lehenbailehen haren berri jakinarazteko irrika menderaezina sumatzen zuen barnean. Behin eta berriro begiratzen zuen leihatilatik, eta atsekabe handiz ikusten zuen egiteko zutela oraindik bidearen erdia. Etxeak ohi baino luzeagoak iruditzen zitzaizkion; zaharren etxe zuri harrizkoak amaigabea ziruz

dien bere leiho estu ugariekin, eta, azkenean, damak ezin izan zion eutsi honela mintzatzeko gogoari: «Etxe madarikatua! Azkenik ez din, gero!». Gidariak bi aldiz jaso zuen pausoa bizkortzeko agindua: «Arinago, arinago, Andriushka! Izugarri astiro hoa gaur!». Azkenean, helmugara iritsi ziren. Zurezko etxe gris ilun baten aurrean gelditu zen kalesa; solairu bakarreko eraikuntza zen; leihoek baxuerliebe zuriak zituzten gainaldean, eta zurezko hesi garaia aurrean. Hesiaz bestaldeko lorategi txikian landare erkin batzuk zeuden, hiriko hautsak zurixkaturik. Leihoetan, berriz, hainbat lorontzi, papagai bat bere kaiolan zabuka —mokoaz uztai batetik zintzilik— eta bi zakurtxo eguzkitan etzanda. Etxe hartan bizi zen emakumea dama iritsi berriaren adiskide mina zen. Autorearentzat izugarri zaila da bi dama horiei izena jartzea inor berriro mindu gabe, iraganean bat baino gehiago biziki haserretu baitira beraren kontra horregatik. Arriskutsua da alegiazko abizenak ematea ere. Edozein deitura asmatu, horrela deritzon norbait agertuko da, ezinbestez, gure herrialde zabal honetako bazterren batean, eta, dudarik gabe, bekozko ezin ilu-

nagoa jarriko du, eta hor hasiko da esaten auto-
rea itzalgaizka inguratu zaiola beraren gaineko
xehetasun guztiak jakiteko: nolakoa den, nola
jantzen den, zer jaten duen eta zein Agrafena
Ivanovna ikustera joaten den. Eta Jainkoak gorde
gaitzala deituraren ordeztitulu edo gizarte-
maila erabiltzetik, horrek ere arrisku handia
dakar eta. Gaur egun hain daude minberaturik
gure herrialdeko titulu eta gizarte-maila guztiak,
ezen liburuetan irakurritako edozer norberari
buruzkotzat jotzen baitute denek; horrelako
giroa nagusitu da gure garai honetan. Hiri
batean gizon ergel bat dagoela esan, eta mundu
guztiak joko du aipatutzat bere burua; bat-
batean, itxura prestuko gizon bat bere lekutik
altxatuko da eta lau haizeetara aldarrikatuko du:
«Ni ere gizona nauzue; beraz, ni ere ergela
naiz!»; hitz batean, delako horrek begien itxi-
ireki batean ulertu bide du zertan diren gauzak.
Bada, guk, horrelakorik gerta ez dakigun, N
hirian ia denek esaten zioten bezala deituko
diogu bisitaria etxean hartu zuen damari: dama
gutzat atsegina, alegia. Ondo irabazirik zeukan
izen hori, zeren, izan ere, zazpi eginahalak egin

baitzituen emakume guztietan adeitsuena izate-
ra iristeko, nahiz eta, hori bai, emakumezkoek
berezko duten suhartasun bizia atzematen
zitzaion adeitasun horren mozorropean eta
orratz zorrotza ezkutatzen zen hitz gozo bakoit-
zaren atzean; eta nolako garrez sutzen zitzaion
bihotza edozein gauzatan gailentzen zitzaiona-
ren kontra! Baina probintzi hiruburu batean izan
daitekeen jokamolderik finenaz estalirik zegoen
hori guztia. Txairotasun handia erakusten zuen
mugimendu guztietan, eta atsegin zituen poe-
mak, eta bazekien burua nola jarri ameslari-itxu-
ra emateko, eta hirian aho batez onarturik zego-
en dama guztiz atsegina zela edonondik begira-
tuta ere. Dama iritsi berriaren nortasuna, ordea,
ez zen hain oparoa, eta, horrenbestez, dama
atsegina deituko diogu besterik gabe. Bistaria-
ren iristeak lozorrotik esnatu zituen eguzkitan
etzanda zeuden bi zakurtxoak: *Adela* iletsua —
zeina bere ile luzean trabatzen baitzen behin eta
berriro— eta *Pot-pourri* ar hanka-mehea. Biak
ala biak ere, buztana kiribildurik, zaunkaka sartu
ziren harrera-gelan, non bisitaria beroki koadro-
duna erantzten ari baitzen une horretan. Modako

kolore eta irudiekiko soinekoa zeraman berokiarren azpian, eta larru-buztan luzeak lepo inguruan; jasmin-usaina gela osoan barreiatu zen. Dama atsegina iritsia zela jakin bezain laster, dama guztiz atsegina bizkor azaldu zen harreragelara. Elkarri eskuetatik heldurik, musuka eta txilioka hasi ziren biak, hala nola hasten baitira txilioka institutuko ikasle ohiak elkarrekin topo egiten dutenean ikasketak amaitu eta gutxira, amek artean denborarik izan ez dutelarik azaltzeko bataren aita bestearena baino behartsuagoa eta gizarte-maila apalagokoa dela. Hain ziren ozenak musuak, ezen bi zakurtxoak zaunkaz hasi baitziren, eta zapi batez uxatu zituzten gelatik. Bi damak egongelarantz abiatu ziren. Esan gabe doa egongela urdin argia zela, eta dibana, mahai obalatu eta huntzez estaliriko bionbotxoak zituela. Damen atzetik, intzirika sartu ziren *Adela* iletsua eta *Pot-pourri* garai hanka-mehea.

— Zatoz, zatoz txoko honetara! —esan zion etxearen jabeak bisitariari, dibanaren bazter batean esertzeko gonbita eginez—. Horrela!, oso ondo! Hartu bigungarri bat!

Eta bigungarri bat ipini zion bizkarraren atzean. Bigungarriak zaldun baten irudia zeukan artilez brodaturik, kalamukian brodatzen diren zaldun guztien tankera berekoa: sudurrak zuru-bi-itxura zuen eta ezpainak karratuak ziren.

— Hau poza eman didazuna... Entzun dut baten bat iritsi dela eta neure artean esan dut: nor ote da honen goiz? Parashak esan dit: «Gobernadoreordearen emaztea», eta nik esan diot: «Berriro etorri zaigu tuntun hori alamera ematera», eta esatekotan egon naiz ez naizela etxean...

Bisitariak albistea jakinarazi nahi zion gehiago luzatu gabe. Baina une horretan dama guztiz atseginari jaulki zitzaion deiadarrak beste bide batetik eraman zuen elkarrizketa.

— Ene, zein oihal alaia daramazun! —esan zuen deiadarka dama guztiz atseginak, dama atseginaren soinekoari begira.

— Bai, oso alaia da. Dena dela, Praskovia Fiodorovnaren ustez, politagoa litzateke laukiak txikiagoak balitu eta orban gaztaintara hauek urdin argiak balira. Baina ez dakizu nolako oihal polita bidali dioten haren ahizpari, hitzez azaltze-

rik ez dago zein zoragarria den: urdin argia, marra estu-estuak, eta marren artean orbantxoak eta lerrotxoak, orbantxoak eta lerrotxoak, orbantxoak eta lerrotxoak..., hortik atera kontuak; hitz batean, paregabea, zoragarria beneran! Zalantzarik gabe esan daiteke mundu osoan ez dagoela hori bezalakorik.

— Ñabarregia aukeran, maitea.

— Ez, ez da batere ñabarra.

— Bai horixe, ñabarregia!

Oharrarazi beharra dago ezen dama guztiz atsegina materialista samarra zela, ukorako eta zalantzarako joera handia zuela eta zeharo arbuiatzen zituela bizitzako gauza asko.

Dama atseginak, oihala batere ñabarra ez zela azaltzen ari zitzaiola, oihuka esan zion bat-batean:

— Ah!, zorionak!, farfailak ez dira erabiltzen jadanik.

— Zer? Ez direla erabiltzen?

— Orain oxkartxoak daude modan.

— Oxkartxoak? Ene Jainkoa, ez da izango!

— Oxkartxoak, bai, oxkartxoak besterik ez da ikusten: oxkartxoak soingainekoetan, oxkartxo-

ak mahuketan, oxkartxoak bizkarrekoetan, oxkartxoak barrenetan, oxkartxoak nonahi.

— Oxkartxoak nonahi! Bai gogaikarria, Sofia Ivanovna!

— Ederrak dira baina, Anna Grigorievna, ezin ederragoak. Bi izur eginez josten dira, muxarra-dura zabalak dituzte goiko aldean... Baina entzun, entzun hau, aho zabalik geratuko zara-eta... Sinesten ez badidazu ere, gorontzak luzeagoak erabiltzen dira orain, konkortxoak dute aurrealdean, eta aurreko baleak muga guztiak gainditzen ditu; gona, berriz, gerriaren inguru guztian estu bildurik eramaten da, antzinako merinakeak bezala, eta kotoi pixka bat sartzen da atzeko aldean, oihala puztu-puztu eginik gera dadin.

— Egundo horrelakorik! Hamaika ikusteko jaiok gara! —esan zuen dama guztiz atseginak, duintasuna erakusten zuen buru-mugimendu bat eginez.

— Bai, horixe diot nik ere —erantzun zuen dama atseginak.

— Zuk nahi duzuna esango duzu, baina nik sekula ez dut horrelakorik jantziko.

— Nik ere ez... Horra noraino iristen den batzuetan moda... Sekula ez da horrelakorik ikusi! Nik, dena dela, patroia eskatu diot ahizpári, barre batzuk egiteko bakarrik, bestelako asmorik gabe. Nire Melaniak josteari ekin dio jadanik.

— Orduan, patroia daukazu? —egin zuen oihu dama guztiz atseginak, barrena astindu zion zirrara ezkutatu ezinik.

— Bai, ahizpak ekarri dit.

— Zeruko santu guztien izenean, utzi egin behar didazu, laztana!

— Ai!, Praskovia Fiodorovnari utzi behar diot aurrena, hitzeman diot eta. Itzultzen didanean utziko dizut zuri.

— Tira, tira! Nork jantziko luke ezer Praskovia Fiodorovnak estreinatu ondoren? Harrigarria da zuk arrotzei lehenatasuna ematea.

— Baina Praskovia Fiodorovna ez da arrotza, izeba txikia dut.

— Jainkoak daki zer-nolako izeba duzun hori: senarraren aldetikoa... Ez, Sofia Ivanovna, ez dut aitzakiarik entzun nahi, argi dago mindu egin nahi nauzula... Bistakoa da nitaz aspertu zarela,

bistakoa da gure adiskidetasuna hautsi nahi duzula.

Sofia Ivanovna gajoak ez zekien zer egin. Argi zekusan oso sugar bizi en erdian zegoela. Eta ondo merezia zuen, hain ahoberoa izateagatik! Une horretan, gustura ziztatuko zukeen orratz zorrotzez bere mihi ergela.

— Eta zer moduz dabil gure galaia? —esan zuen orduan dama guztiz atseginak.

— Ene!, ahaztuta neukan! Eskerrak aipatu duzun. Badakizu zertarako etorri naizen zeurera, Anna Grigorievna?

Arnasa estutu zitzaion bisitariari; hitzak ahoan pilatu zitzaizkion, bata bestearen atzetik airera jalgitzeko prest, harrapakinarenganatz hegan abiatzen diren aztoreen antzera, eta haren adiskide mina bezain ankerra izan beharra zegoen hitz haiei bidea ixteko.

— Zuk sutsuki gorai patu eta laudatzen duzun arren —esan zuen, ohi baino bizitasun handiagoz—, argi eta garbi esango dizut, eta aurpegira esango nioke berari ere, gizatxar hutsa dela, gizatxarra, gizatxarra, gizatxarra...

— Baina entzun, mesedez, zer dudan zuri esateko...

— Polita dela esaten dute, baina ez da bate-re polita, ez da batere polita, eta haren sudurra... munduko sudurrik itsusiena da.

— Baina mesedez, mesedez, uztazu gauza bat kontatzen, arren!... Utzi gauza bat kontatzen, Anna Grigorievna, nire adiskide maitea, mesedez! Istorio bat da. Ulertzen didazu?, istorio bat, *c'est ce qu'on appelle une histoire* —esan zuen bisitariak, etsipena aurpegian eta erregu-ahotsez. Komeni da oharraraztea ezen bi damen arteko elkarrizketa hitz arrotz ugariz eta frantsesezko esaldi luzez josirik zegoela. Autoreak begiramen handia die frantses hizkuntzak Errusiari ekarri dizkion onura salbagarriei, begiramen handia dio goi-gizarteko jendeak eguneko ordu guztietan frantsesez mintzatzeko duen ohitura laudagarri horri —gauza jakina baita jaioterriaren alderako maitasun sakonak eraginik jarduten dutela horrela—, baina, hala eta guztiz ere, ez da erabakitzen bere poema errusiar honetan beste hizkuntza bateko esaldirik sartzera. Beraz, errusieraz jarraituko dugu.

— Zer istorio da hori?

— Ai, Anna Grigorievna maitea, ez dakizu zein estu eta larri nagoen! Entzun: gaur goizean, aita Kiril artzapezaren emaztea etorri zait etxera; eta... nolakoa dela uste duzu gure artean dugun arrotz ogi-puska hori?

— Zer, artzapezaren emaztea gorteatzen hasi da, ala?

— Ai, Anna Grigorievna, gaitz erdi horrela balitz! Entzun zer kontatu didan artzapezaren emazteak: lehengo egunean, Korobotxka izeneko lurjabe bat azaldu zitzaion etxera, izuikaraturik eta herioa baino zurbilago; eta zer-nolako gauzak kontatu zizkion!; entzun arretaz, benetako nobela da eta: bat-batean, gau beranduan, etxean denak lo zeudela, kolpeak entzun zituen kaleko atean, edonor beldurtzeko moduko kolpeak; norbaitek oihuka zioen: «Ireki atea, ireki atea, behera botako dut bestela!». Eta? Zer deritzozu orain gure galaiari?

— Baina Korobotxka hori polita eta gaztea da?

— Ez hurrik eman ere, zaharra da.

— Galai deabru hori! Zaharrei ere ekin die! Gustu ederra erakutsi dute hemengo damek, horra nortaz maitemindu diren!

— Bada, ez, Anna Grigorievna, ez da hori, ez da zuk uste duzuna. Entzun, entzun zer gertatu zen. Leporaino armaturik sartu zen etxean, Rinaldo Rinaldini balitz bezala, eta gogorrear eskatu zuen: «Arima hil guztiak saldu behar dizkidazu oraintxe bertan!». Korobotxak oso erantzun zentzuzkoa eman zion: «Ezin dizkizut saldu, hilik daude eta!». Eta besteak zera esan zion: «Ez, ez daude hilik, nire ardura da jakitea hilik ala bizirik dauden, ez daude hilik, ez daude hilik —zioen oihuka— ez daude hilik!». Hango iskanbila! Herriko jende guztia ihesi, haurrak negar batean, denak garrasika, elkarri ulertu ezinik, izugarria, *horreur, horreur, horreur...* Ai ene, Anna Grigorievna, ez dakizu nola larritu naizen hori guztia entzun dudanean! «Andre maitea —esan dit Mashkak—, ikusi zeure aurpegia ispiluan: zuri-zuri dago eta!» «Orain ez dinat ispilurik behar —esan dut neure artean—, Anna Grigorievnarengana joan behar dinat hau kontatze-ra.» Kalesa prestatzeko agindu dut berehala,

Andriushka kotxezainak galdetu dit ea nora joan nahi nuen, eta nik ezin nuen hitzik esan, aurpegi- begirata begiratzen nion ezer esan gabe, leloturik banengo bezala, ziur pentsatu duela erotu egin naizela bat-batean. Ai, Anna Grigorievna, ez dakizu nola larritu naizen!

— Benetan bitxia gertaera hori —esan zuen dama guztiz atseginak—, baina zer esan nahi du arima hilen kontu horrek? Aitor dut ez dudala tutik ulertzen. Bigarren aldia da arima hil horiei buruz hitz egiten entzun dudala; senarrak dio Nozdriov gezurretan dabilela, baina, inondik ere, hor bada zerbait.

— Pentsa ezazu, Anna Grigorievna, nola larritu naizen hori entzun dudanean. «Eta orain —esan zidan Korobotxkak— ez dakit zer egin. Gezurrezko agiri bat sinatzera behartu ninduen, eta hamabost errublo bota zizkidan, diru-papere- tan; eskarmenturik gabeko alargun babesgabea naiz, ez dakit ezer...» Horrelaxe gertatu dira gauzak! Ezin duzu irudikatu ere egin nola larritu naizen.

— Kontuak kontu, arima hilak ez dira istorio- aren muina, hor beste zerbait dago ezkutaturik.

— Horixe uste dut nik ere —esan zuen, ez harridurarik gabe, dama atseginak, eta gogo bizia nabaritu zuen lehenbailehen jakiteko zer ote zegoen horren azpian ezkutaturik. Astiro esan zuen—: Eta, zure ustez, zer dago hor ezkutaturik?

— Zuk zer uste duzu?

— Nik zer uste dudan?... Ni, egia esan, erabat nahasirik nago.

— Dena dela, gustatuko litzaidake jakitea zer pentsatzen duzun horretaz.

Baina dama atseginak ez zekien zer esan. Larritzen besterik ez zekien, ez zen gai gertaturikoaren azterketa zorrotzik egiteko, eta, horrenbestez, aholkuen eta adiskidetasun samurraren premia zuen beste edornok baino gehiago.

— Bada, entzun zertan den arima hilen kontu hori —esan zuen dama guztiz atseginak. Bisitaria, hitz horiek entzunik, adi-adi jarri zen: berez luzatu zitzaizkion belarriak, apur bat altxatu zuen gorputza, dibanean ia bermatu gabe, eta, astun samarra bazen ere, arinago bilakatu zen bat-batean, haize-boladarik ñimiñoenak hegan eramaten duen lumatxa baten antzeko.

Halaxe gertatzen zaio zakurrekin ehizara doan jaun errusiarrari ere: hurbil dago basoa, erbia laster irtengo da zuhaitz artetik, zitzu bizian, zakurzainek esetsirik, eta ehiztaria erne dago bere zaldiaren ganean, zigorra airean jasorik, lipar batez bolbora bihurturik, unean-unean su hartzeko gertu. Begi zorrotzez arakatzen du inguru lainotsua, eta halako batean ahalegin guztian oldartzen zaio erbiari, nahiz eta estepa elur bigunez estaliak bizkor ibiltzea eragozten dion eta izar zilarkarak jaurtitzen dizkion ahora, bibotera, begietara, bekainetara eta kastorelarruzko kapelura.

— Arima hilak... —esan zuen dama guztiz atseginak.

— Zer, zer? —bota zuen bisitariak, nerbio guztiak dantzan.

— Arima hilak!...

— Jainkoarren, hitz egizu behingoz!

— Zerbait estaltzeko asmatu du arima hilen kontu hori, beste asmo bat darabil buruan: gobernadorearen alaba bahitu nahi du.

Horrelako ondorioa guztiz ezustekoa zen, eta bitxia edonondik begiratuta ere. Dama atsegina,

hori entzun zuelarik, harri eginik geratu zen bere tokian, zurbil, herioa baino zurbilago, eta orain bai larritu zen, ikaragarri larritu ere.

— Ene Jainko zeruetakoa! —egin zuen oihu, eskuak espantuz elkarturik—. Sekula ez nukeen horrelakorik pentsatuko.

— Bada, zuk ahoa zabaldu bezain laster igarri dut nik zer gertatzen den —erantzun zuen dama guztiz atseginak.

— Ai ene, Anna Grigorievna! Nolako ospea izango duen aurrerantzean institutuko heziketak! Non da horko ikasleen lañotasuna?

— Lañotasuna! Nondik norakoa? Entzunak ditut nik neska horrek esaten dituen gauzak, eta, benetan diotsut, errepikatzeko adorerik ez dut.

— Badakizu, Anna Grigorievna? Erdiratu egiten zait bihotza moraltasunik eza noraino iritsi den ikustean.

— Txoraturik dauzka gizon guztiak. Baina nik, egia esan, ez diot ezer erakargarririk ikusten... Izugarri itxuratia da, fazati hutsa.

— Ai, Anna Grigorievna maitea, estatua ematen du, ordea! Aurpegiak ez du ezer adierazten.

— Zein itxuratia den! Zein itxuratia! Jainkoarren, zein itxuratia! Ez dakit nork hezi duen, baina sekula ez dut emakume itxurazaleagorik ikusi.

— Oker zaude, nire adiskide kuttun hori, oker zaude! Estatua ematen du, herioa bezain zurbilada.

— Baita zera ere, Sofia Ivanovna!, batere lotsarik gabe gorrixkatzen du aurpegia.

— Baina zer diozu, Anna Grigorievna! Klerada, klera, klera zuri-zuria.

— Laztana, ni haren alboan eserita egon naiz: aurpegiko pinturak hatz baten lodiera du, eta zatika erortzen zaio, hormetako igeltsua bezala. Amak irakatsi dio horrela pintatzen, hura ere irtirirint hutsa da-eta, baina alabak amaren marka guztiak hautsi ditu.

— Tira, tira, tira! Nahi duzunaren izenean zingingo dut zurbil-zurbiladela. Prest nago galtzeko seme-alabak, senarra eta ondasun guztiak baldin eta pinturaren arrastorik, seinalerik edo itzalik txikiena badu!

— Horrelakorik esatea ere, Sofia Ivanovna! — esan zuen dama guztiz atseginak, eskuak espantuz elkarturik.

— Ene, bada! Nolakoa zaren, Anna Grigorievna! Zur eta lur eginik uzten nauzu —esan zuen dama atseginak, eskuak espantuz elkarturik berak ere.

Baliteke irakurlea harritzea bi damak ez zeto-
zelako bat biek ala biek ere ia aldi berean ikusi-
takoari buruz, baina munduan badira berezita-
sun hori duten gauza asko: nork begiratu, hala-
ko kolorea; dama batentzat zuriak dira, eta
beste batentzat, ordea, gorriak, txilarra bezain
gorriak.

— Bada, oraintxe bertan frogatuko dizut zur-
bila dela —eutsi zion bereari dama atseginak—. Ondo gogoan dut Maniloven alboan eserita nen-
goela eta zera esan niola: «Begira zein zurbila
den!». Egia esan, hemengo gizonak bezain kirte-
na izan beharra dago horrelako emakume bat
puntu horretaraino miresteko. Ai, gure galaia...!
Zein nazkagarria iruditu zaidan hasieratik! Ezin
duzu irudikatu ere egin, Anna Grigorievna, zein
nazkagarria iruditu zaidan hasieratik.

— Hala ere, hainbat damak ez zuten begi txarrez ikusten.

— Nitaz ari zara, Anna Grigorievna? Ezin duzu nitaz horrelakorik esan, inola ere ez, inola ere ez.

— Ez naiz zutaz ari, zu ez zinen hango emakume bakarra.

— Inola ere ez, inola ere ez, Anna Grigorievna! Oharrarazi behar dizut oso ondo ezagutzen dudala neure burua. Beharbada, horrela jokatu zuten limurgaitzak direlako egiten duten dama horietako batzuek.

— Barkatu, Sofia Ivanovna! Uztazu esaten ni sekula ez naizela hain gorabehera eskandaluzkoetan nahasirik egon. Beste batzuk beharbada bai, baina ni ez, argi utzi nahi dizut hori.

— Zergatik mindu zara? Han baziren beste dama batzuk ere, eta haietako batzuk lasterka joan ziren ate alboko aulkietan esertzera, haren-gandik hurbilago egoteko.

Bazirudien ekaitza lehertuko zela ezinbestean dama atseginarene hitz horien ondotik, baina, harrigarria bada ere, bi damak bat-batean lasaitu ziren eta ez zen inongo ekaitzik etorri. Dama guztiz atsegina gogoratu zen oraindik ez

zeukala eskuetan modako soinekoaren patroia, eta dama atsegina konturatu zen oraindik ez zuela lortu inolako xehetasunik jakiterik bere adiskide minak eginiko aurkikuntzaz, eta horregatik baketu ziren hain laster. Bestetik, ezin esan daiteke bi dama haiek berezko gogorik nabaritzen zutenik lagun hurkoa atsekabetzeko; oro har, ez ziren gaiztoak, baina, nahi gabe ere, elkarrizketetan berez pizten zitzaaien batak beste zirikatzeko gurari xume bat. Aukerarik izanez gero, halako plazer txiki bat eragiten zien solaskideari eztenkadaren bat sartzeak: harrapa ezazu hau!; tori, irents ezazu zuk beste hau! Oso desberdinak izaten dira gizonezkoen eta emakumezkoen bihotza estutzen duten premiak.

— Nolanahi ere —esan zuen dama atseginak—, ezin dut ulertu nolatan erabaki den Txitxikov hain ekintza ausarta egitera, batez ere kontuan izanik iragaitzaz dagoela hemen. Ezin egingo luke hori gaizkiderik gabe.

— Eta zer uste duzu?, ez duela gaizkiderik?

— Eta nork lagunduko lioke horretan?

— Bada, Nozdriovek berak.

— Nozdriovek?

— Zergatik ez? Gai da horretarako. Ez bada-kizu ere, aita saldu nahi izan zuen behin, edo, are okerrago, kartetan jokatu nahi izan zuen.

— Ene, Jainkoaren izenean, zein albiste inter-resgarriak jakiten ari naizen! Sekula ez nukeen pentsatuko Nozdriov istorio honetan nahasirik egon zitekeenik!

— Nik, ordea, beti susmatu dut.

— Zer ez den gertatzen gure mundu hone-tan! Ene! Txitxikov gure hirira iritsi zenean nork pentsatuko zuen hain gauza harrigarriak gerta-tuko zirela hemengo gizartean! Ai, Anna Grigo-rievna, ez dakizu zein estu eta larri nagoen! Zer egingo nuke zure onginahirik eta adiskidetasunik gabe?... errukarria ni..., norengana joko nuke? Nire Mashkak berak ikusi du herioa bezain zurbil nengoela. «Andre maitea —esan dit—, herioa bezain zurbil zaude.» «Mashka —esan diot nik—, orain ez nago horrelakoetarako.» Hamaika ikusteko jaioak gara, bai horixe! Eta Nozdriov bera ere horretan nahasirik!

Dama atseginak bahiketari buruzko xeheta-sun gehiago atera nahi izan zizkion lagunari, zein ordutan egingo zuten eta horrelakoak,

baina gehiegi eskatzea zen hori. Dama guztiz atseginak erantzun zion ez zuela zehaztasun gehiagoren berririk. Ez zekien gezurrik esaten: besterik da zerbaiti buruzko irudipenak izatea, batez ere irudipen horiek barru-barruko uste sendoan oinarriturik badaude; barru-barruan etsirik egonez gero, dama guztiz atsegina gai zen bereari eusteko, eta besteen iritziak kolokan jartzeko dohainaz hornituriko abokatu maltzur bat berarekin eztabaidatuko balitz, berehala ikusiko luke zenbaterainoko indarra duen barru-barruko uste sendoak.

Azkenean, bi damek guztiz ziurtzat jo zuten lehentxeago irudipen hutsa zena. Ez da harritzekoa: guk ere —geure burua argitzat daukagunok— dama horien antzera jokutzen dugu askotan; eta horren frogagarri dira gure arrazoibide zientifikoak. Jakintsua, hasieran, gehiegizko koldartasunez hurbiltzen da ikergaira, astiro, uzkur, oso galdera apalak eginez: zein ote da halako izenaren jatorria?, halako lekutik hartu al du herrialde horrek izena?; edo: izkribu hori, ez da beste garai batekoa izango, geroagokoa agian?; edo: halako herria aipatzen dutenean, ulertu

behar al dugu beste herri batez ari direla? Gero, hainbat idazle zahar aipatzen ditu, eta, argibideren bat edo berak argibidetzat hartzen duen edozer aurkitu bezain laster, adorea bildu eta arrapaladan jotzen du aurrera, inolako konplimenturik gabe hitz egiten du idazle zaharrekin, galderak egiten dizkie eta berak erantzuten du, ahazturik irudipen ahul batean oinarriturik ekin diola arrazoibideari; uste du arazoaren giltza aurkitu duela, dena argi dagoela, eta hitz hauekin burutzen du ikerketa: «Hori horrela gertatu zen; ulertu beharra dago halako herriaz ari direla; hau da ikuspuntu zuzena!». Azkenik, lau haitzetara zabaltzen du hori bere katedratik, eta egia aurkitu berria munduan barreiatzen da, jarratzaileak eta miresleak bereganatuz.

Di damek auzi korapilatsu hura hain modu argi eta egokiz erabaki berria zutela, prokuradorea sartu zen egongelan, aurpegia beti bezain zurrun, bekainak iletu eta ezkerreko begia noizean behin berez kliskatzen zitzaiola. Damek norgehiagoka ekin zioten gertaturiko guztia konstatzeari, arrapataka hitz egin zioten arima hilen erosketaz eta gobernadorearen alaba bahitzeko

asmoaz, eta erabat nahasi zioten burua. Prokuradoreak ez zuen deus ulertzen, geldirik zegoen bere tokian, harri eginik, ezkerreko betazalei eragiten eta zapiarekin kokotsa astintzen tabako-hondarrak kentzeko. Horrelaxe utzi zuten bi damek, eta hiria matxinatzera joan ziren zein bere aldetik. Ordu erdi baino askoz gehiago ez zuten behar izan horretarako. Goitik behera irauli zuten hiria; asaldaturik zebilen mundu guztia, nahiz eta inork ez zuen tutik ulertzen. Bi damek hain trebetasun handiz matazatu zioten burua jendeari, ezen denak —eta bereziki funtzionarioak— durduzaturik geratu baitziren puska batean. Aurreneko une horretan, haien kinka larriak gogora ekartzen zuen ustekabean esnarazitako ikaslearen egoera estua: logelakideek, bera baino lehenago jaiki baitira, itzalgaizka sartu diote sudurrean *husar* bat —tabakoz beteriko paper-tututxo bat alegia—, eta lo dagoen ikaslea, loaldiko arnagora sakonetan tabako guztia sudurretik irentsita, bat-batean esnatu eta jauzi batez altxatzen da ohetik, eta, begiak biribil-biribil zabaldurik, alde guztietara begiratzen du leloaurpegiz, ezin ulerturik non dagoen eta zer ger-

tatu zaion, eta geroxeago hor atzematen ditu eguzki-printzek zeharka argituriko hormak, logelako zokoetan ezkutaturiko ikaskideen barreak, egunsentia leihoaz bestaldean, baso esnatzen hasia, milaka txoriren kantu ozenak, zirrimarra argitsu baten antzera ihi mehen artean gorde-agerika doan errekatxo dizdizaria, bainatzera inguraturiko ume biluziz beterik, eta azkenean soilik konturatzen da *husarra* daukala sudurrean sarturik. Bada, ikasle hori bezalaxe geratu ziren hasieran hiritar xeheak eta funtzionarioak. Zabal-zabalik zeuzkaten begiak, ahariaren antzera. Haien gogoan oso era bitxian katramilatzen eta nahasten ziren arima hilak, gobernadorearen alaba eta Txitxikov. Eta gero, hasierako asaldua gainditurik, gauza haiek guztiak elkarrengandik bereizi eta banaka ikustea lortu balute bezala, azalpenak eskatzeari ekin zioten, eta biziki haserretu ziren, istorio hura argitzerik ez zegoela ikusirik. Izan ere, zer zen arima hilen enigma hori, zer esan nahi zuen? Istorio horrek ez zuen inolako logikarik; nolatan eros litezke arima hilak?, nork egingo luke tamaina horretako ergelkeriarik?, zein diru-motaz ordainduko

lituzke?, eta zertarako nahi zituen arima hil horiek, zertarako erabiliko lituzke?, eta gobernadorearen alabak, berriz, zer zuen ikustekorik horrekin? Bahitu nahi bazuen, zer zela-eta erosi behar zituen arima hilak horretarako? Arima hilak erosten bazituen, aldiz, zer zela-eta bahitu nahi zuen gobernadorearen alaba?, arima hilak oparitu nahi al zizkion?, zer-nolako zentzugabekeria zen hiriko biztanle guztiek aho-mihitan zerabilten autu hori? Edonora joan, eta istorio berbera entzuten zen bazter guztietan, eta gaitz erdi funtsik izango balu... Hala ere, istorioa zabaldu zutenez, litekeena al zen horretarako arrazoiren bat egotea? Zein, ordea? Ba al zuen zentzurik arima hilen kontu horrek? Ez, ez zuen ez hankarik ez bururik. Lelokeria hutsa zen, txorakeria, asmakeria, deabruak daki zer!... Hitz batean, zurrumurrua bazterrik bazter barreiatu zen, eta hiri guztiak hitz egiten zuen arima hilez eta gobernadorearen alabaz, Txitxikovez eta arima hilez, gobernadorearen alabaz eta Txitxikovez; azpikoz gora zegoen dena. Nolako haize-zirimola jaso zuen ordu arte itxuraz lozorroan egon zen hiri hartan! Beren gordelekuetatik

atera ziren nagitzar eta loti guztiak, zeinek urteak eta urteak baitzeramatzaten etxean sarturik, egun osoa ohean etzanda eta mantala behin ere erantzi gabe, horren errua egotziz zapataginari —oinetako estuak egin zizkielako—, edo jostunari, edo kotxezain mozkortiari. Etxetik atera ziren ezagun guztiekiko harremanak aspaldi etenak zituzten eta, esan ohi denez, Zavalishin eta Polejaev lurjabeak beste adiskideirik ez zuten guztiak (bi deitura ospetsu horiek *zavalitsia* eta *polejat* aditzetatik datoz hurrenez hurren. Aditzok oso zabaldurik daude Rus osoan, «Sopikov eta Khrapovitski ikustera joan» esaldia bezala, zeinak esan nahi baitu zabal eta zabar lo egitea, hala saiheska, nola ahoz gora, nola beste edozein jarreratan, zurrungaka, sudurretik txistuka eta lo astunaren beste ezaugarri guztiekin); bat-batean jo zuten kalera beste egoera batean etxetik sekula aterako ez lirakeen guztiek, ezta amu gisa eskainirik ere bostehun errubloko arrain-zopa bat, bi arshineko gaizkata eder bat eta ahoan urtzen diren pastel horietako mordo bat. Hitz batean, hor ikusi zen hiria handia eta jendetsua zela eta behar bezala jendeztaturik

zegoela. Bat-batean agertu ziren Sisoï Pafnutievitx bat eta MacDonald Karlovitx bat, zeinen berririk inork ez baitzuen inoiz aditu; hainbat aretotan azaldu zen eskua balaz zauriturik zeukan gizon luze-luze bat, sekula ikusi zen baino garaiagoa. Mota guztietako zaldi-kotxeak eta gurdiak ibiltzen ziren kalean, denak nahasian; nonahi entzuten zen gurpilen kirrinka eta troiketako kanpaitxoan dilin-hotsa. Beste garai eta egoera batean, beharbada, horrelako zurrumuru batek ez zuen inoren jakinmina piztuko; baina N hiriak aspaldi ez zuen inolako albiste berezirik jaso. Baziren hiru hilabete hirian ez zela zabaltzen hiriburuetan *commeragé* deritzeten horietakorik, eta, jakina denez, hiri batek garaizko elikagai-hornidura bezain premiazko ditu esamesak. Hiritarren arteko eztabaidetan bi iritzi azaldu ziren bat-batean, guztiz kontrajarriak, eta bi talde osatu ziren berehala, guztiz kontrajarriak: gizonezkoena eta emakumezkoena. Gizonezkoen taldea —bietan ergelena— arima hilez bakarrik arduratzen zen. Emakumezkoen taldeak, berriz, gobernadorearen alabaren bahiketaren bestekezkarik ez zuen. Damen ohoretan esan

beharra dago emakumezkoen taldean bestean baino askoz ere ordena eta neurritasun handiagoa zegoela. Nabari zen etxekoandre maratzak zirela eta bazekitela gauzak ondo antolatzen. Berehala askatu zuten mataza, azalpen egokiak aurkitu zituzten, arazoak oso forma zehatz eta garbiak hartu zituen, dena argitu zen; hitz batean, zehaztasun handiz pintatu zuten gertaturikoaren koadroa. Nonbait, Txitxikov aspaldi zegoen gobernadorearen alabaz maitemindurik, lorategian elkartzan ziren biak ilargiaren argitan, eta gobernadoreak ontzat eman zuen ezkontza, Txitxikov juduak bezain aberatsa zen-eta, baina oztopo bat zegoen: Txitxikoven emaztea (inork ezin zuen azaldu nola jakin zen Txitxikov ezkonduarik zegoela). Txitxikovek utzia omen zuen emaztea, eta hark, itxaropenik gabeko amodioak oinazeturik, oso gutun hunkigarria idatzi zion gobernadoreari, eta Txitxikovek, emaztegaiaren gurasoek ezkontza inoiz onartuko ez zutela ikusirik, neska bahitzea erabaki zuen. Zenbait etxetan, aldiz, beste era batera kontaktzen zuten hori: Txitxikov ez zegoen ezkonduarik, baina, gizon maltzur eta zuhurra izaki, gobernadorearen

alaba emaztetzat hartu nahirik, ama gorteatze-
ari ekin zion aurrena, eta, berarekin maitasunez-
ko harreman ezkuatuak izan ondoren, alabarekin
ezkontzeko mandatu egin zion, baina amak, erli-
jioaren aurkako hoben larria egiteko beldurrez
eta kontzientziako harrak janda, ezezko biribila
eman zion, eta horregatik erabaki zuen Txitxiko-
vek neska bahitzea. Zurrumurrua kalezularik
urrunenetaraino hedatu ahala, denetariko aldae-
rak eta zuzenketak erantsi zitzaizkion horri guz-
tiari. Ruseko herri xeheak oso gogoko du goi-
gizarteko esamesei buruz mintzatzea, eta, hala-
tan, horretaz hitz egiten hasi ziren etxe ziztrin
guztietan, zurrumurrua puztuz eta gertaerak
antzaldatur, nahiz eta han sekula ez zuten Txi-
txikov ikusi edo ezagutu. Auzia gero eta interes-
garriago bilakatuz zihoan, gero eta forma zeha-
tzagoak hartzen zituen egunetik egunera, eta,
azkenean, gobernadorearen emaztearen bela-
rrietara iritsi zen, horrelaxe, bere zehaztasun
guztiekin. Gobernadorearen emazteak ez zuen
inola ere horrelakorik susmatzen, eta, ama fami-
liakoa, hiriko dama nagusia eta, azken batean,
dama zen aldetik, izugarri mindu eta haserretu

zen auziaren berri jakin zuenean, eta haren haserrea bidezkoa zen edonondik begiratuta ere. Ilehori dohakabeak oso *tête-à-tête* gogaikarria jasan behar izan zuen, hamasei urteko nes-kagazte batek sekula jasan duen garratzena. Uholde baten antzera amildu zitzaizkion gainera galderak, mehatxuak, errietak, kargu-hartzeak, gaitzespenak eta irainak, eta neskari malkoak lehertu zitzaizkion begietan, eta zotinka hasi zen, hitz bat bera ere ulertzeko gai ez zela; atezainak agindu zorrotzak jaso zituen Txitxikovi etxean sartzen ez uzteko, inoiz ere ez eta bisitarren aitzakia edozein zela ere.

Damek, gobernadoraren emazteari zegokio-
nean beren eginkizuna betetakoan, gizonezkoen taldeari eraso zioten, haien iritzia beren alderdi-
ra bildu nahirik eta esanez arima hilak asmake-
ria hutsa zirela eta susmoak uxatzeko eta neska
eragozpenik gabe bahitzeko erabiltzen zituela
Txitxikovek. Gizonezko askok ontzat eman zituz-
ten emakumezkoen azalpenak, eta bat egin
zuten haiekin, gainerako gizonezkoen gaitzes-
pen gordinei jaramonik egin gabe; taldekide
ohiek, besteak beste, andre-gixon eta gonazulo

deitu zieten, eta, jakina denez, gizonezkoek oso iraingarriztat dauzkate hitz horiek.

Gizonezkoek beren armak atera eta gogor egin zieten emakumezkoei, baina haien taldea ez zegoen emakumezkoena bezain ondo antolatuturik. Bihotz-gogorak ziren, zakarrak, traketsak, moldakaitzak, ganoragabeak, ezdeusak, zarpailak, makurrak; haien buruan dena zen nahaste-borraste, zalantza, kontraesan eta lardaska; argi eta garbi erakusten zuten nolakoak diren gizonezkoak: baldarrak, landu gabeak, zatarrak, etxea gobernatzeko ezgaiak, bihotzaren esanei gorrak, eszeptikoak, sorrak, zalantzaz eta aspaldiko beldurrez josiak. Gizonezkoek esaten zuten zentzugabea zela hori guztia, gobernadorearen alaba bahitzea *husar* baten ekintza litzatekeela, ez zibil batena, Txitxikovek ez lukeela horrelakorik egingo, emakumezkoak gezurretan ari zirela, emakumea zaku baten antzekoa dela (barruan zer sartu, hori eramán), arima hilak zirela auziaren mamia eta horra zuzendu behar zela arreta guztia, eta, bestetik, deabruak zekiela zer esan nahi ote zuten arima hilek, baina zerbait arbuigarria eta gaiztoa ezkututzen zutela. Oraintxe

jakingo dugu zergatik uste zuten gizonak arima hilek zerbait arbuigarria eta gaiztoa ezkututzen zutela. Kontua da gobernadore militar berria izendatua zutela arestian probintzian, eta horrek, jakina denez, oso urduri jarri ohi ditu funtzionarioak, ondo asko baitakite denek zer segitzen zen hortik: ikuskapenak, errietak eta kargualdaketak batetik, eta nagusiek mendekoen artean banatu ohi dituzten sariak bestetik. «Hirian horrelako zurrumurru ergelak dabiltzala jakiten badu —pentsatzen zuten funtzionarioek— gorriak eta beltzak ikusiko ditugu.» Osasunbatzordeko ikuskatzailea zurbil jarri zen bat-batean; Jainkoak daki zer zebilkion buruan, uste bide zuen «arima hil» haiek sukar-epidemia baten eraginez lazaretoetan eta bestelako eritegietan mordoka hildako gaixoak izan zitezkeela eta berak ez zuela izurrite horren aurkako neurri egokirik hartu, eta Txitxikov gobernadore militarren bulegotik ezkutuko ikerketa bat egitera bidalitako funtzionarioa zela. Bere susmoen berri jakinarazi zion ganberaburuari. Ganberaburuak erantzun zion buru-buztanik gabeko zozokeriak zirela, baina zurbil-zurbil jarri zen bera ere, bere

buruari galdeturik ea Txitxikovek erositako arima hil horiek hilik ote zeuden benetan, eta, hala izanez gero, zer gertatuko litzatekeen gobernadore militarrek jakingo balu berak oniritzia eman ziola arima horien eroste-agiriari eta, gainera, Pliushkinen ordezkari gisa jardun zuela. Batari eta besteari hori esan, eta zurbil jarri ziren hala bata nola bestea; beldurra izurria baino kutsakorragoa da eta aitaren batean zabaltzen da. Etsita geratu ziren funtzionario guztiak ziren eta ez ziren bekatuak egin zituztela. «Arima hilak» hitzek hain esanahi iluna hartu zuten, non denak pentsatzen hasi baitziren litekeena zela arestiko bi gertakarien ondorioz itsumustuan lurperatu behar izan zituzten gorpuen zeharkako aipamena izatea. Bi gertakari haietatik lehena Solvitxegodsk herritik iritsitako merkatari batzuekin loturik zegoen. Merkatari haiek azokarako joan ziren hirira, eta, dena saldutakoan, oturuntza txiki bat eskaini zieten Ust Sisolsk herriko merkatari lagunei. Errusiar tankerako oturuntza izan zen, baina osagai alemaniarrekin: likoreak, pontxeak, baltsamuak eta abar. Ohi denez, liskarra piztu zen oturuntzaren ondoren.

Solvitxegodskeko merkatariek hiltzeraino ekin zieten Ust Sisolskekoei, baina, hori bai, sekulako ukaldiak hartu zituzten saihetsetan eta ubelduraz josirik geratu zitzairen gorputz osoa, hildako merkatarien ukabilen indar itzelaren erakusgarri. Irabazleetako bati erabat birrindu zioten sudurra, halako moldez, ezen koskor txiki bat besterik ez baitzitzaion geratu aurpegian. Solvitxegodskeko merkatariek beren errua ezagutu zuten, esanez apur batean jostatzea beste asmorik gabe jokatu zutela horrela. Jendeak zioenez, merkatarik bakoitzak diru mordo bat jarri zuen bere errua aitortzearekin batera; bestetik, gertaturikoa ilunegi zegoen; ikerketa eta galdeketek frogatu zuten, Ust Sisolskeko mutilak karbono oxidoa arnasteagatik hil ziren, eta horrela lurperatu zituzten, itota hil balira bezala. Bigarren hilketa arestian gertatua zen. Vshivaia Spes herrixkako mujikek, Borovko (edo Zadirailov, horrela ere bai baitzeritzon) herrixkako mujikekin elkar harturik, lurraren azaletik desagerrarazi zuten zemstvoko polizia, Drobiajkin aholkularia alegia, herrixka haietara maizegi inguratze-ko ohitura zuelako; urteko sasoi batzuetan aise

harrapa zezakeen han sukar gaiztoren bat, baina grina lohi batek hango emakume eta neskatoenganantz bultzatzen zuen gizona. Ez zen jakin zer jazo zen zehatz-mehatz, baina nekazariak epailearen aurrean argi esan zuten zemstvoko polizia katua baino lizunagoa zela, sarritan egon zirela haren zelatan eta behin biluzik atera zutela ezkutalekutzat hartu zuen izba batetik. Ezbairik gabe, zemstvoko poliziak zigorra merezi zuen bere grina lohiarengatik, baina, bestetik, ezin onartuzkoa zen Vshivaia Speseko eta Zadirailoveko nekazarien bidegabekeria, baldin eta egia bazen hilketan parte hartu zutela. Baina ez zegoen argi zer gertatu zen benetan. Zemstvoko polizia bide-bazterrean aurkitu zuten, uniformeak edo longaina piltzar-piltzar eginik eta aurpegia zeharo itxuragabeturik. Epaitegi batetik bestera ibili zen auzia, eta Ganberara iritsi zen azkenean. Gertaturikoa bakarrean aztertu ondoren, honela arrazoitu zuten hango epaileek: nekazariak asko ziren eta ez zegoen jakiterik nork hartu zuen parte hilketan; Drobiajkini, hilik zegoenez, auzia irabazteak ez zion inolako onurarik ekarriko; nekazariak, ordea, bizirik zeuden, eta haien ztat

garrantzi handikoa zen errugabetzat jotzea; horren ondorioz, hau erabaki zuten: Drobiajkin bera zen erruduna, zitalkeria bidegabeak egin zizkielako Vshivaia Speseko eta Zadirailoveko nekazariei, eta apoplexiak jota hil zen bere leran, etxera bidean. Bazirudien ezin hobeto konpondurik zegoela arazo hura, baina funtzionarioak, zergatik jakin gabe, pentsatzen hasi ziren arima hil haiek zirela, inondik ere, orain guztien ahotan zebilen zurrumurruaren funtsa. Gainera, buruhauste gehiagoren beharrik gabe funtzionario jaunak hain egoera estuan zeudela, bi gutun iritsi ziren, berariaz bezala, gobernadorearen bulegora. Batak zioen ezen, hainbat lekukok eginiko adierazpen eta salaketen arabera, billete-faltsutzaile bat zebilela probintzia horretan, benetako izena alegiazko deitura desberdinen azpian ezkutaturik, eta kosta ahala kosta aurkitu behar zutela berandu baino lehen. Beste gutunean, berriz, auzo-probintziako gobernadoreak zioen gaizkile bat justiziaren ihesi zebilela, eta probintzia hartan aurkituz gero gizon susmagarriren bat inolako paperik edo nortasun-agiririk ez zuena, lehenbailehen atxilotu behar zute-

la. Bi gutun haiek zur eta lur utzi zituzten funtzionario guztiak. Oinarririk gabe geratu zitzaizkien ordu arteko uste eta burutapenak oro. Jakina, ez zegoen inola ere uste izaterik horrek Txitxikovekin zerikusirik zuenik; hala ere, nor bere baitan gogoeta eginik, denak konturatu ziren artean ez zekitela nor zen benetan Txitxikov eta batere argitasunik gabe hitz egiten zuela beti bere buruaz; esan zuen, bai, gorriak ikusi zituela justiziaren zerbitzuan aritzeagatik, baina ez zegoen batere argi zer esan nahi zuen horrek; bestetik, Txitxikovek berak jakinarazi zien etsai asko zituela eta bizia kentzen saiatu zirela behin baino gehiagotan, eta are pentsakorrago geratu ziren denak horretaz gogoratu zirenean: beraz, arriskuan zuen bizia; beraz, norbait zebilen bera harrapatu nahirik; beraz, zer edo zer egin zuen... Baina nor zen benetan? Jakina, ezin pentsa zitekeen billeteak faltsutzeko gauza zenik, eta are gutxiago gaizkilea zenik: asmo oneko gizona ematen zuen; baina nor zen?, benetan zen berak zioena? Hasieran, gure poema honetako lehen kapituluak egin beharko zioten galdera hori funtzionarioek beren buruari, baina ordu arte ez

ziren horretaz kezkatu. Erabaki zuten itaunketa zorrotza egitea Txitxikovek arimak erosi zizkieni, gutxienez jakiteko zer erosi zuen, zer ziren zehazki arima hilak, eta ea baten bati azaldu zion, oharkabean edo zeharka bazen ere, nor zen eta zein ziren bere benetako asmoak. Korobotxkarengana jo zuten aurrena, baina ezer gutxi atera zioten: hamabost errublo ordaindu zizkion, txori-lumak ere erosten zituen, hitzeman zion beste gauza asko ere erosiko zizkiola, gantzez hornitzen zuen Estatua, baina, inondik ere, bilau hutsa zen, zeren beste batek ere txori-lumak eta gantza erosten baitzituen Estatuarentzat, baina denak atzipetu zituen, eta ehun errublo baino gehiagoko iruzurra egin zion artzapezaren emazteari. Hortik aurrera, gauza bera errepikatu zuen behin eta berriro, eta funtzionarioak konturatu ziren Korobotxka adimen urriko emakume zaharra besterik ez zela. Manilovek erantzun zien berak beti aterako zuela aurpegia Pavel Ivanovitxen alde eta bere ondasun guztiak emango lituzkeela Pavel Ivanovitxen tasunen ehunen bat edukitzeagatik; oso hitz balakagariak erabiliz mintzatu zen berari buruz, eta,

begiak txiloturik, adiskidetasunaren gaineko gogoeta batzuk erantsi zituen. Gogoeta haiek argi erakutsi zuten nolako samurtasunak mugitzen zion bihotza, baina ez zieten ezer argitu funtzionarioei. Sobakevitxek esan zien Txitxikov gizon ona zela bere ustez, nekazari ezin hobekak saldu zizkiola eta bizi-bizirik zeudela denak; baina bera ez zela handik aurrera gerta zitekeenaren erantzule, ez zela beraren errua izango bidean hiltzen baziren migrazioaren nekeen eraginez, hori Jainkoaren esku zegoela, eta sukarrak eta bestelako eritasun hilgarriak oso ugariak direla munduan, eta, hainbatetan gertatu zen legez, herri osoak hiltzeko gai zirela. Orduan, funtzionarioek beste bide bat saiatu zuten, ez oso zintzoa baina batzuetan erabilia: zeharka, konfiantzazko hainbat lekaioren bitartez, Txitxikoven morroiei galdetu zieten ea zerbait zekiten nagusiaren iraganeko bizitzari eta joan-etorriari buruz, baina ezer gutxi jakin zuten bide horretatik ere. Petrushkaren aldetik, gela itxi bateko gorputz-kiratsa bakarrik aditu zuten; Selifanek, berriz, jakinarazi zien Estatuaren zerbitzuan jardun zuela eta lehenago aduanetan lan egin

zuela, besterik ez. Horrelako jendeak oso ohitura bitxiak ditu. Zerbait zuzenean galdetuz gero, ez dira ezertaz gogoratzen, dena ezabatzen zaie burutik eta beti erantzuten dute ez dakitela ezer; baina beste gauzaren bat galdetuz gero, hitz eta pitz aritzen dira solaskideak benetan jakin nahi duenaz, den-dena kontatzen dute, baita entzulari axola ez dioten xehetasunak ere. Funtzionarioen ikerketek gauza bakarra argitu zuten: ez zekitela zer zen Txitxikov, baina, hala ere, zer edo zer izan behar zuela. Azkenean onartu zuten luze eta sakon hitz egin behar zutela auzi horretaz; gutxienez erabaki behar zuten zer egin, nola jokatu eta nolako neurriak hartu, eta Txitxikov zer zen jakin: gaizkilea izateagatik harrapatu eta atxilotu beharreko gizona, ala haiek harrapa eta atxilo zitzakeen gizona, gaizkileak haiek zirelako. Halatan, poliziaburuaren etxean biltzea erabaki zuten, zeren, irakurleak dakienez, poliziaburua hiriko ongile eta aita babeslea zen.

Hamargarren kapitulua

Elkartu ziren, bada, funtzionarioak poliziaburuarenean, zeina, irakurleak dakienez, hiriko ongile eta aita babeslea baitzen, eta, elkarri erreparaturik, berehala ohartu ziren argaldurik zeudela denak hainbeste buruhauste eta atsekabereren eraginez. Izan ere, gobernadore militar berriaren izendapenak, hain eduki kezkarriko bi gutun haiek eta hirian zabalduko zurrumurruak arrasto nabarmenak uzti zizkieten aurpegian, eta begien bistakoa zen haietako askori lasaiegi geratu zitzaiela fraka. Makalaldia orokorra zen: argalago zegoen ganberaburua, argalago zegoen osasun-batzordeko ikuskatzailea, argalago zegoen prokuradorea, argalago zegoen bere abizenaz sekula deitzen ez zioten Semion Ivanovitx izeneko bat ere, zeinak hatz erakuslea eskaini ohi baitzien dama guztiei, hor zeraman eraztuna azter zezaten. Jakina, leku guztietan bezala, han ere baziren gizon bulartsu batzuk, ezerengatik kikiltzen ez diren horietakoak, baina oso gutxi ziren. Postaburua baino ez. Gizon

patxadatsua zen, inoiz ez zen urduri jartzen, eta gauza bera esaten zuen beti horrelako egoeretan: «Badakigu zer gertatzen den gobernadore militarrekin! Sarritan aldatzen dituzte; nik, ordea, hogeita hamar urte daramatzat leku berean». Eta honela erantzuten zion beti gainerako funtzionarioetako batek edo bestek: «Zu lasai bizi zara, Ivan Andreitx *Sprechen Sie Deutsch*, postetxean lan egiten duzu, gutunak jaso eta bidaltzea beste ardurarik ez duzu. Makurkeria txikiak bakarrik egiten dituzu: bulegoa ordu bete lehenago itxi, diru apur bat kendu merkatari bati edo besteri ezorduan joan delako gutun baten bila, bidali behar ez den pakete bat bidali; horrela edonor da santua! Guri, ordea, tentatzera etortzen zaigu egunero deabrua, guk ez ditugu onartu nahi haren opariak, baina berak eskumenean jartzen dizkigu; gustatuko litzaidake jakitea nola jokatuko zenukeen zuk orduan! Zu, jakina, kezka handirik gabe bizi zara, seme bakarra duzu-eta; nire Praskovia Fiodorovna, ordea, ohi ez bezalako dohainez hornitu du Jainkoak, eta urtero ekartzen dit Prashkushka bat edo Petrushka bat. Bai, adiskidea, nire egoeran

bazeunde, beste kuku batek joko lizuke». Horrela hitz egiten zuten funtzionarioek, eta ez dago-
kit niri epaitzea zaila ala erraza den deabruaren
tentaldiei buru egitea. Nabaria zen, hala ere,
ezinbesteko gauza bat falta zela funtzionarioen
kontseilu hartan: herri xeheak zentzu ona derit-
zton hori hain zuzen ere. Oro har, errusiarrok ez
gaude batzarretarako eginak. Dena zuzenduko
duen batzarbururik ez badago, sekulako anaba-
sa izaten dira gure bilera guztiak, hasi nekaza-
rien biltzarretatik eta batzorde zientifikoetaraino
eta goi-mailako beste edozein bilkuraraino. Zail
da azaltzen zergatik gertatzen den hori; horrela-
koxeak gara errusiarrok, jostatzeko eta jateko
elkartzen garenean bakarrik konpontzen gara
ondo, alemaniarrek beren klub eta elkarteetan
egiten duten legez. Hori bai, beti gaude prest
edozein unetan edozeri ekiteko. Bat-batean,
gogoak ematen digunean, hutsetik sortzen ditu-
gu elkarte filantropikoak, onegintzazkoak eta
beste edozein motatakoak. Ederrak dira gure
asmoak, baina ahaleginak ez du inolako fruiturik
emango. Beharbada, horrela gertatzen da askie-
tsirik geratzen garelako hasi bezain laster, dena

eginik dagoelakoan. Demagun, esaterako, baten batek onegintzazko elkarte bat sortzen duela pobreei laguntzeko, eta dirutza handia bildu duela horretarako, bada, hain ekintza goresgarria ospatzeko, berehala antolatuko du bazkari bat hirian diren handiki guztientzat, eta horretan xahutuko du bildutako dirutzaren erdia; gainerako diruarekin etxebizitza dotore bat akuratuko du elkartearen zuzendaritza-batzordearentzat, berogailu eta atezainekin, eta behartsuentzat bost errublo eta erdi geratuko dira guztira, eta, diru hori nola banatu behar den erabakitzeko ordua iritsirik, onegintzazko elkarteko kideak ez dira ados jarriko, nork bere lagunak faboratu nahi ditu eta. Baina orain hizpide dugun bilera oso bestelakoa zen: funtzionarioak halabeharrez elkartu ziren. Ez ziren bildu txiroen edo gizabanako ezezagun batzuen beharrizanez mintzatze-ko, ezpada beren arazoak konpontzeko; guztiguztiei gainera zetorkien ezbehar handi baten kariaz batzartu ziren. Beraz, nahi eta nahi ez, bat egin behar zuten denek, eta ados jarri. Baina deabruak daki zer atera zen handik. Bilera guztietan izaten diren eztabaidak alde batera utzi-

rik, bildutakoen iritziek zalantza harrigarria agertzen zuten: batek zioen Txitxikov zela billete-faltsutzailea, baina handik gutxira hark berak eransten zuen: «Tira, beharbada, bera ez da faltsutzailea»; beste batek zioen gobernadore militarren bulegoko funtzionarioa zela, baina berehala gaineratzen zuen: «Tira, egia esan, deabruak daki zer den, ez darama bekokian idatzirik». Susmoak susmo, inork ez zuen onartzen Txitxikov gaizkile mozorrotua izan zitekeenik. Itxurari erreparaturik, asmo oneko gizona ematen zuen, eta, gainera, haren solasetan ezerk ez zuen erakusten odol gaiztoko gizon zakarra zenik. Bitartean, baziren hainbat minutu postaburua bere gogoetetan murgildurik zegoela, eta, halako batean, ustekabeko ideia batek edo beste zerbaitek ziztaturik, ziplo galdetu zuen:

— Badakizue nor den?

Hori esateko erabili zuen ahots-doinuak zer-bait ikaragarria adierazten zuten, halatan, non batzarkide guztiek aho batez oihukatu baitzuten:

— Nor?

— Kopeikin kapitaina, nor eta Kopeikin kapitaina bera!

— Eta nor da Kopeikin kapitain hori? —galde-
tu zuten denek batera.

Eta postaburuak erantzun zuen:

— Nola! Ez dakizue nor den Kopeikin kapitai-
na?

Ezetz erantzun zuten denek, ez zekitela nor
zen Kopeikin kapitain hori.

— Kopeikin kapitaina —esan zuen postabu-
ruak, bere toxa erdiraino bakarrik zabaldurik,
batzarkideren batek bere hatzak han sartuko ote
zituen beldurrez. Zalantza handiak zituen hatz
haien garbitasunari buruz, eta honela esan ohi
zuen: «Barkatu, jauna, baina batek daki non ibili
diren zure hatz horiek, eta tabakoa garbitasun
handia eskatzen duen gauza da».

— Kopeikin kapitaina... —esan zuen, bada,
postaburuak, tabakoa sudurretik hartutakoan—,
tira, kontatuko dizuet haren istorioa. Ikusiko
duzue, gai interesgarria da edozein idazle-
rentzat, poema oso bat idazteko modukoa.

Han bildutako guztiek gogo bizia agertu
zuten jakiteko istorio hura edo, postaburuak
esan zuenez, edozein idazlerentzat gai interes-

garría zen kontakizun hura, eta honela hasi zen postaburua:

Kopeikin kapitainaren istorioa

— Hamabigarren urteko kanpaina amaitutakoan, jaun agurgarri hori —hasi zen postaburua, gelan jaun bakarra barik sei bazeuden ere—, hamabigarren urteko kanpaina amaitutakoan, Kopeikin kapitaina etxera bidali zuten gainerako zaurituekin batera. Kontua da beso bat eta hanka bat galdu zituela guduren batean, Krasnoie-koan edo Leipzig-ekoan, ez nago ziur. Garai hartan, badakizu?, oraindik ez zegoen inolako legerik zaurituei buruz; gerrako elbarrituen egoera askoz geroago arautu zuten, hortik atera kontuak. Kopeikin kapitaina konturatu zen lan egin beharko zuela, baina beso bakarra zeukan, ezkerrekoa hain zuzen ere, ulertzen? Aitaren etxera joan zen, eta aitak zera esan zion: «Ezin zaitut mantendu, ozta-ozta irabazten dut neuretzako ogia». Gauzak horrela, gure Kopeikin kapitainak erabaki zuen Petersburgera joatea, tsa-

rrarengana, errukia eta laguntza eskatzera: «Aintzat hartu beharko luke berorrek bizia emateko prest egon naizela, odola isuri dudala halako eta halako lekuan, eta honelako eta halako ezbeharrak gertatu zaizkidala...». Nola edo hala, noiz konboi militarretan, noiz Estatuaren gurditzarretan, Petersburgera iristea lortu zuen azkenean. Pentsa ezazu: gure Kopeikin, kapitain arrunta bera, bat-batean aurkitu zen munduan parekorik ez duen hiriburu horren erdian! Bat-batean, aurrean dauka argia, bizitzaren zelaia, Scheherazade liluragarri bat, nolabait esateko. Pentsa ezazu: hortxe dauka Nevski hiribidea, badakizu?, eta Gorokhovaia kalea, eta Liteini etorbidea, eta, mila deabru!, hortxe dauka orratz ospetsua ere, airean zut; zubiak esekirik daude deabruak daki nola, batere euskarririk gabe, ulertzen?; hitz batean, Semiramis bat, jaun agurgarri hori, bene-benetako Semiramis bat! Bizitegiren bat akuratu beharra zeukan, baina ikaragarri garestiak ziren denak: errezelak, tapizak, alfombrak... mordoka, badakizu?, Pertsian zegoela ematen zuen, Pertsian bertan!; ibiltzean, esan liteke dirua zapaltzen zuela oin azpian.

Sudurrak milaka errubloren usaina aditzen zuen kalean; eta gure Kopeikin kapitainaren kapital guztia bost errubloko hamar billete ziren, ulertzen? Azkenean, nonbaitera behar-eta, ostatu hartu zuen Revelski kalekan, eguneko errublo bat ordaindurik; jateko, aza-zopa eta behi-xerra bat besterik ez egun osoan. Berehala konturatu zen ez zeukala horrela luze bizitzerik. Norengana jo zezakeen galdetu zuen. Esan zioten bazela goi-mailako batzorde bat, kontseilu-moduko bat alegia, ulertzen?, halako eta halako jenerala buru zuena. Baina sasoi hartan, ez badakizu ere, tsarra ez zegoen hiriburuan; armada, badakizu?, artean ez zen itzuli Parisetik, atzerrian zegoen mundu guztia. Gure Kopeikin ohi baino goizago jaiki zen ohetik, orraztu zuen bizarra ezkerreko eskuaz —zeren bizargileak dirua kobratuko zion—, jantzi zuen bere uniforme higatua, eta, egurrezko hankaren gainean herrenka, han joan zen goi-mailako batzorde hartako buruarengana, aipatu zioten handi-mandiarengana alegia, ulertzen? Non bizi zen galdetu zuen. «Han», esan zioten, Dvortsovaia malekoian zegoen eraikuntza bat seinalaturik. Nekazari-etxeen antza zuen.

Leihoetako kristalak, badakizu?, sajen eta erdiko beiratzarrak ziren, bazirudien ezen pitxerrak eta geletako gauza guztiak etxetik kanpoan zeudela, hortik atera kontuak!, eskuaz ukitu ahal ziren kaletik, nolabait esateko; hormetako marmol baliotsua, metalezko apaingarriak, ateetako eskulekuak..., inor ez litzateke ausartuko hori guztia ukitzen aldeztatik dendara joan, xaboi-zatitxo bat erosi eta pare bat orduz eskuak igurtzi gabe; hitz batean, hango distira, nolabait, edonoren burua nahasteko modukoa zen. Atezainak berak jeneral handi baten itxura zuen: makila urrekara, konde-aurpegia, ondo gizenduriko dobazakur potoloa ematen zuen; batistazko lepotxoak ere bazituen doilor hark!... Gure Kopeikin asko kostata igo zen bere egurrezko hankarekin harrera-gelaraino, eta bazter batean geratu zen, hormaren kontra estuturik, Amerikatik edo Indiatik ekarritako portzelanazko pitxer urrekararen bat ukondoaz jotzeko beldurrez, badakizu? Denbora luzea eman zuen han zutik, zeren, bera iritsi zenean, jenerala ohetik jaiki berria zen eta goizeroko garbiketarako egiten ari zen gelazainak eramandako zilarrezko konketa

batean, hortik atera kontuak! Gure Kopeikin lau ordu egon zen han itxaroten, eta azkenean jeneralaren laguntzaile bat edo guardiako funtzionario bat sartu zen harrera-gelan. «Jeneralak esan du laster jaitsiko dela harrera-gelara.» Eta harrera-gela jendez mukuru zegoen ordurako, plater batean babak adina lagun bazen han, nolabait esateko. Eta ez pentsa, ez ziren morroiak edo herritar arruntak, ez; laugarren edo bosgarren mailakoak ziren denak, koronelak, jeneralak; makarroi handi bat baino gehiago ikusten ziren sorbaldakoetan distiratsu. Bat-batean, halako dardara atzemangaitz bat hedatu zen harrera-gelan, haizetxo leun bat sartu balitz bezala. «Ixo, ixo», entzun zen hor-hemen, eta, azkenean, isiltasun erabatekoa egin zen. Agertu zen handi-mandia. Pentsa ezazu: estatu-gizon bat! Haren aurpegia..., nola esan?, bere mailari zegokion aurpegia zuen, ulertzen?, goi-goiko funtzionario baten aurpegia, bai? Harrera-gelan zeuden guztiak irmo jarri ziren segituan, dardaraka, urduri, norberaren patua nola erabakiko. Ministroa, edo handi-mandia, nolabait esateko, banan-banan hurbildu zen guztiengana: «Zer nahi duzu? Zerk

ekarri zaitu hona? Zer behar duzu zuk? Zertara etorri zara?». Azkenean, jaun agurgarri hori, Kopeikin kapitainaren txanda etorri zen. Kopeikinek, nola edo hala adorea bildurik, zera esan zuen: «Berorren Gorentasuna, odola isuri dut, beso bat eta hanka bat galdu ditut, ezin dut lanik egin. Atrebentzia handia bada ere, laguntza eskatu nahi nioke tsarrari». Ikusi zuen ministroak bere aurrean egurrezko hanka, eta eskuineko mahuka hutsa jakari josirik, eta esan zuen: «Ondo da, itzul zaitetz beste egun batean». Gure Kopeikin pozez zoratzeko puntuan irten zen handik; batetik, hain funtzionario goi-mailakoak entzun ziolako, eta bestetik, azkenean erabakiren bat hartuko zutelako bere pentsioari buruz. Jauzi txikiak eginez zihoan espaloitik, oso aldar-te onean, ulertzen? Palkinski ostatuan sartu zen kopa bat vodka edatera, London jatetxera joan zen bazkaltzera, txuleta kaparrondoekin eta oilanda galkatua eskatu zituen, baita botila bete ardo ere; arratsean antzerkera joan zen. Hitz batean, parrandan ibili zen, badakizu? Begiz jo zuen espaloitik zihoan emakume ingeles lirain bat, beltxarga bezain lerdana, nolabait esateko.

Kopeikin kapitainari irakiten jarri zitzaion odola, eta korrika joan zen harenganantz bere egurrezko hankarekin, eta haren atzetik tipi-tapa zihoa-la, pentsatu zuen: «Ez, hobe diat pentsioa kobratzen dudanerako utzi. Diru gehiegi gastatu diat jadanik». Eta hiruzpalau egun geroago, jaun agurgarri hori, Kopeikin kapitaina berriro joan zen ministroaren etxera, eta haren zain egon zen harrera-gelara jaitsi zen arte. «Berorregana etorri naiz jakitera zer erabaki duen Berorren Gorentasun Txit Ohoragarriak gaixo eta zaurituei buruz...», eta hitz egokiak aukeratuz azaldu zion bere bisitaren zergatia. Esan gabe doa handi-mandiak berehala ezagutu zuela: «Oso ondo, baina tsarra itzuli arte itxaron behar duzu, besterik ezin dizut esan oraingoz. Orduan hartuko dira zaurituei buruzko erabakiak. Tsarraren esku dago hori, nik ezin dut neure kabuz ezertxo ere egin». Buru-makurtua, eta agur. Esan beharrik ez dago Kopeikin kapitaina erabat nahasirik atera zela jeneralaren etxetik. Izan ere, ziur zegoen biharamunean bertan emango ziotela dirua, esanez: «Hartu, adiskidea, edateko eta ondo pasatzeko». Eta, horren orde, itxaroteko

esan zioten, eperik jarri gabe gainera. Sukaldariak ura bota dion zakurraren antzera jaitsi zen eskaileran behera: buztana hanken artean sarturik eta belarriak beheraturik. «Ez —zioen bere artean—, itzuliko nauk berriro, azalduko zioat jatekoa amaitzen ari zaidala eta gosez hilko naitzela laguntzen ez badidate.» Labur esanik, berriro inguratu zela Dvortsovaia malekoira, eta zera esan zioten han: «Ezinezkoa da, jeneralak gaur ez du inor hartzen, itzul zaitez bihar». Eta biharramunean gauza bera; atezainak begiratu ere ez zion egin. Eta ordurako, jauna, bost errubloko billete haietatik bakarra gelditzen zitzaion poltsikoan. Lehen, gutxienez, aza-zopa eta behi-xerra jaten zituen egunero; orain, ordea, ogi-puskatxo bat eta sardinaz bat edo, aukeran, luzoker gazitu bat, dendan erosiak; goseak akabatzen zegoen gizagaixoa, eta matxinaturik zeuzkan tripa-zorri guztiak. Jatetxe baten albotik pasatu zen; sukaldaria, badakizu?, atzerritarra zen inondik ere, frantsesa-edo, eta han zegoen, Holandako hariz eginiko mantala jantzirik, elurra bezain zuri burutik oinetaraino, saltsak, saiheskiak boilurrekin eta bestelako jaki gozoak prestatzen, gosea-

ren gosez nori bere burua jateko gogoa egiten dioten horietakoak, nolabait esateko. Igaro zen Miliutin-en dendaren albotik ere, leihotik begiratu, eta han ikusi zituen izokin eder batzuk, gereziak —bost errublo alea, aizu!—, angurri erraldoi bat diligentzia baten tamainakoa —bazirudien kalera atera nahi zuela ehun errublo ordaintzeko prest legokeen inozoren baten bila—, hitz batean, tentazioak edonondik, ur bihurturik zeukan aho-sabaia, eta «bihar» entzuten zuen denbora guztian. Pentsa ezazu nolako kinkan zegoen: alde batetik, izokina eta angurria; beste aldetik, berriz, jaki berbera zerbitzatzeko zioten behin eta berriro: «Bihar». Azkenean, gizagaixoak ezin izan zuen hori gehiago jasan, eta gotorlekua indarrez hartzea erabaki zuen, nolabait esateko. Ate aurrean itxaron zuen beste eskatzaileren bat iritsi arte, eta, inor ohartu gabe, halako jeneral bati atea ireki ziotela baliatuz, itzalgaizka sartu zen harrera-gelaraino bere egurrezko hankarekin. Ohi zuenez, agertu zen halako batean handimandia: «Zer nahi duzu? Zer behar duzu? Hara! —esan zuen, Kopeikin ikusirik—, esan dizut, bada, itxaron egin behar duzula erabakiren bat

hartu arte». «Mesedez, Berorren Gorentasun Txit Ohoragarria, goseak amorratzen nago, ez daukat zer janik...» «Eta zer? Nik ezin dizut lagundu; oraingoz, zeure baliabideekin moldatu beharko duzu, saia zaitez bizibidea zeure kabuz ateratzen.» «Baina, Berorren Gorentasun Txit Ohoragarria, nolatan aterako dut neure kabuz bizibidea hanka-motza eta beso-bakarra izanik?» «Ez tematu —esan zion goi-mailako funtzionarioak—, nik ezin zaitut mantendu; zauritu asko dago, eta guztiek dituzte eskubide berberak... Pazienzia hartu. Itzuliko da tsarra, eta ohorezko hitza ematen dizut Bere Maiestate errukiberak ez zaituela bazter utziko.» «Baina, Berorren Gorentasun Txit Ohoragarria, nik ezin dut itxaron», esan zion Kopeikinek, zakar samar. Ulertuko duzunez, jaun agurgarri hori, handi-mandia gogaiturik zegoen ordurako. Izan ere, jeneral mordoa zeukan bere erabaki eta aginduen zain; garrantzi handiko eginkizunak zituen, berehala konpondu beharreko estatu-arazoak, ezin zuen minutu bat ere alferrik galdu, eta hortxe zeukan deabru burugogor hura alamera ematen. «Barkatuko didazu, jauna, baina oso lanpeturik nago... arazo

larriagoak ditut konpontzeko.» Hain modu leunez adierazi zion denbora amaitua zela eta alde egin behar zuela. Baina gure Kopeikin, goseak ziztaturik, honela mintzatu zitzaion: «Ondo da, Berorren Gorentasun Txit Ohoragarria, ez naiz hemendik mugituko nire arazoa konpondu arte». Alajainkoa! Goi-mailako handi-mandi bati horrela erantzutea ere! Zeren eta, badakizu?, jeneralak aski zuen hitz bakar bat esatea edonor lekutara bidaltzeko arrastorik utzi gabe... Gainera, kontuan izan behar duzu ezen, gure artean, gordinkeria larritzat hartuko litzatekeela funtzionario bat beste bati horrela mintzatzeari, beste funtzionario hori maila apalagokoa izanik ere. Baina funtzionario hura jenerala zen, eta gure Kopeikin, aldiz, kapitain arrunta, ulertzen?, alde itzela zegoen. Bederatziehun errublo alde batean eta bat ere ez bestean! Jeneralak begiratu besterik ez zion egin, baina haren begirada, badakizu?, su-arma baten antzekoa zen, edonori ilea lazteko modukoa. Eta gure Kopeikin bere lekutik mugitu ez, bertan erroak egin balitu bezala. «Zer esan duzu?», galdetu zion jeneralak amorru bizian. Dena dela, aitortu beharra dago nahikoa

bihozbera izan zela berarekin: hainbeste izutuko zuen beste edonor, ezen hiru egun geroago oraindik ibiliko baitzen kalean hankaz gora jira-biraka, nolabait esateko; baina Kopeikini zera esan zion bakarrik: «Ondo da, hiriko bizitza garestia bada zuretzat, eta ezin baduzu hemen lasai itxaron zure auzia erabaki arte, Estatuaren kontura bidaliko zaitut hemendik. Deitu mezulariari! Itzuli gizon hau bere herrira!». Esan gabe doa mezularia segituan azaldu zela: hiru arshineko gizon puska bat zen, haren eskutzarrak, badakizu?, propio eratu zituen Naturak gurdia gidatzeko eta kolpeka hortzak ateratzeko. Hartu zuen, bada, mezulariak Jainkoaren mirabe hura, eta gurdi batean sartu zuen. «Tira —pentsatu zuen Kopeikinek—, gutxienez musu truk egingo diat bidaia, gaitz erdi!» Eta mezulariarekin batera gurdian zihoalarik, zera pentsatzen zuen: «Jeneralak esan dik neure kabuz atera behar dudala bizibidea, eta horixe egingo diat hain zuzen ere, neure kabuz atera bizibidea, bai horixe!». Kontua da inork ez dakiela nola eta nora eramán zuten. Ez zen jakin Kopeikin kapitainaren berri gehiagorik, haren oihartzuna ahanztu-

raren ibaian galdu zen, Leteon, poetek esaten duten bezala. Baina, jaun agurgarri hori, hementxe hasten da eleberriaren haria, edo kontakizunaren bilbea, nolabait esateko. Esan dugunez, batek daki zer gertatu zen Kopeikinekin; baina, handik bi hilabetera, bandido-sail bat agertu zen Riazango basoetan, eta badakizu nor zen bandido-sailaren buruzagia, jaun agurgarri hori? Bada, nor eta...

— Egon apur batean, Ivan Andreievitx —esan zuen tupustean poliziaburuak, haren jarioa etenik—, esan duzunez, Kopeikin kapitaina hankamotza eta beso-bakarra zen, eta Txitxikov, aldiz...

Oihu bat jaulki zitzaion orduan postaburuari, eskua zabal-zabalik bekoki erdian zartakoa jo, eta astakirtena deitu zion bere buruari guztien aurrean. Ezin zuen ulertu nolatan ez zen horretaz jabetu kontakizunaren hasieran, eta aitortu zuen guztiz zuzena zela esaera zaharra: «Errusiarraren burua beranduegi ohartzen da egiaz». Nolanahi ere, hori aitortu bezain laster, aitzakiantan hasi zen, eta, bere hutsegitea zuritu nahirik, esan zuen mekanika oso aurreraturik zegoela

Ingalaterran eta, hango egunkariak jakinarazi zutenez, egurrezko hanka harrigarriak asmatu zituztela: erresorte ikusezin bati eraginez gero, hanka haiek gai ziren edonor izugarri urrun eramateko, berriro ezin aurkitzeko moduan.

Baina gainerako funtzionarioek ez zioten egiaren antz handirik hartu Txixikov Kopeikin kapitaina zelako horri, eta uste zuten postaburua urrunegi joan zela. Dena dela, haiek ez ziren askoz zuhurrago ibili, eta, postaburuaren irudipen xelebreek eraginik, bera bezain urrun joan ziren. Agertu zituzten hipotesi guztien artean bazen bat benetan bitxia, zeinaren arabera Txixikov Napoleon baitzen, mozorroturik. Ingelesek ondamuz begiratzen zioten aspalditik Errusiari, hain lurralde handi eta zabala zelako, eta behin baino gehiagotan argitaratu ziren horri buruzko karikaturak. Karikaturetan errusiar bat agertzen zen ingeles batekin hizketan: ingelesa zutik dago eta zakur bat dauka atzean, sokaz loturik; zakurra Napoleon da, eta ingelesak honela diotso errusiarrari: «Kontuz ibili, bestela zakur hau xaxatuko dut zure kontra»; eta ingelesek, inondik ere, Santa Helena uhartetik alde

egiten utzi zioten Napoleoni, eta orain Errusian barrena zebilen Txitxikov balitz bezala, baina ez zen benetan Txitxikov.

Sinetsi, funtzionarioek ez zuten hori sinesten, jakina; baina hausnarrean hasita, eta nork bere kolkorako hori guztia azterturik, iruditzen zitzaien ezen, Txitxikoven aurpegiak, jiraturik eta albora begira jarririk, Napoleonen potretaren antz handia zuela. Poliziaburuak, hamabigarren urteko kanpainan zerbitzatu baitzuen, bertatik bertara ikusia zuen Napoleon, eta onartu behar izan zuen ezen, goibeheari zegokionez, ez zela Txitxikov baino garaiagoa, eta bere gorpuzkerari zegokionez, berriz, Napoleonek ere ezin esan zezakeela lodiegia zenik, baina argala zenik ere ez. Seguraski, hainbat irakurlek esango dute ezin sinetsizkoa dela hori; autoreak, irakurle horiei atsegina ematearren, prest dago onartzeko ezin sinetsizkoa dela; baina, zoritxarrez, horrelaxe gertatu zen, kontatu dudana bezalaxe, eta hori are harrigarriagoa da kontuan izanik hiri hura ez zegoela bazter urrun batean galdurik, bi hiriburuetatik hurbil baizik. Bestetik, gogorarazi beharra dago frantsesak gure herrialdetik egotzi eta

gutxira jazo zela hori guztia. Garai hartan, politikari sutsuak bilakatu ziren gure lurjabe, funtzionario, merkatar, dendari eta, oro har, irakurtzen eta idazten zekiten guztiak, eta ez zekitenak ere bai, eta gutxienez zortzi urte iraun zuen horrek. Jendeak grina biziz irakurtzen zituen *Moskovskie Vedomosti* eta *Sin Otetxestva*, eta azken irakurlearen eskuetara iristen zirenerako, txiki-txiki eginik zeuden, ezertarako balio ez zutela. Galdetu beharrean «Zenbatean saldu duzu olo-neurria?» edo «Nola baliatu duzu atzoko elurra?», honako galderak egiten zizkieten elkarri: «Zer diote gaurko egunkariak? Berriro utzi diote Napoleoni uhartetik alde egiten?». Merkatariek beldur handia zioten horri, zeren itsu-itsuan sine-tsi baitzituzten azti baten iragarpenak. Azti hark hiru urte zeramatzan espetxean; halako batean iritsi zen hirira, batek daki nondik, arrain ustelaren kirats izugarria zeriola, laptiak oinetan eta ahari-laruzko beroki luzea soinean, eta iragarri zuen Napoleon antikristoa zela eta harrizko katez loturik zeukatela sei estepa eta zazpi itsaso harantzago, baina egunen batean kateak etengo zituela eta mundu osoa menderatuko

zuela. Espetxean sartu zuten horrelako gauzak esateagatik, baina haren iragarpenek eragin handia izan zuten, eta merkatariak zeharo asalaturik bizi ziren harrezkero. Luzaro izan zuten hizpide antikristoa; irabazi handiko tratuak tea edanez ospatzeko tabernan elkartzen zirenetan ere, antikristoaz mintzaten ziren. Funtzionario eta aitoren seme askok ere horretan pentsatzen zuten nahi gabe, eta, mistizismoz kutsaturik — garai hartan moda-modan baitzegoen—, oso zentzu berezia aurkitzen zioten «Napoleon» hitza osatzen zuten letretako bakoitzari; zenbaitetik zifra apokaliptikoak ere ikusi zituzten hizki haietan. Horrenbestez, ez zen harritzekoa funtzionarioek, nahi gabe, horrelako gogoetak erabiltzea buruan; nolana ere, laster seneratu ziren, konturaturik gehiegi lasaitu zituztela irudimenaren hedeak eta errealitatea bestelakoa zela. Pentsatu eta pentsatu, eztabaidatu eta eztabaidatu, eta azkenean erabaki zuten ez legokeela txarto Nozdriovi beste galdeketa bat egitea, aurrekoa baino ganorazkoagoa. Berak zabaldu zuen arima hilen istorioa, eta, zioenez, oso harreman estuak zituen Txitxikovekin; zalan-

tzarik gabe, beraz, zer edo zer jakingo zuen haren bizitzaz. Berriro saiatuko ziren, bada, Nozdriovi argitasunen bat ateratzen.

Bai bitxiak jaun funtzionario haiek eta, orokorrean, beste edozein gizarte-mailatako herritarrak oro! Ondo asko zekiten Nozdriov gezurti hutsa zela, ezin ziotela hitz bat bera ere sinetsi, nahiz eta hutsalkeriarik hutsalena esan, baina, hain zuzen ere, berarengana jo zuten. Nork ulertu gizabanakoa? Batek ez du Jainkoarengan sinesten, baina bai sinesten du hil egingo dela begitartean azkurarik izanez gero; beste batek ez du aintzat hartzen poetaren obra —eguna bezain argia, guztiz harmonikoa, bakuntasunik zentzuzkoenaz jantzia—, baina sutsuki goersten du mutiriren batek sorturikoa Naturaren berezko ordena erabat lardaskatuz, nahasiz, suntsituz eta hankazgoratuz, hori bai atsegin zaio, eta lau haizeetara aldarrikatzen du: «Honek bai, honek bai jakin du bihotzeko misterioak agerian jar-tzen!». Hirugarren batek bizitza osoan ez die behin ere jaramonik egin sendagileei, eta, azke-nean, araoka eta listuka sendatzen duten ema-kume horietako batengana joaten da, edo, are

hobeto, batek daki zer-nolako zaborrez eginiko edabe nazkagarri bat asmatzen du, zeren eta, Jainkoak daki zergatik, uste baitu horrekin baka- rrik sendatuko duela bere gaitza. Jakina, neurri batean behintzat, barkatzekoa zen funtzionario- en jarrera, oso ataka gaiztoan zeuden eta. Diote- nez, itotzear dagoenak edozeri heltzen dio, denik eta ezpalik txikienari ere, une horretan ez baita konturatzen ezpaltxo horrek euli baten pisuari eutsi ahal diola gehienez ere, eta berak lau edo bost pud pisatzen duela; baina nola une horretan ez den pentsatzeko gai, ezpaltxoari oratzen dio. Bada, gure funtzionarioek ere hala- xe, Nozdriovi heldu zioten azkenean. Poliziabu- ruak ohartxo bat idatzi zion berehala, arratsean bere etxera etortzeko gonbita eginez, eta auzo- ko polizia, zaldiz ibiltzeko botak jantzirik eta masailak gorri-gorri, lasterka joan zen Nozdrio- venera, jauzi txikiak eginez eta eskuaz ezpatari eusten ziola. Nozdriov buru-belarri murgildurik zegoen garrantzi handiko zereginetan; lau egun zeramatzan bere gelatik irten gabe; ez zion inori sartzen uzten eta leiho txiki batetik hartzen zuen janaria; hitz batean, argal eta zurbil zegoen.

Bere zereginak arreta handia eskatzen zion: ehunka karta zituen, eta sorta bat osatzeko adina aukeratu behar zituen haien artean, eta marka bana egin, karta haietan adiskiderik leialenarengan baino uste sendoagoa izateko moduan. Bi asterako lana zuen gutxienez; bitartean, Porfirik eskuila berezi batez igurtzi behar zion zilborra zakurkumeari, eta egunean hiru aldiz xaboiz garbitu. Nozdriov sutan jarri zen bakarraldia eten ziotelako; beste ezer baino lehen, pikutara bidali zuen auzoko polizia, baina poliziaburuaren ohartxoak irakurri bezain laster konturatu zen etekin ederra atera ahalko ziola arratsari, zeren, ohartxoak zioenez, karta-jokoan hasiberria zen lagun bat ere joatekoa baitzen haren etxera; guztiz bigundurik, gelako atea giltzaz itxi, edonola jantzi, eta poliziaburuaren etxera joan zen. Nozdrioven adierazpenak, leku-kotasunak eta baieztapenak hain gertatu ziren funtzionarioen usteen kontrakoak, ezen behea jo baitzuten haien hondar susmoek. Zirt edo zarteko gizon bipila zen Nozdriov, duda-mudaka ibiltzen ez diren horietakoa. Funtzionarioen aburuetan zenbat eta ziurgabetasun eta zalantza han-

diagoa atzeman, hainbat eta irmotasun eta ziurtasun handiagoa erakusten zuen berak. Hitzetik hortzera erantzun zien galdera guztiei. Esan zien Txitxikovek milaka errublaren arima hilak erosi zituela, eta berak ere saldu zizkiola batzuk, ez baitzuen aurkitu ez saltzeko arrazoirik. Galdeturik ea espioia zen eta ezkutuko zerbait argitara atera nahian zebilen, Nozdriovek erantzun zien baietz, espioia zela, salataria deitzen ziotela eskolan ere —non elkarrekin ikasi baitzuten biek—, eta behinola ikaskideek —Nozdriov bera ere tartean zela— hain jipoi handia eman ziotela horregatik, ezen berrehun eta berrogei izain jarri behar izan baitzizkioten lokietan (berrogei esan nahi izan zuen, beste berrehunak berez itzuri zitzaizkion). Galdeturik ea Txitxikov zen billete-faltsutzailea, erantzun zuen baietz, hura bera zela billete-faltsutzailea, eta gertaera bat kontatu zien bide batez, Txitxikoven trebetasun ezohikoaren erakusgarri: behin batean, agintariak, jakinik Txitxikoven etxean bi milioi errublo zegola billete faltsuetan, etxea zigilatu eta zaintzaileak jarri zituzten, bi soldadu ate bakoitzean, baina, guztiarekin ere, Txitxikov nola edo hala

moldatau zen gau bakar batean billete guztiak aldatzeko, eta biharamunean, zigiluak kendu zituztenean, etxean zituen billete guztiak legezkoak zirela ikusi zuten. Galdeturik ea Txitxikovek bazuen gobernadorearen alaba bahitzeko asmo sendorik eta ea egia zen bera horretan laguntzeko prest agertu zela, erantzun zuen baietz, lagundu egin ziola, eta berak esku hartu izan ez balu, porrot egingo zukeela. Berehala ohartu zen premiarik gabeko gezur horrek atsekabe latzak ekar diezazkiokeela, baina ezin izan zuen mihia bridatu. Hain xehetasun interesgarriak bururatu zitzaizkion, ezin izan baitzituen isilean gorde: bazekien zein elizatan ezkonduko ziren, bazekien Trukhmatxevka herrixkan zegoela, bazekien popeari aita Sidor zeritzola eta hirurogeita hamabost errublo ordainduko zizkiotela; esan zuen popeak ez zukeela amore emango berak beldurtu ez balu esanez salatu egingo zuela Mikhail dendajabea amabitxiarekin ezkondu zuelako; azkenik, gaineratu zuen bere kalesa utzi ziela iheslariei eta bera arduratu zela posta-geltoki guztietan ordezeko zaldiak prest egongo zirela ziurtatzeaz. Hainbeste xehetasun zekizkien,

ezen norberaren izenaz aipatzen baitzituen kotxezainak. Funtzionarioek asmoa zuten Napoleonez ere galdetzeko, baina atzera egin zuten, ikusirik Nozdriovek zer-nolako zentzugabekeriak esaten zituen. Hitz eta pitz ari zen, ez egiaren ez ezeren antzik ez zuten ergelkeriak esaten, eta funtzionarioak berarengandik aldendu ziren, hasperenka. Soilik poliziaburua geratu zen oraindik puska batean entzuten, noiz edo behin zer-bait interesgarria esango zuelakoan, baina, azkenean, airean eragin zion eskuari, esanez: «Deabruak daki zertan ari den!». Aho batez onartu zuten gezurtiari egiarik entzun nahi izatea arrantzura larrera joatea bezala dela. Lehen baino egoera okerragoan zeuden funtzionarioak, eta onartu egin behar izan zuten ez zegoela jakiterik zer zen Txitxikov. Argi geratu zen, ordea, nolakoa izaten den gizakia: neurritsua, zentzuduna eta azkarra besteri dagozkion arazo guztietan, baina ez norberari doazkionetan. Zein aholku egoki eta zuhurak ematen dizkion lagun hurkoari bizitzako egoera larrietan! «Bai argia haren burua!, bai sendoa aiurria!», aldarrikatzen dute denek. Baina buruargi horri zorigaitzen bat

badatorkio eta bizitzako egoera larri horietakoren bat egokitzen bazaio, bertantxe aienatzen da aiurri hori guztia, zeharo galtzen du burua gizon irmo horrek, eta haren baitatik ateratzen da koldar errukarri bat, ezdeus bat, haurtxo ahul bat, edo gixonerdi bat, Nozdriovek esan ohi duen bezala.

Batek daki zergatik, esamesa, irudipen eta zurrumurru haiek guztiek beste edonorengan baino eragin handiagoa izan zuten prokuradore dohakabearengan. Etxera heldu zenean, gogotetan murgildu zen, zeharo asaldaturik, eta, halako batean, ez bat eta ez bi, hil egin zen. Eserita zegoelarik, aulkitik erori eta ahoz gora geratu zen lurrean etzanda, perlesiak edo beste gaitzen batek jota. Ohi denez, garrasika hasi ziren denak, eskuak espantuz jasorik: «Ene Jainkoa!». Sendagileari deitu zioten, odola atera ziezaion, baina ikusi zuten prokuradorea arimarik gabeko gorpua zela jadanik. Orduan soilik jakin zuten, doluminez, zenduak izan bazuela arima, nahiz eta berak, bere apaltasunean, sekula ez zuen erakutsi. Bestetik, gizaki xumearen heriotza handikiarena bezain izugarria izaten da: arestian

gizon hura kalean ibiltzen zen, mugitzen zen, whistean jokatzeko zuen, askotariko paperak sinatzen zituen, sarritan ikusten zuten funtzionarioen artean bere bekain iletsekin, ezkerreko begia noizean behin berez kliskatzen zitzaioa, eta orain mahai gainean zetzan, begia ez zitzaion gehiago kliskatuko, baina bekainetako bat apur bat goraturik zeukan oraindik, halako galdera-imintzio batean gelditurik bezala. Jainkoak bakarrik daki hildakoak zer galdetu nahi zuten, zergatik hil zen eta zertarako bizi izan zen.

Baina hori guztia zentzugabea da!, ez du ez bururik ez hankarik!; ezinezkoa da funtzionarioak hainbeste beldurtzea, hain burugabekeria handiak asmatzea, egiatik hainbeste aldentzea, haur batek ere ikusiko bailuke zer gertatzen zen benetan! Hala esango dute irakurle askok. Auto-reari egotziko diote zentzugabetasun horren errua, edo ergelak deituko diete funtzionario errukarriei, zeren gizakiak oso eskuzabal jokatzen baitu beti «ergel» hitzarekin, eta prest egoten da lagun hurkoari horrela deitzeko egunean hogeit hamar aldiz. Aski du batek hamar alderditatik batean inozoa izatea, beste batek kirtena dei

diezaion, beste bederatzialderdiak aintzat hartu gabe. Irakurlearentzat erraza da epaitzea: bere talaian eroso eseririk begiratzen du behera — non gizabanakoak hurbil daukana soilik ikusi ahal baitu—, eta ostertz osoa begien bistan daukala aztertzen du han behean gertatzen den guztia. Mende asko oso-osorik ezabatu eta kenduko genituzke gizadiaren historia unibertsalaren kroniketarik, alferrikakoak izan zirela iritzirik. Orain haurrek ere egingo bide ez lituzketen huts asko egin dira munduan. Betiereko egiara iritsi nahirik, zein bide bihurri, oker, mehar, urrun eta ibilgaitzak hautatu dituen gizadiak, ohartu gabe bide zuzen-zuzena daukala aurrean, tsarrak jauziregi gisa erabiltzen duen eraikin dotorerara darimana bezain zuzena! Beste bide guztiak baino zabalagoa eta ibilerrazagoa da, eguzkitsua, gauez makina bat argiontzik argitua, baina jendea aldamenetik igarotzen da ilunpe beltzetan barrena. Eta gizakiek, Zeruak eman dien zentzuak gidaturik ibili arren, hamaika aldiz egin dute bidean atzera, hamaika aldiz galdu dira, hamaika aldiz itzuli dira egun-argitan bazter-leku ibilgaitzetara, hamaika aldiz itsutu dizkiote

begiak elkarri laino itxi batez, eta, gogoan nahasi-rik, lasterka joan dira argi-zakurren atzetik, eta, amildegiaren ertzera iritsita, izularriturik galdetu diote elkarri: «Non dago irteera? Non dago bidea?». Egungo belaunaldiak argi dakusa dena, harriturik begiratzen die bere aurrekoen hutsei, barre egiten du haien burugabetasunaren kontura, ez baita ohartzen Zeruko suak idatzi duela kronika hori, letra bakoitzak zerbait aldarrikatzen duela, iraganaren hatz larderiatsuak bera seinalatzen zuela handik, bera, egungo belaunaldia; baina egungo belaunaldiak barre egiten du, eta, harropuzturik, handiustez beterik, huts gehiago egiten ditu, zeinen kontura barre egingo baitute ondorengo belaunaldiek.

Txitxikovek ez zekien horren guztiaren berri. Berariaz bezala, bitarte horretan hotzeri arin batek jota egon zen, gaitz hori oso zabaldurik baitago gure probintzietako hiriburu askotan, klimaren eraginez. Hanpaturik zeuzkan oiak eta eztarria. Ondorengorik utzi gabe mundu honetatik ez joateko —Jainkoari nahi ez zekiola!—, erabaki zuen hobe zuela hiru bat egunez gelan geratu. Egun haietan, kamamilaz eta kanforrez

eginiko txaplata bat eduki zuen masailan loturik, behin eta berriro garbitzen zuen eztarria pikuesnez, eta esnean egosiriko pikuak jaten zituen gero. Denbora zer edo zertan ematearren, erositako nekazari guztien zerrenda berri eta zehatzak egin zituen, maletan aurkitu zuen *Vallièrako dukesa* obraren tomo bat irakurri zuen, begiratu bat eman zien kutxan gorderik zeuzkan gauza eta ohartxoei, berriro irakurri zituen haietako batzuk, eta izugarri aspertu zuen horrek guztiak. Ezin zuen inola ere ulertu zergatik hiriko funtzionarioek ez zioten bisitarik egiten, zer moduz zegoen galdetzeko besterik ez bazen ere, aspaldi ez zela beti egoten baitzen kotxe bat edo beste ostatuko ate aurrean, noiz postaburuarena, noiz prokuradorearena, noiz ganberaburuarena. Erantzuna ezin aurkiturik, soinak goratzen zituen, gelan batera eta bestera zebilela. Azkenean, hobeto sentitu zen, eta ikaragarri poztu zuen aire zabalera atera ahalko zela ikusteak. Gehiago luzatu gabe, bere burua txukuntzeari ekin zion. Ispilu aurrean jarri, bizarra haztatu, eta esan zuen: «Hau basoa!». Izan ere, basoa ez izanagatik, kokotsak eta masailek landarez

oparo estaliriko soroa ziruditen. Bazeukan, beraz, moztu on baten beharra. Edalontzira ur beroa isuri, kutxa ireki, eta eskuila eta xaboia atera zituen handik. Bizarra egindakoa, bizkor eta agudo jantzi zen, hain lehia biziz, ezen gutxi-gatik ez baitzen lurrera erori hankak galtzetan sartzerakoan. Jantzitakoan, gorputza kolonia-urez zipriztindu, eta, hotzetik ondo babesturik, kalera irten zen, masaila estalirik badaezpada ere. Sendatu berriek ohi dutenez, alaitsu irten zen kalera. Atsegingarri zeritzon bidean aurkitzen zuen guztiari, hala etxeei, nola kalean zebiltzan nekazariei. Egia esan, nekazariak serio samarrak ziren, eta eguna hasi zenetik lagunari masailako bat edo beste emateko aukera izan zuten gehienek. Baina Txitxikovek atsegingarri iritzi zien nekazariei ere. Aurrena, gobernadorea ikustera joateko asmoa zuen. Bidean denetariko pentsamenduak etorri zitzaizkion gogora; ilehoria zebilkion buruan jira-biraka, jostalari zeukan irudimena, adarra jotzen hasi zitzaion bere buruari ere, eta barre batzuk egin zituen bere lepotik. Oso aldarte onean iritsi zen, beraz, gobernadorearen etxe aurrera. Atarian longaina

bizkor erantzten ari zela, atezainak zur eta lur utzi zuen ustekabeko hitz batzuekin:

— Sartzen ez uzteko agindu didate!

— Nola? Zer diozu! Ez dakizu nor naizen, ala?

Begira iezadazu ondo aurpegira! —esan zion Txixikovek.

— Ondo asko dakit nor zaren, lehenago ere ikusi zaitut hemen —esan zion atezainak—. Hain zuzen ere, zuri sartzen ez uzteko agindua daukat, beste edonor batere eragozpenik gabe sar daiteke.

— Arranopola! Zer dela eta? Zergatik?

— Hori agindu didate, eta arrazoiren bat izango dute horretarako —esan zuen atezainak, eta «Bai» erantsi zuen gero. Zutik geratu zen Txixikoven aurrean, zeharo zabarturik, longaina eranztera lasterka hurbiltzen zitzaizolarik lehen erakusten zuen itxura adeitsua gorde gabe. Bazirudien honela zioela bere artean, berari begira: «Hara! Doilorra galanta izan behar duk hik, nagusi jaun-andreek etxetik horrela botatze-ko!».

«Ez diat ulertzen!», pentsatu zuen Txixikovek bere kolkorako, eta ganberaburuaren etxera

joan zen zuzenean. Baina ganberaburua hain-
beste asaldatu zen bera ikusi zuenean, ezen ezin
izan baitzuen taxuzko esaldirik josi, eta hain
zozokeria handiak esan zituen, ezen lotsa-lotsa
eginik geratu baitziren biak ala biak. Haren etxe-
tik alde egindakoan, kalean zihoala, Txitxikovek
senperrenak egin zituen ganberaburuak esanda-
koa ulertzeko eta haren hitzei zentzurik aurkitze-
ko, baina ezin zuen ezertxo ere ulertu. Beste
batzuen etxera joan zen orduan: poliziaburuare-
nera, gobernadoreordearenera, postaburuarene-
ra; baina, edo ez zuten hartu, edo hain harrera
bitxia egin zioten, hain izan zen ulergaitza eta
behartua haien hizketa, hainbeste aztoratu
ziren, hain nahasamendu handia erakutsi zuten,
ezen Txitxikovek duda egin baitzuen haien bur-
muinaren osasunaz. Saiatu zen beste norbait
ikusten, jokaera horren zergatia jakiteko behinik
behin, baina ez zuen inolako azalpenik bildu.
Nora ezean ibili zen hiriko kaleetan barrena,
sonanbuluen antzera, ezin erabakirik bera erotu-
rik zegoen ala funtzionarioek burua galdu zuten,
ametsetan zegoen ala buru-buztanik gabeko
egoera hura egiazkoa zen. Berandu, ia iluntzean

itzuli zen ostatura, nondik hain aldarte oneko atera baitzen, eta, gogaiturik, tea eskatu zuen. Gogoetatsu eta egoera bitxi hari buruzko oldozpen lausoetan murgildurik tea edaten ari zela, gelako atea ireki, eta Nozdriov agertu zen ustekabean.

— Esaera zaharrak dioenez, zazpi versta ez dituk bide luzea adiskidea ikustera joateko — esan zuen, kapelua erantzteaz batera—. Ostaturaren albotik pasatzean, argia ikusi diat hire leihoan. Ez zegok lotan, pentsatu diat, igoko nauk bisitatxo bat egitera. Primeran!, tea daukak mahai gainean prest, gustura edango nitek kati-lukada bat. Janari nazkagarria eman zidatek gaur bazkaltzeko, ondoezik zeukaat oraindik sabela. Agindu ezak pipa bat bete diezadatela! Non daukak heurea?

— Nik ez dut pipa erretzen —esan zuen Txi-txikovek, lehor.

— Tira, tira! Bazekiat erretzailea haizela. Ea, bada, deitu heure morroiari! Aizak, Bakhramei!

— Ez da Bakhramei, Petrushka baizik.

— Nola?, lehen baheukan Bakhramei izeneko morroi bat.

— Sekula ez dut izan Bakhramei izeneko morroirik.

— Arrazoi duk! Derebin-en morroia zuan Bakhramei. Entzun nolako zortea izan duen Derebinek: haren izebak egundoko iskanbila izan dik semearekin, jopu batekin ezkondu delako, eta berari utzi zizkiok bere ondasun guztiak. Alajaina, ez legokek batere txarto horrelako izeba bat edukitzea etorkizuna segurtatzeko! Aizak, adiskidea, nola aldendu haizen mundu guztia-rengandik! Ez haiz hemendik ateratzen, ala? Bai, bazekiat zeregin zientifikoetan aritzen haizela batzuetan, bazekiat gogoko duala irakurtzea (Nozdriovek nondik atera zuen gure protagonista zeregin zientifikoetan aritzen zela eta gogoko zuela irakurtzea, autoreak ez daki, eta Txitxikovek are gutxiago). Ai, Txitxikov, nire adiskidea, ikusi izan bahu...!, baheukan hor heure buru eztenzalearentzako elikagai eder askoa (Txitxikoven burua zergatik zen eztenzalea, hori ere ez dakigu). Jokoan aritu gintuan Likhatxe merkataria-riaren etxean, primeran pasatu genian. Hango barreak! Perependev nirekin zegoan, eta zera esan zidaan: «Bai tamalgarria Txitxikov hemen

ez izatea...!»). (Txitxikovek ez zuen inoiz ezein Perependeven aditzerik izan). Tira, adiskidea, aitor ezak zitalki portatu hintzela nirekin dame-tan egin genuenean. Gogoan duk?, nik irabazi nian... Bai, adiskidea, estu erabili ninduan egun hartan. Baina deabruak ondo zekik ni ez naizela huskeria batengatik haserretzen diren horieta-koa. Lehengo egunean ganberaburuarenean izan ninduan... Ah, bai!, ahaztu baino lehen esan behar diat hirian denak daudela hire kontra; uste ditek billeteak faltsutzen dituala, alamera emate-tera etorri zaizkidak, galdera mordoa egin zidatek hitaz, baina nik su eta gar defendatu haut, esan zieat elkarrekin ikasi genuela eta hire aita ezagutu nuela; esan beharrik ez zegok sekulako-ak entzun behar izan dituztela.

— Nik billeteak faltsutzen ditudala diote? — egin zuen espantu Txitxikovek, aulkitik apur bat altxaturik.

— Zer egin duk funtzionario guztiak hainbeste ikaratzeko? —jarraitu zuen Nozdriovek—. Izuak zoratu egin ditik: gaizkilea eta espioia hai-zela ziotek... Eta prokuradorea hil egin duk bel-durraren beldurrez, bihar lurperatuko ditek.

Joango haiz? Kontua duk gobernadore militar berria izendatu dutela, eta funtzionarioak beldur dituk ez ote zaien hire erruz zerbait gertatuko. Nire ustez, gobernadore militarra harroputza bada eta guztien gainera dagoela erakusten hasten bada, ez dik ezer lortuko aitoren semeen aldetik. Aitoren semeek adeitasuna nahi ditek, ez da hala? Jakina, litekeena duk bere bulegoan sartzea eta inolako dantzaldirik ez antolatzea; baina zer lortuko luke horrela? Horrekin ez likek ezertxo ere irabaziko. Dena dela, Txitxikov, hik oso asmo arriskutsuak dituk.

— Asmo arriskutsuak nik? Zein, gero? —galdetu zuen Txitxikovek, urduri.

— Gobernadorearen alaba bahitzea. Nik, aitor diat, horrelako zerbait gertatuko zelakoan nengoan, horixe nengoela! Lehen aldiz elkarrekin ikusi zintuztedanean, dantzaldian, neure baitan pentsatu nian: «Zerbait zerabilek buruan gure Txitxikovek...». Hala ere, ez haiz oso fin ibili aukeratzeko orduan, nik ez zioat ezer erakargarriarik ikusten neska horri. Baduk Bisukov-en ahai-de bat, haren arrebaren alaba, oso neska xarmagarria dena! Hura bai ederra!

— Baina zer diozu! Nolatan bahituko nuke nik gobernadorearen alaba? —esan zuen Txitxikovek, begiak arranpalo.

— Tira, tira, aski duk, adiskidea, zein isilkorra haizen! Hain zuzen ere, horrek ekarri naik hire-gana. Nahi baduk, prest nagok laguntzeko. Hire aitabitxia izango nauk ezkontzan, nire kalesa utziko diat eta ordezeko zaldiak jarriko ditiat posta-geltoki guztietan. Gauza bakarra eskatuko diat horren truke: hiru mila errublo utzi behar dizkidak. Kosta ahala kosta lortu behar diat diru hori, hil edo biziko kontua duk niretzat.

Nozdriov berriketan ari zen bitartean, Txitxikovek hainbat bider igurtzi zituen begiak, esna zegoela egiaztatu nahirik. Billeteak faltsutzea, gobernadorearen alaba bahitzea, prokuradorearen heriotza (zeinaren erruduna bera omen baitzen), gobernadore militar berriaren izendapena..., neurrigabeko izulaborri batek hartu zuen hori guztia entzutean. «Hori horrela bada —pentsatu zuen bere artean—, ezin nauk hemen gera-tu, lehenbailehen alde egin behar diat.»

Ahal bezain laster bidali zuen Nozdriov ostatu-tik. Berehala Selifani deitu, eta egunsentian

prest egoteko agindu zion, goizeko seietan beranduenez hiritik alde egin nahi baitzuen, hutsik egin gabe; esan zion ikuskatu beharreko guztia ikuskatzeko, britxka koipeztatzeko, eta abar, eta abar. Selifanek erantzun zion: «Zure esanera, Pavel Ivanovitx!», baina atean geratu zen puska batez, lekutik mugitu gabe. Petrushkari, berriz, maleta ohe azpitik ateratzeko agindu zion. Maleta hauts-geruza lodi batez estalirik zegoen ordurako, eta Txitxikovek, Petrushkarekin batera, berehala ekin zion bere gauza guztiak gordetzeari, harrapaka eta nolana. Gal-tzerdiak, alkandorak, barruko arropak —garbiak zein zikinak—, zapata-orkoiak, egutegia..., hartu ahala sartu zituen gauza guztiak maletan. Arratsean bertan utzi nahi zuen dena prest, biharamun goizean ustekabeko eragozpenik gabe abiatu ahal izateko. Selifan, pare bat minutuz ate ondoan geldirik egon ondoren, gelatik irten zen azkenean, poliki-poliki. Astiro, ezinago astiro jaitsi zen zurubian behera, bere bota bustien arrastoak utziz maila higatuetan, eta eskuaz garondoan hatz egiten jardun zuen tarte luze batez. Zer adierazten zuen hatz egite horrek?

Zer esan nahi zuen? Atsekabeturik zegoen bere asmoek porrot egin zutelako eta biharamunean ezin izango zelako tabernara joan bere lagun zarpailekin edo beroki zarpatsua gerrikoaz estu loturik zeraman arloteren batekin?; edo hiriko neskameren batez maitemindurik zegoen eta aurrerantzean ezin izango zen berriro elkartu bere maiteñoarekin etxe aurrean, ilunabarrak hiria biltzen zuelarik, haren eskutxo zuriak bereen artean kontu handiz estaturik, alkandora gorriko mutiko batek balalaika jotzen zuen bitartean, haren ingurura bilduriko neskame-morroiak entzule eta lana amaitutakoan etxerantz zihoan jendearen ahapeko barbaroa lagun? Edo pena ematen zion betiko uzteak zerbitzarien sukalde epela, non gozo-gozo egoten baitzen labearen alboan bere berokian bildurik?; goibel zegoen ez zituelako berriz dastatuko hiriko aza-zopa eta pastel samurrak, eta, horren orde, bidez bide ibili beharko zuelako berriro, euripean, lokatzetan, bideko neke guztiei aurre eginez? Jainkoak daki, ez dago igartzerik. Gauza asko adieraz ditzake errusiarrak garondoan hatz egiteak.

Hamaikagarren kapitulua

Baina Txitxikovek asmatu zuenaz bestera gertatu zen dena. Lehenik, nahi baino berandua-go esnatu zen. Hori izan zuen lehen nahigabea. Ohetik jaiki, eta galdetu zuen ea prest zegoen britxka eta gainerako guztia, baina jakinarazi zioten ezer ez zegoela prest oraindik, ez britxka eta ez gainerako guztia. Hori izan zuen bigarren nahigabea. Sutan jarri zen. Gure adiskide Selifan jipoi ederra emateko gertu, egonezinik geratu zen haren zain, nolako aitzakiak asmatuko ote zituen bere burua zuritzeko. Handik gutxira, atean agertu zen Selifan, eta azkar ibili beharra dagoenean zerbitzariak esan ohi dituztenak entzun behar izan zizkion nagusi jaunak.

— Kontua da zaldiak ez daudela ferraturik, Pavel Ivanovitx.

— Astaputza halakoa! Babo arraioa! Zergatik ez didak lehenago esan? Ez al duk horretarako denborarik izan, ala?

— Denbora izan dut, bai... Gainera, estutu egin behar da gurpil baten uztaia, bidean zulo

asko dago eta litekeena da edonoiz askatzea... Eta, zure baimenarekin, beste gauza bat ere esan behar dizut, jauna: endaitza guztiz koloka dago, ez du bi egun iraungo apurtu gabe.

— Doilor malapartatu hori! —esan zion Txitxi-kovek oihuka, besoak airean jatorik, eta hainbeste hurbildu zitzaion, ezen Selifan, nagusia-rengandik oparixoren bat jasoko ote zuen bel-durrez, gorputza pixka bat atzeratu eta alde batera baztertu baitzen—. Ni hiltzea erabaki duk, ala? Nagusi jaunari lepoa mozteko asmoa huen, ala? Bide handian nagusi jaunari lepoa mozteko asmoa huen, ezta, gizagaizto horrek? Astakirten madarikatua! Urde zikina! Hiru aste egon gaituk hemen, bai?, eta orain arte ez didak tutik ere esan, alproja horrek!, orain hator kontu horiekin, orain, bai?, azken orduan, alde egin beharra daukagunean, kotxera igo eta abiatzeko unean. Ederra egin didak, alajaina! Ze hik bahekien hori guztia, bai? Bai? Erantzun! Bahekien hori guztia? Esan! Bahekien! Eh?

— Bai, banekien —erantzun zuen Selifanek, burua makurturik.

— Eta zergatik ez didak ezer esan orain arte?

Selifanek ez zion ezer erantzun galdera horri, baina, burumakur, bazirudien honela zioela bere artean: «Zail da ulertzen, bai?: banekien eta ez dizut ezer esan!».

— Hoa ziztu bizian arotzaren bila. Bi ordu barru dena konpondurik ikusi nahi diat. Entzun duk? Bi ordu barru. Bestela, bestela... lepoa bihurrituko diat! —Haserre bizian zegoen gure protagonista.

Aterantz jiratu zen Selifan, nagusiaren agindua betetzera joateko, baina gelditu egin zen, eta esan:

— Beste gauza bat, jauna: hobe zaldi izpilduna saltzen baduzu. Izugarri maltzurra da, Pavel Ivanovitx, traba besterik ez du egiten.

— Bai, oraintxe bertan salduko diat azokan! Horrelakorik!

— Benetan, Pavel Ivanovitx, oso maltzurra da. Tiratzen duelakoa egiten du, baina itxura hutsa da. Ez dut beste inon horrelako zaldirik ikusi...

— Ergela ez bestena! Gogoak ematen didanean salduko diat. Ez hasi eztabaidatzen! Oraintxe bertan arotza ekartzen ez baduk eta bi ordu

barru dena prest ez badago, sekulako astindua emango diat..., herorrek ere ez diok heure aurpegiari antzik emango horren ondotik! Utikan! Ospa!

Gelatik irten zen Selifan.

Txitxikovek, amorruren amorruez, lurrera jaurti zuen sablea, aldean eramaten baitzuen beti bidaietan, behar adinako beldurra eta begirunea sorrarazteko asmo gaiztoko jendearengan. Ordu laurden bat eta gehiago egon zen arotzekin prezioaz eztabaidatzen, zeren arotz haiek —arotz guztiak bezala— zital hutsak baitziren, eta, lana laster egitekoa zela ikusirik, ohikoa baino sei aldiz gehiago eskatu zioten. Txitxikovek, beroaldirik handienez, lapurrak deitu zien, litxarrerok, atzapar-luzeak, Azken Judizioa ere aipatu zien, baina arotzek, batere ikaratu gabe, irmo eutsi zioten eskatutakoari, eta, prezioa ez beheratzeaz gain, bi ordu barik, bost eta erdi jardun zuten lanean. Bitartean, bidaiari guztiek hain ondo ezagutzen dituzten abiatu nahi eta ezineko minutu horien mingotsa dastatzeko aukera izan zuen Txitxikovek: eramane beharreko guztia maletan sarturik dago, eta gelan loka-

rriak, papertxoak eta denetariko zaborrak baizik ez dira geratzen; bidaiaria oraindik ez da bidea-rena, baina dagoen lekuarena izateari utzi dio jadanik; leihotik begiratzen die kaletik igarotzen direnei: astiro doaz, beren diru-arazoez hizketan, jasotzen dituzte begiak berarenganantz eta so gelditzen zaizkio lipar batez, ikusmin ergela agertuz, eta aurrera egiten dute gero, eta horrek areago sumintzen du abiatu ezinik dagoen bidaiari dohakabearen gogo haserrea. Gogaikarri zaio dena, hala leiho aurreko dendatxoa, nola kalearen beste aldeko etxean bizi den emakume zaharraren burua, zeina sumatzen baitu leihoko errezel laburren artean. Itsusi deritzo guztiari, baina ez da leihotik aldentzen, hortxe geratzen da, gogoia barreiatu orain, arreta sorgortua kalean mugitzen den guztian berriro jarririk gero, eta, zeharo gogait eginik, hatzaz zapaltzen du kristalera burrunbaka hurbildu den euli bat. Baina amaiera dute gauza guztiek, eta heldu zen azkenean zorioneko unea ere: prest zegoen dena, zalgurdiaren endaitza behar bezala finkatu- turik zegoen, gurpilak uztai berria zeukan, uras- katik ekarri zituzten zaldiak, eta etxera joan

ziren arotz lotsagabeak, bidaldi ona opa, eta lan-saritzat jasotako errubloak behin eta berriro zenbatzen. Azkenik, uztartu zituzten zaldia, bi opil bero sartu zituzten kotxean, erosi berriak, eta Selifanek, ordurako gida-aulkian eseririk, zerbait gorde zuen beretzat sakelan. Igo zen azkenean gure protagonista ere britxkara. Ostatuko morroiak, beti bezala lihozko jaka jantzirik, kapeluari airean eraginez agurtu zuen; kalera irten ziren ostatuko zerbitzari guztiak eta beste jaun batzuen lekaio eta gurdizainak ere, jaun atzerri-tarraren abiatzea ikusteko; eta, halatan, abiatzeetan gertatu ohi diren gauza guztiak gertatu zirela, ostatuko gurdi-atetik irten zen britxka, hirian hain luzaro egon den eta, beharbada, honezkero irakurleak aspertu dituen britxka hori, mutilzaharrek erabili ohi dituzten horietakoa. «Jainkoari eskerrak!», pentsatu zuen Txitxikovek, eta aitaren egin zuen. Selifanek indarrez dantzatu zuen zigorra. Handik gutxira, haren aldamenean eseri zen Petrushka, tarte batez oin-oholean zutik joan baitzen, harik eta gora bildu zuen arte. Gure protagonista, berriz, bizkar atzean larruzko bigungarri bat ipini, eta eroso

jarri zen Georgiako tapizean, bi opil beroak azpian zapaldurik. Zalgurdia galtzadan jauzika eta zabuka hasi zen berriro, zeren eta, lehenago ere ikusi dugunez, harrizko bide hark edozer airean altxatzeko ahalmena baitzuen. Halako sentimendu zehazgabe batez begiratzen zien Txitxikovek etxeei, hornei, hesiei eta kaleei. Astiro geratzen ziren atzean, eta bazirudien haiek ere jauzika ari zirela. Jainkoak bakarrik zekien berriro ikusteko aukerarik izango ote zuen! Kalegurutze batera iritsirik, zalgurdia gelditu behar izan zuen Selifanek, kalea segizio azkengabe batek harturik baitzegoen luze-zabal osoan. Txitxikovek, burua leihotik atera, eta nor ehorztera zihoazen galdetzeko agindu zion Petrushkari, eta jakin zuen prokuradorea ehorztera zihoazela. Sentipen gozakaitz batek estuturik, zoko batean ezkutatu, larruzko bigungarria gainean ipini, eta errezelak hedatu zituen. Zalgurdia halabeharrez geldirik egon zen bitarte guztian, Selifan eta Petrushka, txanoa debozior erantzirik biak, adi-adi begira egon ziren segizioan nor, nola eta non zihoan, eta kontatu egin zuten zenbat lagun zihoazen oinez eta zenbat

zalgurdiz. Nagusiak agindu zorrotza eman zien diosalik edo hitzik ez egiteko lekaio ezagunei, eta kanpora begiratu zuen gero berak ere, herabeki, larruzko errezelen arteko irekigunetik: hilkutxaren atzean funtzionario guztiak zihoazen, oinez eta kapelua eskuan. Beldur zen britxka ezagutuko ote zuten, baina funtzionarioak ez zeuden horri arretarik jartzeko aldarlean. Eguneroko bizitzaren gorabeheraz ere ez ziren mintzatzeten, nahiz eta jendeak horretaz hitz egin ohi duen hiletetan. Nork bere baitara bihurturik zeuzkan gogoeta guztiak, denak pentsatzen ari ziren nolakoa izango zen gobernadore militar berria, nola beteko zuen bere eginkizuna eta nola tratatuko zituen. Damak, kapelu beltzez jantzirik, hainbat karrozatan zihoazen funtzionarioen atzean. Ezpainen eta eskuen mugimenduek salatzen zuten berriketan ari zirela gogo biziz; beharbada, gobernadore militar berria zuten mintzagai haiek ere, eta, seguraski, antolatuko zituen dantzaldiez ari ziren, beren soinekoetako farfail eta brodatuez kezkatuak, beti bezala. Karrozen ondotik drojki huts batzuk zetozen, lerro-lerro; haiek ziren segizioaren amaiera,

eta gure protagonistak aurrera jarraitu ahal izan zuen azkenean. Larruzko errezelak bildu, hasperen egin, eta hunkiturik esan zuen bere artean: «Horra prokuradorea! Sasoi ederrean zegoan, eta hil egin duk bat-batean! Orain, egunkari guztietan idatziko ditek hil egin dela herritar zintzo bat, aita familiako on bat, senar ereduako bat, eta esango ditek bihotza doluminez dutela haren mendeko guztiek eta gizadi osoak; gauza asko idatziko ditek hari buruz. Seguraski, gaineratuko ditek alargunaren eta zurtzaren negarrek langundu ziotela hiletan. Nolanahi ere, gauzak ondo aztertuz gero, edonor konturatzen duk bekain iletsuak beste berezitasun nabarmengarririk ez zuela». Arinago joateko agindu zion Selifani, eta, bitartean, bere artean pentsatu zuen: «Dena dela, eskerrak segizioarekin topo egin dugun; diotenez, zorte ona zekarrek hil batekin topo egi-teak».

Britxkak, bitartean, kale bakartiagoetara jo zuen. Handik gutxira, oholesi luzeak baizik ez ziren ikusten inguruan, hiriaren amaieraren iragarle. Bukatu zen galtzada, atzean geratu ziren langa marraduna eta hiria, eta bidean aurkitu

zen berriro Txixikov. Eta berriz ere azaldu ziren bide nagusiaren alde banatan mugarriak, postageltokietako arduradunak, putzuak, orga-ilarak, herrixka grisak beren samovarrekin eta beren emakumeekin, bizar luzeko ostalari bizkorra —ostatutik lasterka irten berria, eskuan oloa daramalla—, bere lapti higituekin zortziehun verstaibili dituen arlotea, nolana ere irakurritako herrixkak beren dendatxo zurezkoekin —non irina, laptiak, opilak eta denetariko zirtzileriak saltzen baitituzte—, langa koloretsuak, konpontzen amaitu gabeko zubiak, ordoki amaigabeak bi aldeetan, lurjabeen orgatzarrak, soldadu bat zaldi gainean —herrestan eramanez «Artilleriako hainbatgarraren bateria» idatzirik daukan kutxatzar berde bat, berunezko balaz betea—, soro berdeak eta horiak, eta lur beltzeko alor irauli berriak estepan han-hemenka barreiatuak, abesti urrun baten doinua, pinuen adaburuak laino artean, kanpai-hotsa urrunago, bele beltzak nonahi, zerumuga azkenik gabea... Rus! Rus! Ikusten zaitut, Rus! Hortxe ikusten zaitut nire urruntasun liluragarri, eder honetatik: behartsu, eragabe, zakar; ikusmenean ditut hemen naturaren harri-

garri mutiriak artearen harrigarri mutiriek koroaturik, leiho ugariko jauregi garaiz josiriko hiriak haitzen erpinetan, zuhaitz pintagarriak, huntza etxeetako hormei itsatsirik, ur-jauzi burrunbatsuetako ur-hauts betierekoa lagun; ikusmira horrek ez dit, haatik, begirada alaitzen —ezta izutzen ere—, ez dut burua atzera bihurtzen airean amaierarik gabe pilaturiko harritzarrak ikusteko, zeren eta igarobidea eragozten baitio-te haien distirari hemengo arku ilunek —bata bestearen gainean altxaturik, mahatsondo bihurriek, huntzak eta ezin zenbatuzko sasi-arrosek harturik—, eta ez didate ikusten uzten mendi dizdizarien lerro amaigabeak han urrun, zilar koloreko zeru gardenaren azpian. Zu, ordea, zabala zara, inorgabea, berdina; atzemangaitzak dira zure hiri zapalak eremu lau horretan, puntuak edo orbantxoak dirudite zabaldiaren erdian; ezerk ez du begirada liluratzen, ezerk ez ditu begiak xarmatzen. Zer indar ulergaitz eta misteriotsuk erakartzen nau, bada, zuregana? Zergatik entzuten dut, etengabe, zure luze-zabal osoan barrena hedatzen den kanta tristea?, zergatik iristen da, itsasoz itsaso, nireganaino? Zer

du kanta horrek? Zer ari zait doinu horretatik deika, zer ari zait negarrez, zerk heltzen dio nire bihotzari? Mingarriro laztantzen nau haren oihartzunak, arima barruraino sartzen zait, bihotzaren inguruan kiribiltzen da. Zer du doinu horrek? Rus! Zer nahi duzu niregandik? Zein da gure arteko lokarri ezkutua? Zergatik begiratzen didazu horrela? Zure baitan dagoen guztiak zergatik zuzentzen ditu nireganantz bere begi itxaropenez beteak? ... Hemen nauzu, txunditurik, geldigeldirik, euriz zamaturik datorren hodei astun ilunak adimena itzaltzen didala, mutu pentsamena zure zabaltasun azkengabearen aurrean. Zer iragartzen du zure zabaltasun bazterrik gabeak? Hain mugagabea zarenez, ez da zure baitatik sortuko pentsamendu amaigaberik? Ez da bogatir bat bera ere zure eremu zabal horietan, ibiltzeko eta mugitzeko hain leku handia edukirik? Larderiatsu inguratzen nau zure zabaltasun ahaltsuak, indar izugarritz islatzen da nire sakonean, naturaz gaindiko ahalmenaz argitzen dizkit begiak. Ah!, zein urruntasun distiratsua, miragarria, Lurrean parerik gabea! Rus!

— Gelditu, gelditu, ergel hori! —egin zion oihu Txixikovek Selifani.

— Sablekada ederra emango diat! —esan zion garrasika bibote izugarri luzeko mezulari militar batek, zaldiaren eginahal guztian hurbil-durik—. Deabruak eraman dezala hire arima, ez al duk ikusten Estatuaren gurdi bat datorrela? —Eta, ikuspena bailitzan, troika bat igaro zen ziztu bizian, zalapartaka eta hautsa harrotuz.

Bidea! Zein liluragarria hitz hori, zein erakar-garria, zein miragarria!, eta zein miresgarria bidea bera: egun eguzkitsua, udazkeneko orbe-la, haize hozkirria..., ondo loturik daramagu longaina, belarrietaraino sarturik txanoa, estu eta eroso kuzkurturik gaude zalgurdiko zoko batean! Hotzikarek azken aldiz astintzen dituzte gorputz-atalak, eta epeltasun gozo batek hartzen du laster haien tokia. Lauoinka bizian doaz zaldiak... Zein modu tentagarrian agertzen den, itzalgaiz-ka, logalea!; ixten zaizkizu begiak, eta erdi lo entzuten duzu *Ez da zuria elurra* kanta, zaldien arnasestua, gurpilen zarata, eta zurrungan has-ten zara, bidelaguna bazterrean estuturik dauka-zula. Esnatzen zara: bost posta-geltoki geratu

dira atzean; ilargia, hiri ezezagun bat, zurezko kupula zaharrekiko eta erpin belztuekiko elizak, enborrezko etxe ilunak eta harrizko eraikin zuriak. Ilargiaren distira hor-hemen: badirudi oihalezko zapi zuriak zabaldu dituztela hormetan, galtzadan, kaleetan; itzalek, ikatza bezain ilun, saldoka zeharkatzen dituzte ilargi-izpiak; zurezko teilatuek zeharka distiratzen dute ilargiaren argitan, metal dizdizari baten antzera, eta ez da inon inor ageri, lo dago dena. Soil-soilik, argitxo banaka batzuek argi motela egiten dute han-hemenka etxeetako leihatiletan: zapatagina bota-parea josten, okina lantsu labearen alboan; baina nori axola haiek? Ah, gaua!, zeruetako indarrok!, nolako gaua goialde horretan! Nolako airea, nolako zerua, urruna, garaia, han, bere sakontasun iristezin horretan, hain luzea, zabala, argitsua eta hotsez betea!... Baina gaugiro hozkirriak begiak astuntzen dizkizu berriro, eta, gauaren arnasa hotzak urrumaturik, logaletu egiten zara, eta lokartu, eta zurrungaka hasi, eta bidelaguna haserre bihurritzen da bere tokian, zure gorputzaren zamak zoko batean zapaldurik baitauka gizagaixoa. Esmatzen zara, eta berriro

dakusazu aurrean estepa inorgabea, etxerik gabeko eremu zabala, dena berdina eta laua. Mugarri zenbakidunak arin igarotzen dira zure begien aurretik; urratzen ari da eguna; urre koloreko zerrenda zurbil bat atzematen da ortzemu-ga hotz urdintzen hasian; hotzago eta zakarrago jotzen du haizeak: estuago lotu behar longain berogarria! ... Bai hotz atsegina!, bai gozoa zutaz berriro jabetzen den logalea! Astindu bat, eta berriz iratzartzen zara. Eguzkia zeru goienan dago. «Arinago!, arinago!», dio ahots batek; telega bat bizkor doa aldapa piko batean behera: presa handi bat dago behean, eta ur gardeneko urtegi zabal bat, distiratsu eguzkiaren azpian, hondoa kobrezkoa balu bezala; herri bat, izbak mendiaren hegalean barreiatu-rik; izarren antzera distiratzen du gurutzeak herriko elizan; mujiken hitz-jario oparoa, eta ezin eramaneko gosea sabelean... Ene Jainkoa!, zein ederra zaren batzuetan, bide urrun, urrun hori! Hainbat aldiz jo dut zuregana, hiltzorian eta itotzear, eta zuk, gogo zabalez, arnasa eman, eta salbatu egin nauzu beti! Zenbat asmo miresgarri sortu diren zure baitan!, zenbat amets poetiko, zenbat

zirrara gozo eragin dituzun!... Baina gure adiskide Txitxikovek une horretan zituen ametsak ere ez ziren batere arruntak. Ikus dezagun, bada, zer sentitzen zuen. Hasieran ez zuen ezer sentitzen, atzera begiratu besterik ez zuen egiten, hiritik atera zela egiaztatzeko irrikaz; baina noizbait ikusi zuen hiria aspaldi ezkutatu zela begien bistatik eta ikusmenean ez zegoela aroztegirik, ez errotarik, ez hirien inguruan egon ohi diren gauzen aztarnarik, eta harrizko elizen gailur zuriak aspaldi berdindu zirela lurraren azalarekin, eta, orduan, bidean jarri zuen arreta guztia, ezkerretara eta eskuinetara soilik begiratzen zuen, N hiria oroimenetik ezabatu balitzaio bezala, antzina, haurtzaroan zeharkatu balu bezala. Azkenean, bidez arduratzeari utzi zion; begiak itxi, eta bigungarrian jarri zuen burua. Autoreak aitordu oso pozgarri zaiola hori, bere protagonistaz hitz egiteko aukera emango dio eta; zeren, izan ere, irakurleak ikusi duenez, orain arte behin eta berriro eragotzi baitiote hori, noiz Nozdriovek, noiz dantza-saioek, noiz damek, noiz hiriko zurrumurruek eta, azkenik, liburuetan irakurtzen ditugunean soilik huskeriatzat hartzen ditugun

baina benetan gertatzen direnean berebiziko garrantzia dutela irizten diegun huskeria horiek. Baina, orain, utz dezagun alde batera hori guztia eta gatozen harira itzulinguru gehiagorik gabe.

Nago irakurleei ez zaiela atsegin hautatu dugun protagonista. Damek ez dute batere gogoko izango, zalantzarik gabe esan ahal dugu hori, zeren damek akatsik gabeko heroi beteginak eskatzen baitituzte, eta protagonistak ariman edo gorputzean orbantxorik izanez gero, harenak egin du! Nahiz eta autoreak haren arimaren barru-barruraino sartu, nahiz eta ispilu batek baino argiago islatu haren irudia, ez diote ederretsiko. Loditasuna eta tarteko adina ere oso kaltegarri zaizkio Txitxikovi: eleberrietako protagonistei inola ere ez diete barkatzen loditasuna, eta dama gehienek, bizkarra emanik, esango dute: «Ene, bai gizon nazkagarria!». Jakin, autoreak badaki hori guztia, eta, hala ere, ezinezko zaio gizon presturik hartzea protagonistatzat, baina..., agian, oraingoz askatu gabeko hariak ukituko ditugu eleberrian, litekeena da nonbait agerraraztea errusiar arimaren oparotasun neurrigabea, edo Jainkoak behar bezalako

kemenez hornituriko gizasemereren bat, edo Errusiako neskagazte xarmagarri horietakoren bat, muduan berdinik gabea, emakumezkoen arimaren edertasun zoragarri guztiarekin, pairakorra eta bihotz-zabala. Beste enda guztietako gizabanako prestuek hilotzen antza izango dute haien aldean, hala nola liburuek hilak baitirudite hitz bizen aldean! Nabarmen geratuko da errusiarren barne-indarra... eta argi ikusiko da zein erro sakonak egin dituen eslabiarrengan beste herriak azaletik soilik ukitu dituen dohain horrek... Baina zergatik eta zertarako aurea hartu gertakizunari? Ez da gisakoa autorearen horrela berotzea, gaztetxo baten antzera: izan ere, antzinatxo dago adinean sarturik, zorroztasunez hezi zuten barne-bizitzarako, eta bakartasunak ematen duen zentzutasuna du ezaugarri. Gauza bakoitza bere garaian, bere lekuan, bere tenorean! Kontuak kontu, ez dugu gizon presturik hautatu protagonistatzat. Eta badugu esaterik zergatik jokatu dugun horrela: badelako garaia gizon prestu errukarriari atsedean emateko; alferrik erabiltzen dugulako ahoan «gizon prestu» hitza; gizon prestua zaldi bihurtu dutela-

ko, eta ez dago haren gainera igo ez den idazlerik, zigorraz edo eskueran duen edozerez joka; hainbestearino ahitu dutelako gizon prestua, ezen ez baitzio geratu prestutasunaren arrastorik, eta saihets-hezurak eta azalmintza besterik ez du gorputzaren tokian; toleskeriaz deitzen diotelako gizon prestuari; ez dutelako errespeta-tzen gizon prestua. Ez, iritsi da azkenean gizon zitalen txanda. Hel diezaiogun, bada, zitalari!

Etorki ilun eta apaleko gizona zen gure protagonista. Aitoren seme-alabak zituen gurasoak, baina Jainkoak bakarrik daki jatorriz ziren aitoren seme-alabak ala eginiko zerbitzuak saritzeko eman zieten gizarte-maila jaso hori. Txitxikovek ez zuen haien antzik; behinik behin, jaiotzaren lekuko izan zen ahaide batek —emakume xehe, txikitxo eta zatarra bera, jendeak kakanarru deitzen dien horietakoa— honela esan zuen haurra besoetan hartu zuenean: «Ez da nik espero nuen bezalakoa! Hobe amaldeko amonaren antza balu, baina ez, esaera zaharrak dioen bezalaxe jaio da hau: kaleko edozein mutilen berdina, ez amaren edo aitaren moldean egina». Hotz eta batere gozotasunik gabe begiratu zion bizitzak

hasieran, elurrez estaliriko leihatila lausotu bate-
tik zehar bezala: lagunik ez haurtzaroan, adiski-
derik ez! Uda zein negu, inoiz irekitzen ez zituz-
ten leiho txikiekiko gelatxo bat goiko solairuan;
aita beti gaixorik, astrakan-laruzko jaka luzea
soinean eta puntuzko txapinak oin biluzietan,
hara-hona gelan barrena, denbora guztian zinku-
rinka eta bazter bateanzegoen listuontzi batera
tuka; jarlekuan eseririk beti, idazluma eskuan,
hatzak eta ezpainak tintaz zikindurik, esaera
zahar berbera begien aurrean beti: «Ez gezurrik
esan, men egin zaharrei eta eraman ezazu ber-
tutea bihotzean»; zorua herrestan zapaltzean
txapinek ateratako hots etengabea, eta, noizean
behin, lan beti-berdinak asperturik haurrak letrei
buztantxo edo adartxoren bat eransten zienean,
«Berriz ere zozokerietan!» esaldia, ahots ezagun
baina latz batek esana, eta, hitz horien ondotik,
ohiko sentipen beti gozakaitza, atzealdetik bera-
renganaino hedaturiko hatz luze batzuetako
azazkalek belarriak oso modu mingarrian bihu-
rritzen zizkiotenean: horra lehen haurtzaroko
koadro goibela, zeinaren oroitzapen lauso bat
besterik ez baitzuen gordetzen. Baina, bizitzan,

laster eta biziro aldatzen da dena: egun batean, udaberriko lehen eguzkiarekin eta ibaiak gainez eginik zetoze, aitak semea hartu, eta berekin eraman zuen telega ziztrin batean. Zaldi-tratulariek mika esaten dieten zalditxo zuri-horixka horietako batek tiratzen zuen gurditik. Gidaria, berriz, gizontxo konkordun bat zen, Txitxikoven aitak etxeko zeregin gehientsuenez arduratzeko zuen jopu-familia bakarraren burua bera. Bi eguneko bidaia egin zuten, mikak eramanik; bidean bertan igaro zuten gaua, ibai bat zeharkatu zuten, ahari-errea eta opil hotzak jan zituzten, eta hirugarren eguneko goizean iritsi ziren hirira. Haurra, hiriko kaleak ikusirik, aho zabalik geratu zen puska batean, hain utzi zuen txunditurik haien handitasun ustekabekoak. Gero, mika telegarekin batera sartu zen sakongune batean, lokatzez beteriko kale mehar eta oso aldapatsu bat hasten zen tokian bertan. Luzaz jardun zuen zaldiak han lanean, hanken ahal guztian lokatzari eraginez, konkordunaren eta nagusiaren deia-darrek akuilaturik, eta, azkenean, maldaren erdian zegoen patio txiki bateraino eraman zituen. Lorez oparo jantziriko sagarrondo bi ageri

ziren etxetxo zahar baten aurrean, eta itxura kaxkarreko lorategi xehe bat atzean, otsalizarra eta intsusa beste landarerik gabe; zurezko etxola zahar bat atzematen zen lorategiaren hondotan, zuhaixkek ezkutaturik, oholtxo batzuk teilatutzat eta beira iluneko leihatila estu batekin. Haien ahaide bat bizi zen han, atso zimel bat, zeina, urteek makaldurik egonagatik, goizero joaten baitzen azokara, eta, etxera itzulitakoan, samovarraren alboan ipintzen zituen galtzerdiak, lehor zitezen. Txerazko zaplatatxo batzuk eman zizkion haurrari masailetan, haren mardul-tasuna miretsiz. Han geratu behar zuen mutilak, egunero hiriko eskolara joateko. Aitak, gaua ahaidearen etxean igaro, eta biharamunean bertan hartu zuen berriro etxeko bidea. Elkarren-gandik bereizteko unean aitaren begiek ez zuten malkorik isuri; berrogeita hamar kopek eman zizkion semeari —gastuetarako eta gozokiak erosteko—, baita aholku zuhur batzuk ere, askoz garrantzitsuago baitzeritzon horri: «Hara, Pav-lusha, ikasi, zintzoa izan eta ez egin inozokeria-rik, eta, batik bat, atsegin eman irakasleei eta eskolaburuei. Ikasketetan aurrerapenik egin ez

arren eta Jainkoak berebiziko adimenez hornitzen ez bahu ere, heure nagusiei atsegina emanen badiak, ondo aterako zaizkiena eta atzean utziko dituz bestiak. Ez izan harremanik ikaskideekin, haiek ez diate eta ezer onik irakatsiko; dena dela, harremanik izanez gero, aberatsenak hartu adiskidetzat: agian, onuragarri izango zaizkiz egunen batean. Ez egin oparirik, ez eskaini ezer inori, baina gogo onez hartu besteek hiri emaniko guztia, eta, batez ere, zaindu kopek bakoitza: dirua duk mundu honetako gauzarik seguruenak. Adiskideek eta lagunek iruzur egingo diate, eta beste edonork baino lehenago baztertuko haute zorigaitzoko uneetan; diruak, aldiz, sekula ez hau baztertera utziko, aldean izango duk beti, baita bizitzako atakarik gaiztoenetan ere. Diruak dena lortzen dik mundu honetan, edonoren bihotza biguntzeko gai duk». Aholku horiek emandakoan, semearengandik bereizit zen aita, eta etxera itzuli zen bere zamalkoarekin; Txixikovek ez zuen gehiago ikusi, baina haren aholkuak eta hitzak sakon erroturik geratu zitzaizkion gogoan.

Pavlusha biharamunean bertan hasi zen eskolara joaten. Ez zuen gaitasun handirik edo dohain berezirik ikaskuntzarako; ardura eta txukuntasuna ziren haren ezaugarri nagusiak; gauza praktikoetarako, ordea, oso buruargia zen. Berehala atzeman zion bizitzaren nondik norakoari, ondo asko ulertu zuen nola jokatu behar zuen eskolako mutilekin: opariak egiten zizkioten, baina berak ez zien ezer doarik ematen, eta, batzuetan, jatoriko oparia gorde, eta oparigileari berari saltzen zion geroago. Artean haurra zelarik, beraz, bere buruari gauzak ukatzen ikasi zuen. Kopek bat bera ere ez zuen gastatu aitzak emaniko dirutik; alderantziz, handitu egin zuen hasierako diru-kopurua urte hartan bertan, ezohiko trebetasuna erakutsiz: argizariz txonta bat egin, margotu, eta etekin ederra atera zuen, lagun bati saldurik. Gero, bestelako salerosketei ekin zien denboraldi batez: azokan jakiak erosi, ikasgelan aberatsenengandik hurbil eseri, eta, haietakoren bati goragaleak hasten zitzaizkiola ohartu bezain laster —goseak zegoe-lako seinale baitzen hori—, gozoki edo opiltxo bat ateratzen zuen, bestela bezala, eserlekuaren

azpitik, eta janguraren araberako prezioan saltzen zion. Bi hilabetez, jo eta ke aritu zen bere gelan, atsedetik hartu gabe, zurezko kaiola txiki batean sarturik zeukan sagu bat hezten, eta, ekinaren ekinaz, lortu zuen azkenean sagua beraren esanera etzatea, zutitzea eta atzeko hanken gainean esertzea, eta oso garesti saldu zuen orduan. Bost errublo bildu zituenean, diru-zorrotxoak josi eta beste bat betetzeari ekin zion. Are buruargitasun handiagoaz gobernatzen zen irakasle eta eskolaburuekiko harremanetan. Inor ez zen gai bera bezain geldi egoteko jarlekuan eseririk. Oharrarazi beharra dago irakasleak biziki maite zituela isiltasuna eta zintzotasuna, eta ezin zituela jasan adimen zorrotz eta biziko mutilak, beraren lepotik trufa egitea beste asmorik ez zutela iruditzen zitzaion eta. Baten bat nabarmentzen bazen gainerakoak baino buru-jantzia goa izateagatik, aski zuen zirkinik txikiena egitea edo oharkabean bekaina mugitzea irakaslea sutan jar zedin. Ikasgelatik egotzi eta gupidarik gabe zigortzen zuen. «Errotik erauziko diat nik harrokeria eta ozartasun guztia! —esaten zion—. Ondo asko ezagutzen haut, herorrek heure

burua baino askoz ere hobeto. Belauniko jarriko haut!, gosea zer den erakutsiko diat!» Eta mutiko dohakabeari, zergatik jakin gabe, gogortu egi-ten zitzaion belaunetako azala, eta egunak ego-ten zen goseak amorratzen. «Adimena eta ikas-teko gaitasuna? Txatxukeriak! —esaten zuen irakasleak—, nik jokaera bakarrik hartzen dut kon-tuan. Tutik jakin ez arren behar bezala jokutzen duenari puntuaziorik handiena emango diot ikas-gai guztietan; gogo-gaiztoa eta isekaria dela antzematen diodanari, ordea, zero biribil-biribila, Salomon baino askoz jakintsuagoa bada ere!» Hala mintzatzen zen irakaslea, eta heriozko gorrotoa zion Krilovi, zera esan zuelako: «Moz-kortia bazara ere, bejondeizula, baldin eta buru argia baduzu». Aurpegia eta begiak atseginez dirdirka kontatzen zuen beti nola, lehenagoko garai batean irakasle jardun zuen eskolan, hain izaten zen handia isiltasuna, ezen eulien hegal-diaren hotsa entzun baitzitekeen, eta nola ikas-leek ez zuten behin ere eztulik edo zintzik egin ikasturte osoan, eta nola txilinak jo arte ez zego-en jakiterik ikasgelan inor bazegoen ala ez. Txi-txikovek berehala igarri zuen nolako aiurria zuen

irakasleak eta nola jokatu behar zen berarekin. Geldi-geldirik egoten zen eskola-orduetan, begiak edo bekainak behin ere mugitu gabe, nahiz eta atzekoek atximur egiten zioten behin eta berriro; txilina entzun bezain laster, ziztu bizian zutitu eta, beste guztiei aurrea harturik, belarri-babesgarriekiko txanoa ematen zion irakasleari (belarri-babesgarriekiko txanoa erabiltzen baitzuen); txanoa emandakoan, lehena ateratzen zen ikasgelatik, eta, hanken eginahal guztian lasterka, bidean irakaslearekin bizpahiru aldiz topo egiten saiatzen zen, aldi bakoitzean txanoa begirunez erantzen zuela haren aurrean. Oso emaitza onak ekarri zizkion jokabide horrek. Eskolan egon zen denbora guztian, oso estimu handitan eduki zuten, eta, ikasketak amaitzean, hain portaera zuzenaren saria jaso zuten: ohorezko aipamena ikasgai guztietan, diploma, eta liburu bat honako eskaintza honekin, urrezko letretan idatzirik: *ikasle saiatuari, bere jokaera ereduzko eta bikainarengatik*. Eskolako ikasketak burutu zituenean, itxura ederreko gaztea zen, eta haren kokotsak bizar-labanaren premia zuten ordurako. Garai hartan, hil zitzaion aita.

Ezer gutxi jarauntsi zion: higatuaren higatuaz ezin jantz zitezkeen lau elastiko, astrakan-larruz forraturiko bi jaka zahar eta diru-kopuru ezin urriago bat. Aitak, nabari zenez, besteri aurrezteko aholku zuhurrak eman bai, erraztasun handiz gainera, baina berak ez zuen diru askorik bildu. Txitxikovek mila errubloan saldu zituen berehala aitaren etxe zaharra eta alor apurrak. Jopu-familia, berriz, hirira aldatu zen, eta han jarri zen bizitzen, etxe batean zerbitzari. Sasoi hartan, eskolatik egotzi egin zuten isiltasuna eta jokabide laudagarria hain gogoko zituen irakasle errukarri hura, eregelkeriaren bat egin zuelako edo beste arrazoiren batengatik. Ondikoak mingosturik, edateari ekin zion, eta edanari emana egon zen diru guztia xahutu zuen arte; gaixorik, ahora eramateko ogi-puska bat ere gabe, nork lagundurik ez zeukala, bakar-bakarrik bizi zen gela ziztrin eta hotz batean, guztiek ahazturik. Ikasle ohiek —hainbatetan harrokeria eta ozartasuna leporatu zizkien ikasle buruargi eta azkar haiek berek—, haren egoera tamalgarriaren berri jakinik, dirua bildu zuten guztien artean, premiazko zitzaizkien gauza asko saldurik; Pav-

lusha Txitxikovek, batere ondasunik ez zuela aitzakiatzat jarririk, bost kopekeko txanpon xehe bat besterik ez zuen eman, eta ikaskide ohiek aurpegira jaurti zioten, esanez: «Zekena hala-koa!». Irakasle dohakabeak eskuekin estali zuen aurpegia bere ikasle ohiek eginikoaren aditzea izan zuenean; haurtxo ahul baten antzera, negar-malko mardulak isuri zituen bere begi jadanik ilaunduetatik. «Jainkoak malkoak isurazten dizkit heriotzaren atarian —esan zuen ahots ahulez, eta, Txitxikovek nola jokatu zuen azaldu ziotenean, hasperen sakona egin, eta gaineratu zuen—: Ah, Pavlusha!, nola aldatzen den gizabanakoa!, hain zen zintzoa, apala, otzana! Ziri ederra sartu zidan, bai, ziri ederra...»

Nolanahi ere, ezin esan dezakegu gure protagonista hain latza eta bihozgabea zenik eta hain sorgorturik zeukanik sentimena, ezen ez baitzekien zer zen errukia eta gupida; gai zen beste-
renganako errukia eta gupida sentitzeko, eta prest egon ohi zen edonori laguntzeko ere, baldin eta, hori bai, laguntzeak ez bazuen esan nahi diru askorik ematea edo bere aurrezkiak ukitzea, diru hori ez ukitzeko erabaki sendoa hartua bai-

tzuen; hitz batean, zehatz-mehatz betetzen zuen aitaren aholkua: aurreztu, zaindu kopek bakoitza, onuragarri izango zaik eta. Baina berez ez zen diruzalea, ez zuen dirua bera maite, ez zegoen zikoizkeriaren mende. Ez, ez zuten dirugoseak eta zekentasunak mugitzen. Esne-mamitan bizi nahi zuen, munduan diren erosotasun guztiakin; zalgurdiak, etxe sendo eta dotorea, jaki gozoak: horrelako bizimodua amesten zuen, hori zebilkion beti buruan. Horretarako zaintzen zuen kopek bakoitza, egunen batean hori guztia gozatu ahal izateko, alegia; bitartean, eskuetsia izan behar zuen, hala besteekin nola bere buruarekin ere. Haren aldamenetik dirudunen bat bizkor igarotzen zenean drojki dotore batean, zaldiak edergailu aberatsez apaindurik, hari begira geratzen zen lurrari josirik, eta gero, lo luze batetik esnatu balitz bezala bere onera itzulirik, esaten zuen: «Bulegari arrunta zuan lehen hori, eta biribil mozturik eramaten zian ilea, mujikek bezala!». Aberastasuna eta ongizatea adierazten zuen guztiak halako zirrararen berezi bat egiten zion, berak ere ezin uler zezakeena. Ikasketak amaitutakoan ez zuen atsedetik hartu

nahi izan, hain zuen gogo bizia lehenbailehen hasteko lanean. Hala ere, diploma eta ohorezko aipamenak gorabehera, oso zaila gertatu zitzaion Estatuaren bulegoren batean lana lortzea. Bazterrik galduenean ere, handikiren baten babesa behar! Enplegu zirtzil bat eman zioten, urtean hogeita hamar edo berrogei errublo lan-sari. Baina erabaki zuen gogotik jardungo zuela lanean, oztopo eta eragozpen guztiak garaituz. Eta, izan ere, sekula ikusi ez bezalako pairamena, abnegazioa eta laztasuna erakutsi zituen. Goiz-goizetik arrats berandura arte aritzen zen lanean, etenik egin gabe, arimako zein gorputzeko indar guztiak bere zereginean jarririk; idazten ematen zuen egun osoa, bulegoko paperen artean murgildurik; ez zen etxera joaten, bulegoko mahaien gainean lo egiten zuen, jagoleekin bazkaltzen zuen batzuetan; eta, guztiarekin ere, garbi eta txukun zegoen beti, ondo jantzirik, aire atsegina aurpegian eta halako prestutasun bat mugimendu guztietan. Esan beharra dago bulegoko funtzionarioak izugarri itsusiak eta itxuragaitzak zirela. Haien aurpegiek ogi txarto egosia gogorarazten zuten: masaila bat bestea baino

puztuagoa, kokotsa kontrako alderantz okerturik, goiko ezpaina babalarru baten antzera hanpaturik eta, gainera, pitzaturik; hitz batean, ezinago itsusiak. Hain ahots-doinu zakarraz mintzatzzen ziren, non bai baitzirudien norbait jipoitzekotan zeudela beti; eskaintzak egiten zizkioten sarritan Bakori, horrela erakutsirik paganismoaren hondar ugari geratzen direla oraindik eslabiarren izaeran; batzuetan, mozkor-mozkor egirik iristen ziren bulegora, eta, horren eraginez, higuingarria eta zeharo kiratsua izaten zen hango giroa. Funtzionarioak horrelakoak izaki, nahitaezkoa zen Txitxikov haien gainetik nabarmentzea eta gailentzea, guztiz bestelakoa baitzen: aurpegi atsegina, ahots-doinu adeitsua, edari bizi ororen etsai porrokatua. Hala eta guztiz ere, bide latza ibili behar izan zuen, molde zaharreko bulegoburu bat egokitu baitzitzaion nagusitzat. Harrizkoa zirudien, hain zen bihozgabea eta gogorra: ezerk ez zuen hunkitzen, bitzitzatza osoan ez zen irribarrerik xumeena ere azaldu haren aurpegian, ez zion inori diosalik edo osasunaren galderik egiten. Inork ez zion inoiz bestelako jokaerarik ikusi, behin ere ez, ez kolean

eta ez etxean; sekula ez zuen inoren alderako begikotasunik erakutsi; inoiz ez zuen edan, moz-kortzeko eta, mozkorturik, barre egiteko; inoiz ez zen eman mozkorrak dakarren alaitasun basati-ra, mozkor daudenean gizatxarrek egin ohi duten bezala; behin ere ez zuen horrelako jokae-ren arrastorik ñimiñoena ere agertu. Haren bai-tan ezer ez zen beti-batekoa, ez gaiztotasuna eta ez ontasuna, eta giza sentimendu ororen gabezia harrigarria atzematen zitzaion. Marmo-lezko aurpegi batere akatsik gabeak ez zuen ezeren antzik gogorarazten, hazpegien propo-rtzionaltasun latza zuen ezaugarri nagusi. Pikorta eta orban ugarien kariaz soilik sar zitekeen aur-pegi hura multzo jakin batean, herri xeheak dio-enez gauez deabrua aurpegian ilarrak aletzera etortzen zaienen taldean, hain zuzen ere. Antza, ez zegoen gizon hura hunkitzeko eta haren gogoia liluratzeko gai zen giza indarrik, baina Txi-txikov saiatu egin zen hori lortzen. Hasteko, atsegin ematen zion eguneroko huskeria guztie-tan: arreta handiz aztertu zuen nolako ebakia egiten zien idazteko erabiltzen zituen lumei, eta, mordoxka bat horren eredura ebakirik, eskume-

nean jartzen zizkion behin eta behin; mahai gainetik kentzen zizkion, putz eginez, hondar-aleak eta tabako-izpiak; zapi berria lortu zion tintontzira; jakin zuen non gordetzen zuen kapelua (munduan sekula izan den kapelurik txarrena), eta hurbil jartzen zion bulegoa itxi baino pixka bat lehentxeago; bizkarra garbitzen zion hormako kareaz zikintzen zitzaionean; baina bestela bezala egiten zuen hori guztia, batere nabarmendu gabe, benetan egingo ez balu bezala. Azkenean, nagusiaren etxeko zein familiako bizitza ikertu zuen, eta jakin zuen alaba bat zuela, garerdikoa, zeinaren aurpegian ere —aitarenean bezalaxe— bai baitzirudien ilarrak aletzen zituztela gauez. Eraso alderdi horretara zuzentzea erabaki zuen. Igandeetan zein elizatar joan ohi zen jakinik, aurrez aurre jartzen zitzaion beti, txukun jantzirik, alkandoraren paparrekoa almi-doiz ondo gogorturik; eta arrakasta izan zuen eginkizun horretan: bulegoburuak, bere laztasun guztia kordokan, tea hartzera gonbidatu zuen! Eta, bulegokideak ohartu zirenerako, Txitxikov nagusiaren etxera aldatu zen, gizon premiazko eta ezinbesteko bihurtu zen han, berak erosten

zituena irina eta azukrea, emaztegaitzat hartu balu bezala jokatzeko zuten alabarekin, nagusiari aitatzeko deitu eta muin egiten zion eskuan; bulegoan ziurtzat jotzen zuten ezkontza izango zutela otsailaren amaieran, garizuma baino lehen. Bulegoburua, hain latza izanik ere, haren alde mintzatu zen bere nagusien aurrean, eta, handik gutxira, Txitxikov bera hautatu zuten hutsik geratu zen bulegoburu-kargu baterako. Inondik ere, horixe zuten bulegoburu zaharrarekiko atxikimenduaren jomuga nagusia, zeren eta isil-gordeka atera zuten berehala bere kutxa haren egoitzatik, eta beste etxe batean jarri zen bizitzen biharamunean bertan. Bulegoburuari aitatzeko deitzeari utzi eta ez zion gehiago muin egin eskuan, eta bertantxe eten ziren ezkontzari buruzko zurrumurruek, sekula zabaldu ez balira bezala. Hala ere, berarekin topo egiten zuten guztietan, eskua adeitasunez estutu eta tea hartzera gonbidatzen zuten, eta bulegoburu zaharrak, ohiko hoztasun eta gogortasun guztia gorabehera, buruari eragin eta ahapeka esaten zuten beti: «Ziri ederra sartu dit deabrukume honek, ziri ederra!».

Zeharkatu zituen alartze guztietatik, hori izan zen igarotzen zailena. Handik aurrera, errazagoa eta onuratsuagoa gertatu zitzaion dena. Itzal handiko gizon bilakatu zen. Mundu berri horretan beharrezkoak ziren dohain guztiak zituen: jendetasuna hala esanetan nola eginetan, eta antzea lan-kontuetan. Ezaugarri horiei esker, irabazi handiko kargu bat lortu zuen oso denbora laburrean, eta ezin hobeto baliatu zuen. Jakin beharra dago ezen, garai hartantxe, agintariak oso neurri estuak hartu zituztela mota guztieta-ko ustelkeriak eragozteko. Baina Txitxikovek, kikildu gabe, berehala aurkitu zuen neurri estu haiek onuragarri bihurtzeko bidea, ageri-agerian jarririk horrela errusiarron asmamena, estualdie- tan soilik azaleratzen baita. Honela jokatzeko zuen: inguratzen zitzaion eskatzaileraren bat bulego- ra, eta, Rusen esan ohi dugunez Khovanski printzeak sinaturiko gomendiozko gutun ospe- tsua ateratzeko asmoz eskua sakelan sartu bezain laster, besotik heldu eta irribarretsu esa- ten zion: «Ez, ez. Zuk, inondik ere, uste duzu nik..., ez, ez. Gure betebeharra da, gure eginbi- dea, inolako eskupekorik jaso gabe egin beha-

rreko lana! Lasai egon horri dagokionez: bihar bertan amaiturik egongo da guztia. Zuk ez duzu ezertaz arduratu beharrik, emadazu helbidea eta etxera eramango dizute dena». Eskatzailea, txunditurik, pozarren itzultzen zen etxera, bere artean zioela: «Horra azkenean gizon bat gisakoa. Urre fina! Horrelako gehiago beharko genitizkeek». Baina zain egoten zen eskatzailea egun bat, eta bi, eta hiru, eta ez zioten ezer ekartzen etxera. Bulegora itzuli, eta hasieran bezalaxe zegoen bere eskaria. Urre finarengana jotzen zuen orduan. «Ah, barkatu! —desenkusatzen zitzaion Txitxikov adeitasun handiz, bi besoetatik heldurik zeukala—, oso lanpeturik ibili gara, baina bihar bertan prest edukiko duzu zurea, bihar bertan, hutsik egin gabe; lotsaturik nago, benetan!» Eta oso keinu xarmagarritz laguntzen zien hitz haiei. Bitarte horretan mantalaren barrenak bereizten bazitzaizkion, berehala saiatzen zen eskuaz batzen eta beren lekuan jartzen. Baina ez zioten ezer eramango etxera, ez bihar, ez etzi eta ez etzidamu. Eskatzailea arrastoan sartzen hasten zen orduan: ez ote zuen eskupekorik eman behar izango? Bati eta besteri galde-

tu, eta eskribauei zerbait eman beharra zegoela jakinarazten zioten. «Zergatik ez? Prest nago hogeita bosna kopek emateko.» «Hogeita bost errublo eman behar zaizkio eskribau bakoitzari, ez hogeita bost kopek.» «Hogeita bost errublo eskribau bakoitzari!», egiten zuen espantu eskatzaileak. «Zergatik aztoratzen zara hainbeste? — erantzuten zioten—. Horrela egiten dira gauzak. Eskribau bakoitzak hogeita bost kopek jasoko ditu, eta gainerakoa nagusientzat izango da.» Zartako batzuk jotzen zituen orduan kopetan eskatzaile inozoak, biraoka hasten zen goitik behera aldatu zelako munduan gauzen antolamendua, eta madarikatu egiten zituen ustelkeriaren aurkako neurri zorrotzak eta funtzionarioen jokaera adeitsu eta gizalegezkoago hura. Lehen, gutxienez, jende guztiak zekien zer egin behar zen: bulegoburuari hamar errublo eman, eta kito, arazorik ez; orain, ordea, hogeita bost errublo eman behar, eta, gainera, aste bete igaro hori igarri arte; deabruak eraman zitzala eskuzabaltasuna eta funtzionarioen bihotz-handitasuna! Egia esan, arrazoi zuen eskatzaileak; orain, ordea, ez dago bide txarreko dirurik onar-

tzen duenik: bulegoburu guztiak ezin zintzoagoak eta zuzenagoak dira; idazkariak eta eskribauak soilik dira zitalak. Luze gabe, askoz ere eremu zabalagoa agertu zen Txixikoven aurrean: batzorde bat eratu zuten Estatuarentzat berebiziko garrantzia zuen eraikin handi bat eraikitzeko. Sartu zen bera ere batzorde horretan, eta kiderik gogotsuenetako bat izan zen. Batzordeak bertantxe ekin zion lanari. Sei urte eman zituzten eraikina egiten, baina, zela eguraldiak lana eragozten zuelako, zela ekaiak kalitate txarrekoak zirelako, Estatuaren eraikina ez zen zimenduak baino gorago igotzen. Eta, bitartean, batzordekideek norberarentzako egoitza eder bana egin zuten hiriko beste alderdi batzuetan: inondik ere, hobea zen hango lurra. Gaingorra egin zuten batzordekideek, eta seme-alabak ekartzen hasi ziren. Orduan soilik lasaitu zituen apur bat Txixikovek neurritasunaren eta abnegazio erabatekoaren lokarri estuak. Orduan soilik leundu zuen urte askotako laztasun hura, eta aise antzeman zitzaion beti kilikatu ziotela gogoa munduko plazerrek, zeinei uko egiten jakin baitzuen gaztaroko urterik kartsuenetan

ere, gizabanakoari bere grinak erabat bridatzea ezinezko zaion sasoian alegia. Gehiegikeria batzuk ere egin zituen: sukaldari on bat akuratu zuen, eta Holandako hariz eginiko alkandora finak erosi. Ordu arte probintzia osoan inork erabili ez bezalako oihal garestiak eskuratu zituen, eta izpilekiko janzki gaztainakareei eta gorrixkei ederretsi zien handik aurrera; zaldi-pare ederra erosi zuen, eta berak heltzen zien uhalei, laguntza-zaldia itzulika ibilaraziz; eta, garbitzerakoan, belakia busti baino lehen urari kolonia-tanta batzuk botatzeko ohitura hartu zuen; eta xaboi berezi bat erosten zuen, oso garestia, azalmin-tza leun-leun edukitzeko; eta...

Baina, halako batean, bulegoburu berria ipini zuten aurreko nagusi ganorabakoaren tokian. Militarra zen, zorrotza, ustelkeriaren eta azpikeria ororen etsai amorratua. Biharamunean bertan, izuz dardaraka jarri zituen funtzionario guzti-guztiak: kontu-liburuak eskatu zituen, hutsak eta okerrak atzeman zituen nonahi, dirutza handiak falta zirela ohartu zen, funtzionarioen etxe ederrei erreparatu zien berehala, eta dena ikertzen hasi zen. Kargutik kendu zituen

eraikuntza-batzordeko funtzionarioak; haien egoitzak, Estatuaren ondasun bihurturik, erruki-
etxeak eta soldaduen semeentzako eskolak izan
ziren aurrerantzean. Sekulakoak entzun zituzten
funtzionario guztiek, eta batez ere Txitxikovek.
Hazpegi atseginak gorabehera, haren aurpegia
ez zitzaion batere gustatu nagusi berriari; Jainko-
ak bakarrik daki horren arrazoi zehatza —
batzuetan ez baita horretarako arrazoi argirik
izaten—, baina kontua da heriozko gorrotoa
hartu ziola. Izugarria gertatu zitzaien guztiei hain
nagusi gogorra. Nolanahi ere, militarra zenez, ez
zekien zibilen maltzurtasunaren xehetasun guz-
tien berri, eta, handik gutxira, zintzo-itxurak egi-
teko eta edozein egoeratarra moldatzeko trebe-
tasunaz baliaturik, haren kuttunak izatea lortu
zuten beste funtzionario batzuek, eta, halatan,
berak halakotzat ez bazeuzkan ere lehengoak
baino doilorrangoak ziren beste mendeko batzuen
eskuetan erori zen jenerala; eta pozik zegoen
gainera, azkenean behar bezalako jendea hauta-
tzen asmatu zuelakoan, eta harro ere bazegoen,
bakoitzaren gaitasunei atzemateko hain ohar-
men zolia erakutsi zuelako. Funtzionarioek bere-

hala ulertu zituzten jeneralaren aiurria eta izaera. Denetariko azpikerien aurkako borrokalari sutsuak bilakatu ziren haren mendeko guztiak; nonahi eta noiznahi jazartzen zieten egite makurrei —hala nola arrantzaleak arpoiaz jazartzen dion gaizkata handi bati—, hain arrakasta handiz jazarri ere, ezen, handik gutxira, milaka errubloko kapitala bildua baitzuen haietako bakoitzak. Bitartean, bide zuzenera itzuli ziren lehengo funtzionarioetako asko, eta berriro onartu zituzten lanean. Txitxikovek, ordea, ez zuen lortu kargua berreskuratzea; jeneralaren idazkari nagusia, Khovanski printzearen gutunek zirikatutik, gogotik ahalegindu zen horretan, eta haren alde hitz egin zion nagusiari, baina, jenerala nahierara manaiatzen bazuen ere, ezin izan zuen ezertxo ere lortu. Jenerala, batetik, funts ahuleko gizon belaxka horietakoa zen eta nork bere soinuaren hotsean dantzazten zuen (bera ohartu gabe, jakina), baina, bestetik, buruan ideia bat sartzen bazitzaion, burdinazko iltze baten antzera josirik geratzen zitzaion gogoan: ez zegoen handik erauzteko modurik. Idazkariak —azkarra bera— gauza bakarra lortu ahal izan zuen: Txitxikoven

zerbitzu-orri zikina suntsitzea, baina, horretarako, jeneralaren errukia piztu behar izan zuen, oso kolore biziz pintatuz Txitxikoven familia dohakabearen patu hunkigarria, nahiz eta Txitxiovek, zorionez, ez zuen familiarik.

«Hala beharko! —esan zuen Txitxiovek bere kolkorako—, haria katigatuz gero, alferrik dik arrantzaleak askatzen saiatzea. Malkoek ez zidatek atsekabea arinduko, zerbait egin behar diat.» Eta berriro hutsetik hastea erabaki zuen; behialako pairamena berreskuratu, eta, lehengo bizimodu eroso eta samurra bertan behera utzirik, berriro egin zien uko denetariko plazerrei. Beste hiri batera bizitzera joan behar izan zuen, eta hango gizartean nabarmentzeko bidea aurkitu. Baina makur jo zion kukuak. Bizpahiru aldiz aldatu behar izan zuen enpleguz oso denbora laburrean. Lanpostuak, neurri batean behintzat, txarrak eta ziztrinak ziren. Jakin beharra dago Txitxikov munduan sekula izan den gizonik gisa-koena zela. Jende zakarren artetik urratu behar izan zuen bidea hasieran, baina, hala ere, xahutasuna atxiki zuen beti barnean, eta atsegin zitzaion bulegoetan zur bernizatuzko mahaiak

egotea eta gauza guztiak apainak izatea. Inoiz ez zion bere buruari onartzen hitz lohirik esatea, eta biziki mintzen zen besteen hitzetan gizarte-mailari eta karguari zor zitzaien begirunearen arrastorik ez zegoela ikusten zuen bakoitzean. Nago irakurlearentzat atsegingarria izango dela jakitea bi egunez behin aldatzen zuela arropa zuria, eta egunero udan, bero handia egiten zue-
nean: ezin zuen usain txarra jasan, gogaikarri zitzaion kiratsik meheena ere. Horregatik, Petrushka jantziak eranztera eta botak kentzera inguratzen zitzaion bakoitzean, iltze-belarra ipin-
tzen zuen sudurrean, eta neska gazte batenak bezain kilikabera izaten zituen sarritan kirioak; eta, hori guztia zela kausa, oso latza gertatu zitzaion berriro ere jende haien artera itzuli behar izatea, pattar-kirats nazkagarria eta jokae-
ra zantarra baitzituzten ezaugarri nagusi. Keme-
na galdu ez bazuen ere, argaldu eta zurbildu egin zen atsekabe haien garaian. Ordurako, hasia zen jadanik loditzen eta irakurleak azken aldian atzeman dizkion forma biribil eta itxurako horiek hartzen, eta behin baino gehiagotan, ispi-
luari begira jarririk, askotariko gauza atsegine-

tan pentsatzen zuen: neskagazte kartsu batean, haurren gelan...; eta irribarrea loratzen zitzaion aurpegian horrelako gogoetak egiten zituen bitartean; orain, aldiz, oharkabean bere irudia ispiluan ikusten zuenean, ezin zion eutsi barru-barruko oihu bati: «Andre Maria zeruetakoa!, hau itxura itsusia hartu dudana!». Eta, harrezkeroztik, denbora luzea eman zuen ispiluari begiratu gabe. Baina dena jasan zuen gure protagonistak, adoretzu eta egonarriz jasan ere, eta, azkenean, lana aurkitu zuen aduanan. Esan beharra dago enplegu hori pentsamendu guztien ezkutuko gaia zuela aspalditik. Ikusten zuen zeinen huskeria dotoreak eskuratzen zituzten aduanako funtzionarioek atzerritik eta nolako portzelanak eta batistak bidaltzen zizkieten amabitxiei, izebei eta arrebei. Aspalditik, hasperenka esan ohi zuen bere artean: «Horra iritsi nahi diat: muga hurbil-hurbil, jende ikasia hara eta hona, Holandako hariz eginiko alkandora finak lortzeko aukera!». Gaineratu beharra dago ezen, horrelakotan, azalmintzari sekula ikusi ez bezalako zuritasuna ematen zion eta masailak freskatzen zituen Frantziako xaboi berezi bat ere izaten zuela

gogoan; ez zekien nola deitzen zioten xaboi horri, baina ziur zegoen erraz lortuko zuela mugan. Hala, bada, aspaldikoa zuen aduanan lan egiteko gogoia, baina eraikuntza-batzordeak ematen zizkion askotariko mozkinak urrats hori egitea galarazi zioten ordu arte, zuhurtasun handiz pentsatu baitzuen hobe zela txori bat eskuan ezen ez ehun airean, zeren eta aduana, azken batean, hegan zebilen arranoa baizik ez zen, eta batzordea, aldiz, eskuan ondo atxikiriko txepetxa. Orain, beraz, erabaki zuen ez zuela amore emango aduanan sartzea lortu arte, eta lortu zuen. Berebiziko arduraz ekin zion lanari. Bazirudien patuak berak ebatzi zuela aduanako funtzionarioa izateko jaio zela. Sekula ez zen hain ganora, oharren eta zolitasun handirik ikusi, ezta horrelakoren albisterik aditu ere. Hiruzpalau aste igarotzerako hain ondo hartua zion neurria aduanako lanari, ezen jakin beharreko guztia baitzekien: ez zuen ezer pisatzen, ezta neurtzen ere, aski zuen fardelen tamainari erreparatzea bakoitzaren barruan zeuden oihalek edo bestelako ehunek zenbateko pisua zuten jakiteko; bilgoak eskuan hartu, eta bertantxe esaten zuen zen-

bat pisatzen zuen bakoitzak. Arakatzeei zegokienez, lankideek berek aitortzen zuten zakurrek baino usaimen zorrotzagoa zuela: edonor harritzeko moduko patxadaz haztatzen zuen dena, botoirik txikiena ere ahaztu gabe, eta, gainera, berealdiko odol hotza eta ezin sinetsizko jendetasuna erakusten zituen beti. Eta arakatutakoak, gero eta haserreago eta bere senetik ateratzeko zorian, hain aurpegi ederrari masailako batzuk emateko gogo gaiztoa sumatzen bazuen, berak, aurpegia mudatu gabe eta bere jokaera gizalegezkoari eutsiz, lasai asko esaten zion, ezer gertatuko ez balitz bezala: «Axola ez badizu, esker-tuko nizuke apur batean zutitzeko nekea hartzea»; edo: «Barkatuko didazu, andrea, baina biziki estimatuko nizuke aldameneko gelara joatea. Gure funtzionarioetako baten emazteak dena azalduko dizu han»; edo: «Barkatu, baina urratu txiki bat egin behar diot artaziekin zure longainaren forroari», eta, hori esateaz batera, zapiak eta sorbalda-oihalak ateratzen zituen handik barrutik, bere janzki-kutxatik hartuko balitu bezain lasai. Nagusiek berek adierazten zutenenez, ez zen gizona, deabrua baizik: egundo-

ko arretaz miatzen zituen gurpilak, endaitzak, zaldien belarriak eta ezein autoreri sekula bururatuko ez litzaizkiokeen beste leku batzuk ere, non aduanetako funtzionarioei soilik baitzaie zilegi eskua sartzea. Eta, muga igaro ondoren ere, bidaiari dohakabea bere onera etorri ezinik geratzen zen puska batean, eta, izerdia xukatuz —azal mehe baten antzera biltzen baitzion gorputz osoa—, gurutzearen seinalea egiten zuen behin eta berriro, «Ene, bada! Ene, bada!» erre-pikatuz. Haren egoerak zuzendariaren gelatik lasterka irten berri den ikaslearena gogorarazten zuen: izan ere, agiraka egiteko deitu dio zuzendariak ikasleari, baina, horren orde, inola ere espero ez bezalako jipoia eman dio. Handik gutxira, estu harturik zeuzkan kontrabandista guztiak. Poloniako judu ooren izulaborria eta etsia zen. Haren zuzentasuna eta zintzotasuna ezin garaituzkoak ziren, ia naturaz haragokoak. Bidaiariei askotariko saleroskinak konfiskatu eta huskeria ugari kentzen bazizkien ere, ez zuen inolako kapitalik bildu, nahiz eta, gehiegizko paper-nahastea saihestearren, gauza haietako asko ez zizkioten ematen Estatuari. Hutsaren

trukeko hain ardura handiak jende guztia txunditu zuen ezinbestean, eta agintarien belarrietara iritsi zen noizbait. Mailaz goratu zuten, eta, horren ondotik, kontrabandista guztiak harrapatzeko egitasmo bat aurkeztu zuen, bere kasa jarduteko baliabideak soilik eskaturik. Handik gutxira, soldadu-multzo bat jarri zuten haren esanera, eta orotariko ikerketak egiteko aginpide mugagabea eman zioten. Horixe nahi zuen. Garai hartan, zuhurtasun eta azkartasun ikaragarri jokatzeko kontrabandista-sail ahaltsu bat sortu zen; ziotenez, milioika errubloko etekina aterako zuten ekintza ausart baten bitartez. Txitxikovek aspalditik zekien haien berri, eta ezezko biribila eman zien beti bera erostera bidalitakoei, lehor esanez: «Oraindik ez da ordua». Baina guztizko aginpidea lortu bezain laster, horren berri jakinarazi zion kontrabandista-sailari, esanik: «Orain da ordua». Haren kalkuluak guztiz zuzenak ziren. Gogotik lan egin arren hogeitaz urtean irabazi ezingo zukeena eskura zezakeen urte batean. Lehen ez zuen nahi inolako harremanik izan kontrabandistekin, zeren eta, peoi hutsa izaki, ezer gutxi jasoko baitzuen;

baina orain..., orain oso bestelakoa zen egoera: nahi zituen baldintzak ezarri ahal zituen. Inolako eragozpenik ez izateko, bere aldera lerratu zuen beste funtzionario bat —bere lankidea—, zeina, zaharra izanik ere, ez baitzen gai izan tentazioari gogor egiteko. Jarri zituen, bada, baldintzak, eta lanari ekin zioten kontrabandistek. Ezin hobeto jardun zuten hasieran. Irakurleak, seguraski, entzuna du Espainiako aharien bidaia maltzuraren istorio hainbat aldiz kontatua: larru bikoitzarekin igaro zuten ahariak muga, bi larruen artean milioi bat errublaren brodatu Brabantekoak eramanez. Bada, hain zuzen ere, Txitxikovek aduanan lan egiten zuen garaian gertatu zen hori. Berak esku hartu izan ez balu, munduko judurik bizkorrenak ere ezingo zuen horrelako ekintza bat arrakastaz burutu. Ahariak muga hiruzpalau aldiz igaro zutenerako, laurhuna mila errubloko kapitala zuten bi funtzionarioek. Ziotenez, Txitxikovek bostehun mila baino gehiago bildu zituen, lankidea baino erneagoa zen eta. Jainkoak daki zer kopuru neurgaitzeraino ez zen haziko dirutza eder hura infernuko piztia tartean sartu izan ez balitz. Deabruak

okerreko bidera bultzatu zituen bi funtzionarioak; funtzionarioak, argi eta garbi esanik, elkarrekin haserretu eta etsaitu ziren zergatikorik gabe. Behinola, eztabaida bizi batean, eta, beharbada, biak pixka bat edanda zeudela, Txitxikovek popekumea deitu zion beste funtzionarioari. Izan ere, pope baten semea zen, baina, batek daki zergatik, izugarri mindu zen, eta oso zakar eta ezohiko laztasunez erantzun zion Txitxikovi, honela hain zuzen: «Ez, gezurra duk hori, ni estatu-kontseilaria nauk, ez popekumea; hi bai haizela popekumea!». Eta, bestea zirikatzeke eta gehiago amorrarazteko, ziplo gaineratu zuen: «Horixe haizela!». Garratz erantzun zion beraz, iraintzat harturiko hitzak bihurtuz, eta «Horixe haizela!» esaldia aukeran gogorra izan bazitekeen ere, horrekin askietsirik geratu ez nonbait, eta ezkutuan salatu zuen Txitxikov. Nolanahi ere, lehenagotik liskarturik omen zeuden, aduanako funtzionarioek ziotenez arbi mamitsu bat bezain lerden eta mardula zen neskagazte odolbizi bat zela kausa; besteak beste, lankideak gizon batzuk erosi omen zituen, gauetz Txitxikov jipoi zezaten kalezulo ilunen batean; baina, zio-

tenez, barregarri geratu ziren biak ala biak, eta Shamsharev izeneko kapitainorde batek bereganatu zuen neska. Haien jainkoak daki zer gertatu zen benetan; gogorik izanez gero, hobe irakurleak berak asmatzen badu. Garrantzitsuena da agerian geratu zirela kontrabandistekiko harreman ezkutuak. Bere burua galdu zuen estatu-kontseilariak, baina hondamena ekarri zion lankideari ere. Epailearen esku utzi zituzten biak, ondasun guztiak konfiskatu zituzten, zeukaten guztia bahitu zieten, eta ustekabeen jazo zitzaizen hori guztia, biak ala biak zor eta lor utzirik. Senera etorri ziren noizbait, hordialdi baten ondotik bezala, eta izaturik ikusi zuten zer egin zuten. Estatu-kontseilariak, Errusian ohi dugunez, edanari eman zion, bihozmindurik; kolejio-kontseilariak, ordea, buru egin zion zorigaitzari. Auzia bideratu zuten agintariek oso usaimen zorrotza bazuten ere, aurkitu zuen diruaren parte bat ezkutatzeko modua. Zekizkien amarru guztiak baliatu zituen, zeren eta, arituaren arituaz, oso ondo trebaturik zeukan adimena zeregin horietan eta ezin hobeto ezagutzen zuen jendea: non ahots-doinu atsegina erabili zuen, non

hizkera hunkigarria, non lausenguak —ez baitira inoiz kalterako izaten—, non eskupekoren bat eman, hitz batean, hain ondo konpondu zituen gauzak, ezen, gutxienez, lankidea bezain ohoregaldurik ez geratzeaz gain, gaizkile arrunt gisa epaitua izatea saihestu baitzuen. Baina ez zitzaion ezer geratu, ez kapitalik eta ez atzerriko huskeriarik batere; ondasun haien zaletasun handia erakutsi zuten beste batzuk azaldu ziren. Bakarrik atxiki zituen garai latzetarako gorderik zeuzkan hamar mila errublo, Holandako hariz eginiko hogeit bat alkandora, britxka txiki bat —mutilzaharrek erabiltzen dituzten horietakoa— eta bi morroi —Selifan kotxezaina eta Petrushka lekaioa. Aduanako funtzionarioek, bihozberatasunak mugiturik, masailak freskatzen zituen xaboi berezi haren bospasei ale eman zizkioten. Besterik ez zitzaion geratu. Horra, bada, nolako egoeran aurkitu zen berriro gure protagonista! Horra zenbat ezbehar amildu zitzaizkion buru gainera! Hain zuzen ere, horri esaten zion «gorriak ikustea justiziaren zerbitzuan aritzeagatik». Hori ikusirik, pentsa genezake ezen, hainbeste ekaitzen ondotik, zoriaren gorabeherak

eta bizitzaren nahigabeak horrela pairaturik, probintzietako bazter herrixka baketsu batera erretiratuko zela geratzen zitzaizkion hamar mila errubloekin, eta betiko geldituko zela han, perkalezko mantalaz jantzirik etxetxo arrunt bateko leihoaren alboan, igandeetan beraren leiho aurrean bertan mujikek elkarrekin izaniko liskarrei begira, edo, eguraste aldera, sartu-irten bat eginez noizean behin oilategian, zopari botakozion oiloa hautatzeko, eta horrela bizi hil arte, lasai baina, neurri batean behintzat, probetxuzko ezer egin gabe. Baina ez zen horrelakorik gertatu. Justizia egin behar diogu haren izaeraren adore ezin menderatuzkoari. Hain ezbehar larriak, inor hilko ez bazuten ere, aski ziren edozein gizabanako betiko hozteko eta apaltzeko; Txitxikoven grinak, ordea, ez zituen itzali, hain ziren biziak. Nahigabeturik eta gaitziturik zegoen, marmarka aritzen zen mundu guztiaren kontra, haserre zegoen patuaren zuzengabekeriarengatik, sumindurik jendearen zuzengabekeriarengatik, eta, hala ere, ezin eutsi berriz saiatzeko gogoari. Hitz batean, berealdiko egonarria erakutsi zuen berriro ere, alemaniarrena baino

askoz ere handiagoa, zeren alemaniarrek egurra baino patxadatsuagoak dira, bai, baina odolaren ibilera astiro eta mantsoari zor diote hori. Txitxikoven odola, aldiz, bizi-bizia zen, eta borondate gogorra behar izan zuen askatasunera jalgi nahi zitzaion guztia bridatzeko. Arrazoitu egiten zuen, eta bidezko-tasun-zantzuak nabari zitzaizkion arrazoietan: «Zergatik ni?, zergatik gertatu zait niri ezbeharrak? Gaur egun nor ez da saiatzen karguari etekina ateratzen? Denak aberasten dituk. Nik ez zioat zorigaiztorik ekarri inori: ez zioat ezin alarguni lapurretarik egin, ez diat inoren hondamena ekarri, soberan zegoenaz bakkarririk probetxatu nauk, beste edonork ere hartuko lukeen tokitik hartu diat; nik hartu ez banu, besteren batek hartuko zikean. Zergatik besteek gora egiten dute eta nik arrastaka ibili behar dut har ziztrin baten antzera? Zer naiz orain? Zertarako balio dut? Nolako begiekin begiratuko diot orain aurpegira edozein aita familiako presturi? Nolatan ez dut kontzientziako harra hozkaka izango, jakin baitakit alferrikakoa izango dudala mundu honetako bizialdia? Eta zer esango dute gero nire seme-alabek? Bada, esango ditek, aita

astakilo hutsa zen, ez digu inolako ondasunik utzi!».

Badakigu Txitxikov ikaragarri kezkatzen zela bere ondorengoez. Hain da hunkigarria gai hori! Beharbada, beste batek ez zuen eskua hain barrura sartuko, baldin eta zergatik jakin gabe Txitxikovi burura berez etortzen zitzaion galdera bat tartean izan ez balitz: zer esango dute seme-alabek? Eta horra non aitagaiak, katua bezain zuhur begi baten ertzetik ingurua arakatu eta, jabearen arrastorik ez zegoela ikusiz gero, itsu-mustuan hartzen zuen eskueran zuen gutzia; zela xaboia, zela argizaria, zela gantza edo zela kanario bat, eskua eransten zion guztiari, ezer-txo ere gutxietsi gabe. Horrela egiten zuen, bada, erosta eta negar gure protagonistak, baina bitartean haren buruak ez zuen atsedetik hartzen; zerbait egosten ari zitzaion han barruan, eta, gauzatuko bazen, plana besterik ez zuen behar. Berrero ibili zen estu, berrero jakin zuen bizimodu gaitzaren berri, berrero mugatu zen premia-koenera soilik, araztasuna eta bizilege eratsua utzi eta berrero amildu zen lohikeriara eta bizitza zantarrera. Hoberik aurkitu bitar-

tean, ahaldun lanetan jardun behar izan zuen. Lan hori artean ez zegoen ogibidetzat ezaguturik gure gizartean, eta ahaldunek erasoak jasaten zituzten alde guztietatik, batere begirunerik gabe tratatzen zituzten hala bulegari arruntek nola ordezkaten zituzten bezeroek berek ere, denetariko laidoak eta zakarkeriak pairatu behar izaten zituzten harrera-geletan, burumakur eta txintik atera gabe; hala eta guztiz ere, bizibehar-erak estuturik, neke horiek guztiak eramatea erabaki zuen Txitxikovek. Beste mandatu batzuen artean, nekazari ehunka batzuk Babes Batzordean bahitzeko ahaleginak egin zituzala eskatu zioten. Etxaldea zeharo hondaturik zegoen. Hondamendira eraman zuten abereen gaixotasunek, administratzaileen jukutirik, uzta txarrek, izurriteek —langilerik onenak hil baitzituzten—, eta, azkenik, lurjabearen beraren zabarke-riak, bere ondasun guztiak xahutu baitzituen Moskuko etxe bat azken orduko gustuaren ar-bera apaintzeko. Hainbeste diru gastatu zuen lurjabeak apaintze horretan, ezen ez baitzitzaion jateko ere geratu. Hori guztia zela eta, bahituran eman behar izan zituen gelditzen zitzaizkion

ondasun apurrak. Ondasunak Estatuari bahituran ematea gauza berria zen garai hartan, eta jendea nolabaiteko ikaraz erabakitzen zen hori egitera. Txitxikovek, ahaldun baitzen afera hartan, guztien borondate ona irabazi zuen alde aurretik (gauza jakina da ez dagoela ziurtagiririk arruntena edo zuzenketarik txikiena ere lortzerik zenbaiten borondatea aurretiaz irabazi ezean, nahiz eta, horretarako, botila bete Madeirako ardo isuri behar eztarri bakoitzera), eta, auzi hartan eskumena zuten guztien borondate ona irabazi ondoren, gauzak zertan ziren azaldu zien, gero arazorik sor ez zedin: besteak beste, kontua zen nekazarien erdiak hilik zeudela...

— Baina agertzen dira haien izenak erroldan?
—galdetu zuen idazkariak.

— Bai, agertzen dira —erantzun zuen Txitxikovek.

— Orduan, zeren beldur zara? —esan zuen idazkariak—. Batzuk jaio, beste batzuk hil, eta hemen dena ondo dabil.

Nabari zenez, idazkariak bazekien hizkera errimaduna erabiltzen. Eta, bitartean, ezein giza-kiren buruan sekula sortu den ideiarik bikainena

bururatu zitzaion gure protagonistari. «Ni bai ergela! —esan zuen bere artean—. Eskularruak ezin aurkitu, eta gerrikoan zeuzkaat. Hil diren nekazari horiek guztiak erosiko ditiat haien jabeak errolda berria aurkeztu baino lehen; demagun mila erosten ditudala, eta demagun Babes Batzordeak berrehun errublo ematen dizkidala nekazari bakoitzeko: berrehun mila errubloko kapitala duk guztira! Orain, gainera, sasoi ezin hobea duk horretarako: epidemia bat izan duk duela gutxi, eta, Jainkoari eskerrak, nekazari asko hil dituk. Lurjabeek diru asko galdu ditek kartetan; ohi dutenez, festaz festa ibili dituk, eta erreka jo ditek; Petersburgera joan dituk denak, lan bila; bertan behera utzi ditiztek etxaldeak, administratzaileek hala-hola gobernatzeko ditiztek, zergak ordaintzea gero eta zailagoa duk urtetik urtera. Gauzak horrela, pozarren utziko zizkidatek denek etxaldeak, nekazariengatik zergak ordaindu behar ez izateko; eta hurrengo batean, agian, zertxobait ordainduko zidatek ardura hori neure gain hartzeagatik. Jakina, ez duk lanteregi erraza izango, buruhauste handiak ekarriko zizkidak, eta beldurra ere ematen dik,

litekeena baita horregatik zigortua izatea edo eskandaluren bat piztea. Baina zerbaitetarako eman zigutek adimena gizakioi. Eta onena duk kontu hori ezin sinetsizkoa irudituko zaiela guztiei, ez dik inortxok ere sinetsiko. Bestetik, egia duk lurrik eduki gabe ezin dela nekazaririk erosi edo bahitu. Baina lekuz aldatzeko erosiko ditiat, bai horixe, lekuz aldatzeko; orain dohainik ematen ditzitek lurrak Tauride eta Kherson probintzietan, eremu horiek jendeztatzea beste baldintzarik gabe. Hara eramango ditiat guztiak!, Khersonera!, han biziko dituk! Leku-aldaketa lege egin daitekek, auzitegiek agindutakoa betez. Eta nekazarien ikuskapena egin nahi badute, egin dezatela, zergatik ez?, ez diat eragozpenik jarriko, jabetza-egiaztagiria ere aurkeztuko zieat, probintziako polizi kapitainak sinaturik. Herria Txitxikova dei litekek, edo, aukeran, neure ponteko izenaz bataia nezakek: Pavloskoe herrixka.» Eta horra nola sortu zen gure protagonista-ren buruan ideia bitxi hori; ez dakit irakurleak estimatuko dion, baina autoreari zail zaio bere esker ona ez adieraztea. Izan ere, iritziak iritzi,

Txitxikoven buruan ideia hori sortu ez balitz, poema honek ez zuen argia ikusiko.

Errusiako ohiturek agintzen duten bezala, aitaren eginez eraso zion lanari. Bizitzeko leku bat hautatu behar zuelako estakuruan eta bestelako aitzakiak ere jarririk, gure erresumako bazterrak ikustatzen hasi zen, kontu berezia eginez uzta txarrek, izurriteek eta bestelako ezbeharrek gehien zigorturiko inguruei, hau da, behar zuen jendea errazen eta merkeen eros zezakeen lekuei. Ez zuen edozein lurjaberengana jotzen, atsegin zitzaizkionak edo horrelako tratu bat egiteko eragozpen gutxien jarriko zituztenak soilik aukeratzen zituen, eta alde zuzenetik guztien ezaupidea egiten eta bakoitzaren bihotza bereganatzen saiatzen zen, nekazariak, ahal izanez gero, lagunarteko tratua eginez eskuratzeko, salerosketarik gabe. Horrenbestez, irakurleak ez du autorearekin zertan haserreturik orain arte agertu diren pertsonaiak atsegin ez bazaizkio: Txitxikoven errua da hori, bera dugu jaun eta jabe hemen, eta berak nahi duen tokira joan beharko dugu guk ere. Gure aldetik, hala pertsonaiak nola haien izaera gatzgabeak eta gozakai-

tzak direla leporatzen badigute, bakarrik esango dugu hasieran inoiz ez direla beren zabaltasun osoan ikusten gertakarien ildoak eta hedadura. Zoaz edozein hiritara, hiriburura bertara hala nahi baduzu, eta, iristean, hitsa irudituko zaizu dena; hasieran grisa eta berdina ematen du guztiak, keak belzturiko lantegi eta fabrika amaigabeak baino ez duzu ikusiko, geroxeago agertuko dira sei solairuko etxeak, dendak, idazkunak eta kale izugarri luzeak, nonahi atzemango dituzu kanpandorreak, zutarriak, estatuak, dorreak, hiriko hots, burrunba eta distira guztiak eta giza-kiaren eskuek eta buruak sorturiko miragarriak oro. Irakurleak dagoeneko ikusi du nola egin zituen Txixikovek lehenbiziko erosketak; geroago jakingo du zer gertatuko den aurrerantzean, nolako arrakastak eta porrotak izango dituen gure protagonistak, nola arazo zailagoak konpondu eta oztopo handiagoak garaitu beharko dituen, nola agertzen diren hainbat pertsonaia erraldoi, nola bilbatzen diren ezkutuko hainbat hari kontakizun zabal honetan, nola zabaltzen den haren horizontea eta nola hartzen duen joera liriko handientsu bat. Bidaia asko egin

behar ditu oraindik gure talde ibiltariak, alegia, tarteko adineko jaunak, mutilzaharrek erabili ohi dituztenen antzeko britxkak, Petrushka lekaioak, Selifan kotxezainak eta hiru zaldiek, zeinak, *Kon-tseilari* izenekotik hasi eta izpildun maltzurreraino, ondo asko ezagutzen baititugu jadanik. Hona hemen, bada, gure protagonista, den denean! Baina, beharbada, baten batek eskatuko du haren deskripzioa ezaugarri bakar batean laburbiltzeko: nolakoa da moralari dagokionez? Bistan da ez dela hutsik gabeko gizon bertutetsua. Zer da, orduan? Gizatxarra? Zergatik gizatxarra?, zergatik izan hain zorrotzak lagun hurkoarekin? Gaur egun ez dago gizatxarrik gure artean, asmo oneko jende atsegina besterik ez dago, eta gizarte osoaren aurrean lotsagarri gera daitezen aurpegia jendaurrean zaplatzea mereziko luke tenak bizpahiru baizik ez dira, eta haiek ere bertutez mintzatzen dira egun. Bidezkoagoa litzateke etxaguna edo ondasunzalea deitzea. Ondasunzaletasuna da guztiaren erruduna; haren eraginez egiten dira gizarteak ez oso garbiak deritzen gauza guztiak. Egia esan, izaera horretan bada zerbait nardagarria, eta, bizitzan horrelako

norbait aurkiturik, adiskidetzat hartuko dute hainbat irakurlek, abegi ona egin eta une atseginak igaroko dituzte berarekin, baina destainaz begiratuko diote drama edo poema bateko protagonista bada. Zuhurra da, ordea, inor arbuiatu gabe jendea begi zorrotzez aztertu eta izaera bakoitzaren jatorrizko zioak atzematen dituenak. Bizkor aldatzen da dena gizabanakoaren baitan; konturatzerako, biziaren zuku guztiak gupidarik gabe xurgatzen dizkion har ikaragarri bat hazi zaio barne-muinetan. Behin baino gehiagotan, grina handiak ez ezik, edozein huskeriatarako grinatxorik ziztrinenak ere neurririk gabe hazten dira egite gogoangarriagoetarako jaio denarengan, eta, bere eginbehar goren eta sakratuak oro ahaztarazirik, edozein hutsalkeriatan kausiarazten dizkio gorentasuna eta sakratutasuna. Gizakiaren grinak ezin zenbatuzkoak dira —itsasoko hondar-aleak bezala—, eta ez dute elkarren antzik, eta denek —hala makurrenek nola ederrenek— men egiten diote hasieran gizakiari, baina gero haren gogoaz jabetzen dira indar ikaragarriak. Zorioneka grina guztietan ederrena hautatzen duena; hazi eta hamarkoiztu egingo

da ordutik ordura eta minututik minutura haren zorion mugagabea, eta gero eta barrurago sartuko da gizabanako zoriontsu hori bere arimako paradisu azkenik gabean. Baina badira grina batzuk gizabanakoak aukeratzen ez dituenak. Berekin ekartzen ditu mundura, jaiotzen den unean, eta inork ez dio eman haiengandik bereizteko indarrik. Burubide goikoagoak dituzte gidari horrelako grinek, eta badago haiengan halako aldarri etengabe bat, bizitza osoan isiltzen ez dena. Garrantzi handiko eginkizuna bete behar dute Lurrean; irudi goibela izan zein mundua alaitzen duen agerkunde distiratsu legez igaro, helburu bera dute batzuek zein besteek: gizakiari on ezezagun bat ekartzea. Eta agian, Txitxikoven grinan bertan, jadanik ezin menderatu duen grina ahaltsu horretan eta haren bizitza hotzean dago gorderik gizakia jakinduria zerutiarraren aurrean errautsi eta belauniko jarraraziko duen indarra. Orobat, misterioa da zergatik agertu den irudi hori orain argitara ematen dugun poema honetan.

Baina tamalgarriena ez da protagonista hainbaten gogoko ez izatea, tamalgarriena da etsi-

etsirik nagoela protagonista hori bera, Txitxikov hori bera alegia, irakurleen gogoko izan zitekeela. Autoreak haren ariman gehiegi sakondu ez balu, arimaren hondoan argitik babesten eta gordetzen diren alorrak irauli ez balitu, gizabanakoak inori jakinarazten ez dizkion pentsamendu ezkutua agerian jarri ez balitu, eta, hori egin beharrean, Manilovi eta hiriko beste biztanle guztiei agertzen zitzaien bezalakoxea erakutsi izan balu Txitxikov, gogobeterik geratuko ziratekeen denak eta gizon interesgarritzat hartuko zuketena. Haren aurpegiak eta irudi guztiak batera bizitasunik izan ez balute ere, horrek ez zukeen inolako axolarik izango; aitzitik, liburua irakurtzen amaitutakoan ezerk ez zukeen arima aztoratuko, eta irakurlea berriro itzul zatekeen karta-mahaira, jokoak Errusia osoa jostarazten baitu egun. Bai, irakurle maiteok, zuek ez zenuketen agerian ikusi nahi izango gizabanakoaren alderdi gaiztoa! Zertarako?, diozue, zertarako hori? Ez al dakigu, geure kabuz jakin ere, bizitzan badirela doilorkeria eta ergelkeria ugari? Bestela ere, sarritan ikusi behar izaten ditugu batere pozgarriak ez diren gauzak. Hobe alderdi

eder, liluragarriak erakusten badizkiguzue. Nahiago dugu ahaztu! «Zergatik kontatzen didak gauzak oker doazela etxaldean? —esaten dio lurjabeak administratzaileari—. Hik esan gabe ere, ondo asko zekiat hori, ez al dakik beste ezertaz mintzatzen? Uztak ahazten, zoriontsua izango nauk horren berririk ez badakit.» Eta ahazten laguntzen dioten gauzetan xahutzen du hainbat arazo konpon zitzakeen dirua. Adimena, agian, gai zatekeen irtenbide ederren iturburu ezkutua aurkitzeko, baina lo dauka; luze gabe, enkantean saltzen dute etxaldea, eta kale gorrian geratzen da dena ahaztu nahi zuen lurjabe hori, eta, beharrak estaturik, gertu dago aspaldi ez zela ikara sortzen zioten bilaukeriak egiteko.

Autoreari gaitzespen ugari etorriko zaizkio abertzaleak deritzeten horien aldetik ere. Izan ere, bazter batean lasai eseririk egoten dira abertzale izeneko horiek, munta gutxiko arazoez soilik arduratzen dira eta kapital txiki bat biltzen dute apurka-apurka, beren zoria besteen kontura ondurik; baina haien ustez aberriarentzat iraingarria den zerbait gertatu bezain laster, egia

mingotsak esaten dituen liburu bat argitaratu orduko, arrapaladan ateratzen dira bazter guztietatik, amaraunean euli bat erori dela ikusi duten armiarmen antzera, eta oihuka hasten dira denak batera: «Ondo al dago hori argitara ateratzea? Hor azaldurik dagoen hori guztia geure kontua da. Ondo al dago lau haizeetara aldarrikatzea? Zer esango dute atzerritarrek? Pozgarria al da geuri buruzko iritzi txarrak entzutea? Ez ote dute pentsatuko hori guztia ez dela mingarria guretzat? Ez ote dute pentsatuko ez garela abertzaleak?». Aitor dut ezin diedala ezer erantzun hain oharpen zentzuzkoei, atzerritarren usteen gainekoei bereziki. Honakoa ez bada, behintzat: bi gizon bizi ziren Errusiako bazter urrun batean. Bietako bati —aita familiakoa bera— Kifa Mokievitx zeritzon, otzantasuna zuen ezaugarri nagusi eta erabateko zabarkerian bizi zen. Ez zen familiaz arduratzen; batez ere, hausnarketaren arlora zuzentzen zuen bere bizitza, eta, berak esaten zien bezala, arazo filosofikoez arduratzen zen, adibidez: «Horra hor, esaterako, piztiak —zioen bere kolkorako, gelan batera eta bestera zebilela—, piztiak biluzik jaiotzen dituk.

Zergatik, hain zuzen ere, biluzik? Zergatik ez dira jaiotzen hegaztiak bezala, zergatik ez dira arrautzetan sortzen? Zenbat eta gehiago sakondu, orduan eta ulergaitzagoa duk natura, bai horixe!». Horrelako gogoetak egiten zituen Kifa Mokievitxek. Baina ez da hori garrantzitsuena. Beste gizonari Mokii Kifovitx zeritzon, haren semea baitzen. Rusen bogatira deritzeten horietakoa zen, eta, aita piztien jaioeraz arduratzen zen bitartean, hogeita bost urteko gazte bizkarzabalaren bizi-indarrak garatzeko ahaleginak egiten zituen. Ez zen gai samur jokatzeko: bati besoa kraskatu edo beste bati sudurra hautsi, besterik ez zekien egiten. Etxean zein inguruan, denek, neskatiletatik hasi eta zakurretaraino, ziztu bizian alde egiten zuten hura urrunetik ikusi bezain laster; txiki-txiki eginik utzi zuen behin bere logelako ohea bera ere. Horrelakoa zen Mokii Kifovitx, eta, hala ere, mutil ona zen. Baina ez da hori garrantzitsuena. Hau da garrantzitsuena: «Barkatu, Kifa Mokievitx jauna —esaten zioten aitari hala beraren nola besteen agindupekoek—, konturatu zara zure seme Mokii Kifovitxen jokaeraz? Ez dio inori bakerik ematen,

hain da odol-beroa!». «Bai, oso bihurria da, oso bihurria —erantzun ohi zien aitak—. Baina zer egin dezaket nik? Berandu da jotzen hasteko, eta gainera, joko banu, ankerra naizela leporatu-ko lidakete denek. Mutil harroa da, eta zuzendu-ko litzateke besteren aurrean kargu hartuko banio. Baina are okerragoa litzateke hori! Hiri osoak jakingo luke, eta zakurra deituko liokete. Zer uste dute, gero?, niretzat ez dela mingarria? Ez al naiz beraren aita? Arazo filosofikoez arduratzen naizenez batzuetan berarentzako astirik ez badut ere, ez al naiz beraren aita? Horixe naizela. Aita naiz, mila deabru, aita! Hementxe daramat Mokii Kifovitx, bihotzean!» Hori esateaz batera, Kifa Mokievitxek bularra jotzen zuen ukabilaren indar guztiaz, eta zeharo berotzen zen. «Zakurra bada, jendeak ez du niregandik jakingo, ez dut nik semea salatuko.» Eta, hain sentimendu aitatiarra erakutsirik, bogatir bati dagozkion balentriak egiten jarrai zezan uzten zion Mokii Kifovitxi, eta bera atzera murgiltzen zen hain gogoko zituen gaietan, beste arazoren bat hausnargaitzat harturik, adibidez: «Baina elefantea arrautza baten barruan sortuko balitz, osko-

la oso gogorra eta lodia lukek, kanoi batek ere ez likek apurtuko; su-arma berria asmatu beharko genikek». Horrela iragaiten zuten bizitza bazter baketsu hartako bi biztanle haiek, zeinak ustekabean, sabaizulotik sartu balira bezala agertu baitira gure poemaren amaieran, zertarako eta erantzun apala emateko orain arte gai filosofikoren batez edo bestez edo hain samurki maite duten aberri horren kontura aberasteaz bakarrik arduratu diren zenbait abertzale kartsuren gaitzespenei, zeren eta, izan ere, abertzale horien kezka nagusia ez baita gaizkirik ez egitea, ezpada inork ez esatea gaizkia egiten dutela. Baina ez, ez da abertzaletasuna haien gaitzespenen zergatikorik behinena, beste zerbait ezkututzen da horren azpian. Zergatik isildu? Autorea ez bada, nork esan behar du egia sakratua? Zuek beldur diozue arretazko begirada sakonari, ez zarete ausartzen zeuok gauzei sakon eta arretaz begiratzen, nahiago duzue gaingiroki behatu, inolako gogoetarik egin gabe. Gogoz barre egingo duzue Txixikoven lepotik, eta, agian, autorea laudatu ere egingo duzue, esanez: «Dena dela, trebetasun handiz jaso ditu zenbait xehetasun,

gizon alaia da inondik ere!»). Eta, hori esandakoa, are harroago begiratuko diozue zeuon buruari, eta, handiustezko irribarrea aurpegian, gaineratuko duzue: «Ezin da ukatu jende bitxi eta barregarria badela probintzia batzuetan; eta alproja galantak dira gainera!»). Eta zuetako nork ez du, kristau etsipenez beterik, ez jendaurrean, baizik eta bakartasunean, isilik, norberarekiko bakarrizketaren orduan, galdera larri hau aditu bere arimaren hondorik sakonenean?: «Ez ote dago niregan Txitxikoven ezaugarririk?». Ez hurrik eman ere! Eta, bitartean, gizarte-maila ez goikoegia ez behekoegia duen ezagun bat aldamentetik igaro delarik, ukondoaz joko du laguna, eta, barreari nekez eutsirik, esango dio: «Begira, begira, Txitxikov, hor doa Txitxikov!»). Eta gero, haur baten antzera, ikasketek eta urteek eskatzen dioten neurritasun guztia ahazturik, lasterka joango da haren atzetik, zirika eta honela esanez: «Txitxikov! Txitxikov! Txitxikov!»).

Baina ozen samar hitz egiten hasi gara, ahazturik ezen gure protagonista, haren bizitza konstatzen jardun dugun bitartean lo egon baita, esnatu egin dela eta aise entzun lezakeela bere

deitura hainbeste aldiz errepikatua. Gizon suminkorra da, eta gaitzitu egiten da berari buruz begirunerik gabe hitz egiten badute. Irakurleari bost axola Txixikov berarekin haserretu edo ez, baina autoreak ezin da inola ere bere protagonistarekin etsaitu: bide eta bidaia asko egin behar dituzte oraindik biek elkarrekin; bi tomo mardul datoz honen ondotik, eta hori ez da ahuntzaren gauerdiko eztula.

— Aizak, zer gertatzen zaik? —esan zion Txixikovek Selifani—. Zertan habil?

— Zer? —esan zuen Selifanek, astiro.

— Nola zer? Kirtena halakoa! Hoa lasterrago!

Izan ere, begiak biltzen zitzaizkiola zihoan Selifan aspalditik, eta, erdi lo, noizean behin soilik eragiten zien uhalei, zaldi orobat logaletuen saihetsak leunki joz; Petrushkak, berriz, aspaldi galdu zuen txanoa, oharkabean haizeak eramani, eta, atzerantz etzanda, Txixikoven belauenen gainean jarri zuen burua, halako moldez, ezen kaskarreko bat eman behar izan baitzion nagusi jaunak. Selifanek, zuzpurturik, zartako batzuk eman zizkion bizkarrean zaldi izpildunari, eta, trosta bizkortu zuenean, zigorra dantzatu

zuen guztien gainean, ahots-doinu samurrez esanez: «Ez izan beldur!». Zaldiek, ernaturik, lumazkoa balitz bezala eraman zuten aurrerantz britxka arina. Selifanek etengabe eragiten zion zigorrari, behin eta berriro oihukatuz: «Axa, axa, axa!». Jauzika zihoan gida-aulkian, noiz gora eta noiz behera, troika bideko muinoetara zalu igo edo muinoetatik agudo jaisteaz batera, zeren bide nagusia muinoz josirik zegoen, nahiz eta, antzematen ez bazitzaion ere, aldapa behera zen dena. Txitxikov, lastertasuna atsegin zitzaionez, irribarretsu zihoan, larruzko bigungarriaren gainean jauzi leunak eginez. Ba al da errusiarrik lastertasuna atsegin ez zaionik? Izan ere, errusiarren arimak joera bizia baitu zorabiatzeraino jira-biraka ibiltzeko eta neurrik gabe jostatzeko, eta batzuetan esaten du: «Doala dena pikutara!». Nolatan ez zaio, bada, lastertasuna gustatuko errusiarren arimari? Nolatan ez zaio gustatuko, lastertasunaren baitan zerbait bitxia eta zoragarria sumatzen baita? Ematen du indar ezezagun batek bere hegoetan altxatzen zaituela, eta hegan zoaz zu zeu, eta hegan doa dena: hegan doaz verstak, hegan hurbiltzen zaizkizu

merkatariak kibitketako gida-aulkietan eseririk, hegan doa basoa bidearen alde banatan, izei eta pinu ilara ilunekin, aizkoren danbatekoekin eta belabeltzen karrankekin, hegan doa bide osoa, nora ez dakizula, urruntasun azkengaberantz, eta zerbait ikaragarria ezkututzen da laster joate horretan, gauzak ziplo desagertzen dira agertu orduko, zehazteko astirik izan gabe, eta soilik ageri dira geldirik zerua buru gainean, hodei arinak eta ilargia haien artean. Oi, troika!, troika txoria!, nork asmatu zaitu?, herri erne eta trebe batean bakarrik sortu ahal zinen, txantxetan aritzea gogoko ez duen lur honetan, munduaren erdia hartzen duen eremu lau eta berdin honetan. Troika, zenba itzazu verstak begiak lausotu arte! Eta guztiz bakuna dirudi zure egiturak, ibilgailu xume horrek, ez duzu burdinazko torlojurik batere, begien itxi-ireki batean eratu zaitu Jaroslav-eko mujik trebe batek, aizkora eta zizela beste lanabesik gabe. Gidaria ez da bota luzeko alemaniar horietako bat, baizik eta mujik bizardun bat, eskularruduna eta batek daki zeren gainean eseria; baina zutitzen bada, eta zigorra airean jaso, eta kanta bati ekin, lauoinka bizian

hasten dira zaldiak, gurpiletako izpiak elkarrekin nahasten dira biribilki oroberdin batean, dar-dar egiten du bideak, eta beldurrezko oihuak jaulkitzen zaizkie bide bazterrean geldirik geratu diren oinezkoei, eta troika ziztu bizian doa aurrera, aurrera, aurrera!... Eta, konturatzerako, urrun begizatzen da, hautsa harrotzen eta airea zultzen doala.

Ez al zara zu ere horrelakoa, Rus? Ez al zara atzean uzterik ez dagoen troika lasterraren antzekoa? Kea dario bideari zure azpian, karraska egiten dute zubiek, dena desagertzen da, eta atzean geratzen. Jainkozko lilura batek zurturik geratzen da begiralea: ez al da hori zerutik jaurtiriko tximista bat?, zer esan nahi du mugimendu izugarri horrek?, eta zein indar ezezagun ezkututzen da munduak sekula ikusi ez bezalako zaldi horien baitan? Oi, zaldiak, zaldiak, nolako zaldiak! Zirimolak al dituzue zurden artean? Belarri zoliak al dituzue zain guztietan? Kanta ezagun bat entzun duzue han goian, denak bat eginik tenkatu dira bular kobrezkoak, eta, apaxek lurra azaletik soilik ukitzen dutela, airean hegaz doan lerro luze baten tankera hartu

duzue, eta lauoinka bizian zoazte Jainkoak goiar-
giturik!... Nora zoaz hain azkar, Rus? Erantzun,
arren! Ez du erantzuten. Durundi egiten du kan-
paitxoaren hots zoragarriak; aireak, txiki-txiki
eginik, kurrixka egiten du eta haize bihurtzen da;
hegan doa munduan den guztia, eta, zeharka
begiraturik, baztertu eta igarotzen uzten dizute
beste herri eta erresumek.

BIGARREN TOMOA

Lehen kapitulua

Zertarako erakutsi ooren aurrean gure bizitzaren miseria eta gure akats goibelak, jendea gure erresuma honetako bazter lekuetatik eta zokogune galduetatik ateraz? Baina zer egin autorea horrelakoa bada, eta bere akatsek gaizkiturik badago eta bere buruak ezinbestez agerrarazten badio gure bizitzaren miseria, jendea gure erresuma honetako bazter leku urrun eta galduetatik ateraz? Berriro gaude, beraz, bazter leku batean, berriro heldu gara zokogune galdu batera!

Baina oi zer-nolako bazter lekua, oi zer-nolako zokogune galdua!

Mila versta eta gehiagoko bidean bizkor igerotzen ziren mendilerro bihurriak, ordokien gainean zut, gotorleku azkengabe bateko harresi eskerga bailiran, hemen horma-moduko malkar horixkak osatuz, sakongune eta haitzartez jositik, hor biribil-formako konkor berdexkak eratuz, motzondoetan hazitako zuhamuxka gazteek estalirik, astrakan-larruz jantzirik baleude beza-

la, eta han, azkenik, aizkorak artean ukitu gabe-ko baso ilunez oparo horniturik. Erreka batek, bere ertz garaiei leialtasunez atxikirik, sigi-saga eta ikur-makurka zeharkatzen zuen inguru guz-
tia; hor-hemen, atzean uzten zituen mendi-
teak, eta, belardietan barna hainbat itzulinguru
eginik, sua bezala dirdirka eguzkitan, atzera gor-
detzen zen urkidi, lertxundi eta haltzadietan, eta
pixka bat aurrerago lasterka ateratzen zen han-
dik, urak harro, zubi, errota eta presek lagundu-
rik, bihurgune bakoitzean errekarakin bat egin
eta berarekin batera joan nahi balute bezala.

Leku batean, mendi-hegal malkartsua ingu-
rukoak baino gorago iristen zen, baso sarriaren
hostaila joriak oinetik tontorreraino estalirik.
Nahas-mahas zegoen dena hor: astigarrak,
madariondoak, sahats txikiak, urki gazteak,
izeiak, otsaihena otsalizarretan kiribildurik.
Beste leku batean, berriz, tarteka atzematen
ziren lurjabeen eraikuntzetako teilatu gorriak,
zurezko zaldi-buru eta gangarrak izba ezkutueta-
ko gailurretan zizelaturik, eta jauretxearen goiko
aldea. Eliza zahar batek bere bost kupula distira-
tsuak agertzen zituen zuhaitz eta teilatu haien

guztien gaintetik. Kupulek urrezko gurutze bana zuten, urrezko katez lotuak, halako moldez, ezen urreak airean zintzilik eta ezeri lotu gabe balego bezala distiratzten baitzuen urrunetik. Zuhaitzak eta teilatuak gokoz behera islatzen ziren errekan, elizarekin batera. Sahats zaharrek, itxuragabe bezain xarmagarri, ur-ertzean batzuk eta uretan bertan beste batzuk, beherantz makurturik zeuzkaten adarrak eta hostoak, luzaroan bizi izanagatik beti lilura berberaz ikusiko zuten koadro hura berriz ere miretsi nahi balute bezala.

Ikuspegia oso ederra zen berez, baina are ederragoa zen goitik begiraturik, jauretxearen goiko aldetik ordokirantz eta ortzemugarantz. Ez zegoen gonbidaturik edo bisitaririk balkoian halako zirrara berezi bat sumatzen ez zuenik. Liluraturik, gauza bakarra esan ahal izaten zuten denek: «Ene Jainkoa, zeinen eremu zabala!». Eremu zabal hark ez baitzuen azkenik. Han urrun, oihantxoaz eta ur-errotaz josiriko belardiez harantzago, berde eta urdin ageri ziren baso sarriak, itsasoaren edo lainoaren irudiko. Basoetz haratago, hareatza horixkak begiztatzen ziren aire lanbrotsutik zehar. Hareatzez haraxeago,

ortzemuga urruna urratzen zuten kretazko mendien tontorrek, zurtasun itsugarritz dirdirka noiz-nahi, baita egun euritsuetan ere, eguzkiak beti argituko balitu bezala. Hor-hemenka, hodeiantzeko ke-adar gris urdinxkak atzematen ziren mendi haien artean. Giza begiak ezin ikusizko herrixka urrunak ziren. Txinpart baten antzera ñirñirka, elizaren urrezko kupula nagusiak soilik adierazten zuen herri jendetsua eta handia zela hango hura. Isiltasun erabatekoak biltzen zuen hori guztia, airea betetzen zuten kantari hegalarien soinuek ere isiltasun guztizko hura hausten ez zutela, nekez iristen baitziren belarrietaraino. Hitz batean, ez zegoen gonbidaturik edo bisitariarik balkoian halako zirrara berezi bat sumatzen ez zuenik, eta bi orduz ikuskari hura miresten egon ondoren ere, aurreneko minutuko oihu berbera jaulkitzen zitzaien guztiei: «Ene Jainko zeruetakoa, zeinen eremu zabala!».

Nor bizi zen herri hartan, zeinera, gaztelu menderakaitza bailitzan, ez baitzegoen zuzenean iristerik, baizik eta itzulingurua eginez zelai eta galsoroetan barrena eta, azkenik, inguruko berdetasunean oso modu pintagarrian hedatzen

zen artadi bakana zeharkatuz izbetaraino eta jauretxeraino bertaraino? Zein gizaki zoritsurena zen bazter leku hura? Nor zen herri hartako biztanlea, haren jauna eta jabea?

Bada, Andrei Ivanovitx Tentetnikov, hogeita hamahiru urteko jaun gaztea bera, Tremalak-hanski barrutiko lurjabea, kolejio-idazkaria, ezkongabea.

Nolakoa zen gizon hura? Nolako izaera, ezau-garriak eta berezitasunak zituen Andrei Ivanovitx Tentetnikov lurjabeak?

Inondik ere, auzoei galdetzea dugu onena. Auzoetako batek, brulot-koronel familia bateko kidea bera, labur-labur azaltzen zuen nolakoa zen: «Astakirten hutsa!». Handik hamar verstara bizi zen jeneral batek, berriz, honela deskribatzen zuen: «Gizon gaztea, nahikoa buruargia, baina oso egoskorra. Nik mesede ugari egin niezazkioke, baditut-eta lagunak Petersburgen, eta baita...». Jeneralak ez zuen esaldia bukatzen. Barrutik hartako polizi kapitainak honakoa oharrazten zuen: «Bulegari erdipurdikoa da, hutsaren hurrengoa. Bihar bertan joango naiz berarengana zorrak kobratzera». Haren herriko

mujikek, nagusi jauna nolakoa zen galdetzen zientean, ez zuten ezer erantzuten. Hitz batean, hari buruzko iritzi orokorra txarra zen ona baino-ago.

Baina, egia esan, Andrei Ivanovitx ez zen ez ona ez gaiztoa; alfer zuria baizik ez zen. Mundu honetan hainbeste jende alferkerian bizi denez gero, zergatik ez zen, bada, Tentetnikov ere alferra izango? Dena dela, hona hemen haren bizi-tzako egun oso bat hitz gutxitan laburturik. Irakurleak berak atera dezala hortik nolakoa zen Tentetnikov!

Oso berandu esnatzen zen goizean, eta, agondu ondoren ere, luzaz egoten zen ohean eseririk, begiak igurtzitzen. Zoritxarrez-edo, txikiak zituen begiak, eta, horren ondorioz, denbora izugarri luzea ematen zuen igurtzitze-lan horretan. Bitarte horretan guztian, atean zutik egoten zen Mikhailo izeneko zerbitzari bat, konketa eta eskuoihala eskuan. Mikhailo errukarria ordu bat edo bi egoten zen han geldirik, sukaldera joaten zen gero, handik atzera itzuli, eta jauna artean ere begiak igurtzitzen aurkitzen zuen, ohean eseririk. Azkenean, ohetik jaiki, garbitu,

etxeko mantala jantzi, eta egongelara joaten zen tea, kafea, kakaoa eta esne jetzi berria edatera. Zurrutatxo bat egiten zion edari bakoitzari, gupidarik gabe papurtzen zuen ogia, eta inguru guztia zikintzen zuen piparen errautsaz, inolako eskrupulorik gabe. Bi ordu ematen zituen gosaltzen, eta, hori gutxi balitz bezala, katilua te hotzez bete eta patiora ematen zuen leihora hurbiltzen zen. Leihoaz bestaldean eszena berbera errepikatzen zen beti.

Aurrena, orro egiten zuen Grigorik, janaritegiar arduratzen zen morroi bizartsuak, Perfilievna giltzainari honelakoak esanez:

— Andretxo zekena, ezdeusa halakoa! Isilik egon hadi, emakume zital hori, isilik egon hadi!

— Hire esanek bost axola niri, hordiputz amorratu hori! —erantzuten zion ezdeusak, edo Perfilievnak.

— Hirekin ez zegon ondo etortzerik, administratzailearekin berarekin ere liskartuko hintzateke huskeria batengatik, zikoitza alaena! —oihukatzen zion Grigorik.

— Lapurra galanta administratzailea, hi bezala! —erantzuten zion ezdeusak, hain ozenki,

ezen herri osoan entzuten baitziren haren deia-
darrak—. Mozkor pare ederra zuek biok, upel
hondogabeok, hondamena ekarriko diozue
nagusiari! Zer uste duk?, nagusi jaunak ez dakie-
la nolakoa haizen? Bada, hortxe zegok, hire hitz
guztiak entzuten!

— Non dago, gero, nagusia?

— Hortxe, leiho alboan eserita; dena ikusten
dik hortik.

Eta, izan ere, nagusi jauna leiho alboan ese-
ririk zegoen eta dena ikusten zuen handik.

Zalaparta hura asko ez zela, neskame baten
hautxoa eztarria urratu beharrean garrasika ari
zen, amak belarrondokoa eman zion eta; erbi-
zakur bat, berriz, intzirika ari zen atzeko hanken
gainean jarririk, sukaldariak sukaldeko leihotik
bota zion ur irakinaren eraginez. Hitz batean,
ezin jasanezko oihu eta garrasi zen dena. Nagu-
siak guztia ikusi eta entzuten zuen. Eta hango
zarata ezer egin gabe egotea bera eragozteraino
jasanezin bihurtzen zenean soilik bidaltzen zuen
norbait zalaparta apur bat motel zezatela eska-
tzera.

Bazkaldu baino bi ordu lehenago, Andrei Ivanovitx bere langelara joaten zen, buru-belarri eta gogor lan egitera. Izan ere gogorra baitzen haren eginkizuna. Ikerketak egin nahi zituen, aspalditik buruan jira-biraka zebilkion obra mamitsu bat idazteko. Obra horrek Errusiaren berezitasun eta alderdi guztiak bildu behar zituen, sozialak, politikoak, erlijiozkoak zein filosofikoak; erantzuna eman behar zien denboraren joanean sorturiko arazo eta galdera korapilatsuei, eta, azkenik, argi eta garbi iragarri erresumaren etorkizun loriazkoa; hitz batean, izugarri lan zabala zen. Baina ikerketak ez ziren inoiz bukatzen; idazluma marraskatua izaten zen, marrazkiak agertzen ziren paperean, eta gero, hori guztia bazterrera utzirik, liburu bat itsasten zitzaion eskuan ikertzaileari, eta ez zitzaion askatzen bazkaltzeko ordua jo arte. Zoparekin, saltsarekin, jaki beroekin eta are bazkalburuko gozokiekin batera irakurria izaten zen liburu hura, halako moldez, ezen jaki batzuk hotz geratu eta beste batzuk dastatu ere egin gabe kentzen baitzizkioten irakurleari. Horren ondotik, katilu bete kafe edan eta pipa erretzen zuen, eta

gero xake-jokoan aritzen zen bere buruarekin. Ordutik afarira bitarteko denborari dagokionez, egia esan, zaila da zer egiten zuen esatea ere. Nonbait, ez zuen ezer egiten.

Horrela igarotzen zuen denbora, bakar-bakarrik [mundu] osoan, hogeita hamabi urteko gizon gazte hark, egonean, etxeko mantala jantzirik, gorbatarik gabe. Ez zen paseatzen, ez zen inora joaten, sekula ez zen, herriaren inguruko ikuspegi zabala mireste aldera, etxearen goiko solairura igotzen, inoiz ez zuen, aire freskoa gelan sar zedin, leihoa zabaltzen, gogo-izpirik ere ez horretarako, eta bazirudien ederraren ederraz bisitari guztiak liluraturik uzten zituen ikuspegi hura existitu ere ez zela egiten etxeko nagusia-rentzat.

Egun arrunt batean zer egiten zuen jakinik, irakurlea aise ohartuko da ezen Andrei Ivanovitx Tentetnikov Rusen hain ugariak diren eta, besteak beste, artaburuak, alferrontziak edo gibelhandiak esaten zaien gizon horietakoa zela.

Ez dago jakiterik ezaugarri hori jaiotzetik bertatik duten ala geroago sortzen zaien. Erantzun beharrean, uste dut hobe dela Andrei Ivanovi-

txen haurtzaroaren eta heziketaren nondik norakoa kontatzea.

Haurtzaroan mutiko azkar eta buruargia izan zen, ernea batzuetan eta gogoetatsua beste batzuetan. Zoritxarrez edo zorionez, ohi ez bezalako ikastetxe batera igorri zuten. Zuzendaria, zenbait apeta gorabehera, oso gizon berezia zen. Aleksandr Petrovitxek errusiarraren izaera aditzeko dohaina zuen, eta ondo menderatzen zuen berarekin erabili beharreko hizkera. Ez zegoen ikaslerik haren eskuetatik burumakur ateratzen zenik; aitzitik, are errietarik garratzenaren ondotik ere, guztiek sumatzen zuten halako adore berezi bat eta halako irrika bizi bat eginiko hutsak eta okerrak zuzentzeko. Haren ikasle-jendea hain zen itxuraz bihurria, ozarra eta urduria, ezen inolako ordenarik gabeko haur-saldo hezikaitz iritziko baitzioken beste edonork. Baina irudipen okerra zen hori: pertsona bakar baten agintea aski zen haur-saldo hura onbideratzeko. Haurrik bihurrienek eta barrabanekek ere beren kabuz jotzen zuten irakaslearengana, eta bihurrikeria guztiak aitortzen zizkioten. Bururatzen zitzaizkien okerkeria guztien

berri jakiten zuen. Ohi ez bezalako jokabidea erakusten zuen beti. Esan ohi zuenez, beste ezer baino lehenago handinahia piztu beharra dago gizabanakoarengan —gizakia aurrera bultzatzen duen indarrari deitzen zion berak handinahia—, hori gabe ez bailioke ezeri ekingo. Ez zituen erabat eragozten bihurrikeria eta gaiztakerietako asko: ezaugarri espiritualen garapenaren hasiera ikusten zuen aurreneko bihurrikerietan. Beharrezko zitzaizkion, zehatz-mehatz igartzeko zer gordetzen zen haur bakoitzaren baitan. Horrelaxe jokatzeko du sendagile argiak ere: gorputzean azalduko pikor eta orbanak behingoan desagerarazi beharrean, patxadaz aztertzen ditu, ziurtasunez jakiteko zein gaitz ezkututzen den gaitxoaren barnean.

Ikastetxean irakasle gutxi zituenez, Aleksandr Petrovitxek berak ematen zituen ikasgai gehienak. Eta, hala baita egia, esan beharra dago ezen, irakasle gazteek hain gogoko dituzten hitz pedanteak, hizkera jaso eta azalpen puztuak oro bazterturik, bazekiela zientziaren muina hitz gutxitan azaltzen, halako moldez, ezen haur txikiek ere argi eta garbi ikusten bai-

tzuten zertarako behar zuten zientzia. Gizabana-koak, haren ustez, bizitzearen zientzia du guztietan premiazkoena, zeren eta, zientzia hori jakinez gero, berez jakingo baitu zein dituen eginbeharrik behinenak.

Ikastaro berezi batean irakasten zuen bizitzearen zientzia, eta ikaslerik onenak soilik onartzen zituen ikastaro horretan. Ikasteko gaitasun motela erakusten zutenak, aldiz, lanera bidaltzen zituen lehen ikasmila amaitutakoan, uste baitzuen alferrik zela haiekin neke handirik hartzea: aski zuten jasankorrak eta langile finak izatera ohitzea eta harropuzkeriarik eta etorkizunerako asmo handirik ez izatea. «Luzaz jardun behar dut, ordea, buruargiekin, ikasteko dohainaz horniturik daudenekin», esan ohi zuen. Aleksandr Petrovitx zeharo bestelakoa agertzen zen ikastaro berezi horretan, eta lehen egunean bertan jakinarazten zien ikasleei adimen arrunta soilik eskatu ziela ordu arte, baina goi-mailako adimena eskatuko ziela aurrerantzean. Ez ergelari adarra jotzen eta haren lepotik barre egiten dakien eta, aldi berean, ergelaren irainak hase-rretu gabe eramateko eta barkatzeko gai den

adimen hori. Gainerako guztiek haurrei eskatzen dietena eskatzen hasten zen orduan bera ere. Adimenaren goren maila deitzen zion horri. Giza-banakoak beti berekin behar duen lasaitasun goren hori atxikitzea nahigaberik saminenen erdian ere, horra zeri deitzen zion berak adimena! Bitzitzearen zientzia zertan zen bazekiela erakutsi zuen Aleksandr Petrovitxek ikastaro horretan. Jakingai guztien artean, ikasleengan sorterriarekiko atxikimendua sorraraz zezaketenak soilik hautatu zituen. Eskolak, oro har, hala Estatuaren zerbitzuko lanean nola norberaren jardunean arlo eta maila guztietan zain zeukate-nari buruzko kontakizunak ziren. Inolako edergarririk gabe biltzen zituen ikasleen begien aurrean bidean kausituko zituzten atsekabe eta oztopo guztiak eta aurrean agertuko zitzaizkien tentaldi eta zirikaldi guztiak, bat bera ere ezkutatu gabe. Dena zekien, maila eta kargu guztietatik igaro balitz bezala. Hitz batean, marrazten zien etorkizuna ez zen batere atsegina. Eta, hala ere —bai harrigarria!—, zela handinahia indar handiz esnatua zelako jadanik ikasleen barnean, zela ezohiko irakaslearen begiek gaztearen adorez

«Aurrera!» oihukatzen zutelako —hitz horrek eragin miragarria baitu errusiarrarengan—, zela horregatik edo zela beste arrazoiren batengatik, gazte haiek zailtasunak soilik bilatzen zituzten hasieratik bertatik, lan zailetan eta kemen handia erakutsi behar zen lekuetan soilik jarduteko irrikaz zeuden. Haien bizitzan bazen zerbait zentzuzkoa. Aleksandr Petrovitxek denetariko saiokak eta probak egiten zituen haiekin, ahalik eta modurik mingarrienean iraintzen zituen —[noiz] berak zuzenean, noiz ikaskideen bitartez—, baina, hori guztia bereganaturik, are zuhurrago bilakatzen ziren. Gutxi burutu zuten ikastaro hura, baina gutxi haiek gazte irmoak ziren, zernahitarako jende kementsua. Zerbitzuan, tinko irauten zuten lekurik labainenetan ere, eta haiek baino askoz ere jakitsuagoak baina eraman gutxiagokoak ziren beste askok, aldiz, bertan behera uzten zuten zerbitzua eragozpenik ñimiñoena aurkitu bezain laster, bertan behera uzten zuten dena, edo, ezertaz arduratu gabe, alproja eta ustelen eskuetan erortzen ziren. Baina Aleksandr [Petrovitxek] hezitakoek, gizakiaren eta arimaren ezagutzak zentzudun bihurturik, alda-

rorik ez egiteaz gain, eragin moral handia izaten zuten funtzionariarik ustelengan eta makurrengan ere.

Baina Andrei Ivanovitx dohakabeak ez zuen lortu ikasketa haiek dastatzea. Ikaslerik onenetako gisa goi-mailako ikastaroan onartua izateko ohorea izan bezain laster, ezbeharrak gertatu zen: ustekabean hil zen onespenezko hitz bakoitzarekin halako zirrarak gozo bat eragiten zion irakasle ohiz kanpoko hura. Dena aldatu zen ikastetxean: Fiodor Ivanovitx izeneko batek bete zuen Aleksandr Petrovitxen tokia; gizon ona eta saiatua zen, baina guztiz bestelakoa zuen gauza guztiei buruzko ikusmoldea. Lasaikeriatzat hartu zuen lehen mailako haurren askatasun trabarik gabea. Kanpoko arau batzuk sartzen hasi zen haien artean; une orotan isilik eta lasai egoteko eta gehienez ere binaka ibiltzeko eskatzen zion gazte-jendeari. Bikote batetik bestera uzten zuten tartea neurtzen ere hasi zen. Hobeto ikusteko, adimenaren arabera barik goibehearen arabera eserarazten zituen ikasleak mahaira, halako moldez, ezen adimen laburrekoei puskarik onenak egokitzen baitzitzaizkien, eta buruar-

giei, aldiz, hondarrak. Arrangura eragin zuen horrek guztiak, batez ere zuzendari berriak jakinarazi zuenean —bere aurrekoari kontra egin nahi balio bezala— adimenak eta ikasketetako emaitza onek ez zutela inolako garrantzirik berarentzat eta jokaera soilik hartzen zuela kontuan, eta, norbait txarto ikasi baina ondo gobernatzen bazen, nahiago zuela hura ikasle buruargia baino. Hala ere, Fiodor Ivanovitxek ez zituen bere helburuak erdietsi. Ikasleek, harrezkeroztik, ezkutuan egiten zituzten bihurrikeriak, eta, jakina denez, agerikoak baino okerragoak izaten dira horiek. Egunez zintzo-zintzo ibiltzen ziren denak, baina gauzez sekulako parrandak antolatzen zituzten.

Ikasgaiak irakasteko moduari zegokionez, buru-buztanik gabeko nahastea ekarri zuen zuzendari berriak. Asmorik onenarekin, askotariko ikasgai berriak sartu zituen, desgaraian sartu ere. Irakasle berriak hartu zituen, ikuspuntu berriekin eta iritzi berriekin. Maisutasun handiz irakasten zuten, hitz eta termino berri ugari jaurtitzen zizkieten ikasleei. Nabariak zituzten arrazoibideen logika eta aurkikuntza berrien aldera-

ko mirespena, baina ai!, bizitasun guztia kentzen zioten zientziari. Ikasleak haien irakaspenak ulertzen hasi orduko, hilik agertzen zitzaien dena begien aurrean. Espero zenaz bestera gertatu zen dena. Baina txarrena izan zen ikasleek agintarien eta boterearen alderako begirunea galdu zutela: barre egiten hasi ziren irakasleen eta maisuen lepotik; Fedka, Bulkoi eta bestelako gaitzizenak jarri zizkioten zuzendariari; hain gauza larriak gertatu ziren, ezen ikasle asko egotzi behar izan baitzituzten ikastetxetik.

Andrei Ivanovitx baketsua zen. Ez zuen parte hartzen gaueko orgietan, zeinetara ikaskideek, zuzendariak zorrotz zaintzen bazituen ere, zortzi lagunentzako maitale bat eraman ohi baitzuten, ez eta bestelako okerkerietan ere, zeinetan sakrilejioraino iritsi eta iseka egiten baitzuten erlijioaz beraz ere, zergatik eta, soil-soilik, zuzendariak elizara sarritan joatera behartzen zituelako eta apaiz txarra suertatu zitzaielako. Baina bera kikildu egin zen. Handinahia indar handiz esnatua zen haren baitan, baina ez zuen non jardun, non hazi eta garatu. Hobe zukeen esnatu ez balitzaio! Eskolak ematean hain kar-

tsuki mintzatzen ziren maisu berri haiei entzun, eta gogora etortzen zitzaion lehengo irakaslea, zeinak, batere berotu gabe, modu ulergarrian hitz egiten baitzekien. Kimika ikasi zuen, eta filosofia, eta zuzenbidea; politika-zientziei buruz irakasleek emaniko azalpen sakon eta zehatzak aditu zituen; gizadiaren historia unibertsala ere irakatsi zioten, hain ikuspegi zabalez, ezen irakasleak hiru urte behar izan baitzituen Alemaniako hiri batzuetako gizartearen garapenari buruzko atariko argibideak emateko. Baina zati itxuragabeak bailiran geratu zitzaion hori guztia buruan. Berezko buruargitasunari esker, susmatzen zuen ez zela horrela irakatsi behar, baina ez zekien zein zen irakasbide zuzena. Sarritan oroitzen zen Aleksandr Petrovitxez, eta hainbesteraingo tristatzen zen, ezen ez baitzuen aurkitzen tristuraren zama arintzeko biderik.

Baina gazteek badute etorkizunik. Ikasketak amaitzeko garaia hurbiltzen zen neurrian, lastertu egiten zitzaizkion bihotz-taupadak. Bere artean esaten zuen: «Hau ez duk bizitza, hau bizitzarako prestakuntza besterik ez duk: zerbitzuan zegok benetako bizitza. Hortxe emango

ditiat neure onenak». Eta, gonbidatu-bisitari guztiak liluraturik uzten zituen bazter zoragarriari begiratu ere egin gabe, gurasoen gorpuzkiei agurrik egin gabe, Petersburgera joan zen, handinahi guztiek ohi duten bezala, zeren, jakina denez, hara jotzen dute gure gazte sutsuek Ruseko bazter guztietatik, hara oldartzen dira, Estatuaren zerbitzuan lan egitera, gizartean nabarmentzera, baten edo besteren mesedeak lortzera edo, besterik gabe, han ikasten den itxurazko gizalege engainagarri, kolorge eta izotza baino hotzagoaren puska batzuk eskuratze-
ra. Hala ere, Andrei Ivanovitxen asmo askonahikoak hasieratik bertatik zapuztu zituen osabak, Onufrii Ivanovitx estatu-kontseilariak. Oharrarazi zion kaligrafia zela garrantzitsuena, ez besterik, eta hori gabe ez zegoela ministro edo estatu-kontseilari izatera iristerik, eta Tentetnikovek gutun bat idatzi zien guztiei, zeinari buruz esan baitzuten: «Piztia baten atzaparrak idatzi du hau, ez gizakibaten eskuak».

Neke handiz eta osabaren laguntzari esker, bi hilabete kaligrafia ikasten aritu ondoren, lana aurkitu zuen azkenean Estatuaren bulego

batean, kopiatzaile gisa. Lehen egunean, gela argitsu batera eraman zuten, nonahi ikusi zituen han eskribauak, idazmahai bernizatuen aurrean eseririk, idazlumekin zarata ateratzen eta burua alde batera okerturik; bera ere eserarazirik, bertantxe eskatu zioten idazki bat kopia zezala, eta sentimendu bitxi eta berezi bat sumatu zuen orduan bere baitan. Une batez iruditu zitzaion haur txikientzako eskola batean zegoela, alfabetoa berriz ikasteko, eta, okerren bat egin zuelako-edo, goiko maila batetik beheko batera aldatu zutela. Irakasleen antza hartu zien inguruan eseririk zeuzkan gizon haiei. Haietako batzuk eleberriak irakurtzen ari ziren, liburua ondo ezkutaturik xede horretarako berariaz aukeraturiko txosten bateko orri handien artean; txostena aztertzen ari zirelako itxurak egiten zituzten, eta dardaraka hasten ziren nagusia azaltzen zen bakoitzean. Bat-batean, gogora etorri zitzaion bere eskola-garaia, ezinbestez betiko galduriko paradisia bailitzan. Kopiatzaileen zeregin hutsalarekin alderaturik, goi-goikoa begitandu zitzaion irakasleen eginkizuna. Zerbitzua bera baino goratsuago iritzi zion zerbitzurako prestalanari.

Eta, bat-batean, haren pentsamenduetan agertu zen, bizirik balego bezala, Aleksandr Petrovitx, inola ere aldatuko ez zukeen maisu miragarri eta paregabe hura, eta ibaika isuri zituen malkoak bi begietatik. Jira-biraka hasi zitzaion gela, zanbuka mahaiak, aldaroka funtzionarioak, eta kordea galtzeko zorian egon zen lipar batez. «Ez — esan zuen bere artean, senera etorririk—, nahiz eta hasieran hutsal iritzi, lanari ekingo zioat!» Gogoz bestera bazen ere, adorea bildu, eta gainerako guztiek bezala zerbitzatzea erabaki zuen.

Non ez da plazerrik? Petersburgen ere badi-ra, hiriak itxura latz eta goibela izan arren. Hogeita hamahiru graduko hotz gogorra dago kalean, bisutsak orro egiten du deabru amorratu baten antzera, oinezkoek burua babesten dute beroki eta longainen idunekoarekin, izoztu egiten dira gizonen biboteak eta abereen muturrak, baina abegitsu distiratzten du leiho txiki batek hor goian, etxebizitza bateko laugarren solairuan; gela atsegin eta epel batean, gantzeko kandela xume baten argitan, samovarraren marmarra lagun, bihotza eta arima berotzen ditu solas gozo batek, Jainkoak Errusiari eman diz-

kion poeta goiargitu horietako baten orri gogoangarriak irakurtzen dira, eta gazteen bihotzak beste edozein lurraldetan baino sutsuago, Hegoaldeko zero zoragarriaren azpian baino adoretuago pilpiratzen dira hor.

Tentetnikov laster ohitu zen zerbitzura, baina, hasieran uste izan zuenaz bestera, ez zuen hartu bere zeregin eta helburu nagusitzat, bigarren mailako jardueratzat baizik. Denbora sailkatzeko balio izan zion, aisialdiko minutuak gehiago prezatzen lagundu zion. Osaba estatukontseilaria pentsatzen hasita zegoen ilobak atarramendu ona aterako zuela, baina ilobak huts egin zuen ustekabean. Esan beharra dago Andrei Ivanovitxen adiskideetako bi jendeak erretxinak deritzen horietakoak zirela. Oso bereziak ziren, eta izugarri urduriak: ezin zuten eza-xolatuki jasan ezein bidegabekeria edo, areago, haiek bidegabekeriatzat jotzen zuten ezein egingiza. Onak izaten ziren hasieran, beren jokabidean ez zuten inolako araurik, baina besteei ez zieten hutsegiterik txikiena ere barkatzen. Haien hizkera sutsuak eta haserre itxuraz zintzoak eragin handia izan zuten Tentetnikovengan. Minbe-

ra eta suminkor bihurtu zuten, eta lehen aintzat hartzen ez zituen huskeria guztiei errepararazi zioten. Goizetik gauera, begitan hartu zuen Fiodor Fiodorovitx Lenitsin, beraren bulegoko burua, nahiz eta itxuraz ezin atseginagoa zen. Ezin konta ahal akats aurkitzen hasi zen haren gan, eta gorroto hartu zion, zergatik eta iruditu zitzaiolako ezti gehiegi jartzen zuela aurpegian goikoekin hitz egiten zuenean, baina ozpina besterik ez mendekoekin mintzatzen zenean. «Bar-katuko nioke —esaten zuen Tentetnikovek—, aurpegiera hain agudo aldatuko ez balu. Baina aldi berean ikusi dizkiot nik ezta eta ozpina!» Begi zorrotzez zelatatu zuen handik aurrera. Iru-ditzen zitzaion Fiodor Fiodorovitx buruiritziegia zela, eta agintari xeheen ohitura guztiak zituela, hala nola gogoan hartzea jaiegunetan zorionak ematera joaten ez zitzaizkion guztien izenak eta, areago, atezainaren zerrendan agertzen ez ziren guztiez mendekatzea; gainera, hala onek nola gaiztoek izaten dituzten ezaugarri bekatuzko horietako askoren jabe ere bazela iruditzen zitzaion. Nazka neurotikoa hartu zion. Fiodor Fio-dorovitxi zerbait gogaikarria egiteko gogo gaiz-

toa sumatzen zuen. Halako atsegin berezi batez, luzaz ibili zen horretarako abagunearen bila, eta aurkitu zuen. Halako batean, hain garratz hitz egin zion, ezen nagusiek bi aukera eman baitzizkioten: barkamena eskatzea edo zerbitzua uztea. Dimisioa aurkeztu zuen. Osaba estatu-kontseilariak berarengana jo zuen erreguka eta izuturik.

— Kristoren izenean, Andrei Ivanovitx! Zer egin duk, gero! Zerbitzuan hain bide onetik hasi, eta bertan behera utzi hire gustukoa ez den nagusi bat egokitu zaihalako... Horrelakorik! Denek hire antzera jokatuko balute, ez lukek inortxo ere geratuko zerbitzuan. Pentsa ezak ondo. Garaiz hago oraindik! Utzi alde batera harrotasuna eta heure buruarenganako estimua eta hoa barkamena eskatzera!

— Kontua ez da hori, osaba —esan zuen ilobak—. Niretzat ez litzateke zaila izango barkamena eskatzea, batez ere kontuan izanik erruduna naizela. Nire nagusia da, eta inondik ere ez nion horrela hitz egin behar. Kontua zera da: ahaztu egin zaizu nik badudala beste eginkizun bat ere; hirurehun nekazari-arimaren jabe naiz,

etxaldea egoera tamalgarrian dago eta administrazioa eragel hutsa da. Estatuak ezer gutxi galduko du nire ordezkari bat esertzen bada bulegoan, baina galera izugarria izango du hirurehun nekazarik zergak ordaintzen ez badizkiote. Lurjabea naiz, eta hori ez da munta gutxiko lana. Neure esku dudana jendea zaintzeaz, mantentzeaz eta haren zoria hobetzeaz arduratzen banaiz eta Estatuari hirurehun jopuzintzo, edan-urri eta langile aurkezten badizkiot, txarragoa izango al da nire zerbitzua Lenitsinen tankerako nagusi batena baino?

Osaba estatu-kontseilaria aho zabalik geratu zen, harriduraren harriduraz. Ez zuen horrelako hitz-jariorik espero. Apur batean hausnartu, eta honela mintzatu zen:

— Hala eta guztiz ere... hala eta guztiz ere... nolatan biziko haiz hi herrian? Nolako gizartea aurkituko duk mujiken artean? Hemen, dena dela, kalean jeneral batekin edo printze batekin topo egiteko aukera duk. Hemen, nahi baduk, Estatuaren eraikin ederren inguruetan paseatze-ra joan haiteke, Neva ibaia ikustera joan haiteke; herrixkan, ordea, mujikak eta mujiken emazteak

besterik ez duk aurkituko. Zergatik kondenatu heure burua hil artean giro ziztrin horretan bizitzera?

Horrela mintzo zen osaba estatu-kontseilaria. Bere bulegoko bidea beste kalerik ez zuen zapaldu bere bizitza osoan, eta kale horretan ez zegoen Estatuaren eraikin ederrik batere; inoiz ez zen ohartu jeneralik edo printzerik ba ote zen kolean aurkituriko jendearen artean, sekula ez zen gozatu hiriburuetan jendearen lasakeria-egarria asetzen duten jolaskeriez, eta behin ere ez zen antzerkian izan. Gaztearen handinahia kitzikatzeke eta irudimena ernatzeko bakarrik esan zion hori guztia. Baina ez zuen arrakastarik izan: Tentetikovek setatsu eutsi zion bere erabakiari. Bulegoez eta hiriburuaz gogaitzen hasita zegoen. Herrixka, arian-arian, hesirik gabeko babesleku gisa agertzen hasi zitzaion buruan, bere uste eta asmoak gauzatzeko eremu gisa, zeregin onuragarrietarako jardunleku bakar gisa. Elkarriketa hura izan eta bi aste geroago, bere haurtzaroko herriaren inguruetan zegoen. Zenbat oroitzapen etorri zitzaizkion gogora!, nolako indarrez pilpiratu zitzaion bihotza aitaren herrix-

katik hurbil zegoela sumatu zuenean! Ahazturik zeuzkan hango bazterretako asko, eta ikusminez begiratu zien alderdi zoragarri haiei, lehen aldiz ikusiko balitu bezala. Sakan mehar bat zeharkaturik, askotariko basalandarez oparo jantziriko baso sarri batean sartu zen bidea, eta han ikusi zituen Tentetnikovek, goian eta behean, gainean eta azpian, hirurehun urteko haritzak, hiru giza-seme adinako enbortzarrekin, izei, zumar eta makalekin nahasirik, eta galdetu zuen: «Norena da baso hau?», eta erantzun zioten: «Tentetnikovenak». Bideak, basotik irtenda, aurrera egin zuen belardietan barrena, lertxundi txikien albotik, sahats eta aihen zahar zein gazteen aldamentetik, han urrun mendien tontorrak atzematen zirela, eta, ziztu bizian, behin eta berriro igaro zuen erreka berbera hainbat zubitatik, ura noiz eskuinean eta noiz ezkerrean utziz, eta berriro galdetu zuen orduan Tentetnikovek: «Norenak dira belardi hauek eta lur urperakoi hauek?», eta erantzun zioten: «Tentetnikovenak». Aldapan gora igo, eta mendi-bizkar lauetatik joan zen gero bidea, galsoro, garagardi eta zekale-alor igitatu gabeak alde batean, eta bestean, berriz,

Tentetikovek hainbestetan ibilitako lekuak, bat-batean agerturik han urrun, oso irudi pintagarria osatuz; gero, eguna apurka-apurka ilunduz zihonan bitartean, tapiz berdearen gainean herrixkaraino bertaraino hor-hemen inolako ordenarik gabe sakabanaturik ageri ziren urkila-formako zuhaitz zabalen itzalpean sartu zen, eta tarteka agertzen hasi ziren mujiken izbak eta lurjabeen eraikuntzetako teilatu ederrak; Tentetikovi indar biziz pilpiraka hasi zitzaion bihotza, eta, inori galdetu beharrik gabe nora iritsia zen jakinik, ezin eutsizko jarioan kanporatu zituen etengabe pilatuz joan zitzaizkion sentipen guztiak, hitz hauekin gutxi gorabehera: «Zein ergela izan naizen orain arte! Printzea bainintzan, patuak erabakirik zeukaan Lurreko paradisu honen jabe izan behar nuela, eta nik bulego batean lotu diat neure burua, eskribau! Eskolatua nauk, ondo hezia, buru-jantzia, ezin hobeto prestatuak nagok, gai nauk jendea gobernatzeko, eskualde oso baten egoera hobetzeko, lurjabearen eginkizun guztiak betetzeko, aldi berean epaile, zuzendari eta ordena-zaintzaile jarduteko, eta, hala ere, administratzaile ezjakin baten esku utzi diat

hori guztia, eta paper-kopiatzailea izatea hobetsi, edozein soldaduren seme eskolagabeak askoz hobeto egingo lukeen lan bat aukeratu!». Eta, berriz ere, ergela deitu zion bere buruari Andrei Ivanovitx Tentetnikovek.

Eta, bitartean, beste ikuskizun bat zeukan zain. Nagusi jauna iristear zegoela jakinik, jauretxearen aurrean bildu ziren herrixkako biztanle guztiak. Nonahi ikusten ziren, plaza osoa harturik, sorbalda-oihal ñabarrak, xingolak, buruzapiak, oihal latzezko beroki lodiak eta mota guztietako bizarrak: pala-formakoak, haizemaile-itxurakoak eta mutur-bakarrak, ilegorriak, gartzainkara argiak eta zilarkarak. Mujikek oihuka errepikatzen zuten: «Zure zain geunden, gure ongilea!». Emakumeek ozenki aldarrikatzen zuten: «Urrezkoa, zilarrezkoa duzu bihotza!». Urrun samar zeudenak elkar joka ari ziren, jendetzaren artetik bidea urratu nahirik. Madari ihar baten antzeko atso zahar zimel batek, besteen hanken artean aurrera eginik, Tentetnikovengaino hurbildu, besoak espantuz elkartu, eta garrasika esan zion: «Gure umetxoa, zeinen argal hagoen! Gose handiak pasarazi dizkiate

hiri madarikatu horretan!». «Alde hemendik! —esan zioten oihuka pala-formako, haizemaile-itxurako eta mutur bakarreko bizarrek—. Hago isilik, atso zatar hori!» Soilik mujik errusiarrei barrerik eragiten ez dieten hitz gordin horietako bat erantsi zion baten batek horri. Nagusi jauna, barregurari ezin eutsirik, barre-algaraka hasi zen, baina, nolana ere, halako zirrara bat nabaritu zuen arimaren sakonean. «Zenbaterainoko maitasuna! Zergatik baina? —zioen bere artean—. Inoiz ez ditiat gizon-emakume hauek ikusi, inoiz ez nauk haietaz arduratu. Hitzematen dizuet aurrerantzean zuen lanak eta nekeak nireak ere izango direla! Nire esku dagoen guztia egingo diat zuen alde, barru-barruan erroturik daukazuen ontasun horrek merezi duen bezala lagunduko dizuet, erakusten didazuen maitasun hori zergatikorik gabea izan ez dadin, benetan zuen ongilea izan nadin!»

Eta, izan ere, Tentetnikovek gogotik ekin zion etxaldea gobernatzeari eta zuzentzeari. Bertanxe ikusi zuenez, administratzailea —herriko emakume arrunt bat— ergel hutsa zen eta administratzaile txarren ezaugarri guztiak zituen, hau

da, zehatz-mehatz zenbatzen zituen emakumeek eramaten zizkioten oilarrak, arrautzak, hariak eta ehunak, baina fitsik ere ez zekien haziak ereiteaz eta uzta biltzeaz, eta, gainera, hil nahi zutelako susmoa hartzen zien mujik guztiei. Lanetik egotzi zuen emakume ergel hura, eta administratzaile azkarrago bat hautatu zuen haren ordeaz. Huskeriei jaramonik egin gabe, funtsezko gauzetan jarri zuen arreta, zergak arindu zizkien nekazariei, berarentzat lan egin beharreko egunen kopurua murrizu zien eta, horrenbestez, denbora gehiago eman zien beren probetxurako lan egin zezaten, eta pentsatu zuen ezin hobeto joango zela dena handik aurrera. Esku hartzen zuen lan guztietan, sarritan agertzen zen soroetan, larrain estalietan, azao-idortegietan eta errotetan, eta kaian egoten zen zura garraiatu behar zuten alak eta gabarrak kargatzen zituzten bitartean.

«Nagusia ez da egonean egoten, gero!», hasi ziren esaten mujikak, eta garondoan hatz egiten zuten, herriko emakumeak etxaldea administratu zuen denboraluzean alfer zotz bilakatu ziren eta. Baina egoera horrek ez zuen luze

iraun. Mujik errusiarrak azkarrak eta asmotsuak dira: berehala ohartu ziren nagusia oso ardura-tsua zela eta gauza asko egin nahi zituela, baina ez zuela asmatzen bere xedeak gauzatzeko bidea. Hizkera jasoegia eta bilatuegia erabiltzen zuen, eta ez zuen inolako ahaleginik egiten mujikek uler ziezaioten. Nagusiak eta mujikek ez zuten elkar aditzen, bakoitzak bere soinua jotzen zuen eta ez zuten inoiz lortzen nota berbera ematea. Tentetnikov ohartzen hasi zen bere lurretan mujiken sailetan baino okerrago zihoala dena: lehenago erein, eta beranduago ernetzen ziren haziak. Eta bazirudien ondo lan egiten zutela: bera aurrean izaten zen, eta vodka emateko agintzen zuen, haien kemena saritze aldera. Mujiken alorretan aspaldi burutu zen zekalea, aletu oloa eta hazi artatxikia, eta beraren lurretan, aldiz, artoa garatzen hasi berria zen eta garia hozitu gabe zegoen oraindik. Hitz batean, nagusi jauna jabetzen hasi zen mujikek, onura guztiak gorabehera, ziria sartzen ziotela. Kargu hartzen saiatu zen, baina honela erantzun zioten: «Nolatan pentsa dezakezu, jauna, nagusiaren kaltean jokatzeko dugula? Zuk zeuk ikusi

duzu nolako kemenaz goldatu eta erein dugun: vodka emateko agindu zenuen, gure ardura saritze aldera». Zer erantzun horri? «Orduan, zergatik doa dena hain txarto orain?», galdetu zien nagusiak. «Batek daki! Nonbait, sustraiak jan dituzte harrek, eta begira nolako uda izan dugun: ez du batere euririk egin.» Baina nagusiak ikusten zuen harrek ez zituztela jan mujikek ereindakoaren sustraiak, eta oso modu bitxian egin zuela euria, atalka bezala: mardul-mardul mujiken lurretan eta tantarik ez nagusiaren galsoroetan. Are zailagoa zitzaion emakumeekin ondo konpontzea. Berarentzako lanean ez aritzeko baimena eskatzen zioten txitean-pitean, kexuka, nagusiarri eman beharrekoak zama astunegia zirela esanez. Bai harrigarria! Izan ere, nagusiak indarrik gabe utzi zuen ehunak, baiak, ondoak eta intxaurrak eman beharra, eta erdira murriztu zizkien gainerako lanak, uste baitzuen emakumeek etxeaz arduratzeko, josteko, senarrentzako jantziak egiteko eta baratzeak joritzeko erabiliko zutela denbora. Horrelakorik ez, ordea! Alferkeria, liskarrak, berritsuakeria eta istiluak nagusitu ziren sexu ederrekoen artean,

hainbestearino, ezen mujikek behin eta berriro jotzen baitzuten nagusiarengana, honelakoak esanez: «Jauna, zentzuan sartu emakume mada-rikatu hori! Deabrua da, gero! Ez dago berarekin bakean bizitzerik!». Behin baino gehiagotan, gogoz kontra bazen ere, zorrotz jokatu nahi izan zuen. Baina nolatan izan zorrotza? Emakumeek negar batean jotzen zuten berarengana, itxura ezinago tamalgarria zutela, makaldurik, gaixorik, Jainkoak daki nondik ateratako piltzar zatar eta zikinez jantzirik. «Alde, alde nire begien bistatik, zoaz Jainkoarekin!», esaten zien Tentetnikov dohakabeak, eta gero, hor ikusi behar izaten zuen nola gaixoak, atetik irten bezain laster, arbi bat zela-eta auzolagun batekin liskarrean hasi eta mujik sendo batek baino bortizkiago astintzen zizkion saihetsak. Nekazarietzako eskola-moduko bat antolatzen saiatzea ere bururatu zitzaion, baina hain burugabekeria handia gertatu zen asmo hura, ezen guztiz lur jota geratu baitzen; hobe horrelakorik bururatu ez balitzaio! Horrek guztiak erabat hoztu zion etxaldea gobernatzeko eta epaileei dagozkien auziez arduratzeko karra, baita, bereziki, lanerako gogoia ere. Ia

arretarik jarri gabe ikuskatzen zituen nekazarien zereginak, gogoia urrun eta begiak munta gutxi-ko gauzetan josirik. Belarra ebakitzen zuten bitartean, ez zuten begiratzen igitai ugarien jasaldi lasterre, ezta haien azpian erritmikoki eta hots leuna ateraz erortzen ziren belar-izpiei ere; horren orde, bazterrera begiratzen zuten, erre-karen bihurtune batera, zeinaren ertzean astiro baitzebilan martin mokogorri hankagorri bat — hegazti bat, alegia, ez gizaki bat—; adi begiratzen zuten nola martin horrek zeharka eusten zion mokoan arrain bati —jango zuten ala ez pentsatzen balego bezala— eta erne so egiten zuten aldi berean errekan gora, han urrun beste martin bat ikusten baitzen, oraindik arrainik harrapatu ez zuena baina adi-adi begiratzen ziona jadanik arrain bat harrapatu zuten martinari. Uzta batzen zuten bitartean, ez zuten begiratzen nola pilatzen zituzten azaoak, batzuetan metak edo gurutzeak osatuz eta beste batzuetan, berriz, elkarren gainean nolana jarritz. Metak eta azaoak nagiki edo bizkor egin, axola gutxi berari. Begiak txiloturik eta burua zero zabalerantz jasorik, zelaien urrina ase arte aditzen uzten zion

usaimenari, eta belarriei, berriz, liluratzerraino gozaten abeslari airetarren ahotsez, nonahi entzuten baitziren, hala zeruan nola lurtean, hots bakarreko korua osatuz eta elkarri trabarik egin gabe. Poporroka ari da galeperra, karakaz dabil uroiloa belar artean, txioka burugorriak batera eta bestera hegaz, noranahi hedatzen da hegazabalen txorrotxioa airezko zurubi ikusezinean barrena, bazter batean aditzen da kurrilosaldoen kantua, zilarrezko tronpeta baten soinua berdin-berdina, ozen entzuten dira espazio hutsean kantu horiek guztiak, airezko mortua dardaraziz. Nekazariak harengandik hurbil ari baziren, haiengandik urrun jartzen zuen gogoak; urrun ari baziren, ordea, inguru hurbila arakatzeko zuen begiekin. Ikasle adigabearen antza zuen: liburua dauka begien aurrean, baina ikas-kideek egiten dizkioten imintzioei begira dago. Azkenean, erabat utzi zion lanera joateari, ez zen gehiago arduratu zuzenbideaz eta zigortzeko moduez, bere gelan itxi zen eta uko egiten zion administratzailearen txostenak irakurtzeari ere.

Noizean behin, etxera inguratzen zitzaizkion auzolagunetako batzuk, hala nola bazter guztiak piparen keaz betetzen zizkion *husar*-teniente erretiratu bat, edo brulot-koronel bat, edozein gaiz mintzatzea gogoko zuen hizlari iaioa bera. Baina gogaitzen hasi zen horretaz ere. Mamigabetzat jozen hasi zen solasaldi haiek; nabarmenak eta ozarregiak iruditzen hasi zitzaizkion haien manera bizi eta arinak, belaunetan ematen zizkioten zapladatxoak eta gainerako familiaritasun guztiak. Adiskide haiekikoa haustea erabaki zuen, eta nahikoa zakarki eten zituen harreman haiek. Egun batean, Varvar Nikolaitx Vishnepokromov, brulot-koronel guztien ordezkari nagusia, edozertaz gaingiroki mintzatzea hain gogoko zuen hura bera, politikaz, filosofiaz, literaturaz, moralaz eta are Ingalaterrako finantzen egoeraz hitz eta pitz jarduteko asmoz etxera inguratu zitzaizkiarik, morroi bat bidali zuen esatera ez zegoela etxean, eta bitartean, batere zuhurtasunik gabe, leihoan agertu zen bera. Elkarrekin topo egin zuten bisitariaren eta etxe-ko jaunaren begiradek. Batak, inondik ere, hortz artetik murduskatu zuen: «Astakirtena hala-

koa!»; eta besteak, berriz, zerriak gogorarazten zituen zerbait esan zuen ahapeka. Horrela amaitu ziren haien harremanak. Harrezkeroztik, inork ez zion bisita gehiagorik egin. Bakartasun erabatekoa nagusitu zitzaion etxean. Ez zen inoiz ateratzen, etxeko mantalaz jantzirik egoten zen beti; nagikeriari eman zion gorputza, eta Errusiarri buruzko obra mamitsua prestatzeari, berriz, burua. Irakurleak dagoneko ikusi du nola prestatzen zuen obra hori. Bata bestearen atzetik etorri eta joaten ziren egunak, denak berdinak eta kolore hits berekoak. Nolanahi ere, ezin esan daiteke uneren batean edo bestean loaldi hartatik esnatzen ez zenik. Postariak, aldian behin, egunkariak, aldizkariak eta liburu berriak ekartzen zizkion, eta, haien orrietan aspaldiko lagunen izenak irakurtzen zituenean, ezkutuko tristura isil batek astintzen zion bihotzaren hondoa, ikusirik gora egin zutela Estatuaren zerbitzuko lanean edo beren onenak eman zizkiotela zientziari eta hezkuntza unibertsalari, eta, nahi gabe, bere nagikeriak halako arrangura goibel, isil eta triste bat eragiten zion. Horrelakoetan, nazkagarrri eta arbuigarri irizten zion bere bizitzari.

Ezohiko indarrez berpizten zitzaion gogoan behialako eskola-garaia, eta, bat-batean, begien aurrean ikusten zuen Aleksandr Petrovitx, bizirik balego bezala... Malko mardulak isurtzen zituen orduan, eta negar-zotinka ematen zuen ia egun osoa.

Zer esan nahi zuten negar-zotin haiek? Agerarazten al zuen haien bitartez arima gaixoak bere eritasunaren misterio tristea? Zergatik egingen zuen negar? Arimaren sakonean eratzten hasi zen gizon guztiz bikaina osatu eta sendotu ez zelako? Gaztaroan ezbeharren aurkako borrokan zaildu ez zenez ez zuelako lortu gizartearen goimailetaraino igotzea eta oztopo zein eragozpenetatik indarberriturik ateratzea? Sentimendu prestuen emari oparoa metal berotuaren antzerira urtu zitzaionean ez zuelako azken gozatua hartu eta orain zurrun eta ahul zeukalako nahimena? Ohiz kanpoko irakasle hura goizegi hil zitzaiolako eta orain mundu osoan ez zegoelako inor haren kemen zalantza betierekoek astindua eta malgutasunik gabeko nahimen ahula jasotzeko eta altxatzeko indarra zuenik? Ez zegoelako inor ahots bizi eta ernagarriz «Aurrera!» oihu-

katuko zionik?, errusiarra irrikaz baitago beti hitz bihotz-altxagarri hori entzuteko, edonon eta edonoiz, kargua, titulua eta lanbidea edozein duelarik ere.

Non da errusiarron arimari ama-hizkuntzan «Aurrera!» hitz ahalguztiduna esateko gai izango dena? Non da errusiarron izaeraren sakoneko ahal eta bertute guztiak ezaguturik keinu magiko baten bidez errusiarra goi-bizitzara gidatzeko gai izango dena? Nolako hitzekin, zenbaterainoko maitasunez ordainduko liokeen hori errusiar esker onekoak! Baina mendeak joan, mendeak etorri, lozorro luzean daude milioi erdi nagitzar, artaburu eta gibel-handi, eta Rusen bakanka jaiotzen dira hitz ahalguztidun hori esateko gai diren gizonak.

Nolanahi ere, izan zen gertaera bat Tentetnikov ia esnatu eta haren izaera ia irauli zuena. Maitasunaren antzeko zerbait izan zen, baina ezerezean geratu zen berehala. Inguru haietan, herrixkatik hamar verstara, jeneral bat bizi zen, zeinak, ikusi dugunez, ez baitzuen oso iritzi onik Tentetnikovi buruz. Jeneral hura jeneral guztiak bezala bizi zen, abegi ona egiten zien beti bisita-

riei, eta laket zitzaion auzolagunak gizalegezko diosalak egitera inguratzea; berak, esan gabe doa, ez zituen bisitak itzultzen, ahots erlatsez mintzatzen zen, liburuak irakurtzen zituen, eta bazuen alaba bat, paregabea eta bitxia, emakumea bainoago irudipen fantastikoa ematen zuena. Gizakiak horren antzeko zerbait ikusten du batzuetan ametsetan, eta aurrerantzean alegiazko ikuskari horrekin amets egiten du bere bizitza osoan, errealitatetik bereizten da behin betiko, eta harrezkeroztik ez da ezertarako gauza izaten. Ulinka zeritzon. Heziketa bitxi samarra jaso zuen. Errusieraz hitzik ere ez zekien emakume ingeles batek hezi zuen. Haurra zelarik, ama hil zitzaion. Aitak ez zuen berekin egoteko denborarik izaten. Alaba txoratzearaino maite zuenez, mainatu besterik ez zuen egin. Izugarri zaila da haren potreta pintatzea. Zerbait bizia zen, bizitza bera baino biziagoa. Atsegina zen, polita bainoago; ona, buruargia bainoago; txairoa eta liraina, emakume klasikoak bezala. Ezin esan genezake zein erresumak utzi zuen bere aztarna haren hazpegietan, antzinako kamafeuetan izan ezik nekez aurki baike-

nezake inon harenaren antzeko soslairik edo aurpegirik. Txikitan erabateko askatasunean hezitako haurraren bezala, berarengan dena zen apeta eta nahikeria. Norbaitek ikusiko balu nolako haserre bat-batekoek zimurtzen zizkioten bekokiko izur eratsuak eta nolako suaz liskartzen zen aitarekin, izaki apetatsua zela pentsatuko luke. Baina baten bati bidegabekeriaren bat edo azpikeriaren bat egin ziotela entzuten zuenean soilik sumintzen zen. Hala ere, haserrea berehala iraungitzen zen haserrarazi zuenari ezbeharraren bat gertatzen zitzaiola ikusten bazuen; berehala luzatuko ziokeen bere diru-zorroa, jokabide hori zuhurra ala ergela zen pentsatu gabe, eta, zauriturik egonez gero, bere soinekoa zarrastatuko zukeen lotailuak egiteko! Haren baitan bazen halako suhartasun bat. Hitz egiten zuenean, ematen zuen bera oso-osorik oldartzen zela pentsamenduen atzetik: aurpegiera, eskuen mugimenduak, soinekoaren tolesak, bazirudien norabide berean oldartzen zela dena, eta bera ere hegan ateratzen zela bere hitzekin batera. Ez zuen ezer ezkutukorik. Batere beldurrik gabe agertzen zituen bere iritziak edonoren aurrean,

eta ez zegoen indarrik isilaraz zezakeenik hitz egiteko grina pizten zitzaionean. Xarmagarria zen, berezia, paregabea, haren ibilera hain zen erabakia eta zalua, ezen, nahi gabe ere, bidea egiten baitzioten denek. Gizon gaiztoak aztoratu eta mututu egiten ziren haren aurrean; gizon onak —are herabetienak ere— bizitza osoan inorekin sekula hitz egin ez zuten bezala mintzatu ahal ziren berarekin, eta —uste bitxia!— elkarrizketaren aurreneko minututik iruditzen zitzaien nonbait eta noizbait ezagutu zutela, antzina-antzinako haurtzaroan, aitaren etxean, jai alaitsu batean, ume-tropelaren jolas alaien artean, eta, horren ondotik, gizakia zentzutzen deneko adina gogaikarria iruditzen zitzaien puska luze batean.

Andrei Ivanovitx Tentetnikovek ezin azal zezakeen nola gertatu zen, baina betidanik ezagutzen zuelako irudipena izan zuen lehen egunetik bertatik. Sentimendu berri eta ezin adierazizko bat sortu zitzaion ariman. Haren bizitza gogaikarria argitu egin zen tupustean. Denboraldi batez, erantzi egin zuen etxeko mantala. Ez zen hain luzaz geratzen ohean, nagiak ateratzen; eta

Mikhailo ez zen hain luzaz egoten ate ondoan, konketa eskuan. Ireki egiten zituen gela guztietako leihoak, eta, hain lur zoragarrien jabea izaki, luzaz ibiltzen zen bere lorategiko zoko-bazter ilunetan barrena, eta orduak eta orduak ematen zituen urruneko ikuspegi zoragarriari begira.

Jeneralak nahikoa abegi on eta adeitsua egiten zion hasieran Tentetnikovi; baina ezinezkoa zitzaien elkarrekin guztiz ondo etortzea. Elkarrizketak eztabaidan amaitzen ziren beti, eta halako sentrazio gozakaitz bat geratzen zitzaien biei. Jeneralak ezin zuen eraman inork kontra egitea edo beraren iritziak zalantzan jartzea, baina, bestetik, atsegin zuen inola ere menderatzen ez zituen gaiez hitz egitea. Tentetnikov ere gizon erretxina zen. Hala ere, alaba bitarteko zela, gauza asko barkatzen zizkion aitari, eta haien harremanak baketsuak izan ziren jeneralaren etxera bi senide agertu ziren arte: Boldireva kondesa eta Juziakina printzesa, alarguna bata eta neskazaharra bestea, gorteko ohorezko damak biak garai batean, berritsuak biak, mihi-luzeak biak. Zakar samarrak ziren beren maneretan, baina itzal handiko ezagunak zituzten Petersbur-

gen, eta jeneralak burua makurtzen zuen haien aurrean. Tentetnikovi iruditu zitzaion ezen, haiek iritsi ziren egunetik, jeneralak hotzago jokatzeko zuela berarekin, ez ziola jaramon handirik egiten eta iritzi propiorik gabeko gizona edo bulegoetan paperak kopiatzeko erabiltzen diren funtzionario ziztrin horietakoa bailitzan tratatzen zuela. *Lagun* deitzen zion batzuetan, *adiskide maitea* beste batzuetan, eta *hi* esan zion behin batean. Andrei Ivanovitx bere onetik atera zen; burura bildu zitzaion zainetako odol guztia. Aurpegia amorruez gorriturik eta barrenak irakiten bazeuzkan ere, bere burua menderatu eta, hortzak estuturik, behar adinako odol hotza izan zuen ahots samur eta leunez esateko:

— Eskerrak eman behar dizkizut, jenerala, zure begikotasunarengatik. *Hi* hitza erabiliz, adiskidetasunik estuenerako deia eta gonbita egiten didazu, eta, horrenbestez, *hi* esan behar-ko nizuke nik ere zuri. Baina uztazu oharrarazten zure adinaren eta nirearen artean dagoen aldeak eragotzi egiten dituela horrelako familiartasunak gure harremanetan.

Aztoratu egin zen jenerala. Hitzak eta ideiak lotura argirik gabe eta modu nahasi samarrean josiz, hor hasi zen esaten ez zuela zentzu horretan erabili *hi* hitza, eta batzuetan zaharrek zilegi dutela gazteei *hi* esatea (aipatu ere ez zuen egin haren gizarte-maila).

Esan gabe doa hortxe amaitu zela haien adiskidetasuna, eta amodioa, berriz, sortu eta batera itzali zela. Bat-batean iraungi zen bizitza une batez argitu zion egunsentia, eta horren ondotik are ilunago bilakatu zen ilunabarra. Alferrontziak berriro jantzi zuen etxeko mantala. Etzanda eta egonean egoteari lotu zitzaion berriro. Zikinkeria eta desordena nagusitu ziren etxean. Erratza gelaren erdian egoten zen egun osoa, zaramarekin batera. Galtzak edonon, are egongelan bertan ere. Dibanaren aurreko mahai dotorearen gainean galtza-uhale zikinak ageri ziren, gonbidatuentzako oparia bailiran, eta hain bilakatu zen hutsal eta zabar haren bizimodua, ezen, auzolagun guztiek berarenganako begirunea galtzeaz gain, etxeko oilarrek mokoka eraso baitzioten ia. Orduak eta orduak ematen zituen adarrak, etxetxoak, izbak, telegak eta troikak paperean nagi-

ki marrazten, edo «Jaun agurgarri hori!» behin eta berriro idazten, letra guztiekin eta amaieran harridura-marka ipiniz. Batzuetan, guztiaz ahazturik, berez mugitzen zitzaion luma, berak eragiten ez ziola, eta, marra fin eta zorrotzak eginez, buru txiki bat pintatzen zuen, gorantz jatoriko ile-xerlo arin batekin, orraziaren azpitik ateratzen ziren kizkur mehe luzeekin, beso gazte biluziekin, hegan ari balitz bezala, eta Tentetnikovek harriturik ikusten zuen nola sortzen zen ezein margolarik ezin pinta zezakeen emakume haren potreta. Eta gehiago tristatzen zen orduan, eta, munduan zorionik ez dela sinetsirik, etsia hartuta eta burumakur ematen zuen egun osoa.

Horixe zen, beraz, Andrei Ivanovitx Tentetnikov-en gogo-aldartea, noiz eta egun batean, ohi zuenez pipa eta katilua eskuan leihora hurbildu zelarik, ezohiko mugimenduak eta joan-etorriak atzeman baitzituen patioan. Sukalde-mutila eta garbitzailea lasterka joan ziren gurdi-atea zabal-tzera, eta hiru zaldi agertu ziren gurdi-atean, garaipen-arkuetan zizelatu edo margotzen dituztenen berdin-berdinak: mutur bat eskuinerantz, mutur bat ezkererantz, mutur bat aurrerantz.

Zaldien gagnetik, gida-aulkian eseririk, kotxezaina zetorren, eta haren aldamenean lekaioa, zapi batez loturiko jaka lasai batez jantzirik. Haien atzean, berriz, jauna, kapelua buruan, longaina soinean eta zapi ñabarra lepo inguruan. Kotxeak etxe aurrean hainbat itzulinguru egiten zituen bitartean, argi ikusi zen britxka bat zela, baleztaduna eta arina. Jauna, itxuraz oso gizon gisakoa bera, jauzi batez jaitsi zen kotxetik, militarrek bezain zalu eta bizkor ia.

Beldurtu egin zen Andrei Ivanovitx. Gobernuaren funtzionarioen bat zela uste izan zuen. Esan beharra dago afera burugabe batean nahasirik ibili zela gazte-denboran. Filosofia gogoko zuten *husar* batzuek, ikasketak burutu ez zituen ikasle txar batek eta diru guztia jokoan xahutu zuen jokalaria batek halako elkarte filantropiko bat sortu zuten. Agure bat zuten elkartearen buruzagi goren; alproja hutsa zen, masoia, kartazale amorratua, mozkortia eta ele-ederra. Elkartearen helburu nagusia zen zoriontasun iraunkorra ekartzea gizadi osoari, Tamesi ibaia-
ren ertzetik hasi eta Kamtxatkaraino. Diru asko behar zuten horretarako, eta elkarteko kideek,

oso eskuzabalak izaki, kopuru izugarri handiak eman zituzten. Buruzagi gorenak bakarrik jakin zuen zer gertatu zen dirutza horrekin. Jendeak erretxinak deritzen lagun horietako bik sartu zuten Tentetnikov elkartean. Mutil onak ziren, baina mozkor porrokatuak, zientziari, kulturari eta aurrerabideari eginiko topa ugarien eraginez. Tentetnikov laster jabetu zen egoeraz, eta utzi egin zuen lagunarte hura. Baina ordurako elkarteak denbora izan zuen aitoren semeentzat batere gisakoak ez ziren beste kontu batzuetan ere nahasteko, eta azkenean arazoak izan zituen poliziarekin... Eta, horregatik, elkartea utzi eta gizadiaren ongileekiko lotura guztiak eten bazituen ere, ez da harritzekoa Tentetnikov lasaitasunari eutsi ezinik bizitzea. Kontzientzia ez zitzaion erabat baretu. Eta, halatan, ikaraz begiratu zuen ate aldera, une horretan irekitzen ari baitzen.

Hala ere, izua berehala ezabatu zitzaion bisitariak trebetasun harrigarritz diosal egin zionean, burua apur bat okerturik edukiz puska batean, begirunezko jarreran. Hitz urri baina zehatzak erabiliz jakinarazi zion aspalditik zebilela Erru-

sian barrena, beharrak eta jakin-nahiak akuilaturik; esan zion ezen gure erresuman ezin konta ahal gauza miragarri daudela, lekuen ederra, lanbide ugaritasuna eta mota askotako lurrak kontuan hartu gabe ere; ezen liluraturik utzi zuela beraren herriaren kokapen ezin zoragarriagoak; ezen, herriaren kokapena ezin zoragarriagoa izanik ere, sekula ez zela ausartuko desorduko bisita horrekin enbarazu egiten, baldin eta britxkari arotzaren eskuen laguntza behar zuen zerbait gertatu ez balitzaio; azkenik, aitortu zion ezen, britxkari ezer gertatu ez balitzaio ere, nekez ukatuko ziola bere buruari herrixka hartako lurren jabeari gizalegezko diosalak egitera joateko plazerra.

Solasaldia amaiturik, bisitariak oso modu atsegin eta liluragarrian jo zuen lurra orpoarekin, eta, gorputzaren lodia gorabehera, gomazko pilota bat bezain zalu egin zuen urrats bat atzerantz.

Andrei Ivanovitxek pentsatu zuen irakasle jakintsu ikasnahi bat zela inondik ere, eta bere ikerlanetarako landareak eta are fosilak ere biltzeko asmoz zebilela Errusian barrena. Jakinara-

zi zion prest zegoela edozertan laguntzeko; bere orgagile, arotz eta forjari guztiak eskaini zizkion, britxka konpontzeko; bere etxean balego bezala jokatzeko eskatu zion; Voltaire estiloko [besaulki] handi batean eserarazi zuen hain bisitari adeitsua, eta haren kontakizunak entzuteko prestatu zen, inondik ere jakintza-gaiei eta natur zientziei buruzkoak izango baitziren.

Bisitariak, hala ere, gizakiaren barneko munduarekin zerikusia zuten hainbat gairi buruz hitz egin zuen nagusiki. Zoriaren gorabeheraz mintzatu zen aurrena; itsaso zakarraren erdian haizeak alde guztietatik astinduriko ontziarekin alderatu zuen bere bizitza; esan zion sarritan aldatu behar izan zuela bizilekuz eta lanbidez, asko sofritu zuela justiziaren zerbitzuan aritzeagatik, etsai asko zituela eta bizia kentzen saiatu zirela behin baino gehiagotan; beste gauza asko ere kontatu zizkion, eta Tentetnikov, hori guztia entzunik, oroz gaindi gizon praktikoa zela konturatu zen. Azkenean, batistazko sudur-zapi bat atera, eta Andrei Ivanovitxek sekula inori entzun zion baino ozenago zintz egin zuen. Batzuetan, tronpeta zahar bat egokitzen da orkestran, eta

jotzen dutenean ateratzen duen karranka orkes-
tran bainoago noberaren belarrian bertan entzu-
ten dela ematen du. Bada, horrelakoxeko hots
batek burrunbatu zuen etxe lokartuko gela esna-
razietan, eta, horren ondo-ondotik, batistazko
sudur-zapiari emaniko astindu arinek kolonia-
uraren lurrina zabaldu zuten etxe osoan.

Beharbada, irakurleak honezkero igarri du
bisitaria nor eta gure Pavel Ivanovitx Txitxikov
agurgarria zela, zeina bazter utzirik izan baitugu
aspaldion. Apur bat zaharturik zegoen: ikusi
dugunez, estualdi eta kezka ugari izan zituen
azken boladan. Bazirudien fraka bera ere apur
bat zaharkiturik zegoela, eta britxka, kotxezaina,
lekaioa, zaldiak eta zaldi-tresnak, berriz, higatu-
rik eta andeuririk. Bazirudien haren finantzak
ere ez zeudela oso egoera irrikagarrian. Aurpe-
giera, gisakotasuna eta manerak, ordea, lehen-
go berak zituen. Haren jokabidea eta hizkera
lehen baino atseginagoak ziren, lehen baino
liraintasun handiagoz tolesten zituen hankak
besaulkietan esertzen zenean; lehen baino
samurrago ebakitzen zituen hitzak, neurritasun
zuhurragoa erakusten zuen berbetan eta esa-

moldeetan, lasaitasun handiagoz gobernatzen zen eta tentu handiagoa jartzen zuen gauza guztietan. Elurra baino zuriago eta garbiago zeuzkan idunekoa eta paparrekoa, eta, bidaia luzea egin bazuen ere, hauts-izpirik ere ez zeukan frakean; gala-bazkari batera joateko moduan zegoen! Hain zeuzkan leun eta ilegabe masailak eta kokotsa, ezen itsua izan beharra baitzegoen haien mardultasuna eta biribiltasuna ez mireste-ko.

Itxuraldatu egin zen etxea. Haren erdia, leihotapa guztiak iltzez josita zeuzkala ordu arte itsuturik egon baitzen, ikusmena berreskuratu eta argitu egin zen bat-batean. Puskak ateratzen hasi ziren britxkatik. Apurka-apurka, gauza bakoitzak bere lekua hartu zuen gela argitu berrietan, eta handik gutxira honelako itxura zuen etxeak: lotokitzat eman zioten gelan, gaueko garbiketarako premiazkoak ziren gauzak ipini zituzten; bulegotzat eman zioten gelan, berriz... Baina aurrena jakin beharra dago gela horretan hiru mahai zeudela: idazmahaia, dibanaren aurrean; joko-mahaia, leihoen artean hormaren ondoan; zoko-mahaia, logelako ateak eta altzari

herrenez beteriko gela huts batera ematen zuen atearak osaturiko angeluan. Maletatik ateratako jantziak jarri zituzten zoko-mahai horren gainean, honako hauek hain zuzen ere: frakarekin batera janzteko galtzak, jakarekin batera janzteko galtzak, galtza grisak, txalekoak —belusezko bi eta satenezko bi—, longaina eta bi frak. (Kotoizko txaleko zuria eta udako galtzak komodan gorde zituzten arropa zuriarekin batera). Bata bestearen gainean ipini zituzten janzki horiek guztiak, piramide bat osatuz, eta sedazko sudur-zapi batez estali zituzten. Beste zoko batean, atearen eta leihoaren artean, lerro-lerro ipini zituzten oinetakoak: bota ez guztiz berriak, bota berri-berriak, oinbularreko berriekiko botak eta txarolezko bota laburrak. Haiek ere, ahalke onez, sedazko sudur-zapi batez estali zituzten, halako moldez, ezen bai baitzirudien han ez zegoela ezer. Bi leihoen aurreko mahaian kutxa jarri zuten. Dibanaren aurreko idazmahaian, berriz, paper-zorroa, kolonia-uraren ontzia, lakrea, hortzetako eskuila, egutegi berria eta bi eleberriren bigarren tomoak. Arropa zuri garbia logelako komodan gorde zuten; garbitu beharre-

koa, aldiz, ohe azpian sartu zuten, bilgo bat eginik. Maleta ere, hustutakoan, ohe azpian sartu zuten. Sablea ere logelan jarri zuten, iltze bate-tik esekerik ohearen alboan. Ezohiko itxura txukun eta garbia hartu zuten bi gela haiek. Ez zen inon ageri paper-puskarik, luma-muturrik edo hauts-izpirik. Bazirudien airea bera ere araztu egin zela. Arropa zuria higatzen ez duen, bainuetxera joan ohi den eta igandeetan gorputza belaki heze batez igurtzitzen duen gizon garbi eta osasuntsuaren usaina nagusitu zen airean. Petrushka lekaioaren hatsa bebarruaz jabetzen ahalegindu zen puska batean, baina laster aldatu zuten Petrushka sukaldera, zegokion bezala.

Andrei Ivanovitx beldurrak egon zen aurreneko egunetan, uste baitzuen burujabetasuna galduko zuela, gonbidatuak nola edo hala lotuko zuela, ohiko bizimodua eragotziko ziola edonolako aldaketak ekarriz, eta goitik behera irauliko ziola bere egunerokotasun hain ondo antolatua, baina funsgabeak gertatu ziren goganbehar haiek guztiak. Edozertara jartzeko malgutasun harrigarria erakutsi zuen gure Pavel Ivanovitxek. Ontzat eman zuen etxeko jaunaren patxada filo-

sofikoa, hari esker ehun urte biziko zela esanez. Sutsuki goretsi zuen bakartasuna, gizabanakoaren pentsamendurik goitsuena elikatzen dituela adieraziz. Liburutegiari begiratu bat eman, eta laudoriozko hitzekin mintzatu zen liburuei buruz orokorrean, gizabanakoa laxotasunetik salbatzen dutela oharraraziz. Hitz batean, hitz gutxi esan zituen, baina mamitsuak. Are tentu handiagoa agertu zuen bere jokabidean. Une egokian azaltzen zen, eta une egokian alde egiten; etxe-ko nagusiak hizketarako gogorik ez zuenetan, ez zion ezereen galderik egiten, ez artegatzearren; atseginez aritzen zen xake-jokoan berarekin, eta, orobat, atseginez egoten zen isilik. Batak piparen kea hodeitxo kizkurrak eratuz jaregiten zuelarik, besteak, ez baitzuen piparik erretzen, bitarte horretarako egokiak ziren denbora-pasako jolasak asmatzen zituen: esaterako, zilarrezko toxa nielatua sakelatik atera, eta, ezkerreko hatz biren artean eusten ziola, azkar birarazten zuen eskuineko hatz batez, Lurraren esfera ardatzaren inguruan jira-biraka aritzen den bezala, edo, besterik gabe, tarrapatekoa jotzen zuen atzamarrekin toxa gainean, doinuren bat txistu-

katzen zuen bitartean. Hitz batean, ez zion inolako enbarazurik egiten etxeko nagusiari. «Aurreneko aldiz ikusten diat gizabanako bat zeinarekin bizi ahal den —esaten zuen Tentetnikovek bere artean—. Gure erresuman inor gutxik dik trebetasun hori. Ugariak dituk hemen gizon-emakume buruargiak, ikasiak eta onak; baina jende beti atsegina, beti neurritsua, etsaitu gabe bizitza osoan bizilagun izan daitekeen jendea, ordea, ... ez zekiat gure artean horrelako askorik aurkitzerik dagoen! Hauxe duk nik ikusi dudan lehena eta bakarra!» Horixe pentsatzen zuen Tentetnikovek bere gonbidatuaz.

Txitxikov, bere aldetik, oso pozik zegoen, aldi baterako hain jaun baketsu eta lasaiaren etxean ostatu hartu zuelako. Gogaiturik zegoen ijito-bizimoduaz. Hilabete batez besterik ez bazen ere, zelai zabalez inguraturik eta udaberria esnatzen hasia zela hain herrixka ederrean atsedean hartzea onuragarria zen are odoluzkientzat ere. Nekez aurkituko zuen atsedeenleku hoberik. Udaberriak edertasun paregabez jantziak zituen hango bazterrak. Zeinen distira biziak zelaien berdetasunean! Nolako freskotasuna airean!

Zein txori-kantu ederrak lorategietan! Nolako alaitasuna nonahi! Paradisua ematen zuen! Algaraka eta zalapartaka aritzen zen herrixka osoa, jaio berria bailitzan.

Txitxikovek txango ugari egiten zituen inguru haietan barrena. Mendi-bizkar lauetan ibiltzen zen, eta bere zabaltasun osoan ikusten zuen handik beheko harana, zeinean aintzira handiak geratzen baitziren oraindik, uholdeen ondorio; edo mendiarteetan sartzen zen, non zuhaitzak, txorien habiek zamaturik, hostoz janzten hasi berriak baitziren, non gorgarriro entzuten baitziren beleen krazkak, belatxingen marrakak eta ipar-beleen karrankak, txori haiek guztiak airean gurutzatzen zirela, zerua ilunduz; edo behera jaisten zen, urek azpian harturiko alderdietara eta presa gaineztuetara, eta han geratzen zen ikusten nola urak, lasterka bizian eta zarata sorgarria ateraz, errotarriei eragiten zien; edo urrunago joaten zen, kairaino, nondik, ur lasterrak eramanez, lehen gabarrak ibaian behera abiatzen baitziren, ilarrez, oloz, garagarrez eta galzuriz zamaturik; edo soroetara inguratzen zen, udaberriko lehen lanak ikustera, esaterako: nola

lur irauli berriaren ildo beltzak alorrak zeharkatzen zituen, edo nola ereile trebeak haziak eskuahurrean hartu eta zehaztasun harrigarritz barreiatzen zituen, mugimendu beti-berdinez, hazi bakoitza zegokion tokian eta ez beste inon erortzen zela. Solasean aritzen zen administrazioailearekin, mujikekin eta errotariekin, eta galdetzen zien zer eta nola ereiten zuten, nolako uzta espero zuten, nola lantzen zuten lurra, zenbatean saltzen zuten garia, zenbateko laka jasotzen zuten udaberrian eta udazkenean eho-lanarengatik, nola zeritzon mujik bakoitzari, nor ziren bakoitzaren senideak, non erosten zituzten behiak, zerez bazkatzen zituzten zerriak..., hitz batean, dena galdetzen zien. Zenbat mujik hil ziren ere jakin zuen. Banaka batzuk soilik. Gizon argia zenez, berehala ohartu zen Andrei Ivanovitxen etxaldea txarto zihoala. Zabarkeria, ardura-gebekeria, lapurreria eta mozkorkeria ziren han nagusi. Eta bere artean esaten zuen: «Alajaina, bai astakirtena Tentetnikov! Urtean gutxienez berrogeita hamar mila errubloko etekina eman zezakeen etxalde baten jabe izan, eta batere zaindu ez!». Eta, hain haserre bidezkoari bar-

nean eusteko indarririk gabe, errepikatzen zuen: «Astakirtena galanta, bai horixe!». Ibilaldi haie-
tan, behin baino gehiagotan amesten zuen ezen, egunen batean —ez orain, jakina, ezpada geroa-
go, bere zeregin nagusia burutu eta premiazko baliabideak eskuratzen zituenean—, hura beza-
lako etxalde baten jabe baketsua izango zela bera ere. Horrelakoetan, ugazabandre gazte bat irudikatu ohi zuen, lerdena, azalmintz zurikoa eta bizia, merkatari-familia batekoa beharbada, baina ikasia eta aitoren alaba baten antzera hezia musika ere ulertzeko, nahiz eta, jakina, musika ez zen garrantzitsuena, baina, ohiturek hala agintzen zutenez, zergatik joan uste orokor-
raren aurka? Txitxikov abizenari iraurarazi behar zion belaunaldi gaztea ere irudikatzen zuen: seme erne bat eta alaba polit bat, edo bi mutiko, edo bi eta are hiru neskatila ere, sorteriaren lotsagarri ez izateko, jende guztiak jakin zezan benetan existitu eta bizi izan zela, ez zela mamu edo itzal baten gisa igaro mundu honeta-
tik. Orobat, pentsatzen zuen ez letorkiokeela batere txarto gizarte-maila gorago bat jasotzea: estatu-kontseilaria, esaterako, itzal eta ospe

handiko maila baita hori... Eta beste amets asko ere etortzen zitzaizkion burura, sarritan gizakia kilikatu, zirikatu, inarrosi eta unean uneko errealitate aspergarririk ateratzen duten horietakoak, sekula gauzatuko ez diren ziurtasuna badu ere gizabanakoari hain atsegingarriak gertatzen zaizkion horietakoak.

Gustatu egin zitzaien herrixka Pavel Ivanovitxen zerbitzariei ere. Nagusiak bezalaxe, aise etsi zuten bizileku berrian. Petrushka laster asko konpondu zen Grigorirekin —janaritegiak arduratzen zen morroiarekin, alegia—, nahiz eta hasieran ezin jasanezko moduan zirikatu zuten elkar, zein baino zein harroputzago agertuz bestearen aurrean. Grigori txunditu nahirik, Petrushkak esan zion Kostroman, Jaroslavl-en, Nijnin eta are Moskun ere izana zela, eta Grigorik harrokeria apaldu zion hitzetik hortzera, Petersburg aipatuz, Petrushka ez baitzen sekula han izan. Norgehiagoka, Petrushkak jakinarazi zion bera izaniko lekuak izugarri urrun zeudela, baina Grigorik brastakoan aipatu zion ezein mapatan ezin aurki zitekeen leku bat, gutxienez hogeita hamar mila verstara zegoena, eta Petrushka, nahasirik eta

ahoa zabal-zabalik, barregarri geratu zen neska-me-morroi guztien aurrean. Baina, kontuak kontu, lagun minak egin ziren azkenean: osaba Pimen burusoilak «Akulka» izeneko taberna ospetsu bat gobernatzen zuen herriaren amaieran; hantxe aurkitzen zituzten biak eguneko edozein ordutan. Han bilakatu ziren adiskide, edo, herri xeheak dioenez, tabernako bezero leial

Beste amu batek erakarri zuen Selifan. Herriko neska-mutilek udaberriko kantak eta dantzak abestu eta dantzatu ohi zituzten arratsero, biribilean jarririk. Lirainak eta sasoi ederrekoak ziren hango neskak, haien parekorik beste inon nekez aurkitzeko modukoak, eta Selifanek orduak ematen zituen haiei begira, leloturik. Zaila zatekeen esatea zein zen guztietan ederrena: zuria zuten denek bularraldea, zuria lepoa, handiak begiak, ilauna begirada, harroa ibilera eta gerrirainokoa txirikorda. Selifanek berak ezin azal zezakeen zer gertatzen zitzaion barnean neskekin batera biribilean poliki mugitzen zenean, bi eskuekin haien esku zuriak harturik zeuzkala, edo gainerako mutilekin lerrokaturik nesken ilararantz hurbiltzen zenean, eta sua bezalako arrats

gorrixka itzali, inguru osoa arian-arian ilundu, eta han urrun, erreka bestaldean, doinu beti tristearen oihartzun berdina entzuten zenean. Horren ondotik, luzaz, esna zein ametsetan, goizean zein iluntzean, iruditzen zitzaion neska haien esku zuriei oraturik zegoela eta haiekin batera dantzan ari zela biribilean. Eskuari eragin, eta esaten zuen: «Neskatila malapartatuak!».

Txitxikoven zaldiei ere gustatu zitzaaien bizitegi berria. Bai troikaren erdiko zaldi zuri-horixkari, bai ezkerreko laguntza-zaldi gaztainkara argiari —*Kontseilari* zeritzonari, alegia—, eta are eskuineko izpildunari ere —Selifanek «maltzurra» esaten zion horri, hain zuzen—, oso atsegina iruditu zitzaaien Tentetnikoven egoitzako bizitza, izugarri gozoa oloa eta ezin erosoagoa zalditegia. Elkarrengandik banandurik zeuden, tartean hesitxo bana zutela, baina, zorionez, elkar ikusi ahal zuten hesitxoaren gainetik, eta, halatan, baten bati —are urrunenari ere— irrintzika hasteko gogoia pizten bazitzaion, besteek berehala erantzun ahal zioten.

Hitz batean, etxean bezala sentitzen ziren denak han. Beharbada, irakurlea harriturik egon-

go da Txitxikovek artean ez zuelako zorioneko arimen aipamenik egin. Bada, bururatu ere ez zitzaion egin! Pavel Ivanovitx oso zuhur bihurtu zen kontu horri zegokionez. Munduko ergelik ergelenekin tratuan ibiltzea egokituko balitzaio ere, ez lieke tupustean eta besterik gabe horren berririk emango. Nolanahi ere, Tentetnikovek liburuak irakurtzen zituen, filosofatzen zuen, gauza guztien arrazoiak eta zergatikoak azaltzen saiatzen zen beti... «Ez, deabruak daramala! Agian, hobe nitek gaiari beste mutur batetik helduko banio!» Horrela pentsatzen zuen Txitxikovek. Mendekoekin askotan hitz egiten zuenez, haiengandik jakin zuen ezen, garai batean, nagusia sarritan joaten zela handik hurbil bizi zen jeneral baten etxera, jeneralarenean bazela andereño bat, atsegin zitzaiola andereñoa nagusiari, eta orobat nagusia andereñoari... baina gero, ustekabean, istiluren bat gertatu zela-eta, etsaitu eta elkarrengandik bereizi zirela. Bestetik, konturatu zen Andrei Ivanovitxek elkarren antz handia zuten halako burutxo batzuk pintatzen zituela askotan, arkatzez zein lumaz. Egun batean, bazkalostean, ohi bezala hatz batez zila-

rezko toxa ardatzaren inguruan birarazten ari zela, honela mintzatu zen:

— Zuk dena daukazu, Andrei Ivanovitx, gauza bat izan ezik.

— Zer, gero? —galdetu zuen Tentetnikovek, ke-hodeitxo kizkur bat jaregiteaz batera.

— Emaztea —esan zuen Txitxikovek.

Andrei Ivanovitxek ez zuen deus esan. Hortxe amaitu zen elkarrizketa.

Txitxikovek, amore eman gabe, beste abagune bat bilatu zuen, eta, afaltzen hasi baino lehentxeago, honetaz eta hartaz hitz egiten ari zirela, bat-batean esan zuen:

— Egia esan, Andrei Ivanovitx, ezkontzeak ez lizuke batere kalterik egingo.

Tentetnikovek ez entzunarena egin zuen; bazirudien gogaikarri zitzaiola gai hori aipatze hutsa.

Txitxikovek ez zuen amore eman. Hirugarren aldiz, beste abagune bat bilatu zuen, eta afalostean esan zion:

— Izan ere, zure egoera zenbat eta sakonago aztertu, orduan eta argiago ikusten dut ezkondu

beharra daukazula: hipokondrian erortzen ari zara.

Zela Txitxikoven hitz haiek aurrekoak baino limurgarriagoak izan zirelako, zela Andrei Ivanovitxen gogo-aldartea irekitasunerako bereziki gertu zegoelako, kontua da hasperen egin zuela, eta, piparen kea gorantz igorritz, esan: «Edozer-tarako ere, zorte oneko jaio beharra dago, Pavel Ivanovitx». Eta zehatz-mehatz kontatu zion nola egin zuen jeneralaren ezaupidea eta nola hautsi zen haien adiskidetasuna.

Hasi eta buka entzun zuen Txitxikovek gertatutakoaren kontakizuna, eta zor eta lor geratu zen ikusi zuenean *hi* hitz soilak eragin zuela istorio hura. Apur batean Tentetnikovi begietara zorrotz so egin, eta ondorio hau atera zuen: «Ergel hutsa duk!».

— Andrei Ivanovitx, mesedez! —esan zion, bi besoetatik heldurik zeukala—. Hori iraintzat hartzea ere! Nondik nora da iraingarria *hi* hitza?

— Hitza bera ez da iraingarria —esan zuen Tentetnikovek—; hitzari emandako zentzua, hitz hori esateko erabilitako doinua, horixe da iraingarria. *Hik* zera esan nahi du: «Gogoan izan

hutsaren hurrena haizela; inguru honetan hi baino hoberik ez dagoelako bakarrik onartzen haut etxean, baina Juziakina edo beste printzesaren bat etorriz gero, badakik non dagoen hire tokia: kale gorrian». Horra zer esan nahi duen!

Hori zioelarik, Andrei Ivanovitxek, zen bezalako lasaia eta otzana, bi txinpart eginik zeuzkan begiak, eta sentimena mindu dioten gizonaren haserrea atzematen zitzaion ahotsaren doinuan.

— Eta zentzu horretan esan balu ere, zer? Zergatik gaizki hartu? —esan zuen Txitxikovek.

— Nola? —esan zuen Tentetnikovek, begirada Txitxikoven begietan josirik—. Horrelako jokabidearen ondotik, haren etxera joaten jarraituko nuela uste duzu?

— Zein jokabidez ari zara, gero? Hori ez da jokabidea! —esan zuen Txitxikovek.

«Bai gizon bitxia Txitxikov hau!», pentsatu zuen Tentetnikovek bere artean.

«Bai gizon bitxia Tentetnikov hau!», pentsatu zuen Txitxikovek bere artean.

— Ez, hori ez da jokabidea, Andrei Ivanovitx, hori jeneralen ohitura besterik ez da: *hi* esaten diote mundu guztiari. Eta, gainera, merezimedu

ugariko gizon ohoragarri batek ez al du zilegi hori?

— Hori besterik da —esan zuen Tentetnikovek—. Buruiritzia, harroputza eta jenerala izan beharrean, zaharra eta errukarria balitz, onartu egingo nioke *hi* esatea; are gehiago, ohore handitzat hartuko nuke.

«Ergela alaena! —pentsatu zuen Txitxikovek bere kolkorako—. Edozein arloteri, onartu egingo liokek, baina jeneral bati ez!» Eta, gogoeta hori egin ondoren, goraki ihardetsi zion:

— Ondo da; demagun hark irain egin dizula, baina zuk ordaina bihurtu diozu: kito zaudete. Zentzuzkoa iruditzen al zaizu huskeria batengatik betiko etsaitzea! Egundo horrelakorik! Zergatik bertan behera utzi hasi berria den harreman bat? Behin jomuga aukeratuz gero, zuzenean jo behar da hara. Zergatik hartu kontuan inoren erdeinua? Gizakiak beti erdeinatzen du nor edo nor; gaur egun, mundu osoan ez zenuke aurkituko inor erdeinatzen ez duen gizabanakorik.

Hitz horiek entzun zituenean, zer esan ez zekiela geratu zen Tentetnikov; harriduraren harriduraz, Pavel Ivanovitxi begietara so egin,

eta bere artean pentsatu zuen: «Benetan ohiz kanpoko Txixikov hau!».

«Bai gizon xelebrea Tentetnikov hau!», pentsatu zuen Txixikovek bere artean.

— Ondo baderitzozu, saiatuko naiz arazoa konpontzen —esan zuen goraki—. Harengana joan ninteke azaltzera gaizki-ulertu bat izan dela, gaztea zarelako gertatu dela hori, oraindik ez dituzulako ondo ezagutzen jendea eta mundua.

— Ez nago prest haren aurrean burua makurtzeko! —esan zuen Tentetnikovek irmoki.

— Jainkoarren, ez dizut burua makurtzeko eskatzen! —esan zuen Txixikovek, gurutzearen seinalea eginez—. Azalpenak eman nahi ditut, bitartekari zentzudun gisa, inori burua makurrazteko asmorik gabe... Barkazkidazu, Andrei Ivanovitx, nire asmo onak eta zuri laguntzeko ahalegina, ez nuen uste [nire] hitzak hain zentzu iraingarrian hartuko zenituenik!

— Barkadazu zuk niri, Pavel Ivanovitx, nirea da errua! —esan zion Tentetnikovek, hunkiturik, esker onez bi besoetatik heltzen ziola—. Estimatzon dizut hain laguntza asmo onekoa, benetan!

Baina utz dezagun elkarrizketa hau, hemendik aurrera inoiz ez dugu gai honetaz berriro hitz egingo.

— Orduan, besterik gabe joango naiz jenerallarenera —esan zuen Txitxikovek.

— Zertara? —galdetu zuen Tentetnikovek, harriturik Txitxikovi begira.

— Gizalegezko diosalak egitera —esan zuen Txitxikovek.

«Bai gizon bitxia Txitxikov hau!», pentsatu zuen Tentetnikovek.

«Bai gizon bitxia Tentetnikov hau!», pentsatu zuen Txitxikovek.

— Nire britxka oraindik konpondurik ez dagoenez —esan zuen Txitxikovek—, utziko zenidake zure kalesa erabiltzen? Bihar goizean joango naiz haren etxera, hamarrak aldera.

— Nola ez! Gizon zuzena zara, aukera ezazu nahi duzun zalgurdia. Hemen, zeure eskumenean duzu dena.

Elkar agurtu, eta lotara joan ziren, bestea oso bitxia zela pentsatzen biak.

Biharamunean, zaldiak ekarri zizkiotenean, jauzi batez igo zen Txitxikov kalessara, militarrek

bezain zalu ia, eta, soinean frak berria, gorbata zuria eta txalekoa jantzirik zeuzkala, jeneralari gizalegezko diosalak egitera joan zen, eta gauza zinez harrigarria jazo zen orduan: aspaldian sentitu ez bezalako ezinegona sumatu zuen Tentetikovek ariman. Halako urduritasun larri bat jabetu zen haren pentsamenduen ildo herdoildu eta logaletuaz. Bat-batean, kirioen dardar bizi batek bortizki inarrosi zizkion sentimendu guztiak, ordu arte alferraren nagitasun zabarrean murgildurik eduki baitzituen. Dibanean esertzen zen, leihora hurbiltzen zen, liburu bat hartzen zuen, hausnartzen saiatzen zen —alferrikako saioak!, ez baitzitzaion ideiarik etortzen burura. Ezertan ez pentsatzeko ahaleginak ere egiten zituen: alferrikako ahaleginak!, buruko zoko-bazter guztietan atergabe sortzen baitzitzaizkion pentsamendu-antzeko puska itxuragabe batzuk eta ezin konta ahal oldozpenen muturrak eta buztanak. «Hau egoera bitxia!», esan zuen berekiko, eta, leihora hurbildurik, hariztia zeharkatzen zuen bidera begiratu zuen, eta kalesa gero eta urrunagoak harroturiko hautsa begiztatu zuen bidearen amaieran, artean ez baitzuen

Iurrera jaisteko astirik izan. Baina utz dezagun
Tentetnikov eta goazen Txitxikoven atzetik.

Bigarren kapitulua

Zaldiek ordu erdi baino ez zuten behar izan hamar verstak egiteko, hariztian zehar aurrena, lur irauli berrian berdetzen hasitako galsoroen artetik hurrena, eta uneoro ikuspegia urrunera zabaltzen zuen mendi-kasko batetik gero. Azkenean, alde bietan ezki hostotsuak zituen bide batek jeneralaren herrixkan sartu zuen Txitxikov. Ezkien ondotik makalak agertu ziren, zumezko kutxa bana behealdean babesgarri; bidea burdinurtuzko ate handi batean amaitzen zen, eta atiaz bestaldean jeneralaren etxearen aurrealdea ikusten zen, harrian zizelaturiko edergarri bihurri ugarirekin eta kapitel korintoarreko zortzi zutarritan bermaturik. Olio-pintura freskoaren usaina aditzen zen inguru guztian, behin eta berriro margotzen baitzuten dena, zahartzeko denborarik eman gabe. Patioko zoruak tronadura zirudien, hain zegoen garbi. Txitxikovek, etxe aurrera iritsirik, begirune handiz atarira jauzi egin, eta iritsia zela iragartzeko

agindu zuen, eta zuzenean eraman zuten jeneralaren langelara.

Txunditurik utzi zuen jeneralaren itxura handientsuak. Satenezko mantal gorrimin bat zeukan jantzirik une horretan. Begirada tolesgabea, aurpegi adoretua, belarrondoko bizarrak eta bibote handi ileurdina, ilea larru-arras mozturik garondoan, lepo lodi zabala —hiru maila edo tolesturakoa esaten zaien horietakoa, zeharkako zimur batekin—, baxu-ahots apur bat erlastua, jeneral-mugimenduak. Betristxev jenerala, bekatari guztiok bezala, bertute eta akats ugariz horniturik zegoen. Errusiarrongan gertatu ohi den legez, hala bertuteak nola akatsak oso modu ikusgarrian nahasirik zeuden berarengan. Abnegazioa, bihotz-zabaltasuna une erabakigarrietan, ausardia eta buruargitasuna batetik, eta, horrekin batera, berekoitasuna, handinahia, harrokeria, edozein huskeriarengatik sumintzeko joera eta gizabanako orok berezko dituen beste argalgune horietako asko. Begitan zeuzkan zerbitzuan aurrea hartu zioten guztiak, garratz hitz egiten zuen haiei buruz eta epigrama gaizto eta mingarriak idazten zizkien. Bereziki gorrotatzen

zuen hala adimenari nola gaitasunei zegokienez bera baino beheragokotzat zeukan lagun aspaldiko bat, zeren eta, guztiarekin ere, bera baino gorago iritsi baitzen: bi probintziatako gobernadore militarra zen, eta, hain zuzen ere, nahita egin balute bezala, berak bi probintzia haietan zituen bere lurrak, eta, horrenbestez, lagun aspaldiko haren mendean geratu zen aldez edo moldez. Mendeku gisa, iseka egiten zion ahal zuen guztietan, gogor gaitzesten zituen hark emaniko agindu guztiak eta zentzugabekeriaren mukurua ikusten zuen haren erabaki eta egintza guztietan. Bihotz-handitasuna gorabehera, jeneralak oso gogoko zuen adarra jotzea. Oro har, atsegin zitzaion gauza guztietan lehena izatea, atsegin zitzaizkion lausenguak, atsegin zitzaion nabarmentzea eta orojakin agertzea, atsegin zitzaion beste inork ez zekiena jakitea, eta ez zitzaizkion batere atsegin berak ez zekien zer-bait zekitenak. Neurri handi batean atzerriko ereduaren arabera hezi bazuten ere, atsegin zitzaion jaun errusiarren antzera jokatzeko. Haren nortasuna hain gorabeheratsua izaki, elkarren kontrako ezaugarriak hain ugariak eta nabariak

izaki, atsekabe ugari aurkitu zituen, ezinbestez, zerbitzuan, eta erretiroa hartu zuen haien eraginez, halako etsai-sail bati leporatuz horren errua eta bere burua zerbaiten erruduntzat jotzeko gogo-zabaltasunik gabe. Erretiratutakoan hartu zuen itxura ikusgarri eta handientsu hura. Jakaz, frakez zein mantalez jantzirik, berbera zen beti. Ahotsaren doinutik hasi eta gorputzaren mugimendurik txikieneraino, berarengan denak agertzen zuen agintzera ohiturik dagoen jaun larde-riatsuaren airea, eta horrek begirunea edo, gutxienez, ahalkea sorrarazten zuen mendekoen artean.

Txitxikovek biak sentitu zituen: begirunea eta ahalkea. Adeitasun handiz burua alde baterantz okertu, eta honela hasi zen:

— Jaun agurgarri hori, ezin baztertuzko betebehartzat hartu dut gizalegezko diosalak egitera etortzea. Gudu-zelaian sorterrria salbatu duten gizon bulartsuen alderako begiruneak bultzaturik, ezin baztertuzko betebehartzat hartu dut gizalegezko diosalak egitera etortzea.

Jeneralari, nonbait, gustatu egin zitzaion hasiera hori. Buruarekin oniritzizko keinua egin, eta esan zuen:

— Oso pozten nau zu ezagutzeak. Eser zaitetz, mesedez. Non zerbitzatu duzu?

— Zerbitzuan egin dudan bidea —esan zuen Txitxikovek, besaulkiaren erdian eseri beharrean saiheska jarriz, ukondoa besaulkiaren besoan bermaturik—, jaun agurgarri hori, Estatuaren bulego batean hasi zen; gero, hainbat lekutan zerbitzatu dut: auzitegian, eraikuntza-batzorde batean, aduanan. Olatuen erdian dabilen itsasontziarekin aldera daiteke nire bizitza, jaun agurgarri hori. Jasankortasunean hazi naiz, nolabait esatearren; jasankortasunak hezi nau, jasankortasunak elikatu nau, esan nezake hezurharagizko jasankortasuna bera nauzula. Izugarriak jasan ditut etsaien aldetik, ez dut hitzik edo margorik aurkitzen zenbateraino jasan dudan adierazteko. Orain, bitzitzaren ilunabarrean, nolabait esatearren, nire azken egunak emateko leku baten bila nabil. Oraingo, ostatu hartu dut hemendik hurbil, zure auzolagun baten etxean...

— Norenean?

— Tentetnikovenean, jaun agurgarri hori.
Jeneralak bekozko iluna jarri zuen.

— Damu du, jaun agurgarri hori, zor bezalako
begirunea ez erakutsia...

— Nori?

— Zure merezimenduei, jaun agurgarri hori.
Ez du bere jokabidea zuritzeko hitzik aurkitzen.
Honela esaten du: «Zer edo zer egin ahal izango
banu..., zeren, izan ere, gai naiz sorterrria salba-
tu duten gizonak estimatzeko, benetan».

— Baina zertan dabil, gero? Ez nago haserre
berarekin! —esan zuen jeneralak, samurturik—.
Estimu handitan neukan, zinez, eta ziur nago
gizon baliagarria izango dela egunen batean.

— Zuzen hitz egin duzu, jaun agurgarri hori,
gizon baliagarria da benetan, hitzaren dohaina
du eta trebea da lumarekin.

— Eta zer idazten du? Huskeriak, inondik ere,
poematxoak eta horrelako gauzak, ezta?

— Ez, jaun agurgarri hori, ez du huskeriarik
idazten...

— Zer, orduan?

— Historia idazten ari da, jaun agurgarri hori.

— Historia? Zeren historia?

— Historia...

Isilune bat egin zuen Txitxikovek, eta, zela aurrean jeneral bat zeukalako, zela gaiari garrantzi handiagoa emateko, gaineratu zuen:

— Jeneralen historia, jaun agurgarri hori.

— Jeneralen historia? Nongo jeneralen historia?

— Orotariko jeneralena, jeneral guztiena, oro har, jaun agurgarri hori..., zehatzago esanda, gure sorterriko jeneralena —esan zuen Txitxikovek, eta pentsatu: «Ene, nolako lelokeriak esaten ari naizen!».

— Barkatu, ez dut ondo ulertu... Zehatz-mehatz, zer idazten ari da?, garai jakin bateko historia?, banakako biografiak?, jeneral guztien historia?, ala hamabigarren urteko gerran borrokatu zirenena bakarrik?

— Hain zuzen ere, jaun agurgarri hori, hamabigarren urteko gerran borrokatu zirenena! —erantzun zuen Txitxikovek hitzetik hortzera, eta bere artean pentsatu: «Mila deabru, ez zekiat zertan ari naizen!».

— Orduan, zergatik ez du niregana jotzen? Oso datu interesgarriak emango nizkioke.

— Ez da ausartzen, jaun agurgarri hori.

— Burugabekeria handiagorik! Batere garrantzirik gabeko hitz batengatik... Ni ez naiz inondik inora bera bezalakoa. Prest nago beraren etxera joateko.

— Ez lizuke onartuko, bera etorriko da hona...

—esan zuen Txitxikovek, eta bertantxe pentsatu zuen bere artean: «Horratx! Itsumustuan dantzatu nik mingaina, eta hara zein ondo etorri zaizkidan azkenean jeneralak!».

Hots arin bat entzun zen langelan. Armairu landu bateko intxaur-zurezko atea berez ireki zen. Irudi bizidun bat agertu zen ate irekiaren barruko aldean, atearen heldulekuari esku miragarri batez oraturik. Gela ilun batean lanpa batek atzetik argizaturik margolan garden batek ustekabean distiratu izan balu, ez zen irudi bizidun argi-jario hura bezain liluragarria izango, gela argiz betetzeko soilik agertu zela ematen baitzuen. Bazirudien eguzki-izpi bat sartu zela gelan berarekin batera, sabaia, erlaitzak eta zoko ilun guztiak bat-batean argituz. Izugarri garaia eta distiratsua zirudien. Baina irudipen hutsa zen; liraintasun paregabeak eta burutik

hartzetaraino gorputz-atal guztien artean zegoen proportzio egokiak eragiten zuen sentipen hori. Soineko kolore-bakarra hain [gustu] onez egokitzten zitzaion gorputzari, ezen bai baitzirudien hiriburuko jostun guztiak elkarlanean aritu zirela ahalik eta soinekorik ederrena egiteko. Baina hori ere begitazio hutsa zen. Berak egina zuen soinekoa, hala-hola gainera. Moztu gabeko oihalzati bat bizpahiru lekutan josi, eta hain toles ederrak osatuz egokitu eta itsatsi zitzaion gorputzaren inguruan, ezen edozein eskultorek berehala aldatuko baitzuen bere horretan marmolera, eta modaren arabera jantziriko andereño guztiek zarpailak emango zuten haren aldean. Txitxikovek ia ezagutzen zuen haren aurpegia Andrei Ivanovitxen marrazkietatik, baina, hala eta guztiz, txunditurik begiratu zion, eta gero, bere onera itzuli zenean, konturatu zen bazuela akats handi bat: argalegia zen.

— Hona hemen nire alabatxo laztana! —esan zion jeneralak Txitxikovi—. Baina oraindik ez dakizkit zure izena eta patronimikoa.

— Merezki al du jakitea bere ausardiarengatik nabarmendu ez den gizon baten izena eta patronimikoa? —esan zuen Txitxikovek.

— Nolanahi ere, jakin beharra dago...

— Pavel Ivanovitx, jaun agurgarri hori —esan zuen Txitxikovek, burua alde batera leunki okertzeaz batera.

— Ulinka! Pavel Ivanovitxek oso albiste interresgarria jakinarazi dit. Gure auzolagun Tentetnikov ez da uste genuen bezain ergela. Garrantzi handiko obra bat idazten ari da: hamabigarren urteko jeneralen historia.

Ulinka piztu eta gorritu egin zen bat-batean.

— Nork uste zuen, bada, ergela dela? —esan zuen azkar—. Vishnepokromovek bakarrik pentsa zezakeen horrelakorik, aita; zuk uste sendoa duzu harengan, baina ganorabakoa eta doilorra da!

— Ganorabakoa bai, egia da. Baina zergatik doilorra? —esan zuen jeneralak.

— Ganorabakoa izateaz gain, zitala eta nazkagarria ere bada —oldartu zitzaion Ulinka, bizkor—. Anaiak hain modu larrian iraindu eta arreba etxetik botatzen duena zital hutsa da...

— Kontu horiek esamesak besterik ez dira.

— Baina esamesa horiek ez ziren besterik gabe sortuko. Aita, gizon ona zara eta bihotz zabala duzu, baina, nola jokutzen duzun ikusirik, guztiz bestelakoa zarela pentsa lezake edonork. Guztiz ergela dela jakin arren, abegi ona egiten diozu gizon horri, zergatik eta berritsua delako eta maisutasun handiz balakatzen zaituelako.

— Bihotza!, ez dut, bada, etxetik botako! — esan zuen jeneralak.

— Ez duzu etxetik zertan bota, baina maitatzea ere!

— Ez nago ados, andereño agurgarri hori — esan zion Txitxikovek Ulinkari, burua leunki makurtuz eta irribarre atsegina aurpegian—. Kristautasunaren legeek lagun hurkoa maitatzeko agintzen digute.

Eta, jiraturik, irribarre maltzur samarrez esan zion jeneralari:

— Bada esaera bat honela dioena: «Adiskidea, zuk narras maite gaitzazu, txukun edonork maite gaitu eta». Ez duzu inoiz entzun, jaun agurgarri hori?

— Ez, ez dut inoiz entzun.

— Oso istorio bitxia da, jaun agurgarri hori — esan zuen Txitxikovek, irribarre maltzurrez—. Zuk, inondik ere, ezagutzen duzu Gukzovski printzea...

— Ez, ez dut ezagutzen.

— Bada, jaun agurgarri hori, kontua da Gukzovski printzearen etxaldean bazela administra-tzaile alemaniar bat, gizon gaztea bera. Sarritan joan behar izaten zuen hirira, soldadugaiak bil-tzera eta bestelako zereginak egitera, eta esan beharrik ez dago magistratuak erosi behar izat-en zituela. —Txitxikovek, begiak txiloturik, magistratuak erosteko modua antzeratu zuen—. Magistratuek begiko zuten eta oparitxoak egiten zizkioten noiz edo noiz. Behin batean, haiekin bazkaltzen ari zela, zera esan zien: «Egunen batean, jaunak, nire etxera etorri behar duzue, printzearen etxaldera». Haiek esan zuten: «Joan-go gara». Handik gutxira, Trekhmetiev kondea-ren etxaldean gertaturiko auzi bat erabaki behar izan zuten. Ezagutzen duzu Trekhmetiev kondea ere, ezta, jaun agurgarri hori?

— Ez, ez dut ezagutzen.

— Bada, auzia erabakitzeko aitzakian, kondearen etxaldea administratzen zuen agure zaharraren etxean bildu ziren denak, eta, epaitu beharrean, hiru egun eta hiru gau egon ziren han, etenik gabe kartetan. Esan gabe doa samovarra pizturik egon zela denbora guztian, eta mahaia pontxez beterik beti. Gainera, adarra jotzen zioten agureari. Haietatik nola edo hala libratu nahirik, esan zien: «Jaunak, zergatik ez zoazte printzearen administratzaile alemaniarren etxera? Hemendik hurbil bizi da eta!». «Oraintxe bertan!», esan zuten haiek, eta hala xe, zeuden bezala, erdi mozkorturik, bizarra kendu gabe eta logale, telega batera igo eta alemaniarren etxera joan ziren... Aurrera egin aurretik, jaun agurgarri hori, jakin beharra daukazu alemaniarra ezkonberria zela. Emaztea neska gaztea zen, institutuan ikasitakoa, oso minbera. —Txitxikovek minberatasuna imitatu zuen aurpegiaz—. Patxada ederrean eseririk zeuden biak, tea hartzen, eta, gutxien espero zutenean, atea zabaldu eta arrapataka sartu zen gizon-oste hura...

— Ikusten ari naiz. Bai ona! —esan zuen jeneralak, barreka.

— Administratzaileak, guztiz asaldaturik, esan zien: «Zertara etorri zarete hona?». «Hara bestea! Hau duk ongi etorria, hau!», esan zuten haiek. Eta bat-batean, hitz horiek esandakoan, aldatu egin zuten aurpegiera... «Has gaitezen lanean! Zenbat litro ardo destilatu duzue etxaldean? Erakutsi liburuak!» Dena miatzen hasi ziren. «Iruzurgilea halakoa!» Harrapatu, lotu, hirira eraman, eta urte bat eta erdi eman zuen espetxean.

— Ondo merezia! —esan zuen jeneralak. Ulinkak besoak jaso zituen, espantuz.

— Emaztea gestioak egiten hasi zen —jarraitu zuen Txixikovek—. Baina zer egin zezakeen eskarmenturik gabeko emakume gazte batek? Zorionez, jende onarekin egin zuen topo, eta bake-epailearengana joatera aholkatu zuten. Bi mila errublo eman zizkion bake-epaileari, eta bazkaltzera gonbidatu jende on haiek. Eta bazkarian, denak txolintzen hasiak zirela, honela esan zioten administratzaile alemaniarrari: «Ez dizu lotsarik ematen guri horrelako harrera egi-

teak? Zer espero zenuen, bada?, txintxo-txintxo, bizarra ondo eginda eta frakez jantzirik agertuko ginela. Ez, *adiskidea, zuk narras maite gaitzazu, txukun edonork maite gaitu eta*».

Jenerala barre-alagaraka hasi zen; Ulinka, aldiz, atsekabez auhenka.

— Ez dut ulertzen, aita, nolatan egin dezakezun barre! —esan zuen azkar. Amorruek ilundu egin zuen haren bekoki ederra...—. Ez dakit nora, baina norabait bidali beharko lituzkete jaun haiek guztiak, hain jokaera makurra zigortzeko...

— Ene laztana, ez dut inola ere haien jokabidea zuritu nahi —esan zuen jeneralak—, baina barregarria da; zer egingo diogu! Nola esan duzu?, «txukun maite gaitzazu»? ...

— Narras, jaun agurgarri hori, narras maite gaitzazu —zuzenzu zion Txitxikovek.

— Zuk narras maite gaitzazu, txukun edonork maite gaitu eta. Ja, ja, ja, ja!

Jeneralaren gorputz-enborra zambuluka hasi zen irriaren eraginez. Besaburuek, non lits ugari-ko txarratelak eraman baitzituen garai batean,

dar-dar egiten zuten, une horretan lits ugariko txarratelak eramango balitu bezala.

Txitxikov jeneralaren barrea imitatzen saiatu zen hasieran, baina, haren alderako begiruneak eraginik, e letra hautatu zuen azkenean: je, je, je, je, je! Haren gorputz-enborra ere zambuluka hasi zen irriaren eraginez; besaburuek, ordea, ez zuten dar-dar egiten, lits ugariko txarratelik ez zeraman eta.

— Nolako piura izan behar zuten magistratu haiek bizarra egin gabe! —esan zuen jeneralak, barre eta barre.

— Bai, jaun agurgarri hori, eta gainera... hiru egunez segidan kartetan... etenik gabe... eta ezer jan gabe; hori baraualdia!, indar guztiak ahituko zitzaizkien hantxe, alajaina! —esan zuen Txitxikovek, barre eta barre.

Ulinkak, gorputza besaulkian erortzen utzi, eta esku batez estali zituen bere begi ederrak; atsekabea norekin partekaturik ez zeukala etsita, esan zuen:

— Nik ez dakit ezer, haserrea baino ez dut sentitzen.

Hizketan ari ziren hiru haien bihotzetan jaiotako sentimenduak elkarren kontrakoak ziren erabat, eta, halatan, ikaragarri bitxia haien multzoa. Batak barregarri zeritzon alemaniarraren inozotasun baldarrari. Besteak barregarri zeritzon alproja haien jukutria barregarriari. Hirugarrenak tamalgarri zeritzon hain jarduera bidegabea zigorrik gabe geratzeari. Laugarrenik ez zen, eta, horrenbestez, inork ez zituen hausnartu bati poza eta besteri tristura eragin zieten hitz haiek. Zer esan nahi zuten?, gaiztotasunaren lohi zikinetan erorita ere gizabanakoak maitasuna eskatzen duela?, animalia sena al da hori?, edo arimak, grina zitalen zama astunak itorik egon arren, doilortasunaren azal zurezkoa zeharkatuz eginiko oihu ahula: «Lagunok, salba nazazue!»? Baina ez zen laugarrenik zeinarentzat penagarriena lagun hurkoaren arimaren hilzoria baitzatekeen.

— Nik ez dakit ezer —esan zuen Ulinkak, eskua aurpegitik bereizteaz batera—, haserrea baino ez dut sentitzen.

— Baina, mesedez, ez gurekin haserretu —esan zuen jeneralak—. Guk ez dugu ezeren erru-

rik. Emadazu musu bat eta zoaz zure gelara. Ni oraintxe bertan jantziko naiz bazkaritarako. Hik, inondik ere —esan zuen jeneralak, bat-batean Txitxikovenganantz jiraturik—, gurekin bazkalduko duk, bai?

— Bai, jaun agurgarri hori, baldin eta zuretzat...

— Zeremoniarik ez! Aza-zopa zegok jateko!
Txitxikovek burua makurtu zuen, oso modu atseginean, eta, berriro jaso zuelarik, ez zuen Ulinka ikusi. Desagertua zen. Haren ordeztan, bibote eta belarrondoko bizar iletsuekiko gelazain mardul bat ikusi zuen, zilarrezko konketa eta pitxerra eskuetan.

— Axola dik hire aurrean janzten banaiz? —
esan zuen jeneralak, mantala erantziz eta alkan-doraren mahukak beso indartsuetan gora bilduz.

— Arren, jantzi ez ezik, nahi duzun guztia egin dezakezu nire aurrean, jaun agurgarri hori —esan zuen Txitxikovek.

Garbitzen hasi zen jenerala, ufaka eta ziliportaka, ahate baten antzera. Ur xaboidunak inguru guztia bustitzen zuen.

— Nola esan duk? —galdetu zuen, bere lepo lodia alde guztietatik lehortzen zuen bitartean—, txukun maite gaitzazu?...

— Narras, jaun agurgarri hori, narras.

— Zuk narras maite gaitzazu, txukun edonork maite gaitu eta. Ona, oso ona!

Txitxikov aldarte izugarri oneko zegoen; halako berotasun bat sumatzen zuen barnean.

— Jaun agurgarri hori! —esan zuen.

— Zer? —esan zuen jeneralak.

— Bada oraindik beste istorio bat.

— Zein?

— Oso istorio barregarria da, baina niri ez dit batere barregarrik ematen. Dena dela, entzun nahi baduzu...

— Konta ezak!

— Entzun, bada, jaun agurgarri hori!

Txitxikovek ingurura begiratu zuen, eta, gelazaina pitxerrarekin alde egina zela ikusirik, hone-la hasi zen:

— Badut osaba bat, zahar okitua bera. Hirurehun arima ditu, eta ni naiz oinordeko bakarra. Oso zaharra denez, ezin du etxaldea gobernatu, baina ez du nire esku utzi nahi. Oso arrazoi bitxia

ematen du horretarako: «Ez dut iloba ezagutzen; litekeena da etxekaltea izatea. Fidatzekoa dela erakusten badit eta bere kabuz hirurehun arima eskuratzeko gai bada, nire hirurehun arimak emango dizkiot».

— Bai ergela!

— Oso oharpen zuzena egin duzu, jaun agurgarri hori. Baina pentsa ezazu nolako egoeran nagoen... —Txitxikovek, burua beheratu, eta ahapeka esan zion—: Etxean bada giltzain bat, jaun agurgarri hori, hainbat umeren ama. Argi ibiltzen ez banaiz, haientzat izango da dena.

— Burutik zegok agure txotxolo hori! —esan zuen jeneralak—. Hala ere, ez zekiat zer egin dezakedan hiri laguntzeko.

— Nik badut ideia bat, jaun agurgarri hori. Gaur egun, nekazarien errolda berritu bitartean, etxalde handiak dituzten lurjabeek batera dauz-kate erroldaturik arima guztiak: biziak, hilak eta ihes eginak... Orduan, esaterako, hil zaizkizun nekazariak bizirik baleude bezala emango baze-nizkit, dagokion eroste-agiria eginik, nik eroste-agiri hori erakutsiko nioke osaba zaharrari, eta berak, nahitaez, niri utzi beharko lidake ondarea.

Barrez lehertu zen jenerala, ezein gizakik sekula egin ez bezalako barreak eginez: zegoen zegoenean, ziplo erori zen besaulkian, burua atzera eraman, eta gutxigatik ez zen ito. Asaldatu egin zen etxe osoa. Agertu zen gelazaina. Lasterka etorri zen alaba, izuturik.

— Zer gertatzen zaizu, aita?

— Ezer ez, laztana. Ja, ja, ja! Itzuli zure gelara, gu oraintxe joango gara jantokira. Ja, ja, ja!

Zenbait aldiz itotzeko zorian egon ondoren, indar berriz jalgi zen jeneralaren barrea, eta haren algara ozenek etxeko gela guztietan durunditu zuten, sarreratik hasi eta ganbararaino.

— Barka ezak, adiskidea, baina horrelakorik bururatzea ere! Ja, ja, ja! Arima hilak bizirik baleude bezala aurkeztea, hori opari polita zaharrentzat! Ja, ja, ja, ja! Osaba, osaba! Bai kokoloa hire osaba! Ja, ja, ja, ja!

Txitxikov urduri zegoen: aurrez aurre zuen gelazaina, ahoa zabal-zabalik eta begiak arranpalo.

— Jaun agurgarri hori, barregura barik negargura ematen dit niri istorio horrek... —esan zuen.

— Barkatu, adiskidea! Barrez lehertzeko modukoa duk, ordea! Bostehun mila errublo emango nitizkek hire osaba ikustearren arima hilen eroste-agiria aurkezten dioanean. Oso zaharra da? Zenbat urte ditu?

— Laurogei, jaun agurgarri hori. Baina... zera... nahiago nuke kontu hau isilpean gordeztea...

Txixikovek oso modu adierazgarrian begiratu zion jeneralari aurpegira, eta, aldi berean, begi-bazterraz gelazainari.

— Hoa, geroxeago deituko diat berriro —esan zion jeneralak gelazainari. Han joan zen bibotetsua.

— Bai, jaun agurgarri hori... Hau, jaun agurgarri hori, hain da kontu labaina..., zera, nahiago nuke isilpean gordeko bagenu...

— Jakina, oso ondo ulertzen diat. Bai ergela agurea! Hain gizon zoroa laurogei urte betetzera iristea ere! Eta nolako itxura du? Kementsua da? Hankek eusten diote oraindik zutik?

— Eusten diote, bai, baina nekez.

— Bai ergela! Badu hortzik oraindik?

— Bibakarrik, jaun agurgarri hori.

— Astakirtena halakoa! Aizak, adiskidea, ez haiz haserretuko, ezta? Astakirten hutsa duk, bai?

— Bai horixe, jaun agurgarri hori. Familiakoa dut, baina, zaila bazait ere, onartu beharra daukat baietz, astakirten hutsa dela.

Nolanahi ere, irakurlea aise konturatuko zenez, Txitxikovi ez zitzaion batere zaila onartzea osaba astakirten hutsa zela, batez ere kontuan izanik sekula ez bide zuela horrelako osabarik izan.

— Beraz, jaun agurgarri hori, ondo baderitzozu, eskertuko nizuke...

— Arima hilak ematea? Gustura emango dizkiat hain adar-jotze politerako, lur, etxe eta guzti gainera! Har ezak hilerri osoa! Ja, ja, ja, ja! Hori agurea, hori! Ja, ja, ja, ja! Ergela benetan! Ja, ja, ja, ja!

Eta jeneralaren barreek berriro durunditu zuten jeneralaren etxeko gela guztietan.

Hirugarren kapitulua

«Ez —zioen Txitxikovek bere kolkorako, berriro ere soro eta zelai zabaletan barrena zihoala—, nik ez diat nire etxaldea horrela gobernatuko. Jainkoa lagun nire eginkizuna ondo burutu eta gizon aberatsa eta eskuarte handikoa izatera iristen banaiz, guztiz bestela jokatu diat: sukaldaria edukiko diat, bai, eta erosotasun guztiak etxean, baina behar bezala administratuko ditiat ondasunak. Zuhurra izango nauk, eta dirukopuru bat bereiziko diat urtero, ondorengoen tzat, baldin eta Jainkoak emazte ugalkorra ematen badit...»

— Aizak, ergel hori!

Selifanek eta Petrushkak atzera begiratu zuten, biek batera, gida-aulkitik.

— Nora hoa?

— Agindu duzun lekura, Pavel Ivanovitx, Koshkariov koronelaren etxera —esan zuen Selifanek. uria lepoa, handiak begiak, ilauna begirada, harroa ibilera eta gerrirainokoa txirikorda. Selifanek berak ezin azal zezakeen zer gertatzen

zitzaion barnean neskekin batera biribilean poli-ki mugitzen zenean, bi eskuekin haien esku zuriak harturik zeuzkala, edo gainerako mutilekin lerrokaturik nesken ilararantz hurbiltzen zenean, eta sua bezalako arrats gorrixka itzali, inguru osoa arian-arian ilundu, eta han urrun, erreka bestaldean, doinu beti tristearen oihartzun berdina entzuten zenean. Horren ondotik, lolasaren haria nondik nora zetorren ikusirik, sudurra okertu zuen. Edaria probatu ere ez zuela egin esan nahi izan zuen, baina, nolabait, lotsagarria iruditu zitzaion hori.

— Ondo joaten da kalesa honetan —esan zuen Selifanek, aurrerantz jiraturik.

— Zer?

— Esan dut, Pavel Ivanovitx, ondo joaten dela kalesa honetan, gure britxkan baino hobeto, ez du batere astindurik ematen.

— Isilik egon hadi eta segi aurrera! Inork ez dik horretaz galdetu!

Selifanek, zaldien saihets mardulak zigorraz emeki jo, eta Petrushkari esan zion:

— Diotenez, Koshkariov jauna alemaniarren erara janzten duk: urrunetik begiratuta, ez zegok

haiengandik bereizterik; eta kurriloak bezala ibiltzen duk, harro-harro eta puztu-puztu eginik. Eta emazteak ez ditik erabiltzen gure emakumeek jantzi ohi dituzten buruzapiak, txano alemaniarra eraman ohi dik, alemaniarrek bezala, zera, badakik, buru-beroki horietako bat, horrela esaten ziotek haiek, buru-berokia. Bada, hori, alemaniarren buru-beroki horietako bat.

— Hi ere dotore egongo hintzateke alemaniarren antzera jantzirik, buru-beroki eta guzti! — esan zion Petrushkak Selifani, burlati eta irribarre maltzurrez. Baina nolako itxura eman zion aurpegiari irribarre maltzur hark! Izan ere, imintzio hark ez zuen irribarre maltzurraren antzik; gehienez ere, marrantak jota egonik usin egin nahi duen baina, usin egitea lortu ezinik, usin egiten saiatzen ari den gizonaren aurpegiera gogorarazten zuen.

Txitxikovek behetik begiratu zion Petrushkaren aurpegiari, zer gertatzen zitzaion igarri nahirik, eta bere artean esan zuen: «Arranopola! Eta, inondik ere, ederra dela uste dik!». Esan beharra dago Pavel Ivanovitx erabat ziur zegoela Petrushkak edertzat zeukala bere burua, nahiz

eta azken boladan ahaztu bide zitzaion nolakoa zuen aurpegia.

— Pavel Ivanovitx —esan zuen Selifanek, gida-aulkian atzerantz jiraturik—, bete-betean asmatuko zenuen Andrei Ivanovitxi zaldi izpildunaren truke beste bat emateko eskatu bazenio; oso begiko zaituenez, ez zizun mesede hori ukatuko; egia esan, zaldi izpildun hori alproja hutsa da eta traba besterik ez du egiten.

— Utzi berriketa eta segi aurrera! —esan zuen Txitxikovek, eta bere artean pentsatu: «Dena dela, arrazoi dik, horretan ez diat asmatu».

Bitartean, leunki zihoan aurrera hain ibilera leuneko kalesa. Leunki igotzen zen aldapan gora, nahiz eta leku askotan bidea oso latza zen; leunki jaisten zen aldapan behera, nahiz eta auzo-bide hartan oso malda malkartsuak zeuden. Jaitsi ziren mendian behera. Bidea zelai artean zihoan, ibai bihurgunetsu baten ertzetik, erroten aldamenetik. Hareatzak atzematen ziren han urrun, eta oso modu ikusgarrian agertzen ziren bata bestearen atzetik lertxundi txikiak. Bizkor igarotzen ziren bidaiarien albotik aihenak,

urki meheak eta makal zilarkarak, adarrekin Selifan eta Petrushka joz, gida-aulkian eseririk baitzihoazen biak. Adarrek behin eta berriro kentzen zioten txanoa buru gainetik Petrushkari. Behin eta behin, gida-aulkitik jaitsi, eta errieta egiten zien hala zuhaitzari nola zuhaitza landatu zuenari, ergelak deituz, baina ez zuen txanoa lotu nahi, ezta eskuaz heldu ere, horrelakorik berriro gertatuko ez zitzaiolakoan beti. Basoa are sarriago bilakatu zen: lertxun eta makalez gain, urkiak ere agertzen hasi ziren, eta, handik gutxira, oihan itsua zuten inguru guztian. Ezkutatatu egin zen eguzkiaren argia. Pinuek eta izeiek itzal handia egiten zuten. Baso amaigabeko ilunpe etengabea gero eta beltzagoa zen, eta bazi-rudien gau bihurtuko zela. Eta, bat-batean, argiprintzak ikusi zituzten zuhaitzen artetik, argiuneak agertu ziren hor-hemenka adar eta enborenen artean, han nonbait zilar distiratsua edo ispiluren bat balego bezala. Argitzen hasi zen basoa, bakandu ziren zuhaitzak, oihuak entzun ziren, eta, tupustean, aintzira bat azaldu zen begien aurrean. Lau versta zabal zen, zuhaitzak zituen inguru guztian, eta izbak atzematen ziren

zuhaitzen atzean. Hogei bat gizonek, uretan gerriraino sarturik batzuk, sorbaldetaraino beste batzuk eta eztarriraino banaka batzuk, sare bat zeramaten aintziraren beste aldeko ertzerantz. Gizon bat igeri zebilen haien erdian, oihuka eta dena antolatzen; garaia bezain lodia zen ia, biribil-biribila, angurri baten antzekoa. Lodiaren lodiaz, ezin zen inola ere hondoratu, eta murgiltzeko ahalegin biziak egin balitu ere, urak gorantz bultzatuko zuen beti. Bizkar gainera bi gizon igo balitzaizkio ere, ur-azalean geratuko zen, burbuila setati baten antzera, eta, gehienez ere, apur bat hondoratuko zen zamaren azpian eta burbuila batzuk jaregingo zituen ahotik eta sudurretik.

— Pavel Ivanovitx —esan zuen Selifanek, gida-aulkian atzerantz bihurturik—, hori, inondik ere, nagusi jauna da, Koshkariov koronela.

— Zergatik?

— Bada, azala besteek baino zuriagoa duela-ko, eta gorputza, berriz, agurgarriro gizona, nagusi jaunei dagokien bezala.

Bitartean, argiago bilakatu ziren oihuak. Jaun-angurria garrasika ari zen, arrapaladan eta ozenki:

— Denis, eman soka Kozmari! Kozma, hartu Denisek daukan soka-muturra! Foma Handia, Foma Txikia dagoen alderantz bultzatu! Eskuinetara, eskuinetara! Geldi, geldi!, deabruak eramango ahal zaituzte! Neu atzeman nauzue sarean! Harrapatu egin nauzue, madarikatuok, zilborretik harrapatu ere!

Eskuinaldeko gizonak saretik tiratzeari utzi zioten, ikusirik ustekabeko ezbeharra gertatu zela benetan: nagusi jauna sarean harrapaturik zegoen.

— Ikusi duk? —esan zion Selifanek Petrushkari—, sarean zeramatek nagusia, arraina balitz bezala.

Nagusia plisti-plasta zebilen, eta, askatu nahirik, ahoz gora jarri zen, sabela gorantz, baina are gehiago katigatu zen sarean. Sarea apurtzeko beldurrez, igeri zebilen harrapaturiko arrainekin batera, sokarekin lot zezatela aginduz. Sokarekin lotu, eta lehorrera jaurti zuten muturra. Ur-ertzean zeuden hogeit hamar arrantza-

lek sokaren muturrari heldu, eta tiraka hasi ziren kontu handiz. Ur txikietara iritsirik, zutik jarri zen nagusi jauna, sarean estu bildurik, hala nola egoten baitira udan damen besoak sarezko eskularruetan bildurik; gorantz begiratu, eta bisitaria ikusi zuen, kalesan kairaino bertaraino iritsia. Bisitaria ikusirik, buru-makurtua egin zion. Txitxikovek, kapelua erantzi, eta diosal egin zion kalesatik, adeitasun handiz.

— Bazkaldu duzu? —egin zuen oihu jaunak, atzemandako arrainekin batera ur-ertzera hurbildurik, esku bat begien gainean, eguzkitik babesteko, eta bestea beherago, Medici-ren Venus bainatu berriak bezala.

— Ez —esan zuen Txitxikovek.

— Ederto! Eskerrak eman Jainkoari!

— Zergatik? —galdetu zuen Txitxikovek, jakinminez, kapeluari goian eusten ziola.

— Honengatik! —esan zuen jaunak, lehorretaturik, oinen inguruan arrain mordoa zuela, bihurka eta lurretik arshin baterainoko jauziak eginez—. Hau ez da ezer, ez begiratu honi. Hor badaukat arrain puska ederra!... Foma Handia, erakutsi gaizkata. —Bi mujik sendok halako mus-

tro bat atera zuten tina batetik—. Hau arrain alea, errekatik etorria!

— Arrain ale itzela, bai! —esan zuen Txixikovek.

— Bai, alajaina! Segi etxera zuek, ni berehaxaxe joango naiz. Gidaria, hartu hor beheko bidea, soroetan barrena doana. Foma Txikia, memelo hori, hoa segituan langa irekitzera! Zuekin izango naiz atzera begiratzeko denbora izan baino lehen.

«Xelege samarra koronela!», pentsatu zuen [Txixikovek], azkenean kai amaigabea alderik alde zeharkaturik eta izbetara hurbiltzen ari zela. Izbetako batzuk mendiaren maldan sakabanaturik zeuden, ahate-saldo baten antzera; besteak, berriz, behean zeuden, zutoin gainean eraikita, eta kurriloak gogorarazten zituzten. Askotariko sareak ikusten ziren nonahi esekirik. Foma Txikiak langa ireki zuen; kalesa, alorra zeharkaturik, plaza batean aurkitu zen, zurezko eliza zahar baten alboan. Urruntxeago, elizaren atzean, lurjabearen egoitzako teilatuak atzematen ziren.

— Hemen naiz! —entzun zen ahots bat aldamenean. Txixikovek ingurura begiratu zuen.

Jauna haren alboan zebilen ordurako, drojki batean, gorbatarik gabe, Nankin-go oihalezko jaka belar-berdea eta galtza horiak jantzirik. Cupido ematen zuen! Saiheska eseririk zegoen drojkian, drojki osoa betetzen zuela. Txitxikovek zerbait esan nahi izan zion, baina lodikotea desagertua zen jadanik. Kalesaren beste aldean agertu zen drojkia, eta lehengo ahotsa entzun zen berriro: «Lutxoa eta zazpi zamoak nire sukaldari memelo horri eraman; gaizkata, aldiz, hona ekarri: neronek eramango diat drojkian». Berriz ere entzun zen ahotsa: «Foma Handia eta Foma Txikia! Kozma eta Denis!». Txitxikovek, etxeko atarira iritsi zenean, harriturik ikusi zuen jaun lodia atarian zegoela jadanik, besoak zabalik. Ez zegoen ulertzerik nola lortu zuen hain azkar hel-tzea. Hiruna musu eman zizkioten elkarri masai-letan.

— Goraintziak, jaun agurgarri hori! —esan zuen Txitxikovek.

— Goraintziak! Noren partetik?

— Senide baten partetik, Aleksandr Dmitrievitx jeneralaren partetik.

— Nor da, baina, Aleksandr Dmitrievitx?

— Betristxeve jenerala —erantzun zuen Txitxikovek, apur bat harriturik.

— Ez dakit nor den, ez dut ezagutzen.

Txitxikov are gehiago harritu zen.

— Nolatan liteke!... Oker ez banago, Koshkariov koronelarekin ari naiz hizketan, bai?

— Piotr Petrovitx Petukh nauzu, Petukh Piotr Petrovitx! —erantzun zuen jaunak.

Txitxikov harri eta zur geratu zen.

— Arraioa! Nora ekarri nauzue, kaikuok? —esan zuen Txitxikovek, Selifan eta Petrushkarengantz jiraturik. Ahoa zabal-zabalik eta begiak biribil-biribil zeuden biak, bata gida-aulkian eseririk eta bestea kalesako atetilaren alboan zutik—. Nora ekarri nauzue, kaikuok? Koshkariov koronelaren etxera eramateko esan dizuet..., eta hau Piotr Petrovitx Petukh duk...

— Ondo egin dute zure mutilek! —esan zuen Piotr Petrovitxek—. Vodka eta opilak emango dizkizuet saritzat. Askatu zaldia eta zoazte zerbitzarien gelara!

— Lotsaturik nago —esan zuen Txitxikovek, burua makurturik— ustekabeko oker honengatik...

— Ez da inongo okerrik —esan zuen Piotr Petrovitx Petukhek hitzetik hortzera—, ez da inongo okerrik. Aurrena, dasta ezazu nire bazkaria, eta gero esango didazu ea okertu zaren. Onar ezazu gonbita, mesedez —esan zuen, Txixikov besotik harturik eta barruko geletara eramanez.

Txixikovek, lotsaturik, saiheska igaro zuen atea, etxeko nagusiari berarekin batera sartzen uzteko; alferrik ari zen: etxeko nagusiak ez zuen atea igaroko, ordurako ez baitzen han. Haren ahots ozena entzun zuen soilik, patioan deiadar-ka: «Zertan dabil Foma Handia? Zergatik ez da etorri oraindik hona? Jemelian, inozo hori, hoa korrika sukaldari memelo horrengana eta gaizkari barrukiak lehenbailehen ateratzeko esan. Haziak, arrabak eta tripabarruak zopara bota ditzala muxarrarekin batera, eta zamoia saltsan jar dezala. Eta karramarroak!, karramarroak! Foma Txikia, inozo hori, non daude karramarroak? Karramarroak esan diat, karramarroak!». Eta puska luze batean durundi egin zuen hitz horrek: karramarroak, karramarroak.

— Nonbait, lanpeturik dabil etxeko nagusia — esan zuen Txitxikovek, besaulki batean eseririk eta gelako bazter eta hornei begira.

— Hemen naiz —esan zuen etxeko nagusiak, berriro ere gelan sarturik. Mutiko bi zekartzan berekin, udako jakaz jantzirik biak. Zumea bezain meheak ziren, eta Piotr Petrovitx baino arshin bat garaiagoak ia.

— Hona nire semeak, institutuko ikasleak biak. Oporretan etorri dira. Nikolasha, gera hadi gonbidatuarekin; eta hi, Aleksasha, hator nirekin.

Eta berriro desagertu zen Piotr Petrovitx Petukh.

Nikolasharekin hizketan hasi zen Txitxikov. Nikolasha oso berritsua zen. Esan zion institutuan ez zeudela oso gustura, han hobeto tratatzen zituztela amaxorengandik opari garestiak jasotzen zituztenak, hirian Ingermanlandski *husar*-errejimentua zegoela, Vetvitski infanteria-kapitainak koronelak baino zaldi hobea zuela, baina Vziemtsev tenientearena askoz hobea zela.

— Eta nolako egoeran dago aitaren etxaldea?

—galdetu zuen Txitxikovek.

— Bahiturik —esan zuen aitak berak, egongelan berriro azaldurik—, bahiturik.

Gauzak okerretik okerragora doazenean jendeak egin ohi duen keinua egin zuen Txitxikovek ezpaineekin.

— Zergatik bahitu duzu? —galdetu zuen.

— Denek bahitzen dute, zergatik ez nuen nik gauza bera egingo? Onuragarria omen da. Gainera, hemen igaro dut bizitza osoa, Moskuko bizimodua nolakoa den jakin nahi dut orain.

«Ergela, ergela ez bestena! —pentsatu zuen Txitxikovek—, diru guztia xahutuko dik han, eta etxekalte bihurtuko ditik semeak. Hobe huke herrixkan geratuko bahintz, babo horrek!»

— Badakit zer pentsatzen ari zaren —esan zuen Petukhek.

— Bai? —galdetu zuen Txitxikovek, nahasirik.

— Pentsatzen ari zara: «Bai ergela Petukh hau!, bazkaltzera gonbidatu naik, eta oraindik ez dik jatekorik atera». Laster egongo da prest, lagun ohoragarri hori. Neska ile-labur batek txiri-

korda egiteko denbora izan baino lehen, prest egongo da dena.

— Aitatxo, Platon Mikhalitx dator! —esan zuen Aleksashak, leihotik begira.

— Zaldi zuri-horixkan dator! —gaineratu zuen Nikolashak, bera ere leihora hurreraturik—. Hik zer uste duk, Aleksasha?, gure zaldi grisaxka hori baino txarragoa da?

— Txarragoa ez, baina ez duk hain ikusgarria. Zuri-horixkaz eta grisaxkaz eztabaidatzen hasi ziren. Bitartean, gizaseme sendo eta lerdin bat sartu zen gelan; kizkur gaztaintara distiratsuak eta begi ilunak zituen. Zakur mutur-handi bat sartu zen haren atzetik, kobrezko lepokoarekin zarata handia ateraz.

— Bazkaldu duzu? —galdetu zuen Piotr Petrovitx Petukhek.

— Bai, bazkaldu dut —erantzun zuen bisitariak.

— Adarra jotzen ari zara? —esan zuen, hase-re, Petukhek—. Zertarako zatoz hona bazkaldu-ta?

— Tira, tira, Piotr Petrovitx —esan zuen bisitariak, irribarre maltzurra eginez—, kontsolatze

aldera esango dizut bazkarian ez dudala ezer jan: ez naiz gose.

— Ikusiko bazenu zein arrain ederrak atzeman ditugun! Nolako gaiztaka! Eta nolako zamoak!

— Alaigarria da zuri entzute hutsa —esan zuen bisitariak—. Azaldu behar didazu zer egin behar dudan zu bezain alai bizitzeko.

— Zergatik aspertu, gero? —esan zuen etxe-ko nagusiak.

— Zergatik aspertu?, bada, dena aspergarria delako.

— Gutxi jaten duzu, hori da kontua. Saia zaitetz behar adina jaten. Aspertzea egungo asma-keta da. Lehen inor ez zen aspertzen.

— Bejondeizula! Zu ez zara inoiz aspertzen?

— Inoiz ez! Ez dakit aspertzen, astirik ere ez dut aspertzeko. Goizean, esnatu bezain laster, tea edan, eta hortxe daukat zain administratzailea; arrantzara joan, eta konturatzerako bazkaltzeko ordua da. Bazkalostean lo-kuluxka bat egin, eta afaltzeko ordua, eta gero sukaldaria dator eta biharamunean bazkaltzeko zer jarri esan behar diot. Noiz aspertuko naiz?

Elkarrizketak irauñ zuten denbora guztian Txixikov bisitaria aztertzen aritu zen.

Platon Mikhailitx Platonov aldi berean zen Akiles eta Parid: lerdentasuna, garaitasuna, gaztetasuna, dena zegoen bildurik berarengan. Irribarre atsegin eta apur bat ironikoak edertasuna areagotzen zion. Baina, hala eta guztiz, bazen berarengan zerbait geldo eta soraioa. Grinek, atsekabeek eta zirrarek ez zuten zimurrik utzi haren aurpegi garbi, orbangabea, baina, bestetik, ez zioten inolako bizitasunik eman.

— Atrebentzia ez bada —esan zuten Txixikovek—, nik ere aitortu behar dut ezin dudala ulertu nolatan aspertzen zaren hain itxura ederreko gizona izanik. Jakina, baliteke bestelako arrazoiak izatea tartean, dirurik eza, esaterako, edo gaizkileren baten jazarpena, bada-eta edonori bizia kentzeko prest dagoen jenderik.

— Bada, ez, horrelako arrazoirik ez dago tartean —esan zuten Platonovek—. Sinetsidazu gusatuko litzaidakeela noiz edo noiz horrelako zerbait gertatzea, kezka baten edo larrialdiren bat izatea, edo, gutxienez, baten bat haserretzea

nirekin. Horrelakorik ez, ordea! Besterik gabe aspertzen naiz.

— Ez dut ulertzen. Beharbada, etxalde txikia edo nekazari gutxi dituzu. Hala da?

— Ez hurrik eman ere! Anaiak eta biok hamar mila desiatina lur eta mila nekazaritik gora ditugu.

— Eta, hala ere, aspertu egiten zara. Ez dago ulertzerik! Etxaldea egoera okerrean dago?, uzta txarra izan duzue?, jende asko hil zaizue?

— Alderantziz, ezin hobeto doa dena, eta anaia ugazaba bikaina da.

— Ez dut ulertzen! —esan zuen Txitxikovek, sorbaldak goraturik.

— Orain behintzat ez gara aspertuko —esan zuen etxeko nagusiak—. Aleksasha, hoa ziztu bizian sukaldera eta esan sukaldariari arrain-pasteltxoak ekartzeko oraintxe bertan. Eta non dira Jemelian inozoa eta Antoshka esku-luzea? Zergatik ez dituzte zizka-mizkak ekarri oraindik?

Baina ireki zen atea. Han agertu ziren Jemelian inozoa eta Antoshka esku-luzea, ezpainzapi bana besoan; mahaia ipini, eta erretilu bat utzi zuten haren gainean, sei likore-botilarekin,

bakoitza kolore batekoa. Berehala, askotariko jakiak agertu ziren erretiluaren eta botilen inguruan: kabiarra, gazta, esnegorri gazituak, onddoak, eta beste janari batzuk, sukaldetik plater estalietan ekarri berriak, estalkitik zehar olio beroaren zirti-zartak entzuten zirela. Jemelian inozoa eta Antoshka esku-luzea onak eta ardurasuak ziren. Nagusiak horrela deitzen zien izen-goitirik ezarri ezean dena gatzgabea iruditzen zitzaiolako, eta berak ez zuen batere gogoko gatzgabetasuna. Bihotz handiko gizona zen, baina atsegin zitzaizkion hitz zirikagarriak. Gainera, ezizenak ezarriagatik, mendekoak ez zitzaizkion haserretzen.

Zizka-mizken ondotik bazkaria atera zuten. Bihotz handia gorabehera, etxeko nagusia maltzur huts bihurtu zen orduan. Baten batek plate-rean janari-puska bakarra zuela ohartu bezain laster, beste bat gehitzen zion, esanez: «Munduan ez da ez gizakirik ez hegaztirik bikoterik gabe bizi daitekeenik». Gonbidatuak bi zati jaten bazituen, hirugarrena zerbitzatzen zion, esanez: «Zergatik bi? Jainkoari hirutasuna atsegin zaio». Hiru jaten bazituen, berriz: «Ba al dago hiru gur-

pileko telegarik? Inork eraikitzen al du hiru ertze-ko izbarik?». Bazituen esaerak lau eta are bost zati hartzen zituenarentzat ere. Txitxikovek hamabi puska jan zituen halako jaki batetik, eta pentsatu zuen: «Etxeko nagusiak ez dik esaera gehiagorik izango». Baina oker zegoen: etxeko nagusiak, hitzik esan gabe, burruntzian giltzurrun eta guzti ondo erretako zekor izugarri baten erdialdeko okela-puska eder bat ipini zion platerean.

— Bi urtez esnea izan du elikagai bakarra — esan zuen etxeko nagusiak—, semea banu bezala zaindu dut!

— Ezin dut! —esan zuen Txitxikovek.

— Saia zaitez, mesedez, gero esango didazu ahal duzun ala ez.

— Ez zait sartuko. Ez dut lekurik.

— Elizan ere ez zegoen lekurik; alkatea azaldu, eta tokia aurkitu zioten. Eta bazirudien orratz bat ere ez zela sartuko, hain zegoen jendetza handia eliza barruan. Saia zaitez: egin kontu okela-puska hau alkatea dela.

Saiatu zen Txitxikov, eta, bai, okela-puska hura alkatearen gisakoa suertatu zen. Gehiago-

rik sartuko ez zitzaizola uste zuen arren, tokia aurkitu zion.

Antzekoa jazo zen edatekoekin. Bahitura-etxetik dirua jaso zuelarik, Piotr Petrovitx edariz hornitu zen hurrengo hamar urteetarako. Edariak ateratzen zituen etengabe. Gonbidatuek edaten ez zutena Aleksashari eta Nikolashari ematen zien, eta, kopa mordoa hustu bazuten ere, ura besterik edan ez balute bezala altxatu ziren mahaitik. Gonbidatuekin, aldiz, ez zen horrelakorik gertatu: nekez, oso nekez atera ziren balkoira, eta nekez eseri ziren gero besaulki banatan. Etxeko nagusia, lau eserlekuko besaulki batean jesarri, eta lo geratu zen berehala. Haren gorputz lodia sutegiko hauspo bihurtu zen. Egungo musikan ere entzuten ez diren soinuak ateratzen hasi ziren haren aho eta sudurzulo irekietatik. Denetarik entzuten zen han: danborra, flauta, eta zakurraren zaunkaren antzeko hots eten bat ere bai.

— Hori da txistu egitea! —esan zuen Platonovek.

Txitxikov barrez hasi zen.

— Jakina, horrela jaten duenak ez du aspertzeko denborarik —jarraitu zuen Platonovek—, berehala lokartzen da eta.

— Hala da, bai —esan zuen Txitxikovek laxoki. Inoiz baino txikiago zeuzkan bere begi txikiak—. Dena dela, barkatuko didazu, baina ez dut ulertzen nolatan aspertu ahal den jendea. Aspertzeari aurre egiteko bide asko daude.

— Esaterako?

— Jende gazteak aukera asko ditu! Dantza egin, musika-tresnaren bat jo..., edo ezkondu.

— Norekin? Esadazu!

— Inguru hauetan ez al dago ezkongai on eta aberatsik?

— Ez.

— Orduan, bilatu beste nonbait.

Hori esan bezain laster, berebiziko ideia bat jaio zitzaion burura Txitxikovi. Handitu egin zitzaizkion begiak.

— Hauxe irtenbide ederra bururatu zaidana! —esan zuen, Platonovi begietara so.

— Zein, gero?

— Bidaiatzea!

— Eta nora joango naiz?

— Beste zereginik ez baduzu, etorri nirekin —
esan zuen Txitxikovek, eta bere artean pentsatu,
Platonovi begira: «Ondo legokek: gastuak erdi
bana egin genitzakek, eta kalesaren konponke-
ta, berriz, berak ordainduko likek».

— Nora joango zara, bada?

— Nora? Oraingo ez noa nik nahi nukeen
tokira, beste batek agindutakora baizik. Betris-
txev jenerala lagun mina dut eta, nolabait esate-
ko, baita babesle ere. Senide bat ikustera joate-
ko eskatu dit... Jakina, senideak senide, bidaia
horrek, neurri batean behintzat, badu interesik
niretzat ere, nolabait esatearren: mundua ikusi-
ko dut, askotariko jendea ezagutuko dut, eta
hori, nolana ere, liburu bizi baten antzekoa da,
bigarren jakintza bat.

Pentsakor geratu zen Platonov.

Txitxikovek, bitartean, honela zioen bere
artean: «Ondo legokek, bai! Agian, haren gain
utz nitzakek gastu guztiak. Agian, haren zaldiak
erabil genitzakek, nireak beraren herrixkan utzi-
rik. Gainera, kalesa ere herrixkan laga nezakek,
eta haren zalgurdian egin bidaia».

«Tira, zergatik ez egin bidalditxo bat? —zioen Platonovek bere kolkorako—. Agian, jostagarria izango duk. Hemen ez diat eginbeharrik; bestela ere, anaiaren ardurapean zegok etxaldea; horrek esan nahi dik ez dela inolako arazorik sortuko. Bai, zergatik ez egin bidalditxo bat?»

— Ondo baderitzozu —esan zuen goraki—, pare bat egun emango ditugu anaiaren etxean. Bestela ez dit alde egiten utziko.

— Atsegin handiz! Baita hiru ere, hala nahi baduzu.

— Ondo da, goazen! —esan zuen Platonovek, pizturik.

— Ederto! —esan zuen Txitxikovek, bostekoa emanaz—. Goazen!

— Nora?, nora? —galdetu zuen etxeko nagusiak, esnaturik eta begiak arranpalo biei begira—. Ez, jaunok, kalesari gurpilak kentzeko agindu dut, eta zure zaldia, Platon Mikhailtx, hemendik hamabost verstara dago orain. Ez, gaur hemen lo egingo duzue, eta bihar joango zarete, gosaldutik ondoren.

«Hara!», pentsatu zuen Txitxikovek. Platonovek ez zuen ezer esan, ondo baitzekien Petukh

oso egoskorra zela bere ohiturei zegokienez. Geratu beharra izan zuten.

Sari gisa, udaberriko arratsalde ohi ez bezalakoa igarotzeko aukera izan zuten. Etxeko nagusiak txango bat antolatu zien, errekan gora. Hamabi arraunlarik ispilu-antzeko aintziraren azal berdinetik eraman zituzten, kantuz eta hogeita lau arrauni eraginez. Aintziratik errekarairagan ziren. Amaigabea zen eta malda leunak zituen ertz bietan. Ura emeki zetorren, izur txikiak osatuz. Ontzian zihoazela, tea hartzen zuten, gozopilekin, eta behin eta berriro igarotzen ziren ibaian arrantzarako hedaturik zeuden sareen soken aldamenetik. Tea hartu baino lehen, [etxeko nagusiak] arropak erantzi eta jauzi egin zuen uretara, eta ordu erdi egon zen han, arrantzaleekin batera plisti-plasta eta zala-partaka, Foma Handiari eta Kuzmari garrasika, eta, eztarria urratzeraino oihukatu ondoren, neka-neka eginik eta izozturik irten zen uretatik, eta hain gogo biziz edan zuen tea, ezen inbidia ere ematen baitzuen. Bitartean, gorde egin zen eguzkia. Zeruko argitasuna geratu zen. Ozenago entzuten ziren oihuak. Arrantzaleen ordez, haur-

taldeak ikusten ziren nonahi, ur-ertzean bainatzen; apurka-apurka, atzean geratu zen barre-zantzoen eta urari emaniko zartakoen hotsa. Denek batera altxatzen zituzten arraunlariak hogeita lau arraunak, eta ontzia, txori arin baten antzera, ziztu bizian zihoan aurrera ispilu-antzeko ur-azal geldian. Mutil bat, sasoikoa eta neska bat bezain liraina, lematik hasita hirugarrena, kanta bat abesten hasi zen, goraki eta ahots garbiz; bost ahotsek bat egin zuten berarekin, eta gero beste seik, eta kanta Rus bezain azkengabe isurtzen zen; eta, belarriak eskuekin estaliz gero, bazirudien abeslariak berak ere zabaltasun mugagabe hartan galtzen zirela kantarekin batera. Halako giro berezi bat jabetu zen inguru guztiaz, eta Txitxikovek pentsatzen zuen: «Bai, egunen batean neure herrixka sortuko diat!». «Zer du ederrik abesti triste honek? —pentsatzen zuen Platonovek—, are gehiago goibeltzen dik arima.»

Ilunabarrean itzuli ziren. Ordurako errekek ez zuen islatzen zerua, eta arraunek ilunpetan jotzen zuten ura. Su txikiak atzematen ziren aintziraren ertzean. Jaikitzen ari zen ilargia lehorre-

ratu zirenean. Arrantzaleek hiru-oinekoetan arrain-zopa prestatzen ziharduten nonahi, zarboak eta bestelako arrain atzeman berriak egosiz. Etxean zen mundu guztia. Antzarak, behiak eta ahuntzak aspalditik zeuden gorderik, eta haiek harroturiko hautsa aspaldi jaitsia zen lurrera, eta abeltzainak, lana amaiturik, abeletxeetako atezarren alboan zeuden, esne-lapikoen eta arrain-zoparako gonbitaren zain. Argi entzuten ziren hor-hemenka mendekoen barbaroa eta zalaparta eta haien herrixkako zein urrunagoko beste bateko zakurren zaunka ozenak. Gora zihoan ilargia, argitzen hasi ziren ilunpeak; eta dena argitu zen azkenean, hala aintzira nola izbak ere; iraungi ziren suak; ikusten hasi zen tximinietako kea, ilargiaren argitan. Nikolasha eta Aleksasha garaño kementsu banaren gainean igaro ziren itzuli berrien aldamentetik, zein baino zein bizkorrago; ahari-aldra bat iragan balitz bezala harrotu zen hautsa haien atzean. «Bai, egunen batean neure herrixka sortuko diat!», pentsatzen zuen Txitxikovek. Berriro etorri zitzaizkon burura emazte gazte ernea eta Txitxikov txikiak. Nori ez zion gogoia berotuko horrelako arratsalde batek!

Afarian, asebeste eginik geratu ziren berriro. Pavel Ivanovitzek, lotokitzat eman zioten gelara sartu eta ohean etzan zenean, sabela haztatu, eta bere artean esan zuen: «Danborra ematen dik! Hemen ez lukek inongo alkaterik sartuko!». Halabeharrez, etxeko nagusiaren langela zegoen hormaz bestaldean. Horma oso mehea zenez, argi entzuten zen alboko gelan esaten zuten guztia. Etxeko nagusia, gosariaren aitzakian, biharamunean bazkari izugarri oparoa prestatzeko agindu zehatzak ematen ari zen, sukaldaria aurrean zeukala. Hori oturuntza prestatu nahi zuena! Hilei ere sabel-zorriak egiteko modukoa. Etxeko nagusiak klask egiten zuen mihiarekin eta ezpaineekin. Honelakoak baino ez ziren entzuten: «Erre hori, ondo gezatu beste hori!». Eta sukaldariak ahots zoliz esaten zuen: «Bai, jauna. Egin daiteke. Hala egingo dut».

— Pastela lau muturrekoa egin. Mutur batean gaizkatararen masailak eta kartilagoak sartu, beste batean arto beltzezko ahia, eta onddoak tipulatxoekin, eta arrain-hazi gozatuak, eta garunak, eta hik dakian hori guztia...

— Bai, jauna. Hala egingo dut.

— Alde batetik ondo xigorturik egon behar dik, eta bestetik, aldiz, gutxi erreta, ulertzen? Eta ondo egosi beheko aldetik, harro eta bigun utzi orea, zukuaz ondo busti dadin; ohartu gabe desegin behar dik ahoan, elurra bezala urturik, ulertzen?

«Deabruak daramala! —pentsatu zuen Txitxikovek, urduri—. Ez zidak lo egiten utziko!»

— Eta zerri-gatzagia ere egin. Izotz-zati bat ipini barruan, ondo puzturik gera dadin. Eta ondo maneatu gaizkata, ondo maneatu, zer edo zer erantsi, platera oparoagoa izan dadin! Esatera-ko, karramarroak eta arraintxo ondo xigortuak ipini inguru guztian, eta esperlano-okela xehatua tartekatu hor-hemen, eta onddoak, errefauak, tipulak azenarioak, babak..., txiki-txiki eginik dena; eta ez legokek txarto beste erraboil batzuk ere eranstea, ezta?

— Arbiak jar genitzake, edo erremolatxak —esan zuen sukaldariak.

— Arbiak eta erremolatxak jarri. Eta presta ezak zerbait errekiari laguntzeko...

— Loa galdu diat! —esan zuen Txitxikovek. Beste aldera jiratu, burua bururdiaren azpian

sartu, eta gorputz osoa estali zuen burusiaz, ezertxo ere ez entzuteko. Baina burusitik zehar etengabe aditzen zen: «Erre hori, egosi hura, ondo gezatu beste hori». Loak hartu zuenean, indioilarrak ari zen.

Biharamunean, hainbeste jan zuten gonbidatuek, ezen Platonov ez baitzen gai izan zaldi gainean ibiltzeko; Petukhen korta-mutilak eraman zuen haren garañoa. Kalesara igo ziren. Zakur mutur-handia nagiki abiatu zen kalesaren atzetik: bete-bete eginik zegoen hura ere.

— Hau gehiegizkoa da! —esan zuen Txitxikovek patiotik irten zirenean—. Nazkagarria! Zu, Platon Mikhailitx, ez zaude ondoezik? Eta zer gertatu zaio kalesari? Lehen izugarri eroso zen, eta gogaikarri bilakatu da bat-batean. Petrushka, gehiegi zamatu duk, ergel horrek! Kutxak zeudek bazter guztietan!

Platonek irribarre txikia egin zuen.

— Nik azalduko dizut zer gertatu den —esan zuen—. Piotr Petrovitxek jaki mordoa eman digu, biderako.

— Hala da, bai —esan zuen Petrushkak, gida-aulkian atzerantz jiraturik—; kalesa denetariko pate eta pastelez ondo hornitzeko agindu du.

— Halaxe da, Pavel Ivanovitx! —esan zuen Selifanek pozik, gida-aulkian atzerantz jiraturik—. Oso nagusi jatorra da. Lurjabe eskuzabala benetan! Xanpaina bidali digu, kopa bana. Eta baimena eman digu mahai gainean gelditu dena jateko. Bai jaki gozoak, oso mokadu finak! Inon ez dut ikusi hain jaun adeitsurik.

— Ikusten?, pozik utzi du mundu guztia —esan zuen Platonovek—. Eta, orain, galderatxo bat egin nahi nizuke: baduzu denborarik hemen-dik hamar verstara dagoen herrixka batera inguratzeko? Gustatuko litzaidake agur esatea arrebari eta koinatuari.

— Nola ez! Atsegin handiz —esan zuen Txitxikovek.

— Ez zaizu damutuko, koinatua gizon miragarria da.

— Zer dela eta? —galdetu zuen Txitxikovek.

— Rus osoko lurjaberik onena da. Oso egoera kaskarrean zeuden lur-sail batzuk erosi zituen orain dela hamar bat urte. Hasieran, hogeita mila

errubloko etekina besterik ez zien ateratzen, baina ezin hobeto gobernatu du etxaldea, eta orain berrehun mila ematen dizkio.

— Itzal handiko gizona da inondik ere! Eredutzat erakutsi beharko liokete mundu guztiari horrelako gizon baten bizitza. Gogo onez, oso gogo onez egingo dut haren ezaupidea. Nola du abizena?

— Kostanjoglo.

— Eta izena eta patronimikoa?

— Konstantin Fiodorovitx.

— Konstantin Fiodorovitx Kostanjoglo. Atsegin handiz egingo dut haren ezaupidea. Irakasbide ederra izango da horrelako gizon bat ezagutzeari.

Eta Kostanjoglori buruzko galderak egiten hasi zen Txitxikov, eta Platonovengandik berari buruz jakin zuen guztia zinez miresgarria gertatu zen.

— Begira, hemen hasten dira haren lurrak —esan zuen Platonovek, inguruko zelaiak seinatuz—. Oraintxe ikusiko duzu zer-nolako desberdintasuna gainerakoan aldean. Gidaria, ezkerretara jo hemen! Ikusten duzu baso gazte hori?

Bada, berak landatua da. Beste edonoren lurretan gutxienez hamabost urte beharko zituen horrela hazteko; koinatuaren lurretan, ordea, zortzi baino ez. Begira, hementxe amaitzen da basoa. Hor soroak hasten dira, eta berrogeita hamar desiatina harantzago beste baso bat dago, koinatuak landatua hura ere, eta harantzago beste bat. Begiratu soroei, beste edonorenak baino askoz ere joriagoak dira.

— Bai, ikusten dut. Eta nola lortzen du hori guztia?

— Galdetu berari, ikusiko duzu nola [...] Oso jakintsua da, inon ez duzu aurkituko hain gizon jakintsurik. Badaki landare bakoitza zer-nolako lurra behar duen, bakoitzaren alboan zer landatu behar den, labore bakoitzak zein baso-motatik hurbil erein behar den. Gainerako guztioi lurra pitzatzen zaigu lehorteetan, berari ez. Badaki kalkulatzeko lurra zenbateko hezetasuna behar duen eta zenbateko tartea utzi behar den zuhaitz batetik bestera. Gauza bakoitzak bizpahiru eginkizun betetzen ditu hemen: basoak, esaterako, zura ematen du, itzal egiten du eta

lurra ongarritzen du orbela. Eta horixe bera gertatzen da gauza guztiekin.

— Bai gizon miragarria! —esan zuen Txitxikovek, jakinminez soroei begira.

Ohiz kanpoko ordena atzematen zen nonahi. Basoak hesiz inguraturik zeuden; ukuilu ugari ikusten ziren hor-hemen, leku egokietan eraikiak eta oso egoera onean denak; galsoroak izugarri garaiak ziren. Oparotasuna eta joritasuna ziren nagusi alderdi guztietan. Berehala igartzen zen lurjabea ezinago trebea zela. Muino batera igota, herri handi bat [ikusiz zuten] beste aldean, hiru mendixkatan sakabanaturik. Dena zen han aberatsa: bide maiz ibiliak, izba sendoak; non edo non telegaren bat ikusiz gero, sendoa eta berriberria zen telega hura; zaldiren bat begiztatuz gero, ederra eta gizona zen zaldi hura; abelgorriak aukera-aukerakoak ziren. Mujiken zerriek berek ere aitoren semeak ziruditen. Nabari zen ezen, kankak dioen bezala, hango nekazariak zilarra metatzen zutela aitzurraz. Han ez zegoen ingeles-erako parkerik, ez pergolarik, ez forma bitxiko zubirik, ez kale zabalik etxeen aurrean. Izbetatik jauretzerainoko tarte guztia lantegiz

josirik ageri zen. Teilatuan kristalezko begiratoki handi bat zegoen, ez ikuspegiak miresteko, ezpada nekazarien lanak ikuskatzeko, mujik bakoitza non zegoen eta zertan ziharduen ikusteko.

Iritsi ziren jauretxera. Ugazaba ez zegoen etxean; emazteak egin zien harrera —Platono-ven arrebak, alegia. Aurpegiera errusiar-errusiarra zuen, ilehoria eta azalmintz zurikoa zen, neba bezain ederra, eta hura bezain soraioa. Bazirudien gutxi kezkatzen zela jendea kezkatu ohi duten arazoez: beharbada, senarraren lehia oroirensleak ez zion ezertaz arduratzeko aukerarik uzten; edo, beharbada, haren izaerari berari zor zitzaion hori, litekeena zen gizabanako gogotatsu horietakoa izatea, zeren eta, horrelako jendea, buruargitasuna, sentimenduak eta pentsamenduak dituen arren, erdizka bizi da, begiak erdi itxirik begiratzen dio bizitzari, eta, grina eta gatazka lotsagarriak ikusirik, esaten du: «Utikan! Amorraturik zeudek guztiak, ergelak halakoak! Haientzat kalte!».

— Egun on, arreba! —esan zuen Platono-vek—. Non da Konstantin?

— Ez dakit. Aspaldi behar zuen hemen. Oso lanpeturik dabil, eta, nonbait, berandutu egin zaio.

Txitxikovek ez zion [arretarik] jarri etxeoandreak. Gizon paregabe haren bizitegia aztertzea interesatzen zitzaion. Uste zuen jabearen ezaugarri berberak kausituko zituela etxean, hala nola maskorrari erreparaturik jakin baitaiteke nolako ostra edo barraskiloa bizi den barruan. Baina ez zen horrelakorik gertatu. Gelek ez zuten inolako ezaugarri berezirik; handiak ziren, besterik ez. Ez zegoen ez freskorik ez margolanik hormetan, ez brontzezko irudirik mahaietan, ez apalik portzelanekin eta katiluekin, ez murkorik, ez lorerik, ez estatuatxorik; hitz batean, biluzik zeuden. Piano arrunt bat zegoen, bazter batean eta hautsez beterik: nabari zen etxeo nagusia gutxitan jartzen zela haren aurrean. Egongelan [zabalik zegoen etxeo nagusiaren langelara ematen zuen ate bat]; baina gela hura ere zeharo arrunta eta biluzia zen. Argi zegoen nagusia atsedean hartzera soilik joaten zela etxera: areago zuen atsedentoki ezen ez bizileku; bistakoa zen bere egitasmoak hausnartzeko ez

zuela behar besaulki bigunekiko langelarik edo bestelako erosotasun lasaigarririk, eta berarentzat bizitzea ez zela sutondoan amets liluragarrietan murgildurik egotea, lanean buru-belarri aritzea baizik. Ideiak bat-batean sortzen zitzaizkion, jardunean, eta gauzatu egiten zituen agertu bezain laster, inon idatzi beharrik gabe.

— Horra hor!, badator, badator! —esan zuen Platonovek.

Txitxikov ere lasterka hurbildu zen leihora. Berrogei urte inguruko gizon bat zetorren atarirantz. Beltzarana eta bizkorra zen, eta arkumelarruzko kapelua zeraman buruan. Ezker-eskuin, txanoa erantzirik, herritar xehe bi zetozen, hizketan eta zerbaitetaz eztabaidatzen [berarekin]. Batak mujik arrunta zirudien; bestea, berriz, herrian iragaitzaz zegoen kulak bat zen inondik ere, beroki labur urdina zeraman soinean eta maltzurra ematen zuen.

— Mesedez, jauna, onar ezazu ekarri dizudana! —zioen mujikak, apaltasunez erreguka.

— Ezetz, adiskidea, makina bat aldiz esan dizuet guztioi gehiagorik ez ekartzeko. Dagoene-

ko ez zeukaat hainbeste oihal gordetzeko lekurik.

— Baina zuk, Konstantin Fiodorovitx jauna, asmatuko duzu nola baliatu. Mundu osoan ez dago zu bezain gizon argirik. Etekina ateratzen diezu gauza guztiei. Onar ezazu, mesedez.

— Nik, adiskidea, eskuak behar ditiat; ekarri langileak, ez oihalak.

— Ez duzu langile faltarik izango. Nekazari guztiok etorriko gara lanera: inork ez du gogoratzten hain uzta txarrik izan denik inoiz, ogirik ere ez dugu. Zuretzat lan eginez ordainduko dizkizugu zorrak. Jainkoaren izenean, sinets ezazu gogotik lan egingo genukeela. Bestela, gureak egin du. Zurekin edonork ikasten du, Konstantin Fiodorovitx. Azken aldiz eskatzen dizut, onar ezazu ekarri dizudana, mesedez.

— Lehenago ere esan didak azken aldia zela, eta hemen hago berriro, lelo berberarekin.

— Hau azkenengo aldia da, Konstantin Fiodorovitx, benetan. Zuk ez badidazu hartzen, inork ez dit hartuko. Onar ezazu, jauna.

— Tira, ondo zegok, honaino ekarri duanez, hartu egingo diat, baina errukiz bakarrik, bidaia

alferrikakoa izan ez dadin. Baina gehiagorik ekartzen badidak, ez diat hartuko, nahiz eta hiru aste egon alamera ematen

— Zure esanera, Konstantin Fiodorovitx; lasai egon, ez dizut gehiagorik ekarriko. Bihotz-bihotzez eskertzen dizut.

Alde egin zuen mujikak, poz-pezik. Esanak esan, itzuliko zen.

— Mesedez eskatzen dizut, Konstantin Fiodorovitx, beheratu pixka bat prezioa —zioen beste aldetik beroki labur urdineko kulakak.

— Hasieratik jakinarazi diat. Ez diat gogoko merke-lehian aritzea. Bahitura-etxeari ordaintzeko epea amaitzen zaien egunean bertan joaten zarete lurjabe askorengana. Bada, berriz esango diat: ni ez nauk horietakoa. Ondo asko ezagutzen zaituztet. Zordunen zerrendak dituzue, eta badakizue lurjabe bakoitzak noiz kitatu behar dituetz bihurturik—, hori, inondik ere, nagusi jauna da, Koshkariov koronela.— Zergatik?— Bada, azala besteek baino zuriagoa duelako, eta gorputza, berriz, agurgarriro gizona, nagusi jaunei dagokien bezala. Bitartean, argiago bilakatu ziren oihuak. Jaun-angurria garrasika ari zen,

arrapaladan eta ozenki:— Denis, eman soka Kozmari! Kozma, hartu Denisek daukan soka-muturra! Foma Handia, Foma Txikia dagoen alderantz bultzatu! Eskuinetara, eskuinetara! Geldi, geldi!, deabruak eramango ahal zaituzte! Neu atzeman nkaren atzeko sakelan sartu zuen, zenbatu gabe.

«Jum —pentsatu zuen Txitxikovek—, sudurzapia balitz bezala!»

Minutu bat geroago, egongelako atean azaldu zen Kostanjoglo.

— Hemen haiz, ene anaia! —esan zuen, Platonov ikusirik. Besarkatu, eta musuak eman zizkioten elkarri. Platonovek Txitxikov aurkeztu zuen. Txitxikovek, begirune handiz etxeko nagusiarengana hurbildurik, musu eman zion masailan, eta hark musua itzuli zion.

Kostanjogloren aurpegia miragarria zen oso. Ezagun zuen hegoaldean jaioa zela. Iluna eta sarria zuen buruko nahiz bekainetako ilea, eta distira bizia zerion bi begietatik. Haren aurpegierak buruargitasuna erakusten zuen imintzio gutzietan, eta nabari zitzaion ez zela inola ere gizon soraioa. Baina, guztiarekin ere, zerbait zakarra

eta gozakaitza atzematen zitzaion horrekin nahasirik. Zehaz-mehatz, zein naziotakoa zen? Rusen badira jatorriz errusiarrak ez diren errusiar asko, zeinak, hala ere, errusiarrak baitira arimaz. Kostanjoglo ez zen kezkatzen bere jatorriaz, uste baitzuen axola gutxiko kontua zela eta ez zuela inolako eraginik etxaldea gobernatzeari zegokionez. Gainera, errusiera beste hizkuntzarik ez zekien.

— Badakik, Konstantin, zer otu zaidan? — esan zuen Platonovek.

— Zer?

— Bidaia bat egitea hainbat probintzian barrena; agian, goibeltasuna sendatuko zidak horrek.

— Bai, litekeena duk.

— Pavel Ivanovitxekin joango nauk.

— Ederto! Eta nora joateko asmoa duzue? — galdetu zion Kostanjoglok, adiskidetsuki, Txitxikovi.

— Egia esan —jakinarazi zion Txitxikovek, burua alde batera okerturik eta eskua besaulkiaren besoan bermaturik—, oraingoz ez noa nik nahi nukeen tokira, beste batek agindutakora

baizik. Betristxeve jenerala lagun mina dut eta, nolabait esateko, baita babesle ere. Senide bat ikustera joateko eskatu dit. Jakina, senideak senide, bidaia horrek, neurri batean behintzat, badu interesik niretzat ere; batetik, esan beharrik ez dago onuragarria izan daitekeela nire odoluzkientzat, eta bestetik, berriz, mundua ikusiko dut, askotariko jendea ezagutuko dut, eta hori, nolana ere, liburu bizi baten antzekoa da, beste jakintza bat.

— Bai, gauza ona da noizean behin beste leku batzuetara joan-etorri bat egitea.

— Arrazoi osoa duzu —onartu zuen Txitxikovek—, gauza ona da, bai horixe. Bestela ikusiko ez zenituzkeen gauzak ikusten dituzu; bestela ezagutuko ez zenukeen jendea ezagutzen duzu. Zenbait lagunetik solasek urrea balio dute. Irakatsiezadazu, Konstantin Fiodorovitx agurgarria, zuregana jotzen dut aholku eske. Zure hitz gozoen zain naukazu, mana balira bezala.

Kostanjoglo aztoratu egin zen.

— Zer, baina?... Zer irakatsi ahal dizut? Nik, dirurik ez-eta, ez dut eskola handirik izan.

— Jakinduria, jaun agurgarri hori, jakinduria! Jakinduria etxaldea zure antzera gobernatzeko; etekin seguruak ateratzen asmatzeko, zuk bezala; ez alegiazko, baizik eta egiazko ondasunen jabe izateko, zu bezala, eta, horrela, herritar oro-ren eginbeharra bete eta aberkideen begirunea irabazteko.

— Badakizu zer egin dezakezun? —esan zuen Kostanjoglok—. Gera zaitez egun bat nire etxean. Etxaldea nola gobernatzen dudan erakutsiko dizut, nahi dituzun azalpen guztiak emango dizkizut. Ikusiko duzunez, hemen ez dago inolako jakinduriarik.

— Bai, neba, gera zaitez egun bat gurekin —esan zuen etxekoandreak, Platonovenganantz jiraturik.

— Nik ez dut batere eragozpenik —esan zuen, axolagabe—. Zer diozu zuk, Pavel Ivanovitx?

— Ni ere atsegin handiz geratuko nintzateke... Baina kontua da Betristxev jeneralaren senide batenera joan behar dudala. Koshkariov izeneko koronel bat da...

— Baina gizon hori..., badakizu?, ergela eta eroa da.

— Zerbait entzun dut horri buruz. Nire esku balego, ez nintzateke joango. Baina nola Betris-txev jenerala adiskide mina dudan, eta, nolabait esatearren, baita babesle ere... ez litzateke bidezkoa izango.

— Gauzak horrela, badakizu zer egin dezakezun? —esan zuen [Kostanjoglok]—. Zoaz oraintxe bertan harengana. Prest daukat kalesa bat. Hamar versta [ere ez] dago hemendik haren etxera, aitaren batean iritsiko zara. Afaltzeko ordua baino lehen hemen izango zaitugu atzera.

Txitxikovek pozez onartu zuen proposamena. Ekarki zioten kalesa, eta bertantxe abiatu zen. Zeharo txunditurik utzi zuen koronelak, bizitza osoan inoiz egon zen baino txundituago. Koronelak dena zuen ohiz kanpokoak. Haren herrixkan nahaste-borrastea zen nagusi: eraikuntzak hor, zaharberitze-lanak han, karea, adreiluak eta habeak kale guztietan pilaturik. Etxe batzuek Estatuaren bulegoen antza zuten. Haietako batean honakoa zegoen letra urrekaraz idatzirik: «Nekazaritzako lanabesen biltegia»; beste

batean, berriz: «Kontugintza-bulego nagusia»; hirugarren batean: «Herrixkako aferetarako batzordea»; «Nekazariantzako Eskola Normala», zer ez zegoen han! Txitxikovek pentsatu zuen ez ote zen probintziako hiriburura iritsi. Koronela bera ere izugarri arrandiatsua zen. Aurpegi eratsua zuen, hiruki baten antzekoa. Belarrondoko bizarrak luzeak eta zuzen-zuzenak ziren; ilea, orrazkera, sudurra, ezpainak, kokotsa..., bazirudiren prentsaturik eduki zuela dena ordu arte. Gizon saiatuen antzera hasi zen hizketan. Hasieratik bertatik, kexatzen hasi zen inguruko lurjabeen ezjakintasunaz eta egiteko zituen lan itzelez. Oso abegi samur eta adeitsua egin zion Txitxikovi, haren uste ona irabazi, eta plazer handiz azaldu zion zein neketsua eta latza gertatu zitzaion etxaldea orduko egoera onera ekartzea; zein zaila gertatu zitzaion mujik arrunt haiei ulerraraztea badirela indar goi-goiko batzuk gizabakoa jakintasunera, kulturara eta artera bultzatzen dutenak; mujik errusiarrak hain ezikasiak izanik, zein luzaz borrokatu behar izan zuen haiekin galtza alemaniarrak jantz zitzaten eta, neurri batean behintzat, gizakiaren duintasun

gailenaz ohar zitezen; gogotik saiatu arren oraindik ez zuela lortu emakumeak gerruntzea janztera behartzerik, eta bitartean, Alemanian —non errejimentuarekin izan baitzen 14. urtean—, errotari arrunt baten alabak pianoa jotzen zekie-la, frantsesez mintzatzen zela eta belaun eginez agurtzen zuela. Arranguraz kontatu zion zein ezjakinak ziren inguruko lurjabeak; zein gutxi arduratzen ziren beren mendekoez; nola barre ere egiten zioten azaltzen saiatzen zenean zein premiazkoa zen, etxaldea ondo gobernatzeko, idazkaritzak, bulegoak eta are batzordeak ere eratzea, horrela lapurretak eragozten baitziren eta gauza guztien berri zehatza jakiten baitzen, eta eskribauek, administratzaileek eta kontulariek unibertsitateko ikasketak izan behar zituztela gutxienez; nola, egundoko ahaleginak egin arren, ezin zuen lortu gainerako lurjabeei ulerraraztea etxaldeen etekin handiagoak emango lituzketela, baldin eta nekazari bakoitza, heziketari esker, gai izango balitz tximistorratzari buruzko liburuak irakurtzeko lurra goldatzen zuen bitartean.

Txitxikovek, hori guztia entzunik, [pentsatu zuen]: «Ez diat uste horretarako astirik izango dutenik. Nik bazekiat idazten eta irakurtzen, eta oraindik ez diat *Vallière-ko dukesa* irakurri».

— Izugarria da haien ezjakintasuna! —esan zuen azkenean Koshkariov koronelak—. Erdi Aroko gizonak baino ezjakinagoak dira, eta ez dago laguntzeko modurik... Sinetsidazu, ez dago! Baina nik guztiei lagun niezaieke; nik badakit zein den irtenbidea, irtenbide bakarra.

— Zein, gero?

— Errusiar guztiak alemaniarren antzera janztea, besterik ez. Hori eginez gero, ez dut inolako zalantzarik ezin hobeto joango litzatekeela dena: gora egingo lukete zientziek eta loratu egingo litzateke merkataritza, urrezko aroa hasiko litzateke Errusian.

Adi-adi begiratu zion Txitxikovek, eta pentsatu: «Bazidurik honekin ez dagoela tentuz ibili beharrik». Hitz gutxitan eta itzulingururik gabe, dena azaldu zion koronelari: halako eta halako arimen premia zuela eta legezko eroste-agiria egin beharko zutela.

— Zure hitzak ondo ulertu baditut —esan zuen koronelak, batere larritu gabe—, eskabide bat egin didazu, hala da?

— Bai horixe.

— Orduan, idatziz aurkeztu behar duzu. Orotariko eskabideen bulegora joango da. Orotariko eskabideen bulegoak data ezarri eta niri helaraziko dit. Nik, berriz, herrixkako aferetarako batzordearen esku utziko dut, eta han egingo dituzte egin beharreko txosten eta ziurtagiri guztiak. Amaitzeko, batzordeburu nagusiak, agiri guztiak aztertutakoan, erabakia hartuko du ahalik eta eperik laburrenean.

Txitxikov harri eta zur geratu zen.

— Baina —esan zuen—, ikaragarri luze joko du horrek.

— Ah! —esan zuen koronelak, irribarrez—. Hain zuzen ere, horixe da burokraziaren onuretako bat! Luze samar joko du, bai, baina ezer ez zaigu oharkabean pasatuko, kontuan izango ditugu xehetasun guzti-guztiak.

— Baina, mesedez... Nola azaldu idatziz horrelako kontu bat? Oso kontu berezia da... Arima horiek, nolabait, hilik daude...

— Oso ondo. Idatz ezazu arimak, nolabait, hilik daudela.

— Baina nolatan idatziko dut hilik daudela? Hori ezin da idatziz jaso. Hilik daude, baina bizirik daudela eman behar du.

— Ondo da. Orduan, hau idatzi: «Beharrezkoa da, edo ezinbesteko baldintza da, bizirik daudela ematea».

Zer egin koronelarekin? Batzorde eta bulego haiek guztiak zertan ziren ikustera joatea erabaki zuen Txitxikovek; eta aurkitu zuenak, harrigarria izateaz gain, ulermenaren muga guztiak gainditzen zituen. Orotariko eskabideen bulegoa ate gaineko idazkunean bakarrik existitzen zen. Bulegoburua —gelazain ohia bera— herrixkako aferetarako batzorde sortu berrira aldatua zuten. Timoshka eskribauak bete zuen haren tokia, baina administratzaileari buruzko ikerketa bat egitera bidalia zuten, administratzailea mozkorra, alproja eta lotsagabea zelako. Funtzionariorik batere ez zegoen han.

— Zer da hau, gero!... Ezer lortuko al dugu hemen? —esan zion Txitxikovek bere laguntzaileari. Izan ere, koronelak zeregin berezietarako

funtzionario bat jarria zuen haren esanera, gidari gisa.

— Ez, ez dugu ezer lortuko —esan zuen gidariak—, nahaskeria itzela dugu! Hemen, eraikuntza-batzordeak agintzen du gauza guztietan, jendea bere eginbeharrak bertan behera uztera behartu eta gogoak ematen dion tokira bidaltzen du. Eraikuntza-batzordea da probetxuzko leku bakarra hemen. —Nabari zitzaion ez zegoela oso pozik eraikuntza-batzordearekin—. Hemen ziria sartzen diote denek nagusi jaunari. Dena behar bezala dabilela uste du berak, baina ustela du uste hori.

«Jakinarazi behar zioat hau guztia», pentsatu zuen Txitxikovek, eta, koronelarengana itzulirik, esan zion hankaz gora zegoela dena eta ezin izan zuela ezer lortu, eta eraikuntza-batzordeak ero-eroan lapurtzen zuela.

Halako haserre prestutasunezko bat jabetu zen koronelaz. Papera eta idazluma hartu, eta zortzi galdera zorrotz idatzi zituen berehala: nork eman zion eraikuntza-batzordeari haren eskumendean ez zeuden funtzionarioez nahierara baliatzeko eskubiderik? Nolatan onar zeza-

keen batzordeburu nagusiak bulegoburua ikerketa bat egitera joatea bere lekuan ordezkorik utzi gabe?, eta zergatik herrixkako aferetarako batzordeak ez zuen ezer egiten orotariko eskabideen bulegoa existitu ere ez zela egiten ikusirik?

«A zer iskanbila sortuko den!», pentsatu zuen Txitxikovek, agurtzeko imintzioak egiten hasteaz batera.

— Ez, ez dizut alde egiten utziko. Gehienez ere bi ordu barru, gogobeterik egongo zara. Unibertsitateko ikasketak amaitu berriak dituen gazte baten esku utziko dut zure eskabidea. Zuk, bitartean, liburutegian itxaron. Behar duzun guztia aurkituko duzu: liburuak, papera, idazlumak, arkatzak; denetarik dago. Gozatu, gozatu horretaz guztiaz! Jaun eta jabe izango zara hor.

Horrela mintzo zitzaiola, liburugelaraino lagundu zion Koshkariovek. Areto izugarri handia zen, behetik goraino liburuz betea. Animalia diseatuak ere bazeuden. Liburuak askotariko gaiei buruzkoak ziren: basozaintza, abeltzaintza, zerri-hazkuntza, baratzezaintza; milaka aldizkari, eskuliburu eta egunkari ere bazeuden, zeinek, besteak beste, zaldi-hazkuntzan eta natur zien-

tzietan eginiko azken aurrerapen eta hobekuntzen berri ematen baitzuten. Honelako izenburuak zituzten: *Zerri-hazkuntza zientzia gisa*. Iku-sirik liburu haiek ez ziotela [denbora] atseginez igarotzeko aukerarik emango, beste apalategi batera jo zuen. Kearen beldurrez, sura ihesi. Hango liburu guztiak filosofiari buruzkoak ziren. Haietako batek honako izenburu hau zuen: *Filosofiaren eta zientziaren arteko lotura*. Sei tomo ikusi zituen ilaran jarririk, idazpuru honekin: *Gogamenaren teoriarako prestakuntza-sarrera, haren orokortasuna, osotasuna eta mamia kontuan izanik eta gizarte-produktibitatearen adarkatze bikoitzaren jatorri organikoen ulerkuntzara aplikaturik*. Edozein liburu edozein orrialdetatik zabaldu, eta honako hitzak aurkitzen zituen Txitxikovek: adierazpena, garapena, abstraktua, baitaratzea, hermetismoa, eta deabruak zekien zer gehiago. «Ez, hau ez duk niretzat», esan zuen Txitxikovek bere artean, eta berehala joan zen hirugarren apalategi batera, non artearen adar guztiei buruzko liburuak baitzeuden. Irudi mitologiko lizunez hornituriko liburu mardul bat hartu, eta ikuskatzen hasi zen. Gustukoa gertatu

zitzaion. Tarteko [adineko] gizon ezkongabeek gogoko izaten dituzte horrelako irudiak. Diotenez, azken garai honetan gustatzen hasi zaizkie gustua balleta ikusiz lantzen duten zahar horiei ere. Liburu hori ikuskatzen amaitutakoan, haren antzeko beste bat hartu zuen Txitxikovek, eta Koshkariov koronela agertu zen orduan, pozarren eta eskuan paper bat zeukala.

— Eginda dago dena, eta ezin hobeto gainera. Beste guztiek adina daki gazte horrek. Hori dela eta, beste guztien gainetik jarriko dut: mailarik goreneko kargu berezi bat eman eta lehen-dakari izendatuko dut. Hona zer idatzi duen...

«Jainkoari eskerrak», pentsatu zuen Txitxikovek, eta belarriak zabaldu zituen. Koronela irakurtzen hasi zen:

— «Jaun ohoragarri horrek nire esku utzi duen mandatura arretaz aztertu dudalarik, ohore handiz adierazten dut honakoa: 1) Pavel Ivanovitx Txitxikov kolejio-kontseilari jaun txit pres-tuaren eskabidean berean oker bat dagoke: erroldaturik dauden arimak behar dituela dio, baina, ustekabeen, hilak ere sartzen ditu haien artean. Inondik ere, ulertu beharra dago okertu

egin dela eta, horrenbestez, ez dela ari jadanik hil diren arimez, hilzorian daudenez baizik; izan ere, ez baitago hilik erosterik. Hala dio logikak berak. Dagoeneko ez direnez, nolatan erosiko ditu? Ezagun du ez duela oso ondo menderatzen hizkuntzaren antzea...» —Koshkariovek, horra iritsirik, une batez isildu, eta esan zuen—: Ziritxo polita sartu dizu hemen bihurri horrek. Nolanahi ere, honezkero ohartuko zinen nolako trebetasunaz erabiltzen duen idazluma, estatu-idazkarien idazkera bera du; eta oraindik ez ditu amaitu ikasketak, hiru urte bakarrik daramatza unibertsitatean. —Irakurtzen jarraitu zuen Koshkariovek—: «... Ezagun du ez duela oso ondo menderatzen hizkuntzaren antzea..., zeren eta, izan ere, arima *hilak* aipatzen baititu, eta, giza-zientziak ikasi dituen edonork ondo asko dakienez, arima hilezkorra da. 2) Erroldako arima guztiak, ez bakarrik hilzorian edo hiltzear edo, eskatzaileak oker dioen bezala, hilik daudenak, baizik eta guztiak, den-denak, bahiturik daude; behin ez ezik, bi aldiz ere bahiturik daude denak, batere salbuespenik gabe, eta, gainera, ehun eta berrogeita hamarna errubloko gainordainarekin, Gur-

mailovka herrixka txikikoak izan ezik, Predistxev lurjabeak auzitan sartu baitu herrixka hori, eta, horrenbestez, hango arimak ezin dira ez saldu eta ez bahituran jarri.»

— Eta zergatik ez didazu lehenago jakinarazi hori guztia? Zergatik geldiarazi nauzu hemen alferrik? —esan zuen Txitxikovek, haserre.

— Nolatan jakin nezakeen lehenago horren berri? Hauxe dugu burokraziaren onuretako bat. Orain argi eta garbi dago dena, esku-ahurrean idatzirik balego bezala.

«Ergela halakoa, astakirtena alaena, babo arraioa! —zioen Txitxikovek bere kolkorako—. Liburu mordoa eduki bai, baina zer ikasi du haietan?» Manera onak eta gizalegea alde batera utzirik, txanoa hartu eta etxetik irten zen. Kalesa prest zegoen, gidaria alboan eta zaldiak askatu gabe: idatziz eskatu beharko zuen zaldientzako oloa, eta biharamunera arte ez zen hartuko erabakia. Txitxikoven zakarkeria eta adeitasunik eza gorabehera, Koshkariovek izugarri adeitsu eta samur jokatu zuen. Hark nahi ez arren, indarrez tinkatu zion eskua, eta, bihotzaren kontra estuturik, eskerrak eman zizkion etxaldearen

administrazioaren benetako egoera ikusarazi ziolako; esan zion ezinbestekoa dela noizean behin kargu hartzea eta errieta egitea, zeren, bestela, zabartu egiten baitira mendekoak, eta herrixkaren zuzendaritzaren erresorteak, berriz, herdoildu eta ahuldu; esan zion, orobat, ideia bikaina bururatu zitzaiola gertaera horri esker: batzorde berri bat eratuko zuen, zeinari eraikuntza-batzordea zaintzeko batzordea deituko baitzion, eta aurrerantzean inor ez zela gehiago ausartuko lapurretarik egiten.

«Astakiloa, inozoa ez bestena!», pentsatu zuen Txitxikovek bide osoan, haserre eta gogaiturik. Iritsi zenerako, izarrez josirik zegoen zerua. Gau iluna zen. Argitxoak ikusten ziren herrixkako etxeetan. Atarira hurbildu zenean, leihotik ikusi zuen mahaia afarirako ipinita zegoela jadanik.

— Zergatik berandutu zaizu hainbeste? —galdetu zion Kostanjoglok atean agertu zenean.

— Zertaz jardun duzue hain luzaz? —esan zuen Platonovek.

— Lur jota nago! —esan zuen Txitxikovek—. Hain gizon ergelik sekula ikusi gabea nintzen.

— Hori ez da kezkatzekoa! —esan zuen Kostanjoglok—. Koshkariov fenomeno kontsolagarria da. Beharrezkoa dugu, hainbeste lurjabe buruargiren zentzugabekeriak agerian gera dai-
tezen, karikatura batean bezala. Batzordeak eta bulegoak sortu dituzte, eta lantegiak, eta fabri-
kak, eta eskolak, eta deabruak daki zer. Haien etxaldeek erresuma ematen dute! Nolatan atse-
gin zaizuen hori, horra nire galdera. Lurjabe horietako batek, esaterako, alor ederrak ditu eta nekazariak behar ditu lurra lantzeko, baina, horren orde-
z, kandela-fabrika bat sortu du eta kandelak egiten dakiten maisuak ekarri ditu Lon-
dresetik, merkatari ziztrin bihurtu da! Eta bada beste bat are ergelagoa: zer eta sedazko oihalak egiteko fabrika bat sortu du!

— Baina hik ere badituk fabrikak! —oharrara-
zi zion Platonovek.

—Bai, baina nola sortu dira? Berez. Artile asko pilatu zitzaidan, ez neukan non saldu, eta oihalak ehuntzen hasi nintzen, oihal lodi eta arruntak. Oso merkeak direnez, ugari erosten dizkidate azoketan. Beste adibide bat jarriko dizut: arrantzaleak nire ibaiertzera arrainen

ezkatak botatzen aritu dira sei urtez; zer egin nezakeen hainbeste ezkatarekin? Egosi, eta kola egiteari ekin nion, eta berrogei mila errublo irabazi. Eta horrela jokutzen dut nik gauza guztiekin.

«Mila deabru! —pentsatu zuen Txitxikovek, Koshkariovi bi begietara so—, ondo eransten zioke honek atzaparra eskueran duen guztiari!»

— Baina nik ez dut horretarako eraikin berezirik egiten; nik ez dut zutarriekiko eta aurrealde ederreko eraikin dotorerik. Ez dut maisurik ekartzeko atzeritik. Eta ezertarako ere ez ditut nekazariak lurra lantzetik kentzen. Uzta txarreko urteetan soilik lan egiten dute nire fabriketan, janariaren truke, eta beste etxalde batzuetatik etorritako mujikek baino ez. Horrelako fabrika asko aurkituko dituzu hemen. Etxaldeari arretaz erreparatuz gero, berehala ohartzeko zara gauza guztiak baliatu ahal dituzula, etekina atera ahal diozula edozein hondakini, erabilgarri duzula ezertarako balio ez duelakoan baztertzen duzun guztia.

— Miresgarria da hor guztia! Edozein honda-
kini etekina atera ahal diozulako hori da mires-
garriena! —esan zuen Txitxikovek.

— Jum! Eta gehiago ere badugu! —Ez zen
artean amaitu Kostanjogloren solasa: behazuna
ernaturik, inguruko lurjabeak puska batean mai-
seatzeko gogoia zuen—. Badakizu zer egin duen
inguru hauetako argi-iturri horietako batek?
Harrizko erruki-etxe bat eraiki du herrixkan! Kris-
tauen eginbeharra omen!... Bada, jendeari
lagundu nahi badiozu, lagun iezaiozu norberari
eginbehar hori betetzen, ez aldendu jendea kris-
tauen eginbeharretik. Lagundu semeari aita gai-
xoa bere babespean hartzen, eta ez eman auke-
rarik betebehar hori saihesteko. Hobe baliabi-
deak ematen badizkiozu anaia nahiz lagun hur-
koa etxean aterpetzeko, emaziozu dirua horreta-
rako, lagundu zeure indar guztiekin, zeren, bes-
tela, erabat urrunduko baita kristauen betebeha-
rretatik. Lurjabe hori On Kixote hutsa da!... Erru-
ki-etxean berrehun errublo gastatzen ditu urtean
lagun bakoitzeko!... Diru horrekin hamar lagun
mantenduko nituzke nik herrixkan bertan! —
Kostanjoglok tu egin zuen, haserre.

Txitxikovi ez zitzaion interesatzen erruki-etxea, edozein hondakini etekina ateratzeko moduak soilik axola zion, eta horra bideratu nahi zuen solasa. Baina Kostanjoglo amorru bizian zegoen, borborka zeukan behazuna, eta hitza eta pitza zerion.

— Eta hezkuntzaren On Kixote bat ere badugu: eskola bat sortu du! Idazten eta irakurtzen jakitea onuragarria da gizakiarentzat, bai. Baina nola antolatu du eskola hori? Haren herrixkako mujikek niregana jotzen dute, esanez: «Zer da hau, jauna! Semeek gogoak ematen diena egiten dute, ez digute lanean laguntzen, eskribau izan nahi dute denek, baina eskribau bakarra behar da». Horra zer gertatu den!

Txitxikovek ez zuen eskolen beharrik ere, baina Platonovek gai horri eutsi zion:

— Baina ez dituk geldirik egongo orain eskribaurik behar ez delako: geroago beharko dituk. Etorkizunerako lan egin beharra zegok.

— Ez da txarra jakintsua izatea. Baina zergatik arduratzen dira hainbeste etorkizunaz? Pedro *Handia* direla uste dute denek. Jarri begiak oin azpian duzun lurrean, ez begiratu etorkizunera.

Ahal duzun guztia egin mujikak eskuarte handi-koak eta aberatsak izan daitezten, eta, ikasi nahi badute, ikasteko astia izan dezaten, baina ez hartu makila eskuan eta esan: «Ikas ezazue!». Amaieratik hasten dituzte gauzak, mila deabru!... Entzun, hauxe duzu nire iritzia... —Kostanjoglo gehiago hurbildu zen Txixikovengana, eta, gauzak hobeto ulerrarazteko, abordatu egin zuen, edo, beste hitz batzuekin esateko, frakaren botoi-zuloan sartu zion hatza—. Zer egon daiteke argiago? Zertarako dituzu nekazariak?, haien nekazari-bizimodua babesteko? Zertan datza, bada, haien bizitza? Zein da nekazariaren egitekoa? Lurra lantzea? Orduan, ahal duzun guztia egin ezazu lurra ondo lan dezaten. Argi dago? Ez, badira azkar-ustekoak zera esaten dutenak: «Aldatu egin behar dugu egoera hori. Haien bizitza latzegia da, arruntegia: luxuzko gauzen berri jakinarazi behar diegu». Eta, luxuzko gauza horien eraginez, giza-hondar bilakatu dira, jadanik ez dira gizakiak, eta deabruak daki zer-nolako gaitzak harrapatu dituzten; ez dago hemezortzi urteko gazterik denetarik probatu ez duenik: hortzik ez dute, eta burusoil geratu dira

denak, eta gaixotasun hori kutsatu nahi diete orain nekazariei. Jainkoari eskerrak, gizartean oraindik bada sail bat horrelako apeta gaiztoen mendean erori ez dena! Horregatik bakarrik bada ere, eskerrak eman behar dizkiogu Jainkoari. Bai, nekazariak munduko gizakirik errespeta-garrienak dira niretzat. Nahiago nuke denak nekazariak balira! Jainkoari nahi dakiola!

— Orduan, nekazaritza lanbide guztietan onuragarriena dela uste duzu? —galdetu zuen Txitxikovek.

— Legezkoena, ez onuragarriena. Izerdia aterata jango duzu eguneroko ogia. Hala esan digute guztioi, arrazoiz esan ere. Mende askotako esperientziak frogatu digu nekazaritzan aritzen direnen ohiturak askoz ere garbiagoak izaten direla. Nekazaritza gizarteko bizitzaren oinarria den tokietan oparotasuna eta bizi-poza dira nagusi; txirotasunik ez, luxurik ez, baina bizi-poza bai. Lan ezazu lurra, esana diote gizakiari, gogor ekin lanari... hori bai agindu zuhurra! Nik zera esaten diet mujikei: «Berdin dio norentzat lan egiten duzun, niretzat, zeuretzat zein auzokoarentzat, lan egitea da kontua. Ni izango

nauzu laguntzailerik handiena, ez izan zalantzarik horretaz. Abererik ez baduzu, zaldia emango dizut, behia emango dizut, telega emango dizut... Behar duzun guztia emateko prest naukazu, baina lan egin ezazu. Hil egingo naiz zure lur-sailak behar bezala gobernatzeko ez badituzu eta nahaskeria eta txirotasuna nagusitzen direla ikusten badut. Ez dizut alferkeriarik onartuko. Horrexetarako nago zure gaintetik, lan egin dezazun». Jum!, uste dute gehiago irabaziko dutela lantegiekin eta fabrikekin! Aldez aurretik pentsa ezazu zure mujik guztiak aberatsak izango direla zu zeu aberatsa zarenean fabrikarik gabe, lantegirik gabe eta [egitasmu] ergelik gabe.

— Zuri zenbat eta gehiago entzun, Konstantin Fiodorofitx ohoragarria, orduan eta gogo biziago egiten zait entzuten jarraitzeko —esan zuen Txitxikovek—. Esadazu, arren: lurjabea izateko asmoa izango banu, probintzia honetan esaterako, oroz gaindi zertan jarri beharko nuke arreta? Zer egin, nola jokatu beharko nuke [denbora] laburrean aberasteko eta horrela, nolabait esatearren, herritar oroaren eginbeharra betetzeko?

— Zer egin behar duzun aberasteko? Orain-
txe azalduko dizut... —esan zuen Kostanjoglok.

— Goazen afaltzera! —esan zuen etxekoan-
dreak, dibanetik altxaturik, eta, hori esandako-
an, gelaren erdira joan zen, bere sorbalda gaz-
teak lepo-oihalean bildurik, hotzez dardaraka
baitzeuzkan.

Txitxikov jauzi batez jaiki zen, militar bat
bezain zalu ia, ziztu bizian jo zuen etxekoandrea-
renganantz, irribarre ezta eta imintzio gozoa
aurpegian, zibil bati dagokion bezala, besoa
eskaini eta zeremonia handiz eraman zuen bi
gelatan zehar jangelaraino, denbora guztian
burua alde batera apur bat okerturik zeukala,
adeitasun handiz. Zerbitzariak estalkia kendu
zion zopa-ontziari; afaltiar guztiek mahaira hur-
bildu zituzten aulkiak, eta zopari ekin zioten.

Zopa amaitu eta kopa likorea hustu zuenean
(likorea oso ona zen), Txitxikov honela mintzatu
zitzaion Kostanjoglori:

— Barkatu, jaun ohoragarri hori, baina lehen-
go elkarrizketaren harira itzularazi nahi zintuz-
ket. Galdetu dizut zer egin behar dudan, nola
jokatu, nondik hasi

[...]

— Etxalde horren truke berrogei mila errublo eskatuko balizkit, bertantxe emango nizkioke.

— Jum! —Pentsakor geratu zen Txitxikov—. Orduan —esan zuen, herabe samar—, zergatik ez diozu zeuk erosten?

— Norberaren mugak non dauden jakin behar da. Neure etxaldeak bakarrik buruhauste asko ematen dizkit, ez dut gehiagorik nahi. Gainera, inguruotako aitoren semeek kargu hartzen didate hori gabe ere; diotenez, haien premia larriaz eta egoera estuaz baliatzen naiz lurrak oso merke erosteko. Azkenean, gogaitu egin nau horrek.

— Aitoren semeek gaizki esaka aritzeko joera dute eta! —esan zuen Txitxikovek.

— Baina hemen, probintzia honetan... Ezin duzu irudikatu ere egin zer esaten duten nitaz. Esku-eutsia eta zekentzarra deitzen didate, beste deiturarik ez dute niretzat. Beren buruari, ordea, dena barkatzen diote. «Egia da, bai —esaten dute—, erreka jo dudala, baina bizitzaren

goi-mailako premien arabera bizi izan naizelako gertatu zait hori. Liburuak behar ditut, esne-mamitan bizi behar dut, industria akuilatzeko. Jakina, Kostanjoglo bezala zerrien antzera bizi izan banintz, ez nuen erreka joko.» Horra zer esaten duten!

— Gustatuko litzaidake, bada, niri zu bezalako zerria izatea! —esan zuen Txixikovek.

— Eta bazkaltzera gonbidatzen ez ditudalako eta dirurik uzten ez diedalako jokutzen dute horrela. Ez ditut bazkaltzera gonbidatzen neka-garria zaidalako, horretara ohiturik ez nago eta. Baina baten bat nik jaten dudana jatera inguratzeko bazait, ongi etorria! Dirua uzteari, berriz, zentzugabekeria deritzot. Baina datorrela niregana zinez diru eskasian dagoen norbait, eta zehatz-mehatz azal diezadala nola baliatuko duen nire dirua. Haren hitzetatik ondorioztatzen badut zentzuz erabiliko duela eta diruak onura nabarmena ekarriko diola, mailegua ez ukatzeaz gain, ez diot korriturik kobratuko. Baina ez naiz hasiko dirua botatzen. Barka diezadatela hori. Maitaleari oturuntza ederra eskaini nahi diote,

edo etxea altzari berriz janzteko gutizia eroa dute, eta nik utzi behar horretarako dirua!...

Tu egin zuen Kostanjoglok, eta emaztearen aurrean hitz gogor eta iraingarri batzuk esateko zorian egon zen. Hipokondria ilunaren itzal latzak goibeldu egin zuen haren aurpegi bizia. Gorantz jaso zuen bekokia, eta zimurrez josirik zeukan alderik alde, behazun irabiatuaren mugimendu haserrearen seinale.

Txitxikovek beste kopa bat mugurdi-likore hustu zuen, eta esan:

— Barkatu, jaun agurgarri hori, baina berriro itzularazi nahi zintuzket lehengo elkarrizketaren harira. Demagun aipatu didazun etxalde hori erosten dudala, zenbat denbora beharko nuke aberasteko, zenbateko epean bil nezake hainbeste diru...

— Laster aberastu nahi baduzu —eten zion jarduna Kostanjoglok, latz eta totalka, artean gaitziturik baitzegoen—, sekula ez zara aberastuko; aberastu nahi baduzu, ez galdetu denboraz, eta laster aberastuko zara orduan.

— Hori da eta! —esan zuen Txitxikovek.

— Bai —esan zuen Kostanjoglok zakar, Txitxi-kovekin berarekin haserre balego bezala—. Lana maitatu beharra dago; bestela ezin da ezer egin. Etxeko ekonomia maitatu beharra dago, bai! Eta, sinetsidazu, jarduera hori ez da inola ere aspergarria. Aspergarri deritzote herrixkari..., bada, nik, haiek ez bezala, aski nuke hirian egun bakar bat igarotzea asperraren asperraz hiltzeko! Lurjabeak ez du aspertzeko astirik. Haren bizitzan ez dago hutsunerik, mukuru beterik dago. Urteroko zeregin askotarikoei begiratu besterik ez dago horretaz jabetzeko. Nolako zereginak!, arima benetan goititzen duten zeregin horietakoak dira, eta denetarikoak. Hemen gizakia naturarekin bat eginik bizi da, urtaroen arabera; partaide eta esku da kreazioan gertatzen den guztian. Udaberria esnatzearekin batera, lanak hasten dira: garraioa eta egurketa, bide guztiak lokazturik daudela; ereintzarako prestamenak; bihitegietan aleak aukeratu, pisatu, eta lehortzen jarri berriro; nekazarien zerga berriak ezarri. Elurra eta uholdeak amaitu bezain laster, ugaritu egiten dira zereginak: han gabarrak kargatu, hemen basoa inausi, soroetan zuhaitzak

aldatu, eta sail guztiak aitzurtu. Lan egiten dute palek ortuetan eta goldeek zein beleek zelaietan. Eta ereiten hasi. Ez da lan makala, gero! Urteko uzta ereiten dute nekazariak! Udarekin batera, uztaroa, nekazarien jai nagusia. Ez da lan makala, gero! Uzta uztaren atzetik: zekalearen ondotik galzuria, garagarraren ondotik oloa, eta kalamua ere badugu. Belarra metatu, azaoak egin. Eta abuzutaren amaiera aldera, azaoak larrain estalietan gorde. Udazkena dator gero, lurra goldatu behar, eta udazkeneko garia erein, aletegiak, azao-idortegiak eta abeletxeak konpondu, laboreak probatu eta jotzen hasi. Neguan ez dira urritzen lanak: aurreneko garraioak hirira, idortegietan laboreak jo, jotako aleak larrainetik bihitegira eraman, zuhaitzak moztu eta egurra egin, adreiluak eta ekaiak ekarri udaberriko eraikitze-lanetarako. Ezin lan guztiak aipatu, hain dira ugariak eta askotarikoak! Baterata bestera joan gauzak zertan diren aztertzerara: errotetara, lantegietara, fabriketara, larrainetara! Mujik guztiengana jo bakoitzaren jarduna ikuskatzerara. Ez da lan makala, gero! Pozgarri zait zurginak aizkora ondo erabiltzea; gai naiz bi

ordu egoteko hari begira: hainbesterainoko poza ematen dit lanak. Ezin dizut azaldu nolako plazer sentitzen dudan ikusten dudanean helburu jakin batekin egiten dela hori guztia, inguruan dena ugaritu eta ugaritu egiten dela, etekinak eta mozkinak oparo emanaz. Baina ez naiz alaitzen irabaziak hazten direlako —dirua dirua besterik ez baita—, hori guztia neure lanaren emaitza delako baizik, ikusten dudalako neu naizela horren eragile eta sortzailea, eta niregandik, aztia banintz bezala, aberastasuna eta ongia zabaltzen direla bazter guztietara. Beste non aurkituko zenuke horrelako atsegirik? —esan zuen Kostanjoglok. Burua gorantz jaso, eta lehengo zimurren arrastorik ere ez zitzaion gelditzen. Pozarren zegoen, hala nola pozarren egoten baita erregea koroatze-egun hots handikoan—. Mundu osoan ez duzu horrelako atsegirik aurkituko! Hemen, hain zuzen ere hemen, Jainkoaren antzeko duzu gizakia: beretzat gorde zuen kreazioaren plazerra Jainkoak, horixe baita plazer guztietan goikoena, eta gizakiari eskatu zion oparotasuna sortzeko eta gauzen nondik

norakoa bideratzeko, berak egin zuen bezala. Eta aspergarri deritzote eginkizun horri!

Atsegin handiz entzun zuen Txitxikovek etxe-ko jaunaren mintzo ozen eta gozoa, paradisiko hegaztiaren kantua bailitzan. Haren eztarriak listua irensten zuen etengabe. Begiek, lausoturik, eztitasuna adierazten zuten, eta luzaz geratuko zatekeen Kostanjoglori entzuten.

— Konstantin, mahaitik altxatzeko ordua da! —esan zuen etxeakoandreak, aulkitik jaikitzeaz batera. Jaiki zen Platonov, jaiki zen Kostanjoglo, eta jaiki zen Txitxikov ere, nahiz eseririk geratu nahiko zukeen puska batean oraindik, etxeako nagusiari entzuten. Besoa eskaini, eta berriro lagun egin zion etxeakoandreari. Baina oraingoan ez zeraman burua adeitasunez okerturik alde batera, eta ez zuen inolako trebetasunik erakusten solasean, zeren, izan ere, garrantzi handiagoko solas eta oldozpenen mende baitzegoen.

— Esanak esan, aspergarria duk dena —zioen Platonovek, haien atzetik zihoala.

«Nahikoa buruargia duk nire gonbidatua —pentsatzen zuen etxeako nagusiak—, zentzuz hitz egiten dik eta ez duk idazle kaxkar horietakoa.»

Eta, hori pentsaturik, gehiago alaitzen hasi zen, bere solasaldiak zuzpertz balu bezala eta aholku zuhurrak entzuteko prest zegoen gizon bat aurkitu zuela ospatuz.

Gero, gela txiki eta atsegin batean eseri ziren denak, kandelen argitan, leihoen ordeztan beirazko atea zuen balkoi baten aurrez aurre. Aspaldiko partez aterpe gozoan zegoela sentitu zuen Txitxikovek. Esan zitekeen erromesaldi luze baten ondoren jaiotetxeko teilatuaren babesera itzuli zela eta, bere egitekoa buruturik, nahi zuen guztia lorturik, erromes-makila bazter batera jaurti, eta esan zuela: «Aski duk!». Etxeko nagusiaren hizketa zentzudunari zor zion hain gogo-aldarte zoragarria. Badira solasaldi batzuk gizabanakoari gainerako solasaldi guztiak baino hurkoagoak eta kuttunagoak gertatzen zaizkionak. Eta sarritan, ustekabean, bazter leku urrun eta ahaztu batean, gizakien arrastorik ere ez dagoen inguru inorgabe batean, lagun bat aurkitzen duzu, zeinaren solasak behingoan ahaztarazten baitizkizu bide kaxkarrak, aterperik gabeko gauak eta, oro har, egungo mundua, giza-ergelkeriaz eta gizabanakoa atzipetzen duten engainuz beteak. Eta,

gero, arratsalde haren oroitzapena biziro gorde-rik geratzen zaizu gogoan, behin betiko, sekula guztian, eta zehatz-mehatz oroitzen duzu hain egun gogoangarrian gertaturiko guztia: nortzuk ziren han, eta nor zein lekutan zegoen, eta zer zeukan bakoitzak eskuan, eta hormak, eta gela-ko bazterrak oro, eta huskeria guztiak.

Horrelaxe geratu zitzaizkion Txitxikovi oroimenean finkaturik arrats hartako xehetasun guztiak: gela txiki eta soil hura, etxeko jaunaren begitarte onbera, Platonovi eman zioten pipa eta piparen tutu anbarezkoa, Jarb zakurraren mutur lodira igortzen zuen kea, Jarben usinak, etxeko-andre txairoaren barrea, «Aski da, ez oinazetu gehiago zakurra» hitzak barre hura etenez, kandela alaiak, bazter batean zegoen kilkerra, beirazko atea, udaberriko gaua —haiei so zuhaitzen adaburuen gaineratik— eta hostotza sarrian kantuan ari ziren urretxindorrak.

— Oso atseginak zaizkit zure hitzak, Konstantin Fiodorovitx ohoragarria —esan zuen Txitxikovek—. Zalantzarik gabe esan dezaket Errusia osoan ez dudala aurkitu zu bezain gizon buruar-girik.

Kostanjoglok irribarre egin zuen.

— Ez, Pavel Ivanovitx —esan zuen—, gizon benetan buruargirik ezagutu nahi baduzu, inguruotan bada bat zeinari buruz inolako zalantzarik gabe esan baitaiteke gizon buruargia dela, ni ez naiz haren oinetakoen zorura ere iristen.

— Nor da? —galdetu zuen Txitxikovek, harriturik.

— Murazov, gure zerga-biltzailea.

— Lehenago ere entzuna dut haren berri! —egin zuen oihu Txitxikovek.

— Etxaldea ez ezik, gai litzateke Estatu osoa ere zuzentzeko. Nik, erregea banintz, finantza-ministro izendatuko nuke birritan pentsatu gabe.

— Badut haren aditzea. Diotenez, sinesgarritzat har daitekeenaren muga guztiak gainditu ditu, hamar milioi biltzea lortu omen du.

— Hamar? Baita zera ere! Berrogeitik gora. Luze gabe, Errusiaren erdia edukiko du bere eskuetan.

— Ez da izango! —egin zuen oihu Txitxikovek, txunditurik.

— Bai horixe! Izugarri azkar ugarituko zaizkio ondasunak orain. Begien bistakoa da hori. Erru-

blo milaka batzuk dituen soilik aberasten da astiro; handia da, ordea, milioiak dituenaren eskumena: beste edonork baino bi edo hiru aldiz gehiago eskura dezake. Haren jarduera-eremua izugarri zabala da. Ez dago nagusituko zaionik. Ez du bere neurrikorik. Berak ezartzen du prezioa, eta denek onartu behar, ezin inork aldatu.

Txitxikovek biribil-biribil begiak eta zabal-zabalik ahoa begiratu zion Kostanjoglori begietara, harri eta zur geratu balitz bezala. Eten egin zitzaion arnasa bularrean.

— Sinestezina da! —esan zuen, apur bat seneraturik—. Izuaren izuz, sorgoturik uzten dizu burua. Batzuk probidentziaren jakinduriaz harritzen dira intsektu bati begiratzen diotenean; niretzat, ordea, askoz ere harrigarriagoa da ikustea hilkor batek hain dirutza handiak erabil ditzakeela esku artean! Hala ere, uztazu galdera bat egiten gorabehera txiki bati buruz; esadazu, aberasten hasi zenean, inondik ere, azpikeriaren bat egingo zuen, ezta?

— Ez, ezinago garbi jokatu du beti, inongo aberasbiderik legezkoenez baliatu da hasieratik bertatik.

— Ez dut sinesten, lagun ohoragarri hori, barkatu, baina ez dut sinesten. Errublo milaka batzuk balira, tira..., baina milioiak dira..., barkatu, baina ez dut sinesten.

— Alderantziz, zaila da errublo milaka batzuk biltzea makur jokatu gabe, baina milioiak erraz irabazten dira. Milioi asko dituenak ez du zertan okerreko biderik hartu. Zuzen aurrera jo, eta har ezazu bidean aurkitzen duzun guztia! Beste inork ez du jasoko.

— Sinesgaitza da! Eta hutsetik abiatu zela sinestea da zailena!

— Ezin bestela izan. Horixe duzu gauzen berezko ordena —esan zuen Kostanjoglok—. Milaka errublaren jabe jaio eta milaka errublarekin hazten denak ezin du gehiagorik irabazi: apertatsu bilakatzen da eta gogoak ematen dion guztia erosten du. Hasieratik hasi behar da, ez erditik. Behetik, behetik hasi behar da. Horrela soilik ezagutuko dituzu ondo jendea eta bizilegea, eta ezinbestekoa duzu hori, gero haien artetik urratu beharko baituzu bidea, askotariko oztopoak garaituz. Dena zeure larruan nozitzen duzunean, eta kopek bakoitza iltzez josirik dagoela ikasten

duzunean, eta munduko zorigaitz guztiak jasaten dituzunean, hainbestearino zentzatu eta zailtzen zara, ezen, egitekoa edozein dela ere, ez baituzu inoiz porrot egiten. Hala da, sinetsidazu. Hasieratik hasi behar da, ez erditik. Baten batek esaten badit: «Eman ehun mila errublo eta berehala aberastuko naiz», nik ez diot sinesten; itsu-itsuan ibiliko da, jomuga zehatzik gabe. Kopek batetik hasi behar da!

— Ni, orduan, aberastuko naiz —esan zuen Txixikovek—, zeren, nolabait esatearren, hutsaren hurrenetik hasiko bainaiz.

Arima hilak zituen gogoan.

— Konstantin, ordua da Pavel Ivanovitxi atsenden hartzen eta lo-kuluxka bat egiten uzteko —esan zuen etxekoandreak—, eta zu hitz eta pitzari zara isildu gabe.

— Ziur nago aberastuko zarela —esan zuen Kostanjoglok, emazteari jaramonik egin gabe—. Ibaika etorriko zaizu urrea, ibaika. Ez duzu jakingo zer egin irabaziekin.

Pavel Ivanovitx liluraturik bezala zegoen eserita, ametsetan, etengabe haziz zihoan urrezko erresmia baten irudipena buruan.

— Benetan, Konstantin, Pavel Ivanovitxek lotara joateko ordua du.

— Zuri zer axola horrek? Zoaz zu, logura bazara! —esan zuen etxeko jaunak, eta isildu egin zen: Platonoven zurrungak ozen entzun ziren gela osoan, eta, haren ondotik, zurrungan hasi zen Jarb ere, jabea baino are ozenago. Gauerdia zen. Kostanjoglok onartu behar izan zuen bazela atsedeen hartzeko garaia. Elkarri gau ona opa, eta, geroko utzi gabe, lotara joan ziren denak.

Baina Txitxikovek ezin zuen begirik bildu. Esna zeuzkan pentsamenduak. Pentsatzen ari zen nola iritsi Kostanjoglo bezalako lurjabea izatera. Etxeko nagusiarekin izaniko elkarrizketaren ondotik argi zekusan dena; nabaria zen aberats zitekeela. Etxalde bat gobernatzearen lan berez zailak hain erraza eta samurra ematen zuen orain, eta hain zirudien beraren izaeraren neurrikoa, ezen seriotan pentsatzen hasi baitzen etxalde bat erostean, ez alegiazkoa, egiazkoa baizik. Kalkulatu zuen zenbat diru emango zion bahitura-etxeak alegiazko arimen truke, etxalde ez alegiazko bat erosteko. Jadanik zekusan bere burua

Kostanjoglok irakatsi bezala etxaldea gobernatzen eta zuzentzen: arduratsu, zuhur, zaharra ondo ezagutu arte ezer berriri ekin gabe, dena bere begiekin aztertuz, mujik guztiak eta bakoitza ezagutuz, neurrigabekeriak oro beregandik uxatuz, lanari eta etxeko ekonomiari buru-belarri emana. Aldez aurretik dastatzen ari zen egunen batean sentituko zuen plazerra, noiz eta akatsik gabeko ordena ezarri eta etxeko ekonomiaren erresorte guztiak zalu mugituko baitziren, elkarri eraginez. Lana borborka hasiko zen orduan, eta, nola errota azkarrak aitaren batean bihurtzen baititu aleak irin, halaxe bihurtuko zituen berak diru hondakin eta zabor guztiak. Etengabe zekusan begien aurrean lurjabe miresgarri haren irudia. Errusia osoan zinezko begirunea zion lehen pertsona zen. Ordu arte, gizarte-mailarengatik edo ondasun ugariengatik soilik errespetatu zuen jendea! Buruargitasun hutsarengatik ez zuen inor errespetatu oraindik. Kostanjoglo zen lehena. Txitxikovek ulertu zuen berarekin ez zuela arima hilez hitz egin behar, eta gai hori aipatze hutsa lekuz kanpokoia zatekeela. Gainera, beste helburu batek arduratzen

zuen orain: Khlobuieven etxaldea erostea, hain zuzen ere. Hamar mila errublo zituen: beste hamar mila Kostanjoglori eskatuko zizkion, argi adierazi baitzuen ezen, aberasteko eta lurjabe arduratsua izateko asmoa erakutsiz gero, prest zegoela edonori laguntzeko. Gainerakoa geroago, arimak bahitzen zituenean ordainduko zuela hitzeman zezakeen. Oraindik ezin zituen erosita-ko arima guztiak bahitu, zeren eta, lurrik ezean, ez baitzeukan nora aldatu. Jende guztiari sine-tsarazia zion lurrak zituela Kherson probintzian, baina lur haiek haren egitasmoetan baino ez ziren existitzen. Kherson probintzian oso merke saltzen zuten lurra, edo doarik ematen zuten, jendea han bizitzen jar zedin, eta mundu guztiak uste zuen horrexegatik aukeratu zuela probin-tzia hura. Pentsatzen ari zen lehenbailehen eskuratu behar zituela oraindik erosteko moduan zeuden jopu ihes eginak eta arima hilak, zeren eta lurjabeak berehala hasiko baitziren, bata bestearen atzetik, etxalde guztiak bahitu-ran jartzen, eta laster ez zen geratuko Errusia osoan Estatuak bahitu gabeko lurrik. Horrelako gogoetak zebilzkion txandaka buruan, eta loa

galarazten zioten. Baziren lau ordu etxeko guz-
tiak loaren altzoan zeudela, eta, azkenean, loak
bere magalera bildu zuen Txitxikov ere. Lo pisu
batek hartu zuen.

Laugarren kapitulua

Biharamunean, ezin hobeto konpondu zen dena. Kostanjoglok pozarren eman zizkion hamar mila errublo, korriturik gabe, bermerik gabe, ordainagiri soil bat sinatzearen truke. Horrenbesteraingo zegoen prest edonori aberas-ten laguntzeko. Hori gutxi balitz, Khlobuievenera lagunduko ziola agindu zion Txitxikovi, etxaldea berarekin batera ikuskatzeko. Oparo gosalduek ondoren, abian jarri ziren hirurak Pavel Ivanovi-txen kalesan; etxeko nagusiaren kotxea hutsik zihoan haien atzetik. Jarb, berriz, lasterka zihoan aurretik, txoriak bidetik uxatzen. Ordu eta erdi inguru geroago, hemezortzi versta eginik, herrix-ka bat begiztatu zuten, bi etxerekin. Bata handia eta berria zen, amaitu gabea eta hainbat urtez erdi eginik utzia; bestea, aldiz, txikia eta zaharra zen. Narras, logale eta ohetik jaiki berria aurkitu zuten etxeko nagusia; adabakiak zituen jakan, eta zuloak botetan.

Izugarri poztu zen bisitariak iritsi zirenean, etxetik aspaldi joandako bi anaia ikusi balitu bezala.

— Konstantin Fiodorovitx! Platon Mikhailovitx! —egin zuen oihu—. Ene adiskide maiteok! Ongi etorri! Ezin dut sinetsi! Erabat etsita nengoen inortxo ere ez zela ni ikustera etorriko! Izurritik bezala ihes egiten dute denek niregandik: uste dute dirua eskatuko diedala. Latza da nire egoera, oso latza, Konstantin Fiodorovitx! Badaikit neu naizela horren errudun bakarra. Zer egingo diogu!, zeria zerrien antzera bizitzen hasi da. Barkatu, jaunok, zuen aurrera honela jantzirik agertzeagatik: dakusazuenez, zuloz beterik dauzkat botak. Baina, esadazue, zer eskaini ahal dizuet?

— Itzulingururik ez, mesedez. Zeregin baterako etorri gara hona —esan zuen Kostanjoglok—. Hona hemen Pavel Ivanovitx Txitxikov, erosle bat.

— Izugarri pozten naiz zu ezagutzeaz. Ekarri bosteko hori.

Txitxikovek biak luzatu zizkion.

— Biziki gustatuko litzaidake, Pavel Ivanovitx agurgarria, arreta merezi lukeen etxalde bat erakustea... Baina, barkatu, bazkaldu duzue, jaunok?

— Bai, bai, bazkaldu dugu —esan zuen Kostanjoglok, lehenbailehen amaitzeko irrikaz—. Goazen oraintxe bertan, gerotik gerora ibili gabe.

— Tira, goazen, hala nahi baduzue.

Khlobuievek eskuan hartu zuen kapelua. Bisitariak buruan jantzi zituzten kapeluak, eta oinez joan ziren denak herrixka ikustera.

— Goazen nire desordena eta zabarkeria ikustera —zioen Khlobuievek—. Eskerrak bazkaldu duzuen, ondo egin duzue, alajaina! Sinetsidazu, Konstantin Fiodorovitx, oilo ziztrin bat ere ez daukat etxean, horraino iritsi naiz. Zerrien antzera gobernatzen naiz, zerrien antzera!

Hasperen sakona egin zuen, eta, Konstantin Fiodorovitxen bihotz gogorra biguntzerik lortuko ez zuela sumatuko balu bezala, besotik heldu zion Platonovi eta aurrera jo zuen berarekin batera, besoa bere bularraren kontra gogor estutzen zuela. Kostanjoglo eta Txitxikov atzean

geratu ziren, eta, elkarki besotik helduta haiek ere, urrunetik jarraitu zieten beste bie.

— Latza da nire egoera, Platon Mikhailitx, oso latza! —ziotson Khlobuievек Platonovi—. Ez daki-
zu zein latza den! Dirurik ez, ogirik ez, botarik
ez! Gaztea eta ezkongabea banintz, tira, bost
axola lidake horrek. Baina ezbehar horiek guz-
tiak zahartzaroan gertatzen bazaizkizu, emaztea
eta bost seme-alaba dituzula, goibel jartzen
zara, goibel jartzen zara ezinbestean...

Errukitu egin zen Platonov.

— Eta, herrixka saltzen baduzu, hobera egin-
go du zure egoerak? —galdetu zion.

— Hobera egin! —esan zuen Khlobuievек,
besoak airean mugituz—. Nahitaez, zorrak kita-
tzeko erabili beharko dut diru guztia, eta, hori
egindakoa, mila errublo ere ez zaizkit gelditu-
ko.

— Orduan, zer egingo duzu?

— Jainkoak daki —esan zuen Khlobuievек,
soinei gora eraginez.

Harritu egin zen Platonov.

— Nola? Ez duzu ezer egingo egoera horreta-
tik ateratzeko?

- Zer egin dezaket?
- Ez duzu baliabiderik?
- Bat ere ez.

— Bada, lana bilatu, enpleguren bat hartu.

— Probintziako idazkari arrunta naiz. Nork emango lidake enplegu onuragarririk? Oso gutxi ordainduko lidakete, eta emaztea eta bost seme-alaba ditut.

— Orduan, lan egin ezazu lurjaberen baten-tzat, administratzaile gisa.

— Eta nork utziko luke bere etxaldea nire eskuetan?, neurea hondatu dut eta!

— Baina zer edo zer egin behar da gosea eta heriotza atarian daudenean. Anaiari galdetuko diot ea ezagunen baten bidez enplegurik aurkitu ahal dizun hirian.

— Ez, Platon Mikhailovitx —esan zuen Khlobuievек, hasperen eginik eta besoa gogor estutzen ziola—, dagoeneko ez dut ezertarako balio. Zahartzarora iritsi baino lehenago zahartu naiz, eta garai bateko gehiegikeriek gaixotu egin dizkidate giltzurrunak, eta hezueriak jota dauzkat sorbaldak. Nora jo nezake orain? Zergatik ekarri alferrikako gastu gehiago Estatuari? Bulegari

asko ari dira irabazi handiko karguak eskuratu nahirik. Eta ez nuke nahi nire erruz, nire soldata jasotzeagatik, behartsuek zerga gehiago ordaindu behar izaterik, Jainkoak gorde nazala horretatik!: haien bizimodua aski zaila da berez. Ez, Platon Mikhailovitx, babes dezala Jainkoak herri behartsua!

«Hau egoera latza! —pentsatu zuen Platonek—. Nire alferkeria baino okerragoa duk!»

Bitartean, Kostanjoglo eta Txitxikov, zuhurtasunezko tarte utzirik haien atzetik zihoazela, honela mintzo ziren elkarrekin:

— Begira zein egoera penagarrian daukan dena! —zioen Kostanjoglok, hatzaz ingurua seinalatuz—. Miseria gorrira eraman ditu mujikak! Izurri batek abereak hiltzen baditu, ez duzu zeure ongizatea begiratu behar. Dena saldu behar duzu, eta abelburu bana eman mujikei, egun bakar batez ere lanerako baliabiderik gabe gera ez daitezten. Baina hemengo hondamendia ez da urtetan konponduko: mujikak alferrontzi bilakatu dira jadanik, festazale eta mozkor porrokatuak dira.

— Beraz, horrek esan nahi du irabazpide txarra dela etxalde hau orain erostea, bai? —galdetu zuen Txitxikovek.

Kostanjoglok, orduan, honakoa esan nahi balio bezala begiratu zion: «Zein txarto hezi zaituzten! Abezetik hasi beharko dugu orain, ala?».

— Irabazpide txarra!, hiru urte barru urtean hogeita mila errubloko etekina aterako nuke nik etxalde honetatik. Horra zein irabazpide txarra den! Hamabost versta ditu. Ez da gutxi, alajaina! Eta nolakoa da lurra?, begiratu lurrari! Urak harturik dago dena. Baina nik lihoa landatuko nuke, eta lihoak bakarrik bost mila errublo utziko lizkidake; arbia ereingo nuke, eta lau mila errublo irabaziko nituzke arbiei esker. Eta begira han, zekalea dago mendi-malda horretan; iaz lurrean geraturiko hazietatik sortu da; ondo asko dakit aurten ez dutela alerik erein. Etxalde honek ehun eta berrogeita hamar mila balio du, ez berrogei mila.

Txitxikov beldur zen Khlobuievrek entzungo ote zien, eta, hala gerta ez zedin, are atzerago geratu zen.

— Horra zenbat alor aferrik galdurik! —zioen Kostanjoglok, haserretzen hasita—. Lanerako gogorik izan balu, aurrera aterako zuen hau guztia. Golderik ez bazuen, aitzurraz iraul zitzakeen soroak. Bazeukan soroak lantzea. Lau urtez lanik gabe bizitzera behartu ditu mujikak. Ez da huskeria, gero! Urtebete aski da nekazariak betiko gaiztatzeko eta galbidera eramateko. Zarpaz jantzirik eta alderrai ibiltzera ohitzea lortu du! Eta horrelaxe bizi da bera ere.

Eta, hori esanik, tu egin zuen Kostanjoglok, eta aldarte behazuntsuak hodei beltz baten antzera ilundu zion bekokia...

— Ezin naiz denbora gehiago geratu hemen: hil egingo naiz desordena eta utzikeria hau ikusirik! Orain, ni gabe egin ahal duzu tratua berarekin. Kendu lehenbailehen altxor hau ergel horri. Jainkoaren oparia laidoztatu baino ez du egiten!

Eta, hori esanik, Txitxikov agurtu zuen Kostanjoglok, eta, etxeko nagusiaren aldameneraino aurreraturik, agur egin zion berari ere.

— Mesedez, Konstantin Fiodorovitx —esan zuen, harriturik, etxeko nagusiak—, oraintxe etorri zara, eta bazoaz berriro!

— Ezin naiz gelditu. Premia larriko eginbeharrak ditut etxean —esan zuen Kostanjoglok. Agurtu, kotxera igo, eta alde egin zuen.

Khlobuievrek, nonbait, ulertu egin zuen zergatik joan zen.

— Konstantin Fiodorovitxek ezin izan du hau jasan —esan zuen—. Inondik ere, nire gobernatze barreiatua ez da ikuskizun pozgarria bera bezalako lurjabe batentzat. Ezin izan dut, Pavel Ivanovitx, sinetsidazu aurten ezin izan dudala ia ezer erein, ohorezko hitza ematen dizut. Ez neukan hazirik, eta, zer esanik ez, ez neukan lurra zerez goldatu. Zure adiskide Platon Mikhailitx, ordea, ohiz kanpoko nagusia omen da; eta zer ez duten esaten Konstantin Fiodorovitxez!, beregisako Napoleon bat omen da. Nik, egia esan, sarritan pentsatzen dut: «Zergatik hornitu dute buru bakar bat hain adimen handiz? Zergatik ez diote eman nire buru ergel honi adimen horren pittin bat, etxea behar bezala gobernatzen jakiteko adina gutxienez. Ez zekiat ezer, ez nauk

ezertarako gai». Ai, Pavel Ivanovitx, [har itzazu] zeure ardurapean! Batez ere, errukarri zaizkit nire mujik dohakabe horiek. Konturatzen naiz ez dudala [...] jakin, ez naizela gauza aginduak emateko, ezin dudala latz eta zorrotz jokatu. Nolatan ohituko ditut mujikak ordenara neu desordenaren eredu izanik? Aske utziko nituzke oraintxe bertan denak, baina errusiarra halako moldez eginik dago, ezen norbaiten akuilua behar baitu beti..., bestela, alfertu eta zabartu egiten da.

— Izan ere, bitxia da hori —esan zuen Platonovek—, zer dela eta gure erresuma honetako herri xehea mozkor eta alproja bihurtzen da inork begi zorrotzez zaintzen ez badu?

— Kulturarik ez duelako —oharrarazi zuen Txitxikovek.

— Jainkoak daki zergatik. Gu ikasiak gara, eta zertan da gure bizitza? Ni, adibidez, unibertsitatean ibilia naiz, eta jakingai guztiei buruzko eskolak jaso ditut, baina ez ditut ikasi ez gizalegearen arauak ez bizitzearen antzea, alderantziz, azken orduko mizkeria eta erosotasun berri guztietan dirua parrastaka xahutzearen antzea

besterik ez dut ikasi, diruarekin ezin hautsizko lotura duten ikasgaiak baino ez ditut menderatu. Ikasle txarra izan naizela esan nahi du horrek? Bada, ez: horixe bera gertatu zaie beste hainbat ikaskideri ere. Beharbada, bizpahiru lagun onuragarri gertatu zitzaizkien ikasketak, baina, seguraski, berez buruargiak zirelako; gainerakoe-
ek, ordea, osasunaren kaltegarri diren gauzak eta lagun hurkoari dirua ateratzeko modua ikas-
tera zuzendu zituzten beren ahalegin guztiak. Halaxe da! Helburu bakarra zuten: irakasleei txalo egitea eta opariak banatzea, haiengandik ezertxo ere jasotzeko asmorik gabe. Horregatik, eskolatuak bagara ere, alderdirik nardagarrienak hautatu ditugu ikasgai guztien artetik. Itxuraz soilik gara ikasiak, ez dugu ikaskuntzaren mamia geureganatu. Ez, Pavel Ivanovitx, ez dakit zergatik, baina ez dakigu beste modu batera bizitzen; nik, behintzat, ez dakit zergatik, zinez diotsut.

— Arrazoiren bat egongo da —esan zuen Txi-txikovek.

Hasperen sakona egin zuen Khlobuiev giza-gaixoak, eta esan:

— Batzuetan iruditzen zait errusiarra gizaki galdua dela. Ez du borondaterik, ez du adorerik, ez du pairamenik. Dena egin nahi du, eta ezin du ezer egin. Denek uste dute biharamunean bizi-modu berri bati ekingo diotela, biharamunetik aurrera behar bezala gobernatuko direla, biharamunetik aurrera dieta egingo dutela, baina ez da horrelakorik gertatzen: arrats horretan bertan hain sabelbete itzela egiten dute, ezen mutu eta adia galdurik geratzen baitira, mihia ezin mugiturik, hontza baten antzera jendeari begira... Horrelakoxeak dira denak!

— Zentzua eraman behar da beti aldean — esan zuen Txitxikovek—, etengabe hitz egin behar da zentzuarekin, solasaldi adiskidetsuak izan berarekin.

— Jakina! —esan zuen Khlobuievek—. Baina nik, egia esan, uste dut gu ez garela zentzudunak izateko jaio. Ez dut sinesten gure artean zentzudunik badenik. Baten bat zintzo bizi dela eta dirua bildu eta metatzen duela ikusten badut ere, ez dut sinesten! Deabruak hura ere nahasiko du zahartzaroan, eta bere ondasun guztiak xahutuko ditu bat-batean! Gure erresuma hone-

tan denak dira horrelakoak: aitoren semeak, mujikak, ikasiak eta ezikasiak. Horra zer egin zuen behin mujik buruargi batek: ezerezetik mila errublo irabazi, eta, mila errublo haiek irabazi bezain laster, apetak eman zion bainuontzia xanpainaz bete behar zuela, eta xanpainan bainatu zen. Tira, uste dut dena ikusi dugula. Ez dago besterik. Begiratu bat eman nahi diozu errotari? Ez dauka errotarririk, eta eraikinak ez du ezertarako balio.

— Hala bada, ez du merezi ikustea! —esan zuen Txitxikovek.

— Orduan, goazen etxera.

Eta etxerantz zuzendu zituzten hirurek urratsak.

Itzulbidean lehengo berberak izan ziren ikuspegiak. Lehen bezala, hango nahaskeria lardatsak nonahi erakusten zuen bere irudi zantarra. Zaharkiturik eta bertan behera utzirik zegoen dena. Kale erdiko istil bat zen gauza berri bakarra. Emakume haserre batek, zaku-oihal zoldatsu batez jantzirik, sekulako jipoia eman zion neskatu errukarri bati, eta agiraka ari zen eztarria urratu beharrean, deabru guztiak aipatuz. Urrun-

txeago, bi mujikek axolagabekeria estoikoz begiratzen zioten emakume mozkorraren amorruari. Bata bizkarraren behealdean hazka ari zen, eta bestea, berriz, aharrausika. Bazirudien etxeak eta teilatuak ere aharrausika ari zirela. Platonovek, haiei begira, aharrausi egin zuen. «Hauexek izango dituk nire mujikak —pentsatu zuen Txitxikovek—, zuloa zuloaren gainean eta adabakia adabakiaren gainean!» Izba batean atetzar oso bat zegoen teilatuaren ordeaz. Leiho beheara eroriak nagusiaren aletegitik lapurturiko hagaz eutsirik zeuden. Hitz batean, antza zenez, Trishkinen berokiaren sistemaren arabera gobernatzen zuten etxalde hura: mahukaburuak eta mendelak moztu ukondoak adabatzeko.

Geletara sartu ziren. Hango txirotasuna luxuzko hainbat zirtzilkeria ikusgarrirekin nahasirik zegoen, eta horrek apur bat harritu zuen Txitxikov. Brontze berri-berriak ikusten ziren tresna eta altzari apurtuen artean. Shakespeare bat zegoen tintontzi baten estalki; nork bere bizkarrean hatz egiteko kirten dotore marfilezko bat ageri zen mahai gainean. Khlobuievek emaztea aurkeztu zien bisitariei. Emakume bikaina

zen. Arrakasta handia izango zukeen Moskun. Haren soinekoa gustu onekoa zen, modaren araberakoa. Hiria eta hango antzoki berria zituen mintzagairik gogokoenak. Berarengan denak salatzen zuen senarrari baino are gutxiago gustatzen zitzaiola herria eta Platonov baino gehiago aspertzen zela bakarrik geratzen zenean. Handik gutxira, neska-mutilez bete zen gela. Bost ziren. Seigarrena amaren besoetan zegoen. Oso politak ziren denak. Itxura ederra zuten hala neskek nola mutilek ere. Apain eta gustu onez jantzirik zeuden, biziak eta alaiak ziren. Eta, horregatik, are tristagarriagoa gertatzen zen haiei begiratzea. Hobe zuketzen txarto jantzirik, etxeko gona eta brusa zarpailez, patioan batera eta bestera lasterka ibili eta ezertan ez izan nekazari arrunten seme-alabengandik desberdinak! Lagun bat etorri zen etxekoandrea ikustera. Damak beren geletara joan ziren. Haurrek lasterka alde egin zuten haien atzetik. Gizonezkoak bakarrik geratu ziren.

Eroste-jardunari ekin zion Txitxikovek. Hasieran, erosle guztiek ohi dutenez, gutxietsi egin

zuen erosi nahi zuen etxaldea. Eta, ikuspuntu guztietatik gutxietsi ondoren, esan zuen:

— Zein da zure prezioa?

— Ez dizut garesti salduko —esan zuen Khlobuievек—, badakizu?, nire aldetik lotsagabeke-ria handia litzateke hori, eta ez dut gogoko lotsa-gabe jokatzea. Ehun arima dauzkat erroldaturik, baina ez dizut ezkutatuko berrogeita hamar bakarrik gelditzen zaizkidala: gainerakoak, edo izurriek jota hil dira, edo ihesi joan dira nortasun-txartelik gabe, eta, beraz, hiltzat hartu behar dituzu. Hori dela eta, hogeita hamar mila errublo bakarrik eskatuko dizkizut guztira.

— Hogeita hamar mila! Etxaldea bertan behera utzirik daukazu, nekazari asko hil zaizki-zu, eta hogeita hamar mila eskatzen dizkidazu! Hogeita bost mila emango dizkizut.

— Pavel Ivanovitx! Bahituran jarriko banu, hogeita bost mila jasoko nituzke, ulertzen duzu? Hogeita bost mila jaso eta, gainera, etxaldeari eutsi. Baina dirua behar dut lehenbailehen, horrexegatik saldu nahi dut; bahituko banu, luze joko lidake kobratzeak, dirua eman beharko nieke bulegariei, eta ez daukat sosik.

— Hala eta guztiz ere, hogeita bost mila emango dizkizut.

Platonovek lotsagarri iritzi zion Txitxikoven jokabideari.

— Eros ezazu, Pavel Ivanovitx —esan zuen—. Ordaindu ahal da [prezio] hori etxaldearengatik. Hogeita hamar mila ematen ez badizkiozu, anaiak eta biok dirua bildu eta geuk erosiko diogu.

Ikaratu egin zen Txitxikov...

— Ondo da! —esan zuen—. Hogeita hamar mila ordainduko dizkizut. Bi mila emango dizkizut orain, seinale gisa, zortzi mila aste bete barru eta gainerakoa hilabete barru.

— Ez, Pavel Ivanovitx, ahalik eta lasterren jaso nahi dut dirua. Orain hamabost mila eman behar dizkidazu gutxienez, eta gainerakoa bi aste barru beranduen ere.

— Baina ez ditut hamabost mila! Hamar mila bakarrik ditut orain. Emadazu denbora dirua biltzeko.

Baina gezurretan ari zen Txitxikov: hogeita mila zituen.

— Ez, Pavel Ivanovitx, hamabost mila behar ditut ezinbestean, premia larrian nago.

— Bada, bost mila falta zaizkit. Ez dakit nondik aterako ditudan.

— Nik utziko dizkizut —eten zion Platonovek.

— Ondo da! —esan zuen Txitxikovek, eta bere artean pentsatu: «Oso une egokian eskaini zidak mailegu hori: bihar arte ez dik dirua ekarriko». Kutxa ekarri zioten kaletatik, eta, luzamendutan ibili gabe, hamar mila errublo atera zituen Khlobuieventzat. Gainerakoa biharamunean ekarriko ziola hitzeman zion; horixe egin zuen: hitzeman; biharamunean hiru mila ekartzeko asmoa zuen, eta gainerakoa bizpahiru egun geroago, eta, epea luzatu ahal izanez gero, are geroago oraindik. Pavel Ivanovitxek ez zuen batere gogoko dirua eskutik jaregitea. Premia larriren bat zuenean ere, uste izaten zuen hobe zuela dirua biharamunean eman, egunean bertan baino. Horrelaxe jokatzeko dugu denok! Atsegin zaigu eskatzailea gogaitzea. Neka dezala bizkarra harrera-gelan itxaroten! Ezin du puska batean itxaron, ala? Beharbada, ordu bakoitza balio handikoa da berarentzat eta, gure jokaera dela

eta, geroko utzi beharko ditu bere eginkizunak, baina zer axola digu horrek guri? «Itzul zaitez, bihar, adiskidea, gaur ez dut astirik.»

— Non jarriko zara bizitzen etxaldea salduta-koan? —galdetu zion Platonovek Khlobuievi—. Baduzu beste herrixkarik?

— Ez, ez dut beste herrixkarik, hirira joango naiz. Bestela ere, hori egin beharko nukeen, ez niregatik, seme-alabengatik baizik. Irakasleak beharko dituzte musika, dantza eta Jainkoaren legeak ikasteko. Herrixkan ez dago hori lortzerik.

«Ogi apurrik ez, eta seme-alabei dantzan irakatsi nahi!», pentsatu zuen Txitxikovek.

«Harrigarria!», pentsatu zuen Platonovek.

— Ea, bada, busti dezagun tratua! —esan zuen Khlobuievek—. Aizak, Kiriushka, ekartzak botila bat xanpaina!

«Ogi apurrik ez, eta xanpaina bai!», pentsatu zuen Txitxikovek.

Platonovek ez zekien zer pentsatu.

Ekarri zieten xanpaina. Hiruna kopa edanik, alaitu egin ziren denak. Khlobuievek lotsa guztia galdu zuen, buruargi eta atsegin bihurtu zen. Askotariko istorioak eta esaera zorrotzak entzun

zizkioten. Haren solasakjendearen eta munduaren ezagutza sakona erakusten zuen. Hain ondo eta zehatz ikusten zituen gauza asko, hain egoki eta trebeki deskribatzen zituen hitz gutxitan inguruko lurjabeak, hain argi atzematen zien guztien akats eta hutsuneei, hain ondo zekien aitoren seme bakoitzaren porrotaren historia — zer zela eta, nola eta zergatik egin zuen porrot bakoitzak—, hain orijinaltasun eta egokitasun handiz azaltzen zituen haien ohiturarik xehe-nak ere, ezen bi solaskideek zeharo liluraturik entzuten baitzituzten haren hitzak, gizon ezinago buruargitzat ezagutzeko zorian.

— Aizu —esan zion Platonovek, besotik heldurik zeukala—, hain buruargia eta aditua izanik eta bizitza hain ondo ezaguturik, nolatan ez duzu zeure egoera latz horretatik ateratzeko biderik aurkitu?

— Irtenbiderik ez zait falta —esan zuen Khlobuievek, eta bere egitasmu ugarien berri eman zion berehala. Hain ziren denak burugabeak, hain ziren bitxiak, hain lotura ahula zuten jendearen eta munduaren ezagutzarekin, ezen, haien berri entzunik, sorbaldak jasotzea besterik

ezin baitzitekeen egin, eta esan: «Jainkoarren!, zein tarte ikaragarria dagoen *mundua ezagutzetik* ezagutza horretaz baliatzen jakitera!». Ia egitasmo guztiek oinarri berbera zuten: behingoan ehun mila edo berrehun mila errublo eskuratzea nondik edo handik. Khlobuiev ziur zegoen ezen, nahitaezko baldintza hori betez gero, behar bezala aterako litzaiokeela dena: etxaldeak aurrera egingo luke, zulo guztiak josiko lituzke, etekinak laukoiztu egingo lirateke eta zor guztiak kitatzeko aukera izango luke. Eta honela amaitu zuen jarduna—: Baina zer nahi duzue egitea? Ez dut inon aurkitzen ongilerik berrehun mila edo, gutxienez, ehun mila errublo uzteko prest legokeenik! Argi dago Jainkoak ez duela horrelakorik nahi.

«Jakina! —pentsatu zuen Txitxikovek—. Nola-tan bidaliko dizkio Jainkoak berrehun mila errublo hi bezalako ergel bati?»

— Litekeena da nire izeba zahar batek hiru milioi edukitzea —esan zuen Khlobuievek—. Emakume elizkoia da: dirua ematen die elizari eta monasterioei, baina esku-laburra da lagun hurkoarekin. Ospe handia du. Lehengo lege

zaharreko emakumea da, ikustea merezi duen horietakoa. Laurehun kanario inguru ditu berak bakarrik, eta dobazakurrak, eta beraren lepotik bizi diren bizkarroi ugari, eta jadanik inon ikusten ez diren zerbitzari horietakoak. Zerbitzaririk gazteenak hirurogei bat urte ditu, eta, hala ere, honela esaten dio berak: «Aizu, mutiko!». Gonbidaturen batek behar bezala jokatzeko ez badu, jaki bat edo beste ken diezaiotela agintzen du. Eta kentzen diote, alajaina!

Platonovek irribarre txikia egin zuen.

— Nola du izena eta non bizi da? —galdetu zuen Txitxikovek.

— Hirian bizi da, Aleksandra Ivanovna Khanasarova deritzo.

— Zergatik ez duzu berarengana jotzen? —galdetu zuen Platonovek, lagunaren zoriaz arduraturik—. Nire ustez, bihotz-gogorra bada ere, zure familiaren egoera ondo azalduko bazenio, ez luke adorerik izango laguntza ukatzeko.

— Horixe izango lukeela! Izeba oso emakume irmoa da. Harrizko bihotza du atso zahar horrek, Platon Mikhailitx! Ni gabe ere, ezti-jario asko ditu inguruan, beti lausenguka. Bada bat kosta ahala

kosta gobernadorea izan nahi duena, eta ahaideztzat dauka izeba..., Jainkoak gorde dezala!, beharbada, erdietsiko du bere helburua! Jainkoak gorde ditzala bera eta gainerako guztiak! Bere garaian ez nuen jakin izebarengana hurbiltzen, eta orain berandu da: dagoeneko ez zait makurtzen bizkarra.

«Ergela! —pentsatu zuen Txitxikovek—. Izeba zaindu behar huen, haurtzainak umetxo bezala!»

— Zer da hau!, lehor-lehor ari gara hizketan —esan zuen Khlobuievek—. Aizak, Kiriushka, ekartzak beste botila bat xanpaina!

— Ez, ez, nik ez dut gehiago edango —esan zuen Platonovek.

— Nik ere ez —esan zuen Txitxikovek. Eta ezezko biribila eman zioten biek eskaintzari.

— Orduan, gutxienez, hitzeman nire etxera etorriko zaretela hirian: ekainaren zortzian bazkari bat emango dut hiriko funtzionario nagusientzat.

— Horrelakorik! —egin zuen espantu Platonovek—. Ez zara ezeren jabe, erreka jo duzu, eta bazkari bat emango duzu!

— Beste aukerarik ez dut. Ezin baztertuzko eginbearra da —esan zuen Khlobuievek—. Haiek ere askotan gonbidatzen naute.

«Honek ez dik erremediorik!», pentsatu zuen Platonovek. Artean ez zekien ezen Rusen —Moskun eta beste hirietan— badirela gizaki askojakinak zeinen bizitza ezin azalduzko enigma baita. Halakok diru guztia xahutu du, zorretan leporaino sarturik dago, ez du inolako baliabiderik, baina, hala ere, bazkari bat ematen du, azkena nonbait; eta bazkaltiar guztiek pentsatzen dute biharamunean bertan espetxean sartuko dutela etxeko nagusia. Hamar urte igarotzen dira, eta askojakinak mundu honetan dirau, lehen baino askoz ere zor gehiago ditu, baina, hala ere, bazkari bat ematen du, eta denek pentsatzen dute azkena izango dela, eta denak etsirik daude biharamunean bertan espetxean sartuko dutela etxeko nagusia. Askojakin horietakoa zen Khlobuiev. Rusen bakarrik bizi zitekeen horrela. Ezer ez eduki arren, abegi ona egiten zien hirira iristen ziren artista guztiei, berera gonbidatzen zituen eta, hori gutxi balitz, babes eta laguntza ematen zizkien, aterpea eta logela eskaintzen

zizkien bere etxean bertan. Norbaitek sartu-irten bat egingo balu hirian zeukan etxe hartan, ez luke inola ere asmatuko nor zen etxeko nagusia. Gaur pope batek elizkizunak egin ditu han, meza-jantzia soinean; bihar, berriz, antzezlan bat saiatuko dute aktore frantziar batzuek. Beste egun batean, etxean inor gutxi ezagutzen duen batek leku hartzen du egongelan eta, paper asko aldean, bulego bihurtzen du, eta inor ez da harritzen edo urduri jartzen, gertakari hori guztiz ohikoa balitz bezala. Batzuetan, hainbat egunez janari-hondarrik ere ez zen egoten etxean; beste batzuetan, aldiz, gastronomorik ahozurienaren gustua asebetetzeko moduko bazkariak ematen zituzten. Etxeko nagusia pozik eta alaitsu egoten zen beti; haren itxura ikusirik, jaun aberatsa zela esan zitekeen; esne-mamitan eta oparo bizi den gizonaren ibilera zuen. Batzuetan, hain une latzak bizitzea egokitzen zitzaion, ezen beste edonork bere burua ukartu edo tiro batez hilko baitzukeen. Baina erlijiozaletasunak salbatzen zuen, oso modu bitxian uztarturik baitzeukan bere bizimodu barreiatuarekin. Une latz eta mingots haietan, liburu bat zabaldu, eta martirien

zein jakintzalarien bizitzak irakurtzen zituen, haiek oinaze eta zoritxar guztien gaintetik bizitzeko hezi baitzuten beren arima. Horrelakoetan bigundu eta samurtu egiten zitzaion arima, eta malkoz betetzen begiak. Eta —bai harrigarria!— une haietan ezusteko laguntzaren bat iristen zitzaion ia beti nondik edo handik. Edo aspaldiko lagun batek, beraz oroiturik, dirua bidaltzen zion; edo hirian iragaitzaz zegoen emakume ezezagunen batek, ustekabean haren historia entzunik eta emakumezkoen bihotz-zabaltasun kartsuak eraginik, diru-laguntza oparoa helarazten zion; edo beraren alde erabakitzen zen auzi bat non edo han, nahiz eta berak sekula ez zuen auzi horren aditzerik izan. Deboziaz eta esker onez, probidentziaren errukitasun mugagabea ezagutzen zuen orduan, esker-mezak atera, eta berriro ekiten zion bere bizimodu barreiatuari.

— Erruki dut, benetan, erruki dut! —esan zion Platonovek Txitxikovi, etxeko nagusia agurturik handik joan zirenean.

— Seme galdua da, ordea! —esan zuen Txitxikovek—. Nik ez dut inolako errukirik horrelako jendearentzat.

Eta, handik gutxira, harengan pentsatzeari utzi zioten biek: Platonovek, munduko beste edozeri bezain soraio eta axolagabe begiratzen ziolako lagun hurkoaren egoerari. Erdiratu eta beratu egiten zitzaion bihotza besteen oinazeak ikusten zituenean, baina zirrara horrek ez zion aztarna sakonik uzten ariman. Ez zuen Khlobuievengan pentsatzen bere buruarengan ere pentsatzen ez zuelako. Txitxikovek ez zuen Khlobuievengan pentsatzen eginiko erosketa oldozpen guztiez jabetu zitzaiolako. Zenbatu, kontatu eta gogoan hartzen zituen erositako etxaldearen alderdi on guztiak. Eta, edozein ikuspegitatik azterturik, erosketa ona egin zuela iruditzen zitzaion. Bahituran jar zezakeen etxaldea. Bahituran jar zitzakeen hildakoak eta ihesi joandakoak bakarrik. Aurrena lur-sailik onenak zatika saldu, eta bahituran jar zezakeen gero etxaldea. Auzolagun eta ongile zuen aldetik Kostanjogloren aholkuei jarraiki eta, hura bezalako lurjabe bihurturik, berak goberna zezakeen etxaldea. Edo beste lurjabe bati sal ziezaiokeen (berak gobernatzeko gogorik izan ezean, jakina), hildakoak eta ihesi joandakoak beretzat gorderik.

Beste alderdi on bat bururatu zitzaion orduan: alde egin zezakeen inguru haietatik, Kostanjo-glori mailegua itzuli gabe. Hitz batean, edonondik ikusita, erosketa ona egin zuela iruditzen zitzaion. Atsegin handia sentitu zuen, atsegin handia jadanik lurjabea zelako —ez alegiazko lurjabea, egiazkoa baizik—, lurrak, alorrak eta nekazariak zituelako, ez alegiako nekazariak, ez irudimenean soilik bizi ziren nekazariak, egiazkoak baizik. Eta, apurka-apurka, hor hasi zen jauzika, eta eskuak igurtzitzen, eta ahapeka abesten, eta bere buruarekin hizketan, eta martxa bat jotzen eskua aho aurrean bildurik —turuta bailitzan—, eta hitz kilikagarri eta gozo batzuk ere eskaini zizkion bere buruari, ozenki, «muturtxo», «oilartxo» eta horrelakoak esanez. Baina gero, bakarrik ez zegoela gogoraturik, isildu egin zen bat-batean, neurriz gaineko pozaren oldarrari eusten saiatu zen, eta Platonovek, hots haietakoren bat berari zuzenduriko esalditzat harturik, «Zer?» galdetu zionean, Txitxikovek erantzun zion: «Ezer ez».

Une horretan, ingurura begiratu, eta baso eder bat zeharkatzen ari zirela ohartu zen; urki

lirainak zituzten ezker-eskuin, ilara banatan. Harrizko eliza zuri bat atzematen zen zuhaitzen artean. Jaun bat agertu zen bidearen amaieran; haienganantz zetorren, kapelua buruan eta makila adabegitsu bat eskuan. Hanka luze mehekiko zakur ingeles bat lasterka zihoan haren aurretik.

— Gelditu! —esan zion Platonovek gidariari, eta jauzi batez jaitsi zen kalesatik.

Txitxikov ere kalesatik jaitsi zen. Oinez abiatu ziren biak jaunarenganantz. Jarb, ordurako, zakur ingelesa musukatzen ari zen; inondik ere, aspalditik ezagutzen zuen, axolagabeki hartu baitzuen bere mutur lodian Azorren musu karttua (hala zuen izena zakur ingelesak). Jarb musukatu ondoren, Azor izeneko zakur bizkor hura lasterka oldartu zen Platonovengana, eta, bere mihi bizkorrarekin eskua miazkatutakoan, Txitxikoven bularrera jauzi egin zuen, ezpainak miazkatzeko asmoz, baina ez zuen lortu, eta, Txitxikovek bultzada batez atzera eragin ziolarik, Platonovengana jo zuen berriro, besterik ezean belarria miazkatu nahirik.

Bitartean, Platonen eta haienganantz zihoan jaunak elkarren ondora heldu eta elkar besarkatu zuten.

— Anaia Platon, mesedez, zergatik jokatzen duk horrela nirekin? —galdetu zuen jaunak hitzetik hortzera.

— Nola, gero? —erantzun zuen Platonovek axolagabeki.

— Galdetzea ere! Badituk hiru egun hire berririk ez dakidala! Petukhen korta-mutilak hire garañoa ekarri zidaan lehengo batean. «Jaun batekin joan da», esan zidaan. Baheukan argibideren bat ematea: nora, zertara, noiz arte. Arren, anaia, nola egin didak horrelakorik? Jainkoak zekik zer pentsatu dudan egunotan!

— Zer egingo zaio! Ahaztu egin zitzaidan —esan zuen Platonovek—. Konstantin Fiodorovitxenera joan gaituk ikustalditxo bat egitera... Goraintziak bidaltzen dizkiate berak eta arrebak. Hona hemen Pavel Ivanovitx Txitxikov. Pavel Ivanovitx, hona nire anaia Vasili. Adiskide hau ni bezainbeste maitatzeko eskatzen diat.

Vasilik eta Txitxikovek, kapelua erantzirik, musuak eman zizkioten elkarri.

«Nor ote da Txitxikov hau? —pentsatu zuen Vasilik—. Anaia Platonek edonola aukeratzen ditik adiskideak, eta, seguraski, ez zekik nolakoa den gizon hau.» Eta gizabideak uzten zion bezain zorrotz aztertu Txitxikov, eta ikusi zuen apur bat makurturik eusten ziola buruari eta aurpegiera atsegina zuela une horretan.

Txitxikovek ere, bere aldetik, gizabideak uzten zion bezain zorrotz aztertu zuen Vasili. Platon baino apur bat baxuagoa zen, ilunagoa zuen ilea eta haren aurpegia ez zen, ez hurrik eman ere, anaiarena bezain ederra; hazpegiek, ordea, bizitasun eta kemen handia erakusten zuten. Nabari zitzaion ez zela bizi geldotasunaren eta soraiotasunaren altzoan.

— Badakik zer bururatu zaidan, Vasili? —esan zuen Platonek.

— Zer? —galdetu zuen Vasilik.

— Rus santuan barrena bidaiatzea, Pavel Ivanovitxekin batera hain zuzen ere: agian, jostagarria gertatuko zaidak hori, eta goibeltasuna ezbatuko zidak.

— Eta zer dela eta hartu duk erabaki hori hain bat-batean?... —hasi zen Vasili, anaiaren

erabakiak zeharo harriturik, eta gutxigatik ez zuen honakoa erantsi: «Eta, gainera, norekin eta oraintsu ezagutu duan gizon batekin joatea bururatu zaik; deabruak zekik nor den, litekeena duk gizatxar hutsa izatea». Eta, goganbehaturik, zeharka begiratu zion Txitxikovi, eta ikusi zuen itxura ezinago adeitsua zuela, burua oso modu atseginean alde baterantz apur bat okerturik zeukala artean ere eta begirunezko agurimintzioa zuela aurpegian, halako moldez, ezen ez baitzegoen asmatzerik zer-nolako gizona zen Txitxikov.

Isilik abiatu ziren hirurak. Bidearen ezker aldean harrizko eliza zuria atzematen zen, noizean behin, zuhaitz artean; eskuinaldean, berriz, jauretxearen inguruko eraikinak agertzen hasi ziren apurka-apurka, zuhaitz artean haiek ere. Azkenean, ate nagusia ere azaldu zen. Teilatu garai-ko jauretxe zaharraren aurreko patioan sartu ziren. Erdian hazitako bi ezki eskergak itzalpean zeukaten patioaren alderdi bat. Ozta-ozta ikusten ziren etxeko hormak haien atzean, hosto ugariko adar beherantz makurtuek ezkutaturik. Jarleku luze batzuk zeuden ezkien azpian. Vasilik

esertzeko gonbita egin zion Txitxikovi. Eseri zen Txitxikov, eta eseri zen Platonov ere. Lorategiko amañi-lili eta otsagereziondo loretsuak patio osoa inguratzen zuten urki lirainetaraino iristen ziren, lore-uztai edo beira-alezko iduneko baten antzera, eta nonahi aditzen zen haien urrina.

Hamazazpi urte ingurko mutil erne eta trebe batek, arrosa koloreko alkandora polit batez jantzirik, pitxer batzuk ekarri eta aurrean ipini zizkien; pitxer batzuetan ura zegoen, eta beste batzuetan, berriz, gas-urarenaren antzeko burbuila-hotsa ateratzen zuten kvasak, mota eta kolore askotakoak. Pitxerrak haien aurrean utzitakoan, zuhaitz batera hurbildu, enborraren arri-muan zegoen pala handi bat hartu, eta lorategira joan zen. Platonov anaien mendeko guztiek lorategian lan egiten zuten, zerbitzari guztiak lorazainak ziren, edo, hobeto esan, ez zegoen zerbitzaririk, baina batzuetan lorazainek egiten zituzten zerbitzari-lanak. Vasili erabat etsirik zegoen zerbitzaririk gabe bizi zitekeela. Uste zuen edonork jardun zezakeela zerbitzari, eta, horrenbestez, ez zuela merezi gizartean lan horretarako sail berezirik eratzea; errusiarra,

haren iritziz, ona, ernea, ederra, trebea eta langile saiatua da alkandoraz eta oihal latzezko beroki lodiz jantzirik dagoen bitartean, baina baldar, itsusi, motel eta alfer bihurtzen da jaka alemaniarra jantzi bezain laster. Haren ustez, errusiarrak garbitasunari eusten dio alkandoraz eta oihal latzezko beroki luzez jantzirik dagoen bitartean; jaka alemaniarra jantziz gero, ordea, ez du alkandora aldatzen, ez du bainurik hartzen, jaka jantzirik lo egiten du, eta jakaren azpian zimitzak hazten zaizkio, eta arkakusoak, eta deabruak daki zer gehiago. Horretan, beharbada, arrazoi zuen. Haren herrixkako jendea txukun eta dotore janzten zen, eta urrun joan beharra zegoen alkandora eta oihal latzezko beroki polit haiek eskuratzera.

— Ez duzu freskagarririk edan nahi? —galdetu zion Vasilik Txitxikovi, pitxerrak seinalatuz—. Geuk eginak dira kvas hauek; ospe handia ekarri diote aspalditik gure etxeari.

Txitxikovek, lehen pitxerra hartu, eta edalontzia bete zuen. Garai batean Polonian edan ohi zuen ezti-uraren berdina zen edari hura: xanpainarenak bezalako burbuilak zituen, eta gasak

oso kilika atseginak eragiten zituen ahotik sudurrera igotzean.

— Nektarra da hau! —esan zuen Txitxikovek. Beste pitxer bateko isurkariaz bete zuen gero edalontzia, eta aurrekoa baino gozoagoa iruditu zitzaion.

— Norantz eta zein lekutara joateko asmoa duzu? —galdetu zion Vasilik.

— Oraingoan —esan zuen Txitxikovek, eskua-rekin belauna igurtziz eta, aldi berean, gorputzenborra leunki kulunkatuz eta burua alde batera okerturik—, ez noa nik nahi nukeen tokira, beste batek agindutakora baizik. Betristxev jenerala lagun mina dut eta, nolabait esateko, baita babesle ere. Senide bat ikustera joateko eskatu dit. Jakina, senideak senide, bidaia horrek, neurri batean behintzat, badu interesik niretzat ere; batetik, esan beharrik ez dago onuragarria izan daitekeela nire odoluzkientzat, eta bestetik, berriz, mundua ikusiko dut, askotariko jendea ezagutuko dut, eta hori, nolana ere, liburu bizi baten antzekoa da, beste jakintza bat.

Pentsakor geratu zen Vasili. «Oso hizkera puztua zerabilek gizon honek, baina arrazoi dik

—pentsatu zuen—. Anaia Platonek premiazko dik jendea, mundua eta bizitza ezagutzea.» Apur batean isilik egon ondoren, ozenki esan zuen:

— Pentsatzen hasita nagok, Platon, bidaia hori, agian, zuzpergarri ona izango dela hiretzat. Sorgorturik daukak arima. Lo hago, baina ez aseptasunaren edo nekearen eraginez, ezpada zirra eta sentipen bizien ezarengatik. Ni guztiz bestelakoa nauk. Gustatuko litzaidakek gertatzen zaidan guztia hain biziki ez sentitzea eta hain estuan ez hartzea.

— Hik nahi dualako hartzen dituk estuan gauza guztiak! —esan zuen Platonek—. Hik heuk bilatzen dituk kezkabideak, hik heuk asmatzen dituk larritasunak.

— Ez diat ezer asmatu beharrik! Edonora noala, atsekabea baino ez diat aurkitzen! —esan zuen Vasilik—. Badakik nolako azpikeria egin digun Lenitsinek hi kanpoan hintzelarik? Hemen-go mujikek Pazko osteko lehen astea ospatzeko erabiltzen zuten larreaz jabetu dik.

— Ez zian horren berri jakingo, horregatik jabetuko zuan lur-sail horretaz —esan zuen Platonek—, berria duk hemen, orain dela gutxi eto-

rri duk Petersburgetik. Gauzak zertan diren azaldu eta dena argitu behar hion.

— Bazekian, ondo asko jakin ere. Gizon bat bidali nioan guztiaren berri azaltzera, baina gordinkeria bat erantzun zian.

— Hik heuk joan behar huen gauzak argitzera. Hitz egin ezak herorrek berarekin.

— Ezta pentsatu ere. Handiustez harrotuegi zegok jadanik. Ez nauk berarengana joango. Hoa hi, nahi baduk.

— Joango nindukek, baina ez diat besteren galtzetan sartzeko ohiturarik. Engainatu egingo nindikek, ziria sartuko lidakek.

— Ondo baderitzozu, neu joango naiz —esan zuen Txitxikovek.

Begiratu egin zion Vasilik, eta pentsatu: «Hori duk bidaiatzeko gogoia!».

— Azaldu, mesedez, nolako gizona den eta zer gertatu den —esan zuen Txitxikovek—, hori baino ez dut behar.

— Lotsa ematen dit hain eginkizun gogaikarria zure esku uzteak; izan ere, niretzat, horrelako gizon bati azalpenak emate hutsa eginkizun gogaikarria da berez. Jakin behar duzu gizon hori

gure probintzia honetako aitoren seme arrunt eta xehe bat dela. Gora egin zuen Petersburgen, bidea urratu zuen nola edo hala hango gizar-tean, ez dakit noren alaba sasikoarekin ezkondu zen, eta handiustez puzten hasi zen harrezkeroz-tik. Nabarmenkeriaz jokutzen du hemen. Jainko-ari eskerrak, gure probintziako jendea ez da batere ergela: ez dugu moda legetzat hartzen, ezta Petersburg tenpluzat ere.

— Jakina! —esan zuen Txitxikov—. Eta zer gertatu da?

— Gertaturikoa zentzugabekeria galanta da. Lur gutxi dauka, eta larre kaxkar batez jabetu da. Nonbait, kontu egin du inork ez duela lur-sail hori behar eta jabeak berak ahazturik daukala, baina hemengo nekazariak antzina-antzinatik elkartzen dira hor Pazko osteko lehen astea ospatzeko. Lur-sail horri eusteagatik, prest nengoke beste lur batzuk sakrifikatzeko, hobeak izan arren. Ohiturak sakratuak dira niretzat.

— Beraz, prest zaude beste lur batzuk emateko?

— Prest nengokeen, bai, baldin eta ez balu horrela jokatu nirekin. Baina, ikusi dudanez,

epailearekin harremanak izateko gogoia du. Ondo da, ikus dezagun nork irabazten duen auzia. Planoek ez digute argitasun handirik emango, baina lekukoak ditut: oraindik bizirik daude hainbat nekazari zahar, eta oroimen ona dute.

«Jum! —pentsatu zuen Txitxikovek—. Argi zegok bi hauek bihotz-bihotzez maite dutela elkar.» Eta ozenki esan zuen:

— Uste dut auzi hau onez onean konpon daitekeela. Artekariaren esku dago hori. Idatziz

[...]

... zuretzat oso onuragarria litzatekeela, esaterako, azken erroldaren arabera zure lurrei dagozkien arima hil guztiak nire izenean jartzea. Horrela, nik ordainduko nituzke haien zergak. Eta, legea ez hausteko, eroste-agiri baten bidez egingo dugu eskualdaketa, arimak bizirik baleude bezala.

«Hau duk hau! —pentsatu zuen Lenitsinek—. Tratu bitxia benetan!» Eta, zeharo harriturik, apur bat atzera egin zuen aulkiarekin batera.

— Uste betean nago ondo iritziko diozula tratu honi —esan zuen Txitxikovek—, oraintxe esan dugun bezala jokatuko dugu eta. Bi gizon helduren arteko sekretua izango da, eta biotako inork ez du okerkeriarik egingo.

Zer egin? Kinka gaiztoan zegoen Lenitsin. Ezin susma zezakeen arestian agerturiko iritziak hain ondorio berehalakoak ekarriko zituenik. Ez zuen inola ere espero horrelako proposamenik egingo ziotenik. Jakina, egintza horrek ez zion kalterik egingo inori: aurrerantzean ere lurjabeek arima haiek bahituko zituzten biziakin batera, hau da, Estatuaren finantzek ez zuten inolako galerarik izango; desberdintasun bakarra zen arima haiek lurjabe batenak zirela lehen eta beste batenak orain. Baina horrek ez zion arindu larritasuna. Berak zorrotz betetzen zituen lege guztiak, tratularia zen, tratulari zintzoa: ez zuen legez kontrako traturik egiten, ez zuen inoiz eskupeko diru zikinik onartzen. Baina orain nahasirik zegoen, tratu horri zein izen eman asmatu ezinik, ez baitzekien legezkoa ala legez kontrakoa zen. Beste edonork horrelako tratu bat egitea proposatu balio, honela esango zion:

«Inozokeria galanta!, ezdeuskeria! Ez dut ume-keriarik edo lelokeriarik egin nahi!». Baina izugarri gustatu zitzaion bisitaria, bat etorri ziren gauza askotan kulturaz eta zientziaz aritu zirenean. Nolatan eman, bada, ezezkorik? Kinka ezinago gaiztoan zegoen Lenitsin.

Baina une horretantxe, hain zuzen ere ezbehar hura erremediatzeko bezala, etxekoandrea sartu zen gelan, gazte, sudur-zapal, zurbil, argal, moztaka, gustu onez jantzirik, Petersburgeko damak bezala. Lenitsinen emaztearen ondotik, inudeak besoetan ekarri zuen lehensemea, senar-emazte ezkonberrien maitasun samurra-
ren fruitua. Txitxikov, esan beharrik ez dago, bertantxe hurbildu zen damarengana, eta, agurhitz adeitsuei zein buru-makurtu atseginari esker, aise irabazi zuen emakumearen estimua. Hautxoarengana inguratu zen gero. Hautxoa negarrez hasi zen, baina Txitxikovek, hala ere, hitz egokiak esaten asmatu zuen: «Apa, apa, enetxoa!». Hatzez kriskitinka eta erlojutik zintzilik zeraman apaingarri kornalinazkoa erakutsiz, bere besoetara erakarri zuen haurra. Besoetan harturik, gorantz altxatzeari ekin zion, eta

umeak oso irribarretxo atsegina egin zuen, gurasoak pozez zorutzen utzirik.

Baina, zela gozamenaren eraginez, zela beste arrazoiren batengatik, haurrak ezegiteko bat egin zuen ustekabean. Oihuka hasi zen Lenitsinen emaztea.

— Ene Jainkoa! Goitik behera hondatu dizu fraka!

Txitxikovek behera begiratu zuen: frak berri-berriaren mahuka guztiz hondaturik zegoen. «Deabruak eramango ahal hau, txerrenkume malapartatu hori!», murduskatu zuen bere kol-
korako, haserre bizian.

Etxeko jauna, etxekoandrea eta inudea lasterka joan ziren kolonia-uraren bila, eta Txitxikov alde guztietatik garbitzen hasi ziren hirurak.

— Ez da ezer, ez da ezer, benetan, ez da ezer —zioen Txitxikovek—. Zer gaitz egin dezake haurtxo errugabe batek?

Eta, aldi berean, bere kabutan pentsatzen zuen: «Bete-betean zikindu naik bihurri madarikatatu honek».

— Bai adin zoragarria! —esan zuen, garbitzen amaitu zutenean eta imintzio atsegina aurpegira itzuli zitzaionean.

— Izan ere —esan zuen etxeko nagusiak, Txixikovenganantz jiraturik eta irribarre atseginez berak ere—, ez dago haurtzaroa baino adin desiragarriagorik: kezkarik ez, etorkizunean pentsatu beharrik ez...

— Oraintxe bertan aldatuko nintzateke ni egoera horretara —esan zuen Txixikovek.

— Birritan pentsatu gabe —esan zuen Lenitsinek.

Baina, inondik ere, gezurretan ari ziren bi-biak: aldaketa hori egiteko aukera eman baliete, atzera egingo zuketena. Inudearen besoetan egon eta frakak hondatu, zer du horrek alaigarri-rik?

Etxekoandre gazteak eta inudeak gelatik alde egin zuten lehensemearekin batera. Izan ere, zereginak zituzten berarekin, zeren eta, Txixikovi oparixoa egiteaz gain, haurtxoa ez baitzen bere buruaz ahaztu.

Gertakari itxuraz hutsal hark Txixikoven nahia betetzera makurtu zuen etxeko nagusia.

Nolatan ukatu ezer horrelako bisitari bati, etxeko semetxoa hain samur tratatu eta, ezkuzabalta-
sun paregabea erakutsiz, bere fraka sakrifikatu
baitzuen? Lenitsinek honela zioen bere artean:
«Izan ere, zer nahi duen jakinik, zergatik ez onar-
tu haren eskabidea?» [...]

Azken kapitulua

Txitxikov, hari urrekaraz brodaturiko mantal pertsiar batez jantzirik eta dibanean eroso eserita, merke-lehian ari zen hirian iragaitzaz zegoen kontrabandista-merkatari jatorriz judu eta ahoskeraz alemaniar batekin, eta, ordurako, aurrean hedaturik zeukan eroskizuna, hau da, kalitaterik oneneko ehun holandarra —alkandorak egiteko— eta, paperezko bi kutxatan gorderik, dohain paregabeak zituen xaboi berezi bat, ezin hobea (horixe zen, hain zuzen ere, aduanan lan egin zuen garaian noizean behin eskuratzen zuen xaboia; izan ere, dohain bereziak zituen masailei leuntasun eta zurtasun harrigarria emateko). Hezibide oneko edozein gizasemerentzat ezinbestekoak ziren gai haiek adituaren zorrotasunaz erosten ari zela, zalgurdi baten zarata entzun zen, gero eta hurbilago, etxeko hormak eta leihoak leunki dardararaziz, eta Aleksei Ivanovitx Lenitsin jaun ohoragarria sartu zen gelan.

— Lagun ohoragarri hori, begira nolako ehuna eta nolako xaboia, eta hona nolako bitxi-

keria erosi nuen atzo! Esadazu, arren, zer deritzezun.

Txitxikovek, hala mintzo zen bitartean, urrez brodaturiko eta beira-alez apainduriko txano bat jantzi zuen buruan. Pertsiaiko shah baten antza zuen, hain ageri zen duintasunez eta handientzaz beterik.

Baina lagun ohoragarriak, galderari erantzun gabe, larri-antzean esan zuen:

— Arazo bati buruz hitz egin behar dut zurekin.

Haren aurpegiak argi adierazten zuen lur jota zegoela. Bertantxe bidali zuten gelatik ahoskera alemaniarreko merkatari itzaltsua, eta [bakarrik] geratu ziren biak.

— Badakizu nolako ezbeharra gertatu den? Atsoaren beste testamentu bat aurkitu dute, bost [urte] lehenago egina. Etxaldearen erdia monasterio bati uzten dio, eta beste erdia, berriz, berak hezitako bi neskari, erdi bana. Beste inork ez du ezer jasoko.

Txunditurik geratu zen Txitxikov.

— Baina testamentu hori zentzugabekeria hutsa da. Ez du inolako baliorik, bigarrenak indarririk gabe uzten du.

— Hain zuzen ere, kontua da azken testamentuak ez dioela lehena indargabetzen duenik.

— Esan beharrik ere ez dago: azkenak lehena indargabetzen du berez. Lehen testamentuak ez du ezertarako balio. Nik ondo asko dakit zein izan zen hildakoaren azken nahia. Bertan nintzen. Nork sinatu zuen?, nor izan ziren lekukoak?

— Legeak agintzen duenez, auzitegian legez-tatu zuten testamentua. Burmilov eta Khavanov epaileak izan ziren lekukoak.

«Bai txarto! —pentsatu zuen Txitxikovek—. Khavanov gizon prestua omen duk, eta Burmilov, berriz, agure santujalea, jaiegunetan *Apostolua* irakurtzen dik elizan.»

— Baina ez du inolako baliorik, ez du inolako baliorik —esan zuen ozenki, eta edozeri buru egiteko erabakitasun irmoa sumatu zuen barnean—. Nik inork baino hobeto dakit zer gertatu zen: hildakoaren aldamenean egon nintzen azken minutuetan. Inork baino hobeto dakit han gertaturikoaren berri. Zin egiteko prest nago.

Txitxikoven hitzek eta erabakitasunak lasaitu egin zuten Lenitsin. Oso kezkatuak zegoen, eta susmatzen hasia zen Txitxikovek asmo makurraren bat zerabilela testamentuari zegokionez. Orain, ordea, bere burua gaitzetsi zuen horrelako susmo txarrak izateagatik. Zin egiteko prest agertze horrek argi frogatzen zuen Txitxikov [errugabea zela]. Adoretu esan zuen Pavel Ivanovitxek zin egingo zuela, baina ez dakigu bere hitza betetzeko adorerik izango ote zuen.

— Lasai egon, legelari batzuekin hitz egingo dut auzi honi buruz. Zuk hobe duzu ezer ez egin, utzi dena nire esku. Orain, nahi adina denbora gera naiteke hirian.

Txitxikov, kotxea ekartzeko agindu, eta legelari batengana joan zen berehala. Jardunaren jardunaz, ezinago aditua zen legelari hura. Baziren hamabost urte auzipeturik zegoela, baina hain antze handiz jokatu zuen beti, ezen, gogotik saiatu arren, ezin izan baitzuten kargutik egotzi. Denek ezagutzen zuten, sei aldiz erbesteratu beharko zuketena eginiko balentriengatik. Ezin konta ahal okerkeriaren susmagarritzat zeukaten, baina ezin zuten lortu beraren kontrako

froga argi eta erabatekorik. Bazuen zerbait misterioa, eta, kontatzen ari garen istorio hau ezjakintasunaren aro ilunean gertatua balitz, aztia zela aitortzen ausartuko ginatke.

Harritzekoak ziren legelariaren itxura hotza eta mantal zoldatsua, inola ere ez baitzetozen bat kaobazko altzari ederrekin, kristalezko kanpai baten azpian gordetako erloju urrezkoarekin, muselinazko zorro babesgarritik zehar atzematzen zen argi-armiarmarekin eta, batez ere, heziketa europar distiratsuak ingurune guztian eta legelariarengan berarengan utziriko arrasto biziarekin.

Txitxikovek, legelariaren aire eszeptikoari amore eman gabe, auziaren korapilo guztiak azaldu zizkion, eta oso modu limurgarrian adierazi zion hutsik egin gabe eskertuko zizkiola azkenean aholku onak eta laguntza.

Legelariak erantzun zion mundua hitz-jalez beterik dagoela, eta antze handiz ulerrarazi zion arranoa hegan baino hobe dela txepetxa eskuan.

Beste aukerarik ez zegoen: txepetxa jarri behar izan zion eskuan. Tupustean aienatu zen filosofoaren hoztasun eszeptikoa. Gertatu zen

munduko gizonik jatorrena eta irekiena zela, solaskide ezinago atsegina eta Txitxikov bezain hizlari trebea.

— Inondik ere, ez duzu ondo irakurri testamentua. Auzibide luze bati ekin aurretik, hobe zenuke ondo aztertu: eranskinen bat izan behar du non edo non. Idazkia eskuratu beharko zenuke aldi baterako. Dakizunez, debekaturik dago horrelako agiri bat etxera eramatea, baina funtzionarioen bati era egokian eskatuko bazenio... Nik, neure aldetik, ahal dudan guztia egingo dut.

«Ulertu diat», pentsatu zuen Txitxikovek, eta esan:

— Izan ere, nik ez nuen idatzi testamentua, eta ez naiz gogoratzen eranskinik ba ote duen.

— Begi zorrotzez aztertzea duzu onena. Bessetik —jarraitu zuen, ezinago onbera—, lasai egon behar duzu; egoerarik okerreanean ere, ez aztoratu. Gertatzen dena gertatzen dela, ez etsi inoiz: ez dago ezin zuzenduzkorik. Begiratu niri: lasai nago beti. Askotariko hobenak leporatzen dizkidate, baina horrek ez dit lasaitasun izpirik kentzen.

Izan ere, legelari-filosofoaren aurpegiak erabateko lasaitasuna agertzen zuen, hainbestera inokoa, ezen Txixikov oso [...]

— Hori da garrantzitsuena noski —esan zuen Txixikovek—. Baina, guztiarekin ere, onartuko didazu ez dagoela lasai egoterik zenbait gertakari eta gorabeheraren aurrean. Etsaien erasoak eta irainak oso latzak dira batzuetan, oso gauza larriak gertatzen dira.

— Hori txepeltasuna da, benetan —erantzun zuen, oso lasai eta onbera, filosofo-legegizonak—. Agiriekin izan behar dute auzibide osoaren oinarria, eta zuk berebiziko ahaleginak egin behar dituzu baldintza hori bete dadin; dena idatziz, ezer ez hitzez soilik. Eta ikusten duzunean auzibidea amaitzera doala eta epaileak, eragozpenik gabe, laster erabakiko duela, ez saiatu zeure burua zurriz edo aldeztu; hori egin beharrean, ahal beste nahaspilatu dena, agiriei atariko berriak, bigarren mailako klausula gehigarriak eta horrelakoak erantsiz.

— Alegia, zera lortzeko...

— Nahaspilatu, nahaspilatu dena, besterik ez —erantzun zuen filosofoak—. Eta, gauzak erabat

korapilatzeko, erants itzazu auziarekin inolako loturarik ez duten gertakari batzuk eta beste hainbat lagun auzipetzea ekar dezaketen afera denetarikoak. Besterik ez duzu egin behar. Ea Petersburgetik iritsi berriak diren funtzionario horietakoren bat mataza askatzeko gai den! Aska dezala mataza, aska dezala! —errepikatu zuen, atsegin handiz Txitxikovi begietara so, hala nola so egiten baitio irakasleak ikasleari errusierazko gramatikaren atal erakargarri bat azaltzen dionean.

— Bai, ulertu dut, edonori burua zeharo nahasteko gai diren zertzelada horiek aurkitzea da kontua —esan zuen Txitxikovek, filosofoari begietara so, atsegin handiz bera ere, irakasleak azalduko atal erakargarria ulertu duen ikaslearen antzera.

— Aurkituko dituzu, horixe aurkituko dituzula! Sinetsidazu: saiatuaren saiatuaz, asmotsu bilakatzen da burua. Lehenik eta behin, gogoan izan hainbaten laguntza izango duzula. Auzi korapilatsuak diru-iturri polita dira jende askorentzat: funtzionario gehiago behar dira, gehiago ordaindu behar diete... Haietako batzuen lana

alferrikakoa izanik ere, haiei berdin: erraza dute beren burua garbitzea, agiriak aztertu behar dituzte, dirua behar dute... Ogia dago jokoan... Sinetsidazu, egoera gaizkoatzen denean, dena nahaspilatzea da eginkizunik behinena. Inortxok ere ezer ez ulertzeko moduan nahaspilatu eta korapilatu behar dira gauzak. Ni zergatik nago beti lasai? Bada, alde zuzenetik dakidalako nire kontrako auziak okertu bezain laster direnak eta ez direnak sartuko ditudala tartean: gobernadore, gobernadoreordea, poliziaburua, diruzaina, guzti-guztiak sartuko ditut tartean. Dena dakit haiei buruz: nor norekin dagoen haserre, nor nor daukan begitan harturik, nor nor eraman nahi duen espetxera. Gero, beharbada, onik aterako dira ataka horretatik, baina beste batzuek aberastea lortuko dute haiek onik aterata. Karra-marroak ur uherretan soilik harrapatzen dira. Auziren bat noiz nahaspilatuko zain daude denak.

Legelari-filosofok, hori esandakoan, berriro so egin zion Txitxikovi begietara, neurrigabeko plazerrez, hala nola begiratzen baitio irakasleak

ikasleari errusierazko gramatikaren atalare erakargarriago bat azaltzen dionean.

«Izugarri azkarra duk gizon hau», pentsatu zuen Txixikovek bere artean, eta pozarren eta aldarte ezin hobean alde egin zuen legelariaren etxetik.

Gutziz lasai eta seguru, zalutasun zabarrez bota zuen gorputza kotxeko bigungarri gurien gainera. Selifani estalkia jaisteko agindu (estalkia jasorik eta larruzko errezelak hedaturik joan zen legelariaren etxera), eta eroso eseri zen, *husarren* koronel erretiratu batek edo Vishnepokromovek berak egingo luketen bezalaxe, hanka bat bestearen azpian trebeki tolesturik, burua alde baterantz jiraturik eta aurpegia distiratsu belarrien ertzeraino sarturik zeraman sedazko kapelu berriaren azpian. Zuzenean denden kalera joateko agindu zion Selifani. Merkatariek, bertako zein kanpoko, nor bere dendako atean zutik, begirunez erantzten zuten kapelua, eta Txixikovek, erantzun gisa, duintasun handiz altxatzen zuen berea. Ezagunak zituen jadanik haie-tako batzuk; beste batzuk, aldiz, etorri berriak ziren, baina, hain jaun ospetsuaren itxura pres-

tuak liluraturik, agur egiten zioten ezagutuko balute bezala. Tfuslavel hiriko azoka ez zen artean amaitu. Joanak ziren zaldiak eta nekazariak, eta heziketarik oneneko jaunentzako salgai ederren txanda zen orain. Zalgurdiz etorriak ziren merkatariak, eta, leraz ez bazen, ez zuten etxera itzultzeko asmorik.

— Zatozte, zatozte! —zioen, gizalegezko keinu nabarmenak eginez, saltzaile batek oihaldenda baten aurrean, burua biluzik, kapelua eskuan, moskutar ebakerako jaka alemaniarra soinean, bi hatzez bizarrik gabeko kokots biribilarri eusten ziola eta heziketa fina adierazten zuen imintzioa aurpegian.

Dendara sartu zen Txitxikov.

— Mesedez, erakutsi oihalak.

Merkatariak, oso antzetsua bera, berehalaxe altxatu zuen salmahaiko ohola, eta, igarobidea horrela irekirik, saltoki barruan kokatu zen, salgaiak atzean eta eroslea aurrean.

Salgaiak atzean eta eroslea aurrean zeuzkalla, merkatariak, burua biluzik eta kapelua eskuan, berriro agurtu zuen Txitxikov. Gero, kapelua jantzi, gizalegezko buru-makurtua egin,

eta, bi eskuak salmahaian bermaturik, esan zuen:

— Oihal ingelesa?, edo, aukeran, hemengoa nahiago duzu, Errusiakoa bertakoa?

— Hemengoa nahiago dut —esan zuen Txitxikovek—, baina kalitaterik onenakoa, ingelesa deritzoten mota horretakoa.

— Zein kolore nahi duzu? —galdetu zuen saltzaileak, salmahaian bermaturiko bi eskuen gainean oso modu atseginean kulunkatzen zen bitartean.

— Kolore ilunen bat, olibakara edo botila-berdea, txilar koloreko izpilekin —esan zuen Txitxikovek.

— Hitzematen dizut kalitaterik oneneko oiha-la emango dizudala, ez dago hoberik bi hiriburuetan —esan zuen saltzaileak, goiko apal batean zegoen oihal bat harturik; trebetasun handiz mahai gainera bota, mutur batetik tiraka zabaldu, eta argitara eraman zuen—. Hau distira! Moda-modakoa da, azken orduko gustuaren araberrakoa!

Oihalak dir-dir egiten zuen sedazkoa balitz bezala. Saltzaileak aise igarri zuen oihal-kontue-

tan aditua zen erosle baten aurrean zegoela, eta ez zuen hamar errubloko oihaletatik hasi nahi.

— Ez dago txarto —esan zuen Txitxikovek, oihala leunki haztatuz—. Baina hobe behingoan erakusten badidazu azkena erakutsi nahi didazun beste hori; eta eskatu dizudan kolorearen antz handiagoa izan dezala, eta izpilduna, benetan izpilduna izan dadila.

— Ulertzen dut, orain Pe[tersburgen modan] dagoen kolore horretakoa nahi duzu. Badut oihal bat ezin hobea. Hori bai, jakinarazi behar dizut prezioa oso handia dela, baina kalitatea ere oso handia da.

— Ekarri.

Hitzik ez prezioaz.

Bestearen gainera etorri zen oihala. Saltzaileak antze handiz hedatu zuen hori ere; mutur batetik heldu, eta sedazkoa balitz bezala hedatu zuen. Hainbeste hurbildu zion Txitxikovi, ezen, aztertzeaz gain, usaindu ahal izan baitzuen.

— Hau kolore polita! Navarinoko kea eta sugarrak —esan zuen saltzaileak.

Ados jarri ziren prezioan. Burdinazko arshinak, azti baten makila bailitzan, aitaren batean

neurtu zituen Txitxikoven fraka eta galtzak. Sal-
tzaileak, artaziekin ebaki bat egin, eta, trebeta-
sun handiz, alderik alde urratu zuen oihala bi
eskuekin. Oihala urratzen amaitzeaz batera,
buru-makurtua egin zion Txitxikovi halako xarma
ezin liluragarriago batez. Oihala tolestu eta
paperean bildu zuen trebetasun handiz; bilgoa
jira-biraka hasi zen lokarri mehearen azpian. Txi-
txikovek sakela arakatu nahi izan zuen, baina
nabaritu zuen norbaitek leunki inguratzen ziola
gerria besoaz, eta haren belarriek hitz hauek
entzun zituzten:

— Adiskide agurgarri hori, zer erosten ari
zara hemen?

— Hau ustekabeko elkartze atsegina! —esan
zuen Txitxikovek.

— Topo egite atsegina benetan! —esan zuen
gerria inguratu zionaren ahotsak. Vishnepokro-
mov zen—. Arretarik eskaini gabe dendaren
aldamenetik igarotzeko zorian nengoela, aurpe-
gi ezagun bat ikusi dut bat-batean, eta nola uko
egin hain plazer atseginari! Zalantzarik gabe,
oihalak aurreko urteetan baino askoz hobeak
dira aurten. Baina lotsagarria da, gero! Ez dut

ezer aurkitu... Prest nago hogeita hamar edo berrogei errublo gastatzeko..., berrogeita hamar ere ordainduko nituzke, baina eman diezadatela oihal on bat! Nire ustez, oihal bikainik aurkitu ezean, hobe da ezer ez edukitzea. Ez da hala?

— Bai horixe! —esan zuen Txitxikovek—. Gauza on bat edukitzeko ez bada, zergatik nekatu?

— Erakutsi tarteko prezioko oihalen bat — entzun zen haien atzean Txitxikovi ezaguna iruditu zitzaion ahots bat. Atzerantz jiratu zen: Khlobuiev zen. Nabari zitzaion oihala ez zuela apetak eman ziolako erosiko, erabat higaturik baitzeukan bere jaka ziztrina.

— Hara, Pavel Ivanovitx! Zurekin hitz egiteko aukera izango dut azkenean. Ez dago zu aurkitzeko modurik. Hainbatetan joan naiz zure bila, baina kanpoan zara beti.

— Adiskidea, oso lanpeturik ibili naiz, eta, zinez diotsut, ez dut zurekin egoteko astirik izan.

Ingurura begiratu zuen, azalpenik eman gabe ihes egiterik ba ote zegoen, eta Murazov ikusi zuen dendan sartzen.

— Afanasi Vasilievitx! Jainkoarren! —esan zuen Txitxikovek—. Hau elkartzete atsegina!

Eta, haren ondotik, Vishnepokromovek errepikatu zuen:

— Afanasi Vasilievitx!

[Khlobuieviek] ere errepikatu zuen:

— Afanasi Vasilievitx!

Eta, azkenean, heziketa oneko saltzaileak, eskuaren eginahal guztian kapelua ahalik eta lasterren erantzi, aurrera egin, eta esan zuen:

— Afanasi Vasilievitx, onar iezadazu, arren, nire begirune apalaren aitorpena!

Giza arrazako zakurrek aberats okituei erakutsi ohi dieten begiramen zakurrezkoa azaldu zen haien aurpegietan.

Agureak diosal egin zien guztiei, eta zuzenean joan zen gero Khlobuievengana:

— Barkatu, denda honetan sartzen ikusi zaitut urrunetik eta apur batean zu nekaraztera erabaki naiz. Gero, zereginik ez baduzu eta etxera bidean nirearen aldamentetik igaro behar baduzu, eskertuko nizuke sartu-irten labur bat egitea. Hitz egin behar dut zurekin.

Khlobuieviek esan zuen:

— Oso ondo, Afanasi Vasilievitx.

— Eguraldi ederra dugu gaur, Afanasi Vasilievitx —esan zuen Txitxikovek.

— Ezin ederragoa —gaineratu zuen Vishnepokromovek—. Ez da hala, Afanasi Vasilievitx?

— Bai, Jainkoari eskerrak, eguraldi ona dugu. Baina euri apur bat beharko genuke, ereiteko sasoian gaude eta.

— Horixe beharko genukeela —esan zuen Vishnepokromovek—, ona litzateke ehizarako ere.

— Bai, euri apur batek ez luke inolako kalterik egingo —esan zuen Txitxikovek. Bost axolazion euriak, baina atsegin zuen milioi askoren jabearekin bat etortzea.

Eta agurea, berriro ere denak agurturik, dendatik joan zen.

— Jira-biraka jartzen zait burua gizon horrek hamar milioi dituela pentsatze hutsarekin —esan zuen Txitxikovek—. Sinestezina da.

— Nolanahi ere, hori ez da bidezkoa —esan zuen Vishnepokromovek—, kapitalek ez dute bakar baten [eskuetan] egon behar. Gaur egun, gai horri buruzko liburuak argitaratzen ari dira

Europa osoan. Ondo dago dirua edukitzea, baina besteekin partekatu behar da: opariak egin, dantzaldiak antolatu, oparotasun onuragarria sortu, maisuek eta eskulangileek eguneroko ogia irabazteko modua izan dezaten.

— Nik ezin dut hori ulertu —esan zuen Txitxikovek—. Hamar milioi, eta mujik arrunt bat bezala bizi da! Deabruak daki zer egin daitekeen hamar milioirekin. Hamar milioiren jabe izanik, jeneral eta printzeen artean aukera daitezke adiskideak.

— Bai —erantsi zuen saltzaileak—, Afanasi Vasilievitxek berezitasun itzalgarrri asko ditu, baina baita ezin barkatuzko akats ugari ere. Merkataria, itzalgarrria bada, ez da merkataria hutsa, negozio-gizona ere bada nola edo hala. Nik, esaterako, palko bat akuratu behar dut antzokian, eta alaba ez dut koronel arrunt batekin ezkonduko: jeneral batekin ez bada, ez dut inorekin ezkonduko. Zer onik ekarriko lidake koronel batek? Niri gozogile batek prestatu behar dit bazkaria, ez sukaldari batek...

— Argi baino argiago dago! —esan zuen Vishnepokromovek—. Hamar milioirekin edozer egin

daiteke! Eman niri hamar milioi eta ikusiko duzue zer egiten dudan!

«Ez —pentsatu zuen Txitxikovek—, hik ez huke onurazko gauza askorik egingo hamar milioirekin. Nik bai, ordea; hamar milioi banitu, zerbait egingo nitek.»

«Nik orain —pentsatu zuen Khlobuievek—, hain eskarmentu ikaragarriaren ondotik, hamar milioi banitu, bestela jokatuko nitek: eskarmentuari esker, kopek bakoitza zein garestia den ikasten duk.» Eta gero, une batez pentsakor egon ondoren, bere buruari galdetu zion: «Zentzuz jokutzen asmatuko nuke benetan?». Eta, eskuari eraginez, gaineratu zuen: «Ze demontre! Ziur nagok dena xahutuko nukeela, lehen beza-la», eta dendatik irten zen, Murazovek zertaz hitz egin behar zion jakiteko irrikaz.

— Zure zain nengoen, Piotr Petrovitx! —esan zuen Murazovek, Khlobuiev sartu zela ikusirik—. Mesedez, zatoz nire gelatxora.

Eta irakurleak dagoeneko ezagutzen duen gelatxo horretara eraman zuen Khlobuiev. Urtean zazpiehun errublo irabazten dituen fun-

tzionario batek ere ez luke hain gela xumea izango.

— Nago zure egoerak hobera egin duela honezkero. Zerbait jasoko zenuen izeba hildakotan, ezta?

— Nola azalduko nizuke, Afanasi Vasilievitx? Ez dakit nire egoerak hobera egin duen. Berrogeita hamar nekazari-arima eta hogeita hamar mila errublo jaso ditut guztira, baina nire zortetako batzuk kitatzeko erabili behar izan dut diru hori, eta ezer gabe nago berriro. Baina garrantzitsuena da testamentuaren arabera gauzak ez daudela batere garbi. Horiek amarruak, Afanasi Vasilievitx! Oraintxe kontatuko dizut zer gertatu den, eta zeharo txunditurik geratuko zara. Txitxikov hori...

— Barkatu, Piotr Petrovitx, Txitxikov horretaz hitz egin baino lehen hitz egidazu zeure buruaz. Esadazu: guztira zenbat diru beharko zenuke zure egoeratik behin betiko ateratzeko?, zenbat joko zenuke nahikotzat?

— Nire egoera oso larria da —esan zuen Khlobuievек—. Egoera horretatik ateratzeko, zor guztiak ordaintzeko eta premiazkoenarekin soilik

bizitzeko, ehun mila behar ditut gutxienez, edo gehiago beharbada. Hitz batean, ezinezkoa zait.

— Eta diru hori izango bazenu, nola gobernatuko zenuke zeure bizitza?

— Gela txiki bat akuratuko nuke eta seme-alaben hezkuntzaz arduratuko nintzateke, ez nuke-eta niretzako enplegurik lortuko: dagoeneko ez dut ezertarako balio.

— Eta zergatik ez duzu ezertarako balio?

— Zuk esango didazu zer egin dezakedan! Orain ezin naiz berriro behetik hasi, bulego batean eskribau. Ahaztu egin zaizu familia dudala. Berrogei urte ditut, txarto dauzkat giltzurrunak eta nagitasunaren mende nago; eta ez didate hori baino enplegu hoberik emango; ez dut izen onik. Egia aitortuko dizut: ez nuke irabazi errazeko kargu badaezpadakorik onartuko. Beharbada, gizatxar hutsa naiz, jokalaria amorratua eta nahi duzun guztia, baina ez dut eskupeko diru zikinik onartuko. Sekula ez naiz ondo konponduko Krasnonosovekin eta Samosvistovekin.

— Barkatuko didazu, baina ezin dut ulertu nolatan bizi daitekeen biderik gabe, nolatan joan

daitekeen biderik ez dagoen lekutik, nolatan ibil daitekeen oin azpian lurrik ez badago, nolatan egin daitekeen igeri gorputz-adarrak uretan sartu gabe. Bizitza, izan ere, bidaia baita. Barkatu, Piotr Petrovitx, baina aipatu dituzun jaun horiek badute, hala ere, bideren bat, lan egiten dute hala ere. Onar dezagun bidea galdu dutela nola edo hala, bekatari guztiei gertatzen zaien legez, baina berriro aurkituko duten esperantza dago. Abiatzen dena beti iristen da; bidea aurkituko duen esperantza dago. Beti egonean dagoenak, ordea, nolatan aurkituko du inongo biderik? Bidea ez da berez etortzen norberarengana.

— Ulertzen dizut, Afanasi Vasilievitx, eta badakit zuzen zaudela, baina berriro diotsut hil eta amaitu egin zaidala lanean jarduteko gogo guztia; ez dut uste inolako onik egin ahal diodanik mundu honetako inori. Deus egiteko gai ez den kirtentzat daukat neure burua. Lehen, gazteagoa nintzenean, uste nuen dirua zela gauza guztien oinarria, uste nuen ehun mila errublo izango banitu zoriontsu egingo nuela jende asko: laguntza emango niekeen artista behartsuei, liburutegiak eta babes-etxeak sortuko nituz-

keen, arte-bildumak sustatuko nituzkeen. Ez naiz gusturik gabeko gizona, eta badakit gure aberatsek baino askoz hobeto jardungo nukeela zeregin askotan, zeinetan haiek hainbestean moldatzen baitira. Baina orain iruditzen zait harrokeria dela hori guztia, eta onura gutxi dakarrela. Ez, Afanasi Vasilievitx, ez dut ezertarako balio, ezertarako ere ez, zinez diotsut. Ez naiz gauza lanik xumeena ere egiteko.

— Entzun, Piotr [Petrovitx]! Zuk otoitz egiten duzu, elizara joaten zara, badakit ez duzula huts egiten ez goizeko eta ez arratseko otoitza. Ez duzu gogoko goiz jaikitzea, baina goiz jaikitzen zara, eta mezatara joaten zara, goizeko lauretan joaten zara, beste inor oraindik jaiki ez den orduan.

— Hori besterik da, Afanasi Vasilievitx. Arima salbatzeko egiten dut hori, erabat etsirik bainago ezen, hori eginez gero, nire bizitza alferraren hobena garbituko dudala, apur bat besterik ez bada ere. Gaiztoa naiz, baina, hala ere, ziur nago Jainkoak aintzat hartzen duela otoitza. Otoitz egiten dut, bai, ez naiz fededuna, baina, hala ere, otoitz egiten dut. Nola zaldiek eta bestelako

zamariek senez ezagutzen baitute uztarrian lotzen dituen, nik ere halaxe sumatzen dut badela jaun bat gauza guztiak bere mende dituen.

— Beraz, otoitz egiten duzu zure otoitzen entzuleari atsegin emateko, arima salbatzeko, eta horrek indarra ematen dizu eta ohetik goiz jaikitza behartzen zaitu. Sinetsidazu, lanari horrela ekingo bazenio, otoitz egiten diozun hori berori zerbitzatu duzula sinetsirik, lanerako gogoia piztuko litzaizuke, eta inork ez luke indarririk izango zure kemena ahultzeko.

— Afanasi Vasilievitx, berriro diotsut hori besterik dela! Lehen kasuan, nolana ere, ikusten dut egiten dudana. Prest nago monasterio batera joateko, eta agintzen dizkidaten lan eta balentria guztiak egingo ditut han, direnik eta nekezek direla ere. Ziur nago ez dagokidala niri arrazoitza zer dela eta zigortzen nauten neke horien bidez; burua makurtuko dut han, eta badakit Jainkoaren aurrean makurtuko dudala.

— Eta zergatik ez duzu horrela arrazoitzen lurreko gauzez ere? Izan ere, lurrean Jainkoa zerbitzatu behar dugu, ez beste inor. Eta beste inor

zerbitzatzun badugu, Jainkoak hala agindu digu-
la ziur gaudelako zerbitzatzun dugu, bestela ez
genuke zerbitzatzuko. Zer besterik dira norbera-
ren gaitasun eta dohain berezi guztiak? Horrela-
koxea dugu otoitza: batzuek hitzez eta beste
batzuek ekintzez egiten dute. Zu ezin zara
monasterio batera joan: munduari loturik zaude,
familia duzu.

Hori esandakoan, pentsakor geratu zen
Murazov. Khlobuiev ere pentsakor geratu zen.

— Berrehun mila errublo izango bazenitu,
uste duzu gai zinatekeela zentzatzeko eta aurre-
rantzean bizimodu zuhurragoa eramateko?

— Gutxienez, ahal dudana egingo dut, seme-
alaben hezkuntzaz arduratuko naiz, irakasle
onak aurkitzeko aukera izango dut.

— Eta esango balizute bi urte barru zorrez
josirik egongo zarela berriro?

Khlobuiev isilik geratu zen une batez, eta
astiro hitz egiten hasi zen gero:

— Ez da horrelakorik gertatuko, hain eskar-
mentu latzaren ondoren...

— Eskarmentua! —esan zuen Murazovek—.
Ezagutzen zaitut. Bihotz handiko gizona zara:

adiskide batek dirua eskatuko dizu, eta eman egingo diozu; txiro bat ikusiko duzu, eta lagundu nahi izango diozu; gonbidatu atsegin bat etorriko zaizu etxera, eta ahalik abegirik onena egin nahi izango diozu; amore emango diozu ontasunezko lehen barne-bultzadari, eta zuhurtasuna ahaztuko zaizu. Eta azkenik, uzten badidazu, argi eta garbi esango dizut ez zaudela seme-alabak hazteko moduan. Bere eginbeharra bete duen aitak soilik hezi ahal ditu seme-alabak. Eta emaztea... bihotz handikoa da hura ere... baina ez du seme-alabak hezteko behar adina eskolarik. Barkatuko didazu hau esatea, Piotr Petrovitx, baina nago zure seme-alabentzat kaltegarria izango dela zurekin bizitzea, ez duzu hala uste?

Khlobuiev zalantzan geratu zen; ikuspegi guztietatik aztertu zuen bere burua, eta azkenean onartu zuen Murazovek arrazoi zuela hainbat gauzatan.

— Piotr Petrovitx, utzi nire esku seme-alaben ardura; utzi familia eta seme-alabak: nik zainduko ditut. Zure egoera hain larria izanik, hobeto egongo dira nire ardurapean. Horrela jarraituz gero, gosez hilko dira. Izan ere, edozer egiteko

prest egon behar duzu orain. Ezagutzen duzu Ivan Potapitx?

— Bai, eta estimu handitan daukat, beti nekazari-beroki arruntez jantzirik badago ere.

— Bada, Ivan Potapitx aberats okitua zen, funtzionario banarekin ezkondu zituen alabak, errege bat bezala bizi zen; eta zer egin zuen erreka jo zuenean?, dendari hasi zen lanean. Ez zitzaion batere samurra gertatu zilarrezko plate-retik katilu arruntera igarotzea: bazirudien ez zuela ezeri ekiteko adorerik izango. Orain Ivan Potapitxek zilarrezko platerean jan lezake berri-ro, baina ez du nahi. Ondasunak bil litzake berri-ro, baina zera esaten du: «Ez, Afanasi Ivanovitx, orain ez dut neure burua zerbitzatzan, Jainkoak hala [erabaki] du eta. Ez dut neure kabuz ezer egin nahi. Ez diot jendeari entzun nahi, Jainkoari baizik, eta Jainkoari entzun nahi diodalako entzuten dizut zuri, Jainkoak gizaki onenen ahotik hitz egiten du eta. Zu ni baino buruargiagoa zara, eta horregatik ez dut nik erantzuten, zuk baizik». Horra zer esaten duen Ivan Potapitxek; eta, egia esan behar badizut, bera ni baino askoz buruargiagoa da.

— Afanasi Vasilievitx! Ni ere prest nago zure aginpidea [ezagutzeko], zeure zerbitzari nauzu eta nahi duzuna egingo dut: zure esanera nago. Baina ez eman nire indarrez gainteko lanik: ni ez naiz Potapitx, eta berriro diotsut ez dudala ezer onik egiteko balio.

— Ez zaitut estutuko, Piotr Petrovitx. Jainkoa zerbitzatu nahi zenukeela esan duzunez, hona errukizko egintza bat zuretzat. Eliza bat eraikitzen ari dira inguru hauetan, herritar elizkoiek borondatez ematen duten diruarekin. Urri dabil-tza, ordea, eta eskean ibili behar dute. Jantz ezazu beroki arrunt bat... orain herritar xehea zara, txiroa, porrot egin duen aitoren seme bat, baina ez duzu zertan lotsaturik! Bidez bide eta herriz herri ibiliko zara, telega arrunt batean eta limosna-liburua eskuan. Apezpikuak bedeinkapena eta liburua emango dizkizu, eta zoaz Jainkoarekin.

Txunditurik utzi zuen Piotr Petrovitx eginkizun berri horrek. Bera, garai batean lehengo era zaharreko aitoren semea izanagatik, liburua eskuan eliza bat eraikitzeko diru eske ibili, tele-

ga batean zambuluka gainera! Baina ezin ezezkorik eman edo ukorik egin: errukizko egintza zen.

— Zalantzan zaude? —esan zuen Murazovek—. Bi zerbitzu egingo dituzu: bata Jainkoari eta bestea niri.

— Zuri?, nolako zerbitzua egingo dizut zuri?

— Hona nolakoa. Ni oraindik izan ez naizen hainbat lekutara joango zara, eta gauza asko jakingo dituzu: nola bizi diren mujikak, non diren aberatsagoak, non dauden beharraldian eta zertan den leku bakoitzeko egoera. Jakinarazi behar dizut ni mujik-familia batean jaioa naizela eta agian horregatik maite ditudala mujikak. Baina kontua da zitalkeria nagusitu dela haien artean. Raskolnikiek eta denetariko arloteek burua berotzen diete, boterearen kontra jartzen dituzte, boterearen eta ordenaren kontra, eta jendea aise matxinatzen da zapaldurik dagoenean. Gizabanakoa eramankorra bada, ordea, nekez matxinatuko du inork. Konponbidea ez da behekoak zigortzen hastea. Ez da komeni indarra erabiltzea: horrek ez luke inolako onurarik ekarriko, gaizkileen mesedetarako litzateke. Zu gizon buruargia zara, erne ibili, jakin ezazu jendea non

den eramankorra eta non suminkorra, eta kontaiezadazu gero horren guziaren berri. Badaezpada ere, diru apur bat emango dizut mujik eramankor errugabeen artean banatzeko. Zuk, zeure aldetik, haien bihotza hitzen bidez arintzen saiatu behar duzu, eta askoz hobe azaltzen badiezu Jainkoak agindu zuela etsi onean eraman behar ditugula nahigabeak, eta otoitz egin behar dugula zorigaitzaren orduan, eta ez dela bidezkoa bazterrak nahastea edo norberak mendeku hartzea. Labur esanik, hitz egin haiekin, inor inorekin etsaitu gabe eta denak adiskidetuz. Baten batek inori gorroto diola ikusten baduzu, gogotik ahalegindu berarekin.

— Afanasi Vasilievitx!, nire esku utzi nahi duzun eginkizun hau —esan zuen Khlobuievек— eginkizun santua da; baina gogoan izan noren esku uzten duzun. Bizitza santua daraman eta dagoeneko lagun hurkoa barkatzeko gai izan den norbaiten esku soilik utz daiteke horrelako eginkizun bat.

— Ez dut esan nahi hori guztia lortuko duzunik; ahal duzuna, zure esku dagoena soilik egin behar duzu. Gutxienez, itzultzen zarenean, leku

horiek ezagutuko dituzu eta alderdi bakoitza nolako egoeran dagoen jakingo duzu. Funtzionario batek inoiz ez du irabaziko herritarren uste ona, eta mujikak ez dira garbi mintzatuko harekin. Baina zu, elizarako diru eske zabiltzala, etxe guztietan sartuko zara, hala burges txikienetan nola merkatarienetan, eta guztiei galdetzeko aukera izango duzu. Hain zuzen ere, gobernadore militarrek zu bezalako jendea behar du orain, horregatik jo dut zuregana; eta zuk kargu ezin hobea jasoko duzu, edozein goi-bulegoko buruarena baino hobea, eta zure bizitza ez da alferrikakoa izango.

— Saiatuko naiz, ahal dudan guztia egingo dut —esan zuen Khlobuievек. Eta adorea nabaritu zitzaion ahotsean, tentetu zitzaion bizkarra, eta goratu burua, itxaropenak argituari gertatzen zaion legez—. Ohartu naiz Jainkoak zentzuaren dohainaz hornitu zaituela eta adimen kamutsekook baino argiago ikusten duzula dena.

— Eta orain, utzi beste galdera bat egiten —esan zuen Murazoveк—. Nor da Txitxikov hori eta zertan dabil?

— Ezin sinesteko moduko gauzak kontatuko dizkizut Txitxikovez. Izugarriak egiten ditu... Badakizu, Afanasi Vasilievitx, testamentua gezurrezkoa dela? Egiazkoa aurkitu dute, eta ondatsun guztiak bi ikasle ohirentzat dira.

— Ez da izango! Eta nork egin zuen gezurrezko testamentua?

— Kontua da gertaturikoa guztiz higuin garria dela. Diotenez, Txitxikovek berak egin zuen testamentua, eta atsoa hil ondoren sinatu zuten: beste emakume bat jarri zuten hilaren lekuan, eta berak sinatu zuen. Hitz batean, ezin nabarmenagoa kontua. Auzi-eskeak milaka iritsi omen dira epaitegira, leku askotatik. Orain galai asko inguratzen zaizkio Maria Jeremeievnari; dagoeneko bi funtzionariok elkar jipoitu dute haren kariaz. Horra zertan diren gauzak, Afanasi Vasilievitx!

— Ez nekien horren berririk, eta afera larria da, izan ere. Aitor dut Pavel Ivanovitx Txitxikov hori ezin enigmatikoagoa dela niretzat —esan zuen Murazovek.

— Nik hainbat eskabide aurkeztu ditut gogorazteko oinordekorik hurbilena bizirik dagoela oraindik...

«Ze demontre, mokoka ibil daitezela denak, niri bost! —pentsatu zuen Khlobuieviek, gelatxotik irteteaz batera—, Afanasi Vasilievitx ez duk ergela. Inondik ere, ondo hausnarturik hautatu naik eginkizun horretarako. Haren esana egingo diat, eta kito.» Bidaian pentsatzen hasi zen, eta, bitartean, Murazovek behin eta berriro errepikatzen zuen bere artean: «Ezin enigmatikoagoa duk niretzat Pavel Ivanovitx Txitxikov hori. Hobe genikek seta eta kemen hori guztia onerako erabiliko balu!».

Eta, bitartean, mordoka iristen ziren auzi-eskeak epaitegira. Inork ezagutzen ez zituen hainbat ahaide agertu ziren bat-batean. Hegaztiak sarraskira nola, halaxe inguratzen ziren denak atsoak utziriko ondare oparora. Txitxikoven kontrako salaketak, azken testamentua gezurrezkoa zelako salaketak, lehen testamentua gezurrezkoa zelako salaketak, lapurretaren eta diru-kopuru ezkutuen frogak. Hainbatek salatu zuten Txitxikovek arima hilak erosten

zituela, eta beste hainbatek, berriz, aduanan jardun zuen denboran kontrabandoan aritu zela; eta frogak aurkeztu zituzten denek. Dena atera zen argitara, agerian geratu zen Txitxikoven iragana. Jakinkoak daki nork eta nola zabaldu zuen horren guztiaren berri. Txitxikoven ustez berak eta lau hormek bakarrik zekizkiten hainbat konturen frogak ere agertuziren. Hori guztia auzibideko sekretua zen oraindik, eta, horrenbestez, ez zen iritsi Txitxikoven belarrietara, baina, hala ere, legelariak luze gabe bidali zion ohar batek aditzera eman zion eltzea borborka hasia zela. Oharra oso laburra zen: «Berandu baino lehen jakinarazten dizut zure auzia nahasi samar datorrela, baina gogoan izan ez duzula larritu behar. Lasaitasuna da garrantzitsuena. Dena konponduko dugu». Ohar horrek erabat lasaitu zuen Txitxikov. «Jeinu hutsa duk gizon hau», esan zuen bere artean.

Hain albiste ona asko ez zela, jostunak [jantzia] ekarri zion une horretantxe. Bere burua Navarinoko ke eta sugar koloreko frak berriaren barruan ikusteko gogo bizia sumatu zuen [Txitxikovek]. Nekez jantzi zituen galtzak, eta oso

modu zoragarrian bildu zizkioten hankak alde guztietatik. Estu-estu egokitu zitzaizkion izter-aztalen inguru guztian, are malgutasun-itxura handiagoa emanez. Gerriaren atzeko lokarria gogor lotu zuenean, sabelak danbor baten itxura hartu zuen. Eskuilaz ukalditxo bat eman, eta esan zuen: «Hau jantzi xelebrea! Hala ere, ondo ematen dik dena batera ikusirik». Fraka galtzak baino are hobeto josirik zegoen: zimurrik gabe egokitzen zitzaien saihetsei eta gerriari, Txitxikoven gorpuzkera nabarmenduz. Aukeran estuegi geratzen zen eskuineko galtzarbean, baina horri esker are lirainago biltzen zion gerria. Jostunak, pozaren pozez, hitzetik hortzera esan zuen: «Lasai, Petersburgen baino ez dute hau bezalakorik egiten». Jostuna Petersburgen jaioa zen, baina idazkun hau zeukan dendako atearren gainean: «Londreseko eta Pariseko atzerritarra». Ez zituen gogoko adar-jotzeak, eta, bi hirien izenak batera jarririk, ahoa itxi nahi izan zien gaine-rako jostun guztiei: aurrerantzean ezingo zituzten bi hiri haiek erabili eta, haien ordeaz, «Karlsruhe» edo «Kopenhage» idatzi beharko zuten.

Txitxikovek eskuzabal ordaindu zion jostunari eta, bakarrik geratu zenean, beste zereginik ez zuela, bere irudia ispiluan aztertzen hasi zen, artista batek egingo lukeen bezala, halako sentipen estetiko batez eta *con amore*. Bazirudien lehen baino itxura hobea zuela: politagoak masailak, erakargarriagoa kokotsa, iduneko zuriak tonu egokia ematen zien masailei, eta satenezko gorbata urdinak tonu egokia ematen zion idunekoari; azken orduko modaren arabera-ko paparreko tolesdunak tonu egokia ematen zion gorbatari, sedazko [txaleko] aberatsak tonu egokia ematen zion paparrekoari, eta Navarinko ke eta sugar koloreko frakak, seda bezain distiratsu, tonu egokia ematen zion guztiari. Eskuintara jiratu, eta ondo! Ezkerretara jiratu, eta are hobeto! Horrela jantzirik, xanbelan bat gogorazten zuen, edo, aukeran, frantsesak baino frantseszaleago diren jaun horietako bat, zeren eta horrelakoak frantsesen erara orrazten dira eta, are haserre daudenean ere, ez diote beren buruari desohorerik ematen errusierazko hitz zantarrak esanez, errusieraz birao egiten ere ez dakite eta, horrenbestez, frantsesez egiten dute

errieta. Hori fintasuna! Burua alde baterantz apur bat makurturik, tarteko adineko eta heziketa modernoko andre bati mintzatzeko hartuko lukeen jarrera saiatu zuen: hura koadro ederra! Margolaria, hartu pintzela eta ekin pintatzeari! Pozaren pozez, jauzi arin bat egin zuen, *entrechat* baten antzekoa. Dar-dar egin zuen komodak, eta kolonia-uraren flaskoa lurrera erori zen zarata handia ateraz, baina horrek ez zuen inola ere asaldatu. Merezki zuenez, ergela esan zion kolonia-uraren flaskoari, eta pentsatu: «Aurrena nor ikustera joango naiz? Onena lukek...».

Ustekabean, bota ezproidun batzuen hotsa aditu zen harrera-gelan, eta jendarme bat azaldu zen, goitik beheraino armaz josirik, berak bakarrik gudaroste oso bat zirudiela. «Gobernadore militarren aurrera agertu behar duzu oraintxe bertan!» Harri eta zur geratu zen Txitxikov. Mamarro bibotedun bat zeukan aurrean, izugarri, tente, zaldi-buztan bat buruan, hede bat sorbalda batean, beste hede bat bestean eta sable ikaragarri bat gerriaren alde batean zintzilik. Iruditu zitzaion fusila eta deabruak daki zer gehiago zeramala gerriaren beste aldean eseki-

rik: gudaroste osoa soldadu bakar batean! Aitzakiak jartzen hasi zen, baina mamarroak zakar esan zion: «Oraintxe bertan!». Harrera-gelako atetik ikusi zuen beste mamarro bat zegoela han; leihora begiratu, eta zalgurdi bat. Zer egin zezakeen? Zegoen bezalaxe, Navarinoko ke eta sugar koloreko fraka jantzirik, zalgurdira igo behar izan zuen, eta, gorputz osoa dardaraka, gobernadore militarrenera abiatu zen, jendar-mea aldamenean zeukala.

Atarian sartu zelarik, ez zioten lasaitzeko betarik eman. «Azkar! Printzea zure zain dago eta!», esan zion guardiako funtzionarioak. Laino artean bezala ikusi zuen aurrean ataria, non postariak paketeak jasotzen baitzituzten, eta areto bat gero, zeina honela pentsatuz zeharkatu baitzuen: «Atxilotu egingo naik, eta zuzen-zuzenean Siberiara bidali, epaiketarik gabe, besterik gabe!». Maitalerik jeloskorrenarena baino bortizkiago ari zitzaion taupadaka bihotza. Azkenean, atea ireki zen haren aurrean; bulegoa agertu zen, paper-zorroz, armairuz eta liburuz beterik, eta printzea, haserre baino haserreago.

«Nireak egin dik, nireak egin dik! —esan zuen Txitxikovek bere artean—. Bertan txikituko naik; otsoak bildotsa nola, halaxe hilko naik!»

— Zutaz errukitu nintzen lehengo batean; espetxea merezi zenuen, baina hirian gelditzeko baimena eman nizun, eta zu ezein gizakik sekula egin duen makurkeriarik gaitzesgarrienaz lohitu zara berriro.

Printzearen ezpainak amorruz dardaraka zeuden.

— Jaun ohoragarri hori, zein makurkeria ezinago gaitzesgarriz ari zara? —galdetu zuen Txitxikovek, gorputz osoa dardaraka.

— Emakumea —esan zuen printzeak, Txitxikovengana apur bat hurbildurik eta begirada haren begietan iltzaturik—, zuk hala agindurik testamentua sinatu zuen emakumea atxilotua izan da, eta buruz buru jardun beharko duzue biok epaimahaiaren aurrean.

Txitxikov mihisea baino zuriago jarri zen.

— Jaun ohoragarri hori! Egia osoa aitortuko dizut. Errudun naiz, bai, errudun naiz, baina ez hain errudun. Etsaiek laidoztatu egin naute.

— Zu ezin zaitu inork laidoztatu, gezurtirik gezurtienak [asma] lezakeen baino zitalagoa baitzara berez. Nago zure bizitza osoan ez duzula egin gaitzesgarria ez den ezer. Irabazi duzun kopek bakoitza era gaitzesgarrian irabazi duzu, eta hori lapurreta da, zartailuaz eta Siberiaz zigortzen den egintza ezin gaitzesgarriagoa! Ez, aski da! Oraintxe bertan eramango haute espetxera, eta han egongo haiz, muduko gaizkilerik doilorrenekin batera, hire auzia erabaki arte. Eta bihozbera nauk hirekin, haiek baino askoz ere txarragoa haiz eta: haiek oihal latzezko jaka lodiak eta ahari-larruzko beroki luzeak janzten ditiztek; hik, ordea...

Navarinoko ke eta sugar koloreko frakari begiratu zion, eta, sedazko sokatxo bati eraginez, txilina jo zuen.

— Jaun ohoragarri hori! —egin zuen oihu Txixikovek—, izan zaitez biguna, arren! Aita familiakoa zara. Gupidarik ez niretzat, baina erruki zaitez nire amaz, oso zaharra da eta!

— Gezurtia halakoa! —egin zuen garrasi printzeak, haserre bizian—. Aurrekoan, nire bihotza biguntzea lortu huen seme-alabak eta familia

aipatuz, eta ez huen halakorik, eta orain ama hartzen duk ahotan!

— Jaun ohoragarri hori, munduko gizonik zitalena eta gaiztoena naiz —esan zuen Txitxikovek, ahots [...]—. Gezurra esan nizun, bai, ez dut ez seme-alabarik ez familiarik; baina, Jainkoa leku-ko, ezkontzeko gogoia izan dut beti, gizon eta herritar gisa dagokidan betebeharra egin nahi izan dut beti, horrela gizartearen eta agintarien begirunea irabazteko... Baina zoritxarreko gertakari asko bildu dira nire kontra! Gorriak, jaun ohoragarri hori, gorriak ikusi ditut bizibidea lortzeko. Tentazioak eta galbideak aurkitu ditut nonahi..., etsaiak, eta hiltzaileak, eta lapurrak. Nire bizitza osoa erauntsi bortitz baten gisakoa izan da, haizearen mende olatu artean dabilen itsasontziaren antzekoa nauzu. Gizakia naiz, jaun ohoragarri hori!

Bat-batean, ibaika isuri zituen malkoak bi begietatik. Belauniko erori zen printzearen oinen aurrean, zegoen bezalaxe, Navarinoko ke eta sugar koloreko fraka, belusezko txalekoa, sate-nezko gorbata eta galtza berriak jantzirik, ondo

orrazturik eta kolonia-uraren usain gozoa zerio-
la.

— Urrun zaitez niregandik! Eraman ezazue gizon hau hemendik! —agindu zien printzeak gelan sartu berriak ziren soldaduei.

— Jaun ohoragarri hori! —esan zuen oihuka [Txitxikovek], eta bi eskuekin heldu zion printzearen bota bati.

Dardara batek [printzearen] zain guztiak astindu zituen.

— Alde egiteko esan dizut! —egin zuen oihu, hanka Txitxikoven besarkadatik askatzeko ahal-egin biziak eginez.

— Jaun ohoragarri hori!, nitaz errukitzen ez zaren bitartean, ez naiz hemendik joango! —zioen [Txitxikovek], printzearen bota askatu gabe eta hankari itsatsirik lurretik arrastaka zihoala, Navarinoko ke eta sugar koloreko fraka soinean.

— Joateko agindu dizut! —zioen printzeak, oin azpian zapaltzeko adorerik gabe zomorro nazkagarri bat dakusanak sentitzen duen higuin-sentipen ezin azalduzko horrekin. Hain gogor eragin zion hankari, ezen Txitxikovek botaren

ukaldia nabaritu baitzuen sudurrean, ezpainetan eta kokots biribilean, baina ez zuen bota askatu, eta are indar handiagoz inguratu zuen hanka bi besoekin. Bi jendarme sendok indarrez bereizi, eta gela guztietan barrena eramane zuten gal-tzarbeetatik heldurik. Zurbil zegoen, lur jota, sorgortasunezko egoera ikaragarri batean, hala nola egoten baita gizabanakoa aurrean dakusanean herio beltz eta ezin saihestuzkoa, gure izaeraren kontrako mustro nazkagarri hori...

Atean bertan, Murazov ikusi zuen zurubian gora igotzen, berarenganantz. Itxaropen-izpi batek distiratu zuen bat-batean. Txitxikov, begien itxi-ireki batean, naturaz gaindiko indarrez bi jendarmeen besoetatik askatu, eta agure harrituaren oinetara oldartu zen.

— Pavel Ivanovitx adiskidea, zer gertatzen zaizu?

— Salba nazazu! Espetxera naramate, heriotzara...

Jendarmeeek heldu eta eramane egin zuten, ezer entzuteko betarik eman gabe.

Zoko-usaineko traste-gela heze bat, garnizoi-ko soldaduen bota eta azpantarren kiratsa,

mahai margotu gabe bat, bi aulki kaxkar, burdin sarez itxitako leiho bat, eta zirrituetatik kea ateratzen zitzaion eta batere berotzen ez zuen berogailu zahar bat: horra gure [protagonistari] eman zioten bizitegia, noiz eta bizitzaren gozoa dastatzen eta herrikideen arreta Navarinoko ke eta sugar koloreko frak berri dotorera erakartzen hasia baitzen. Ez zioten aukerarik eman gauzakerik ezinbestekoenak ere eramateko, ez zioten utzi dirua gordetzeko erabiltzen zuen kutxa hartzen. Paperak, arima hilen eroste-agiriak..., dena zegoen orain funtzionarioen eskuetan! Lurrera erortzen utzi zuen gorputza, eta goibeltasun izugarri eta itxaropenik gabearen har aseezina bihotzaren alboan kiribildu zitzaion. Gero eta lasterrago, bihotz babesgabe hura marraskatzeari ekin zion. Horrelako beste egun bat, hain tristura handiko beste egun bat, eta Txitxikov betiko desagertuko zen mundu honetatik. Baina esku orosalbatzaile bat Txitxikoven zoriaz arduratu zen. Ordu bete geroago, espetxeko ateak ireki eta Murazov zaharra sartu zen.

Baldin eta eztarri lehorrera iturbegiko ura isuriko baliote, egarri kiskalgarri batek oinazetua ez

litzateke Txitxikov zuzpertzuz bezainbeste zuzpertzuko.

— Nire salbatzailea! —esan zuen Txitxikovek, eta, arrapaladan haren eskua harturik, muin egin zion eta bularraren kontra estutu zuen—. Jainkoak sarituko ahal zaitu dohakabeari bisita egiteagatik!

Malkoz bete zitzaizkion begiak.

Agureak, samintasunezko begirada errukiorra egotzi, eta esan zuen:

— Ai, Pavel, Pavel Ivanovitx! Pavel Ivanovitx, zer egin duzu?

— Zitala naiz... Erruduna... Legea hautsi dut... Baina esadazu, uste al duzu bidezkoa dela honela jokatzea nirekin? Aitoren semea naiz. Espetxean sartu naute, epaiketarik gabe, auzibiderik gabe, eta dena kendu didate: nire gauza guztiak, kutxa..., hor daukat dirua, hor daukat ondasunak, hor daukat nire ondasun guztiak, Afanasi Vasilievitx, nekez eta izerdiz irabazitako ondasunak...

Eta, berriro ere bihotza irauli zion goibelaldia-ri eusteko indarrik gabe, negar-zotinka hasi zen, ozenki, eta zotinek espetxeko horma lodiak

zeharkatu eta urrun burrunbatu zuten. Satenezko gorbata erauzi eta, eskuaz idunekoari heldurik, goitik beheraino urratu zuen Navarinoko ke etaugar koloreko fraka.

— Pavel Ivanovitx, ez duzu zer eginik: agur esan behar diezu ondasunei eta mudu honetan daukazu guztiari. Ez zara gizabanako baten aginpidearen mende erori, lege gupidagabearen mende baizik.

— Neronek galdu dut neure burua, badakit, ez naiz gai izan garaiz gelditzeko. Baina zer dela eta honen [zigor] ikaragarria, Afanasi Vasilievitx? Gaizkilea al naiz? Inork sofritu al du nire erruz? Zorigaitza ekarri al diot inori? Nekez eta izerdiz, odolezko izerdiz irabazi dut kopek bakoitza. Zertarako? Egunen batean oparo bizitzeko, sorterriaren onerako eta mesedetarako ekarri nahi nituen seme-alabei zerbait uzteko. Bide okerra hartu dut, ez dut ukatzen, bide okerra hartu dut..., baina zer egin nezakeen? Bide okerra hartu dut ikusi nuelako bide zuzenetik ez nituela nire helburuak erdietsiko eta zeharbidea laburragoa zela. Baina lan egin dut, jardunean aritu naiz. Beste batzuk, ordea, askoz zitalagoak

dira, auzitegiez baliatzen dira Estatuari dirutza handiak lapurtzeko, edo jende behartsua larrutzen dute, azken kopeka kentzen diote ezertxo ere ez daukanari!... Afanasi Vasilievitx! Ez naiz lapurra, ez naiz mozkortia. Nolako nekeak nireak!, nolako egonarri burdinazkoa! Nik, argi esan dezaket, oinazez ordaindu dut irabazi dudan kopek bakoitza, oinazez! Mundu honetan inork sofritu badu, ni nauzu hori! Horixe izan da nire bizitza osoa: borroka latza, itsasontzi bat olatu artean. Eta, Afanasi Vasilievitx, galdu egin dut borroka horretan irabazitako guztia...

Ez zuen solasa amaitu, eta, bihotzeko min jasanezinak eraginik, ozenki hasi zen negarrez, aulki gainera bota zuen gorputza, dilindan zeukan frak-barren zarrastatu bat bereizi eta urrun jaurti zuen, bi eskuekin heldu zien buruko ileei eta, nahiz eta lehen biziki arduratzen zen haien sendotasunaz, gupidarik gabe erauzi zituen orain, atsegin hartuz, beste min horrekin bihotzeko min ezin arinduzkoa leundu nahirik.

— Ai, Pavel Ivanovitx, Pavel Ivanovitx! — zioen [Murazovek], errukiz begira eta [buruari] ezker-eskuin eraginez—. Askotan pentsatzen dut

nolako gizona zinatekeen kemen eta egonarri hori guztia egintza onetarako eta [helburu] hobeak erdiesteko erabili bazenu! Ai ongia maite duten gizaki horietakoren bat zu kopek bakoitza irabazten ahalegindu zaren bezain kementsu lehiatuko balitz ongia egiten!... Ai horietakoren batek handinahia eta bere buruarenganako estimua ongiaren mesedetan sakrifikatuko balitu, bere buruaren gupidarik gabe, hala nola zuk ez duzun zeure buruaren gupidarik izan kopek bakoitza irabazteko!

— Afanasi Vasilievitx! —esan zuen Txitxikov errukarriak, eta bi eskuekin heldu zien haren eskuei—. Lortuko bazenu ni askatzea eta nire ondasunak itzultzea! Zin dagit bestelako bizimodua eramango nukeela hemendik aurrera! Salba nazazu, nire ongilea, salba nazazu!

— Zer egin dezaket nik? Legearen kontra borrokatu beharko nuke. Demagun horretara erabakitzen naizela, baina printzea gizon zuzena da, eta inola ere ez du atzera egingo.

— Nire ongilea! Zuk dena egin dezakezu. Ez nau legeak beldurtzen, aurkituko dut legeari aurre egiteko bidea, beldurtzen nauena da arra-

zoirik gabe sartu nautela espetxean, zakur bat bezala galduko naizela hemen, eta nire ondasunak, agiriak, kutxa... Salba nazazu!

Agurearen oinak besarkatu, eta malkoz busti zizkion.

— Ai, Pavel Ivanovitx, Pavel Ivanovitx! — zioen Murazov zaharrak, [buruari] eraginez—. Nola itsutu zaituzten ondasun horiek! Haien kariaz, ez diozu zeure arima dohakabeari ere entzuten!

— Pentsatuko dut neure ariman ere, baina salba nazazu!

— Pavel Ivanovitx! —esan zuen Murazov zaharrak, eta isildu egin zen une batez—. Zerorrek ikus dezakezunez, zu salbatzea ez dago nire esku. Dena dela, ahal dudan guztia egingo dut zu askatzeko eta zure zorigaitza arintzeko. Ez dakit lortuko dudan, baina ahaleginak egingo ditut. Eta lortzen badut, Pavel Ivanovitx, nire ahaleginen saria eskatuko dizut: bertan behera utziko dituzu eroste-asmu guztiak. Nire ohorea-rengatik hitzematen dizut ezen, neure ondasun guztiak galduko banitu —eta zuk baino askoz gehiago ditut—, ez nintzatekeela negarrez hasi-

ko. Nire ustez, [gakoa] ez dago konfiskatu ahal didaten ondasun horretan, inork lapurtu edo kendu ezin didan beste horretan baizik. Zu, dagoeneko, aski bizi izan zara mundu honetan. Zerorrek diozunez, zure bizitza olatu artean dabilen itsasontzi bat da. Dagoeneko baduzu aurrerantzean oparo bizitzeko adina. Jar zaitez bizitzen bazter leku lasai batean, elizatik eta herritar xume onengandik hurbilago; edo, auke-
ran, munduan ondorengoak uzteko gogo handia baduzu, ezkon zaitez neurritasunera eta etxeko zeregin arruntetara jarririk dagoen neska txiro on batekin. Ahaztu mundu zalapartatsu hau eta haren apeta liluragarriak oro; eta ahatz zaitzala berak ere zu! Mundu honetan ez dago sosegurik. Zerorrek ikusi duzunez, etsai, tentatzaile eta traidorez beterik dago.

Pentsakor geratu zen Txitxikov. Zer bitxi bat, ezin azal zitzakeen sentipen berri eta ordu arte ezezagun batzuk nabaritu zituen: bazirudien zerbait esnatu nahi zitzaiola barnean, haurtzarotik itorik eduki baitzuten irakaskuntza zorrotz eta antzuak, haurtzaro aspergarriko maitasunik ezak, jaiotetxeko hustasunak, familiarik gabeko

bakartasunak, aurreneko zirraren pobretasun eta urritasunak, eta, azkenik, patuaren begirada latzak, modu aspergarrian begiratu baitzion, neguko elur-erauntsiak gandaturiko leiho batetik zehar.

— Salba nazazu, Afanasi Vasilievitx! —egin zuen oihu—. Bestelako bizimodua eramango dut aurrerantzean, aintzat hartuko ditut zure aholkuak! Hitzematen dizut hala egingo dudala!

— Ez ezazula hitza jan, Pavel Ivanovitx! —esan zion Murazovek, eskutik heldurik zeukala.

— Jango nuke beharbada, irakaspena hain izugarria izan ez balitz —esan zuen, hasperen eginik, Txitxikov errukarriak, eta gaineratu—: Baina latza izan da irakaspena; latza, latza izan da irakaspena, Afanasi Vasilievitx!

— Eskerrak latza izan den, ona da hori. Eskerrak eman Jainkoari, otoitz egin ezazu. Banoa zure alde jardutera.

Hori esanik, han joan zen agurea.

Txitxikovek jadanik ez zuen negarrik egiten, ez zituen erauzten fraka eta ileak: lasaiturik zegoen.

— Ez, aski duk! —esan zuen azkenean—, bestelako bizimodua, bestelako bizimodua. Izan ere, zintzo bizitzeko garaia iritsi zaidak. Oi nola edo hala estualdi honetatik onik aterako banintz eta gutxienez kapital txiki batekin alde egingo banu!, bazter urrun batean jarriko nauk bizitzen... Eta eroste-agiriak?... —Pentsatu zuen: «Zer arraio? Zergatik utzi bertan behera hain neke handiz eskuratutakoa?... Ez diat gehiago erosiko, baina bahituran jarri behar diat daukadana. Gorriak ikusi ditiat hori eskuratzeko! Bahituran jarriko diat, bahituran jarriko diat, eta etxalde bat erosiko diat diru horrekin. Lurjabea izango nauk, horrela gauza on asko egin daitezke eta». Eta berriro ernatu zitzaizkion Gobrojoglorekin izan zenean beraren barneaz jabetu ziren sentimendu haiek, eta gogora etorri zitzaion arratseko argitasun berogarrian izaniko elkarrizketa atsegina eta mamitsua, zeinean lurjabe buruargi hark azaldu baitzion zein emankorrak eta onuragarriak diren etxaldeko lanak. Eder irudikatu zuen herrixka, artean ere herrixkaren xarma guztiak atzemateko kemena balu bezala.

— Ergelak gu, ezerezerkien atzetik gabiltzak!
—esan zuen azkenean—. Alferrak gaituk eta!
Hurbil zeukaagu dena, eskumenean diagu dena,
baina munduaren azken muturrean dagoena
nahi diagu. Zer da bizitza lanean jardutea baino,
bazter leku batean bada ere? Zalantzarik gabe,
lana duk atsegin nagusia. Norberaren lanaren
emaitza baino fruitu gozoagorik ez zegok... Ez,
lan egingo diat, herrixka batean jarriko nauk bizi-
tzen, eta zintzo jokatuco diat, besteengan eragin
ona izateko moduan. Izan ere, zergatik uste izan
jadanik ez dudala ezertarako balio? Gai nauk
etxalde bat gobernatzeko, baditiat horretarako
behar diren berezitasunak, zuhurra nauk, eta
lehiatsua, eta zentzuduna, baita setatsua ere.
Horretara erabakitzea bakarrik falta zaidak.
Oraingo gauza bakarra diat argi eta garbi: ale-
gia, badela eginbehar bat norberak mundu
honetan bete beharrekoa, nork bere bizilekuan,
dagoen lekuan dagoela.

Eta lanari atxikiriko bizitza, hala hiriko zala-
partatik nola lana ahazturik daukan gizabanako
astitsuak nagia ren nagiaz asmatzen dituen ten-
tazioetatik urrun, hain kolore biziz hasi zen

haren irudimenean agertzen, ezen ia ahaztu baitzitzaien bere egoeraren garrantzitasun guztia eta, agian, prest bailegokeen probidentziari hain [irakaspen] latza eman izana eskertzeko ere, baldin eta askatuko balute eta gutxienez ondasunen parte bat itzuliko baliote. Baina... bere gela zikin hartako ate atal-bakarra ireki, eta funtzionario bat sartu zen: Samosvistov, gizon epikureoa bera, ausarta, adiskide bikaina, festazalea eta, lagunek berek esaten zuten bezala, alproja petoa. Balentria miragarriak egingo zituzkeen gizon horrek gerra-denboran: etsaien aldera bidaliko zuketena, itzalgaizka eta leku ibilgaitz, arriskuetsuak zeharkatuz, haien muturraren aurrean kanoi bat lapurtzera. Armadan sartu balitz, beharbada, gizon prestua izatera iritsiko zatekeen, baina horrelakorik gertatu ezenez, gaiztatu eta zitaldu egin zen. Bai harrigarria!, ona zen adiskideekin, ez zuen inor saltzen, eta hitza emanez gero, eutsi egiten zion; gainera zituen agintariak, ordea, halako etsai-bateria bat ziren berarentzat, kosta ahala kosta urratu beharrekoa, ahulgune, zirritu eta zabarkeria guztiez baliatuz...

— Dena dakigu zure egoerari buruz, dena entzun dugu! —esan zuen ikusi zuenean atea erabat itxi zela beraren atzean—. Lasai egon, lasai egon! Ez kezkatu: dena konponduko da. Zure alde jardungo dugu denok, zure zerbitzari gaituzu denok! Hogeita hamar mila guztiontzat, gehiagorik ez.

— Zer? —egin zuen oihu Txitxikovek—. Eta dena barkatuko didate?

— Den-dena!, eta, gainera, kalteak ordainduko dizkizute.

— Eta lan horren truke?...

— Hogeita hamar mila. Denontzat: guretzat, gobernadore militarren sailekoentzat eta idazkariarentzat.

— Barkatu, baina nola ordain nezake? Nire gauza guztiak... kutxa... ezkoz zigilaturik dago dena orain, zaintzapean...

— Ordu bete barru dena jasoko duzu. Ados zaude? Ekarri bosteko hori!

Txitxikovek eskua estutu zion. Dardaraka zeukan bihotza, ez zuen sinesten horrelakorik gerta zitekeenik...

— Bitartean, agur! Agindu didate esateko lasaitasuna eta odol hotza direla garrantzitsuenan.

«Jum! —pentsatu zuen Txitxikovek—. Uler-tzen diat: legelaria!»

Desagertu zen Samosvistov. Txitxikov haren hitzak ezin sinetsirik geratu zen, eta hara non, elkarrizketa hura izan eta ordu bete geroago, kutxa ekarri zioten: agiriak, dirua, txukun-txukun ordenaturik dena. Samosvistov nagusi-itxurak eginez azaldu zen: kargu hartu zien jagoleei arretarik gabe zaintzen zutelako, eta soldadu gehiago ipintzeko agindu zuen, zaintza sendotze aldera; kutxa ez ezik, Txitxikov nola edo hala konprometitu ahal zuten paper guztiak ere hartu zituen; dena batera lotu, bilgoa ezkoz zigilatu, eta soldaduari berari agindu zion behingoan eramateko Txitxikovi, gauerako eta lotarako premiazko gauzak balira bezala, eta, horrenbestez, bere gorputz hilkorra estaltzeko behar zituen berogarriak ere jaso zituen Txitxikovek agiriekin batera. Hain igortze lasterrak ezin adierazizko neurriraino poztu zuen. Itxaropen sendoa sumatu zuen, eta askotariko pizgarriak amesten hasi

zen berriro, hala nola arrats hartan antzerkira joatea, gortetzen zuen dantzaria ikustera. Margultzen hasi ziren herrixka eta bizimodu lasaia; hiria eta zalaparta, aldiz, lehen baino argitsuago eta distiratsuago azaldu zitzaizkion... Oi, bizitza!

Bitartean, auziak neurrigabeko zabaltasuna hartu zuen auzitegian eta Ganberan. Lan egiten zuten eskribauen idazlumek, eta, sudurretik tabakoa hartuz, jardunean aritzen ziren haien buru nahaspilatuak, lerro kakoak miretsiz, artistak balira bezala. Legelariak, ezkutuko mago ikusezin baten antzera, mekanismo guztia gobernatzen zuen; erabat lardaskatu zuen dena, inork ezer ikertzeko astirik izan baino lehen. Nahaste-borrastea gero eta handiagoa zen. Samosvistovek bere ausardiaren eta ozartasun berebizikoaren mugak gainditu zituen. Atxiloturiko emakumea non zeukaten jakinik, hara joan zen zuzenean, eta hain bulartsu eta agintari-aire nabarmenez sartu zen, ezen jagolea, ohoreak egin, eta tente-tente jarri baitzen berehala.

— Aspalditik hago hemen?

— Goizetik, jaun agurgarri hori.

— Asko falta da ordezkoa etortzeko?

— Hiru ordu, jaun agurgarri hori.

— Hire beharra diat. Hire lekuan beste norbait jartzeko esango zioat ofizialari.

— Zure esanera, jaun agurgarri hori!

Etxera joan zen, eta, minutu bat ere galdu gabe, jendarme jantzi zen bera, beste inor tartean ez sartzeko eta aztarnarik ez uzteko. Deabruak berak ere ez zukeen ezagutuko, halako bibote eta belarrondoko bizar gezurrezkoak jarri zituen. Horrela mozorroturik, Txitxikov zegoen etxera joan zen, eta, aurkitu zuen lehen emakumea harrapaturik, bera bezain maltzurak ziren bi funtzionario gazteren eskuetan utzi zuen, eta berak zuzenean jo zuen jagolearengana, bibotearekin eta fusila aldean, zegokion bezala.

— Hoa, nik beteko diat hire lekua, hi ordeztzera bidali naik komandanteak.

Jagolearen lekuan jarri, eta hantxe geratu zen, fusila aldean.

Hori besterik ez zuen behar. Bitartean, espetetik atera zuten lehengo emakumea, eta bestea haren tokian aurkitu zen, zer gertatzen zen jakin gabe eta tutik ulertzen ez zuela. Hain ondo ezkutatu zuten lehengo emakumea, ezen inork

ez baitzuen gehiago haren berririk jakin. Samosvistov militar gisa aritzen zen bitartean, legelariak mirariak egin zituen zibilen arloan: gobernadoreari zeharka jakinarazi zion prokuradoreak salaketa bat jarri zuela beraren kontra; jendarmeriako funtzionario bati jakinarazi zion ezkutuan bizi zen funtzionario batek hainbat salaketa aurkeztu zituela beraren kontra; ezkutuan bizi zen funtzionarioari sinetsarazi zion bazela funtzionario are ezkutuago bat beraren kontrako salaketa jarri zuena, eta hain kezkatuak utzi zituen denak, ezen berarengana jo behar izan baitzuten aholku eske. Izugarri nahasi ziren gauzak: salaketak bata bestearen gainean pilatuz zihoazen, eta agerian geratu ziren ordu arte argitara sekula atera gabeko kontu ugari, eta are inoiz izan ez ziren gertakari ustezko asko ere. Edozeri heldu zioten, denetariko gorabeheraz baliatu ziren: halako sasiko semea zela, halakoren maitalearen izen-abizenak eta gizarte-maila, eta halakoren emazteak halako gorteatzen zuela. Eskandaluak eta bekatuak hainbestearino nahasi eta katramilatu ziren Txitxikoven auziarekin eta arima hilekin, ezen ez baitzegoen ulertze-

rik auzi guztietatik zein zen zentzugabeena: itxuraz, denek zituzten merezimendu berdinak. Azkenean paperak gobernadore militarren eskuetara iristen hasi zirenean, printze dohaka-beak ezin izan zuen ezertxo ere ulertu. Guztiaren laburpena egiteko agindu zioten funtzionario guztiz buruargi eta erne bati, eta zoratzeko puntuan egon zen, mataza haren hariari jarraitu ezinik. Garai hartan printzeak beste arazo asko zituen kezka bide, denetarikoak, zein baino zein gogaikarriagoa. Probintziako eskualde batean gosetea zegoen. Garia banatzera bidalitako funtzionarioek ez zuten beren eginkizuna behar bezala bete. Probintziako beste eskualde batean raskolnikak bazterrak nahasten ari ziren. Baten batek antikristoa jaioa zelako zurrumurrua zabaldu zuen haien artean, hilei ere ez omen zien bakerik ematen eta halako arima hil batzuk erosten zebilen. Damutzen ziren eta bekatu egiten zuten berriro, eta, antikristoa atzitzeko aitzakian, antikristoa ez ziren asko hil zituzten. Beste eskualde batean, berriz, mujikak lurjabeen eta polizi kapitainen aurka matxinatu ziren. Arlote batzuek aldarrikatu zietenenez, luze gabe mujikak

lurjabe bihurtu eta frakez jantziko ziren, eta lurjabeak, aldiz, oihal latzezko beroki lodiz jantzi eta mujik bihurtuko ziren, eta barruti oso batek, orduan lurjabe eta polizi kapitain gehiegi egongo zirela kontuan hartu gabe, uko egin zion zergak ordaintzeari. Indarra erabili behar izan zuten matxinoak menderatzeko. Printzea zeharo gogororita zegoen. Une horretantxe, zerga-biltzailea iritsia zela jakinarazi zioten.

— Sar dadila —esan zuen printzeak.

Sartu zen agurea...

— Horra zure Txitxikov! Zuk haren alde egin duzu, defendatu egin duzu. Bada, lapurrik handienak ere egingo ez lukeen gaiztakeria batean harrapatu dugu.

— Barkatuko didazu esatea, jaun ohoragarri hori, ez dudala oso ondo ulertzen zer gertatu den.

— Testamentu bat faltsutu du! Eta nola!... Zigorraldi ederra eman beharko genioke herritar guztien aurrean!

— Jaun ohoragarri hori, ez dut Txitxikoven alde egin nahi, baina hoben hori ez dago frogaturik: oraindik ez da hasi auzibidea.

— Baditugu frogak: atxilotu egin dugu hilaren ordeztarren jarri zuten emakumea. Hain zuzen ere, zure aurrean egin nahi diot galdeketa.

Printzeak, txilina jo, eta emakumeari deitze-ko agindu zuen.

Isilik geratu zen Murazov.

— Hoben arbuiagarriagorik! Eta, lotsaren lotsa, hiriko funtzionario nagusiak tartean dira, baita gobernadorea bera ere. Ez da gisakoa hura bezalako gizon bat lapur eta alprojekin nahastea! —esan zuen printzeak sutsuki.

— Baina gobernadorea oinordekoetako bat da; dagokiona eskatzeko eskubidea du; eta besteek nola edo hala etekina ateratzen saiatzea, jaun ohoragarri hori, gizakion berezko joera da. Aberats bat hil da, bere ondasunak zentzuz eta zuzenbidez banatu gabe; diruzaleak berehala inguratu dira bazter guztietatik, gizakion berezko joera da hori...

— Baina zergatik doilorkeriarik egin?... Zitalak halakoak! —esan zuen printzeak, haserre—. Nire funtzionarioetako bat bera ere ez da ona, doilor hutsak dira denak!

— Jaun ohoragarri hori!, eta gutariko nor da ona?, gutariko nor da behar bezalakoa? Gure hiriko funtzionario guztiak gizakiak dira, alderdi onak dituzte eta haietako askok ezin hobeto dakite beren lana, baina gizaki oro dago bekatutik hurbil.

— Afanasi Vasilievitx, zu zara prestutzat daukadan gizon bakarra, esadazu, mesedez, zergatik egiten duzu horren sutsuki denetariko zitalen alde?

— Jaun ohoragarri hori —esan zuen Murazovek—, zuk zital deritzezun horiek guztiak gizakiak dira. Nolatan ez defendatu gizakia, gaiztakerien erdiak zakartasunak eta ezjakintasunak eraginik egiten dituela jakinik? Guk, asmo txarrik gabe bada ere, bidegabekeriak egiten ditugu urrats bakoitzean eta besteren zoritxarraren eragile izaten gara une oro. Zuk ere, jaun ohoragarri hori, bidegabekeria handia egin duzu.

— Zer? —egin zuen oihu printzeak, elkarrizketaren nondik norakoaren aldaketa ezusteko horrek erabat zurturik.

Murazov isilik geratu zen lipar batez, zerbait hausnartzeko bezala, eta azkenean esan zuen:

— Behinik behin, Derpennikoven kasuan bai.

— Afanasi Vasilivevitx! Estatuaren oinarrizko legeen kontrako krimena sorterriari traizioa egitearen pareko da!

— Ez dut haren jokabidea zuritzeko asmorik. Baina zuzena al da eskarmenturik ezaz baliaturik limurtu eta atzipetu duten gazte bat zigortzea galbidera eraman dutenetako bat bezala? Izan ere, berdina izan da Derpennikoven eta edozein Voroni-Drianniren zoria, baina haien hobenak ez dira berdinak.

— Jainkoarren!... —esan zuen printzeak, urduritasun nabarmenez—. Zerbait dakizu horretaz? Esadazu. Hain zuzen ere, duela gutxi mezulari bat bidali dut Petersburgera, haren zigorra arintzeko aginduarekin.

— Ez, jaun ohoragarri hori, ez dut esan bada-kidala zuk ez dakizun zerbait. Hala eta guztiz, bada zertzelada bat mesede egingo liokeena, baina berak ez du baliatu nahi, zeren eta, baliatuz gero, kalte egingo bailioke hirugarren bati. Baina nago ez ote zenuen orduan arinegi jokatu. Barkatu, jaun ohoragarri hori, nire adimen ahularren arabera arrazoitzen dut. Zuri argi eta garbi

mintzatzeko eskatu didazu askotan. Agintaria izan nintzen garaian langile asko izan nituen nire mende, onak batzuk eta txarrak beste batzuk... Aintzat hartu beharko genuke norberaren iragana; bestela, dena odol hotzez aztertu ezean, eta hasieratik bertatik kargu hartuz gero, izutu egingo duzu mendekoa, eta ez du egia aitortuko; baina begikotasunez galdetzen badiozu, anaiak anaiari bezala, bere kabuz aitortuko du dena, ez du gupidarik eskatuko, eta ez du inoren kontrako gorrotorik sentituko, argi ikusiko baitu ez dudala nik zigortzen, legeak baizik.

Pentsakor geratu zen printzea. Une horretan-txe, funtzionario gazte bat sartu eta begirunez gelditu zen, paper-zorro bat eskuan. Kezka eta nekeek beren aztarna utzia zuten haren aurpegi gazte eta artean mardulean. Nabari zitzaion ez zuela alferrik jarduten zeregin berezietan. Eskribau-lanetan con amore aritzen ziren funtzionario bakan horietako bat zen. Ez zuen akuilatzen ez handinahiak, ez diru-goseak, ez besteak imitatu nahiak, lan egiten zuen etsirik zegoelako hor eta ez beste inon zerbitzatu behar zuela, horretarako eman ziotela bizia. Dena arretaz arakatu,

xehe-xehe aztertu, eta, auzirik korapilatsuenaren haria atzemanik, dena argitu, hori zuen bere lana. Eta nekea, ahaleginak zein lorik gabeko gauak oparo saritutzat jotzen zituen auzia azkenean bere aurrean argitzen hasten bazen, ezkurtuko arrazoiak argitara ateratzen baziren, eta sumatzen bazuen hitz gutxitan kontatu ahal zuela dena, zehatz eta argi, edonorentzat nabaria eta ulergarria izateko moduan. Esan liteke ikasle bat ez litzatekeela poztuko esaldi ilun bat argitu eta idazle handi baten ideiarenekin benetako zentzua argitzean, funtzionario hura auzi korapilatsu bat argitzen zuenean pozten zen bezainbeste. Hala ere, [...]

— ... garia gosetea dagoen lekuetan; funtzionarioek baino hobeto ezagutzen dut nik eskualde hori: neronek ikusiko dut bakoitzak zer behar duen. Eta, ondo baderitzozu, jaun ohoragarri hori, raskolnikekin ere hitz egingo dut. Gogokoago dute gurekin herritar xumeekin mintzatzea. Agian, haiekin bakezkoak egiten lagunduko dut horrela. Eta ez dizut dirurik onartuko, lotsagarria litzateke norberaren onuran pentsatzea jendea gosez hiltzen ari den bitartean. Garia daukat bil-

tegian gorderik; sorta bat bidali dut Siberiara orain dela gutxi, eta datorren udan gehiago eramango dute.

— Jainkoak bakarrik saritu ahal dizu zerbitzu hori, Afanasi Vasilievitx. Nik ez dizut hitzik esango, zeren eta, zerorrek ondo dakizunez, hitzek ez baitute inolako indarrik honelako kasuotan. Hala ere, uztazu zertxobait esaten lehen egin didazun eskariaz. Esadazu: badut eskubiderik gauzak dauden daudenean uzteko? Zuzena eta gisakoa litzateke nire aldetik zital horiei barkatzea?

— Jaun ohoragarri hori, ez da bidezkoa jende horri zitala deitzea, batez ere kontuan izanik [haietako] asko herritar zintzoak direla. Egoera zailak bizitzea egokitzen zaio askotan gizakiari, jaun ohoragarri hori, oso, oso egoera zailak. Batzuetan ematen du bat edo beste guztiz erruduna dela, baina, gauzak sakon aztertuz gero, irudipen hori okerra dela konturatzen gara.

— Baina zer esango dute haiek gauzak dauden daudenean uzten baditut? Horren ondotik, haietako batzuk areago harropuztuko dira, eta, besteak beste, beldurtu egin nautela esango

dute. Haiexek izango dira begirunea galduko didaten lehenak...

— Jaun ohoragarri hori, uztazu nire iritzia agertzen: elkartu denak, aditzera eman guztia-
ren berri dakizula, eta oraintxe nire aurrean egin
duzun bezalaxe azal ezazu haien aurrean zeure
egoera, eta aholkua eskatu: zer egingo luke
haitako bakoitzak zure egoeran balego?

— Baina zuk uste duzu bihozberatasunak
inolako eraginik izango lukeela haiengan, azpi-
keriekin eta aberastearekin zerikusirik ez baitu?
Sinetsidazu, barre egingo dute nire lepotik.

— Ez dut uste, jaun ohoragarri hori. Errusia-
rra, denik eta gaiztoena ere, gai da zuzentasuna-
ri atzemateko. Judu batek beharbada bai, baina
errusiarrek ez. Ez, jaun ohoragarri hori, ez ezku-
tatu ezer. [Nire] aurrean bezalaxe hitz egin haiei.
Haiek, iraindu egiten zaituzte; diotenez, handi-
nahia zara, harroputza, ez diezu jaramonik egi-
ten besteen iritziei, uste sendoa duzu zeure
buruarengan; bada, ikus zaitzatela zaren bezala-
koa. Zer axola zuri? Zu zuzen zaude. Jainkoaren
aurrean zeure bekatuak aitortuko zenituzkeen

bezalaxe hitz egin, haien aurrean zaudela ahazturik.

— Afanasi Vasilievitx —esan zuen printzeak, zalantzan—, hausnartuko dut hori. Bitartean, eskerrik asko zure aholkuarengatik.

— Eta Txitxikov askatzeko agindu, jaun oho-ragarri hori.

— Esaiozu Txitxikov horri lehenbailehen alde egiteko hemendik, zenbat eta urrunago, hobe. Neure kabuz, berari sekula ez niokeen barkatuko.

Diosal egin zuen Murazovek, eta printzearenetik zuzenean joan zen Txitxikovengana. Aldarte oneko aurkitu zuen Txitxikov, sukalde guztiz on batetik toskazko plateretan ekarritako bazkari nahikoa on bat patxada ederrean jaten. Elkarriketako lehen esalditik bertatik, agureak igarri zion ordurako hitz egina zela auzi korapilatsuez arduratzen ziren funtzionarioetakoren batekin. Halaber, ulertu zuen ezin ikusizko legelari trebe batek esku hartu zuela aferan.

— Entzun, Pavel Ivanovitx —esan zuen—, askatasuna ekarri dizut, oraintxe bertan hiritik alde egiteko baldintzarekin. Bildu zure puska

guztiak eta zoaz Jainkoarekin. Ez berandutu minutu bat ere, gauzak uste baino okerrago daude eta. Badakit hemen badela gizon bat aldarte oneko jartzen zaituena; bada, isilpean jakinarazten dizut beste kontu bat ateratzen ari dela argitara, hain larria, ezen ez baitago salbatuko zaituen indarrik. Berak, noski, beste herritar batzuk ere hondatu nahi ditu, baina dena argituko da azkenean. Aurrekoan zurekin izan nintzenean, zure egoera ona zen, oraingoa baino askoz ere hobea. Txantxetan ez hartzera aholkatzen zaitut. Lehia biziz eta elkar joka eskuratu nahi dituzte denek ondasun materialak, beste munduko bizitzan pentsatu gabe hemengo bizitzan ongizatea lortzerik balego bezala; bada, nire ustez, ez dira horiek ondasunik funtsezkoenak. Sinetsidazu, Pavel Ivanovitx, elkar zapaldu eta xehatzeraino denek irrikatzen duten guztiari uko egin eta espirituzko ondasunek dakarten ongizatea gogoan hartzen ez dugun bitartean, ondasun materialetatik ez da inolako ongizaterik sortuko Lurrean. Iristear dago gosearen eta pobretasunaren garaia, hala herri osoarentzat, nola gizarte-sail bakoitzarentzat... Argi dago hori. Diotena

diotela, arimaren mende dago gorputza. Nolatan nahi dute gauzak behar bezala joatea? Ez pentsatu arima hiletan, zeure arima bizidunean baik, eta, Jainkoaren laguntzaz, har ezazu beste bide bat! Ni ere hemendik joango naiz bihar. Azkar ibili!, ni hemen ez banaiz, ezbeharren bat gerta dakizuke eta.

Hori esandakoan, han joan zen agurea. Pentsakor geratu zen Txitxikov. Bizitzaren zentzua nahikoa garrantzitsua begitandu zitzaion berriro. «Arrazoi dik Murazovek —esan zuen—, iritsi zaidak beste bide bat hartzeko ordua!» Hori esandakoan, espetxetik atera zen. Jagole batek kutxa eraman zuen beraren atzetik, arrastaka; beste batek, berriz, arropa zuriaren fardela. Selifan eta Petrushka izugarri poztu ziren nagusi jauna aske ikusi zutenean.

— Ea, mutilok —esan zien Txitxikovek, txeratsu—, bil itzatzue gauza guztiak, alde egin beharra zeukaagu.

— Berehalaxe, Pavel Ivanovitx —esan zuen Selifanek—. Inondik ere, bidea irmo dago, elur asko bota du eta. Egia esan, bazen garaia hiri

honetatik joateko. Hainbesterainoko gorrotoa hartu diot, ezen ez bainuke berriro ikusi nahi.

— Hoa arotzarengana eta gurpiletan irrista-gailuak ipintzeko eskatu —esan zuen Txitxikovek, eta hirira joan zen, bera bakarrik eta azken agurra egitera inoren etxera inguratzeko asmorik gabe. Ez zegoen batere lasai gertakari haien guztien ondotik, batez ere berari buruzko esamesa ugari zebiltzalako hirian, ezin erdeinagarrigoak denak. Ustekabeko topo egiteak oro saihesturik, Navarinoko ke eta sugar koloreko oihala saldu zion merkatariaren dendan soilik sartu zen, itzalgaizka; beste lau arshina oihal erosi —fraka eta galtzak egiteko adina—, eta lehengo jostunarengana joan zen. [Prezio] bikoitzaren truke, jostuna ohi baino lehiatsuago jardutera erabaki zen, eta gau osoan lan egitera behartu zituen jostundegiko langile guztiak, kandelan argitan, orratz, lisa-burdina eta hortzekin, eta biharamunean prest zegoen fraka, berandutxo baina. Zaldiak kotxeari loturik zeuden ordurako. Txitxikovek, hala ere, saiatu egin zuen fraka. Ondo josirik zegoen, aurrekoaren berdinberdina zen. Baina, ai!, buruan soilgunetxo bat

zuela konturatu zen, eta tristuraz esan zuen: «Zergatik lerratu naiz hain bortizki etsipenera? Buruko ileak erauztea ere!». Jostunari ordaindu, eta hiritik alde egin zuen azkenean, oso gogoaldarte bitxiko. Ez zen lehengo Txitxikov bera. Lehengo Txitxikoven hondarrak-edo ziren. Lurre-ra bota duten etxe zahar batekin aldera zitekeen haren gogo-aldarte: hondakinen gainean beste eraikin bat altxatzeko eraitsi dute etxe zaharra, baina oraindik ez dira etxe berria erakitzen hasi, arkitektoak ez dituelako planoak ekarri eta langileak zer egin ez dakitela geratu direlako. Mura-zov zaharrak Txitxikovek baino ordu bete lehenago alde egin zuen hiritik, Potapitxekin batera, kibitka arrunt batean; Txitxikov abiatu eta ordu bete geroago, berriz, printzearen agindu bat zabaldu zen hirian, Petersburgera joatekoa zela eta funtzionario guztiak batera ikusi nahi zituela esanez.

Gobernadore militarren etxeko areto nagusian hiriko funtzionario guztiak bildu ziren, gobernadoretik hasi eta kontseilari titularrera: sailburu eta bulegoburuak, kontseilariak, aholkulariak, Kisloiedov, Krasnonosov, Samos-

vistov, eskupeko diru zikinak onartzen zituztenak eta errefusatzen zituztenak, tolesez beteak, tolesez erdi beteak eta tolesik gabeak; jeneralaren agerpenaren zain zeuden, jakinminez denak eta ez guztiz lasai inor. Agertu zen printzea, ez goibel eta ez alai: irmoa zuen begirada, hala nola ibilera ere... Diosal egin zioten funtzionario guztiek, soina nabarmenki makurtuz haietako askok. Buru-makurtu arin batez erantzun, eta honela hasi zen printzea:

— Petersburgera joatekoa naizela, egokia iruditu zait guztiokin elkartzea eta alde egitera bultzatu nauten arrazoietako batzuk azaltzea. Oso auzi lotsagarria hasi da gure hiri honetan. Uste dut hemen zaudenetako askok badakizuela zertaz ari naizen. Auzi horrek beste afera batzuk atera ditu argitara, hura bezain arbuigarriak, zeinetan nahasirik baitaude orain arte nik presutzat neuzkan funtzionario asko. Orobat jakin dut auzibidea ahal beste korapilatzeko asmo ezkutua dagoela, auzia ohiko lege-bideetatik epai dadin eragozteko. Badakit nor izan den eragile nagusia eta ezkutuan nori [...], nahiz eta trebetasun handiz estali duen bere esku hartzea.

Gauzak horrela, jakinarazi behar dizuet nire asmoa ez dela lege-bide burokratikoetara jotzea, epaiketa militar berehalakoa egitea baizik, gerra-[denboran] bezala, eta espero dut erregeak horretarako baimena emango didala dena azaltzen diodanean. Auzi bat bide zibiletik argitzea erabat ezinezkoa bada, armairuak [papez] mukuru beterik badaude eta, azkenik, auziarekin inolako zerikusirik ez duten gertakari ustezkoen lekukotasun gehiegiak eta gezurrezko salaketek berez ilun samarra den auzi bat areago iluntzen badute, uste dut epaiketa militarra beste irtenbiderik ez dela geratzen, eta jakin nahi nuke zein den zuen iritzia.

Isildu egin zen printzea, erantzunaren zain balego bezala. Begiak lurrean landaturik zeuzkaten denek. Zurbil zeuden haietako asko.

— Badakit beste afera baten berri ere, nahiz eta horretan nahasirik dabiltzanak ziur dauden inork ez dakiela horren berririk. Auzi horrek ez du ohiko bide burokratikoa hartuko, ni neu izango bainaiz auzi-jartzaile eta salatzaile, eta ezin gezurtatuzko frogak aurkeztuko ditut.

Baten batek dar-dar egin zuen funtzionario-taldearen erdian; asalatu egin ziren izukorrene-tako batzuk ere.

— Eragile nagusiei, esan beharrik ez dago, gradua eta ondasunak kenduko dizkiete, eta gainerakoak kargutik egotziko dituzte. Badakit errugabe asko zigortuko dituztela errudunekin batera. Zer egingo zaio! Gertaturikoa arbuiagarriegia da eta justizia eskatzen du. Dena dela, badakit zigorrak ez dituela besteak zentzatuko, beste batzuek beteko dute kargutik egotzitakoen lekua, eta ordu arte zintzo izanikoak maltzur bihurtuko dira, eta orain agintarien uste ona irabaziko dutenek iruzur eta traizio egingo dute gero, baina, hala ere, bihotz-gogor jokatu beharra daukat, gertaturikoak justizia eskatzen du eta. Badakit zorrotasun gupidagabea leporatuko didatela, baina badakit beste batzuek [...] leporatuko didate [...] Orain, ezinbestean izan behar dut justiziaren tresna bihozgabea, errudunen buruaren gainera eroriko den aizkora.

Nahi gabe, halako ikara batek hartu zituen aurpegi guztiak.

Printzea lasai zegoen. Haren aurpegiak ez zituen salatzen ariman sentitzen zituen haserrea eta amorrua.

— Orain, bere eskuetan askoren zoria duen hau berau, inoren erreguek sekula bigunduko ez zuketen hau berau, zuen oinetara abailtzen da, guztioi erreguka. Dena izango da ahaztua, ezabatua, barkatua; nire eskaria betetzen baduzue, guztion alde egingo dut. Hona eskaria. Badakit mehatxuek, zigorrek eta bestelako baliabideek ezin erauz dezaketela zuzengabekeria: erro sakonegiak egin ditu dagoeneko. Eskupeko diru zikinak onartzeko joera arbuiagarri hori ezinbesteko eta premiazko bilakatu da guztiontzat, are doilor jaio ez direnentzat ere. Badakit dagoeneko askori ezinezkoa gertatzen zaiela jokabide orokorrari gogor egitea. Baina orain, nork bere sorterrria salbatu behar duen une sakratu eta erabakigarrian bezala, herritar oro dena jasateko eta sakrifikatzeko prest agertzen den une horretan bezala, dei bat egin behar diet oraindik ere bularrean bihotz errusiarra duten eta nola edo hala «bihotz-zabaltasun» hitza ulertzen duten guztiei. Ez gara hasiko orain eztabaidatzen guta-

riko nor den errudunagoa! Ni, beharbada, inor baino errudunagoa naiz; nik, beharbada, gogorregi jokatu nuen zuekin hasieran; beharbada, gehiegizko mesfidantzaz, muzin egin nien niretzat baliagarri izateko asmo zintzoa zuten askori, nahiz eta nik ere, neure aldetik, haiei [zer gaitzetsirik] izan. Justizia eta sorterriaren ongia benetan maite bazituzten, ez zuten zertan iraintzat hartu nire harrokeria; aitzitik, beren handinahia ito eta beren nortasuna sakrifikatu behar ko zuketena. Ezinbestean, haien abnegazioaz eta ongiarekiko atxikimendu zintzoaz ohartuko nintzatekeen eta, azkenean, aintzat hartuko nituzkeen haien aholu baliagarri eta zuhurak. Nolanahai ere, lehenago dagokie mendekoei nagusiaren izaerara moldatzea, nagusiari mendekoenera baino. Hori, gutxienez, legezkoa da, eta errazagoa, mendeko askorentzat nagusi bakarra baitago, eta nagusi bakoitzeko, ordea, ehunka mendeko. Baina utz dezagun orain alde batera nor den errudunagoa. Kontua da sorterria salbatu beharra daukagula; hiltzorian dugu sorterria, eta gu geu gara horren errudunak, ez hogeit hamar atzerritarren inbasioa; legezko gobernuaren

alboan beste agintaritza bat eratzen ari da, legezko edozein gobernu baino askoz ere ahaltsuagoa. Ezarrita daude haren baldintzak; finkaturik dago gauza bakoitzaren balioa, eta denek dakite prezioen berri. Eta ez dago agintaririk, legegile eta agintari guztietan jakintsuena izanik ere, kalteak konpontzeko gai denik, nahiz eta funtzionario gaiztoen egintzak murrizten saiatu beste funtzionario batzuk izendatuz haiek zaintzeko. Matxinaden garaian herria etsaiari aurre egiteko armatzen zen bezala jazarri behar du gutariko bakoitzak zuzengabekeriaren aurka; horretaz jabetzen ez garen bitartean, alferrikoak izango dira ahalegin guztiak. Odol berdina dabil gure zainetan, odola dugu lokarri, eta, hain zuzen ere, odolkode eta errusiar gisa mintzo natzaizue orain. Bihotz-zabaltasunaren ideia ulertzen duen zuetako bakoitzarengana jotzen dut. Edonon dagoela gizabanakoari dagokion eginbeharra gogora ekartzeko eskatzen dizuet. Dei egiten dizuet hurbilagoetik aztertzeko zuetako bakoitzaren eginbeharra eta Lurrean dituen betebeharrak, zeren eta dagoeneko oso ilun baitakusagu dena, eta neke handiz [...]